

K L A S I K O A K

LUKREZIO

De rerum natura

K.a.

LUKREZIO

5

Erroman

0



Gauzen izaeraz

ISBN 8488303270



9 788488 303271



Euskaratzailea: Xabier Amuriza

Gauzen izaeraz

ENEASTARREN AMA,
GIZAKIEN ETA
JAINKOEN GOZOTASUN,
VENUS ELIKATZAILE,
ORTZIKO ZEINU
LERRAKORREN AZPIAN,
ITSASO ONTZITSUA ETA
LEHOR FRUITUTSUA
HANPATZEN DITUZUNA!
BIZIDUNEN IZATE ORO
ZURI ESKER SORTZEN
ETA EGUZKI PRINTZAK
BEGIESTERA ALTXATZEN
DENEZ GERO: ZURE
AURREAN ETA ZURE
HELERAN HAIZEAK IHESI
DOAZ, LUR ARTATSUAK
AZPIAN LORE LEUNAK
ZABALTZEN DIZKIZU,
ITSAS LAUTADEK
IRRIBARRE DAGIZUTE
ETA ORTZI BAREAK ARGI
HEDATUAN DIZDIZ...

GAUZEN IZAERAZ

LUKREZIO

Gauzen izaeraz



Euskaratzailea: Xabier Amuriza
Berrikuslea: Julen Kalzada
Hitzaurregilea: José Ramón Arana

Lehen argitalpena: 2001eko uztailean

© Itzulpenarena: Xabier Amuriza
© Klasikoak, 2000
Begoñako Andra Mari, 16 • 48006 Bilbo
Tel.: 94 • 416 14 89 / Fax: 94 • 416 63 48

Erabat debekaturik dago, Copyright-titularen idatzizko baimenik gabe, legeek ezarritako zigorraren pean, zatika edo osorik obra hau birsortzea edozein bitartekoz edo prozeduraz, erreprografia eta trataera informatikoa barne direla, baita beronen aleak alokapen edo mailegutza publikoaren bidez banatzea ere.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak onetsia 2001-VII-4

ISBN: 84-88303-27-0
Lege gordailua: BI-1978-01

Fotokonposaketa: L&A Diseinua.
Begoñako Andra Mari, 10 • 48006 Bilbo

Inprimaketa: Gestingraf L. B. A.
Ibarsusi Bidea, 3 • 48004 Bilbo

Diseinua eta Maketa: A.I.C.
Infante Don Juan Etorbidea, 26 • 20008 Donostia

HITZAURREA

LUKREZIO, POETA INTELEKTUALA

«Lukrezio literatur generoen
zatiketaren gainditze jeniala da».

Goethe

Gauzen izaeraz liburuaren gaurko irakurleak bi inpresio jasaten ditu ezinbestean: zalantza, filosofiako tratatu bat bertsoz idatzita aurkitzearen aurrez, eta ezustea, atomismoa, hots, oraingo fisikaren ikuskera, dagoeneko antzinako munduan hain esplizituki eta biribilki formulatua izanaz. Batzuek filosofia eta poesia uztargaitzak direla ere usteko dute eta, lan honen balio poetikoaren ebidentzia ukatu ezin dutenez gero, ustezko uztartezin horrexekin esplikatzeko dute bere barne dramatismoa¹.

Ni hitzaurre honetan kontrako tesia justifikatzeko saiatuko naiz: Lukreziozko poesiak bakarrik dauka gaitasuna, filosofia atomistak, erromatar munduan zabaltzerakoan, planteatzen zion zenbait problema harmonizatzen. Goetheren iritzia zein zuzena izan zen agertuko da.

Poeta honen bizitza ia guztiz ezezagun zaigu. Ez bere jaiotze data (K.a. 98) ez bere heriotzarena (K.a. 54) dira segurrak. Mundu guztia bat datorrela dirudi, 44 urtez bizi izan zela esatean. Ez dakigu Erroman ala Ponpeian jaio eta bizi izan zen ere, ezta bere jatorri patrizio ala plebeioaren berri ere, denetik esaten baita. Eta amodio-edabea edateagatik zoratu eta azkenean bere buruaz beste egin ote zuelakoa hobe alde batera utzi, hori kristau polemika berantiarretan sortua baita². Beste poeta handi batzuen, Homero eta Calderonen, kasuetan bezala, haren biografia argitu ezinekoa zaigu. Hainbat hobeto, beneran ardura digunari, utzi zigun lanari, bere lan bakarrari, ekiteko.

Natura jainkoen aurka

Antzina filosofian lotura estua dago defendatzen diren ideien eta hauek burutzeko era pertsonalaren artean: filosofia, jakintza bat ez ezik, bere arau eta arrazoibideekin, *bizikera* bat da, bere aginduekin eta, batez ere, emozioen kontrolarekin. Gaurko munduan dimentsio hau erabat desagertu da.

Baina Lukrezio autokontrolaren ikuskeran bereizten da bere garaikideengandik. Haien energia aurrezte gisan eta joera afektiboaren oreka gisan ulertu zuten. Berak, oster, botere modu gisan: horregatik, oso sentikorra da indarrarekiko eta gure indarrari jarkitzen zaion zernahirekiko. Lukrezio autokontrolari jarkitzen zaion edozer, errore gisan ez ezik, ahalaren ikuspegitik eta arabera interpretatzen du: borroka gisan. Eta bere diagnostikoa azkarra eta zorrotza da: gizakiak ahalik handiena esleitzen dion zera jainkoak dira. Lukrezio erlijioari erasotzen dio, honek jainkoak *ahalguztidun* egiten dituelako, ez jakintsu edo probidente, indar gizagainekoz eta suprakosmikoz hornituak baizik: mundua eurok eginga izango da, noiznahi esku har lezakete euren uste gabeko eta kontrol gabeko ekitez (ekaitzak, zigorrak mundu honetan eta bestean, heriotza eta gaixotasuna...). Gaitz nagusia, beraz, erlijioa da Lukrezioentzat³. Eta hartan sinestea superstizioa da, ezjakintzan oinarritzen baita, zeinaren ondorioek gizakien bizitzara larritasuna dakarten⁴. Jainkoengandik Lukrezio ziori ardura diona ez da ez haien existentzia edo in existentzia, ez haien egiazko izaera, ez haien ustezko probidentzia, gizakiok haietat egiten dugun irudia eta honen bitartez haien guregan gauzatzen duten ahala baizik.

Horregatik, ahalgabe uzten gaituen erlijioaren aurrean, ahala geure eskuetara bihurtzen duen eta larritasun horretatik, *anxia cordis* horretatik, askatzen gaituen jakinduria bat aurkezten du. Jakinduria hori filosofia da. Eta bere gaia naturaren teoria da, ez izatearen teoria, Aristotelesengan bezala, edo izatearen mailena, Platonengan bezala⁵.

Lukrezioengan *naturaren teoria* ez da, XVII. mendetik gertatzen denez, jakintza partzial bat, zer politikoaren eta antropologikoaren aurrez, esaterako, jakintza oso bat baizik, non kosmogonia, zologia, antropologia, meteorologia, astronomia arlo partzial gisan sartzen diren (6). Natura, bada, *dagoenaren multzoa* da. Eta naturaren teoria gero "metafisika" deituko zenaren teoria da, hots, errealitatearen teo-

ria. Honela, Lukrezio presokratikoen lehen asmoa berreskuratzen du, zeintzuek natura osoaren (*peri physeos*) printzipioak, izaera, oinarria eta garapena eztabaidatzen zituzten.

«Naturak» Lukrezioengan esanahi bikoitza dauka. Batetik, gauza guztien «sortze» izatea: berak sortzen eta berritzen ditu etengabe kosmoko gauza guzti-guztiak, eta bere burua osotasun gisan berritzen du: «ama» da, «sortzailea», «jarioarazlea»... Hau erraz samar esaten dugu, baina gure ulertzeko zailtasuna gure naturaren irudia XVIII. mendeko fisikaren mende egotearena da, zeinaren kategoria nagusia inertzia den. Organismo bizidun bat ikustea gure tentsio fisiko-matematikoen aurka dago. Nahiz eta egia den erromantizismoak —eta mugimendu ekologista berriek— hedatu zuen naturaren organismo erako nozioak berriro ere antzinako nozio horretarantz gartzala. Hala ere, guretzat oraindik naturaren irudi bikoitzak dirau, gorputz fisiko gisan eta gorputz bizidun gisan.

Baina Lukrezio badu baita natura, sortzaile ez ezik, sunsitzzaile ere baden pertzepzio zorrotza: ekaitzek bat-batean erazten dituzte, nekazariei edo oihanei haztea hamarkadak kostatu zaizkien zuhaitzak, ibaiek gainez egiten dute, heriotzak, lehentxoago edo geroxoago, bizidun guzti-guztiak aurrean eramaten ditu. Gure garaion, naturaren ikuspen sunsitzzaile hau askoz gaitziago zaigu, harengandik ama baten altzo abegikorra bakarrik nahi baitugu. Eta ideologia ekologistek alde hau desgogora, gordeka bezala eta beste erremediorik ez dagoelako bakarrik bakarrik aitortzen dute. Baina gure esku sartzerik gabe galduak diren milioika espezie gogoratzea nahikoa da, naturaren alde lazgarri honetaz berehala jabetzeko. Zeren, Lukrezio formula-tzen duenez, «izaki batzuk desagertu ezik, berrientzat ez dago tokirik»⁷. Beharbada mendebaldeko pentsalaririk koherenteena, honetan, Sadeko markesa izango zen, krimenaren atsegina justifikatzeko, naturaren sunsigarritasuna aduzitzen zuena.

Sorkuntzaren eta sunsipenaren arteko kontzeptu bitartekaria transformazioa da: naturan ezer ez da guztiz sortzen ez sunsitzten, dena transformatzen da⁸. Lukrezioentzat, ez sunsipena ez erabateko sorkuntza barik, transformazioa bakarrik egoteak esan nahi du natura bera dela, eta ez jakinkoak, bere baitatik diharduena, autonomoa eta autosufizientea dena⁹. Naturaren autonomia eta autosufizientzia bere izaeraren consubstantzialak dira.

Naturaren autosufizientzia hau infinitutasunaren kontzeptuz indartzen da: atomo zenbatasunean infinituz osaturik dago bera, infinituki handia da, bere materia kopuruz infinitua eta hutsunea ere infinitua da¹⁰. Elementu hauen konbinazioak, denbora mugagabearekin batera, antizipazio ahalmen oro gaunditzen dute eta bere emankortasun eskergea esplikatzeko, mundu posibleak, kopuruz eta tamainaz ere infinituak izan daitezkeenak.

Natura jainkoen aurrean indartsua da, infinitua delako, hauek inondik ere ez daukaten zera berau. Naturak jainkoak suplantatzen ditu eta bera bihurtzen da erreferentzia gune. Baina honek Lukrezioren ardatz asmo askatzaileari arazo bat planteatzen dio berehala: nola beldurra baztertu. Hain izaki ahaltsuak ez ote du jainkoek eurek baino izu handiagoa eragingo? Zeren gizakien jainkoekiko erlazioa ahalaren mailan baitzen, hain zuzen, inferioritatezkoa.

Itxurazko kalezulo honi aurre egiteko, Lukreziok naturaren beste izaera funtsezko bat eranstean du: fininitutasuna. Lukreziok ez du infinitutasuna fininitutasunarekin bat egin gabe asmatu. Atomo moten fininitutasuna, euron konbinazio arauen fininitutasuna, eta, batez ere, sortutako formen, naturak burututako gauzen fininitutasuna. Ez gutxi dau delako, (nork zenbatu ditzake?), baizik gauzen izatearen esentzia euren izatean irautean, mugatik ez haragotzean datzalako. Superstizioa sortzen da gizakiek ez dakitelako

«zer daitekeen eta zer ez daitekeen izan eta, azken batez, zergatik daukan gauza bakoitzak ahalmen mugatua eta zergatik zaion muga bat hain barneki inherentea»¹¹.

Hesiodo zaharraren oihartzuna dugu berriro hemen, gauzen mugapenaren ideiaz (*hérkos*), baina oso esanahi ezberdinez: Iskiako poetarengan, muga hori Zeusek berak gauzen munduko, baita giza munduko ere, banakuntza ordenatua bermatzeko babestua zen bitartean eta, beraz, jainko handia justiziaren berme bilakatzen zen bitartean, Lukreziorengan muga hori, jainkoen agintetik autonomoa ez ezik, euron aurrez dago eta dihardu, jainkoak desplazatzeko, hain zuzen.

Beharbada estoizismoarekin konparazio labur bat egitea ondo datorke. Kontzeptzio hau puntu batean bat dator estoikoenarekin: bere materialismoan, errealitate oro materiaren forma bat besterik ez baita. Pare bat puntutan, ostera, guttiz ezberdina da estoikoenetik. Lehenik, estoikoek materia hau continuum bat bezala dutela: bada substratu

bat, (*pneuma*), zeinaren dentsitate handiagoak ala txikiagoak izaki mota ezberdinak esplikatzeko dituen (bizigabeak, landareak, animaliak, gizakiak); hutsunea kosmotik at bakarrik dago. Lukrezioren atomismoa desjarraia da eta hutsunea edozein gauza motaren barruan sartzen du: ez dago hutsuneak barnatu gabeko materiarik, ez materiak hornitu gabeko hutsunerik. Horregatik, Lukrezioren unibertsoa estoikoena baino hauskorragoa da, jarraitasunak beti ere helduleku bat, errealitatearen plus bat ematen baitu.

Ezberdintasunaren bigarren puntu garrantzitsua fininitutasunari dagokio, zeina estoikoek kosmo osoarentzat baiesten duten. Fininitutasun espazial hau, ostera, infinitutasun tenporalez konpentsatzen dute: mundu bakarra dago, geurea, baina aldizka gutxieneko energia printzipiora –sura edo hazi germinalera– murrizten duten deflagrazioen mende dagoena eta berriro ere bere baitatik birsortzen dena, palingenesia perfektuki arautu eta amaigabea. Palingenesiak denbora arbuizatzea daramatza, prozesuetan iraunkor denarekin bat egitean, haien errepikatzearen eta, beraz, betiraunaren jakile: naturaren legeak itzulgarriak direla baiesteke euren era berezia da¹². Lukrezioren kosmoa ere suntsigarria da: gai honetan ez du gezurrezko kontsolapenera lerramakeen engainurik nahi. Suntsipen honen legeak eta unea guri ezezagun zaizkigu. Baina gertaera bakoitza gertatze bakarra da, *unicum* bat da, ez dago bigarren aukerarik. Beharbada gaurko fisikaren terminoetan, Lukrezioren denbora denbora itzulgaitza dela eta haren naturak, beraz, historia bat daukala esan beharko litzateke, estoikoena itzulgarria eta historia gabea den bitartean. Naturaren historikotasun honetantxe oinarritzen da *carpe diem* delakoa, unea pozez bizitzea: beste berdinek ez dago.

Natura sortzaile-suntsitzaile, infinitu-finituaren ikuskera honetatik dator Lukrezioren obraren dramatismoa, ez poesiararen eta filosofoaren arteko ustezko oposizioetik. Zeren naturak andere gisan gobernatzen baitu, eta bere «desbideagatik» gaude historiara, historia pentsagaitzera zabalik.

Pertsuasioa eta egia

Baina teoriarekin bakarrik ez da lortzen jakintzaren helburua: superstizioaren izua lasaitzea. Hori lortzeko, ezagutzailen arimara sosegua eraman behar da eta hori predikatzen den egiari buruz per-

tsuadituz bakarrik daiteke. Egiaz gainera, diskurtsoak pertsuasiboa izan behar du. Eta horixe da erreformatzailearen zeregin nagusia: pertsuasioa eta egia bat egin. Lukreziok hori diskurtso mota batekin bakarrik, *poesiarekin*, lortzekoa dela uste du.

Horretarako, poesian diskurtso bereziki irrazionala ikusten zuen tradizio jadanik mendetsuaren aurka borrokatu behar izan zuen: adierazlerik esplizituena eta argiena Platonen *Ioia* da, beronen *Politeian* egiten duen poeten gaitzespena ez aipatzearren¹³. Baina, gainera, Epikurok berak ere, bere maisu handiak, uste zuen poesiak grinak berotzen zituela eta, beraz, irakaspen filosofikoaren oinarritzko helburuari erasotzen ziola: lasaitasuna lortzeari. Horregatik, Lukreziok bere poema argitaratu zuenean, epikurotarrek eurek ere albo egin zioten¹⁴.

Poesiara jotzean, Lukrezio egiteekin erakusten ari da egia denentzat eskuragarri bat transmititzeko eta lasaitasun askatzaile hori eragiteko gai dela. Orduan, Lukrezio artean ez bezalako erronka baten aurrez aurkitzen da: bere eskola filosofikoaren aurrez ez ezik, antzinako munduak filosofiari buruz zeukan ikuskera osoaren aurrez.

Hori gutxi balitz, latinez lanketa filosofikorik ezak sortzen zizkion zailtasunak gehitu behar dira: terminologia finkaturik ez, buruerasmatzailerik ez, zeintzuetan hizkuntza aurretik doan, izaera elikatzailea daukan...¹⁵.

Poesia da, beraz, denen eskuragarri dagoen eta denen askapenerako eragingarri den egia transmititzeko gai den bakarra.

Zailtasun hauen guztion irtenbidea aurkitzean dago Lukrezioren talentuaren distira, ez orain poeta gisan bakarrik, *tout court* idazle gisan baizik: zeren Lukrezio ez baita gai filosofikoez idazten duen poeta, edo bertsoz idazten duen filosofoa bakarrik, egia eta pertsuasioak bat egiten duten diskurtso mota bakarra sortzen duena baizik.

Bat egite hau bi eratarata lortzen da: darabiltzan osagai azaltzaileen bidez, eta irakurlearekiko bere erlazioen erritmoaren bidez. Alderdi biok puntu batean batzen dira: irakurlearen obrako jarreran. Ez daiteke hartzaile intelektual soila izan, idazlea unibertsoa nola egina den eta nola diharduen azalduz joango litzaiokeena: azalpena denik egiazkoena izanik ere, irakurlea beti problematik at legoke,

pertsuasioak, berriz, tratatzen denarekin irakurlearen inplikazioa esan nahi du. Baina, gainera, Lukrezioren oinarritzko ikuskera filosofikoaren aurka lihoake: mundua etengabeko mugimenduan dabil, baita bertan dauden zer guzti-guztiak ere. Eta gizakia zer horietariko bat da: ezagutza sentimenetatik hasten delako eta ezagutzarik behinena sentsoriala delako baiespena gizakiaren kosmoango inkardinazioaren ideiatik dator, hain zuzen. Hura zer pasibo bihurtzea mugimendu kosmiko pozgarri honetatik apartatzea litzateke. Irakurleak, beraz, naturaren fluxuetan, honen botere ordenatuetan, barruko izan behar du.

Obrak, beraz, esan ez ezik, irakurlearen gogoetamena estimulatu behar du. Eta gogoeta ez da oso egiazkoak izan daitezkeen enuntziatuen ikasketa hutsa. Gogoeta egiteak beti aurea hartzea esan nahi du, kuestionatzea, oinarriak bilatzea, ideiak eta gertakariak lotzea, inferitza, hitz batez. Lukrezio ez da informazio egiaztatuak eta arrazoituak eman gabe geratuko. Baina interesgarriena da irakurlea haietan nola inplikatzeko duen.

Irakurlearen inplikazio hau lortzeko, lau prozedura nagusi darabiltza: irakurlea solaskide bihurtzea; tesi bakoitza berau finkatzen den sentsazioaren eta oinarritzko dituen inferentzien perspektiba bikoitzetik arrazoitzea; konparazioa; eufonia. Hauetako bakoitzari buruz pare bat gauza esango dut.

Gauzen izaera ez da errealitateari buruzko tratatu abstraktu gisan aurkezten, nahiz eta antzinako liburu filosofiko gutxiak daukan halako sistematikotasun mailarik. Aitzitik, ordea, irakurlea lehen-lehenik «zu» bat bezala inbokatzeko du¹⁶. Hau ez da arintasunerako baliabide erretoriko huts bat edo halako zerbait. Ikusiko dugu beste prozedura batzuekin nola uztartzen eta sendotzen den. «Zu» horrek irakurlea entzule egiten du, ez ikusle: naturaz eta beronen arieraz mintzatzeak irakurlea obratik at utziko zukeen, beste batzuek –autoreakziotenarekin konformatu beharko zuelarik. Inbokatzeko, xaxatu egiten du eta, beraz, diskurtsoari arreta eskatzen dio, gutxienez.

Zuak diskurtsoan kolaboratzeko irakurlearen ahalmena inbokatzeko du, autorearen beraren maila berdinean dagoela esateraino: horregatik, inbokazio honen ondoren, berehalaxe pasatzen da lehen pertsona pluralera, zeinarengana poema guztian zehar behin eta berriro jotzen duen: «hautematen dugu», «bereizten dugu»... Hitza sortzen

den zirkulura sartzen uzten eta eskatzen dio. Poeta jadanik ez da jainkoekin edo musekin edo haietatik mintzo den hautatu hori, hizketan diharduen giza korru bateko partea baizik; eta irakurlea poeta mintzo den tokiraino jaso da. Horrelaxe ulertu behar dira Lukrezioren musei inbokazioak, zeintzuez oso harro dagoen: ez urruntzeko eratzat, irakurleak ere bertan sartzeko tonua emateko eratzat baizik. Ikuspegi honetatik, Memmio aitzakia bat besterik ez da.

Lukreziok gertaera sentsoialetan eta arrazoiketa inferentzialetan oinarrituriko argitasunez aurkezten ditu beti bere tesiak. Arrazoiak ematen dituenak dogmatismo oro baztertzen du eta bestearengan kide bat aitortzen. Baina, trukean, besteei, hots, irakurleari, eskatzen ari da obrak garatzen duena amankomun ipintzeko prozedura komunikatibo berberak erabil ditzala: irakurlearen sentsoialtasun arrazoitzailerari bultz egiten dio, komunikazio giro baten barruan.

Konparazioa Lukrezioren osagai diskurtsibo nagusietakoa da. Baina bere moduak eta funtzioak zehaztea komeni da. Literatura erretorikoan, eta literaturan beste gabe, konparazioa osagairik maiteenetakoa izan da beti. Dagoeneko Homerok etengabe konparatu ohi zuen eta horrela bere pertsonaien egoera, ekintza eta kualitateak nabarmentzen zituen. Baina Homeroren konparazioak giza ekintzaren eremura mugatzen dira, euren ezaugarri psikologiko-moralekin, haiekin konparatzeko gauzak kopuruan gutxi dira (animaliak – lehoiak, zezenak, basurdeak, oreinak; itsasoa), eta lehendik ezagun genuen kualitate edo ezaugarri bat indartzeko balio dute.

Lukreziorengan, konparazioak *funtzio heuristikoa* dauka, hots, egintza garrantzitsuak aurkitzeko, egintza horiek naturan non dauden aurkitzeko, hauek hartatik ikusteko eta aztertzeko perspektiba zuzena erakusteko. Lukrezioren konparazioak zer sentsolearen eta gogoeta-aren arteko bitartekari dira. Baina, batez ere, lotura sistematiko honetan inoiz ez edo bakanki ipiniak ziren gauzak ikusarazten dituzte. Horregatik, balio filosofiko estua daukate, delako gauzaren izaera egiazkoa –hots, Lukrezioren hitzetan «naturala»– zein den esaten baitizute. Baina badute irakurlearengan eragin berritzaileak ere: eguneroko errutinan, euren gainean irristatuz, hainbat gairi buruz hitz egiten ohiturik, –Lukreziok ez du jendeak ezagutzen ez zituen fenomenoez hitz egiten, eguneroko gertakari hauexez baizik–, perspektiba berrian ipintzean, euren esanahia *jatorriratu* egiten du, berritu egiten

dira. Filosofiak irakurlearen eguneroko irudiak astintzen ditu, batez ere, haiekiko jarrera garbitzen duelako. Eta horixe zen pertsuasiozko diskurtso orok nahi zuena: informatu ez ezik, hartzailearen arima transformatu.

Azkenik, soinuak balibideak. Hizkuntza soina da. Eta inori ez zaio oharkabean joan Lukrezioren sonoritate eta biribiltasun espresiboa:

«Corpora sunt porro partim primordia rerum
partim concilio quae constant principiorum»¹⁷.

Partim...partim oposizioak, *porro*-rekin argudioa artikulatzeak, *p, r, t, o* eta *i* hizkien aliterazioak, Lukrezioren pentsamenduaren funtsezko nukleoan biltzen zaituzte: izatea gorputz oinarritzko edo elementaletan datzala.

Pertsuasioaren erritmoa

Egiaren eta pertsuasioaren bat egiteak osagai batzuk bakarrik ez dauka. Erritmoa ere badauka. Azter dezagun laburki.

Lehenik, esana dudanez, Lukreziok ez du bere azalpenean irakurlea ikusle huts bihurtuko zuen bakarriketarik erabiltzen, hasiera-hasieratik elkarrizketaz interpelatzen baizik; horrela, irakurlea erantzun beharrean aurkitzen da.

Jarrera diskurtsiboa, ez miresle edo kontenplatazaila soila, prozedura lexiko eta fonetikoekin indartzen du: *partim...partim...*

Irakurlea jarrera hori hartzera eta ezer ez zaiola jakintzat eman-go onartzera beharturik aurkitu denean, irakurlearen eta poetaren arteko zirkulu intelektuala itxi egiten du: beste filosofia batzuk (Heraklito, Empedokles, Anaxagoras...) baztertzen ditu¹⁸. Orduan irakurlearen gogoeta bakarrik geratzen da poetaren hitzen aurrean. Kritika hau ez da kritika teorikoa bakarrik –hori ere bai, noski-, filoso-fiaren barrualdera, etxearen barrualdera sarrera baizik: jadanik poeta eta irakurlea bakarrik gaude.

Etxe barruan, etxea bera erakusten dio, planetarium bat gertatzen dena berau: literatur lana, kosmoa bezala, atomo (hizki) konbinagarriz osatzen da, zeintzuen konbinazioz literatur lana sortzen den¹⁹. Literatura, horrela, eredu nagusi gertatzen da. Hizkuntza antzinatik izan zen elementuen konbinazioz konparatua. Baina ez poesia.

Lukreziok, horrela, aurea hartzen die poesian bere helburu askatzailearen aurka baliatua izan zitekeen berezitasuna ikusi nahi dutenei: poesiaren izaera, beste edozein gauzarena bezala, atomikoa da. Horrekin bere irizkideen poesiarekiko muzina apurtzen du. Baina, gainera, konparazioaren funtzio heuristikoa bide, kosmoak ere izaera atomikoa daukala esaten ari da. Irakurketak alkantzu metafisikoa dauka: irakurteza ez da irakurriaz handiko zerbaitez mintzo zaizun zerbaitez infor-matzea, irakurria bera ariaraztea baizik, hots, errealtatea eta irakurke-ta bat egitea. Irakurlea atxilo dago jadanik: dagoen lekuan dagoela, ato-mismoan dago. Obratik kanpora dagoela uste badu, termino atomiko-etan pentsatzen ariko da; termino literarioetan bakarrik dagoela uste badu, hizkuntzak errealtatearen lege atomikoak dantzatuko ditu. *Atomium* bat mugimenduan, non kanpo / barrurik ez dagoen.

Irakurlea horrela beragandurik, Lukreziok bere poema gores-ten du: Musekin egian harritu²⁰. Irakurle-autoreen artean jadanik lor-tutako intimitate honetan, poetaren berotasuna irakurleari kutsatzen zaio. Estimulazio intelektualaren haustura ote da hau? Eman lezake. Hala ere, hemen ez dio hasieran esan gabeko ezer berririk, pertsuasioa (musik) eta egia (ezagutza) batuz.

Baina Lukrezioren gogoeta ez da obraren izaera atomikoaz bakarrik, bere funtzio pedagogikoez baizik. Irakurleari abisatzen dio: lehenengotan, egia eta gauzak sineskaitz iruditzen zaizkio, baina, asimilatu ahala, errutinazko bihurtzen dira, eguneroko ortziaren urdi-na bezala²¹. Beste azkoin bira bat gehiago irakurlearen kaptazioan: ikusgaitzetik ikustekoa, negatibotik positiboa nola sortzen den –asi-milatzeko gauza zaila berau– azaldu ondoren, Lukreziok oraingoan aurea hartzen dio eta ez jadanik ideia batean, jarreran baizik: enun-tziatuak entzuteko edo ez entzuteko eran. Eta hori egiten du, halaber, jakimin filosofikoari buruz egia antropologiko-filosofiko handiak esanez: berriarekiko erresistentzia –errutinatzea. Eta horretarako bere prozedura jakinak darabiltza, bai adimenera (egia berria –errutina-tzea), bai irudimenera (egunsentiko ortzia) zuzenduak. Eta horrekin zerbaiz itxuraz tribiala jatorriratzea lortzen du: ortzi urdinaren eta egunsentiaren miraria. Lukreziok irakurlea oharrarazten eta prestatzen du, aurrerantzean gertu egon dadin, ez ikastera eta informatzera eta gogoeta egitera bakarrik, edozein egiaren aurrean txunditurik jarrai-tzeko gaitasuna hartzera baizik.

Obra, beraz, bere biribiltasunean, ardatz bikoitzean artikulatzen da, bata esplizitua dena,

mundua –literatur lana bat egiteko paralelismoan; bestea inpli-zitua, zu – arazo teorikoaren intimizazioan. Biek elkar indartzen dute:

a. gizakia egian bizi da, kosmoa besterik ez den horretan: nola izango die beldurra jainkoei eta dena hondatzeari, gauza bakoi-tza bere tokian badago, poemako hizkiak bezala? Gizakia gustora aur-kitzen da egian eta, beraz, kosmoan.

b. Pentsatzea eta izatea bat dira: pentsatzea pentsaketaren legeak eurak aurkitzea da, zeina ez den munduaren aspektuetako bat besterik, munduaren errepika bat; eta, jainkoen beldurra ezjakintasunaren irrazionaltasunetik datorrenez, irakurketa informazioaren eta terapia baten aldibereko prozesua da eta, terapia guztiak bezala, pro-gresiboa.

Obraren eskema intelektuala

Antzinako munduko obra gutxi, bakarrik bada, kontserbatu izan zaigu sistematikotasun maila honekin. Eta hori, erromatar pen-tsamenduaren originaltasun filosofikoa arbuiazen jarraitzen den arren.

Obra sei liburuz osatzen da, denak antzeko egituradunak: Epikuroren, bere aholkulari eta maisu filosofikoaren gorespen baten ondoren, gaia garatzen du. Eta liburuen ordena hau da:

- I - II: printzipioen teoria: atomoak eta euron propietateak.
- III – IV: Psikologia:
 - III: arima eta gorputza;
 - IV: sentsazioa, ezagutza eta maitasuna.
 - V: Kosmologia: kosmogonia, fitologia, zoologia, giza kultura.
 - VI: Metereologia.

Obra Venusen himno batekin irekitzen da (I, 1 - 49) eta Atenasko izurritearen deskribapenez ixten (VI, 1138 - 1286). Honek asko eta asko noraezean utzi ditu, Lukrezioren inkoherentzian pentsatzeraino, zeinak lasaitasuna transmititu nahi duen eta, hala ere, heriotza orokortu batekin amaitzen duen, edo bestela obra amaitu gabea dela diote.

Nire ustez, bere kontzepzioen eta bere idazteko eraren arteko koherentziaren agerpena da hori. Zeren, lehenik, kontuan eduki behar baita, historia izan ala ez, harentzat dena dabilela lege berberen, atomoarenen, arabera: XIX. mendeak zer naturalaren eta humanoaren artean altxatu zuen zubi ustez igarogaitza – eta gaur dagoeneko hautsiz doana – harentzat ez zen existitzen; horregatik, giza kultura kosmoaren aldeetako bati eskainitako kapituluan deskribatzen du. Venusen himnoa eta izurritearen deskribapena, beraz, fenomeno bera- ren, naturaren, agerpentzat aztertu behar ditugu.

Eta natura, Lukreziorentzat, badakigun bezala, indar sortzaile ez ezik, indar suntsitzaile ere bada. Venusen himnoak naturaren alde sortzailea kantatzen du, ez baita hartaz mintzo atseginareen jainkosa bezala, indar sortzaile eta gauza guztiak baturik dauzkana bezala bai- zik: eta atomo ezberdinen batasuna da, Lukreziorentzat, gure mundu- ko gauzei forma damaiena. Izurritea suntsipenaren fenomeno gorena da, bere aurka ezer egiterik ez dagoena eta eraikitzen urteak, ehunda- ka beharbada, kostatu dena egun gutxitan suntsitzen duena. Obraren literatur konposizioak bertan aurkitzen den teoria indartzen du berriz ere: obra ez da munduari buruzko zerbait, mundua da.

Eztabaidak izan dira eta oraindik ere badira, lana amaiturik ote dagoen ala ez. Bere ezosotasunaren seinaleak izan daitezke, esatera- ko: hitzaurre bikoitzak, ia hitzez hitz errepikatzen direnak I, 924 -950 = IV, 1 - 25; liburu batzuen arteko luzeraren aldea, heren bat: 1094 bertso III.an, eta 1457 V.an; V, 73 – 75.tan iragarritako teologia falta da; amaia, batzuentzat, latza da.

Irregularitasun hauek guztiak egiazkoak dira, azkenekoa izan ezik, beharbada, eztabaidagarriago berau. Baina obraren taxua guztiz argia da eta bere erritmo hala intelektuala, nola estilistikoa, bateratua da. Probableena da Lukreziok ez zuela azken ukiturik emateko astirik izango, Virgiliok ere izan ez zuenez bere *Eneida*-rako: baina hau inork ez du horregatik deskalifikatzen. Eta geu ere ez gara obra dardaraga- rri hau irakurtzeko gozamen intelektualik gabe geldituko.

Lukrezio Erroman

Lukreziok ez zuen Erroman ospe handiegirik izan. Esan izan da hori bizitza aktiboari, erromatarren ikuskera politikoari eta haien

bizi idealari hain berezko zaionari, erasotzeagatik izan zela; baita mai- tasuna sumintasan eta zorotasun gisan kontzebitu zuelako ere, horrek erromatar elegiazaleak azaltzen ari ziren ikuskera kolpatuko zuelarik; eta bere antiteismoari.

Baina guzti honetatik, azken puntua bakarrik dela garrantzitsua uste dut. Zeren bizitza kontenplatiboaren predikua eta bizitza aktibo- aren gainetik jartze hori grekoen munduan zer ohikoa izan baitzen, nahiz eta grekoak ere herri politikoa izan ziren. Badago ñabardura bat, noski: enperadoreek mundu itxietan, sektetan, erlijiozkoetan zein bes- telakoetan, antolatzen diren taldeak jazarri egiten dituzte, euren aurka konspiratuko ote duten beldurrez; horregatik, kristauak eta epikurota- rrak ere jazartzen dituzte. Baina hau Augustoren ondoren gertatuko da, Kristo ondoko mendearen erditik honantz²².

Maitasuna zorotasuntzat jotzea, berriz, gutxienez Platonenga- naino atzeratzen den ideia da, behin eta berriro agertzen den topikoa, eta elegiazale kronologiaz hurbilenak, Katulo, Tibulo, Properzio, eur- tean daude euren helduaroko poemetan, euren maitale eta kutunekin zapuzturik: ezin diogu erromatar bakar bati leporatu halako ikuskera- ren harridura eta izumena.

Baina antiteismoa bai izan zen erromatar munduaren legitima- zioaren zutabe nagusietako bati eraso ziona. Eta bazen kargu bat, poli- tikoki oso preziatua, Erroman politikoki zerbait izatea nahi zuten guz- tiek bete zutena, *pontifex maximus*-ena, zer erlijiosoaren administra- zioarekin zuzenki lotua. Jainkoen beldurretik askatzeko Lukrezioren xedeak zutabe horixe jotzen zuen. Ez da halako gauzetan sinesten zuten ala ez: Zizeron goren pontifizeak gauza horien aurka tratatu bat idatzi zuen. Baina errituak betetzen zituen.

Honi erants bekio epikureismoak, mugimendu ideologiko gisan, sortzen duen ekibokoa. Lukrezio baino lehentxoago, Amafi- niok plazerraren moralean esentzialki oinarrituriko epikureismo bat predikatu zuen, berehalako desiraren gauzatze gisan ulertua, eta, sexuala bada, hobe. Honek ezein estatuk permititzerik ez daukan indisziplina zekarren: austeritatea estatuen autoarautzeen zati bat da. Jainkoen beldurra egitura horren zati bat da eta hori, hein bate- an, heriotza ondoko zigorren beldurra da, bizitza honetako jokaera- ren arabera. Zizeronek epikureismo hauxe dauka gogoan, halako

indarrez erasotzen dionean, Erroman ere zer hedaturik zegoen ikustean²³.

Lukreziorengan ez dugu, ordea, halako ezer ikusten, epikureismo metafisikoa baizik, non bere ikuskeraren –fisikoaren– oinarri ontologikoak azaltzen diren, hori bai, begirada beti ere maisuaren eta eskolaren bereizgarri izan zen hartan, askapenean eta soseguan, jarririk. Baina, *Gauzen izaeraz* irakurrita, inork ez zukeen ondoriorik aterako, hemen grinei eta desira askatuei ekiteko predikurik dagoenik. Gogoetak eta obserbazioak, jarrera honen lanketak, eragozten dute: benetako atsegina horixe da.

Erroman, beraz, epikureismoaren bi bertsio daude, aldi berean ordezkaturik Zizeronek, etikari begirutzen dion bere aurkariak, eta bere aitzindari Lukreziok, bere oinarri metafisikoa eta bere ezagutzaren teoria argiro azaltzen dituenak²⁴.

Baita eztabaidatzen da ea Lukrezioren epikureismoa, gainera eta hargatik guztiagatik, elite batentzako epikureismoa izango ote zen ala mundu guztiarentzako epikureismoa. Nire ustez, orokortzaile gisako zu poetikoaz egin ditudan azterketen ondoren, esan daiteke Lukreziok ez duela, printzipioz, inor epikureismotik baztertzen. Gogoratzea komeni da teoria batek azalpen maila ezberdinak (oinarriak eta metodologiak), teorien bitarteko aspektuak, euron deribazioak eta aplikazioak dauzkala beti. Baina horrek ez du esan nahi, printzipioz, populazioko sektoreak eskluditu nahi direnik, egitez: nahikoa litzateke pentsatzea Lukreziok nahiago izan duela epikureismoaren alde mintzatuko direnen eskuetan arma kontzeptual sendoak ipintzea, sendotzen hasiak zeuden (estoikoak, platonikoak eta aristotelikoak) bere garaiko inpugnatzaileen aurka borrokatzeko; berak, idazle gisan, epikurotar doktrinaren maisu hauei hitz egingo zien, hauek, halaber, publiko zabalagoari hitz egin ziezaioten; baina berez doktrinaren xedea ez zatekeen populazioaren sektore batera mugaturik gelditzea. Teologia eskolastikoa, doktrina bezala, denei zuzendua da, baina ez *Summetako* bere azalpen sistematikoan; eta gauza bera gertatzen da berez masa doktrina den marxismoan, baina ez *Kapitalean* irakurtzeko, nahiz eta bai *Manifestuan*.

Lukrezio Erroman ezagutua izanaren lehen seinaleak, –Zizeron ederki gordetzen baita hura bere obretan aipatzetik–, hurrengo belaualdiari zor dizkiogu, zehazki Virgiliori bere *Eglogetan* (K.a. 42) eta

Georgikak II, 490 eta hurrengoak²⁵. Denek ezaguna dute Horazioren epikureismo profesoa. Belaunaldi honen eginkizuna Lukrezio heztean izan zen. Eta zirkunstantzia historikoak aldatu zirelako egin ahal izan zuen:

(1) gerra zibilen zerrenda luzearen ondoren, bakea urgentziaz behar da (*pax augustea*), eta ideal hori bete-betean bat dator epikureismoarekin, zeinak min hartzen duen gizakien borrokez eta nekeez eta barne sosegua irrikatzen duen (atsegin katastematikoa: gogoaren alteraziorik gabeko minik eza);

(2) arazo publikoetan aurka dauden gerra zibileko bloke nagusien disoluzioa behar da, bakoitzak bere bizitza pribatuari ekin diezaion eta prosperitatea eta ongizatea gara daitezen. Epikureismoa estatismo ororen, zeina okertzat jotzen duen, etsai porrokatua da eta adiskide taldeak lantzen ditu, elkarren kolaborazioan, non jakintsua, gizartearen eredu dena, bere zereginetan murgildurik bizi den, oso geroago Fray Luis Leongoak esango zuenez: «ez bekaiztu ez bekaizti». Estatuari erasotzea arriskutsua izan badaiteke, aisa desmuntatua ere izan daiteke, isilduz eta pribatutasunerantz birzuzenduz. Honela, zer militarren aurrean, gizarte zibila, Lukrezioren gurari nagusia, sustatzen da, eta talde txikiek ezin dute bi bloke antagonikotan batirik luketen botererik eskuratu. Noren aurka izango da antagonikoa talde amaigabeetariko bakoitza?

(3) Bake garaian, nekazal ekoizpena bultzatu behar da eta, horretarako, beharrezko da jendea baserrietan koka eta finka dadin. «Norbere baratza lantzeak» hemen esanahi literala eta ekonomikoa dauka, urbanistikoaz gainera: Erroma, hiri bezala, itogarri bilakatzen hasia zen.

(4) jainkorik ez da ukatzen: figura apaingarri bihurtzen dituzte. Garbi ikusten da ez direla, Horazio edo Virgilio batengan, elkarbizitza sinposiakoa, lurreko lanak, bultzatzen dituztenak, alderantziz baizik, eurok direla zaindariak, jainkoak bilatzera bultzatzen dutenak. Honela, erlijiotasun ofizialaren printzipioa babesten da. Baina asko kostako litzateke haiengan Lukrezioren jainko ahalguztidun eta arbitrarioak aurkitzea.

Nahiz eta Erromako epikureismoaren historia ez den hor amaitzen, areago hasten baizik, eta, nahiz eta beharbada enperadore paga-

noen aro bat eta kristauen beste bat bereiztu beharko liratekeen, guk ez diogu hitzazurre hau gaitutuko lukeen historia horri jarraituko.

Lukrezio mendebal idazkeraren lorpen bat izan zen. Ezin hobeto suturatu zuen kultura honek, batzuetan amesten eta beste batzuetan gorroto dituen pentsamendu eta poesiarekin, sortu duen arima bikoi-tza. Gu gaur, egoera konplexuagoan, diskurtso mota berri bat sortze-ko premiaren kontzientzia berdinarekin bizi gara, adimena eta ezagu-tza zer poetikoaren, ametsaren eta zer primitiboaren esparrura bazter-turiko sinbolikaren erreskatearekin bilduko dituen diskurtsoa. Historiako eginkizun handiak ez dira errepikatzen. Baina utzi dizki-gun obra handiak probokazio bat ditugu. Lukrezioaren ahotsa gure bilaketan sehaska-eragile da.

José Ramón Arana

Oharrak

- 1 ik. O. Regenbogen, O.: *Lukrez . Seine Gestalt in seinem Gedicht*. Leipzig – Berlin 1932, eta West, D. A.: *Imaginery and Poetry in Lucretius*, Edinburgh 1994.
- 2 ik. Paratore, E.: La problemática sull'epicureismo a Roma», *Aufgang und Niedergang der Römischen Welt-en*, I, 4, 1973, 140-141 or.
- 3 ik. Lukrezio, I, 80-126; V, 1194 –1240.
- 4 ik. Lukrezio, VI, 14-16.
- 5 ik. Lukrezio, I, 146-148; II, 1-61; III, 1-30; 1053-1075.
- 6 Ik., adibidez, V eta VI liburua.
- 7 Naturaren aurpegi bikoitza, ik. Lukrezio, III, 931-977.
- 8 ik. Lukrezio, I, 149-214; 215-264.
- 9 ik. Lukrezio, II, 1090-1092.
- 10 ik. Lukrezio, I, 951-1051; II, 1048-1089
- 11 ik. Lukrezio, VI, 64-66; beste urrats batzuk finitutasunaz, I, 584-589; II, 479-499; 700-729.
- 12 Estoikoengan kosmoaren kontzepzioari buruz, cf. José Ramón Arana: «La biología de los primeros estoicos», *Veleia-n*, 16, 1999, 233-257 or.
- 13 ik. José Ramón Arana: «El Ión, fundador de la hermeneútica occidental», *Veleia-n*, 15, 1998, 257-276 or.
- 14 Poesiariaren inguruan epikureis-moaren barne polemikaz, cf. Paratore, o. a., 1973, 173-179 or.
- 15 ik. Lukrezio, I, 136-145.
- 16 Ik. Lukrezio, I, 265-328 argudia-tze konkretu baten adibide paradig-matikoa da, baina obra guztia hare-kin elkarriketa egiteko zu bati zuzentzen zaio.
- 17 Ik. Lukrezio, I, 483-484.
- 18 Ik. Lukrezio, I, 635-920.
- 19 Ik. Lukrezio, I, 814-829.
- 20 Ik. Lukrezio, I, 921-950.
- 21 Ik. Lukrezio, II, 1023-1047.
- 22 Ik. L. Gil: *Censura en el mundo antiguo*, Madrid 1961.
- 23 Ik. Zizeron: *De finibus*, I, 13 = ik. Tusc ., IV, 6 –7.
- 24 Ik. E. Paratore: o. a. , 1973, 137-150 or., Gadarako Filodemoren paperari buruzko eztabaida eta guzti.
- 25 Ik. Virgilio: *Georgikak*, II, 490 eta hur.

Bibliografia

A. EDIZIOAK

DIELS, H.: *T. Lucretii Cari, De rerum natura libri sex*, 2 liburua, Berlin 1923-1924 (elebiduna; Lukrezioren edizio modernoan hasiera)

BAILEY, C.: *Titi Lucreti Cari De rerum natura libri sex*. Edited with Prolegomena, Critica, Apparatus, Translation, and Commentary by ..., 3 liburua, Oxford 1947

BAILEY, C.: *Lucreti De reum natura libri sex*. Recognovit brevique adnotatione critica instruxit ..., Oxford 1957 (1947ko edizioa testua da, itzulpen eta iruzkin gabe)

ROUSE, W. H. D.: *Lucretius. De rerum natura*. With an english translation by ..., Cambridge, Massachusetts, Harvard Univ. Press 1959

VALENTÍ, E.: *T. Lucrecio Caro. De la Naturaleza*, 2 liburua, Bartzelona 1961 (elebiduna)

ERNOUT, A.: *Lucrèce. De la nature*, 2 liburua. Texte établi et traduit par ..., Paris 1962 - 1964

GARCÍA CALVO, A.: *De rerum natura. De la Realidad*, Zamora 1997 (elebiduna, itzulpen erritmikoz)

B. ITZULPENAK

LUCRECIO CARO, T.: *La naturaleza*. I. Roca Meliaren edizioa, Madrid 1990

C. LAN TRESNAK

ERNOUT, A. - ROBIN, L.: *Commentaire exégétique et critique*, 3 liburua, Paris 1925 - 1928

SCHRIJVERS, P. H.: «Bibliographia lucretiana», *Lampadion-en*, 7 / 1, 1966 - 1968, 5 - 32 or. (dagoeneko zaharkitu samarra)

WACHT, M.: *Concordantia in Lucretium*, Hildesheim 1991

D. BIGARREN MAILAKO LITERATURA

D. 1. *Eskuliburu orokorrak*

ALBRECHT, M. VON: *Historia de la literatura romana desde Andrónico hasta Boecio*. I. Itzultzaile D. Estefanía - A. Pociña, Bartzelona 1997, 267 - 314 or.

REALE, G.: *Storia della filosofia antica*. III. I sistemi dell'età ellenistica, milano 1976, 157 - 300 or.

D. 2. *Lan espezializatuak*

BOLLACK, M.: *La raison de Lucrèce. Constitution d'une poétique philosophique avec un essai d'interprétation de la critique lucrécienne*, Paris 1978

BOYANCÉ, P.: *Lucrèce et l'épicurisme*, Paris 1978 (1963)

CLASSEN, C. J. (ed.): *Probleme der Lukrezforschung*, Hildesheim-Zürich-New York 1986

CLAY, D.: *Lucretius and Epicurus*, Ithaca Cornell Univ. 1983

FAUTH, W.: «*Divus Epikurus: Zur Problemgeschichte philosophischer Religiosität bei Lukrez*», *Aufgang und Niedergang der Römischen Welt-en*, I, 4, 1973, 205-225 or.

GIANCOTTI, F.: *Religio, natura, voluptas*. Studi su Lucrezio, con una antologia di testi annotati e tradotti, Bologna 1989

HADZITS, G. D.: *Lucretius and His Influence*, 1963

MILANESE, G.: «*Osservazioni sulla tecnica argomentativa di Lucrezio*»

en T. Mantero (eda.): *Analysis I: Didascalìa*, Genova 1987, 43-92 or.

PARATORE, E.: *La problemática sull'epicureismo a Roma*, *Aufgang und Niedergang der Römischen Welt-en*, I, 4, 1973, 116-204 or.

PÖHLMANN, E.: *Charakteristika des römischen Lehrgedichts*, *Aufgang und Niedergang der Römischen Welt-en*, I, 3, 1973, 813-901 or.

REGENBOGEN, O.: *Lukrez. Seine Gestalt in senem Gedicht*. *Neue Wege zur Antike* 2, 1, Leipzig-Berlin 1932, orain *Kleine Schriften-en*, München 1961, 296-386 or.

SANTAYANA, G.: *Tres poetas filósofos. Lucrecio, Dante, Goethe*. Itzulzaile J. Ferrater Mora, Buenos Aires 1952, 23-60 or.

WEST, D. A.: *Imaginery and Poetry in Lucretius*, Edinburgh 1994 (1969)

WINSPEAR, A. D.: *Lucretius and Scientific Thought*, Montreal 1963 (marxista, eboluzionista, positibista)

GAUZEN IZAERAZ

LIBER PRIMUS

CAPITULA

- 44. TO MAKAPION KAI AΦΘAPTON
- 62. LAUS INVENTORIS
- 84. EXEMPLUM RELIGIONIS
- 107. FINIS DOLORIS
- 112. DE ANIMA
- 150. NIHIL DE NIHILO GIGNI
- 215. NIHIL AD NIHILIUM INTERIRE
- 269. CORPORA QUAE NON VIDEANTUR
- 277. DE VENTO
- 298. DE ODORE CALORE FRIGORE VOCE
- 305. VESTES VVUESCI ET ARESCI
- 311. DE ANULO IN DIGITO ET CETERIS
- 334. DE INANI
- 370. DE PISCIBUS IN AQUA
- 418. CORPUS ET INANE ESSE NATURAM RERUM
- 430. TERTIAM NATURAM NULLAM ESSE RERUM
- 498. SOLIDUM ESSE
- 551. CONTRA EΙΣ ΑΠΕΙΡΟΝ ΤΗΝ ΤΟΜΗΝ
- 565. DE MOLLI NATVRA AQUA AERE ET CETERIS
- 635. CONTRA HERACLITUM

LEHEN LIBURUA

KAPITULUAK

- 44. ZORIONA ETA USTELEZINA
- 62. ASMATZAILEAREN GORAIPUA
- 84. ERLIJOAREN ADIBIDEA
- 107. MINAREN AMAIA
- 112. ARIMAZ
- 150. EZEREZETIK EZ DATORRELA EZER
- 215. EZER EZ DOALA EZEREZERA
- 269. IKUSTEN EZ DIREN GORPUTZAK
- 277. HAIZEAZ
- 298. USAINAZ, BEROAZ, HOTZAZ, HOTSAZ
- 305. JANTZIEN HEZEA ETA LEHORTZEA
- 311. HATZEKO ERAZTUNAZ ETA BESTEZ
- 334. HUTSUNEAZ
- 370. URETAKO ARRINEZ
- 418. GAUZEN IZAERA GORPUTZA ETA HUTSUNEA DIRELA
- 430. GAUZEK HIRUGARREN IZAERARIK EZ DAUKATELA
- 498. SOLIDOAREN IZAERA
- 551. ZATIGARRITASUN MUGAGABEAREN AURKA
- 565. URAREN, AIREAREN ETA BESTEREN IZAERA BIGUNAZ
- 635. HERAKLITOREN AURKA

705. NEQUE IGNEM NEQUE AERA NEQUE UMOREM
PRINCIPIA ESSE
716. CONTRA EMPEDOCLEM
830. CONTRA ANAXAGORAN
951. ΤΟ ΠΑΝ ΑΠΕΙΡΟΝ ΤΟ ΓΑΡ ΠΕΠΕΡΑΣΜΕΝΟΝ
ΑΚΡΟΝ ΕΧΕΙ
1051. ΕΙΣ ΤΟ ΜΕΣΟΝ Η ΦΟΡΑ

705. EZ SUA EZ AIREA ETA URA EZ DIRELA
PRINTZIPIOAK
716. ENPEDOKLESEN AURKA
830. ANAXAGORASEN AURKA
951. UNIBERTSO AMAIGABEA, BERAZ, HEDADURA
AMAIGABEKOA
1051. MUGIMENDU ZENTRIPETUA

LIBER PRIMUS

Aeneadum genetrix, hominum diuomque uoluptas,
alma Venus, caeli subter labentia signa
quae mare nauigerum, quae terras frugiferentis
concelebras, per te quoniam genus omne animantum
concipitur uisitque exortum lumina solis: 5
te, dea, te fugiunt uenti, te nubila caeli
adeuntumque tuum, tibi suavis daedala tellus
summittit flores, tibi rident aequora ponti
placatumque nitet diffuso lumine caelum.
Nam simul ac species patefactast uerna diei 10
et reserata uiget genitabilis aura fauoni
aeriae primum uolucres te, diua, tuumque
significant initium percussae corda tua ui.
Inde ferae pecudes persultant pabula laeta 15
et rapidos tranant amnis: ita capta lepore 14
te sequitur cupide quo quamque inducere pergis. 16
Denique per maria ac montis fluuiosque rapacis
frondiferasque domos auium camposque uirentis,
omnibus incutiens blandum per pectora amorem,
efficis ut cupide generatim saecla propagent. 20
Quae quoniam rerum naturam sola gubernas,
nec sine te quicquam dias in luminis oras
exoritur, neque fit laetum neque amabile quicquam,
te sociam studeo scribendis uersibus esse,
quos ego de rerum natura pangere conor 25
Memmiadae nostro, quem tu, dea, tempore in omni

LEHEN LIBURUA

Eneastarren ama, gizakien eta jainkoen gozotasun, Venus elikatzaile,
ortziko zeinu lerrakorren azpian, itsaso ontzitsua eta lehor fruitutsua
hanpatzen dituzuna! Bizidunen izate oro zuri esker sortzen eta eguz-
ki printzak begiestera altxatzen denez gero: zure aurean eta zure
heleran haizeak ihesi doaz, lur artatsuak azpian lore leunak zabaltzen
dizkizu, itsas lautadek irribarre dagizute eta ortzi bareak argi heda-
tuan dizdiz. Zeren, udaberriak bere itxura erakusten dueneko eta
fabonioaren arnasa irekia eta sortzailea indartzen deneko, lehenik
aireko hegaztiek agurtzen zaituzte, oh jainkosa, eta zure helera dira-
garte, bihotzak zure indarrez dardar. Gero piztiak eta abereak ikotika
hasten dira larre marduletan eta ibai azkarrak zeharkatzen dituzte:
horrela, zure lilurak atzemanik, joranez jarraitzen dizute gidatu nahi
dituzun noranahi. Azkenik, itsaso eta mendi eta ibai oldartsuetan,
hegaztien etxe hostotsu eta zelai berdetsuetan zehar, bular guztietan
maitasun biguna sartuz, belaunaldiak joranez ugalarazten dituzu,
espeziaka. Gauzen izaera zeuk gobernatzen baituzu, eta zu gabe ez
baita ezer argitara irteten, ez ezer alairik ez maitagarririk gertatzen,
laguntzaile nahi zintuzket, gauzen izaeraz ondu nahi ditudan bertsook

omnibus ornatum uoluisti excellere rebus.
 Quo magis aeternum da dictis, diua, leporem.
 Effice ut interea fera moenera militiai
 per maria ac terras omnis sopita quiescant. 30
 Nam tu sola potes tranquilla pace iuuare
 mortalis, quoniam belli fera moenera Mauors
 armipotens regit, in gremium quie saepe tuum se
 reiicit aeterno deuictus uulnere amoris,
 atque ita suspiciens, tereti ceruice reposta, 35
 pascit amore auidos inhians in te dea, uisus,
 eque tuo pendet resupini spiritus ore.
 Hunc tu, diua, tuo recubantem corpore sancto
 circumfusa super, suauis ex ore loquellas
 funde petens placidam Romanis, incluta, pacem. 40
 Nam neque nos agere hoc patriai tempore iniquo
 possumus aequo animo nec Memmi clara propago
 talibus in rebus communi desse saluti.
 || Omnis enim per se diuum natura necesset
 immortalis aeuo summa cum pace fruatur
 semota ab nostris rebus seiunctaque longe;
 nam priuata dolore omni, priuata periculis,
 ipsa suis pollens opibus, nil indiga nostri,
 nec bene promeritis capitur nec tangitur ira. || 45

Quod superest, uacuas auris < animumque sagacem >
 semotum a curis adhibe ueram ad rationem,
 ne mea dona tibi studio disposta fideli,
 intellecta prius quam sint, contempta relinquant.
 Nam tibi de summa caeli ratione deumque
 disserere incipiam et rerum primordia pandam, 50
 unde omnis natura creet res auctet alatque,
 quae eadem rursum natura perempta resoluat,
 quae nos materiem et genitalia corpora rebus
 reddunda in ratione uocare et semina rerum
 appellare suemus et haec eadem usurpare 60
 corpora prima, quod ex illis sunt omnia primis.

gure Memmiorentzat idaztean, zeina zuk, ene Jainkosa, aldi oro
 dohain oroz apaindua nahi izan duzun. Horregatik areago, emaeizu
 bertsooi, ene jainkozko, xarma betikorra. Egizu bitartean gerralan
 orok, lokarturik, atsedean har dezan itsas-lehorretan. Izan ere, zeuk
 bakarrik sosega ditzakezu hilkorrak bake lasaiz, gerralan ohilak
 Martitz armajaunak baitaramatza, zure altzoan etzan ohi dena bera,
 maitasunaren zauri eternalak abaildurik, eta, lepondo biribila eratzan-
 nik, zuri begira eta zutaz liluraturik, bere begi goseak maitasunez baz-
 katzen baititu, bere arnasa zure begietatik dilindan. Ingura ezazu, ene
 jainkosa, zure gorputz donean pausatzen den hori, eta isur zure ahotik
 hitz gozoak, Erromatarrentzat, ene andreguren, bake nasaiia eskatuz.
 Izan ere, aberriarentzat garai gaiztoan, ez nik jardun dezaket gogo
 barez, ez Memmiotarren azkazi gailenak huts egin diezaioke, halako
 unean, osasun komunari. Zeren jainkoen izate guztiak bere baitan eta
 bakerik gorenez behar baitu bizitza eternala gozatu, gure arazoetatik
 bereiz eta urrun aldendurik. Zeren, samin oroz at, arriskuetatik libre,
 bere baitan ahaltsu, gure beharrizanik gabe, ez ongintzen menpe bai-
 tago, ez suminak jotzen baitu.

Gauzak honela, jar belarri irekia eta gogo ernea, arduetatik
 libratua, egiazko doktrinari, fintasun leialez eskaintzen dizkizudan
 dohainok arbuioz laga ez ditzazun, ulertu aurretik. Zeren ortziaren eta
 jainkoen azken arrazoia azaltzera eta gauzen lehenkiak agertzera bai-
 noakizu, zeintzuokin naturak gauza oro sortzen, handitzen eta elika-
 tzen duen, eta zeintzuotara berriz ere, desegindakoan, itzularazten
 dituen; zeintzuoi, geure doktrina azaltzean, materia, gorputz genitalak
 edo gauzen haziak deitzen diegun, baita lehen gorputzak ere esaten
 diegun, eurotatik, lehenkiotatik, baitator dena.

Humana ante oculos foede cum uita iaceret
in terris, oppressa graui sub religione
horribili super aspectu mortalibus instans,
quae caput a caeli regionibus ostendebat
primum Graius homo mortalis tollere contra
est oculos ausus primusque obsistere contra;
quem neque fama deum nec fulmina nec minitanti
murmure compressit caelum, sed eo magis acrem
inritat animi uirtutem, effringere ut arta
naturae primus portarum claustra cupiret.
Ergo uiuida uis animi peruicit, et extra
processit longe flammantia moenia mundi
atque omne immensum peragrauit mente animoque,
unde refert nobis uictor quid possit oriri,
quid nequeat, finita potestas denique cuique
quanam sit ratione atque alte terminus haerens.
Quare religio pedibus subiecta uicissim
obteritur, nos exaequat uictoria caelo.

Illud in his rebus uereor, ne forte rearis
impia te rationis inire elementa uiamque
indugredi sceleris. Quod contra saepius illa
religio peperit scelerosa atque impia facta.
Aulide quo pacto Triuia uirginis aram
Iphianassai turparunt sanguine foede
ductores Danaum delecti, prima uirorum.
Cui simul infula uirgineos circumdata comptus
ex utraque pari malarum parte profusast,
et maestum simul ante aras adstare parentem
sensit et hunc propter ferrum celare ministros
aspectuque suo lacrimas effundere ciuis,
muta metu terram genibus summissa petebat.
Nec miserae prodesse in tali tempore quibat
quod patrio princeps donarat nomine regem.
Nam sublata uirum manibus tremibundaque ad aras
deductast, non ut sollemni more sacrorum
perfecto posset claro comitari Hymenaeo,
sed casta incestu nubendi tempore in ipso

Giza bizia begien aurrez lurrean trakeski zetzanean, erlijio
astunak zapaldua, zeinaren burua itxura beldurgarrian ortzi ingurueta-
tik hilkorren gainera erortzear ageri baitzen, greziar gizon bat ausartu
zen lehenen, bere begi hilkorrak altxatzen eta aurka egiten. Ez zuen
geldiarazi ez jainkoen ospeak, ez oinaztuek, ez ortziak bere urruma
mehatxatiz, aitzitik, ordea, are biziagotu zuen haren gogo indarra,
naturaren ate sarraila estuen lehen bortxatzailea izateko irrikan. Hala,
haren gogoaren oldar bizia garaile izan zen, eta urrun jo zuen, mun-
duko eremu gartsuaz harago, eta, bere sen eta gogoz, orotasun neurri-
gabea oinkatu zuen, eta handik garaile dakarkigu berria, zer sor daite-
keen eta zer ez, zergatik daukan, azken batean, gauza bakoitzak ahal-
men mugatua eta zedarrari sakon atxikia. Horrela erlijio noizbait men-
peratua oinpean datza eta garaipenak ortziarekin berdintzen gaitu.

Honetan, beldur naiz ez ote duzun usteko zientziaren elemen-
tu inpioetan abiatu eta gaizkintza bidean sartzen ari zarela. Aitzitik,
ordea, erlijioa bera da sarritan gaizkintzak eta inpiokeriak eragin
dituena. Horrela Auliden, Danautarren buruzagi hautek, gizontasu-
naren eredu haiek, Hirubideko Birjinaren aldarea Ifianassaren odo-
lez dorpeki orbaindu zuten. Haren kopeta birjinalak batzen zituzten
xingolak matrail bietan behera erdi-banan jausi zirenean eta aldare
aurrean bere aita nahigabetua zegoela eta beronen ondoan abadeek
burdina gordetzen zutela eta hiritarrei, bera ikustean, malkoak zeriz-
kiela hauteman zuenean, lurra belauniko jo zuen, ikaraz mutu.
Kinka larri hartan gajoari ez zion balio izan erregea aita izenez
dohaitu zuen lehenengoa izanak. Gizonek, eskuetatik heldurik, alda-
rera eramane zuten dardaraz, ez, ohitura sakratuaren solemnea amai-
turik, Himeneoa joez lagundua izateko, baizik nubilaroan bertan,

hostia concideret mactatu maesta parentis,
existus ut classi felix faustusque daretur. 100
Tantum religio potuit suadere malorum.

Tutemet a nobis iam quouis tempore uatum
terriiloquis uictus dictis desciscere quaeres. 105
Quippe etenim quam multa tibi iam fingere possunt
somnia, quae uita rationes uertere possint,
fortunasque tuas omnis turbare timore!

Et merito: nam si certam finem esse uiderent
aerumnarum homines, aliqua ratione ualere
religionibus atque minis obsistere uatum. 110
Nunc ratio nulla est restandi, nulla facultas,
aeternas quoniam poenas in morte timendum.

Ignoratur enim quae sit natura animai,
nata sit an contra nascentibus insinuetur,
et simul intereat nobiscum morte dirempta
an tenebras Orci uisat uastasque lacunas 115
an pecudes alias diunitus insinuet se,

Ennius ut noster cecinit qui primus amoeno
detulit ex Helicone perenni fronde coronam,
per gentis Italas hominum quae clara clueret;
etsi praeterea tamen esse Acherusia templa 120
Ennius aeternis exponit uersibus edens,

quo neque permanent animae neque corpora nostra,
sed quaedam simulacra modis pallentia miris;
unde sibi exortam semper florentis Homeri
commemorat speciem lacrimas effundere salsas
coepisse et rerum naturam expandere dictis.

Quapropter bene cum superis de rebus habenda
nobis est ratio, solis lunaeque meatus
qua fiant ratione, et qua ui quaeque gerantur
in terris, tunc cum primis ratione sagaci 130
unde anima atque animi constet natura uidendum,

et quae res nobis uigilantibus obuia mentis
terrificet morbo adfectis somnoque sepultis,
cernere uti uideamur eos audireque coram,
morte obita quorum tellus amplectitur ossa. 135

bera hain garbia eta hain ezgarbiro, aitag inmolaturik, biktima samintsu eror zedin, ontziteriak irteera dohatsu eta oparoa izatearren. Horrexenbesteko txarkeriak eragin ditu erlijioak.

Zeuk ere noizbait guregandik aldentzera joko duzu, aztien hitz beldurgarriek menperaturik. Izan ere, zenbat ameskeria asma dezaketen, zure bizikera aldarazteko eta zure zori osoa beldurrez lokatzeko! Eta bidezko da, zeren, gizakiek euren nahigabeen amai ziurrik ikusiko balute, nolabaiteko arrazoa bailukete erlijioei eta aztien mehatxuei aurre egiteko. Orain, oster, ez dago ezelako arrazoirik ez ahalik, heriotzan betiko zigorren beldur izan behar delako. Ez baitakite ari-mak zer izaera daukan, berezkoa den ala, aitzitik, jaiotakoan barneratzen eta, heriotzak desegitean, gurekin hiltzen den, ala Orkoren ilunpeak eta haitzulo hedatsuak bisitatzera doan, ala jainkoaren eraginez beste animalia batzuetan sartzen den, gure Enniok kantatu zuenez, lehenengoa berau, Helikon aberatsetik hosto iraunkorreko koroia ekarri zuena, bere ospea italiarren artean ozenki entzun zedin. Nahiz eta, egia esan, Enniok berak ere bertso eternaletan aldarrikatzen duen badirela Akeronteko barrunbeak, nora ez den ez gure arimarik ez gorputzik sartzen, zurbiltasun bitxiko halako geriza batzuk baizik. Handixek agertu omen zitzaion Homero beti loretsuaren irudia eta, malko garratzak zerizkiola eta bertsoetan, gauzen izaera azaltzen hasi omen zitzaion.

Beraz, goiko gauzei buruzko jakiterik edukitzekotan, hots, zergatik gertatzen diren eguzkiaren eta ilargiaren ibilerak, eta zer bakoi-tzak zeren indarrez diharduen lurtean, orduan adimen zoliz aztertu beharra daukagu zerez osatua den arimaren eta gogoaren izaera, eta zer den itzarrik gaisotasunak jota edo loaren golkoan gagozela dator-kigun gogo izuarazle hori, heriotzaz handikoak, euren hezurak lurak besarkatzen dituenak, entzuten eta aurrez aurre ikusten ditugula irudizteraino.

Nec me animi fallit Graiorum obscura reperta
difficile inlustrare Latinis uersibus esse,
multa nouis uerbis praesertim cum sit agendum
propter egestatem linguae et rerum nouitatem;
sed tua me uirtus tamen et sperata uoluptas
suauis amicitiae quemuis efferre laborem
suadet et inducit noctes uigilare serenas
quaerentem dictis quibus et quo carmine demun
clara tuae possim praepandere lumina menti,
res quibus occultas penitus conuisere possis.

Hunc igitur terrorem animi tenebrasque necessest
non radii solis neque lucida tela diei
discutiant, sed naturae species ratioque.

Principium cuius hinc nobis exordia sumet,
nullam rem e nilo gigni diuinitus umquam.
Quippe ita formido mortalis continet omnis,
quod multa in terris fieri caeloque tuentur
quorum operum causas nulla ratione uidere
possunt ac fieri diuino numine rentur.
Quas ob res ubi uiderimus nil posse creari
de nilo, tum quod sequimur iam rectius inde
perspiciemus, et unde queat res quaeque creari
et quo quaeque modo fiant opera sine diuom.
Nam si de nilo fierent, ex omnibu rebus
omne genus nasci posset, nil semine egeret.
E mare primum homines, e terra posset oriri
squamigerum genus et uolucres erumpere caelo;
armenta atque aliae pecudes, genus omne ferarum,
incerto partu culta ac deserta tenerent.
Nec fructus idem arboribus constare solerent,
sed mutarentur, ferre omnes omnia possent.
Quippe ubi non essent genitalia corpora cuique,
qui posset mater rebus consistere certa?
At nunc seminibus quia certis quaeque creantur,

Badakit grekoen aurkikunde ilunak latinezko bertsoz argitzea
zaila dela, batez ere sarritan hitz berri asko sortu behar baita, hizkun-
tzaren urritasuna eta gaien berritasuna bide, baina, hala ere, zure
merezimenduak eta zure adiskidantza gozoaren atsegin itxaronak edo-
zein lantegi harrarazten eta gau lasaiak ernai pasarazten dizkit, zure
gogoa argiztatzeko hitzen eta bertsoen bila, horrela gauzarik ezkutue-
nak hondoraino araka ahal ditzazun.

Gogoaren izu eta ilunpeok ezabatu behar dituzte, beraz, ez
eguzkiaren izpiek ez egunaren gezi argitsuek, naturaren behaketak eta
zientziak baizik. Honetan, gure lehen printzipiotzat jotzen dugu ezer
ez dela inoiz hutsetik sortu jainko eraginez. Hilkor guztiak beldur
horrexen mende dagoz egon ere. Euren zergatiak inola ere ulertzen ez
dituzten fenomenoak gertatzen ikusten dituzte zeru-lurretan eta jain-
ko-ahalmenak eginak direla uste dute. Honela, hutsetik ezer kreatze-
rik ez dagoela ikusitakoan, orduan bila gabiltzana zuzenago haute-
mango dugu, zer bakoitza zertatik kreatua izan daitekeen eta zer
bakoitza nola gertatzen den jainkoen eraginik gabe.

Izan ere, hutsetik sor balitez, edozer edozertatik jaio ahalko
litzateke, ezerk ez luke hazirik beharko. Itsasotik lehenbizi gizakiak
sortu ahalko lirateke, ezkatadun familia lehorretik eta hegaztiak bat-
batean ortzitik. Abereek eta gainerako animaliek, mota guztietako
basapiztiek, ezustean jaiorik, soroak eta mortuak beteko lituzteke.
Fruituak ere, zuhaitzetan berdin iraun beharrean, aldatu egingo lira-
teke, denek dena sortu ahalko lukete. Zeren, zer bakoitzak bere gor-
putz sortzaileak eduki ezik, zein izan daiteke zer bakoitzaren ama
ziurra? Orain, ordea, zer bakoitza, hazi jakinetik datorrenez gero,

inde enascitur atque oras in luminis exit,
 materies ubi inest cuiusque et corpora prima;
 atque hac re nequeunt ex omnibus omnia gigni,
 quod certis in rebus inest secreta facultas.
 Praeterea cur uere rosam, frumenta calore,
 uitis autumno fundi suadente uidemus,
 si non, certa suo quia tempore semina rerum
 cum confluerunt, patefit quodcumque creatur,
 dum tempestates adsunt et uiuida tellus
 tuto res teneras effert in luminis oras?
 Quod si de nilo fierent, subito exorerentur
 incerto spatio atque alienis partibus anni,
 quippe ubi nulla forent primordia quae genituali
 concilio possent arceri tempore iniquo.
 Nec porro augendis rebus spatio foret usus
 seminis ad coitum, si e nilo crescere possent.
 Nam fierent iuuenes subito ex infantibu paruis
 e terraque exorta repente arbusta salirent.
 Quorum nil fieri manifestum est, omnia quando
 paulatim crescunt, ut par est, semine certo,
 crescentesque genus seruant; ut noscere possis
 quicque sua de materie grandescere alique.
 Huc accedit uti sine certis imbribus anni
 laetificos nequeat fetus summittere tellus
 nec porro secreta cibo natura animantum
 propagare genus possit uitamque tueri;
 ut potius multis communia corpora rebus
 multa putes esse, ut uerbis elementa uidemus,
 quam sine principiis ullam rem existere posse.
 Denique cur homines tantos natura parare
 non potuit, pedibus qui pontum per uada possent
 transire et magnos manibus diuellere montis
 multaque uiuendo uitalia uincere saecla,
 si non, materies quia rebus reddita certast
 gignundis e qua constat quid possit oriri?
 Nil igitur fieri de nilo posse fatendumst,
 semine quando opus est rebus, quo quaeque creatae
 aeris in teneras possint proferrier auras.

bakoitzaren materia eta lehen gorputzak dagozen lekuan bertan jaiotzen eta argitara irteten da. Eta honegatik dena ez daiteke denetik sor, gauza jakin bakoitzari bere ahalmen ezkutua dagokiolako. Gainera, zergatik dakusgu arrosa udaberrian, garia berotan, mahatsa udazken limurtzailean heltzen, ez bada, gauzen haziak sasoi jakinean elkartu zirenez gero, sortua izan dena bistaratzen delako baino, urtaroak diraueno eta lur bizitsuak gauza xamur horiek argitara segurki ateratzen ditueno? Izan ere, hutsetik eginak balira, tanpez azalduko lirateke, uste gabeko lekuan eta kontrako urte garaian, ez bailegoke lehenkirik euron elkartze sortzailea kontrako sasoiak eragotziko lukeenik. Ezta gero, gauzen garapenean ere, eperik beharko litzateke, euren haziak elkartzeko, hutsetik hazterik balute. Zeren haurtxoak tanpez gazte bihurtuko lirateke eta zuhaitzak bat-batean sorturik kanporatuko lirateke lurretik. Argi dago honelakorik ez dela ezer gertatzen, gauza guztiak, bidezko denez, hazi jakinetik hazten baitira astiro-astiro, eta haztean, euren endari eusten baitiote. Hortik atera dezakezu gauza bakoitza bere materiatic hazten eta elikatzen dela. Honez gainera, urteko eurialdi jakin batzuk gabe, lurak ezingo luke fruitu gozorik eman, eta animaliek ere, jana kenduz gero, ezingo lukete euren endarik zabaldu ez biziari eutsi. Hitzei hizkiak dagozkien moduan, gauza askori dagokion gorputz asko dagoela lehenago pentsatuko duzu, beraz, ezer lehenkirik gabe izan daitekeela baino.

Izan ere, naturak zergatik ezin izan ditu itsasoak oinez zeharkatzeko eta menditzarrak eskuz erauzteko eta bizidunen gizaldi mordoak bizirik gaintzeko moduko gizakumeak sortu, jaio beharreko gauza bakoitzari bere materia jakina eman zaiolako eta bakoitzetik zer sor daitekeen erabakita dagoelako ez bada? Aitortu beharra dago, beraz, ezer ez daitekeela hutsetik sor, gauza orok hazia behar baitu, hartaz sorturik, aireko aura bigunera jalgi ahal izateko.

Postremo quoniam incultis praestare uidemus
cultā loca et manibus meliores reddere fetus,
esse uidelicet in terris primordia rerum,
quae non fecundas uertentes uomere glebas
terraique solum subigentes cimus ad ortus.
Quod si nulla forent, nostro sine quaeque labore
sponte sua multo fieri meliora uideres.

Huc accedit uti quicque in sua corpora rursum
dissoluat natura neque ad nilum interemat res.
Nam si quid mortale <e> cunctis partibus esset,
ex oculis res quaeque repente erepta periret.
Nulla ui foret usus enim quae partibus eius
discidium parere et nexus exsoluere posset.
Quod nunc, aeterno quia constant semine quaeque,
donec uis obiit quae res diuerberet ictu
aut intus penetret per inania dissoluatque,
nullius exitium patitur natura uideri.
Praeterea quaecumque uetustate amouet aetas,
si penitus peremit consumens materiem omnem,
unde animale genus generatim in lumina uitae
reducit Venus, aut reductum daedala tellus
unde alit atque auget generatim pabula praebens?
Unde mare ingenui fontes externaque longe
flumina suppeditant? unde aether sidera pascit?
Omnia enim debet, mortali corpore quae sunt,
infinita aetas consumpse anteacta diesque.
Quod si in eo spatium atque anteacta aetate fuere
e quibus haec rerum consistit summa relecta,
immortali sunt natura praedita certe;
haud igitur possunt ad nilum quaeque reuerti.
Denique res omnis eadem uis causaque uolgo
conficeret, nisi materies aeterna teneret,
inter se nexus minus aut magis indupedita.
Tactus enim leti satis esset causa profecto,
quippe ubi nulla forent aeterno corpore quorum
contextum uis deberet dissoluere quaeque.
At nunc, inter se quia nexus principiorum

210

215

220

225

230

235

240

Azkenik, lur landuek landugabeei aurea hartzen dietela eta eskuen lanez emaitza hobeak dakartzatela ikusten dugunez gero, argi dago lurtean lehenkiak dagozelako dela, zeintzuen jaiotza eragiten dugun sokil emankorrek goldatuz eta lur zorua zehatuz. Horiek ez balegoz, edozein soro, guré lanik gabe, berez-berez, askoz oparoago egiten ikusiko zenuke.

Honez gainera, naturak zer bakoitza berriro bere elementueta-
ra disolbatzen du, baina ez du ezer hutseraino ezereztzen. Zeren bere zati guztietan zeozer hilgarria balego, gauza guztiak, gure bistatik erauziak, bat-batean hilko lirake. Inolako indarririk ez litzateke beharko euren zatiak sakabanatzeko eta loturak desegiteko. Baina, jakina, gauzak hazi eternalenez osatuak dagoenez gero, bere zartadaz banatuko dituen edo bitarteetatik barruratu eta disolbatuko dituen indarririk helden ez deno, naturak ez du ezerean deusezpenik ikusten uzten.

Gainera, baldin denborak, adina bide, ezabatzen duen dena erabat suntsitzen bada, materia guztia janda, Venusek zertatik berrekartzen ditu animalien enda ezberdinak biziaren argira, edo berrekarririk zerez elikatzen eta handiarazten ditu lur artatsuak, bakoitzari bere bazka eskainiz? Zertatik hornitzen dira itsasoko barne iturriak eta urrundiko kanpo ibaiak? Eterrak nondik bazkatzten ditu izarrak? Denbora joanak eta egun infinituek jadanik ahitua behar baitzuten gorputz hilkorra daukan dena. Denbora eta aro iragan horretan guztian, gauzadi hau osatzen eta berritzen duten gaiak izan badira, izate hilezkorrez jantziak dagoz bai. Ezerk ez dauka, beraz, hutsera itzultzerik. Azkenik, indar eta kausa berak dena nolana desegingo luke, bere baitan lotura estu samarreko materia eternalak eutsiko ez balio. Bestela, ukitze soila heriotzaren aski eragile litzateke, ez bailegoke gorputz iraunkorreko ezer, zeinaren bilbea indar aparteko batek desegin beharko lukeen.

dissimiles constat aeternaue materies est,
incolumi remanent res corpore, dum satis acris
uis obeat pro textura cuiusque reperta.
Haud igitur redit ad nilum res ulla, sed omnes
discidio redeunt in corpora materiai.
Postremo pereunt imbres, ubi eos pater aether
in gremium matris terrai praecipitauit;
at nitidae surgunt fruges ramiue uirescunt
arboribus, crescunt ipsae fetuque grauantur;
hinc alitur porro nostrum genus atque ferarum,
hinc laetas urbis pueris florere uidemus
frondiferasque nouis auibus canere undique siluas;
hinc fessae pecudes pingui per pabula laeta
corpora deponunt et candens lacteus umor
uberibus manat distentis; hinc noua proles
artubus infirmis teneras lasciua per herbas
ludit, lacte mero mentis percussa nouellas.
Haud igitur penitus pereunt quaecumque uidentur
quando alid ex alio reficit natura nec ullam
rem gigni patitur nisi morte adiuta aliena.

Nunc age, res quoniam docui non posse cre
de nilo neque item genitas ad nil reuocari,
ne qua forte tamen coeptes diffidere dicti
quod nequeunt oculis rerum primordia
accipe praeterea quae corpora tute nec
confitearum esse in rebus nec posse u
Principio uenti uis uerberat incita p
ingentisque ruit nauis et nubila dif
interdum rapido percurrens turbid
arboribus magnis sternit montis
siluifragis uexat flabris: ita per
cum fremitu saeuitque minaci
Sunt igitur uenti nimirum co
quae mare, quae terras, quae que nubila caeli
uerrunt ac subito uexantia
nec ratione fluunt alia str
et cum mollis aquae fer
tura repente

245

250

255

260

265

270

275

280

Orain, ostera, lehenkien loturak ezberdinak direnez eta materia eter-
nala denez, gauzek euren gorputz osoan diraute, haien uztardura dese-
giteko bezain indar bortitzak jo arte. Ezertxo ere ez da, beraz, hutsera
etortzen, denak, banaturik, materiaren lehenkietara itzultzen baizik.

Azkenik, euria ere hil egiten da, aita eterrak ama lurraren sabe-
lera jaurti duenean; baina uzta bikainak sortzen dira eta adarrak ber-
datzen zuhaitzetan, eurok ere hazten eta fruituz zamatzen dira; hortik
elikatzen da halaber gure eta animalien enda, hortik dakutsagu hiri
alaiak umez loratzen eta oihan marduletan txori berrien kantua nonahi
entzuten; hortik eratzaten dituzte abereek euren gorputzak larre alaie-
tan, gizenez astundurik, eta esne zuria erioten errape handituetatik;
hortik jostatzen dira ume berriak, zango ahulekin saltari, belartza
gurietan, euren burutxo bigunak esne hutsean xoraturik. Ez da, ez,
dirudien guztia erabat hiltzen, naturak bata-bestetik berritzen baititu,
eta ez baitu uzten ezer sortzen, besteren heriotzak lagunduta ez bada.

Adi, ordea, orain. Gauzak hutsetik ezin direla sortu eta,
sortutakoan, ezin direla berriro hutseratu erakutsi dizudala-eta,
agian, lehenkiak begiz ikusterik ez dagoelako, hitzez mesfidatzen
ez zaitez has, utzidazu beste gorputz batzuk aipatzen, nahitaez
badirela aitortu beharrekoak eta ikusi ezinekoak. Lehenik, haize-
aren indar suminduak itsasoa astintzen eta ontzi eskergak iraul-
tzen eta hodeiak sakabanatzen ditu; halaber, zirimol oldartsuan
korrituz, tantai handiak zelaietan eraisten ditu eta mendi tonto-
rrak bere putz oihan apurtzailez astintzen: horrelaxe haserretzen
da haizea marruma bortitzez eta ankertzen murmurio mehatxatiz.
Dударik gabe, beraz, haizea gorputz ezkutua da, itsas-lehorrak,
baita ortziko hodeiak ere, arrastatzen eta bat-bateko zirimolean
andarka daramatzana, eta hauen lasterra eta hondamen-
gintza uraren izate gozoaren antz-antzekoa da, hau bat-batean

flumine abundanti, quam largis imbris auget
 montibus ex altis magnus decursus aquai
 fragmina coniciens siluarum arbustaque tota,
 nec ualidi possunt pontes uenientis aquai
 uim subitam tolerare: ita magno turbidus imbri
 molibus incurrit ualidis cum uiribus amnis,
 dat sonitu magno stragem uoluitque sub undis
 gradia saxa, ruit qua quidquid fluctibus obstat.
 Sic igitur debent uenti quoque flamina ferri,
 quae ueluti ualidum cum flumen procubere
 quamlibet in partem, trudunt res ante ruuntque
 impetibus crebris, interdum uertice torto
 corripiunt rapidique rotanti turbine portant.
 Quare etiam atque etiam sunt uenti corpora caeca,
 quandoquidem factis et moribus aemula magnis
 amnibus inueniuntur, aperto corpore qui sunt.
 Tum porro uarios rerum sentimus odores
 nec tamen ad naris uenientis cernimus umquam,
 nec calidos aestus tuimur nec frigora quimus
 usurpare oculis nec uoces cernere suemus;
 quae tamen omnia corporea constare necessest
 natura, quoniam sensus impellere possunt.
 Tangere enim et tangi, nisi corpus, nulla potest res.
 Denique fluctifrago suspensae in litore uestes
 uuescunt, eadem dispansae in sole serescunt.
 At neque quo pacto persederit umor aquai
 uisumst nec rursus quo pacto fugerit aestu.
 In paruas igitur partis dispergitur umor
 quas oculi nulla possunt ratione uidere.
 Quin etiam multis solis redeuntibus annis
 anulus in digito subter tenuatur habendo,
 stilicidi casus lapidem cauat, uncus aratri
 ferreus occulte decrescit uomer in aruis,
 strataque iam uolgi pedibus detrita uiarum
 saxea conspicimus; tum portas propter aena
 signa manus dextras ostendunt adtenuari
 saepe salutantum tactu praeterque meantum.
 Haec igitur minui, cum sint detrita, uidemus.

uhol gainezkatuan abiatzen denean eta, euri ugarian handiturik, mendi
 goietatik urjauzi handian oldartzen denean, oihan zatiak eta zuhaitz
 osoak aurrean eramanez, zubirik sendoenek ere datorren uraren bat-
 bateko indarrari eutsi ezin diotela: honela ibaia, euriteek uhertua,
 dikeen kontra indar izugarritz oldartzen da, hondamen burrunbatsua
 daragi eta bere uhinpean harri itzelak iraulkatzen ditu, uholaren aurre-
 an jartzen zaion edozer erauziz. Honelaxe jokatu behar du haizearen
 putzak ere, zeinak, ibai indartsu gisan zernahi jotzen duela, dena
 aurrean hartzen eta bulta etengabez eraisten baitu, edo zirimol bihu-
 rrian dena erauzten eta azkarki eramaten baitu uhol birakarian.
 Haizea, beraz, berriro esanda, gorputz ezkutua da, baina egitez eta iza-
 eraz gorputz ageria daukaten ibai handien antzekoa.

Honez gainera, gauzen usain ezberdinak hartzen ditugu, sudu-
 rreratzen inoiz ikusi gabe; berotasunik ere ez dugu ikusten, ez hotzik
 begiekin atzematen ahal, ez ahotsik hautematen; hala ere, zer guztiok
 izaera gorpuztuna eduki behar dute nahitaez, sentimenei eragiteko
 gauza baitira. Gorputzaz bestek ezin baitu ez ukitu ez ukitua izan.

Azkenik, bazter uhin-hauslean eskegitako jantziak hezatu
 egiten dira; eguzkitan zabaldurik, ordea, lehortu. Baina ez dugu
 ikusi hezetasuna nola sartu zaien, ez gero nola berotan ihes egin
 duen. Ura, beraz, begiek inola ere ikusi ezineko zati txikietan
 banatu da. Areago oraindik, eguzkiaren urte-itzuli askorekin,
 eraztuna barrutik mehetu egiten da darabilen hatzean, tantaren
 erorrerak harria zulatzen du, burdinazko golde-nabar okerra soro-
 etan txikitu egiten da ezkutuki, eta harri-bideak jendearen oinetan
 higaturik dakutsagu; halaber ate ondoetan, brontzezko irudiek
 agurtzaileen pasaerako igurtziarekin mehetuz doazkien eskuinak
 erakusten dituzte. Hauek denak higatu ahala txikitzen dakutsagu.

Sed quae corpora decedant in tempore quoque,
inuida praeclusit speciem natura uidendi.
Postremo quaecumque dies natura rebus
paulatim tribuit, moderatim crescere cogens,
nulla potest oculorum acies contenta tueri,
nec porro quaecumque aeuo macieque senescunt;
nec, mare quae impendent, uestro sale saxa peresa
quid quoque amittant in tempore cernere possis.
Corporibus caecis igitur natura gerit res.

Nec tamen undique coporea stipata tenentur
omnia natura; namque est in rebus inane.
Quod tibi cognosse in multis erit utile rebus
nec sinet errantem dubitare et quaerere semper
de summa rerum et nostris diffidere dictis.
Quapropter locus est intactus inane uacansque.
Quod si non esset, nulla ratione moueri
res possent; namque officium quod corporis exstat,
officere atque obstare, id in omni tempore adesset
omnibus; haud igitur quicquam procedere posset,
principium quoniam cedendi nulla daret res.
At nunc per maria ac terras sublima que caeli
multa modis multis uaria ratione moueri
cernimus ante oculos, quae, si non esset inane,
non tam sollicito motu priuata carerent
quam genita omnino nulla ratione fuissent,
undique materies quoniam stipata quiesset.
Praeterea quamuis solidae res esse putentur,
hinc tamen esse licet raro cum corpore cernas.
In saxis ac speluncis permanat aquarum
liquidus umor et uberibus flent omnia guttis.
Dissipat in corpus sese cibus omne animantum.
Crescunt arbusta et fetus in tempore fundunt,
quod cibus in totas usque ab radicibus imis
per truncos ac per ramos diffunditur omnis.
Inter saepta meant uoces et clausa dumorum
transuolitant, rigidum permanat frigus ad ossa,
quod, nisi inania sint qua possent corpora quaeque

320
325
330
335
340
345
350
355

Baina une bakoitzean zer gorputz aldentzen den ikustea natura
jeloskorrak galarazten digu. Azkenik, begirik zorrotzenak ere ez
dezake ikus denborak eta naturak gauzei zer eransten dien,
emeki-emeki hazaraziz, ez adinak eta ahuleriak zer kentzen
dien; ez haitzek, itsasoan zintzilik, uneoro zer galtzen duten,
gatz hozkariak janda. Naturak, beraz, gorputz ezkutuekin mol-
datzen ditu gauzak. Hala ere, dena ez dago denean, izaera kon-
paktuan trinkotua, gauzen barruan hutsunea baitago. Hau jakite-
ak gauza askotarako balioko dizu, ez baitizu utziko zalantzan
galtzen, beti izadiaz galdetzen eta nire hitzez mesfidatzen.
Badago, beraz, leku bat ukigabea, hutsa eta librea. Berau ez
balitz, gauzek ezingo lukete inola mugitu; zeren gorputzari
dagokion eginkizunak, talkatzeak eta jarkitzeak, noiznahi zer-
nahi joko bailuke; ezerk ezingo luke, beraz, aurrera egin, ezerk
ez bailuke atzera egingo. Orain, ostera, itsas-lehorretan eta zeru
gailurretan hamaika gauza dakusgu hamaika era eta norabidetan
begi aurrean mugitzen; hauek, hutsunerik ez balitz, mugimendu
etengabe horretaz gabetuak ez ezik, sortuak ere ezingo zuten
izan, nonahi pilaturiko materia geldi bailegoke. Gainera, gauzak
solidoak direla eman arren, hemendik ikusi ahalko duzu gorputz
apatza daukatela. Harpeetako haitzetatik uraren hezetasun liki-
doa sartzen da, eta denei tanta mardulak darizkie. Janaria bizidu-
nen gorputz osoan zabaltzen da. Zuhaitzak hazten eta sasoiari
fruitua ematen dute, janaria barrenengo sustraietatik enbor eta
adarretan zehar denera zabaltzen delako. Hotsak murrak zehar-
katzen ditu eta etxe hormetan barna hegatzan, hotz bizia hezu-
rretan sartzen da, eta hau dena ez zenuke inola ere gertatzen iku-
siko, gorputzak handik pasatzeko hutsunerik ez balitz. Azken

trasire, haud ulla fieri ratione uideres.
Denique cur alias aliis praestare uidemus
pondere res rebus nilo maiore figura?
Nam si tantundemst in lanae glomere quantum
corporis in plumbo est, tantudem pendere par est,
corporis officiumst quoniam premere omnia deorsum,
contra autem natura manet sine pondere inanis.
Ergo quod magnumst aequae leuiusque uidetur,
nimirum plus esse sibi declarat inanis;
at contra grauius plus in se corporis esse
dedicat et multo uacui minus intus habere.
Est igitur nimirum id quod ratione sagaci
quaerimus, admixtum rebus, quod inane uocamus.

Illud in his rebus ne te deducere uero
possit, quod quidam fingunt, praecurrere cogor.
Cedere squamigeris latices nitentibus aiunt
et liquidas aperire uias, quia post loca pisces
linquant, quo possint cedentes confluere undae.
Sic alias quoque res inter se posse moueri
et mutare locum, quamuis sint omnia plena.
Scilicet id falsa totum ratione receptumst.
Nam quo squamigeri poterunt procedere tandem,
ni spatium dederint latices? concedere porro
quo poterunt undae, cum pisces ire nequibunt?
Aut igitur motu priuandumst corpora quaeque
aut esse admixtum dicendumst rebus inane,
unde initum primum capiat res quaeque mouendi.
Postremo duo de concursu corpora lata
si cita dissiliant, nempe aer omne necessest,
inter corpora quod fiat, possidat inane.
Is porro quamuis circum celerantibus auris
confluat, haud poterit tamen uno tempore totum
compleri spatium; nam primum quemque necessest
occupet ille locum, deinde omnia possideantur.
Quod si forte aliquis, cum corpora dissiluerent,
tum putat id fieri quia se condenseat aer,
errat; nam uacuum tum fit quod non fuit ante

360

365

370

375

380

385

390

batez, nola dakusgu gauzak elkarri pisuan nagusitzen, tamainuan handiagoak izan gabe? Zeren, artile harilean altzairuan besteko gorputza badago, biek berdin pisatu behar dute, gorputzen eginkizuna denari beherantz sakatzea delako; berez hutsune denak, ostera, pisu gabe dirau. Beraz, handian berdina izanik, arinagoa bada, argi dago honek hutsune gehiago daroala beragan; astunagoak, berriz, adierazten du gorputz gehiago dagoela beragan eta barruan askoz hutsune gutxiago daukala. Dudarik gabe, beraz, adimen zorrotzez bilatzen dugun zerbait badago gauzetan nahasia, hutsunea deritzoguna.

Honetan, egiatik aldendu ez zaitzan, batzuek asmatu duten zerbaitetik jagon gura zintuzket. Urak amore ematen eta bide likidoak zabaltzen omen dizkie ezkatadun distiratsuei, arrainek atzean tokiak uzten baitituzte, eurok aldendu ahala ura etor dadin. Beste gorputzak ere halaxe mugi eta tokiak elkartruka omen ditzakete, denak trinkoak izan arren. Hau, ostera, arrazoi faltsuetan datza dena. Zeren nondik aurrera jo dezakete ezkatadunek, urak tokirik utziko ez balie? Uhinak, halaber, nondik itzul daitezke, arrainek joaterik ez badute? Beraz, edo gorputz guztiei mugimendua kendu behar zaie edo hutsunea gauzetan nahasia dagoela onartu behar da, handik gauza bakoitzak mugitzen hasteko modua izan dezan. Azkenik, bi gorputz lauk elkar jo eta berehala zatikatzen badira, aireak nahitaez bete behar du gorputzen artean geratzen den hutsune guztia. Honek, ostera, birundarik azkarrenez inguratzen bada ere, ezingo du espazio guztia une bakarrean bete; zeren leku hura zatika hartuz joan beharko baitu, gero dena betetzeko. Norbaitek beharbada uste badu, gorputzak zatikatzean, airea kondentsatzen delako gertatzen dela hori, oker dago; zeren orduan lehen ez zegoen hutsunea egiten eta, halaber,

et repletur item uacuum quod constitit ante,
nec tali ratione potest denserier aer,
nec, si iam posset, sine inani posset, opinor,
ipse in se trahere et partis conducere in unum.
Quapropter, quamuis causando multa moreris,
esse in rebus inane tamen fateare necessest.

Multaque praeterea tibi possum commemorando
argumenta fidem dictis corradere nostris.
Verum animo satis haec uestigia parua sagaci
sunt per quae possis cognoscere cetera tute.
Namque canes ut montiuagae persaepe ferai
naribus inueniunt intectas fronde quietes,
cum semel institerunt uestigia certa uiai,
sic alid ex alio per te tute ipse uidere
talibus in rebus poteris caecasque latebras
insinuare ominis et uerum protrahere inde.
Quod si pigraris pualumue recesseris ab re,
hoc tibi de plano possum promittere, Memmi:
usque adeo largos haustis e fontibus amnis
lingua meo suauis diti de pectore fundet,
ut uerear ne tarda prius per membra senectus
serpat et in nobis uitai claustra resoluat,
quam tibi de quauis una re uersibus omnis
argumentorum sit copia missa per auris.

Sed nunc ut repetam coeptum pertexere dictis,
omnis, ut est igitur per se, natura duabus
constitit in rebus; nam corpora sunt et inane,
haec in quo sita sunt et qua diuersa mouentur.
Corpus enim per se communis dedicat esse
sensus; cui nisi prima fides fundata ualebit,
haud erit occultis de rebus quo referentes
confirmare animi quicquam ratione queamus.
Tum porro locus ac spatium, quod inane uocamus,
si nullum foret, haut usquam sita corpora possent
esse neque omnino quoquam diuersa meare;
id quod iam supera tibi paulo ostendimus ante.

395

400

405

410

415

420

425

lehen hutsik zegoena betetzen baita, eta aireak ezin du horrela trinko-
tu, eta, ahal izanik ere, ezingo luke, nik uste, bere burua uzkuritu eta
zatiak bakarrera ekarri. Beraz, nahi adina oztopoz tematzen bazara
ere, nahitaez aitortu beharko duzu gauzetan badela hutsunea.

Gainera, hamaika argumentu aipa nezake zugandik nire esane-
kiko fedea lortzeko. Baina gogo argiari aztarna txiki hauek aski zaiz-
kio, zeintzuen bidez gainerakoa zuk zeuk ezagutu ahalko duzun.
Horrela, txakurrak sarritan, behin lorratz ziburra hartutakoan, piztia
menditar baten atsedenekua, hostotzan ezkutatua, usnaz aurkitzen
duen bezala, halaxe ahalko duzu, gauza hauetan, bata bestetik zeuk
ikusi eta gordeleku ilun guztietan sartu eta handik egia atera.
Geldotzen eta apur bat lanari uzten badiozu, hauxe aginduko dizut
argi, Memmio: nire mihi leunak nire bular oparotik egia parrasta hain
ugariak isuriko ditu, ezen beldur naiz zahartzaro nagia ez ote zaigun
lohadarretara zabalduko eta guregan dagoen bizi giltzak askatuko,
zure belarrietara gauza bakar bati buruzko argumentu piloa bertsotan
helarazi aurretik.

Baina orain, hasitako azalpenari jarraituz, natura osoa, bere
baitan den aldetik, bi gauzaz osatzen da; bai baitira gorputzak eta
hutsunea, non haiek kokatzen eta hara-hona mugitzen diren. Gorputza
bere baitan badela sen onak erakusten du. Honekiko lehen fede sen-
doak balio izan ezik, gauza ezkutuetan ez legoke ezer, arrazoia bertan
oinarriturik, ziurtasuna ukan dezagun. Bestalde, hutsunea deritzogun
lekurik eta espaziorik ez balego, gorputzek ezingo lukete inon koka-
tu, ez hara-hona batere mugitu. Lehentxoago azaldu dizudana da hau.

Praeterea nil est quod possis dicere ab omni
corpore seiunctum secretumque esse ab inani,
quod quasi tertia sit numero natura reperta.
Nam quodcumque erit, esse aliquid debebit id ipsum
augmine uel grandi uel paruo denique, dum sit;
cui si tactus erit quamuis leuis exiguusque,
corporis augebit numerum summamque sequetur.
Sin intactile erit, nulla de parte quod ullam
rem prohibere queat per se transire meantem,
scilicet hoc id erit, uacuum quod inane uocamus.
Praeterea per se quodcumque erit, aut faciet quid
aut aliis fungi debebit agentibus ipsum
aut erit ut possint in eo res esse gerique.
At facere et fungi sine corpore nulla potest res,
nec praeberere locum porro nisi inane uacansque.
Ergo praeter inane et corpora tertia per se
nulla potest rerum in numero natura relinqui,
nec quae sub sensus cadat ullo tempore nostros
nec ratione animi quam quisquam possit apisci.

Nam quaecumque cluent, aut his coniuncta duabus
rebus ea inuenies aut horum euenta uidebis.
Coniunctum est id quod nusquam sine permittali
discidio potis est seiungi seque gregari,
pondus uti saxi, calor ignis, liquor aquai,
tactus corporibus cunctis, intactus inani.
Seruitium contra paupertas diuitiaeque,
libertas bellum concordia, cetera quorum
aduentu manet incolumis natura abituque,
haec soliti sumus, ut par est, euenta uocare
Tempus item per se non est, sed rebus ab ipsis
consequitur sensus, transactum quid sit in aeuo,
tum quae res instet, quid porro deinde sequatur.
Nec per se quemquam tempus sentire fatendumst
semotum ab rerum motu placidaque quiete.
Denique Tyndaridem raptam belloque subactas
Troiuigenas gentis cum dicunt esse, uidendumst

Aurrera joz, ez dago ezer bat ere gorputzik gabea eta aldi
berean hutsuneaz bestelakoa dei dezakezunik, hirugarren izaera
berri bat bezalakoa litzatekeenik. Zeren baden zernahik bere baitan
zerbait izan behar baitu, tamainu handi edo txikikoa noski, bade-
no. Eta arinena eta xumeena bada ere, ukitzekoa bada, gorputzen
kopurua gehituko du eta haien batura osatuko. Baldin ukigaitza,
ezein gorputzi bere baitako inondik pasatzen galerazi ezin diona,
bada, orduan hori hutsunea deitzen duguna dateke. Gainera bere
baitan den guztiak edo zerbaiti eragingo dio eta beste eragileena
beragan jasango du edo gauzak beragan izateko eta gertatzeko
modukoa izango da. Baina gorputzik gabe ezerk ezin du eragin ez
jasan, ez hutsa eta librea ez den lekurik eskaini. Hutsuneaz eta gor-
putzaz gainera, beraz, ez da geratzen bere baitan den hirugarren
gauzen izaerarik, inoiz gure sentimenen pean aurkitzekorik, ez
arrazoibidez atzema izatekorik.

Izan ere, izena duten guztiak edo bi gauza horiei dagozkien
edo euron gertakariak direla ikusiko duzu. Propietatea haustu-
ra hondagarri gabe ken ez erants daitekeena da, hala nola pisua
haitzetan, beroa suan, hezetasuna urean, ukimena gorputz guztie-
tan, ukiezina hutsunean. Ostera, esklabutza, txirotasun, aberasta-
sun, askatasun, gerra, bake, euren etortzez edo joatez izaera alda-
gabe uzten duten gainerako guztiei, bidezko denez, gertakariak
deitzen diegu.

Denbora bera ere berez ez da existitzen; gauzek eurek sen-
tiarazten dute zer burutu zen iraganean, zerk dirauen eta zerk
jarraituko duen. Aitortu beharra dago inork ez duela denbora
bere hartan sentitzen, gauzen mugidatik edo gelditasun masaletik
berex. Hala, Tindaride bahitua edo troiar herria gerrak menpera-
tua izan zela diotenean, kontua behar dugu horiek euren baitan
existitu zirela ez pentsatzeko, zeren gertakarion jabe izan ziren
gizaldi haiek dagoeneko irentsiak baititu iragan itzulgaitzak.

ne forte haec per se cogant nos esse fateri,
quando ea saecla hominum, quorum haec euenta fuerunt,
irreuocabilis abstulerit iam praeterita aetas.
Namque aliud terris, aliud regionibus ipsis
euentum dici poterit quodcumque erit actum. 470
Denique materies si rerum nulla fuisset
nec locus ac spatium, res in quo quaeque geruntur,
numquam Tyndaridis forma conflatus amore
ignis, Alexandri Phrygio sub pectore gliscens,
clara accendisset saeui certamina belli, 475
nec clam durateus Troianis Pergama partu
inflammasset equus nocturno Graiugenarum;
perspicere ut possis res gestas funditus omnis
non ita uti corpus per se constare neque esse,
nec ratione cluere eadem qua constet inane, 480
sed magis ut merito possis euenta uocare
corporis atque loci, res in quo quaeque gerantur.

Corpora sunt porro partim primordia rerum,
partim concilio quae constant principiorum.
Sed quae sunt rerum primordia, nulla potest uis
stinguere; nam solido uincunt ea corpore demum. 485
Etsi difficile esse uidetur credere quicquam
in rebus solido reperiri corpore posse.
Transit enim fulmen caeli per saepta domorum,
clamor ut ac uoces; ferrum candescit in igni
dissiliuntque fero feruenti saxa uapore; 490
cum labefactatus rigor auri soluitur aestu,
tum glacies aeris flamma deuicta liquescit;
permanat calor argentum penetraleque frigus,
quando utrumque manu retinentes pocula rite 495
sensimus infuso lympharum rore superne.
Usque adeo in rebus solidi nil esse uidetur.
Sed quia uera tamen ratio natura que rerum
cogit, ades, paucis dum uersibus expediamus
esse ea quae solido atque aeterno corpore constant, 500
semina quae rerum primordiaque esse docemus,
unde omnis rerum nunc constet summa creata.

Zeren gertatutako guztia edo lurren edo herrialdeen euren gertakaria dela esan baitaiteke. Honela, bada, ez gauzen materiari, ez gauza bakoitza bertan gertatzeko lekuri ez espaziorik ez balego, Tindarideren ederrak inoiz ez zuen Alexander frigiarraren paparra maitasun sutsuz beteko, ez zituen ankerraren gudu argitsuak isiotuko, ez zurezko zaldia, troiarrengandik ezkutuan, Pergamo sutuko zuen, grekoen gaueko erditzez. Hortik ikus dezakezu gertatutako gauza guzti-guztiak ez direla euren baitan gorputz gisan bilakatzen ez existitzen, ez direla azaltzen hutsunea bilakatzen den era berean, baizik zuzenago duzula gorputzaren eta zer bakoitza bertan sortzeko espazioaren gertakariak deitzea.

Aurrerago joz, gorputzak edo gauzen lehenkiak dira, edo lehenkion elkartez osatuak. Baina ezein indarrek ezin du gauzen lehenkirik desegin, euren gorputz trinkoa nagusitzen baita. Nahiz eta zaila dirudien gauzetan gorputz trinkoko zerbait egon daitekeela sinestea. Oinaztuak etxeen hormak zeharkatzen baititu, hotsak eta harrabotsak bezala; burdina sutan goritzen da eta haitza kraskatzen, bapore sutsuaren suminez. Urrearen gogortasun bigundua berotan funditzen da eta brontze hotza garrak bentzuturik urtzen. Beroak zilarra barnatzen du, berdin hotz sarkorrak, eta biak nabaritzen ditugu, edontzia ohi bezala eskuan dugula, edari gozoa bertara isurtzen dutenean. Badirudi, bai, gauzetan ez dagoela ezer trinkorik. Baina egiazko arrazoiak eta gauzen izaerak agintzen dutenez gero, adizu bertso gutxitan azalduko dudana, ezen badirela gorputz trinkoz eta betikoz osatzen direnak. Horiek gauzen haziak eta lehenkiak direla diot, zer kreatu guztien batura osatzen dutenak.

Principio quoniam duplex natura duarum
dissimilis rerum longe constare repertast,
corporis atque loci, res in quo quaeque geruntur, 505
esse utramque sibi per se puramque necessest.
Nam quacumque uacat spatium, quod inane uocamus,
corpus ea non est; qua porro cumque tenet se
corpus, ea uacuum nequaquam constat inane.
Sunt igitur solida ac sine inani corpora prima. 510
Praeterea quoniam genitis in rebus inanest,
materiem circum solidam constare necessest,
nec res ulla potest uera ratione probari
corpore inane suo celare atque intus habere,
si non, quod cohibet, solidum constare relinquas. 515
Id porro nil esse potest nisi materiai
concilium, quod inane queat rerum cohibere.
Materies igitur, solido quae corpore constat,
esse aeterna potest, cum cetera dissoluantur.
Tum porro si nil esset quod inane uocaret, 520
omne foret solidum; nisi contra corpora certa
essent quae loca complerent quaecumque tenerent,
omne quod est spatium uacuum constaret inane.
Alternis igitur nimirum corpus inani
distinctum, quoniam nec plenum nauiter exstat 525
nec porro uacuum. Sunt ergo corpora certa
quae spatium pleno possint distinguere inane.
Haec neque dissolui plagis extrinsecus icta
possunt nec porro penitus penetrata retexi
nec ratione queunt alia temptata labare; 530
id quod iam supra tibi paulo ostendimus ante.
Nam neque collidi sine inani possi uidetur
quicquam nec frangi nec findi in bina secando
nec capere umore neque item manabile frigus
nec penetralem ignem, quibus omnia conficiuntur. 535
Et quo quaeque magis cohibet res intus inane,
tam magis his rebus penitus temptata labascit.
Ergo si solida ac sine inani corpora prima
sunt ita uti docui, sint haec aeterna necessest.
Praeterea nisi materies aeterna fuisset, 540

Lehenik, gauza bi hauen, gorputzaren eta zer guztiak ber-
tan gertatzen diren lekuaren izaerak oso ezberdinak direla garbi
dagoenez gero, biek eurenez eta euren baitan bakun existitu beha-
rra daukate. Zeren, hutsunea deritzogun espazioa nonahi libre
dela, han ez baitago gorputzik; gorputzak bertan diraueno, berriz,
han ezin du hutsune librerik egon. Badira, beraz, lehen gorputz
solidoak eta hutsune gabeak. Gainera, hutsuneak, gauza sortuetan
badenez gero, materia solidoz inguratutik egon behar du; eta
arrazoi zuzenez ezin da pentsatu ezein gauzak bere gorputzean
hutsunea gordetzerik eta barruan edukitzerik, daukana solidoa
dela onartzen ez baduzu. Baina dena ere ez daiteke gauzen hutsu-
nea biltzeko gai den materiaren elkartzea baino izan. Gorputz
solidoz osatzen den materia eternala izan daiteke, beraz, gainera-
ko guztia desegiten dela. Bestalde, hutsunea deitzeko moduko
ezer ez balego, dena solidoa litzateke; alderantziz, lekuak bete-
tzeko eta edukitzeko gorputz jakinik ez balego, den guztia espa-
zio hutsa eta librea litzateke. Argi da, beraz, gorputza eta hutsu-
nea elkarrengandik berex txandatzen direla, ez baitago guztizko
betetasunik ez hustasunik. Badira, beraz, gorputz jakinak, espa-
zioa huts-betez bereiz dezaketenak. Hauek ezin dira kanpotiko
kolpez desegin, ez barrutik inola ere hondatu, ez beste ezein arra-
zoik erasota zalantzatu; dagoeneko azaldua dizut hau lehentxo-
go. Izan ere, hutsune gabe ez da ikusten nola daitekeen ezer
kanka, ez hauts, ez bitan ebaki, ez hezetasunik har, ez dena sun-
tsitzen duen hotzik ez surik barnera. Eta zenbat eta gauza batek
barruan hutsune gehiago eduki, hainbat makalago da gauzen era-
soekiko. Beraz, irakatsi dizudanez, lehen gorputzek, solidoak eta
hutsune gabeak badira, eternalak izan behar dute. Gainera, mate-
ria eternala ez balitz, honezkero gauza guztiak erabat ezereztuak
ziratekeen eta dakusgun dena ezerezetik bersortua zatekeen.

antehac ad nilum penitus res quaeque redissent
de niloque renata forent quaecumque uidemus.
At quoniam supra docui nil posse creari
de nilo neque quod genitum est ad nil reuocari,
esse immortalis primordia corpore debent,
dissolui quo quaeque supremo tempore possint,
materies ut suppeditet rebus reparandis.
Sunt igitur solida primordia simplicitate
nec ratione queunt alia seruata per aeuom
ex infinito iam tempore res reparare.

Denique si nullam finem natura parasset
frangendis rebus, iam corpora materiai
usque redacta forent aeuo frangente priore,
ut nil ex illis a certo tempore posset
conceptum summum aetatis peruadere finem.
Nam quiduis citius dissolui posse uidemus
quam rursus refici; quapropter longa diei
infinita aetas anteacti temporis omnis
quod fregisset adhuc disturbans dissoluensque,
numquam reliquo reparari tempore posset.
At nunc nimirum frangendi reddita finis
certa manet, quoniam refici rem quamque uidemus
et finita simul generatim tempora rebus
stare, quibus possint aeuo contingere florem.

Huc accedit uti, solidissima materiai
corpora cum constant, possint tamen omnia reddi,
mollia quae fiunt, aer aqua terra uapores,
quo pacto fiant et qua ui quaeque gerantur,
admixtum quoniam semel est in rebus inane.
At contra si mollia sint primordia rerum,
unde queant ualidi silices ferrumque creari
non poterit ratio reddi; nam funditus omnis
principio fundamenti natura carebit.
Sunt igitur solida pollentia simplicitate
quorum condenseo magis omnia conciliatu
artari possunt ualidasque ostendere uiris.

Baina ezerezetik ez daitekeela ezer sor ez sortutakorik ezerezero
itzul arestian azaldu baitizut, gorputz hilezkorreko lehenkiek egon
behar dute, zer guztiak azken orduan eurengan disolbatzeko
modukoak, gauzen berrikuntzarako materia gera dadin.
Lehenkiak, beraz, solidoak eta bakunak dira, bestela ezingo bai-
tzuten, mendeetan zehar mugagabeko denboratik iraunik, gauza-
rik berritu.

Azkenik, naturak gauzen apurtzeari mugarik jarri ez balio,
materiaren gorputzak hain legozke iragan mende apurtzaileen era-
ginez murrizturik, ezen hauetatik sorturiko ezerk ezingo bailuke,
epe jakinean, bizitzaren goren mugarik jaritsi. Zeren edozer ere
azkarrago desegin daitekeela ikusten baitugu atzera berregin
baino. Horrela, egunen luzera amaigabea, iragan denbora osoak
orain arte apurtuko zukeena, ezabatuz eta disolbatuz, gainerako
denboran ezingo litzateke sekula berritu. Argi dago, ordea, apur-
tzeko muga jakin bat ezarrita dagoela, ikusten baitugu zer guztiak
berreginez doazela eta aldi berean gauza mota bakoitzari denbora
mugatu bat esleitu zaiola, biziaren lorera iristeko.

Honez gainera, materiaren gorputzak guztiz trinkoak izan
arren, ulertzekoa da, hala ere, gorputz bigunak, airea, ura, lurra, sua,
nola sortzen eta bakoitzak nolako indarra daragien, hutsunea gauze-
tan nahasturik baitago. Gauzen lehenkiak bigunak balira, ostera,
ezingo litzateke arrazoitu nondik sortzen diren haitz gogorak eta
burdina; natura osoa lehen oinarri gabea bailitzateke erabat. Euren
bakuntasun trinkoagatik dira, beraz, indartsuak, eta hauen elkar-
tze estuagoz bat egiten dute eta sendotasun bortitza erakusten.

Porro si nullast frangendis reddita finis
corporibus, tamen ex aeterno tempore quaeque
nunc etiam superare necessest corpora rebus,
quae nondum clueant ullo temptata periculo. 580
At quoniam fragili natura praedita constant,
discrepat aeternum tempus potuisse manere
innumerabilibus plagis uexata per aeuum.
Denique iam quoniam generatim reddita finis
crescendi rebus constat uitamque tenendi, 585
et quid quaeque queant per foedera naturai,
quid porro nequeant, sancitum quandoquidem exstat,
nec commutatur quicquam, quin omnia constant
usque adeo, uariae uolucres ut in ordine cunctae
ostendant maculas generalis corpore inesse, 590
inmutabili materiae quoque corpus habere
debent nimirum. Nam si primordia rerum
commutari aliqua possent ratione reuicta,
incertum quoque iam constet quid possit oriri,
quid nequeat, finita potestas denique cuique 595
quanam sit ratione atque alte terminus haerens,
nec totiens possent generatim saecla referre
naturam mores uictum motusque parentum.

Tum porro quoniam est extremum quodque cacumen
corporis illius quod nostri cernere sensus
iam nequeunt, id nimirum sine partibus exstat
et minima constat natura, nec fuit umquam
per se secretum neque posthac esse ualebit,
alterius quoniamst ipsum pars primaque et una;
inde aliae atque aliae similes ex ordine partes 600
agmine condense naturam corporis explent,
quae quoniam per se nequeunt constare, necessest
haerere unde queant nulla ratione reuelli.
Sunt igitur solida primordia simplicitate
quae minimis stipata cohaerent partibus arte, 605
non ex illorum conuentu conciliata,
sed magis aeterna pollentia simplicitate,
unde neque auelli quicquam neque deminui iam
610

Bestalde, gauzei zatitzeko mugarik ezarri ez balitzaie, betidanik
oraintxe arte iraun izan beharko zuten oraindik inolako arriskurik
jasan gabeko gorputzek. Baina izaera hauskorrekoak direnez gero,
ezin da ulertu nola iraun ahal izan duten denbora eternalean, men-
deetan zehar talka amaigabeek astinduta.

Honela, gauza mota bakoitzari hazteko eta biziari eusteko
muga bat esleitu zaionez, eta bakoitzak zer dezakeen eta zer ez
dezakeen natur legeek erabakita dagoenez gero, eta nola ezer ez den
aldatzen, aitzitik denak irauten, hegazti ezberdin guztiek, belaunez
belaun, euren motaren orbainak gorputzean eramateraino, orduan
argi dago materia aldagaitzeko gorputza daukatela. Zeren gauzen
lehenkiek, beste arrazoi batek eraginda, aldatzerik balute, zer jai
daitekeen eta zer ez jakiterik ez bailegoke, alegia, zergatik gauza
bakoitzak ahal mugatua eta mugarri sakon sartua daukan, eta belau-
naldiek ezingo lituzkete espezie bakoitzean hain jarraian berri
gurasoen izaera, ohiturak, bizitza eta mugidak.

Aurrera jorik, gure sentimenek ikusi ezineko gorputz
bakoitzak azken mutur bat daukanez gero, argi dago hau zatigabea
eta izaera minimoduna dela, eta inoiz ez dela bere baitan berex
izan, ezta izango ere, bera baita beste zer baten lehen zatia eta
bakarra; hortik antzeko beste eta beste zati batzuek gorputzaren
izaera ordenan osatzen dute lerro estuan. Zatiok, euren izaterik
ez dutenez gero, inola ere handik erauzi ezineko zerbaiti atxiki
behar zaizkio. Badira, beraz, bakuntasun solidoko lehenkiak, zati
minimoetan estuki bateginak, eta ez hauen biltzetik bateratuak,
bakuntasun eternaletik indartuak baizik. Naturak ez du uzten ezer
ken dakien ez ezertan txiki daitezen, gauzen hazitzat gorderik.

concedit natura reseruans semina rebus.
Praeterea nisi erit minimum, paruissima quaeque
615 corpora constabunt ex partibus infinitis,
quippe ubi dimidiae partis pars semper habebit
dimidiam partem nec res praefiniet ulla.
Ergo rerum inter summam minimamque quid escit?
Nil erit ut distet; nam quamuis funditus omnis
620 summa sit infinita, tamen paruissima quae sunt,
ex infinitis constabunt partibus aequae.
Quod quoniam ratio reclamatur uera negatque
credere posse animum, uictus fateare necessest
625 esse ea quae nullis iam praedita partibus exsistent
et minima constant natura. Quae quoniam sunt,
illa quoque esse tibi solida atque aeterna fatendum.
Denique si minimas in partibus cuncta resolui
cogere consuesset rerum natura creatrix,
iam nil ex illis eadem reparare ualeret
630 propterea quia, quae nullis sunt partibus aucta,
non possunt ea quae debet genitalis habere
materies, uarios conexus pondera plagas
concursum motus, per quae res quaeque geruntur.
Quapropter qui materiem rerum esse putarunt
635 ignem atque ex igni summam consistere solo,
magno opere a uera lapsi ratione uidentur.
Heraclitus init quorum dux proelia primus,
clarus ob obscuram linguam magis inter inanis
quamde grauis inter Graios qui uera requirunt.
640 Omnia enim stolidi magis admirantur amantque,
inuersis quae sub uerbis latitantia cernunt,
ueraque constituunt quae belle tangere possunt
auris et lepido quae sunt fucata sonore.
Nam cur tam uariae res possent esse requiro,
645 ex uno si sunt igni puroque creatae?
Nil prodesset enim calidum denserier ignem
nec rarefieri, si partes ignes eandem
naturam quam totus habet super ignis haberent.
Acrior ardor enim conductis partibus esset,
650 languidior porro disiectis disque sipatis.

Gainera, minimorik izan ezik, gorputzik txikienak zati mugagabez
osatuko dira, erdi bakoitzak beste erdi bat edukiko baitu beti eta
ezerk ez baitu mugatuko. Zer dago, beraz, handi-txikienean artean?
Ezeren alderik ere ez; zeren, handien guztia denik mugagabeena
izan arren, diren txikienak ere zati mugagabez berdina osaturik bai-
tagozke. Hau, ordea, arrazoi zuzenak muzintzen eta gogoarentzat
620 sinestu ezinekotzat ukatzen duenez gero, aitortu beharra dago, ben-
tzaturik, badirela inolako zatiz hornitzen ez diren eta izaterik txi-
kienez osatzen diren gorputzak. Eta, badirenez gero, solidoak eta
eternalak direla ere aitortu beharra daukazu. Azken batez, gauzen
kreatzaileak, naturak, dena zatirik txikienetan disolbaraziko balu,
625 haiekin ezingo luke gero ezer berririk egin, zeren, inolako zatiz
osatu gabeak izanik, ezin baitute materia sortzaileak behar duena
eduki, hots, gauza guztien eragile diren lotura ezberdinak, pisuak,
kolpeak, talkak, mugidak.

Horregatik, gauzen materia sua dela eta izadia su hutsez
egina dela pentsatu zutenak egiazko arrazoitik nabarmen lerratu
zirela argi dago. Euren buruzagi Heraklito abiatu zen lehenen
teman, hizkuntza iluna bide, burugabeen artean ospetsuago, egia
bila diharduten greko zentzundunen artean baino. Izan ere, ergelek
635 gehiago miresten eta maitatzen dute hitz bihurrien azpian ezkuta-
tzen den guztia, eta belarria dotore jotzen duena eta hots gozoz
apaindurik datorrena egiazat hartzen dute. Zeren nola litezke gau-
zak hain ezberdinak izan, galdetzen dut, su bakar eta hutsetik sor-
tuak izan badira? Ezertarako ez bailuke balioko su beroa konden-
tsatzeak ez xumetzeak, suaren parteak su osoak daukan izaera
640 bera baleuka. Zeren, parteak uzkuraturik, berotasuna biziagoa bai-
litzateke, eta motelagoa, berriz, banaturik eta sakabanaturik.

Amplius hoc fieri nil est quod posse rearis
talibus in causis, nedum uariantia rerum
tanta queat densis rarisque ex ignibus esse.
Id quoque, si faciant admixtum rebus inane,
denseri poterunt ignes rarique relinqui.
Sed quia multa sibi cernunt contraria Musae
et fugitant in rebus inane relinquere purum,
ardua dum metuunt, amittunt uera uiui,
nec rursus cernunt exempto rebus inane
omnia denseri fierique ex omnibus unum
corpus, nil ab se quod possit mittere raptim;
aestifer ignis uti lumen iacit atque uaporem,
ut uideas non e stipatis partibus esse.
Quod si forte alia credunt ratione potesse
ignis in coetu stingui mutareque corpus,
scilicet ex nulla facere id si parte reparcent,
occidet ad nilum nimirum funditus ardor
omnis et <e> nilo fiet quaecumque creatur.
Nam quodcumque suis mutatum finibus exit,
continuo hoc mors est illius quod fuit ante.
Proinde aliquid superare necesse est incolume ollis,
ne tibi res redeant ad nilum funditus omnes
de niloque renata uigescat copia rerum.
Nunc igitur quoniam certissima corpora quaedam
sunt quae conseruant naturam semper eandem,
quorum habitu aut aditu mutatoque ordine mutant
naturam res et conuertunt corpora sese,
scire licet non esse haec ignea corpora rerum.
Nil referret enim quaedam discedere, abire,
atque alia attribui, mutarique ordine quaedam,
si tamen ardoris naturam cuncta tenerent;
ignis enim foret omnimodis quodcumque crearet.
Verum, ut opinor, itast; sunt quaedam corpora quorum
conkursus motus ordo positura figurae
efficiunt ignis, mutatoque ordine mutant
naturam neque sunt igni simulata neque ulli
praeterea rei quae corpora mittere possit
sensibus et nostros adiectu tangere tactus.

655

660

665

670

675

680

685

Hortik aurrera, ez duzu pentsatuko ezer izan daitekeenik horrelako
kausetatik eta are gutxiago gauzen hainbesteko aniztasuna su den-
tsoetatik edo xumeetatik izaterik. Gainera, sua kondentsatzeko edo
xumetzeko ere, gauzetan hutsunea nahasturik dagoela onartu behar
da. Baina, Musek kontrako hainbat gauza ikusarazten dietenez gero
eta gauzetan hutsune garbia jartzeari muzin dagiotenez gero, mal-
karren beldurragatik, orduan egibidea galtzen dute eta ez dakuste,
gauzetan hutsunea kenduta, dena kondentsatzen dela eta dena gor-
putz bakar bilakatzen dela, bere baitatik at ezer bortizki egozterik
ez duelarik; su biziak argia eta beroa egozten dituenetz, zati trinko-
etatik harakoa ez dela ikus dezazun. Zeren, uste badute sua, beste
nolabait konbinatzean, itzungi eta alda daitekeela, hori inolako
mugarik gabe gertatzen dela, orduan argi baitago su guztia erabat
ezereztuko dela eta berriro sortu beharrekoak hutsetik sortuko dire-
la. Zeren edozer, aldaturik, bere mugetatik irten badadi, horrek
berehala aurrez izandako bestearen heriotza baitakarke. Zerbaitek,
beraz, aurreko haietatik osorik iraun behar du, gauza guztiak ez
dakizkizun erabat deusez eta hutsetik birsor eta sendo. Honela,
bada, beti izaera berari eusten dioten gorputz oso jakinak dagoze-
nez gero, zeintzuen alde egitez edo inguratzez edo ordena aldatzez
gauzek euren izaera aldatzen duten eta gorputzak eboluzionatzen
diren, bistan da gauzen gorputzok ez direla suzkoak. Ez bailuke
axolarik batzuen urruntzeak eta alde egiteak zein beste batzuen eto-
rerrerak edo leku-aldatzeak, hala ere denek beroaren izaerari eutsiko
baliote; honek beti ere sua sortuko bailuke. Egia, nik uste, hauxe
da: badira gorputzak, zeintzuen bilkurek, mugidek, ordenak, koka-
penak, figurek sua egiten duten; ordena aldatzean, izaera aldatzen
dutenak eta ez daukatenak ez suaren antzik, ez gure sentimenei gor-
putzak bidaltzeko eta igurtziaz gure ukimenari eragiteko gai den
ezeren antzik.

Dicere porro ignem res omnis esse neque ullam
 rem ueram in numero rerum constare nisi ignem,
 quod facit hic idem, perdelirum esse uidetur.
 Nam contra sensus ab sensibus ipse repugnat
 et labefactat eos, unde omnia credita pendent,
 unde hic cognitus est ipsi quem nominat ignem.
 Credit enim sensus ignem cognoscere uere,
 cetera non credit, quae nilo clara minus sunt.
 Quod mihi cum uanum tum delirum esse uidetur.
 Quo referemus enim? Quid nobis certius ipsis
 sensibus esse potest, qui uera ac falsa notemus?
 Praeterea quare quisquam magis omnia tollat
 ut uelit ardoris naturam linquere solam,
 quam neget esse ignis, <aliam> tamen esse relinquat?
 Aequa uidetur enim dementia dicere utrumque.
 Quapropter qui materiem rerum esse putarunt
 ignem atque ex igni summam consistere posse,
 et qui principium gignundis aera rebus
 constituere, aut umorem quicumque putarunt
 fingere res ipsum per se, terramue creare
 omnia et in rerum naturas uertier omnis,
 magno opere a uero longe derrasse uidentur.
 Adde etiam qui conduplicant primordia rerum
 aera iungentes igni terramque liquori,
 et qui quattuor ex rebus posse omnia rentur
 ex igni terra atque anima procreare et imbri.

Quorum Acragantinus cum primis Empedocles est,
 insula quem triquetris terrarum gessit in oris,
 quam fluitans circum magnis anfractibus aequor
 Ionium glaucis aspargit uirus ab undis,
 angustoque fretu rapidum mare diuidit undis
 Aeoliae terrarum oras a finibus eius
 Hic est uasta Charybdis et hi Aetnaea minantur
 murmura flammaram rursus se colligere iras,
 faucibus eruptos iterum uis ut uomat ignis
 ad caelumque ferat flammai fulgura rursus.
 Qua cum magna modis multis miranda uidetur

690 Gainera, gauza guztiak su direla eta suaz beste ezerk egiazko
 izaterik ez daukala esateak, honek beronek egiten duenez, zorakeria
 hutsa dirudi. Zeren, sentimenetarik abiatu, sentimenak eurak
 muzintzen baititu eta sineste orori eusten dion eta berak ere sua deri-
 tzon zer guztia hondatzen baitu. Sentimenek sua benetan ezagutzen
 695 dutela uste baitu eta gainerakoa ez, nahiz eta argitasun gutxiagokoa ez
 izan inola ere. Honi hutsalkeria deritzot, areago oraindik, zentzugabe-
 keria. Zertara joko dugu orduan? Zer izan dakiguke sentimenak eurak
 baino ziurrago, egia ala gezurra bereizteko? Gainera, zertarako behar
 dugu dena kendu eta suaren izaera bakarrik uzten saiatu, sua badela
 700 ukatu eta beste gauza bat utzi beharrean? Zorakeria berdina baitirudi
 bata nahiz bestea esateak. Horregatik, gauzen materia sua dela eta iza-
 dia su hutsez osa daitekeela pentsatu zutenak, eta gauzen printzipio
 sortzailatzat airea ezarri zutenak, edo urak berez egiten dituela gorpu-
 tzak edo lurrak dena sortzen eta gauzen izaera guztietara aldatzen
 705 duela pentsatu zutenak, argi dago egiatik oso urrun aldaratu zirela.
 Gehi itzazu gauzen lehenkiak binakatzen dituztenak ere, airea suare-
 kin eta lurra urarekin baturik, eta dena lau gauzatatik etor daitekeela
 uste dutenak, sutik, lurretik, airetik eta uretik.

710 Hauen artean lehenengoa Agrigentoko Empedokles dugu,
 lurren ertz triangeluarreko irlak sortu zuena, zeina Jonio itsasoak,
 bihurkera handietan igeri, uhin berdeen garratasunez bustitzen duen
 eta non itsas uhin azkarrek, zintzur estuan barrura, Eoliako lur bazte-
 rrak irlaren mugetatik bereizten dituen. Hementxe dago Karibdis
 irenkorra, eta Etnaren urrumak hementxe ari dira mehatxuka, haren
 garren sumina berriro pilatzeko eta su bortxaz egotzia ahutzetatik
 715 okaztatzeke eta garrezko tximistak berriro zerura jaurtitzeko. Ostera,
 nahiz eta berau alde askotatik gizateriari hain handi eta miresgarri iru-

gentibus humanis regio uisendaque fertur,
 rebus opima bonis, multa munita uirum ui,
 nil tamen hoc habuisse uiro praeclarius in se
 nec sanctum magis et mirum carumque uidetur. 730
 Carmina quin etiam diuini pectoris eius
 uociferantur et exponunt praeclara reperta,
 ut uix humana uideatur stirpe creatus.
 Hic tamen et supra quos diximus inferiores
 partibus egregie multis multoque minores, 735
 quamquam multa bene ac diuinitus inuenientes
 ex adyto tamquam cordis responsa dedere
 sanctius et multo certa ratione magis quam
 Pythia quae tripode a Phoebi lauroque profatur,
 principiis tamen in rerum fecere ruinas 740
 et grauiter magni magno cecidere ibi casu;
 primum quod motus exempto rebus inani
 constituunt et res mollis rarasque relinquunt,
 aera rorem ignem terra animalia frugis,
 nec tamen admiscent in eorum corpus inane; 745
 deinde quod omnino finem non esse secandis
 corporibus facient neque pausam stare fragori
 nec prorsum in rebus minimum consistere quire;
 cum uideamus id extremum cuiusque cacumen
 esse quod ad sensus nostros minimum esse uidetur, 750
 conicere ut possis ex hoc, quae cernere non quis
 extremum quod habent, minimum consistere <in illis>.
 Huc accedit item, quoniam primordia rerum
 mollia constituunt, quae nos natiua uidemus
 esse et mortali cum corpore, funditus utqui 755
 debeat ad nilum iam rerum summa reuerti
 de niloque renata uigescere copia rerum;
 quorum utrumque quid a uero iam distet habebis.
 Deinde inimica modis multis sunt atque ueneno
 ipsa sibi inter se; quare aut congressa peribunt 760
 aut ita diffugient ut tempestate coacta
 fulmina diffugere atque imbris uentosque uidemus.
 Denique quattuor ex rebus si cuncta creantur
 atque in eas rursus res omnia dissoluuntur,

ditu eta bisitagarriztat hartua izan, ondasunetan aberats, gizonen indar
 handiz zaindua, hala ere, ez bide du inoiz ezer ospetsuago, ez santua-
 go, ez miragarriago, ez kutunagorik eduki gizon hauxe baino. Haren
 bular jainkozkotik harako bertsoak nonahi aldarrikatzen dira eta aur-
 kipeen bikainak azaltzen dituzte, giza endatik sortua dela nekez sines-
 teraino.

Honek, ostera, eta arestian aipatuek, berau baino alde askotatik
 apalagoek eta askozaz mendreagoek, nahiz eta, aurkikuntza asko
 zuzen eta jainko arauz eginik, euren bihotzaren santutegitik erantzun
 santuago eta askoz ere ziurragoak eman zituzten Pitia tripodetik eta
 Feboren ereinotzetik jaulkitzen dituen guztiak baino; hala ere, gauzen
 printzipioetan oker nabarmena egin zuten, eta zenbat eta eurak han-
 diago, hainbat eta jauskera handiago eta larriagoa izan zuten. Lehenik,
 gauzei hutsunea kenduta mugimendua ezartzen dutelako eta gauza
 beratzak eta astinak onartzen dituztelako, alegia, airea, hezetasuna,
 sua, lurrak, animaliak, landareak, euron gorputzean hutsunerik nahasi
 gabe. Gero, honela gorputzen banakuntzan ez delako mugarik egon-
 go, ez zatiketaren gelditzerik, ez gauzetan inolako minimorik; nahiz
 eta guk gauza guztietan badela ikusi sentimenei minimoa iruditzen
 zaien mutur bat, eta hortik atera dezakezu ikusi ezinekoetan ere bade-
 la mutur bat, euron minimoa izan beharrekoa. Horrez gainera, gauzen
 lehenkitzat jaiotzen eta hiltzen ikusten ditugun gorputz bigunak har-
 tuz gero, izadi osoak hutsera itzuli behar du eta gauza guztiak hutse-
 tik birjaio eta hazi. Biok ere egiatik zer urrun dagozen laster jakingo
 duzu. Gainera gorputzok alde askotan etsai dira, baita elkarren pozoin
 ere. Horregatik, edo elkartzean hil egingo dira, edo barreiatu, ekaitzak
 jotzean, oinaztuak eta euria eta haizeak barreiatzen ikusten ditugunez.

Azkenik, dena lau gauzatatik sortzen eta dena berriro gauza
 horietan disolbatzen bada, zergatik behar da gauzen lehenkiak horiek

qui magis illa queunt rerum primordia dici
quam contra res illorum retroque putari?
Alternis gignuntur enim mutantque colorem
et totam inter se naturam tempore ab omni.
[Fulgura diffugere atque imbris uentosque uidemus]
sin ita forte putas ignis terraeque coire
corpus et aérias auras roremque liquoris,
nil in concilio naturam ut mutet eorum,
nulla tibi ex illis poterit res esse creata,
non animans, non examino cum corpore, ut arbos.
Quippe suam quicque in coetu uariantis acerui
naturam ostendet mixtusque uidebitur aer
cum terra simul atque ardor cum rore manere.
At primordia gignundis in rebus oportet
naturam clandestinam caecamque adhibere,
emineat nequid quod contra pugnet et obstet
quominus esse queat proprie quodcumque creatur.
Quin etiam repetunt a caelo atque ignibus eius
et primum faciunt ignem se uertere in auras
aeris, hinc imbrem igni terramque creari
ex imbri retroque a terra cuncta reuerti,
umorem primum, post aera, deinde calorem,
nec cessare haec inter se mutare, meare
a caelo ad terram, de terra ad sidera mundi.
Quod facere haud ullo debent primordia pacto.
Immutabile enim quiddam superare necessest,
ne res ad nilum redigantur funditus omnes.
Nam quodcumque suis mutatum finibus exit,
continuo hoc mors est illius quod fuit ante.
Quapropter quoniam quae paulo diximus ante
in commutatum ueniunt, constare necessest
ex aliis ea, quae nequeant conuertier usquam,
ne tibi res redeant ad nilum funditus omnes.
Quin potius tali natura praedita quaedam
corpora constituas, ignem si forte crearint,
posse eadem, demptis paucis paucisque tributis,
ordine mutato et motu, facere aeris auras,
sic alias aliis rebus mutarier omnis?

765 direla esan eta ez, alderantziz, gauzak direla horienak pentsatu? Zeren
aldizka jaiotzen baitira eta kolorea eta izaera osoa betiraunean truka-
tzen baitiote elkarri. Baina, nonbait uste baduzu suaren eta lurraren
gorputza eta airearen aurak eta uraren jarioasuna elkarkuntzan euren
770 izaera batere ez aldatzeko moduan batzen direla, ezingo zaizu haieta-
tik ezein gauza sortu, ez animadunik ez zuhaitza bezalako gorputz
animagaberik. Izan ere, multzo ezberdin horren bilkuntzan, bakoitzak
bere izaera agertuko du eta airea lurrarekin nahasirik ikusiko da eta
beroa urarekin irauten. Baina gauzen sorkuntzan lehenkiek izaera isila
eta ezkutua gorde behar dute, kontra egingo duen eta sortutako edo-
775 zeri propioki izaten utziko ez dion ezer nagusitu ez dadin.

Areago oraindik, ortzira eta bertako suetara jotzen dute eta
lehenbizi sua airearen aura bihurtzen omen, hemendik euria eta euri-
tik lurra sortzen eta lurretik atzera dena berritzen, lehenbizi ura, gero
airea eta azkenik beroa, eta hauek etengabe omen dihardute elkarrekin
mutatzen eta ortzitik lurrera eta lurretik munduko astroetara ibiltzen.
Hau lehenkiek ezin dute inola ere egin. Nahitaezko da, beraz, zerbait
aldagaitzak irautea, gauza guztiak erabat ezerezera itzul ez daitezen.
Zeren, aldaturik, bere mugetatik irteten den edozer aurretik izan zena-
ren heriotza baita berbertan. Horregatik, arestian esan ditugunak elka-
rrekin trukutzen direnez gero, inoiz aldatu ezin dutenekin osaturik
egon behar dute, gauza guztiak erabat ezerez ez dakizkizun. Zergatik
ez areago onartu badirela halako izaeradun gorputzak, sua sortu duten
bezala, zer txikiak ken-ezarriz, ordena eta mugida aldatuz, airearen
aurak ere eragin ditzaketenak, honela bata bestetik gauza guztiak
mutatuz?

«At manifesta palam res indicat» inquis «in auras
 aeris e terra res omnis crescere alique;
 et nisi tempestas indulget tempore fausto
 imbribus, ut tabe nimborum arbusta uacillent,
 solque sua pro parte fouet tributque calorem,
 crescere non possint fruges arbusta animantis.»
 Scilicet et nisi nos cibus aridus et tener umor
 adiuuet, amisso iam corpore uita quoque omnis
 omnibus e neruis atque ossibus exsoluatur.
 Adiutamur enim dubio procul atque alimur nos
 certis ab rebus, certis aliae atque aliae res.
 Nimirum quia multa modis communia multis
 multarum rerum in rebus primordia mixta
 sunt, ideo uariis uariae res rebus aluntur.
 Atque eadem magni refert primordia saepe
 cum quibus et quali positura conteneantur
 et quos inter se dent motus accipiantque;
 namque eadem caelum mare terras flumina solem
 constituunt, eadem fruges arbusta animantis,
 uerum aliis alioque modo commixta mouentur.
 Quin etiam passim nostris in uersibus ipsis
 multa elementa uides multis communia uerbis,
 cum tamen inter se uersus ac uerba necessest
 confiteare et re et sonitu distare sonanti.
 Tantum elementa queunt permutato ordine solo.
 At rerum quae sunt primordia, plura adhibere
 possunt unde queant uariae res quaeque creari.

 Nunc et Anaxagorae scrutemur homoeomerian
 quam Graei memorant nec nostra dicere lingua
 concedit nobis patrii sermonis egestas,
 sed tamen ipsam rem facilest exponere uerbis.
 Principio, rerum quam dicit homoeomerian,
 ossa uidelicet e paucillis atque minutis
 ossibus hic et de paucillis atque minutis
 uisceribus uiscus gigni sanguenque creari
 sanguinis inter se multis coeuntibus guttis
 ex auri que putat micis consistere posse

«Bai, baina -esango duzu- guztiz gauza nabaria da zer guztiak
 lurretik elikatzen eta hazten direla airearen aurretantz; eta, sasoi a une
 egokian euriz onberatzen ez bazaie, zuhaitzak lainoen zamaz lokatze-
 raino, eta eguzkiak bere aldetik laztantzen eta beroa ematen ez badie,
 uztek, zuhaitzek eta animaliek ez daukate hazterik”. Baita, janari leho-
 rrak eta ur samurrak lagundu ezik, gure gorputz akabatuan ere bizi
 orok nerbioetatik eta hezurretatik ihes egingo luke. Izan ere, inolako
 dudarik gabe, gauza jakinekin baliatzen eta elikatzen gara, zer bakoi-
 tza beste zer jakin batetik bezala. Eta hori bistan dago gauzen lehenki
 asko, gauza askoren komunak, gauzetan era askotara nahasturik dago-
 zelako dela eta horregatik zer ezberdinak zer ezberdinez elikatzen
 direla. Eta sarritan behinena da lehenki berak zeintzuekin eta zer orde-
 natan batzen diren eta elkarren artean nolako mugidak eragiten eta
 hartzen dituzten. Zeren zeru-lurrak, itsas-lehorrak, ibaiak eta eguzkia
 osatzen dituztenek eurek osatzen baitituzte uztak, zuhaitzak, bizidu-
 nak, nahiz eta era ezberdinetan nahasi eta mugitu. Geure bertsootan
 eurotan ere erruz ikusiko duzu hitz askori dagokion hizki asko, nahiz-
 ta, hala ere, aitortu beharra dagoen bertsoak eta hitzak esanahian eta
 hotsean elkarrengandik urrun dagozela. Horrexenbeste dezakete hiz-
 kiek, ordena aldatze hutsez. Gauzen lehenki direnek, ordea, era gehia-
 go eskain dezakete euretatik gauza ezberdin guztiak sortzeko.

Orain azter dezagun Anaxagoraren homeomeria, grekoek hala
 deritzotena eta guri aberri hizkuntzaren txirotasunak geure mintzairan
 esaten uzten ez diguna, nahiz eta zera bera zer den hitzez azaltzea
 erraza den. Lehenik, gauzen homeomeria da, adibidez, hezurak hezur
 txiki-txikiz eta niminoz eta giharreak giharre txiki-txikiz eta niminoz
 eginda dagozela eta odola odol tanta piloa bateratzetik sortzen dela,
 urrea ere urre hautsez osatzen dela uste du eta lurra zokor txikietatik

aurum et de terris terram concresecere paruis,
 ignibus ex ignis, umorem umoribus esse,
 cetera consimili fingit ratione putatque.
 Nec tamen esse ulla idem parte in rebus inane
 concedit neque corporibus finem esse secandis.
 Quare in utraque mihi pariter ratione uidetur
 errare atque illi, supra quos diximus ante. 840
 Adde quod inbecilla nimis primordia fingit;
 si primordia sunt, simili quae praedita constant
 natura atque ipsae res sunt aequaeque laborant
 et pereunt neque ab exitio res ulla refrenat. 845
 Nam quid in oppressu ualido durabit eorum,
 ut mortem effugiat, leti sub dentibus ipsis?
 Ignis an umor an aura? quid horum? sanguen an ossa?
 Nil, ut opinor, ubi ex aequo res funditus omnis
 tam mortalis erit quam quae manifesta uidemus 850
 ex oculis nostris aliqua ui uicta perire.
 At neque recidere ad nilum res posse neque autem
 crescere de nilo testor res ante probatas.
 Praeterea quoniam cibus auget corpus alitque,
 scire licet nobis uenas et sanguen et ossa 860
 * * *
 siue cibos omnis commixto corpore dicent
 esse et habere in se neruorum corpora parua
 ossaque et omnino uenas partisque cruoris,
 fiet uti cibus omnis, et aridus et liquor ipse,
 ex alienigenis rebus constare putetur,
 ossibus et neruis sanieque et sanguine mixto. 865
 Praeterea quaecumque e terra corpora crescunt
 si sunt in terris, terram constare necessest
 ex alienigenis, quae terris exoriuntur.
 Transfer item, totidem uerbis utare licebit. 870
 In lignis si flamma latet fumusque cinisque,
 ex alienigenis consistant ligna necessest,
 praeterea tellus quae corpora cumque alit, auget
 * * *
 ex alienigenis, quae lignis exoriuntur. 875
 Linquntur hic quaedam latitandi copia tenuis,

handitzen dela, sua sutik, ura uretik, eta gainerako guztia era bere-
 an uste du. Hutsuneari, osterara, ez dio gauzetan inolako tokirik
 ematen ez gorputzen zatikuntzari mugarik. Horregatik arestian
 aipatu ditugunak bezalaxe erratzen dela iruditzen zait arrazoi bie-
 tan. Pentsa, gainera, lehenki ahulegiak irudikatzen dituela; pentsa
 nola izan daitezkeen gauzen euren izaera berarekin eginda dagozen
 lehenkiak, berdin pairatzen eta hiltzen direnak, zeintzuen suntsi-
 tzerik ezerk geratu ezin duen. Zeren abornada bortitz batean, euro-
 tariko zeinek irauin behar du, heriotzari Herioren hortzetatik berta-
 tik ihes eginik? Suak ala urak ala aireak? Eurotariko zeinek? Suak
 ala hezurrek? Ezerk ere ez, neuk uste, zeren gure begietatik, bor-
 txaren baten mende, argi-argi ezabatzen ikusten ditugunak bezain
 hilkorrek izango baitira gauza guztiak arrazoi berdin-berdinez.
 Baina ezerk hutsera birjausterik ez hutsetik sortzerik ez daukanez
 gero, lehenago emaniko frogei nagokie. Gainera, gorputza janak
 elikatzen eta hazten baitu, pentsa genezake zainek, odolak eta
 hezurrek [[osagai ezberdinak dituztela]]. Edo, diotenez, janari guz-
 tiak gorputz konposatuzkoak badira eta eurengan nerbio zatitxoak
 eta hezurak eta, oro har, zainak eta odol ttanttak badauzkate, ger-
 tatuko da ezen janari oro, gogor nahiz likido, gauza heterogeneoz
 osatutzat jo behar dela, hezurren eta nerbioen eta odolaren eta
 odoltxarren nahaste bat. Gainera lurretik harako gorputz guztiak
 lurtean badagoz, lurak beragandik sortzen diren zer heterogeneo
 guztiakin osaturik egon behar du. Beste arloetan ere, hitz berak
 erabil ditzakezu. Zurean garra eta kea eta hautsa gordeta badagoz,
 zurak zer heterogeneoz osatua behar du. Gainera lurak gorputz
 guztiak elikatzen, hazten ditu, eta [[berak ere, beraz, denak
 eduki behar ditu, baita]] zuretik datozen gai heterogeneoak ere.

id quod Anaxagoras sibi sumit, ut omnibus omnis
res putet immixtas rebus latitare, sed illud
apparere unum cuius sint plurima mixta
et magis in promptu primaque in fronte locata.
Quod tamen a uera longe ratione repulsumst.
Conueniebat enim fruges quoque saepe, minaci
robore cum [in] saxi franguntur, mittere signum
sanguinis aut aliquid, nostro quae corpore aluntur.
Consimili ratione herbas quoque saepe decebat
cum lapidi in lapidem terimus, manere cruorem.
Et latices dulcis guttas similique sapore
mittere, lanigeras quali sunt ubere lactis,
scilicet, et glebis terrarum saepe friatis
herbarum genera et fruges frondesque uideri
dispertita in <ter> terram latitare minute,
postremo in lignis cinerem fumumque uideri,
cum praefracta forent, ignisque latere minutos.
Quorum nil fieri quoniam manifesta docet res,
scire licet non esse in rebus res ita mixtas,
uerum semina multimodis inmixta latere
multarum rerum in rebus communia debent.
«At saepe in magnis fit montibus» inquis «ut altis
arboribus uicina cacumia summa terantur
inter se, ualidis facere id cogentibus austris,
donec flamma fulserunt flore coorto.»
Scilicet et non est lignis tamen insitus ignis,
uerum semina sunt ardoris multa, terendo
quae cum confluxere, creant incendia siluis.
Quod si facta foret siluis abscondita flamma,
non possent ullum tempus celarier ignes,
conficerent uolgo siluas, arbusta cremarent.
Iamne uides igitur, paulo quod diximus ante,
permagni referre eadem primordia saepe
cum quibus et quali positura contineantur
et quos inter se dent motus accipiantque,
atque eadem paulo inter se mutata creare
ignes et lignum? Quo pacto uerba quoque ipsa
inter se paulo mutatis sunt elementis,

880

885

884

886

890

895

900

905

910

Badago hemen ihesbide txiki bat, Anaxagorasek beragantzen duena, gauza guztiak gauza guztietan ezkutaturik dagozela jotzen baitu, baina bakarrik agertzen dela nahastean ugarien dena eta bistaren eta aurrenen kokaturik dagoena. Hau, oster, egiatik oso urrun dago. Zeren horrela gariak ere sarritan, harriaren indar beldurgarriak ehotzen duenean, odol zantzuak edo gure gorputzetik bazkatzen den zerbait erakutsi behar luke. Antzeko arrazoiz, belarrak ere, harriarekin harriaren kontra jotzen dugunean, odola isuri behar luke. Eta urak ere errapatetik harakoak bezain tanta gozoak eta zapore berdintsukoak eman behar lituzke, eta berdin, sorotako zokilak xehatzean, belar mota guztiak eta aleak eta hostoak ikusi behar lirateke, lurrian zati txikietan zabalduz; azkenik, zura moztean, kea eta hautsa ikusi behar lirateke, eta bertan ezkutaturiko gar niminoak. Esperientziak honelakorik ezer ez dela gertatzen dioenez gero, gauzak ez dagozela gauzetan horrela nahastuak atera behar da, aitzitik, ordea, gauza askori dagozkien hazi komunak dauzkatela barruan, hamaika modutara nahastuak.

«Baina mendietan maiz gertatzen da -esango duzu- zuhaitz garaiekin kukula hurbilek elkar jotzen dutela, austro bortitzek hartara behaturik, garrezko lore irekian distiratu arte». Hala ere, horrek ez du esan nahi zuraren barruan sua dagoenik; egitan dagoena suaren hazi asko dira, elkar joz bat egitean, oihanetan suteak sortzen dituztenak. Zeren, oihanetan gar eginak ostendurik balegoz, suak ezingo luke denbora izpirik ere ezkutuan egin, oihanak nonahi suntsituko lituzke, zuhaitzak erreko lituzke. Ba al dakusu orain, lehen- txoago esana dugunez, zenbat axola duen lehenki berak zeintzuekin eta zer ordenatan batzen diren eta elkarren artean zer mugiera ematen eta hartzen duten eta nola, elkar trukatzeko txiki batez, eurek berek sortzen dituzten garrak eta enborrak? Hitzek eurek ere horrelaxe jokatzeko dute, hizkiak apur bat trukatzeko,

cum ligna atque ignes distincta uoce notemus.
Denique iam quaecumque in rebus cernis apertis
si fieri non posse putas, quin materialia
corpora consimili natura praedita fingas,
hac ratione tibi pereunt primordia rerum:
fiet uti risu tremulo concussa cachinnent
et lacrimis salsis umectent ora genasque.

Nunc age quod superest cognosce et clarius audi.
Nec me animi fallit quam sint obscura; sed acri
percussit thyrsos laudis spes magna meum cor
et simul incussit suauem mi in pectus amorem
Musarum, quo nunc instinctus mente uigenti
auiam Pieridum peragro loca nullius ante
trita solo. Iuuat integros accedere fontis
atque haurire, iuuatque nouos decerpere flores
insignemque meo capiti petere inde coronam
unde prius nulli uelarent tempora Musae;
primum quod magnis doceo de rebus et artis
religionum animum nodis exsoluere pergo,
deinde quod obscura de re tam lucida pango
carmina, musaeo contingens cuncta lepore.
Id quoque enim non ab nulla ratione uidetur;
sed ueluti pueris absinthia taetra medentes
cum dare conantur, prius oras pocula circum
contingunt mellis dulci flauoque liquore,
ut puerorum aetas improvida ludificetur
laborum tenus, interea perpotet amarum
absinthii laticem deceptaque non capiatur,
sed potius tali pacto recreata ualescat,
sic ego nunc, quoniam haec ratio plerumque uidetur
tristior esse quibus non est tractata, retroque
uolgus abhorret ab hac, uolui tibi suauiloquenti
carmine Pierio rationem exponere nostram
et quasi musaeo dulci contingere melle,
si tibi forte animum tali ratione tenere
uersibus in nostris possem, dum perspicis omnem
naturam rerum qua constet compta figura.

915

920

925

930

935

940

945

950

izen ezberdinez «su» eta «zur» deritzegunak. Azkenik, gauza agerietan ikusten dituzunak, gorputzak materiaren izaera berdinez hornitutzak jo ezik, ezinezkoak direla uste baduzu, doktrina horrekin gauzen lehenkiak ezabatuak zaizkizu: gertatuko da ezen barre algaraka dar daratuko direla eta aurpegia eta matrailak malko gaziz beratuko dituztela.

Segi orain geratzen dena ikasten eta entzun erneago. Badakit zer kontu ilunak diren; baina aintzaren itxaropen handiak tirso zorrotzez zauritu dit bihotza eta aldi berean nire paparrean Musen maitasun leun bat ezarri du, zeinak kinaturik Pierideen bazter lekuak, aurretik inor ibili gabeak, gogo biziz oinkatzen ditudan. Maite dut iturri ukigabeak aurkitu eta bertatik zurrut egitea, eta maite dut lore berriak jaso eta haiekin Musek sekula inor estali ez duten koroa bikainez neure burua jaztea; lehenik, gauza gurenak irakasten ditudalako eta gogoia erlijioen korapilo estuetatik askatzen saiatzen naizelako; gero, hain gai ilunari buruz hain bertso argitsuak jartzen ditudalako, denak musen gozotasunez zipriztindurik. Ez dirudi gainera arrazoigabea denik, zeren aitzitik medikuek ere, haurrei asentsio belar higuin-garria eman nahi dietenean, edontzi ertzak ezti likore gozoz eta beilegiz gantzutzen dituzten bezala, haurren adin xaloez ezpainetan bada ere engainatzeko, asentsio ur mingotsa edaten duten bitartean, engainuz baina ez kalterako, erremedio horrekin berritu eta sendotu daitezen baizik, halaxe nik ere orain, hartan aritu gabeie gehienez gure doktrina garratzagoa iruditzen zaienez gero eta jendeak beldurturik atzera egiten duenez gero, gure doktrina Pierideen hizkuntza ahogozagarrian azaldu eta Musen ezti gozoz gantzutu bezala egin nahi izan dizut, ea horrela zure gogoia nire bertsoei atxikia eduki ahal dudan, gauzen izaera guztia nola osatua den eta nolako itxura duen ikus dezazun arte.

Sed quoniam docui solidissima materiai
 corpora perpetuo uolitare inuicta per aeuom,
 nunc age, summai quaedam sit finis eorum
 necne sit, euoluamus; item quod inane repertumst
 seu locus ac spatium, res in quo quaeque gerantur,
 955 peruideamus utrum finitum funditus omne
 constet an immensum pateat uasteque profundum.
 Omne quod est igitur nulla regione uiarum
 finitumst; namque extremum debebat habere.
 Extremum porro nullius posse uidetur
 960 esse, nisi ultra sit quod finiat; ut uideatur
 quo non longius haec sensus natura sequatur.
 Nunc extra summam quoniam nil esse fatendum,
 non habet extremum, caret ergo fine modoque.
 965 Nec refert quibus adsistas regionibus eius;
 usque adeo, quem quisque locum possedit, in omne
 tantundem partis infinitum omne relinquit.
 Praeterea si iam finitum constituatur
 omne quod est spatium, siquis procurrat ad oras
 970 ultimus extremas iaciatque uolatile telum,
 id ualidis utrum contortum uiribus ire
 quo fuerit missum mauis longequae uolare,
 an prohibere aliquid censes obstareque posse?
 Alterutrum fatearis enim sumasque necessest.
 975 Quorum utrumque tibi effugium praecludit et omne
 cogit ut exempta concedas fine patere.
 Nam siue est aliquid quod probeat efficiatque
 quominu quo missum est ueniat finique locet se,
 siue foras fertur, non est a fine profectum.
 980 Hoc pacto sequar atque, oras ubicumque locaris
 extremass, quaeram quid telo denique fiat.
 Fiet uti nusquam possit consistere finis
 effugiumque fugae prolatet copia semper.
 Praeterea spatium summai totius omne
 985 undique si inclusum certis consisteret oris
 finitumque foret, iam copia materiai
 undique ponderibus solidis confluet ad imum
 nec res ulla geri sub caeli tegmine posset

Baina, materiaren gorputz guztiz solidoak mendeetan zehar
 jarraiki eta menperagaitz hegatzten direla erakutsi dizudanez gero, segi
 orain eta azter dezagun haien baturak mugarik baduenez; halaber aur-
 kitu dugun hutsunea ere, dena bertan gertatzen den lekua edo espazioa
 alegia, ikus dezagun ea dena mugatua den berez ala zer neurrigabe eta
 sakontasun mugagaberantz zabaltzen den.

Ba, unibertsoa ez dago ezoin aldetarantz mugatua; mutur bat
 eduki beharko baitzukeen. Baina argi dago ezeren muturrik ez daite-
 keela izan, mugatuko duen zerbait harago izan ezik; gure begiak urru-
 nago jarraitzerik ez daukala ikusteko moduan. Orain, unibertsoaz
 harago ezer ez dagoela argi dagoenez gero, ez dauka muturrik eta,
 beraz, ez dauka mugarik ez neurrik. Ez dio ardura bere zein aldetan
 aurkitzen zaren; hain ez dio ardura ezen, bakoitza dagoen lekuan
 dagoela, unibertso berdin infinitua hedatzen baita norabide guztietar-
 rantz. Bestalde, den espazio guztia mugatua dela jorik, norbait azken
 mutur ertzeraino lasterkatuko balitz eta azkon hegalaria bat jaurti, hura
 indar bortitzez egotzitako lekura joango litzatekeela ala zerbaitek era-
 gotzi eta bidea itxiko liokeela uste duzu? Bata ala bestea aitortu eta
 hautatu beharra baitaukazu. Batak zein besteak irteera itxi egiten dizu,
 ordea, eta unibertsoa mugagabe hedatzen dela onarrarazten dizu.
 Jaurtitakoa helburura iristea eta bertan jostea eragotz eta oztopa dezan
 zerbait badagoela nahiz kanporatu egiten dela eman, ez baita azken-
 gunetik irten. Honelaxe jarraituko dut eta, bazterra nonahi jartzen
 975 duzula, azkona azkenean zertan den galdetuko dut. Inon ezingo zaio-
 la mugarik jarri gertatuko da, eta ihesak ihesbidea luzatu egingo du
 beti.

Gainera, unibertso osoaren espazio guztia nonahitik ertz jaki-
 nez itxia eta mugatua balitz, dagoeneko materiaren kopurua, solidoen
 pisuz, hondoan baturik zegokeen, eta ezer ezingo litzateke ortzi
 sapaiazen azpian sortu, egon ere ez legoke ortzirik, ez eguzkiaren argi-
 rik, materia guztia pilaturik bailetzake, denbora mugagabearen jalkin.

nec foret omnino caelum neque lumina solis,
quippe ubi materies omnis cumulata iaceret
ex infinito iam tempore subsidendo. 990

At nunc nimirum requies data principiorum
corporibus nullast, quia nil est funditus imum
quo quasi confluere et sedes ubi ponere possint.
Semper in adsiduo motu res quaeque geruntur
partibus <e> cunctis infernaque suppeditantur
ex infinito cita corpora materiai. 995

Postremo ante oculos res rem finire uidetur;
aer dissaepit collis atque aera montes,
terra mare et contra mare terras terminat omnis; 1000
omne quidem uero nil est quod finiat extra.

Est igitur natura loci spatiumque profundi,
quod neque clara suo percurrere fulmina cursu
perpetuo possint aevi labentia tractu

nec prorsum facere ut restet minus ire meando; 1005
usque adeo passim patet ingens copia rebus
finibus exemptis in cunctas undique partis.

Ipsa modum porro sibi rerum summa parare
ne possit, natura tenet, quae corpus inane
et quod inane autem est finiri corpore cogit, 1010
ut sic alternis infinita omnia reddat,
aut etiam alterutrum, nisi terminet alterum eorum,
simplice natura pateat tamen immoderatum.

* * *

nec mare nec tellus neque caeli lucida templa
nec mortale genus nec diuum corpora sancta
exiguum possent horai sistere tempus. 1015

Nam dispulsa suo de coetu materiai
copia ferretur magnum per inane soluta,
siue adeo potius numquam concreta creasset
ullam rem, quoniam cogi disiecta nequisset. 1020

Nam certe neque consilio primordia rerum
ordine se suo quaeque sagaci mente locarunt
nec quos quaeque <darent motus pepigere profecto>
sed quia multa modis multis mutata per omne

Hona, ordea, printzipioen gorputzei ez zaiela inolako atsedetik ematen, inon ez baitago erabateko hondorik, han batu eta bertan egoitza jartzeko modukorik. Den guztia mugimendu etengabe dabil; alde guztietatik eta beherengoetatik, materiaren gorputzak azkar txandatzzen dira, infinitutik.

Azkenik, begien aurrean gauzek gauzen mugatzaile dirudite; aireak mendiak xedatzen ditu eta mendiek airea; lehorrak itsasoa eta itsasoak, berriz, lehor oro bereizten du; orotasunaz harago, ostera, ez dago mugarik jar dezakeen ezer. Halakoa da, beraz, lekuaren izaera eta sakonaren espazioa, non ibilera amaigabeko oinaztu distiratsuek ere, mendeetan lerraturik, ez bailukete hura kurrizterik, ezta joan ahala gutxiago geldidadila egiterik ere. Horrexenbestean irekitzen da gauzetara espazio eskerga, mugarik gabe eta alde guztietara.

Gainera, gauzen baturak berak ere ezingo lioke bere buruari neurrik ezarri, naturak eragozten eta behartzen baitu gorputza hutsuneak eta hutsunea gorputzak mugatzera, horrela alternoki orotasuna infinitu bihur dadin; eta euretari batak bestea mugatuko ez balu, bakarra izaeraz neurrigabea litzateke. Horrela ez izanik, ez itsaso, ez lehor, ez ortzi sapai argitsuek, ez hilkorren endak, ez jainkoen gorputz santuek iraun ahalko lukete une batez. Zeren materiaren kopurua, bere baturatik sakabanatua, hutsune eskergan zehar aske eramana bailitzateke, edo, hobeto esanda, inoiz ez zen ezer sortzeko trinkotuko, ezingo baitzen sakabanatetik bildu. Izan ere, gauzen lehenkiak ez ziren berariaz eta adimen argiz paratu bakoitza bere ordenan [[ez elkarrekin bakoitza nola mugitu erabaki]], baina, betiraun guztitik hartutako kolpeen eraginez,

ex infinito uexantur percita plagis,
 omne genus motus et coetus experiundo
 tandem deueniunt in talis disposituras,
 qualibus haec rerum consistit summa creata,
 et multos etiam magnos seruata per annos
 ut semel in motus coniectast conuenientis,
 efficit ut largis auidum mare fluminis undis
 integrent amnes et solis terra uapore
 fota nouet fetus summ <iss> aque gens animantum
 floreat et uiuant labentes aetheris ignes;
 quod nullo facerent pacto, nisi materiai
 ex infinito suboriri copia posset,
 unde amissa solent reparare in tempore quaeque.
 Nam ueluti priuata cibo natura animantum
 diffluit amittens corpus, sic omnia debent
 dissolui simul ac defecit suppeditare
 materies aliqua ratione auersa uiui.
 Nec plagae possunt extrinsecus undique summam
 conseruare omnem quaecumque est conciliata.
 Cudere enim crebo possunt partemque morari,
 Jum ueniant aliae ac suppleri summa queatur.
 Interdum resilire tamen coguntur et una
 principiis rerum spatium tempusque fugai
 largiri, ut possint a coetu libera ferri.
 Quare etiam atque etiam suboriri multa necessest;
 et tamen ut plagae quoque possint suppetere ipsae,
 infinita opus est uis undique materiai.

Illud in his rebus longe fuge credere, Memmi
 in medium summae quod dicunt omnia niti,
 atque ideo mundi naturam stare sine ullis
 ictibus externis neque quoquam posse resolui
 summa atque ima, quod in medium sint omnia nixa
 —ipsum si quicquam posse in se sistere credis— :
 et quae pondera sunt sub terris omnia sursum
 nitier in terraque retro requiescere posta,
 ut per aquas quae nunc rerum simulacra uidemus.
 Et simili ratione animalia suppa uagari

1025

1030

1035

1040

1045

1050

1055

1060

hainbeste izan eta hainbeste aldakuntza jasanik, era guztietako mugidak eta elkartzeak espermentatuz, azkenik gauzadi hau sortzeko eta irauteko moduko egituretara iritsi dira, eta, behin gauzadia mugida egokietara jaurtia izan denean, urte mordo luzez eusten dio, eta egiten du ezen ibaiak euren urtza ugariz itsaso egarbera horni dezaten eta lurak eguzkiaren igurtzi beroz uzta guztiak berri ditzan eta bizidunen belaunaldiak lora daitezen eta eterraren su lerratiak bizi daitezen; hau guztiau inola ere ezingo litzateke, baldin materiaren kopurua infinitutik ez baletor galera guztiak garaiz erreparatzera. Zeren bizidunen izaerak, jana kenduta, mehartu eta gorputza galtzen duenez, halaxe behar du denak disolbatu, zerbaitegatik bide okerretik jo duen materiak elikatzeari uzten badio. Kanpotik datozen edonondiko kolpeek ere ezin dute kontserbatu bildutako gauzadi guztia. Badezakete, noski, jo eta zati bat irauaraz, beste batzuk etorri eta gauzadi osoa hornitu arte, baina bitartean errebotatzera beharturik dagoz eta gauzen printzipioei ihes egiteko espazioa eta denbora ematen diete, baturatik libre ibil daitezten. Beraz, behin eta berriro, printzipio horiek erruz agertu behar dute. Eta areago, kolpeak eurak ere behar adina izateko, nondinahi materia kopuru infinitua behar da.

Honetan, ez dezazula inondik ere sinets, Memmio, zer guztiek gauzadiaren erdigunea deritzonerantz jotzen dutenik eta horri esker munduaren izaerak kanpotiko talkarik gabe dirauenik eta ezerk ezin duenik ez goitik ez behetik inora alde egin, denak erdirantz jotzen duela-eta (zerbait bere baitan koka daitekeela sinesten baduzu, jakina), eta lurraren barrenean diren pisudunak berriro gorantz jotzen dutenik eta lurrean goikoz behera pausatzen direnik, orain uretan ikusten ditugun gauzen irudiak bezala.

contendunt neque posse e terris in loca caeli
reccidere inferiora magnis quam corpora nostra
sponte sua possint in caeli templa uolare:

Illi cum uideant solem, nos sidera noctis

cernere, et alternis nobiscum tempora caeli
diuidere et noctes parilis agitare diebus.

Sed uanus stolidis haec <error falsa probauit>,
amplexi quod habent peru <ersa rem ratione>;
nam medium nil esse potest <quando omnia constant>

infinita. Neque omnino, si iam <medium sit>,
possit ibi quicquam consistere <eam magis ob rem>,
quam quauis alia longe ratione <repelli:>

omnis enim locus ac spatium, quod in <ane uocamus>
per medium, per non medium, concedere <debet>

aeque ponderibus, motus quacumque feruntur.

Nec quisquam locus est, quo corpora cum uener <e>,
ponderis amissa ui possint stare <in> inani;

nec quod inane autem est ulli subsistere debet,
quin, sua quod natura petit, cedere pergat.

Haud igitur possunt tali ratione teneri

res in concilium medii cuppedine uictae.

Praeterea quoniam non omnia corpora fingunt
in medium niti, sed terrarum atque liquoris

et quasi terreno quae corpore contineantur,
umorem ponti magnasque e montibus undas,

at contra tenuis exponunt aeris auras

et calidos simul a medio differier ignis,

atque ideo totum circum tremere aethera signis

et solis flammam per caeli caerula pasci,

quod calor a medio fugiens se ibi colligat omnis,

nec prorsum arboribus summos frondescere ramos

posse, nisi a terris paulatim cuique cibatum

* * *

ne uolocri ritu flammaram moenia mundi

diffugiant subito magnum per inane soluta

et ne cetera consimili ratione sequantur

neue ruant caeli tonitralia templa superne

terraque se pedibus raptim subducat et omnis

1065

1070

1075

1080

1085

1090

1093

1102

1105

Eta era berean animaliak buruz behera dabiltzala tematzen dute eta hain ezinezko omen dute ortziaren azpiko aldeetara erortzea, nola gure gorputzek ezin duten eurenez ortziko sapaietara hegatu. Eurek eguzkia ikustean, guk gaueko izarrak ikusten omen ditugu eta urtarokak gurekin txandaka banatzen omen dituzte, eta haien gauak gure egunei omen dagozkie. Baina hauek errakuntza hutsalak ergelei pentsarazi dizkien irudikeriak dira, arrazoi zentzugabeari heldu diotelako; ez baitaiteke erdigunerik izan, espazioa infinitua izanez gero. Eta erdigunerik balitz ere, ezerk ezingo luke bertan gelditzera jo, beste arrazoiren bategatik urruntzera baino gehiago. Zeren hutsunea deritzogun leku eta espazio orok, erditik zein ez erditik, pisudunei berdinki pasatzen utzi behar baitie, mugimenduek eragiten dieten noranahi. Ez dago lekurik, non, gorputzak, hara heltzean, pisua gal eta hutsunean koka daitezkeen. Hutsune denak ere ez dio ezein gorputzi eutsi behar, pasatzen utzi baizik, bere izaerak agintzen duenez. Gauzek ezin dute, beraz, horrela baturik iraun, erdiranzko grinak menperaturik.

Bestalde, ez zaie iruditzen gorputz guztiek erdirantz tiratzen dutenik, lurrekoek eta urezkoek baizik, eta lurrezkoa bezalako bilkinean dagozenek, itsasoko urak eta mendietatik beherako uhin indartsuek; aitzitik, ordea, airearen aura xumeek eta berdin gar beroek erditik ihes egiten omen dute; eta denetik inguratzen gaituen eterra horrelaxe omen da izarrez dizdizkatzen eta eguzkiaren garra ortzipean bazkatzen, erditik ihes egindako beroa hantxe biltzen omen baita; eta zuhaitzetan ere goren adarrak ezingo omen lirarteke hostotu, lurretik gora apurka-apurka doakien jakia...¹

[[Bai espazioak eta bai materiak infinituak izan behar dute, beraz]], munduaren murruek bat-batean, gar hegalaria gisan, ihes egin ez dezaten, hutsunean disolbaturik, eta gainerakoek ere berdintsu segi ez diezaieten eta zeruko tenplu trumoilariak eror ez daitezen eta lurra oinpetik tanpez alde egin ez dezan eta, ortziaren eta gauzen hondaki

¹ Hemen zortzi bertso jatorrizko galduak dira.

inter permixtas rerum caelique ruinas
corpora soluentes abeat per inane profundum,
temporis ut puncto nil exstet reliquiarum
desertum praeter spatium et primordia caeca:
Nam quacumque prius de parti corpora desse
constitues, haec rebus erit pars ianua leti,
hac se turba foras dabit omnis materiai.

Haec sic pernosces parua perductus opella;
namque alid ex alio clarescet nec tibi caeca
nox iter eripiet quin ultima naturai
peruideas: ita res accendent lumina rebus.

1110

nahasién artean, dena hutsune sakonean ezaba ez dadin, une jakin batean munduan espazio desertuaz eta lehenki ezkutuez beste hondarrik geratzen ez dela. Zeren, gorputzak falta izatea nondik onartzen duzun, handixek izango baita gauzen heriotzaren atea, handixek alde egingo baitu materiaren kopuru guztiak.

1115

Honela, obratxo txiki honek gidaturik, gauza hauetaz jabetuko zara; batak bestea argituko baitu eta gau ilunak ez baitizu biderik itxi-ko, naturaren azken jakingaiak aztertu arte: egia baita gauza batzuek beste batzuk argitzen dituztela.

LIBER SECUNDUS

CAPITULA

14. ΣΑΡΚΟΣ Ε ΣΤΑΘΕΣ ΚΑΤΑΣΤΕΜΑ
62. DE MOTU PRINCIPIORUM ET INFINITA
ESSE
89. IMUM NIHIL ESSE
112. QUAE IN SOLI RADIIS APPAREANT
142. E CELERITATE MOTUS
184. NIHIL SURSUM FERRI CORPUSCULORUM
SED PRESSA A RADICIBUS EXURGERE
CORPORA
221. DE CLINATIONE MOTUS
333. DE FIGURA ATOMORUM
388. DE LUMINE
392. DE OLEO
398. DE MELLE
400. DE ABSINTHIO
408. DE SERRAE STRIDORE
447. DE ADAMANTE FERRO
SILICE AERE
464. DE SUDORE SALSO
471. DE AQUA MARINA

BIGARREN LIBURUA

KAPITULUAK

14. GORPUTZAREN EGOKIERA ONA
62. PRINTZIPIOEN MUGIMENDUAZ ETA
INFINITUAK IZATEAZ
89. MUTURREAN EZ DAGOELA EZER
113. ZER BISTARATZEN DEN EGUZKI IZPIETAN
142. MUGIMENDUEN BIZKORTASUNA
184. PARTIKULEK EZ DUTELA GORANTZ EGITEN,
GORPUTZAK SUSTRAIETATIK LOTUTA
GORATZEN DIRELA BAIZIK
221. MUGIMENDUEN INKLINAZIOAZ
333. ATOMOEN FORMAZ
388. ARGIAZ
392. OLIOAZ
398. EZTIAZ
400. ASENTSIO-BELARRAZ
408. ZERRAREN KIRRINKAZ
447. DIAMANTEAZ, BURDINAZ, SUHARRIAZ,
BRONTZEAZ
464. IZERDI GAZIAZ
471. ITSAS URAZ

478. FIGURAS ESSE MULTAS
522. INTER SE SIMILIA INFINITA ESSE
589. IN TERRA SEMINA INSUNT
598. DE MATRE MAGNA
646. TO MAKAPION KAI AΦΘAPTON
730. NON NECESSARIO ALBA EX ALBIS
PRINCIPIIS FIERI
755. COLORES NON ESSE
801. DE COLORE COLUMBARUM
806. DE CAUDA PAVONIS
842. ATOMOS NEC COLOREM NEC ODOREM
NEC SUCUM NEC FRIGUS
NEC CALOREM HABERE
865. DE INSENSILI SENSILE GIGNI
1048. OMNE INFINITUM IN OMNIS PARTIS
1058. APIROS MUNDOS
1105. MUNDUM NATUM ET MULTOS SIMILIS
1144. IAM SENEM MUNDUM ET OMNIA
PUSILLA NASCI

478. FORMAK ASKO DIRELA
522. ELKARREN ANTZEKOAK INFINITUAK DIRELA
589. HAZIAK LURREAN DAGOZ
598. AMA HANDIAZ
646. ZORIONA ETA USTELEZINA
730. ZURIAK EZ DATOZELA NAHITAEZ PRINTZIPIO
ZURIETATIK
755. KOLORERIK EZ DELA
801. USOEN KOLOREAZ
806. INDIOILARRAREN ISATSAZ
842. ATOMOEK EZ DAUKATELA EZ KOLORERIK,
EZ USAINIK, EZ ZAPORERIK, EZ HOTZIK,
EZ BERORIK
865. SENTIKORRA SENTIEZKORRETIK DATORRELA
1058. UNIBERTSOA INFINITUA DELA NORANAHI
1058. MUNDU ZENBAGAITZAK
1105. MUNDUA SORTUA ETA ASKOREN ANTZEKOAK DELA
1144. MUNDUA ZAHARRA DELA ETA GAUZA GUZTIAK
TXIKI SORTZEN DIRELA

LIBER SECUNDUS

Suaue, mari magno turbantibus aequora uentis,
e terra magnum alterius spectare laborem;
non quia uexari quemquamst iocunda uoluptas,
sed quibus ipse malis careas quia cernere suaue est.
Suaue etiam belli certamina magna tueri
per campos instructa tua sine parte pericli.
Sed nil dulcius est, bene quam munita tenere
edita doctrina sapientum templa serena,
despicere unde queas alios passimque uidere
errare atque uiam palantis quaerere uitae,
certare ingenio contendere nobilitate,
noctes atque dies niti praestante labore
ad summas emergere opes rerumque potiri.
O miseras hominum mentis, o pectora caeca!
Qualibus in tenebris uitae quantisque periclis
degitur hoc aevi quodcumquest! Nonne uidere
ni aliud sibi naturam latrare, nisi utqui
corpore seiunctus dolor absit, mente fruatur
iucundo sensu cura semota metuque?
Ergo corpoream ad naturam pauca uidemus
esse opus omnino, quae demant cumque dolorem,
delicias quoque uti multas substernere possint.
Gratius interdum neque natura ipsa requirit,
si non aurea sunt iuuenum simulacra per aedes
lampadas igniferas manibus retinentia dextris,
lumina nocturnis epulis ut suppeditentur,

BIGARREN LIBURUA

Bai dela gozoa, haizeak itsaso zabalean olatuak astintzean, bes-
teen lan bortitza lehorretik ikustea; ez inor penatzea atsegin alaia dela-
ko, nolako gaitzetatik libre zagozen ikustea gozoa delako baizik.
Gozoa da baita zelaietan zehar eraturiko gerra demak ikustea, norbe-
ra arriskukide izan gabe. Baina ez dago ezer gozoagorik jakintsuen
doktrinak ondo eraikitako goi tenplu nareetan bizitzea baino, nondik
besteak gainbegira ditzakezun eta hara-hona deslai eta bizitzako bide
bila noraezik ikus, nor talentutsuago, nor nobleago, gau eta egun lan
eta lan saiatzen, nor ondasunetan gorago eta nor agintetsuago. Oi, giza
gogo errukarriak; oi, bihotzitsuak! Zer biziera ilunean eta norainoko
arriskueta ahitzen zaigun duen luzera duelako denbora hau! Ez al da
ikusten naturak ez duela beretzat eskatzen oinazea gorputzetik aparta-
tzea eta aldentzea besterik, eta gogoaren baitan sentipen atsegina
gozatzea, arduratik eta beldurretik libre? Honela dakusgu gorputzaren
izaerak ezer gutxi behar duela oinazea kentzeko, baita atsegin ugari
eman ahal izateko ere. Naturak berak ere ez du beste gozamenik eska-

6
5
7
10
15
20
25

nec domus argento fulget auroque renidet
nec citharae reboant laqueata aurataque templa,
cum tamen inter se prostrari in gramine molli
propter aquae riuum sub ramis arboris altae
non magnis opibus iucunde corpora curant,
praesertim cum tempestas arridet et anni
tempora conspergunt uiridantis floribus herbas.
Nec calidae citius decedunt corpore febres,
textilibus si in picturis ostroque rubenti
iacteris, quam si in plebeia ueste cubandum est.
Quapropter quoniam nil nostro in corpore gazae
proficiunt neque nobilitas nec gloria regni,
quod superest, animo quoque nil prodesse putandum;
si non forte tuas legiones per loca campi
feruere cum uideas belli simulacra cientis,
subsidiis magnis et ecum ui constabilitas,
ornatasque armis statuas pariterque animatas,
his tibi tum rebus timefactae religiones
effugiunt animo pavidae, mortisque timores
tum uacuum pectus linquunt curaque solutum.
Quod si ridicula haec ludibriaque esse uidemus,
re ueraque metus hominum curaeque sequaces
nec metuunt sonitus armorum nec fera tela
audacterque inter reges rerumque potentis
uersantur neque fulgorem reuerentur ab auro
nec clarum uestis splendorem purpureai,
quid dubitas quin omni sit haec rationi potestas?
Omnis cum in tenebris praesertim uita laboret.
Nam ueluti pueri trepidant atque omnia caecis
in tenebris metuunt, sic nos in luce timemus
interdum, nilo quae sunt metuenda magis quam
quae pueri in tenebris paurant finguntque futura.
Hunc igitur terrorem animi tenebrasque necesses
non radii solis neque lucida tela diei
discutiant, sed naturae species ratioque.

Nunc age quo motu genitalia materiai
corpora res uarias gignant genitasque resoluant

30

35

40

45

50

55

60

tzen, nahiz eta geletan urrezko gazte irudirik egon ez, eskuinetan lanparak sutan dituztela, gaueko oturuntzei argi egiteko, nahizta etxeak zilarrez ñirñir eta urrez dirdir egin ez, edo urrezko kasetoidun tenpluetan zitara hotsik entzun ez; aski du ibai ondoko belar finean, zuhaitz luze baten itzalpean, elkarren ondoan etzatea, gorputzak hainbeste handikeria gabe ederki gozaraziz, batez ere aroak laguntzen eta urtaroak belarraren berdetasuna loreztatzen duenean. Sukar beroak ez dizu, izara bordatueta eta purpura gorrian etzanda, gorputzetik lehenago alde egingo, soineko arruntean luze zagozela baino. Beraz, ez ondasunak, ez nobleziak, ez agintearen aintzak gure gorputzari ezertan ongari ez bazaizkio, sobra dauzkalako, arimarentzat ere ez dutela balio pentsatu behar da. Baldin eta, gudu zelaietan zehar zeure legioak, errefortzu handiz eta zaldien indarrez babestuak eta denak armaz hornituak eta berdin kemenduak, gerra irudiak zabaltzen ikusten dituzunean, zure sineskeretik, gauza hauekin izaturik, gogoaren baitatik ikaran ihes egiten ez badute, eta heriotzaren beldurrak zure golkoa huts eta arduratik at uzten ez badu. Baina ikusirik hau guztiau zentzugabea eta barregarria dela eta gizakiek, benetako izu eta etengabea ardura eta guzti ere, ez diotela beldurrik armen arrabotsari ez gezi ankerrei eta ausarki dihardutela erregeen eta ahaltsuen artean eta ez dutela errespetatzen ez errearen distirarik ez purpurazko soinekoaren ospe argitsurik, orduan izan ote dezakezu dudarik ahalmen guztia adimenak ematen digula? Are gehiago bizitza osoak ilunpean lehiaz diharduenean. Zeren, hurrak dardaratzen eta ilunpe itsuan edozergatik beldurtzen direnez, halaxe guk ere sarritan beldur diegu hurrei ilunetan ikaragarri eta gertatzear iruditzen zaizkienak baino ezertan beldurgarriago ez direnei. Gogoaren izu eta ilunpe honen ezabatzaile behar dute, beraz, ez eguzkiaren errainuek, ez egunaren gezi argiek, naturaren behaketak eta zientziak baizik.

Orain utzidazu azaltzen materiaren gorputz sortzaileek nola dituzten izaki ezberdinak sortzen eta sortuak disolbatzen eta zer inda-

et qua ui facere id cogantur quaeque sit ollis
reddita mouilitas magnum per inane meandi,
expediam: tu te dictis praebere memento.
Nam certe non inter se stipata cohaeret
materies, quoniam minui rem quamque uidemus
et quasi longinquo fluere omnia cernimus aeuo
ex oculisque uetustatem subducere nostris,
cum tamen incolumis uideatur summa manere
propterea quia, quae decedunt corpora cuique,
unde abeunt minuunt, quo uenere augmine donant,
illa senescere at haec contra florescere cogunt,
nec remorantur ibi. Sic rerum summa nouatur
semper, et inter se mortales mutua uiuunt.
Augescunt aliae gentes, aliae minuuntur,
inque breui spatio mutantur saecula animantum
et quasi cursores uitae lampada tradunt.
Si cessare putas rerum primordia posse
cessandoque novos rerum progignere motus,
auis a uera longe ratione uagaris.
Nam quoniam per inane uagantur, cuncta necessest
aut grauitate sua ferri primordia rerum
aut ictu forte alterius. Nam <cum> cita saepe
obuia confligere, fit ut diuersa repente
dissiliant; neque enim mirum, durissima quae sint
ponderibus solidis neque quicquam a tergibus obstat.
Et quo iactari magis omnia materialia
corpora peruideas, reminiscere totius imum
nil esse in summa, neque habere ubi corpora prima
consistant, quoniam spatium sine fine modoquest
immensumque patere in cunctas undique partis
pluribus ostendi et certa ratione probatumst.

Quod quoniam constat, nimirum nulla quies est
reddita corporibus primis per inane profundum,
sed magis assiduo uarioque exercita motu
partim interuallis magnis confulta resultant,
pars etiam breuibis spatiis uexantur ab ictu.
Et quaecumque magis condense conciliatu

65

70

75

80

85

90

95

100

rrek eginarazten dien hori eta zer higikortasun emana zaien, hutsune handian zehar ibiltzeko: saia zaitetz esanari arreta jartzen. Izan ere, materia bere baitan batua eta trinkoa ez denez, gauza bakoitza txikitzen eta denboraren luzean dena urtzen eta zahartzaroak gure begietatik eramaten dakusgu eta, hala ere, gauzadiak osorik dirauela ageri da, alde egiten duten gorputzek uzten dutena txikitzen baitute eta nori batzen hura handitzen, lehengoa zaharrarazten eta hau, ordea, loratzen, baina hemen ere ez dira geratzen. Honela gauzadia beti berritzen ari da eta hilkorrek elkar biziartzuten dute. Jendea ere batzuk hazten, besteak txikitzen dira, eta denbora laburrean bizidunen belaunaldiak aldatu egiten dira eta, lasterkariek bezala, biziaren zuziak elkarri ematen dizkiote.

Gauzen lehenkiak geldi daitezkeela eta geldian gauzen mugimendu berriak eragin ditzaketela uste baduzu, egiatik urrun galduta zabilta. Zeren hutsunean deslari, gauzen lehenkiek denak batera eramana izan behar lukete, bai euren grabitatez edo beste baten halabeharrek talkaz. Izan ere, sarritan euren ibilian elkar jotzen dutenean, elkarren besterantz punpatzen dira; eta ez da harritzekoa, hain gogorak eta pisu trinkoak izanik eta atzean oztoporik ez dutela. Eta materiaren gorputzak nola diren astinduak hobeto ikus dezazun, gogoratu gauzadi osoan ez dagoela hondorik, ez lehenkiak non gelditurik, zeren espazioak ez daukala neurririk, ez mugarik, eta alde guztietarantz neurrigabe hedatzen dela luze agertu bainuen, eta arrazoi segurez frogatua izan baitzen.

Hau argi dagoenez gero, bistan da lehen gorputzei ez zaiela hutsune sakonean zehar inolako atsedetik eman, baizik, mugimendu etengabe eta askotarikoz astindurik, batzuk talkaren ondorioz distantzia handietaraino punpatzen direla, beste batzuek, ordea, leku txikian jasaten dutela kolpea. Eta, trinkokiago bildurik, leku estuagoan jo eta

exiguīs interuallis conuēcta resultant,
indupedita suis perplexis ipsa figuris,
haec ualidas saxi radices et fera ferri
corpora constituunt et cetera <de> genere horum.
Paucula quae porro magnum per inane uagantur
cetera dissiliunt longe longeque recursant
in magnis interuallis; haec aera rarum
sufficiunt nobis et splendida lumina solis.
Multaque praeterea magnum per inane uagantur,
conciliis rerum quae sunt reiecta nec usquam
consociare etiam motus potuere recepta.

Cuius, uti memoro, rei simulacra et imago
ante oculos semper nobis uersatur et instat.
Contemplator enim, cum solis lumina cumque
inserti fundunt radii per opaca domorum:
multa minuta modis multis per inane uidebis
corpora misceri radiorum luminie in ipso
et uelut aeterno certamine proelia pugnas
edere turmatim certantia nec dare pausam,
conciliis et discidiis exercita crebris;
conicere ut possis ex hoc, primordia rerum
quale sit in magno iactari semper inani.

Dumtaxat rerum magnarum parau potest res
exemplare dare et uestigia notitiae.

Hoc etiam magis haec animum te aduertere par est
corpora quae in solis radiis turbare uidentur,
quod tales turbae motus quoque materiai
significant clandestinos caecosque subesse.

Multa uidebis enim plagis ibi percita caecis
commutare uiam retroque repulsa reuerti
nunc huc nunc illuc in cunctas undique partis.
Scilicet hic a principiis est omnibus error.

Prima mouentur enim per se primordia rerum;
inde ea quae paruo sunt corpora conciliatu
et quasi proxima sunt ad uiris principiorum,
ictibus illorum caecis impulsa cientur,
ipsaque <pro> porro paulo maiora lacessunt.

105

110

115

120

125

130

135

punpatzen direnek, euren egitura korapilotsuetan trabaturik, haitzaren
sustrai indartsuak eta burdinaren gorputz ohila eta antzeko guztiak
osatzen dituzte. Beste gutxiago batzuek, hutsune handian zehar deslai,
urrun punpatzen eta urrun jauzi egiten dute, tarte handietan; hauek
aire xumea eta eguzkiaren argi distiratsua damaigute. Gainera, hutsu-
nean zehar asko dabilta deslai, gauzen batasunetatik ezetsiak izan
zirenak edo, hartuak izanik ere, euren mugimenduak batu ezin izan
zituztenak. Esaten ari naizen honen itxura eta irudia begien aurrean
daukagu eta dago beti. Zeren begira eguzkiaren izpiek zer egiten
duten, gelako iluntasunean sartu eta argia zabaltzen dutenean: hamaika
gorputz nimino hamaika eratan hutsunean zehar nahasten ikusiko
duzu izpien argitasunean bertan, eta, lehia eternalean bezala, guduak
eta guduxkak batailoika jokatzen atsedetik gabe, batze-banatze eten-
gabean dihardutela; hortik atera dezakezu nolakoa den lehenkien beti-
ko iharrostea hutsune handiaren barruan. Gauza txikiak gauza han-
dien etsenplua eta ezagutzeko lorratza eman dezakeen neurrian. Bada
besterik ere, eguzkiaren izpietan dardaratzen ikusten diren gorputzoi
arreta jar diezaiezun, ezen halako multzoek erakusten baitute materia-
ren barruan ere badirela mugida ezkutuak eta ikusgaitzak. Izan ere,
ikusiko duzu nola hainbat, kolpe ikusgaitzek astindurik, norabidez
aldatzen eta ezetsirik itzultzen diren, behin honantz, behin harantz,
alde guztietarantz. Joan-etorri hau guztia, jakina, lehenkietatik dato-
rrena da. Zeren, lehenik, gauzen lehenkiak eurenez mugitzen dira;

Sic a principiis ascendit motus et exit
paulatim nostros ad sensus, ut moueantur
illa quoque, in solis quae lumine cernere quimus
nec quibus id faciant plagis apparet aperte. 140

Nunc quae mobilitas sit reddita materiai
corporibus, paucis licet hinc cognoscere, Memmi.
Primum aurora nouo cum spargit lumine terras
et uariae uolucres nemora auiam peruolitant
aera per tenerum liquidis loca uocibus opplent,
quam subito soleat sol ortus tempore tali
conuestire sua perfundens omnia luce,
omnibus in promptu manifestumque esse uidemus. 145

At uapor is quem sol mittit lumenque serenum
non per inane meat uacuum; quo tardius ire
cogitur, aerias quasi dum diuerberat undas.
Nec singillatim corpuscula quaeque uaporis
sed complexa meant inter se conque globata;
quapropter simul inter se retrahuntur et extra
officiuntur, uti cogantur tardius ire. 150

At quae sunt solida primordia simplicitate,
cum per inane meant uacuum nec res remoratur
ulla foris, atque ipsa suis e partibus unum,
unum in quem coepere locum conixa feruntur,
debent nimirum praecellere mobilitate
et multo citius ferri quam lumina solis
multiplexque loci spatium transcurre eodem
tempore quo solis peruolgant fulgura caelum
* * *

nec persectari primordia singula quaeque,
ut uideant qua quidque geratur cum ratione. 165

At quidam contra haec, ignari materiai,
naturam non posse deum sine numine reddi
tanto opere humanis rationibus admoderate
tempora mutare annorum frugesque creare,
et iam cetera, mortalis quae suadet adire
ipsaque deducit dux uitae dia uoluptas 170

gero, elkartzeko txikiz osatzen, eta lehenkien indarrera gehien hurbiltzen diren gorputzak, hauen talka ikusgaitzek eraginik, abian hasten dira eta eurok ere handitxoagoi erasotzen diete. Honela, mugimendua lehenkietatik goraka dator eta apurka-apurka gure sentimenterantz irteten da, eguzkiaren izpitan ikus ditzakegun gorputzak ere mugiarazi arte, nahiz eta hori daragiten kolpeak argi agertu ez. Orain, Memmio, materiaren gorputzei zer mugikortasun eman zaien, adibide gutxi batzuetatik atera dezakezu. Lehenik, egunsentiak lurra argi berriz gainezkatzen dituenean eta hegazti nabarrek, baso apartatueta hegan, bazterrak aire samurrean zehar euren txorrotzio gardenez betetzen dituztenean, une horretan jaikitako eguzkiak zer bat-batean jazten duen dena berak zabalduetako argiz, denentzat bistakoa eta ageria dela dakusgu. Baina eguzkiak igortzen duen beroak eta argitasun nareak ez du hutsune ezergabea zeharkatzen; astiroago joan behar du, airezko uhinak erdibitu behar baititu. Beroaren korpuskuluak ere banan banan elkarri lotuta eta multzoka dabilta; aldi berean, beraz, elkar atzeratzen eta kanpotik eragotziak aurkitzen dira, astiroago ibili beharrez. Baina bakuntasun solidoko lehenkiek, hutsune ezergabea zehar eta kanpotik ezerk galgatzen ez dituenean, euren parteek osotasun bakarra eginez, eta lehenengotatik harantz jotzen zuten xede bakarrentz arrastatuak direnean, argi dago abiadura itzela eraman behar dutela, eguzkiaren argiak baino askoz arinago egingo dutela eta denbora berdinean eguzki izpiek zeruan hegatzan dutena baino askoz espazio handiagoa zeharkatzen dutela.

* * *

[[Ez dirudi gehiago erantsi beharrik]] ez lehenkiak banan-banan ikertu beharrik dagoenik, gauza bakoitza nola sortzen den ikusteko. Baina batzuek, esandakoaz bestera, materia zer den jakiteke diotenez, naturak jainkoen ahalmen gabe ezin ei ditu gizakien premietera hain ondo egokitu urtaroen aldakuntzak eta fruituen sorkuntza eta beste gauza guztiak, zeintzuetarantz atsegin jainkozkoak, bizitzaren

et res per Veneris blanditur saecula propagent,
ne genus occidat humanum. Quorum omnia causa
constituisse deos cum fingunt, omnibu rebus

175

magno opere a uera lapsi ratione uidentur.
Nam quamuis rerum ignorem primordia quae sint,
hoc tamen ex ipsis caeli rationibus ausim
confirmare aliisque ex rebus reddere multis,
nequaquam nobis diuinitus esse creatam
naturam mundi: tanta stat praedita culpa.
Quae tibi posterius, Memmi, faciemus aperta.
Nunc id quod superest de motibus expediemus.

180

Nunc locus est, ut opinor, in his illud quoque rebus
confirmare tibi, nullam rem posse sua ui
corpoream sursum ferri sursumque meare;
ne tibi dent in eo flammaram corpora fraudem.
Sursus enim uersus gignuntur et augmina sumunt
et sursum nitidae fruges arbustaque crescunt,
pondera, quantum in se est, cum deorsum cuncta ferantur.

185

Nec cum subsiliunt ignes ad tecta domorum
et celeri flamma degustant tigna trabesque,
sponte sua facere id sine ui subiecta putandum est.
Quod genus e nostro cum missus corpore sanguis
emicat exultans alte spargitque cruorem.

191

Nonne uides etiam quanta ui tigna trabesque
respuat umor aquae? Nam quo magis ursimus altum
directa et magna ui multi pressimus aegre,
tam cupide sursum reuomit magis atque remittit,
plus ut parte foras emergant exiliantque.

195

Nec tamen haec, quantum est in se, dubitamus, opinor,
quin uacuum per inane deorsum cuncta ferantur.

200

Sic igitur debent flammae quoque posse per auras
aeris expressae sursum succedere, quamquam
pondera, quantum in se est, deorsum deducere pugnent.

205

Nocturnasque faces caeli sublime uolantis
nonne uides longos flammaram ducere tractus
in quascumque dedit partis natura meatum?
Non cadere in terram stellas et sidera cernis?

gidariak, gizakiei tiratzen eta ugaltzeko deitzen dien, Venusen langintza gozoz, gizateria akaba ez dadin. Jainkoek dena gizakientzat paratu dutela pentsatzen dutenean, egiazko arrazoitik alde guztietan asko urruntzen direla dirudi. Zeren, nahiz eta lehenkiak zer diren jakin ez, zeruko fenomenoetatik euretatik eta beste hainbat arrazoitatik baieztara ausartuko nintzateke munduaren izaera ez dela jainko bidez guretzat sortua izan: hain akats handiz hornitua baitago. Hau guztia, Memmio, geroago argituko dugu. Orain azal dezagun mugimenduei buruz geratzen dena.

Oraintxe da unea, nik uste, gauza hauetan beste zerbait ere zuri baiezteko, ezen ezin gauza gorputzezkok ezin duela bere indarrez gorantz egin ez gorantz mugitu; honetan garren gorputzek ez zaitzabela okerrera eramanean. Izan ere, garrak gorantz sortzen eta handitzen dira eta labore mardulak eta zuhaitzak gorantz hazten dira, pisudunek, berriz, eurenaren arabera, denek beherantz tiratzen dute. Baina suak etxe sapaieraraino jauzi egiten eta gar bizkorrez zurak eta zutabeak mihizkatzen dituenean, ez da pentsatu behar bere kabuz eta beste indar baten eragin gabe diharduenik. Berdin odolak ere, gure gorputzetik irtetean, turrustan jauzi egiten du goraino eta bere gorritasuna zabaltzen. Ez al duzu ikusten urak nolako indarrez jaurtitzen dituen zurak eta zutabeak? Zenbat eta, zuzen sakaturik, gehiago hondoragotzen ditugun eta askoren artean indar egiten diegun, urak hainbat eta bizikiago okatzen eta jaurtitzen ditu gorantz, azaleratu eta erdia baino gehiago kanporatu arte. Eta hala ere, ez daukagu dudarik, nik uste, euren kabuz, hutsunean zehar denak beherantz eramanean direla. Honelaxe behar dute garrek ere airean gora sakan altxatzeko ahalmena ukan, nahiz eta pisua, berez, beherantz eramaten saiatu. Eta ortziko gau-zuziak ere, goraki hegan, ez al dakusu nolako gar ildo luzeak egiten dituzten, naturak ibilerari emandako edozein norabide-tan? Ez al dakusu izarrak eta argizagiak nola lurrera jausten diren?

Sol etiam <caeli> de uertice dissipat omnis
ardorem in partis et lumine conserit arua;
in terras igitur quoque solis uergitur ardor.
Transuersosque uolare per imbris fulmina cernis;
nunc hinc nunc illinc abrupti nubibus ignes
concurtant; cadit in terras uis flammae uolgo.

Illud in his quoque te rebus cognoscere auemus,
corpora cum deorsum rectum per inane feruntur
ponderibus propriis, incerto tempore ferme
incertisque locis spatium depellere paulum,
tantum quod momen mutatum dicere possis.
Quod nisi declinare solerent, omnia deorsum,
imbris uti guttae, caderent per inane profundum,
nec foret offensus natus nec plaga creata
principiis: ita nil umquam natura creasset.
Quod si forte aliquis credit grauiora potesse
corpora, quo citius rectum per inane feruntur,
incidere ex supero leuioribus atque ita plagas
gignere quae possint genitalis reddere motus,
auius a uera longe ratione recedit.
Nam per aquas quaecumque cadunt atque aera rarum,
haec pro ponderibus casus celerare necessest
propterea quia corpus aquae naturaeque tenuis
aeris haud possunt aequae rem quamque morari,
sed citius cedunt grauioribus exsuperata.
At contra nulli de nulla parte neque ullo
tempore inane potest uacuum subsistere rei,
quin, sua quod natura petit, concedere pergat;
omnia quapropter debent per inane quietum
aeque ponderibus non aequis concita ferri.
Haud igitur poterunt leuioribus incidere umquam
ex supero grauiora neque ictus gignere per se
qui uariant motus per quos natura gerat res.
Quare etiam atque etiam paulum inclinare necessest
corpora; nec plus quam minimum, ne fingere motus
obliquos uideamur et id res uera refutet.
Namque hoc in promptu manifestumque esse uidemus,

210

215

220

225

230

235

240

245

Eguzkiak ere ortzi gailurretik beroa noranahi hedatzen du eta zelaiak
argizatzen; lurrerantz ere makurtzen da, beraz, eguzkiaren beroa.
Oinaztuak ere euritan zeharretara hegatzen ikusten dituzu; hodeietan
leherturiko suak edonorantz zabaltzen dira; sarritan garrezko indarra
lurrera jausten da.

Honetan, baita ere jakin dezazula nahi dut ezen, gorputzak
euren pisuz hutsunean behera zuzen jausten direnean, halako une
batean eta halako leku batean, apur bat alboratu egiten direla, mugi-
mendua aldatu egin dutela esateko moduan. Lehenkiok alboratuko ez
balira, denak hutsune sakonean beherantz lerorzke, euri tantak bezala,
eta ez litzateke euren artean talkarik sortuko ez kolperik gertatuko:
horrela naturak ez zuen inoiz ezer sortuko. Inork uste badu gorputz
astunagoak, hutsunean zehar bizkorrago zuzen doazelako, arinagoen
gainera eror daitezkeela eta horrela mugimendu sortzaileak berritzeko
moduko kolpeak eragin ditzaketela, egiazko arrazoitik at eta urrun
dabil. Zeren urean eta aire xumean zehar erortzen den guztiak pisua-
ren arabera azkartu behar baitu erorrera, uraren gorputzak eta airearen
izaera xumeak ezin dutelako edozer berdina atzeratu, baizik astunago-
ekin lehenago amore ematen baitute, menperaturik. Baina hutsuneak,
ordea, inon ez inoiz ezin du zerbaiten azpian egon, berehala amore
eman gabe, bere izaerak eskatzen duenez; hutsune geldian, beraz,
gauza guztiek azkartasun berdinez mugitu behar dute, pisuan ezberdi-
nak izan arren. Beraz, astunagoek ezingo dute inoiz arinagoen gaine-
ra erori ez euren kolperik eragin, naturak gauzak sortzeko behar
duen mugimendu mordera gertatzeko modukorik. Horregatik, behin
eta berrito esanda, gorputzek apur bat inklinatu egin behar dute; aha-
lik gutxien, noski, ez dadin pentsa errealtateak ezeztatuko lituzkeen

pondera, quantum in sest, non posse obliqua meare,
ex supero cum praecipitant, quod cernere possis.
Sed nil omnino <recta> regione uiai
declinare quis est qui possit cernere sese?

250

Denique si semper motus conectitur omnis
et uetere exoritur <semper> nouus ordine certo
nec declinando faciunt primordia motus
principium quoddam quod fati foedera rumpat,
ex infinito ne causa causam sequatur,
libera per terras unde haec animantibus exstat,
unde est haec, inquam, fatis auolsa uoluntas
per quam progredimur quo ducit quemque uoluptas,
declinamus item motus nec tempore certo
nec regione loci certa, seb ubi ipsa tulit mens?
Nam dubio procul his rebus sua cuique uoluntas
principium dat et hinc motus per membra rigantur.
Nonne uides etiam patefactis tempore puncto
carceribus non posse tamen prorumpere equorum
uim cupidam tam de subito quam mens auet ipsa?
Omnis enim totum per corpus materiai
copia conciri debet, concita per artus
omnis ut studium mentis conixa sequatur;
ut uideas initum motus a corde creari
ex animique uoluntate id procedere primum,
inde dari porro per totum corpus et artus.
Nec similest ut cum impulsu procedimus ictu
uiribus alterius magnis magnoque coactu.
Nam tum materiem totius corporis omnem
perspicuumst nobis inuitis eri rapique,
donec eam refrenauit per membra uoluntas.
Iamne uides igitur, quamquam uis exera multos
pellat et inuitos cogat procedere saepe
praecipitesque rapi, tamen esse in pectore nostro
quiddam quod contra pugnare obstareque possit?
Cuius ad arbitrium quoque copia materiai
cogitur interdum flecti per membra per artus
et proiecta refrenatur retroque residit.

255

260

265

270

275

280

mugimendu zeharrak asmatzen ari garenik. Argi eta garbi ikusten baitugu pisuak, goitik amiltzean, ez daitezkeela, euren behintzat, zeharretara mugi, ikus dezakezunez. Baina nor da ezer ez dela lerro zutetik ezertxo ere alboratzen hauteman dezakeenik?

Hauek honela, mugimendu oro elkarlotzen bada eta berria beti, ordena ziurrean, zaharretik badator eta lehenkiek ez badute, alboratzean, patuaren arauak hautsiko dituen mugi-printzipiorik egiten, kausak kausari infinituraino segi ez diezaion, orduan nondik dago lurrean bizidunen askatasun hau, nondik dago, galdetzen dut, patuari kendutako nahimen hau, zeinaren bitartez nahiak nora gidatzen hara goazen, mugimenduak ere aldatuz eta ez denbora jakinez, ez leku jakinez, gogoak berak agindu digun lekura baizik? Zeren dudarik gabe norbere nahimena baita egintza hauei hastapena damaiena eta hortixe zabaltzen baitira mugimenduak lohadarretara. Ez al dakusu baita nola zaldi irrikatsuak, une jakin batean gortak irekitzean, ezin diren euren gogoak nahi bezain azkar lasterka abiatu? Izan ere, materia kopuru guztia gorputz osoan zehar kitzikatu behar dute, lohadarretan kitzikaturik, osoan eta saiatuki gogoaren joranari segi diezaion. Hortik dakuskezu mugimenduaren hasiera bihotzean sortzen dela eta gogoaren nahimenetik datorrela lehenik, handik zabaltzen dela gorputz osoan eta lohadarretan zehar. Ez da berdina kolpearen ondorioz aurrera egiten duguna, beste baten indar handiak eta bortxa handiak sakaturik. Orduan argi dago gorputz osoaren materia guztia gure gogoz kontra arrastaturik doala, nahimenak lohadarretan geldiarazi arte. Orain, beraz, ez al dakusu, kanpo indarrak askori bultz egin eta maiz gogoz kontra ibilarazi, arrastatu eta jaurti arren, badela, hala ere, gure bularrean zerbait, eusteko eta jarritzeko gai dena? Baita beronen nahiaren arabera, materia kopuruak batzuetan gorputzean eta gorputzadarretan zehar biratu egin behar izaten du eta, aurrera jaurtia izan bada, galgatu eta atzerantz lasaitu.

Quare in seminibus quoque idem fateare necessest,
esse aliam praeter plagas et pondera causam
motibus, unde haec est nobis innata potestas,
de nilo quoniam fieri nil posse uidemus.
Pondus enim prohibet ne plagis omnia fiant
externa quasi ui. Sed ne mens ipsa necessum
intestinum habeat cunctis in rebus agendis
et deuicta quasi cogatur ferre patique,
id facit exiguum clinamen principiorum
nec regione loci certa nec tempore certo.

Nec stipata magis fuit umquam materiai
copia nec porro maioribus interuallis.
Nam neque adaugescit quicquam neque deperit inde.
Quapropter quo nunc in motu principiorum
corpora sunt, in eodem ante acta aetate fuere
et post haec semper simili ratione ferentur
et quae consuerint gigni gignentur eadem
condicione et erunt et crescent uique ualebunt,
quantum cuique datum est per foedera naturai.
Nec rerum summam commutare ulla potest uis;
nam neque, quo possit genus ullum materiai
effugere ex omni, quicquam est <extra>, neque in omne
unde coorta queat noua uis irrumpere et omnem
naturam rerum mutare et uertere motus.
Illud in his rebus non est mirabile, quare,
omnia cum rerum primordia sint in motu
summa tamen summa uideatur stare quiete,
praeterquam siquid proprio dat corpore motus.
Omnis enim longe nostris ab sensibus infra
primorum natura iacet; quapropter, ubi ipsa
cernere iam nequeas, motus quoque surpere debent;
praesertim cum, quae possimus cernere, celent
saepe tamen motus spatio diducta locorum.
Nam saepe in colli tondentes pabula laeta
lanigerae reptant pecudes quo quamque uocantes
inuitant herbae gemmantes rore recenti,
et satiati agni ludunt blandeque coruscant;

Horregatik aitortu beharra dago hazietan ere badela kolpeez eta pisuaz
beste kausa mugiarazle bat, nondik heldu zaigun berezko ahalmen
hau, argi baitago hutsetik ez daitekeela deus etor. Pisuak, izan ere, ez
du uzten dena kolpe bidez egin dadin, kanpo indarrez alegia. Baina
gogoak berak egiteko guztietan barne derrigorrik ez edukitzea eta,
menperaturik, berau nolabait eraman eta jasan beharrik ez izatea
lehenkien inklinazio xumeak eragiten du, leku zehazgabeen eta den-
bora zehazgabeen.

Materiaren kopurua inoiz ez da izan ez estuagoa ez nasaitasun
handiagokoa. Ezer ez baitzaio gehitzen ez hiltzen. Honela, gorputzen
lehenkien mugimendua orain daragiena bera da, iraganean eragin
zuen eta aurrerantzean ere beti berdin eragingo duena, eta lehen sortu
ohi zirenak baldintza berean sortuak izango dira eta natur legeek
bakoitzari damaiotenaren arabera biziko eta haziko eta indartuko dira.
Eta ezein indarrek ezingo du gauzen kopururik aldatu. Ez baitago ino-
lako kanpo lekurik, ezein materia motak gauzaditik hara ihes egiteko-
rik, ez handik sorturik gauzadian oldar eta gauzen izaera guztia alda
eta mugimenduak uzkaile ditzakeen indar berririk. Honetan, ez da
harrizkoa, gauzen lehenkiak oro mugitzen ari arren, hala ere, gauza-
diak gelditasun osoan dagoela ematea, bere gorputza berez mugiaraz-
ten duenak izan ezik. Lehenkien izaera gure sentimenen oso azpitik
baitago. Horregatik, hura hautematerik ez duzun lekuan, mugimen-
duak ere gordean geratu behar; batik bat ikus ditzakegunek ere sarri-
tan mugimendua ezkutatu egiten baitute, artean bitarte handia badago.
Zeren sarritan ardi iletsuak, muino batean larre gozoa bazkatuz, man-
txo ibili ohi dira, ihintz berriz perlaturiko belarren dei eta gonbiten
arabera; bildots asetuek, berriz, jolasean eta ikotika leunean dihardute.

omnia quae nobis longe confusa uidentur
et uelut in uiridi candor consistere colli.
Praeterea manae legiones cum loca cursu
camporum complent belli simulacra cientes,
fulgor ubi ad caelum se tollit totaque circum
aere renidescit tellus subterque uirum ui
excitur pedibus sonitus clamoreque montes
icti reiectant uoces ad sidera mundi
et circumuolitant equites mediosque repente
tramittunt ualido quatientes impete campos:
et tamen est quidam locus altis montibus <unde>
stare uidentur et in campis consistere fulgor.

Nunc age iam deinceps cunctarum exordia rerum
qualia sint et quam longe distantia formis
percipe, multigenis quam sint uariata figuris;
non quo multa parum simili sint praedita forma,
sed quia non uolgo paria omnibus omnia constant.
Nec mirum; nam cum sit eorum copia tanta
ut neque finis, uti docui, neque summa sit ulla,
debent nimirum non omnibus omnia prorsum
esse pari filo similique adfecta figura.
Praeterea genus humanum mutaeque natantes
squamigerum pecudes et laeta armenta feraeque
et uariae uolucres, laetantia quae loca aquarum
concelebrant circum ripas fontisque lacusque,
et quae peruolgant nemora auia peruolitantes;
quorum unum quiduis generatim sumere perge,
inuenies tamen inter se differre figuris.
Nec ratione alia proles cognoscere matrem
nec mater posset prolem; quod posse uidemus
nec minus atque homines inter se nota cluere.
Nam saepe ante deum uitulus delubra decora
turicremas propter mactatus concidit aras
sanguinis exspirans calidum de pectore flumen.
At mater uiridis saltus orbata peragrans
noscit humi pedibus uestigia pressa bisulcis,
omnia conuisens oculis loca si queat usquam

Hau guztiau guk urrundik lauso ikusten dugu, muino berdearen gainean zuritasun geldi bat bezala. Era berean, legio handiek zelaiak lasterka betetzen dituztenean, gudu plantak eginez, distira zeruraino heletzen da eta lurak inguru guztia brontzez dizdizten du eta gizonen oinots indartsua altxatzen da eta mendiek, arrabotsak zauriturik, ahotsak munduko izarretaraino berriraizten dituzte eta zaldunek ingurua hegatzten eta zelaia tanpez zeharkatzen dute, oldar bortitzean inarrosiz: eta hala ere, mendi gorenetan bada une bat, nondik denek baraturik eta zelaiko distira geldia diruditen.

Orain, aurrera joz, ohar zaitetz gauza guztien lehenkiak nolakoak eta zein forma ezberdinekoak diren, zein bariatuak diren euren itxura anizkoitzetan; ez forma berdinez hornituak gutxi direlako, oro har denak denen berdinak ez direlako baizik. Eta ez da harritzekoa; zeren, euren kopuruak, hain handia izanik, ez amairik ez baturarik, irakatsia dudanez, ez daukanez gero, argi dago denek ezin dutela hari berekoak eta itxura berdinekoak izan. Horra gainera gizateria, eta ezkatadun animalia igerilari isilak eta azienda gizenak eta piztiak eta hegazki koloretsuak, urgune gozatsuetara maiz jotzen dutenak, ibaiertz, iturri eta laku inguruetan, eta oihan malkarrak hegaka betetzen dituztenak. Zoaz espezieka hauetariko edozeintzuk banan-banan hartuz, eta, hala ere, denak itxura ezberdineko aurkituko dituzu. Bestela, umeek ez lukete amarik ezagutuko, ezta amak ere umerik; eta baietz dakusgu, gizakiok bezalaxe elkar bereizten dutela. Zeren sarritan, jainkoen tenplu apainduen aurrean, intzentsua erretzen ari den aldare ondoan, txahala lepamotz jausten baita, paparretik odol erreka beroa dariola. Ama hurgabetuak, berriz, mendi berdeak oinkatuz, lurean inkaturiko apatx bikoitzaren oinatzak ezagutu nahi ditu,

conspicere amissum fetum, completque querellis
frondiferum nemus adsistens et creba reuisit
ad stabulum desiderio perfixa iuenci;
nec tenerae salices atque herbae rore uigentes
fluminaque ulla queunt summis labentia ripis
oblectare animum subitamque auertere curam,
nec uitulorum aliae species per pabula laeta
deriuare queunt animum curaque leuare:
Usque adeo quiddam proprium notumque requirit.
Praeterea teneri tremulis cum uocibus haedi
cornigeras norunt matres agnique petulci
balantum pecudes: ita, quod natura reposcit,
ad sua quisque fere decurrunt ubera lactis.
Postremo quoduis frumentum non tamen omne
quidque suo genere inter se simile esse uidebis,
quin intercurrat quaedam distantia formis.
Concharumque genus parili ratione uidemus
pingere telluris gremium, qua mollibus undis
litoris incurui bibulam pauit aequor harenam.
Quare etiam atque etiam simili ratione necessest,
natura quoniam constant neque facta manu sunt
unius ad certam formam primordia rerum,
dissimili inter se quaedam uolitare figura.

Perfacile est animi ratione exsoluere nobis
quare fulmineus multo penetratior ignis
quam noster fluat e taedis terrestribus ortus.
Dicere enim possis caelestem fulminis ignem
subtilem magis e paruus constare figuris
atque ideo transire foramina quae nequit ignis
noster hic e lignis ortus taedaque creatus.
Praeterea lumen per cornum transit, at imber
respuitur. Quare? Nisi luminis illa minora
corpora sunt quam de quibus est liquor almus aquarum.
Et quamuis subito per colum uina uidemus
perfluere; at contra tardum cunctatur oliuom,
aut quia nimirum maioribus est elementis
aut magis hamatis inter se perque plicatis,

360

365

370

375

380

385

390

bazter guztiak begiztatuz, ea nonbait ume galdua hautematen duen, eta, geraturik, baso hostotsua arranguraz betetzen du eta etengabe gor-tarantz begiratzten, txahalaren minak erdiraturik. Ez sahots samurrek, ez ihintzak indarturiko belarrek, ez urertz gorenak joez datozen ibaiek dezakete haren gogoa alai eta hura bat-bateko nahigabetik hastan, eta larre gozoetan beste txahal batzuk ikusteak ere ezin du haren gogoa altxatu eta nahigabea arindu. Hain gauza bere eta ezagunaren bila baitabil! Ahots dardaratiko antxume ahulek ere ezagutzen dituzte euren ama adardunak, berdin bildots jostariak ardi beekariak. Horrelaxe, naturak agindu bezala, bakoitzak bere errapera jotzen du esne bila.

Azkenik, euren espezie barruan ere ikusiko duzu edozeintzuk labore-ale ez direla elkarren artean euren eiteetan alderen bat ez edukitzeko bezain berdinak. Era berean dakusgu maskorren espezieak lurraren altzoa margotzen duela, itsasoak uhin leunez harea egarbera lisatzen duen hondartza kurbatuan. Honela, bada, behin eta berriz esanda, gauzen lehenkiek, naturaz osatuak eta ez eredu jakin baten arabera inoren eskuak eginak direlako, nolabaiteko elkarren eite ezberdinez hegatu behar dute.

Oso erraz zaigu arrazoi bidez azaltzea zergatik mugitzen den oinaztuaren sua sarkorrigo, lurreko zuzietatik sortutako gurea baino. Zeren esan dezakezu oinaztuaren su zerutarra xumeagoa eta eite txikiagoz osatua dela eta, horregatik, egurretik sortutako eta zuziak eragindako gure suak ezin duen poroetatik sartzen dela. Gainera, argiak adarra zeharkatzen du, baina euriak atzera egin behar du. Zergatik, argiaren gorputzak uraren likore elikagarria osatzen dutenak baino txikiagoak direlako ez bada? Eta ardoa iragazkitik zein bizkor ezkutatzen den ikusten dugu; olio nagia, berriz, zalantzan dago, dudarik gabe edo osagai handiagoak, edo elkarren artean amutuagoak eta tolestuagoak dauzkalako, eta horrela gertatzen da ezen lehenkiek ezin

atque ideo fit uti non tam diducta repente
inter se possint primordia singula quaeque
singula per cuiusque foramina permanare.
Huc accedit uti mellis lactisque liquores
iucundo sensu linguae tractentur in ore;
at contra taetra absinthi natura ferique
centauri foedo pertorquent ora sapore;
ut facile agnoscas e lenibus atque rutundis
esse ea quae sensus iucunde tangere possunt,
at contra quae amara atque aspera cumque uidentur,
haec magis hamatis inter se nexa teneri
proptereaue solere uias rescindere nostris
sensibus introituque suo perrumpere corpus.

Omnia postremo bona sensibus et mala tactu
dissimili inter se pugnant perfecta figura;
ne tu forte putes serrae stridentis acerbum
horrorem constare elementis leuibus aequae
ac musaea mele, per chordas organici quae
mobilibus digitis expergefata figurant;
neu simili penetrare putes primordia forma
in nares hominum, cum taetra cadauera torrent,
et cum scena croco Cilici perfusa recens est
araque Panchaeos exhalat propter odores;
neue bonos rerum simili constare colores
semine constituas, oculos qui pascere possunt,
et qui compungunt aciem lacrimaque cogunt
aut foeda specie diri turpesque uidentur.
Omnis enim, sensus quae mulcet cumque, <figura>
haut sine principali aliquo leuore creatast;
at contra quaecumque molesta atque aspera constat,
non aliquo sine materiai squalore repertast.
Sunt etiam quae iam nec leuia iure putantur
esse neque omnino flexis mucronibus unca
sed magis angellis paulum prostantibus, <ut quae>
titillare magis sensus quam laedere possint;
fecula iam quo de genere est inulaeque sapes.
Denique iam calidos ignis gelidamque pruina

395

400

405

410

415

420

425

430

dutela elkarrengandik hain arin banatu eta bakoitza bere porotik iragazi. Honez gainera, eztiak eta esneak ere mihiari ahogozo atsegina ematen diote; absenta higuigarriak eta belarmin gaiztoak, ostera, ahoa okertzen dute zapore zatarrez; hortik aisa aterako duzu sentimenez atseginez ukitzen dituzten gorputzak lisuak eta borobilak direla, mingots eta latz egiten direnak, ostera, amu antzera elkarrekin ehundurik dagozela eta, horregatik, sartzean, gure sentimenen bideak urratzen eta soina minberatzen dutela.

Azkenik, sentimenei on eta ukituari txar zaizkion zer guztiak egitura ezberdina daukatelako dira elkarren kontrako; ez pentsa zerra kirrinkariaren irrintza latza elementu lisuz egina dagoenik, hatz bizkorak zitararen kordetan korrituz itzartzen duten musen kantua bezala; ez uste giza sudurretan sartzen diren lehenkiak ere eite berdinekoak direnik, hala hilotz kiratsuak erretzean, nola eszenan Ziziliako azafraria zabal berri denean eta ondoko aldareak Pangeoko lurrinak jariatzen dituenen; ez uste begiak gozatzeko gai diren kolore ederrak eta haiek ziztatzen eta malkoazten dituztenak, edo euren itxura itsusian zakar eta higuigarri diruditenak, gauzen hazi berdinez osatuak dagozenik. Sentimenak gozaten dituen ezer ez baita sortua izan bere lehenkietan lisutasunik gabe; aitzitik, ordea, molestoa eta latza den guztiak materiaren nolabaiteko zakartasuna ageri du. Badira baita ez lisuak, ez guztiz kurbatuak, puntamakoak direla zuzen pentsa ez daitezkeenak, baizik angelutxo irtenak dauzkatzenak, sentimenak mintzen baino gehiago kilikatzen dituztenak: honelakoxea da gatzunaren eta inularen zaporea. Azkenik, su beroak eta antzigar izoztuak gorputzaren sentimenak ezten ezberdinez zatatzen dituztela, bien ukituak seinalatzen digu.

dissimili dentata modo compungere sensus
 corporis, indicio nobis est tactus uterque.
 Tactus enim, tactus pro diuum numina sancta,
 corporis est sensus uel cum res externa sese
 insinuat, uel cum laedit quae in corpore natata
 aut iuuat egrediens genitalis per Veneris res,
 aut ex offensus cum turbant corpore in ipso
 semina, confundunt inter se concita sensum;
 ut si forte manu quamuis iam corporis ipse
 tute tibi partem ferias atque experiare.
 Quapropter longe formas distare necessest
 principiis, uarios quae possint edere sensus.
 Denique quae nobis durata ac spissa uidentur,
 haec magis hamatis inter sese esse necessest
 et quasi ramosis alte compacta teneri.
 In quo iam genere in primis adamantina saxa
 prima acie constant ictus contemnere sueta
 et ualidi silices ac duri robora ferri
 aeraque quae claustris restantia uociferantur.
 Illa quidem debent e leuibus atque rutundis
 esse magis, fluuido quae corpore liquida constant;
 namque papaueris haustus itemst facilis quod aquarum;
 nec retinentur enim inter se glomeramina quaeque
 et percussus item procliue uolubilis exstat.
 Omnia postremo quae puncto tempore cernis
 diffugere, ut fumum nebulas flammisque, necessest,
 si minus omnia sunt e leuibus atque rutundis,
 at non esse tamen perplexis indupedita,
 pungere uti possint corpus penetrareque saxa
 nec tamen haedere inter se; quodcumque uidemus
 sensibu sedatum, facile ut cognoscere possis
 non e perplexis sed acutis esse elementis.
 Sed quod amara uides eadem quae fluuida constant,
 sudor uti maris est, minime mirabile debet.
 Nam quod fluuidus est, e leuibus atque rutundis
 est et, <squalida sunt illis> admixta doloris
 corpora; nec tamen haec retineri hamata necessumst;
 scilicet esse globosa tamen, cum squalida constent,

Zeren ukimena, noski, oh jainkoen ahalmen santu!, ukimena baita
 gorputzaren sentimena, bai kanpoko zer bat barruratzen denean, bai
 gorputzaren bere zerbaitek min egiten edo atsegin ematen digunean,
 Venusen jardun sortzailean doala, edo haziak gorputzean bertan talkaz
 astintzen eta elkarren zalapartan sentimena nahasten dutenean; zuk
 zeurez, zeure gorputzeko edozein alderdi eskuz jota proba dezakezun
 moduan. Printzipioen formek elkarren oso ezberdinak izan behar
 dute, beraz, hain sentipen ezberdinak sortarazteko.

Azkenik, guri gogor eta trinko iruditzen zaizkigunek euren
 artean gakotuago egon behar dute, adarkadura sarriz elkarlotzen
 direla. Honelakoak dira, lehenik, basalto-harriak, kolpeei atzera
 eragiten ohituak, suharri gotorra eta burdina sendoaren indarra eta
 ate orpoetan kirrinkatzen den brontzea. Gorputz fluidoako likidoek,
 ostera, osagai lisuago eta borobilagokoak izan behar dute; mitxole-
 ta hazia ura bezain aisa zurrut egiten baita; izan ere, globo eiteko
 hauek ez diote elkarri heltzen, eta kolpetxo bat nahikoa da behe-
 rantz abiarazteko. Azkenik, amen batean ezabatzen ikusten dituzun
 zer guztiek, keak, lainoak eta garrak bezala, erabat osagai leunez
 eta borobilez osaturik ez bada ere, behintzat ez dute elkarren kora-
 piloetan eragotzirik egon behar, gorputzak zula eta harriak penetra-
 ditzaten, elkar mindu gabe; hortik aisa dakuskezu sentipen minga-
 rri oro elementu korapilatuetatik barik zorrotzetatik datorrela.
 Baina gorputz aldi berean garratz eta fluuidoak ikusten badituzu,
 itsas ura bezala, ez da batere harrigarri. Zeren zer fluuidoak osagai
 leunak eta borobilak dauzka, noski, baina hauei gorputz latz eta
 mingarriak nahasten zaizkie; ez dago, ostera, hauek elkarri gakoan
 eutsi beharrik; latzak izanik, globo itxurakoak ere badira, noski,

prouolui simul ut possint et laedere sensus.
Et quo mixta putes magis aspera leuibus esse
principiis, unde est Neptuni corpus acerbum,
est ratio secernendi, seorsumque uidendi
umor dulcis, ubi per terras crebrius idem
percolatur, ut in foueam fluat ac mansuescat;
linquit enim supera taetri primordia uiri,
aspera cum magis in terris haerescere possint.

Quod quoniam docui, pergam conectere rem quae
ex hoc apta fidem ducat, primordia rerum
finita uariare figurarum ratione.

Quod si non ita sit, rursus iam semina quaedam
esse infinito debebunt corporis auctu.
Namque in eadem una cuiusuis iam breuitate
corporis inter se multum uariare figurae
non possunt: fac enim minimis e partibus esse
corpora prima tribus, uel paulo pluribus auge;
nempe ubi eas partis unius corporis omnis,
summa atque ima locans, transmutans dextera laeuis,
omnimodis expertus eris, quam quisque det ordo
formai speciem totius corporis eius,
quod superest, si forte uoles uariare figuras,
addendum partis alias erit; inde sequetur,
adsimili ratione alias ut postulet ordo,
si tu forte uoles etiam uariare figuras:
ergo formarum nouitatem corporis augmen
subsequitur. Quare non est ut credere possis
esse infinitis distantia semina formis,
ne quaedam cogas immani maximitate
esse, supra quod iam docui non posse probari.
Iam tibi barbaricae uestes Meliboeaque fulgens
purpura Thessalico concharum tacta colore,
aurea pauonum ridenti imbuta lepore
saecla, nouo rerum superata colore iacerent
et contemptus odor smyrnae mellisque sapes,
et cynea mele Phoebeaque daedala chordis
carmina consimili ratione oppressa silerent.

470

475

480

485

490

495

500

505

errodatur batera, sentimenak zauritzen dituztenak. Eta Neptunoren
gorputz mingotsa printzipio latzen eta leunen nahastea dela hobeto
ikus dezazun, bada modua apartatzeko eta banan ikusteko, nola ur
geza, lur geruza batzuetatik iragazitakoan, patinera jariatzen den,
gozaturik; zeren pozoin kiratsuaren printzipioak gainean uzten baititu,
osagai latzak lurrari aisago atxikitzen zaizkiolako.

Hau guztiau erakutsi ondoren, honi dagokion eta honegatik
sinesgarri den egia bat lotzera noa, hots, gauzen lehenkiak forma
kopuru mugatuan aldatzen direla. Hau honela ez balitz, zenbait
hazik gorputz tamaina infinitua beharko luke bestetik. Zeren edo-
zein gorputzen txikitasun bat beraren barruan, formek ez baitauka-
te elkarren artean asko aldatzerik. Egizu, bada, lehen gorputzak hiru
zatirik txikienez osatzen direla, edo gehitu, nahi bada, beste batzuk;
gorputz bakarraren zati horiek guztiak, goian edo behean jarritz,
ezker-eskuin aldatuz, posizio guztietan probaturik, bakoitzak gor-
putz osoari zer itxura damaion ikus dezazunean, formak aldatzen
jarraitzekotan, beste zati batzuk gehitu beharra dago; hortik atera-
tzen da posizio bakoitzak halaber beste zati batzuk beharko dituela,
oraindik ere forma gehiago aldatu nahi baduzu. Beraz, formen uga-
ritasunari gorputzaren tamaina handiagoa dagokio. Ez dago, beraz,
pentsatzerik haziak forma infinituen arabera ezberdintzen direla,
batzuk tamaina izugarrikoak izanarazten ez badituzu, eta hau ez
dagoela onartzerik arestian argitu dizut. Zeren orduan oihal barba-
roak eta Melibearen purpura distiratsua, Tesaliako maskorren kolo-
rez ukitua, eta aire irrikorra darien indioilar aldrak bertan behera
baileutzake, gauza berrien koloreak gainditurik, eta mirra usainari
eta ezti zaporeari muzin egingo litzaioke, eta zisnearen kantua eta
Feboren lira doinu artesoak era berean azpiraturik isilduko lirateke.

Namque aliis aliud praestantius exoreretur.

Cedere item retro possent in deteriores
omnia sic partis, ut diximus in melioris.

Namque aliis aliud retro quoque taetrius esset
naribus auribus atque oculis orisque saporis.

Quae quoniam non sunt, <sed> rebus reddita certa
finis utrimque tenet summam, fateare necessest
materiem quoque finitis differre figuris.

Denique ab ignibus ad gelidas hiemum usque pruinas
finitumst retroque pari ratione remensumst.

Omnis enim calor ac frigus, mediique tepores
interutrasque iacent explentes ordine summam.

Ergo finita distant ratione creata,
ancipiti quoniam mucroni utrimque notantur,
hinc flammis illinc rigidis infesta pruinis.

Quod quoniam docui, pergam conectere rem quae
ex hoc apta fidem ducat, primordia rerum,

inter si simili quae sunt perfecta figura,
infinita cluere. Etenim distantia cum sit
formarum finita, necesse est quae similes sint
esse infinitas aut summam materiai

finitam constare, id quod non esse probavi
uersibus ostendens corpuscula materiai
ex infinito summam rerum usque tenere,
undique protelo plagarum continuato.

Nam quod rara uides magis esse animalia quaedam
fecundamque magis naturam cernis in illis,

at regione locoque alio terrisque remotis
multa licet genere esse in eo numerumque repleri;

sicut quadrupedum cum primis esse uidemus
in genere anguimanus elephantos, India quorum

milibus e multis uallo munitur eburno,
ut penitus nequeat penetrari: tanta ferarum

uis est, quarum no perpauca exempla uidemus.

Sed tamen id quoque uti concedam, quamlibet esto
unica res quaedam natiuo corpore sola,
cui similis toto terrarum non sit in orbi;

Beti sortuko bailitzateke besteak baino goragoko zerbait. Atzerantz, berriz, gauza guztiek okerrerantz egin ahalko lukete, hoherantz esan dugun bezala. Beti bailegoke besteak baino zerbait zatarragorik sudurarentzat, belarriarentzat, begiarentzat eta ahoko zapoarentzat. Honelakorik ez denez gero, gauzadiari batetik eta bestetik eusten dion muga jakin bat dagoela baizik, aitortu beharra dago materia forma mugatuena barruan aldatzen dela. Azkenik, sutik neguko antzizar izoztuetaraino bitarte mugatua dago, eta alderantziz ere berdina da. Zeren bero eta hotz guztia eta bitarteko epela bi muturren artean baitagoz, osotasun guztia betez. Beraz, sorkarien distantzia tarte mugatua da, bi muturren artean kokaturik baitagoz, batetik garrek eta bestetik izotz zakarrak jotzen dituela.

Hau guztiau erakutsi ondoren, honi dagokion eta honegatik sinesgarri den egia bat lotzera noa, hots, forma berdinez osaturik dagozen gauzen lehenkiak infinituak direla. Izan ere, formen distantzia finitua izanik, berdinak direnek infinituak izan behar dute, beste-la materia kopurua finitua bailitzateke, eta hori ez daitekeela frogatua dizut, bertsotan agertuz materiaren korpuskuluek gauzen baturari infinitutik eusten diotela, nondinahi etengabe samaldan etorriz. Zeren, animalia mota batzuk bakanago direla eta beste batzuetan, berriz, natura oparoago ageri dela badakusu ere, litekeena baita haiek, beste leku eta inguru batean, urruneko lurretan, oso ugariak izatea eta kopurua osatzea; lauhankakoen artean hau batez ere suge-eskudun elefantetan dakusgu, zeintzuetarik milaka buruk India zaintzen duen bere marfilezko hesiz, barrura ezin sartzeraino, halako piztiaren piztiaz; guk, berriz, ale bakanak ikusten ditugu.

Hala ere, gauza bat onartuko dizut. Demagun sortuen arteko zerbait bakarra dela eta lurbira guztian ez dagoela antzekorik; hala ere, hartatik sortu eta jaioarazteko materia kopuru finitua egon ezik,

infinita tamen nisi erit uis materiai
 unde ea progigni possit concepta, creati
 non poterit, neque, quod superest, procreare alique.
 Quippe etenim sumam hoc <quoque> uti finita per omne
 corpora iactari unius genitalia rei,
 unde ubi qua ui et quo pacto congressa coibunt
 materiae tanto in pelago turbaque aliena?
 Non, ut opinor, habent rationem conciliandi,
 sed quasi naufragiis magnis multisque coortis
 disiectare solet magnum mare transtra cauernas
 antemnas prorem malos tonsasque natantis,
 per terrarum omnis oras fluitantia aplustra
 ut uideantur et indicium mortalibus edant,
 infidi maris insidias uirisque dolumque
 ut uitare uelint, neue ullo tempore credant,
 subdola cum ridet placidi pellacia ponti,
 sic tibi si finita semel primordia quaedam
 constitues, aeuom debebunt sparsa per omnem
 disiectare aestus diuersi materiai,
 numquam in concilium ut possint compulsa coire
 nec remorari in concilio nec crescere adaucta;
 quorum utrumque palam fieri manifesta docet res,
 et res progigni et genitas procreare posse.
 Esse igitur genere in quouis primordia rerum
 infinita palam est unde omnia suppeditantur.

Nec superare queunt motus itaque exitiales
 perpetuo neque in aeternum sepelire salutem,
 nec porro rerum genitales auctificique
 motus perpetuo possunt seruire creati.
 Sic aequo geritur certamine principiorum
 ex infinito contractum tempore bellum.
 Nunc hic nunc illic superant uitalia rerum
 et superantur item. Miscetur funere uagor
 quem pueri tollunt uisentes luminis oras;
 nec nox ulla diem neque noctem aurora secutast
 quae non audierit mixtos uagitibus aegris
 ploratus mortis comites et funeris atri.

545

550

555

560

565

570

575

580

ezingo du kreatua izan ez, izanda ere, ezingo luke hazi eta elikatu.
 Izan ere, gauzadiaren barruan gauza bakar bat sortzeko gauza den gor-
 putz kopuru finituak diharduela emanik ere, nondik, non, zein inda-
 rrez eta nola elkar topaturik batuko dira hain materia pielago handian
 eta hain nahasmahas dibertsoan? Ez daukate, nik uste, batzeko modu-
 rik; ostera, naufragio asko eta larriak gertatzean bezala, non itsasotza-
 rrak jarlekuak, zuakerrak, antenak, brankak eta mastak barreiatzen eta
 arraunak igerian eta bandera flotatzaileak itsas bazter guztietara jaur-
 titzen dituen, haien ikustea hilkorren eskarmentu izan dadin eta hauek
 saia daitezen itsaso gaiztoaren amarruak, oldarra eta azpikeria ekidi-
 ten eta harekin inoiz ez fidatzen, ezta ur barean xarma engainakorrez
 irribarre egiten dienean ere, horrelaxe, lehenki batzuk finituak direla
 noizbait jotzen baduzu, materiaren gora-beheratzeek hara-hona jaurti-
 ko ditu eternalki, barreiatuak, inoiz ez daitezen bat egitera bultzatuak
 izan, ez batasun horretan irauterik, ez hazterik, ez gehitzerik izan ez
 dezaten; esperientziak argi erakusten du, ordea, biak gertatzen direla,
 badela, alegia, gorputzak sortzea eta sortuak haztea. Argi dago, beraz,
 edozein espezieetan lehenki infinituak dagozela, dena eurok hornitzen
 dutela.

Horregatik, indar galgarriek ezin dute erabat nagusitu ez bizia
 betiko ehortzi, eta indar gauzen sortzaile eta hazleek ere ezin dituzte
 sorkariak irauarazi. Horrela lehenkiek denbora infinitutik dakarten
 gerrak berdineko emaitzan dirau. Orain hemen, orain han, bizi inda-
 rrak nagusi dira eta gero menperatuak. Argi zelaira datozen haurren
 negarra hiletekin nahasten da; ez gaurik egunari, ez egunsentirik gaua-
 ri jarraitu izan zaio, heriotzaren lagun diren negar mingotsak eta hile-
 ta beltza haur negarrekin batera entzun ez dituenik.

Illud in his obsignatum quoque rebus habere
conuenit et memori mandatum mente tenere,
nil esse, in promptu quorum natura uidetur,
quod genere ex uno consistat principiorum,
nec quicquam quod non permixto semine constet;
et quodcumque magis uis multas possidet in se
atque potestates, ita plurima principiorum
in sese genera ac uarias docet esse figuras.
Principio tellus habet in se corpora prima
unde mare immensum uoluentes frigora fontes
assidue renouent, habet ignes unde oriantur.
Nam multis succensa locis ardent sola terrae,
ex imis uero furit ignibus impetus Aetnae.
Tum porro nitidas fruges arbustaque laeta
gentibus humanis habet unde extollere possit,
unde etiam fluuios frondes et pabula laeta
montiuago generi possit praebere ferarum.

Quare magna deum mater materque ferarum
et nostri genetrix haec dicta est corporis una.
Hanc ueteres Graium docti cecinere poetae
sedibus in curru biiugos agitare leones,
aeris in spatio magnam pendere docentes
tellurem neque posse in terra sistere terram.
Adiunxere feras, quia quamuis effera proles
officiis debet molliri uicta parentum.
Muralique caput summum cinxere corona,
eximiis munita locis quia sustinet urbes;
quo nunc insigni per magnas praedita terras
horrifice fertur diuinae matris imago.
Hanc uariae gentes antiquo more sacrorum
Idaeam uocitant matrem Phrygiasque cateruas
dant comites, quia primum ex illis finibus edunt
per terrarum orbem fruges coepisse creari.
Gallos attribuunt, quia, numen qui uiolarint
matris et ingrati genitoribus inuenti sint,
significare uolunt indignos esse putandos,
uiuam progeniem qui in oras luminis edant.

Honetan, egia bat zigilaturik eta gogoan ondo gorderik eduki-
tzea komeni da, hots, ikustekoak diren gauzetan, ez dagoela printzipio
mota bakarrez osatzen den ezer, hazien nahastetik harakoa ez den
ezer; eta zerbaitek zenbat eta indar eta ahalmen gehiago eduki, hain-
bat eta printzipio mota gehiago eta forma ezberdinagoak dauzkala
ageri du. Lehenik, lurrak baditu bere baitan lehen gorputzak, zein-
tzuekin iturriek, freskuraren zabaltzaileek, itsaso eskergea etengabe
berritzen duten, eta badu sua nondik sortu ere, zeren leku askotan lur
zoru gorria suak hartzen baitu eta Etnaren oldarrak urruma egiten
barrenengo garretatik. Badu baita giza jendearentzat nondik atera uzta
gardenak eta zuhaitz emankorrek, eta nondik ekoiztu ibaiak, hostoak
eta larre gozoak, piztia mendizaleen endarentzat. Horrexegatik eman
izan zaio lurrari hainbat izen handi, nola jainkoen ama, piztien ama
eta gure gorputzen sortzaile.

Grezia zaharreko poeta jakintsuek kantatu zuten ezen beronek,
bere tronutzako gurditik, lehoi pare uztartuari zeragiola, erakutsiz lur
haundia airearen espazioan eskegita dagoela eta lurra ez daitekeela
lurrean finka. Piztiak uztartu zituzten, basakume orok otzandu beha-
rra baitauka, gurasoen ongintzak menperaturik. Burua koroa muralez
inguratu zuten, lurrak hiriei gailurrik gorenaren babesean eusten diela-
ko; insignia honekin apaindurik, jainkotar amaren irudia lurralde
handietan zehar daramate, denen beldurgarri. Zenbait herritan, antzi-
nako eliz ohituren arabera, Idaren ama deitzen diote eta segiziotzat fri-
giar andanak ematen dizkiote, garigintza inguru haietatik zabaldu
omen baitzen lurbiran zehar. Geloak izendatzen dizkiote, erakutsi
nahirik ezen, amaren jainkotasuna iraindu dutenek eta gurasoentzat
esker txarreko agertu direnek ez dutela merezi seme-alaba bizirik
argitara eramaterik. Tinpano atezuak ahurrekin burrunbatzen dira eta
inguruan zinbalo konkaboak entzuten, adarrek hots erlatsez mehatxu

Tympana tenta tonant palmis et cymbala circum
 concaua, raucisonoque minantur cornua cantu,
 et Phrygio stimulat numero caua tibia mentis,
 620 telaque praeporant uiolenti signa furoris,
 ingratos animos atque impia pectora uolgi
 conterrere metu quae possint numine diuae.
 Ergo cum primum magnas inuecta per urbis
 625 munificat tacita mortalis muta salute,
 aere atque argento sternunt iter omne uiarum
 largifica stipe ditantes ninguntque rosarum
 floribus umbrantes matrem comitumque cateruas.
 Hic armata manus, Curetas nomine Grai
 quos memorant, Phrygias inter si forte cateruas
 630 ludunt in numerumque exultant sanguine laeti
 terrificas capitum quotientes numine cristas,
 Dictaeos referunt Curetas qui Iouis illum
 uagitum in Creta quondam occultasse feruntur,
 cum pueri circum puerum pernice chorea
 635 [armat et in numerum pernice chorea]
 armati in numerum pulsarent aeribus aera,
 ne Saturnus eum malis mandaret adeptus
 aeternumque daret matri sub pectore uolnus.
 Propterea magnam armati matrem comitantur,
 640 aut quia significant diuam praedicere ut armis
 ac uirtute uelint patriam defendere terram
 praesidioque parent decorique parentibus esse.
 Quae bene et eximie quamuis disposta ferantur,
 645 longe sunt tamen a uera ratione repulsa.

Omnis enim per se diuom natura necessest
 immortalis aeuo summa cum pace fruatur
 semota ab nostris rebus seiunctaque longe.
 Nam priuata dolore omni, priuata periclis,
 ipsa suis pollens opibus, nil indiga nostri,
 650 nec bene promeritis capitur neque tangitur ira.
 Terra quidem uero caret omni tempore sensu,
 et quia multarum potitur primordia rerum,
 multa modis multis effert in lumina solis.

dagite eta flauta hutsak frigiari erritmoz xaxatzen ditu gogoak, eta
 ezpatak astintzen dituzte, zoramen bortitzaren seinale, herriaren
 gogo eskergabe eta bular inpioei jainkosaren ahalaren beldurra sar-
 tzeke. Beraz, hiri handietan zehar daramatela, hilkorak agur mutuz
 isilki bedeinkatzen dituenean, ibilbide guztia brontzez eta zilarrez
 leuntzen diote, opari mardulez aberasturik, eta arrosen elurra jaurti-
 tzen dute, ama eta segizio andanak estaliz. Hemen talde armatu
 625 batek, grekoek Kuretak deitzen dietenek, frigiari andanen artean,
 odoleztaturik, dantzari eta jauzian erritmoz dihardutenean, gangor
 beldurgarriak buruetan astinduz, Dikteako Kuretak gogoratzen
 dituzte, zeintzuek behinola Jupiterren haur-negarrak Kretan ezkuta-
 tu omen zituzten, ume armatuek, jainko-haurren inguruan bizkor
 dantzatuz, brontzeak brontzeen kontra erritmoan jotzen zituztenean,
 Saturnok ez zezan hura atzeman eta hagineta xeha eta amaren
 bihotzari betiko zauria egin. Horrexegatik inguratzen dute armadu-
 nek ama handia, edo beharbada esan nahi dutelako jainkosak agin-
 tzen duela jaiot-lurra armaz eta kemenez defendatu behar dela eta
 635 gurasoei babes eta ohore egin behar zaiela. Hau dena, ordea, ondo
 eta bikain moldaturik egon arren, egiatik oso urrun dago. Jainko
 izate orok bere baitan bizitza hilezkorra gozatu behar baitu bakerik
 handienean, gure gauzetatik berex eta urrunera bazterturik. Zeren
 samin orotarik libre, arriskuetatik libre, bere ondasunetan aberats,
 640 gu ezertarako behar ez gaituela, ez mesedera makurtzen baita, ez
 suminak eragiten baitio. Lurrak, berriz, ez dauka egiazko sentime-
 nik denbora oroz eta, gauzen lehenki ugariz hornitua denez gero,
 hamaika moduz hamaika gauza jalgiazten du eguzkiaren argitara.

Hic siquis mare Neptunum Cereremque uocare
constituet fruges et Bacchi nomine abuti
mauolt quam laticis proprium proferre uocamen,
concedamus ut hic terrarum dictiet orbem
esse deum matrem, dum uera re tamen ipse
religione animum turpi contingere parcat.

Saepe itaque ex uno tondentes gramina campo
lanigerae pecudes et equorum duellica proles
buceriaeque greges equorum sub tegmine caeli
ex unoque sitim sedantes flumine aquai
dissimili uiuont specie retinetque parentum
naturam et mores generatim quaeque imitantur.
Tanta est in quouis genere herbae materiai
dissimilis ratio, tanta est in flumine quoque.
Hinc porro quamuis animantem ex omnibus unam
ossa cruor uenae calor umor uiscera nerui
constituunt; quae sunt porro distantia longe,
dissimili perfecta figura principiorum.
Tum porro quaecumque igni flammata cremantur,
si nil praeterea, tamen haec in corpore tradunt
unde ignem iacere et lumen submittere possint
scintillasque agere ac late differre fauillam.
Cetera consimili mentis ratione peragrans
inuenies igitur multarum semina rerum
corpora celare et uarias cohibere figuras.
Denique multa uides quibus et color et sapor una
reddita sunt cum odore. In primis pleraque poma;
haec igitur uariis debent constare figuris;
nidor enim penetrat qua fucus non it in artus,
fucus item sorsum, < sorsum > sapor insinuat
sensibus; ut noscas primis differre figuris.
Dissimiles igitur formae glomeramen in unum
conueniunt et res permixto semine constant.
Quin etiam passim nostris in uersibus ipsis
multa elementa uides multis communia uerbis,
cum tamen inter se uersus ac uerba necesse est
confiteare alia ex aliis constare elementis;

655

659

680

660

665

670

675

679

681

685

690

Hala ere, norbaitek itsasoari Neptuno eta laboreei Ceres deitzea pen-
tsatzen badu eta ardoa bere izen propioz baino Bako deituraz izenda-
tzea nahiago badu, utz diezaiogun lurbira jainkoen ama dela esaten,
errealitatean haren gogoia erlijio dorpez kutsatzetik zaintzen deno.

Honela, sarritan, artiledun aziendak eta zaldien eta abelgo-
rrien umeteria liskartsua, zeruaren magalpean, nahiz eta zelai bere-
ko belarra moztu eta ibai bereko urean egarria asetu, itxura ezberdi-
nez bizi dira, aita-amen izaerari jarraitzen diote eta bakoitzak bere
espeziean haien azturak imitatzen ditu. Hainbestekoa da materiaren
ezberdintasuna edozein belar motatan, hainbestekoa edozein ibaitan
ere. Horregatik hauetariko edozein animaliak ere hezurak, odola,
zainak, beroa, humorea, erraiak, nerbioak dauzka; hauek halaber
bata bestetik oso ezberdinak eta eite ezberdineko printzipioz osa-
tuak dira. Era berean, sua garretan isiotzen denean, besterik ez bada
ere, gutxienez badarama bere gorputzean zertatik sua jaurti eta argia
eragin eta zertatik txinpartak iraitzi eta hautsa urrun zabaldu.
Gainerako zer guztiak antzerako gogokeraz errepasaturik, aurkituko
duzu gorputzek gauza askoren haziak gordetzen dituztela eta forma
ezberdinak daukatela barruan. Azkenik, gauza asko aldi berean
kolore, zapore eta usaindu direla dakuskezu. Lehenik ia fruta guz-
tiak; hirurek, beraz, forma ezberdinekoak izan behar dute; zeren
usaina kolorea pasatzen ez den lekutik sartzen baita organoetan;
batetik usaina, bestetik kolorea sentiarazten da sentimenetan; hortik
ikus dezakezu lehen formetan ezberdinak direla. Beraz, forma
ezberdinak batura berean biltzen dira eta gauzak hazien nahastez
osatzen. Neure bertsootan eurotan ere hitz askori dagozkien hizkiak
ikusiko dituzu eta, hala ere, aitortu beharra dago bertsoak eta hitzak
elkarren ezberdinak direla eta osagai diferenteak daramatzatela.

non quo multa parum communis littera currat
aut nulla inter se duo sint ex omnibus isdem,
sed quia non uolgo paria omnibus omnia constant.
Sic aliis in rebus item communia multa
multarum rerum cum sint primordia, longe
dissimili tamen inter se consistere summa
possunt; ut merito ex aliis constare feratur
humanum genus et fruges arbustaque laeta.

Nec tamen omnimodis coneciti posse putandum est
omnia. Nam uolgo fieri portenta uideres,
semiferas hominum species existere et altos
interdum ramos eigni corpore uiuo,
multaque coneciti terrestria membra marinis,
tum flammam teatro spirantis ore Chimaeras
pascere naturam per terras omniparentis.
Quorum nil fieri manifestum est, omnia quando
seminibus certis certa genetrice creata
conseruare genus crescentia posse uidemus.
Scilicet id certa fieri ratione necessust.
Nam sua cuique cibus ex omnibus intus in artus
corpora discedunt conexaque conuenientis
efficiunt motus. At contra aliena uidemus
reicere in terras naturam, multaque caecis
corporibus fugiunt e corpore percita plagis,
quae neque coneciti quoquam potuere neque intus
uitalis motus consentire atque imitari.
Sed ne forte putes animalia sola teneri
legibus hisce, eadem ratio res terminat omnis.
Nam ueluti tota natura dissimiles sunt
inter se genitae res quaeque, ita quamque necesses
dissimili constare figura principiorum;
non quo multa parum simili sint praedita forma,
sed quia non uolgo paria omnibus omnia constant.
Semina cum porro distent, differre necessust
interualla uias conexus pondera plagas
concursum motus, quae non animalia solum
corpora seiungunt, sed terras ac mare totum

695

700

705

710

715

720

725

Ez hizki komunak gutxitan batzen direlako, edo hizki bereko hitz
bikoterik ez dagoelako, baizik gehienez denak ez direlako hizki ber-
dinez osatzen. Honelaxe beste gauza askotan ere, lehenki asko gauza
askoren komunak izan arren, osotasunean, ostera, elkarren oso ezber-
dinak izan daitezke; zuzen atera dezakegu, beraz, gizakiak eta labore-
ak eta zuhaitz zindoak genero ezberdinez eginak direla.

Ez da, hala ere, pentsatu behar lehenki guztiek edonola bat egin
dezaketela. Orduan munstroak eta espezie erdi-piztia erdi-gizakiak
edonon sortzen ikusiko baitzenuke, eta gorputz bizitik adar luzeak
jaiotzen, eta lehorreko gorputzadarrak itsasokoekin bat egiten, baita
aho izugarritik garra darien Kimerak ere izadia bazkatzen, oro-ama
den lurraren gainean. Argi dago honelako ezer ez dela gertatzen,
gauza guztiek, hazi jakinetatik eta ama jakinetik sorturik, haztean
euren generoari eusten diotela ikusten baitugu. Argi dago horrek lege
jakinengatik gertatu behar duela. Janari guztietatik, gorputz bakoitzak
berari dagozkionak bereizten eta organoetara zabaltzen baititu, han
bat eginik, behar diren mugidak eragiten dituztenak. Alderantziz,
berriz, ikusten dugu naturak gai arrotzak lurrera bihurtzen dituela eta
beste askok euren gorputz ikusgaitzez gure soinetik ihes egiten dute-
la, kolpeek eraginda, ezin izan baitzuten ezerekin elkartu, ez barruko
bizi-mugidekin bat egin ez imitatu. Baina ez uste animaliak bakarrik
dagozenik lege hauen mende, arrazoi berak mugatzen baititu gauza
guztiak. Zeren, sorkari guztiak izaera osoan elkarren ezberdin diren
bezala, beharrezko baita bakoitzak printzipio mota ezberdinak ukan
ditzan ere; ez forma berdinekoak gutxi direlako, baizik, oro har, denak
ez direlako denen berdinak. Eta haziak ezberdinak izanik, tarte, nora-
bide, lotura, pisu, talka, bat egite eta mugidek ere ezberdinak izan
behar dute, zeintzuek animalien gorputzak bereizten ez ezik, lehorrak

secernunt caelumque a terris omne retentant.
Nunc age dicta meo dulci quaesita labore
percipe, ne forte haec albis ex alba rearis
principiis esse, ante oculos quae candida cernis,
aut ea quae nigrant nigro de semine nata;
niue alium quemuis quae sunt imbuta colorem,
propterea gerere hunc credas, quod materiai
corpora consimili sint eius tincta colore.
Nullus enim color est omnino materiai
corporibus, neque par rebus neque denique dispar.
In quae corpora si nullus tibi forte uidetur
posse animi iniectus fieri, procul auius erras.
Nam cum caecigeni, solis qui lumina numquam
dispexere, tamen cognoscant corpora tactu
scire licet nostrae quoque menti corpora posse
uorti in notitiam nullo circumlita fuco.
Denique nos ipsi caecis quaecumque tenebris
tangimus, haud ullo sentimus tincta colore.
Quod quoniam uinco fieri, nunc esse docebo
ex ineunte aeuo nullo coniuncta colore.
Omnis enim color omnino mutatur in omnis;
quod facere haud ullo debent primordia pacto.
Immutabile enim quiddam superare necessest,
ne res ad nilum redigantur funditus omnes.
Nam quodcumque suis mutatum finibus exit,
continuo hoc mors est illius quod fuit ante.
Proinde colore caue contingas semina rerum,
ne tibi res redeant ad nilum funditus omnes.

Praeterea si nulla coloris principiis est
reddita natura et uariis sunt praedita formis,
e quibus omne genus gignunt uariantque colores
propterea, magni quod refert semina quaeque
cum quibus et quali positura contineantur
et quos inter se dent motus accipiantque,
perfacile extemplo rationem reddere possis
cur ea quae nigro fuerint paulo ante colore,
marmoreo fieri possint candore repente;

730

735

740

744

745

748

743

749

750

755

760

765

eta itsaso guztiak ere banatzen dituzten eta ortzi osoa lurretik ezberdintzen.

Orain eman arreta lantegi gozoan aurkitutako nire hitzei, ez dezazun pentsa begiekin dirdir ikusten dituzun zer zuriak printzipio zuridunak direla, edo beltzak hazi beltzetik datozela; edo beste edozein kolorez jantzita dagozenak ez uste materiaren gorputzak kolore berarekin tindatuak dagozelako direla. Materiaren gorputzetan ez baitago inolako kolorerik, gauzen antzekorik ez desantzekorik. Eta gorputz horietara gogoaren irismenik ez daitekeela izan uste baduzu, oso oker zagoz. Zeren, eguzkiaren argirik inoiz ikusi ez duten jaiotzazko itsuek gorputzak ukimenez ezagutzen badituzte, argi dago inolako kolorez inguraturik ez dagoen gorputzak ere gure gogoaren ezagutza bihur daitezkeela. Geuk ere azkenik, ilunpe itsuan zernahi ukitzen dugula, hura tindatzen duen kolorerik gabe sentitzen dugu.

Hau honelaxe dela sinestarazi dizudanez gero, orain erakutsiko dizut lehenkiek ez daukatela inolako kolorerik inoizdanik. Izan ere, edozein kolore beste edozein koloretara alda daiteke, eta hori inola ere ez dute lehenkiek egin behar. Nahitaezko baita zerbaitek aldagaitz irautea, gauza guztiak ezerez hutsera etor ez daitezen. Zeren zer bait, aldaturik, bere mugetatik irteten bada, honek berbertan baitakar lehen izanaren heriotza. Kontuz, beraz, gauzen haziei kolorea emateaz, gauza guztiak ez dakizkizun ezerez hutsera itzul.

Gainera, lehenkiei inolako koloretasunik eman ez bazaie, eta gauza mota guztiak sortzeko eta koloreztatzeko moduko forma ezberdinez horniturik badagoz, oso garrantzitsua baita hazi berak beste zeintzuekin eta zer ordenatan batzen diren eta elkarren artean zer mugida eragiten eta hartzen duten, orduan aisa eta berehala aurkituko duzu zergatik lehentxoago kolore beltza zeukatenek bat-batean marmolezko zuritasunera jo dezaketen; hala itsasoa, haize bortitzek bere lautadei eragiten dietenean, marmol distiratsuzko olatu zuri bihurtzen da. Esan zenezake, noski, ezen ohiki beltz ikusten duguna, bere materia nahasten denean eta bere printzipioen ordena aldatzen eta batzuk gehitzen edo kentzen zaizkionean, bat-batean distiratsu eta zuri ikusten dugula.

ut mare, cum magni commorunt aequora uenti,
uertitur in canos candenti marmore fluctus.
Dicere enim possis, nigrum quod saepe uidemus,
materies ubi permixta est illius et ordo
principiis mutatus et addita demptaque quaedam,
continuo id fieri ut candens uideatur et album.
Quod si caeruleis constarent aequora ponti
seminibus, nullo possent albescere pacto.
Nam quocumque modo perturbes caerulea quae sint,
numquam in marmoreum possunt migrare colorem.
Sin alio atque alio sunt semina tincta colore
quae maris efficiunt unum purumque nitorem,
ut saepe ex aliis formis uariisque figuris
efficitur quiddam quadratum unaque figura,
conueniebat, ut in quadrato cernimus esse
dissimiles formas, ita cernere in aequore ponti
aut alio in quouis uno puroque nitore
dissimilis longe inter se uariosque colores.
Praeterea nil officiant obstantque figurae
dissimiles quo quadratum minus omne sit extra;
at uarii rerum inpediunt prohibentque colores
quominus esse uno possit res tota nitore.
Tum porro quae ducit et inlicit ut tribuamus
principiis rerum nonnumquam causa colores,
occidit, ex albis quoniam non alba creantur,
nec quae nigra cluent de nigris sed uariis ex.
Quippe etenim multo procliuius exorientur
candida de nullo quam nigro nata colore
aut alio quouis qui contra pugnet et obstet.
Praeterea quoniam nequeunt sine luce colores
esse neque in lucem existunt primordia rerum,
scire licet quam sint nullo uelata colore.
Qualis enim caecis poterit color esse tenebris?
Lumine quin ipso mutatur propterea quod
recta aut obliqua percussus luce refulget;
pluma columbarum quo pacto in sole uidetur,
quae sita ceruices circum collumque coronat;
namque alias fit uti claro sit rubra pyropo,

770

775

780

785

790

795

800

Itsas lautadak hazi urdinez osatuak balira, ezingo lirateke inola zuritu. Zeren zer urdinei edonola eragiten diezula ere, inoiz ez daukate marmol kolorera aldatzerik. Edo, itsasoaren distira bakuna eta garbia egiten dutenak kolore ezberdinez tindaturik balegoz, sarritan forma ezberdinez eta figura anizkoitzez karratua bezalako figura bakarra egin ohi denez, komeniko litzateke, karratuan forma ezberdinak ikusten ditugun bezala, itsas zelaian edo beste edozein distira bakun eta garbian ere kolore elkarren oso ezberdinak eta askotarikoak hautematea. Gainera, figura ezberdinek ez dute ezeren kalterik edo trabarik egiten, gainalde osoa karratua izan dadin; askotariko koloreek, ostera, eragotzi eta galarazi egiten dute gauza batek osoan distira bakarra edukitzea.

Beraz, batzuetan gauzen lehenkiei koloreak esleitzera eroaten eta tentatzen gaituen kausa ezereztu egiten da, zer zurietatik zer ez-zuriak sortzen baitira, eta beltz ageri direnak ez baitatoz beltzetik, askotarik baizik. Eta, jakina, zuriak kolorebakotik askoz aisago sortuko dira, beltzetik edo beste zerbait kontrako eta okerrekotik baino.

Gainera, kolorerik ezin baita argi gabe izan eta gauzen lehenkiak ez baitira argira irteten, bistan da ez dagozela ezein kolorez jantziak. Zeren, ilunpe itsuan, zer kolore egon daiteke? Areago oraindik, aldatu egiten da, argiak aurrez ala alboz eman; honela usoaren lumak, garondo eta lepo inguruan koroa egiten dutenak, eguzkitan irisatu egiten dira; eta behin gorri jartzen da, piropo argi bat bezala, behin hala-

interdum quodam sensu fit uti uideatur
inter caeruleum uiridis miscere zmaragdus.
Caudaque pauonis, largo cum luce repleta est,
consimili mutat ratione obuersa colores;
qui quoniam quodam gignuntur luminis ictu,
scire licet, sine eo fieri non posse putandum est.
Et quoniam plagae quoddam genus excipit in se
pupula, cum sentire colorem dicitur album,
atque aliud porro, nigrum cum et cetera sentit,
nec refert ea quae tangas quo forte colore
praedita sint, uerum quali magis apta figura,
scire licet nil principiis opus esse colores,
sed uariis formis uariantes edere tactus.
Praeterea quoniam non certis certa figuris
est natura coloris et omnia principiorum
formamenta queunt in quouis esse nitore,
cur ea quae constant ex illis non pariter sunt
omne genus perfusa coloribus in genere omni?
Conueniebat enim coruos quoque saepe uolantis
ex albis album pinnis iactare colorem
et nigros fieri nigro de semine cynos
aut alio quouis uno uarioque colore.
Quin etiam quanto in partis res quaeque minutas
distrahitur magis, hoc magis est ut cernere possis
euanescere paulatim stinguique colorem;
ut fit ubi in paruas partis discerpitur austrum:
purpura poeniceusque color clarissimu multo,
filatim cum distractum est, disperditur omnis;
noscere ut hinc possis prius omnem efflare colorem
particulas quam discedant ad semina rerum.
Postremo quoniam non omnia corpora uocem
mittere concedis neque odorem, propterea fit
ut non omnibus attribuas sonitus et odores.
Sic oculis quoniam non omnia cernere quimus,
scire licet quaedam tam constare orba colore
quam sine odore ullo quaedam sontiuque remota,
nec minus haec animum cognoscere posse sagacem
quam quae sunt aliis rebus priuata notare.

805

810

815

820

825

830

835

840

ko uneetan urdinetik esmeralda berdera bitartean dirudi. Indioilarraren isatsa ere, halaber, argi ugariz betetzean, kolorez aldatzen da biratu ahala; eta koloreok argiaren eraginez sortzen badira, argi dago hura gabe ez daukatela agertzerik. Eta, kolore zuria nabari dugula esatean, begi-niniak halako talka mota bat hartzen baitu, eta bestelako bat, beltza-eta nabaritzean, eta ukitzeko, berriz, koloreak ez baitauka zerikusirik, nolako forma daukan baizik, argi dago lehenkiek ez dutela kolorerik behar eta ukiera ezberdinak forma ezberdinei dagozkiela.

Gainera, forma jakinei kolore jakinik ez baitagokie eta edozein koloretan lehenkien formakera guztiak egon baitaitezke, zergatik horiekin osatzen direnak ez dira kolore oroz berdin jantzirik aurkitzen, diren espeziekoak direla? Bidezko bailitzateke bele hegalariek batzuetan luma zurietatik kolore zuria igortzea eta hazi beltzetatik zisne beltzak edo beste edozein koloretakoak, bakunak zein anizkunak, etortzea.

Areago oraindik, gauza bat zenbat eta zati txikiagoetan xehatu, hainbatago ikusiko duzu kolorea apurka-apurka margultzen eta iraungitzen; purpura zati txikietan haustean gertatzen denez: purpura feniziarrik kolore bizikoena bada ere, hariz hari banatzean, dena galtzen da; hortik pentsa dezakezu partikulek kolore guztia askatzen dutela, gauzen hazi bilakatu aurretik.

Azkenik, gorputz guztiek ez dutela hotsik ez usainik igortzen onartzen baituzu, eta, beraz, denei soinurik eta usainik esleitzen ez baitiezu, horrelaxe, begiekin ere denak ezin baititugu hauteman, bistan da batzuk hain direla kolorgak, nola beste batzuk usain eta soinu gabeak, eta hala ere, gogo zoliak hauek ezagutzen ditu, beste tasunik gabeak ere bereizten dituenaz.

Sed ne forte putes solo spoliata colore
corpora prima manere, etiam secreta teporis
sunt ac frigoris omnino calidique uaporis,
et sonitu sterila et suco ieiuna feruntur,
nec iaciunt ullum proprium de corpore odorem.
Sicut amaracini blandum stactaeque liquorem
et nardi florem, nectar qui naribus halat,
cum facere instituas, cum primis quaerere par est,
quod licet ac possis reperire, inolentis oliui
naturam, nullam quae mittat naribus auram,
quam minime ut possit mixtos in corpore odores
concoctosque suo contractans perdere uiro,
propter eandem <rem> debent primordia rerum
non adhibere suum gignundis rebus odorem
nec sonitum, quoniam nil ab se mittere possunt,
nec simil ratione saporem denique quemquam
nec frigus neque item calidum tepidumque uaporem
cetera; quae cum ita sunt tamen ut mortalia constent,
molli lenta, fragosa putri, caua corpore raro,
omnia sint a principiis seiuncta necessest,
inmortalia si uolumus subiungere rebus
fundamenta quibus nitatur summa salutis;
ne tibi res redeant ad nilum funditus omnes.

Nunc ea quae sentire uidemus cumque necessest
ex insensilibus tamen omnia confiteare
principiis constare. Neque id manifesta refutant
nec contra pugnant, in promptu cognita quae sunt,
sed magis ipsa manu ducunt et credere cogunt
ex insensilibus, quod dico, animalia gigni.
Quippe uidere licet uiuos existere uermes
stercore de taetro, putorem cum sibi nacta est
intempestiuis ex imbribus umida tellus;
praeterea cunctas itidem res uertere sese.
Vertunt se fluuii in frondes et pabulla laeta
in pecudes, uertunt pecudes in corpora nostra
naturam, et nostro de corpore saepe ferarum
augescunt uires et corpora pennipotentum.

845

850

855

860

865

870

875

Ez pentsa, ostera, lehen gorputzek kolorea bakarrik falta dute-
la; ez daukate ez epelik, ez hotzik, ez berorik, eta soinu agor eta
zaparez barau dihardute eta ez dute inolako usain propiorik igortzen
gorputzetik. Mendaro edo mirra esentzia gozoa edo sudurrentzat nek-
tarra den akara lurrina egitera zoazenean, lehenen behar duzuna ahal
den oliba oliorik usaingabeena, sudurrei inolako jariorik igorriko ez
diena, den bezala, egoskeran usain nahastuak lorrin eta honda ez
ditzan, halaxe, arrazoi beragatik, gauzen lehenkiek ez diete sortzera
doazen gauzei ez usainik ez hots propiorik erantsi, euren baitatik ezin
baitute ezer igorri, ezta halaber inolako zaporerik, ez hotzik, ez bero-
rik, ez epelik, ez ezer; eta zer guztiok hilkorrek direnez gero, gai mal-
guak bigun, hauskorrek xehagarri eta arolak gorputz xumeko baitira,
denek lehenkietatik at behar dute, gauzak izadiaren bizia finkatzeko
moduko oinarri hilezkorretan zutabetu nahi baditugu; bestela gauza
guztiak ezerez garbira itzul ez dakizkizun.

Honetan, sentikor ikusten ditugun izakiak ere, denak lehenki
sentikaitzez osatzen direla aitortu beharra dago. Eta hau ez dute
errefutatzen ez ezeztatzen berbertatik ezagutzen diren gertakari
nabariak, aitzitik euren eskutik eroaten eta pentsarazten digute bizi-
dunak, diodanez, zer sentiezarrietatik harakoak direla. Izan ere,
simaur higuinarririk har bizidunak sortzen ikusten da, euri larregiz
beraturiko lurra usteltzen denean; eta gauza guztiak horrelaxe eral-
datzen. Ibaiak hostotza eta larre gozoak abere bihurtzen dira, abere-
ek euren izatea gure gorputzera pasatzen dute eta sarritan piztien
indarra eta hego-handien gorputza gure gorputzetik handitzen dira.

Ergo omnis natura cibos in corpora uiua
uertit et hinc sensus animantum procreat omnis,
non alia longe ratione atque arida ligna
explicat in flammis et <in> ignis omnia uersat.
Iamne uides igitur magni primordia rerum
referre in quali sint ordine quaeque locata
et commixta quibus dent motus accipiantque?

880

Tum porro quid id est, animum quod percutit, ipsum
quod mouet et uarios sensus expromere cogit,
ex insensilibus ne credas sensibile gigni?
Nimirum lapides et ligna et terra quod una
mixta tamen nequeunt uitalem reddere sensum.
Illud in his igitur rebus meminisse decebit.
non ex omnibus omnino, quaecumque creant res
sensilia, extemplo me gigni dicere sensus,
sed magni referre ea primum quantula constent,
sensibile quae faciunt, et qua sint praedita forma,
motibus ordinibus posituris denique quae sint.
Quarum nil rerum in lignis glaebisque uidemus;
et tamen haec, cum sunt quasi putrefacta per imbres,
uermiculos pariunt, quia corpora materiai
antiquis ex ordinibus permota noua re
conciliantur ita ut debent animalia gigni.
Deinde ex sensilibus qui sensibile posse creari
constituunt porro ex aliis sentire sueti,

885

890

895

900

905

910

* * *
mollia cum faciunt. Nam sensus iungitur omnis
uisceribus neruis uenis, quaecumque uidemus
mollia mortali consistere corpore creta.
Sed tamen esto iam posse haec aeterna manere:
nempe tamen debent aut sensum partis habere
aut similis totis animalibus esse putari.
At nequeant per se partes sentire necesse est;
namque alios sensus membrorum respicit omnis,
nec manus a nobis potis est secreta neque ulla
corporis omnino sensum pars sola tenere.
Linquitur ut totis animantibus adsimulentur.

Naturak, beraz, janari guztiak gorputz bizi bihurtzen ditu eta hemen-
dik sortzen du bizidunen sentimen guztia, egun idorra garretan ireki-
tzen eta gauza guztiak su bihurtzen dituen antzera. Ulertzen al duzu
dagoeneko zein axolazkoa den gauzen lehenkiak zer ordenatan koka-
turik dagozen eta zeintzuekin nahasturik sortzen eta hartzen dituzten
mugimenduak?

Hauek honela, zer da zure gogoia zauritzen, zirraratzen eta
askotariko gogoetak azalarazten dizkiona, sentiezgarririk sentigarria
sortzen dela ez sinesteko? Harriek eta zurak eta lurrak, nahasturik ere,
bizi sentimenik sortu ezin dutelako, noski. Honetan, gogoratzea
komeniko da ez diodala izaki sentigarriak sortzen dituzten gauza guz-
tiek beste gabe eta beti sentimena dakartenik, baizik garrantzi handi-
koa dela zer sentigarriaren sortzaileak zein txikiak diren eta nolako
taxua daukaten eta, azkenik, haien mugidak, ordenak, posizioak nola-
koak diren. Hauetariko ezer ez dugu zurean eta zokiletan ikusten; eta,
hala ere, euriak ustelarazten dituean, harrez erditzen dira, zeren
materiaren gorputzak, indar berri batek lehengo ordenatik mugiarazi-
ta, izaki bizidunak sortu behar izateko moduan elkartzen baitira.

Gainera, sentigarria sentigarritik bakarrik sor daitekeela diote-
nek, [[beste gai sentigarri batzuetatik sentitzen]] ohiturik, [[lehenkien
izaera hilkortzat jotzen dute]], bigunak direla emanik. Sentimen oro
erraiei, nerbioei eta zainei loturik baitago, beti bigun eta gorputz hil-
korrez ikusten ditugun organoak eurok. Demagun, ordea, hauek eter-
nalki iraun dezaketela: hala ere, edo organo baten sentimena eduki
behar dute edo animalia osoen berdinak direla pentsatu behar. Baina

Sic itidem quae sentimus sentire necessest,
uitali ut possint consentire undique sensu.
Qui poterunt igitur rerum primordia dici
et leti uitare uias, animalia cum sint,
atque animalia <sint> mortalibus una eademque?
Quod tamen ut possint, at coetu concilioque
nil facient praeter uolgum turbamque animantum,
scilicet ut nequeant homines armenta feraeque
inter sese ullam rem gignere conueniundo.
Quod si forte suum dimittunt corpore sensum
atque alium capiunt, quid opus fuit adtribui id quod
detrahitur? Tum praeterea, quo fugimus ante,
quatenus in pullos animalis uertier oua
cernimus alituum uermisque efferuere terram
intempestiuos quom putor cepit ob imbris,
scire licet gigni posse ex non sensibu sensus.
Quod si forte aliquis dicet dumtaxat oriri
posse ex non sensu sensum mutabilitate,
aut aliquo tamquam partu quo proditur extra,
huic satis illud erit planum facere atque probare
non fieri partum nisi concilio ante coacto,
nec quicquam commutari sine conciliatu.
Principio nequeunt ullius corporis esse
sensus ante ipsam genitam naturam animantis,
nimirum quia materies disiecta tenetur
aere fluminibus terris terraque creatis,
nec congressa modo uitalis conuenientes
contulit inter se motus, quibus omnituentes
accensi sensus animantem quamque tuentur.
Praeterea quamuis animantem grandior ictus,
quam patitur natura, repente adfligit et omnis
corporis atque animi pergit confundere sensus.
Dissoluuntur enim positurae principiorum
et penitus motus uitales impediuntur,
donec materies, omnis concussa per artus,
uitalis animae nodos a corpore soluit
dispersamque foras per caulas eiecit omnis.
Nam quid praeterea facere ictum posse reamur

923
915

920

924

925

930

935

940

945

950

organoek ezin dute euren kabuz sentimenik eduki; zeren lohadarren sentimen oro beste sentimen batzuei begira baitago, eta ez gorputzetik moztutako eskuak, ez beste ezein organok dezake bakarrean sentimenik eduki. Bizidun osoari asimilatuak izatea gelditzen da. Honela, geuk sentitzen duguna sentitu behar dute, bizi-sentimen osoan sentikide izateko. Nola daitezke, ostera, gauzen lehenkiak deituak izan eta heriotz bideak ekidin, bizidunak badira, eta bizidunak eta hilkorak gauza bat eta bera badira? Badaitezkeela emanik ere, pilatzeak eta elkartzeak bizidunen multzo nahasi bat besterik ez lezarke, gizakiak, abereak eta piztiak elkarrekin nahasteak izaki berririk sortuko ez lukeen bezala. Zeren, beste sentimen bat hartzeko, euren gorputzetik jaurtitzen badute, zertarako behar zitzairen gero kentzekoa eman? Lehengora jotzea geratzen zaigu, alegia, hegaztien arraultzak txito bizidun bihurtzen eta lurra, eurite handiak usteltzen duenean, harrez irakiten ikusten dugunez gero, sentimena ez-sentimentetik sor daitekeela atera behar da.

Inork badio sentimena aldakortasunez edo kanpora irtenarazten duen erditze gisako batez bakarrik sor daitekeela ez-sentimentetik, aski izango zaio argitzea eta frogatzea erditzerik ez dagoela, aurretik elkartze bat burutu ezik, eta ezer ez dela aldatzen aurreko elkartzerik gabe.

Lehenik, ezein gorputzetan ez daiteke sentimenik izan, biziduna bera sortua izan aurretik, eta ez da harritzekoa, zeren airean, ibaie-tan, lurretan eta lurreko gaietan barreiatuak baitago, eta oraindik ez baita batu, zatien arteko bizi mugida egokiak eragiteko, zeintzuekin pizturik, sentimenak bizidun guztien jagole oroikusle diren.

Gainera, animalari izaerak eusteko baino kolpe handiagoa datorkionean, honek berbertan eraisten du eta gorputzaren eta arimaren sentimen guztiak nahaspilatzen dizkio. Izan ere, lehenkien posizioak disolbatzen baitira, eta barru-barruan bizi mugidak eten, harik eta materiak, gorputzadar guztiak astindurik, arimaren bizi korapiloak gorputzetik askatu eta hura, zatikaturik, zirritu guztietatik kanpora jaurti arte.

oblatum, nisi discutere ac dissoluere quaeque?
Fit quoque uti soleant minus oblato acriter ictu
reliqui motus uitales uincere saepe,
uincere, et ingentis plagae sedare tumultus
inque suos quicquid rursus reuocare meatus
et quasi iam leti dominantem in copore motum
discutere ac paene amissos accendere sensus.
Nam quare potius leti iam limine ab ipso
ad uitam possint conlecta mente reuerti,
quam quo decursum prope iam siet ire et abire?

Praeterea quoniam dolor est ubi materiai
copora ui quadam per uiscera uiua per artus
sollicitata suis trepidant in sedibus intus,
inque locum quando remigrant, fit blanda uoluptas,
scire licet nullo primordia posse dolore
temptari nullamque uoluptatem capere ex se;
quandoquidem non sunt ex ullis principiorum
corporibus, quorum motus nouitate laborent
aut aliquem fructum capiant dulcedinis almae.
Haut igitur debent esse ullo praedita sensu.
Denique uti possint sentire animalia quaeque,
principiis si iam est sensus tribuendus eorum,
quid, genus humanum propritim de quibus auctumst?
Scilicet et risu tremulo concussa cachinnant
et lacrimis spargunt rorantibus ora genasque
multaque de rerum mixtura dicere callent
et sibi propono quae sint primordia quaerunt;
quandoquidem totis mortalibus adsimulata
ipsa quoque ex aliis debent constare elementis,
inde alia ex aliis, nusquam consistere ut ausis:
quippe sequar, quodcumque loqui ridereque dices
et sapere, ex aliis eadem haec facientibus ut sit.
Quod si delira haec furiosaque cernimus esse,
et ridere potest non ex ridentibus auctus
et sapere et doctis rationem reddere dictis
non ex seminibus sapientibus atque disertis,
qui minus esse queant ea quae sentire uidemus

Ezarritako kolpeak zer besterik egin dezakeela pentsatuko dugu, bada,
zerbait xehatu eta disolbatu baino?

955

Baita gertatu ohi da ezen, hartutako kolpea hain gogorra ez
bada, beste bizi mugidak garaile irteten eta zartakoaren nahas-mahas
izugarria baretu egiten dutela eta, elementu bakoitza berriro bere bide-
ra ekarririk, gorputzaz jabetzear zegoen heriotza mugida ezereztu eta
sentimen ia iraungiak isiotu egiten dituztela. Zeren, bestela, nola litez-
ke heriotzaren atalburutik bertatik gogo bil eta bizira itzul, ia iritsita-
ko mugarantz jarraitu eta alde egin beharrean?

960

Gainera, materiaren gorputzak, errai bizietan eta gorputzada-
rretan indarren batek inarrosita, euren egoitza barruetan lokatzen dire-
nean, mina agertzen eta, berriro lekurtzean, atsegin beratza sortzen
den bezala, hortik ateratzen dugu lehenkiek ezin dutela minik hartu,
ez eurenez inolako gozamenik jaso; mugimenduen aldakuntzaz min
emateko, edo haietatik atsegin bizigarritzko fruiturik biltzeko moduko
lehen gorputzik ez daukatelako. Ezin dute, beraz, inolako sentimenez
horniturik egon.

965

970

Honela, bada, bizidun orok sentitu ahal izateko, euron lehen-
kiei sentimena esleitu behar bazaie, zer esan behar da gizateria bere-
ziki osatzen dutenei buruz? Alegia, barre algara gangarretan lehertu-
ko dira eta aurpegi eta matrailak malko ihintzez blaituko dituzte eta
luze eta zorrotz mintzatuko dira gauzen nahasketaz eta lehenkiak zer
ote diren ekingo diote; gizaki osoen antz-antzeko izanik, eurek ere
beste elementu batzuekin osaturik behar dute eta hauek beste batzue-
kin, inoiz geratzen ausartzen ez zarela. Jarraituko dizut, bada, eta zer-
nahik hitz eta barre eta ulertu egiten duela badiozu, beste hainbeste
egiteko gauza direnekin osaturik dagoela aterako dut. Ikusten badugu,
ostera, hauek delirioak eta zorakeriak direla eta zer barregilez osatu-
rik ez dagoenak barre egin dezakeela, eta hazi jakitunik eta aditurik
gabe arrazoiak hitz burutsuz ematen dituela, zerk galerazten du senti-

975

980

985

seminibus permixta carentibus undique sensu?
Denique caelesti sumus omnes semine oriundi;
omnibus ille idem pater est, unde alma liquentis
umoris guttas mater cum terra recepit,
feta parit nitidas fruges arbustaque laeta
et genus humanum, parit omnia saecla ferarum,
pabula cum praebet quibus omnes corpora pascunt
et dulcem ducunt uitam prolemque propagant;
quapropter merito maternum nomen adepta est.
Cedit item retro, de terra quod fuit ante,
in terras, et quod missumst ex aetheris oris,
id rursus caeli rellatum templa receptant.
Nec sic interemit mors res ut materiai
corpora conficiat, sed coetum dissipat ollis,
inde aliis aliud coniungit et efficit omnes
res ita conuertant formas mutantque colores
et capiant sensus et puncto tempore reddant,
ut noscas referre eadem primordia rerum
cum quibus et quali positura contineantur
et quos inter se dent motus accipiantque,
neue putes aeterna penes residere potesse
corpora prima quod in summis fluitare uidemus
rebus et interdum nasci subitoque perire.
Quin etiam refert nostris in uersibus ipsis
cum quibus et quali sint ordine quaeque locata.
Namque eadem caelum mare terras flumina solem
significant, eadem fruges arbusta animantis;
si non omnia sunt, at multo maxima pars est
consimilis; uerum positura discrepant res.
Sic ipsis in rebus item iam materiai
[interualla uias conexus pondera plagas]
concursum motus ordo positura figurae
cum permutantur, mutari res quoque debent.

Nunc animum nobis adhibe ueram ad rationem.
Nam tibi uementer noua res molitur ad auris
accedere et noua se species ostendere rerum.

990

995

1000

1005

1010

1015

1020

1025

mendun ikusten ditugun izakiak erabat sentimen gabeko haziekin nahasturik egotea?

Zerutar hazitik honakoak gara, bada, guztiok; zerua da guztion aita eta ama lur elikatzailea, handik isuritako ur tantak hartzean ernaldia, uzta gardenez, zuhaitz mardulez eta gizakumez erditzen da, piztien enda guztiez erditzen da, denei eskuratzen baitie gorputzak bazkatzeko, bizitza ezta luzatzeko eta umeak zabaltzeko azkurria; horrexegatik ematen zaio ama izen merezia. Era berean, lehenago lurretik irten zena lurrera itzultzen da eta eter inguruetatik bidali zutena berriro tenplu zerutarrek hartzen dute. Eta honela heriotzak ez ditu gauzak suntsitzen, materiaren gorputzak deusezteraino, euren batasuna jaregiten baizik, eta gero batzuk besteekin biltzen ditu eta hala egiten du gauza guztiek formak berri eta koloreak alda ditzaten, eta sentimena har eta amenean berriz gal dezaten, ikus dezazun zein garrantzitsua den gauzen lehenki berak zeintzuekin eta zer ordenatan batzen diren eta elkarren artean nolako mugidak eragiten eta hartzen dituzten, ez dezazun pentsa gauzen goienean flotatzen ikusten ditugun tasunak lehen gorputz eternaletan bizi direla, behin jairoz eta behin bertan hilez. Geure bertsootan ere garrantzi handikoa da hizkiak zeintzuekin eta zer ordenatan ezartzen diren. Izan ere, berberak adierazten dute zerua, itsasoa, lehorra, ibaiak, eguzkia, uzta berak, zuhaitzak, animaliak; denak ez bada ere, gehien-gehienak antzekoak dira; hizkien posizioan dago aldea. Horrela gauza beretan, materiaren [[bilerak, bideak, loturak, pisuak, kolpeak]] bilerak, mugidak, ordena, figuren posizioak aldatzen direnean, gauzek eurek ere aldatu behar dute.

Orain jar gogoia arrazoiketa zuzen batera. Zeren beste egia bat zure belarrietara iristeko irrikaz baitago eta gauzen beste itxura bat

Sed neque tam facilis res ulla est quin ea primum
difficilis magis ad credendum constet, itemque
nil adeo magnum neque tam mirabile quicquam
quod non paulatim minuant mirarier omnes.
Principio caeli clarum purumque colorem,
quaeque in se cohibet, palantia sidera passim,
lunamque et solis praeclara luce nitorem;
omnia quae nunc si primum mortalibus essent,
ex improviso si sint obiecta repente,
quid magis his rebus poterat mirabile dici
aut minus ante quod auderent fore credere gentes?
Nil, ut opinor: ita haec species miranda fuisset.
Quam tibi iam nemo, fessus satiate uidendi,
susplicere in caeli dignatur lucida templa!
Desine quapropter nouitate exterritus ipsa
expuere ex animo rationem, sed magis acri
iudicio perpende et, si tibi uera uidentur,
dede manus, aut, si falsum est, accingere contra.
Quaerit enim rationem animus, cum summa loci sit
infinita foris haec extra moenia mundi,
quid sit ibi porro quo prospicere usque uelit mens
atque animi iactus liber quo peruolet ipse.

Principio nobis in cunetas undique partis
et latere ex utroque <supra> subterque per omne
nulla est finis; uti docui, res ipsaque per se
uociferatur, et elucet natura profundi.
Nullo iam pacto ueri simile esse putandumst,
undique cum uorsum spatium uacet infinitum
seminaque innumero numero summaque profunda
multimodis uolitent aeterno percita motu,
hunc unum terrarum orbem caelumque creatum,
nil agere illa foris tot corpora materiai;
cum praesertim hic sit natura factus, et ipsa
sponte sua forte offensando semina rerum
multimodis temere incassum frustra que coacta
tandem coluerunt ea quae coniecta repente
magnarum rerum fierent exordia semper,

1030

1035

1040

1045

1050

1055

1060

agertuko baitzaizu. Baina ez dago egia hain errazik, lehenengotan
sinesgaitz ez dirudienik, ez era berean ezer hain handi eta miragarri-
rik, denek astiro-astiro miresteari utziko ez diotenik. Lehenik, zerua-
ren kolore argia eta garbia eta bere barruan gordetzen dena, argizagi
hara-honakoak, ilargia eta eguzkiaren argitasun biziko distira; hau
guztiau bat-batean eta ezustean hilkorrei lehenengoz aurkeztuko bali-
tzaie, zer miragarriagorik aipa liteke, edo zer sinesten lirateke giza-
kiak gutxiago ausartuko? Ezer ere ez, nik uste: hain txundigarria litza-
teke ikuskizuna. Orain, ostera, begira nola, ikusiaren asez nekaturik,
inor ez den dignatzen zeru sapaia gardenera begiratzen! Utziozu, beraz,
berritasunak beldurturik, nire ikasbidea zure gogotik uxatzeari, aitzit-
tik, ordea, azter ezazu zentzun zorrotzagoz eta, egiazko iruditzen
bazaizu, atxiki zakizkio, eta gezurrezkoa bada, jantz armak aurka.
Izan ere, munduko harresiez harago espazioa infinitua izanik, gogoak
galdera hauxe dakar: zer ote dago adimenak barnebegiratu nahi luke-
en eta gogoaren bulkada askeak gain-hegatzen duen hartan?

Lehenengo eta behin, guretzat unibertsoan ez dago mugarik
inorantz, ez ezker ez eskuin, ez gorantz ez beheantz; irakatsi nizu-
nez, errealitateak berak berez aldarrikatzen eta leizearen izaerak
argi uzten du. Inondik ere ez dela sinesgarri pentsatu behar da,
beraz, baldin espazioa edonorantz infinitua bada eta haziak, kopu-
ru neurrigabez eta hamaika eratarata, unibertso leizetarrean mugi-
mendu eternalak eraginda hegatzten badira, zeru eta lurbira baka-
rrak kreatuak izatea eta horietatik at materiaren hainbeste gorputz
ezer egin gabe egotea; batez ere mundu hau berezko egintza izanik;
hala gauzen haziak eurek, berez eta ausaz elkar joka, hamaika era-
tara kasualki, alperrik eta hutsalki elkartu ondoren, azkenik
batzuek asmatu zuten bat egitea, gorputz handiok bat-batean beti-
ko sortarazteko, lehorra, itsasoa, ortzia eta bizidunen enda alegia.

terrai maris et caeli generisque animantium.
Quare etiam atque etiam talis fateare necesse est
esse alios alibi congressus materiai,
qualis hic est, auido complexu quem tenet aether.

Praeterea cum materies est multa parata,
cum locus est praesto nec res causa moratur
ulla, geri debent nimirum et confieri res.
Nunc et seminibus si tanta est copia quantam
enumerare aetas animantium non queat omnis,
quis eadem natura manet quae semina rerum
conicere in loca quaeque queat simili ratione
atque huc sunt coniecta, necesse est confiteare
esse alios aliis terrarum in partibus orbis
et uarias hominum gentis et saecla ferarum.
Huc accedit ut in summa res nulla sit una,
unica quae gignatur et unica solaque crescat,
quin aliquoiii siet saeculi permultaque eodem
sint genere. In primis animalibus inice mentem;
inuenies sic montiuagum genus esse ferarum,
sic hominum geminam prolem, sic denique mutas
squamigerum pecudes et corpora cuncta uolantum.
Quapropter caelum simili ratione fatendumst
terramque et solem lunam mare, cetera quae sunt,
non esse unica, sed numero magis innumerari;
quandoquidem uitae depactus terminus alte
tam manet haec et tam natiuo corpore constant,
quam genus omne quod his generatimst rebus abundans.

Quae bene cognita si teneas, natura uidetur
libera continuo dominis priuata superbis
ipsa sua per se sponte omnia dis agere experts.
Nam pro sancta deum tranquilla pectora pace
quae placidum degunt aeuom uitamque serenam,
quis regere immensi summam, quis habere profundi
indu manu ualidas potis est moderantes habenas
quis pariter caelos omnis conuertere et omnis
ignibus aetheriis terras suffire feracis,
omnibus inue locis esse omni tempore praesto,

1065

1070

1075

1080

1085

1090

1095

Behin eta berriz aitortu beharra dago, beraz, beste leku batzuetan ere badirela mundu honen antzeko materia topaketak, eterrak besarkada egarberan inguratzen dituenak.

Gainera, materia ugari prest eta nahi beste leku dagoela, eta ezerein arrazoik ez kausak kontra egiten ez duela, argi dago gauzek sortu eta garatu egin behar dutela. Beraz, hazien kopurua bizidunek bizitza osoan ez zenbatzeko bestekoa bada, eta haziak nonahi elkartzeko izaera berberak badirau, gure munduan elkartu zituen antzera, aitortu beharra dago beste leku batzuetan ere badagozela lurbirak eta gizajende eta piztieria ezberdinak.

Gehi bekio honi unibertsoan ezerein izaki ez dela bakarra, bat ere ez da bakar jaiotzen eta bat eta bakar hazten, denak baitira multzoren bateko eta asko espezie bereko. Begira lehen-lehenik animaliei; horrelaxe sortuak direla ikusiko duzu basapiztia mendikoiak, horrelaxe gizateria eta horrelaxe, azkenik, ezkatadun isilak eta hegalaria mota guztiak. Arrazoi berdinatik aitortu beharra dago, beraz, lurra eta eguzkia, ilargia, itsasoa eta diren enparau guztiak ez direla bakarrak, kopuru neurrigabekoak baizik; zeren biziaren xedarrak sakonki sartua euren zain baitago eta haien gorputza ere jaioa izan baita, espezie bakoitzean hain ugari ditugun aleen modu-moduan.

Hau dena ondo ulertu baduzu, natura bat-batean aske ageriko zaizu, tirano harroetatik libre, bere kabuz eta berez jardunez, jainkoen eskurik gabe. Zeren, bake nasaian izate gozatsua eta bizitza barea daramaten jainkoen izpiritu gurenen aurrez, nork dezake neurrigabearen batura goberna, nork leizearen uhal bortitzak eskura eta gida, nork zeru guztiak batera biraraz eta lur jori guztiak eter-suekin bero, nor daiteke leku eta aldi guztietan present egon, hodeiekin ilunpeak egite-

nubibus ut tenebras faciat caelique serena
concutiat sonitu, tum fulmina mittat et aedis
saepe suas disturbet et in deserta recedens
saeuiat exercens telum quod saepe nocentes
praeterit exanimatque indignos inque merentes?

Multaque post mundi tempus genitale diemque
primigenum maris et terrae solisque coortum
addita corpora sunt extrinsecus, addita circum
semina quae magnum iaculando contulit omne;
unde mare et terrae possent augescere et unde
appareret spatium caeli domus altaque tecta
tolleret a terris procul et consurgeret aer.
Nam sua cuique locis ex omnibus omnia plagis
corpora distribuuntur et ad sua saecla recedunt,
umor ad umorem, terreno corpore terra
crescit et ignem ignes procidunt aetheraque <aether>,
donique ad extremum crescendi perfica finem
omnia perduxit rerum natura creatrix;
ut fit ubi nilo iam plus est quod datur intra
uitalis uenas quam quod fluit atque recedit.
Omnibus hic aetas debet consistere rebus,
hic natura suis refrenat uiribus auctum.
Nam quaecumque uides hilario grandescere adauctu
paulatimque gradus aetatis scandere adultae,
plura sibi adsumunt quam de se corpora mittunt,
dum facile in uenas cibus omnis inditur et dum
non ita sunt late dispessa ut multa remittant
et plus dispendi faciant quam uiescitur aetas.
Nam certe fluere atque recedere corpora rebus
multa manus dandum est; sed plura accedere debent,
donec alescendi summum tetigere cacumen.
Inde minutatim uiris et robor adultum
frangit et in partem peiorem liquitur aetas.
Quippe etenim quanto est res amplior, augmine adempto,
et quo latior est, in cunctas undique partis
plura modo dispargit et a se corpora mittit,
nec facile in uenas cibus omnis diditur ei

1100

1105

1110

1115

1120

1125

1130

1135

ko eta zeruko jabaldiak arrabotsez danbatzeko, edo jainkoen etxeak eraisterainoko tximistak jaurtitzeko eta, basamortura bazterturik, sarritan errudunei albo egin eta errugabeak bidegabeki akabatzen dituen gezi hori astinduz sumintzeko?

Eta munduaren sor-denboraren eta itsas-lehorren lehen eguna-
ren eta eguzkiaren jaiotzaren ondoren, kanpotik gorputz asko gehitu
zen, inguruan haziak gehitu ziren, orotasun handiak jaurtika ekarriak,
haiekin itsas-lehorrak haz zitezzen eta zeru eraikina zabal zedin eta
sapai garaia lurretik urrun jaso eta airea altxa. Zeren, talken eraginez,
gorputz guztiak leku guztietatik banatzen baitira, eta bakoitzak bere
endara jotzen, urak urera, lurra lurkitik hazten da, suek sua dagite eta
eterrak eterra, natura gauzen sortzaileak, bere egitekoa amaiturik, dena
hazkundearen burura eraman arte, bizi organoetan sartzen dena euro-
tatic dariona eta doana baino ezertan gehiago ez denean gertatzen
denez. Hemen gauza guztien biziak geratu egin behar du, hemen natu-
rak bere indarrez hazkundera galgatu egiten du. Zeren hazte alaiari han-
ditzen eta helduaroko mailak banan-banan igoten ikusten dituzun
gauza guztiek galtzen dutena baino lehenki gehiago hartzen baitute,
jana zain guztietan aisa sartzen deno eta anitz osagai galtzeko eta xahu-
tzea hartzen duten biziak baino gehiago izateko beste gauzak laxotzen
ez direno. Jakintzat jo behar baita lehenki ugari erioten eta eskapatzen
dela gauzetatik; baina gehiagok etorri behar du, hazkuntzaren goren
gailurra jaritsi arte. Hortik aurrera, adinak apurka-apurka indarra eta
sendotasun heldua hausten du eta okerrerantz urtzen da. Honetan, zen-
bat eta gauza handiagoak eta hedatsuagoak izan, hazteari utzitakoan,
hainbat eta lehenki gehiago zabalduko eta igorriko du bere baitatik, eta
janaria nekez banatzen da zain guztietan zehar eta ez da nahikoa,
hainbeste indar galtzeren ordez, behar besteko hornitze lana egiteko.

nec satis est, pro quam largos exaestuat aestus,
unde queat tantum suboriri ac subpeditare.
Iure igitur pereunt, cum rarefacta fluendo
sunt et cum externis succumbunt omnia plagis,
quandoquidem grandi cibus aeuo denique deficit,
nec tuditantia rem cessant extrinsecus ullam
corpora conficere et plagis infesta domare.
Sic igitur magni quoque circum moenia mundi
expugnata dabunt labem putris <que> ruinas.
Omnia debet enim cibus integrare nouando
et fulcire cibus, <cibus> omnia sustentare,
nequiquam, quoniam nec uenae perpetiuntur
quod satis est neque quantum opus est natura ministrat.
Iamque adeo fracta est aetas effetaque tellus
uix animalia parua creat quae cuncta creauit
saecla deditque ferarum ingentia corpora partu.
Haud, ut opinor, enim mortalia saecla superne
aurea de caelo demisit funis in arua
nec mare nec fluctus plangentes saxa crearunt,
sed genuit tellus eadem quae nuc aliat ex se.
Praeterea nitidas fruges uinetaque laeta
sponte sua primum mortalibus ipsa creauit,
ipsa dedit dulcis fetus et pabula laeta;
quae nunc uix nostro grandescunt aucta labore,
conterimusque boues et uiris agricularum,
conficimus ferrum uix aruis suppeditati:
usque adeo parcunt fetus augentque laborem.
Iamque caput quassans grandis suspirat arator
crebrius, incassum magnos cecidisse labores,
et cum tempora temporibus praesentia confert
praeteritis, laudat fortunas saepe parentis.
Tristis item uetulae uitis sator atque <uietae>
temporis incusat momen saeclumque fatigat
et crepat, anticum genus ut pietate repletum
perfacile angustis tolerarit finibus aeuom,
cum minor esset agri multo modus ante uiritim;
nec tenet omnia paulatim tabescere et ire
ad scopulum spatio aetatis defessa uetusto.

Arrazoiz hiltzen dira, beraz, jarioan eskastu eta kanpoko kolpeei
amore eman dietenean, azkenean adin handiak jana falta izaten baitu
eta kanpoko kolpe ekinkorrok ez baitute bakerik, gorputza ahuldu eta
zartada amorratuz menperatu arte. Honela, mundu zabala inguratzen
duten murrerakoak ere suntsitu eta zabortu egingo dira. Izan ere,
janariak behar du dena indartu, berritu eta zutoindu, janariak du dena
iraunarazten; alferrik, ordea, zainek ezin baitiote behar beste eutsi eta
naturak ere ezin baitu behar beste hornitu. Gure adina honexenbeste
urraturik dago, eta lur agortuak, behinola espezie guztiak sortu eta
piztien gorputz eskergez erditu zenak, animalia txikiak ozta-ozta sor-
tzen ditu. Ez baitzituen, nik uste, espezie hilkorrek zerutik zelaietara
urrezko soka batek jaitsiko, ez itsasoak ez olatu haitz jotzaileek sortu-
ko, orain bere baitatik elikatzen dituen lurak baizik. Gainera, uzta
distiratsuak eta mahasti alaiak berak sortu zituen bere kabuz hilko-
rrentzat, berak eman zituen fruitu gozoak eta larre alaiak, orain gure
neke eta guzti ere nekez hazten direnak, eta hortxe unatzen ditugu
idiak eta nekazarien indarrak eta higatzen golde-nabarra eta soroeak
kostata ematen dute: hain urri fruituan eta hain lan handia behar.
Horrela goldelari urtetsua, buruari eraginka, noiznahi kexu da bere
neke handiak alferrik izan direla eta, oraina iraganarekin alderatzean,
sarritan aitaren zortea goratzen du. Mahasti zaharraren landatzaile
tristeak ere denboren gainbehera salatzen eta gizaldia madarikatzen
du eta marmar dihardu ezen antzinako jendeak, pietatez beteak, bizi-
tza erosoagoa zeramala eremu estuagoetan, bakoitzari zegokion lur
saila askoz txikiagoa izan arren; ez da konturatzen apurka-apurka
dena andeatuz eta hondatuz doala, bizitzako ibilbide aspaldikoak ahi-
tua.

LIBER TERTIUS

CAPITULA

41. HOMINES MORTEM MAXIME
TIMERE
94. DE ANIMI ET ANIMAE NATURA
SENSUQUE
136. ANIMUM ET ANIMAM CONIUNCTA ESSE
182. DE MOBILITATE ANIMI
228. TERTIAM ANIMAM ESSE
MENTEM
241. QUARTAM SINE NOMINE ANIMAM
262. CONIUNCTIO ANIMI
ET ANIMARUM
288. DE VARIETATE ANIMI
350. DE SENSU CORPORIS ET ANIMI
369. CONTRA DEMOCRITUM DE ANIMO ET ANIMA
379. CORPUS NON SENTIRE PER SE SINE
ANIMI MOTU
417. ANIMAM NATIVAM ET MORTALEM ESSE
445. ANIMUM ET CORPUS SIMUL NASCI ET
CRESCERE ET SIMUL INTERIRE
642. DE SENSIBUS ANIMAE ET ANIMI
711. DIE NATALI ANIMAM NON ESSE PRIVATAM

HIRUGARREN LIBURUA

KAPITULUAK

441. IZAKIEK HERIOTZARI BELDUR HANDIEGIA
DIOTELA
94. GOGOAREN ETA ARIMAREN IZAERA ETA
SENTIMENA
136. GOGOA ETA ARIMA ELKARTURIK DAGOZELA
182. GOGOAREN MUGIKORTASUNAZ
228. ADIMENA ARIMAREN HIRUGARREN OSAGAIA
DELA
241. ARIMAREN LAUGARREN OSAGAI IZENGABEA
262. GOGOAREN ETA ARIMAREN OSAGAIEN
BATASUNA
288. GOGOAREN BARIETATEAZ
350. GORPUTZAREN ETA GOGOAREN SENTIMENAZ
369. DEMOKRITOREN AURKA, GOGOAZ ETA ARIMAZ
379. GOGOAREN MUGIDA GABE GORPUTZAK
EZ DUELA BERE KABUZ SENTITZEN
417. ARIMA JAIO ETA HIL EGITEN DELA
445. GOGOA ETA GORPUTZA BATERA JAIOTZEN
ETA HAZTEN ETA BATERA HILTZEN DIRELA
642. ARIMAREN ETA GOGOAREN SENTIMENEZ
711. ARIMA EZ DELA JAIOTEGUNIK GABEA

978. QUAE AD INFEROS DICANTVR EA
VITAE VITIA ESSE

979. INFERNUAZ ESAN OHI DIRENAK BIZITZAREN
AKATSAK DIRELA

LIBER TERTIUS

E tenebris tantis tam clarum extollere lumen
qui primus potuisti inlustrans commoda uitae,
te sequor, o Graiae gentis decus, inque tuis nunc
ficta pedum pono pressis uestigia signis,
non ita certandi cupidus quam propter amorem
quod te imitari aeuo; quid enim contendat hirundo
cycnis, aut quidnam tremulis facere artibus haedi
consimile in cursu possint et fortis equi uis?
Tu, pater, es rerum inuentor, tu patria nobis
suppeditas praecepta, tuisque ex, inclute, chartis,
floriferis ut apes in saltibus omnia libant,
omnia nos itidem depascimur aurea dicta,
aurea, perpetua semper dignissima uita.
Nam simul ac ratio tua coepit uociferari
naturam rerum, diuina mente coorta,
diffugiunt animi terrores, moenia mundi
discedunt, totum uideo per inane geri res.
Apparet diuum numen sedesque quietae
quas neque concutiunt uenti nec nubila nimbis
aspergunt neque nix acri concreta pruina
cana cadens uiolat semperque innubilus aether
integit, et large diffuso lumine ridet.
Omnia subpeditat porro natura neque ulla
res animi pacem delibat tempore in ullo.
At contra nusquam apparent Acherusia templa
nec tellus obstat quin omnia dispiciantur,

HIRUGARREN LIBURUA

Hainbesteko ilunpetik hain argi gardena atera eta biziaren
ondasunak argiztatu ahal izan zenituen aurrenengo, zuri narraizu, gre-
ziar jendearen ohore horri, eta neure oinak zureek utzitako oinatzetan
jartzen ditut orain, ez, noski, lehia gogoz, maitasunez baizik, biziki
nahi baitzaitut imitatu; zeren enara nola lehia daiteke zisneekin, edo
antxumearen hanka dardaratiek nola berdin lezakete lasterka zaldiaren
indar bortitza? Zuk, aita, egiaren asmatzaile horrek, zuk damaizkigu-
zu agindu aitatiarrak, eta zure liburuetan, oi guren, erleek baso lore-
tsuetan dena zurgatzen duten bezala, guk ere urrezko hitzak bazkatzen
ditugu, urrezkoak, beti ere bizitza iraunkorraren txit duin direnak.
Zeren, zure arrazoia, jainko-gogotik harakoa, gauzen izaera aldarrika-
tzen hasten denean, gogoaren izuak ezabatzen baitira, munduko harre-
siak irekitzen eta gauzak sortzen ikusten ditut hutsune eskergan zehar.
Jainkoen numena eta egoitza lasaiak agertzen dira, ez haizeek astin-
tzen, ez hodeiek euriztatzen, ez hotz minak gogortutako elurraren
jauskera zuriak bortxatzen ez dituenak, baizik eter beti oskarbiak
estaltzen eta argi ugariko isuriz irriarazten. Naturak dena hornitzen du
han, eta ezein ardurak ez dio inoiz gogoari bakerik kentzen. Ostera,
Akeronteko tenplurik inon ez da ageri, eta lurak ez du eragozten
hutsunearen barrenean sortzen den guztia norbere oinetan ikusterik.

sub pedibus quaecumque infra per inane geruntur.
His ibi me rebus quaedam diuina uoluptas
percipit atque horror, quod sic natura tua ui
tam manifesta patens ex omni parte resecta est.
Et quoniam docui, cunctarum exordia rerum
qualia sint et quam uariis distantia formis
sponte sua uolitent aeterno percita motu
quoue modo possint res ex his quaeque creati,
hasce secundum res animi natura uidetur
atque animae claranda meis iam uersibus esse
et metus ille foras praeceps Acheruntis agendus,
funditus humanam qui uitam turbat ab imo
omnia suffundens mortis nigrore neque ullam
esse uoluptatem liquidam puramque relinquit.
Nam quod saepe homines morbos magis esse timendos
infamemque ferunt uitam quam Tartara leti,
et se scire animi naturam sanguinis esse
aut etiam uenti, si fert ita forte uoluntas,
nec prorsum quicquam nostrae rationis egere,
hinc licet aduertat animum magis omnia laudis
iactari causa quam quod res ipsa probetur.
Extorres idem patria longaeque fugati
conspectu ex hominum, foedati crimine turpi,
omnibus aerumnis adfecti denique uiuunt,
et quocumque tamen miseri uenere parentant
et nigras mactant pecudes et manibu diuis
inferias mittunt multoque in rebus acerbis
acrius aduertunt animos ad religionem.
Quo magis in dubiis hominem spectare periculis
conuenit aduersisque in rebus noscere qui sit;
nam uerae uoces tum demum pectore ab imo
eliciuntur <et> eripitur persona, manet res.
Denique auarities et honorum caeca cupido
quae miseros homines cogunt transcendere fines
iuris et interdum socios scelerum atque ministros
noctes atque dies niti praestante labore
ad summas emergere opes, haec uulnera uitae
non minimam partem mortis formidine aluntur.

Gauza hauetan, jainkozko atseginak eta ikarak jotzen naute, pentsatuz zure indarrak gauzen izaera zein agerian utzi duen, alde guztietatik bistan.

30
35
40
46
44
45
47
50
55
60

Eta irakatsi ondoren gauza guztien lehenkiak nolakoak eta zein forma ezberdinekoak diren eta nola hegatzten diren berez, mugimen eternalak eraginda, eta nola euretatik gauza guztiak sor daitezkeen, orain nire bertsoei gogoaren eta arimaren izaera argitzea dago-kiela uste dut eta Akerontearen beldur amilgarri hura erauztea, zeinak giza bizitza barren-barrenetik asaldatzen duen, dena heriotzaren beltzean bilduz, eta inolako atsegin garden eta garbirik izaten uzten ez duen. Zeren sarritan gizakiek diotena, hots, gaixotasunak eta bizitza ondragabea Tartaroren herio-zuloa baino beldurgarriago direla eta eurek badakitela gogoaren izaera odolezkoa dela, edo baita haizezkoa ere, gogoak hori ematen badie, eta gure doktrinarik ez dutela ezertarako behar, pentsa ezazu hori guztia areago dela harrokeria, benetako ustea baino, eta begira bestela. Aberritik erbesteraturik eta gizartearen bistatik aldendurik, krimen zatarrez orbaindurik, deneriko miserian nahigabeturik, hala ere, bizi zaizkizu eta, ezbeharrak daramatzen edonon hilak ohoratzen dituzte, azienda beltzak sakrifikatzen, jainko maneei opariak eskaintzen eta, zenbat eta okerrago aurkitu, gogotsuago jotzen dute erlijiora. Horregatik gizakumeari zalantzan eta arriskuan begiratu behar zaio eta ezbeharretan ezagutu nolakoa den; zeren orduan, noski, bihotzaren barrutik benetako hitzak baitatoz eta mozarroa kentzen eta izatea geratzen baita. Honela, diru-gosea eta ohore irrika itsua, gizaki ziztrinak zuzenbidearen mugak haragotzera eta inoiz, krimenen kide eta zerbitzari, gau eta egun ahalegin saiatuan agintera igotzera behartzen dituztenak, bizitzako zauri hauek ez dira gutxi elikatzen heriotzaren beldurretik.

Turpis enim ferme contemptus et acris egestas
semota ab dulci uita stabilique uidetur
et quasi iam leti portas cunctarier ante;
unde homines dum se falso terrore coacti
effugisse uolunt longe longaque remosse,
sanguine ciuili tem conflant diuitiasque
conduplicant auidi, caedem caede accumulantes;
crudeles gaudent in tristi funere fratris
et consanguineum mensas odere timentque.
Consimili ratione ab eodem saepe timore
macerat inuidia: ante oculos illum esse potentem,
illum aspectari, claro qui incedit honore,
ipsi se in tenebris uolui caenoque queruntur.
Intereunt partim statuarum et nominis ergo.
Et saepe usque adeo, mortis formidine, uitae
percipit humanos odium lucisque uidendae,
ut sibi consciscant maerenti pectore letum
obliti fontem curarum hunc esse timorem:
hunc uexare pudorem, hunc uincula amicitiai
rumpere et in summa pietatem euertere suadet.
Nam iam saepe homines patriam carosque parentis
prodiderunt, uitare Acherusia templa petentes.
Nam ueluti pueri trepidant atque omnia caecis
in tenebris metuunt, sic nos in luce timemus
interdum, nilo quae sunt metuenda magis quam
quae pueri in tenebris pauitant finguntque futura.
Hunc igitur terrorem animi tenebrasque necessest
non radii solis neque lucida tela diei
discutiant, sed naturae species ratioque.

Primum animum dico, mentem quam saepe uocamus,
in quo consilium uitae regimenque locatum est,
esse hominis partem nilo minus ac manus et pes
atque oculi partes animantis totius extant.

* * *

sensum animi certa non esse in parte locatum,
uerum habitum quandam uitalem corporis esse,

65

70

75

80

85

90

95

Zeren arbuio doilorra eta txirotasun mingotsa biziera gozo eta egon-
korraren arerio eta heriotzaren atean gelditzea bezala direla uste ohi
baita; hortik gizakiek, izu faltsuak sakaturik, ihes eta aldendu nahia-
ren nahian, aberasten eta ondasunak irritsez handitzen dihardute, hil-
ketak eta hilketak pilatuz; anaiaren hileta tristeaz ankerki pozten dira
eta ahaideen mahaiei ere gorroto eta beldur diote. Era berdintsuan,
sarritan beldur beretik bekaizkeriak erretzen ditu: begien aurrean bata
indartsu, bestea ohoretsu ikustearen minez, eurak ilunpean eta basa-
tzan iraulkatzen dira. Batzuk estatuen eta osparen irrikari hiltzen dira.
Eta sarritan, hiltzeko beldurrez, bizitzari eta argia ikusteari halako
gorrotoa hartzen diote gizakiek, ezen bular atsekabetuz euren burua
hiltzen baitute, zorigaitz guztien iturri beldur horixe dela ahazturik:
bata kalte egitera darama, bestea adiskidantzaren lokarriak haustera
eta, hitz baterako, pietatea eraistera. Zeren gizakiek aberria eta gura-
so maiteak maiz traditu izan baitituzte, Akeronteko leizeak ekiditea-
rren. Zeren, haurrak ilunpe itsuan dardaratzen eta denaz ikaratzen
direnez, geuk ere sarritan horrelaxe baitiegu argitan beldurra, haurrak
ilunetan beldurtzen dituen eta berehalako iruditzen zaiena baino
ezertan ikaragarriago ez direnei. Beharrezko da, beraz, gogoaren izu
eta ilunpe hau ezaba dezaten, ez eguzkiaren izpiek edo egunaren gezi
gardenek, naturaren ikuspenak eta arrazoiak baizik.

Lehenik gogo, sarritan burua deritzoguna, non bizitzaren
aholkua eta gobernua lekutzen diren, gizakumearen zati dela esan
behar dut eta ez gutxiago eskua eta hanka eta begiak bizidun osoaren
zati direna baino. [[Alferrik saiitzen dira batzuk esaten]] gogoaren
sentikortasuna ez dagoela zati jakin batean lekutua, baizik gorputza-

harmoniam Grai quam dicunt, quod faciat nos
uiuere cum sensu, nulla cum in parte siet mens;
ut bona saepe ualetudo cum dicitur esse
corporis, et non est tamen haec pars ulla ualentis.
Sic animi sensum non certa parte reponunt;
magno opere in quo mi diuersi errare uidentur.
Saepe itaque in promptu corpus quod cernitur aegret,
cum tamen ex alia laetatur parte latenti;
et retro fit uti contra sit saepe uicissim,
cum miser ex animo laetatur corpore toto;
non alio pacto quam si, pes cum dolet aegri,
in nullo caput interea sit forte dolore.
Praeterea molli cum somno dedita membra
effusumque iacet sine sensu corpus honustum,
est aliud tamen in nobis quod tempore in illo
multimodis agitur et omnis accipit in se
laetitiae motus et curas cordis inanis.

Nunc animam quoque ut in membris cognoscere possis
esse neque harmonia corpus sentire solere,
principio fit uti detracto corpore multo
saepe tamen nobis in membris uita moretur;
atque eadem rursus, cum corpora pauca caloris
diffugere forasque per os est editus aer,
deserit extemplo uenas atque ossa relinquit;
noscere ut hinc possis non aequas omnia partis
corpora habere neque ex aequo fulcire salutem,
sed magis haec, uenti quae sunt calidique uaporis
semina, curare in membris ut uita moretur.
Est igitur calo ac uentus uitalis in ipso
corpore qui nobis moribundos deserit artus.
Quapropter quoniam est animi natura reperta
atque animae quasi pars hominis, redde harmoniai
nomen, ad organicos alto delatum Heliconi,
siue aliunde ipsi porro traxere et in illam
transtulerunt, propio quae tum res nomine egebat.
Quidquid <id> est, habeant: tu cetera percipe dicta.

100

105

110

115

120

125

130

135

ren nolabaiteko jarrera bitala dela, Grekoek harmonia deritzotena, zeinak sentituz biziartzten gaituen, burua egotez inon egon barik; sarritan gorputzak osasun ona daukala diogun bezala, nahiz eta berau inor osasuntsuren zati ez izan. Honela, gogoaren sentikortasunak ez ei dauka egonleku jakinik; horretan oso deslai eta galduta dabilzala uste dut. Izan ere, sarritan kanpo gorputza, ikusten dena, gaixotu egiten zaigu eta azpiko beste zati batean, ostera, pozik gagoz; alderantziz ere, sarritan gertatzen da gogoz dohakabe dena gorputz osoan poztea; hankan min duen gaixoak beharbada buruan inolako minik ez edukitzea bezalaxe. Gainera loharrak lo bigunean eta gorputz astuna sentikortasun barik luze datzanean, badago zeozter guregan, denbora hartan hamaika erataro diharduena eta pozaren mugida guztiak eta bihotzaren ardura hutsalak beragan hartzen dituena.

Orain, arima ere lohadarretan dagoela eta gorputzak ez duela harmoniarik sentitzen jakin ahal dezazun, lehenik gertatzen da ezen, gorputz zati handi bat moztuta ere, sarritan biziak badirauela gure lohadarretan; eta, ostera, beroaren gorputz bakan batzuek ihes egitea eta aire apur bat ahotik kanporatzea nahikoa da zainak eta hezurak tanpez laga ditzan; hortik jakin dezakezu gorputz guztiek ez daukatezela zeregin bera eta ez diotela biziari berdin eusten, baizik hauexek, haizearen eta bapore beroaren gorputzok, arduratzen direla biziak loharretan jarrai dezan. Gorputzean bertan badago, beraz, hiltzean, gure lohadarretatik alde egiten duen bero eta aire biziartzale bat. Beraz, gogoaren eta arimaren izaera gizakiaren zati bezalakoak direla argitua denez gero, bihur harmoniaren izena musikariei, Helikon garaitik ekarri zutenei, baldin beste nonbaitetik atera eta izen propiorik ez zeukan zerbaiti ezarri ez bazioten. Zernahi dela, beukate: zu adi ondorengo esanetara.

Nunc animum atque animam dico coniuncta teneri
 inter se atque unam naturam conficere ex se,
 sed caput esse quasi et dominari in corpore toto
 consilium quod nos animum mentemque uocamus.
 Idque situm media regione in pectoris haeret. 140
 Hic exultat enim pavor ac metus, haec loca circum
 laetitiae mulcent; hic ergo mens animusquest.
 Cetera pars animae per totum dissita corpus
 paret et ad numen mentis momenque mouetur.
 Idque sibi solum per se sapit, <id> sibi gaudet, 145
 cum neque res animam neque corpus commouet una.
 Eta quasi, cum caput aut oculos temptante dolore
 laeditur in nobis, non omni conruciamur
 corpore, sic animus nonnumquam laeditur ipse
 laetitiaeque uiget, cum cetera pars animai 150
 per membra atque artus nulla nouitate cietur.
 Verum ubi uementi magis est commota metu mens,
 consentire animam totam per membra uidemus
 sudoresque ita palloremque existere toto
 corpore et infringi linguam uocemque aboriri, 155
 caligare oculos, sonere auris, succidere artus,
 denique concidere ex animi terrore uidemus
 saepe homines; facile ut quiuis hinc noscere possit
 esse animam cum animo coniunctam, quae cum animi <ui>
 percussast, exim corpus propellit et icit. 160
 Haec eadem ratio naturam animi atque animai
 corpoream docet esse. Ubi enim propellere membra,
 corripere ex somno corpus mutareque uultum
 atque hominem totum regere ac uersare uidetur, 165
 quorum nil fieri sine tactu posse uidemus
 nec tactum porro sine corpore, nonne fatendumst
 corporea natura animum constare animamque?
 Praeterea pariter fungi cum corpore et una
 consentire animum nobis in corpore cernis.
 Si minus offendit uitam uis horrida teli 170
 ossibus ac neruis disclusis intus adacta,
 at tamen insequitur languor terraeque petitus
 suauis, et in terra mentis qui gignitur aestus

Orain diot gogoa eta arima elkarrekin bat eginik dagozela eta
 bien artean izaera bakarra osatzen dutela, baina burua, nolabait, edo
 adimena dela gorputz osoaren nagusi, guk izpiritua edo gogoa deri-
 tzoguna. Eta hau paparraren erdialdean finkaturik dago. Izan ere,
 hementxe jauzikatzen dira izua eta beldurra, alaitasunak inguru horre-
 tantxe balakatzen gaitu; hementxe dagoz, beraz, izpiritua eta gogoa.
 Arimaren beste zatia, gorputz osoan zabaldurik, gogoaren borondate
 eta bulkoari men eginez mugitzen da. Gogoak bakarrik pentsatzen du
 bere kabuz, bera pozten da bere buruz, nahiz eta ezein gauzak ez ari-
 marik ez gorputzik hunkitu ez. Eta, buruak edo begiak guregan mina-
 ren eraso jasatean, gorputz osoan oinazetzen ez garen bezala, horre-
 laxe gertatzen da inoiz gogoa bera ere penatzea edo pozez gainezka-
 tzea, bitartean arimaren beste zatiari, lohadar eta organoetan, ezein
 nobedadek eragiten ez diola. Baina, gogoa beldur bortitzagoak jotze-
 an, arima osoa ere lohadarretan sentikide dela dakusgu eta gorputz
 osoan izerdiak eta zurbiltasuna datozela eta mihia moltsotzen eta abo-
 tsa iraungitzen dela, begiak iluntzen, belarriak furruntzen, lohadarrak
 makaltzen, hitz batez, inoiz gizakumeak lurjotzen ikusten ditugu
 gogoaren izuagatik; hemendik edonork aisa ikus dezake arima gogoa-
 ri loturik dagoela eta, gogoaren indarrak kolpatzen duenean, berak
 gorputzera zabaltzen eta bultzatzen duela kolpea.

Arrazoi honek berak irakasten du gogoaren eta arimaren izaera
 gorpuztuna dela. Ikusten baita eurek eragiten dietela lohadarrei,
 eurek gorputza lotatik ateratzen eta aurpegia aldatzen, eta gizakume
 osoa gobernatzen eta maneatzen dutela, eta ikusten baitugu hauetari-
 ko ezer ez daitekeela ukimen gabe izan, ezta ukimenik ere gorputzik
 gabe, ez al da aitortu behar gogoak eta arimak izaera gorpuztuna dau-
 katela? Badakusu, gainera, gogoa nola aldi berean gorputzarekin ari
 den eta nola gorputz barruan haren sentikide den. Azkonaren indar
 latzak, hezur eta kirioak zulatzean eta urratzean, nahiz eta bizia ez
 apurtu, hala ere, zorabioa eta lurreratze leuna daragi eta lurrean ber-
 tan adimenaren asaldura eta inoiz halako zutitu nahi lanbroa.

interdumque quasi exsurgendi incerta uoluntas.
Ergo corpoream naturam animi esse necessest,
corporeis quoniam telis ictuque laborat.

Is tibi nunc animus quali sit corpore et unde
constiterit pergam rationem reddere dictis.
Principio esse aio persubtilem atque minutis
perquam corporibus factum constare. Id ita esse

hinc licet aduertas animum ut pernoscere possis.
Nil adeo fieri celeri ratione uidetur,
quam si mens fieri proponit et incohat ipsa.
Ocius ergo animus quam res se perciet ulla
ante oculos quorum in promptu natura uidetur.
At quod mobile tanto operest, constare rutundis
perquam seminibus debet perquamque minutis,
momine uti paruo possint impulsa moueri.

Namque mouetur aqua et tantillo momine flutat
quippe uolubilibus paruisque creata figuris.

At contra mellis constantior est natura
et prigi latices magis et cunctantior actus;
haeret enim inter se magis omnis materiai
copia, nimirum quia non etam leuibus exstat
corporibus neque tam subtilibus atque rutundis.
Namque papaueris aura potest suspensa leuisque
cogere ut ab summo tibi diffluat altus aceruus:
at contra lapidum coniectum spicarumque
noenu potest. Igitur paruissima corpora proquam
et leuissima sunt, ita mobilitate fruuntur.

At contra quacumque magis cum pondere magno
asperaque inueniuntur, eo stabilita magis sunt.

Nunc igitur quoniam <est> animi natura reperta
mobilis egregie, perquam constare necessest
corporibus paruus et leuibus atque rutundis.
Quae tibi cognita res in multis, o bone, rebus
utilis inuenietur et opportuna cluebit.

Haec quoque res etiam naturam dedicat eius,
quam tenui constet textura quamque loco se
contineat paruo, si possit conglomerari,

175

180

185

190

195

200

205

210

Gogoaren izaerak, beraz, gorpuztun behar du, gorpuztun azkonen zau-
riekin min hartzen baitu.

Orain gogo honen gaia nolakoa eta zerez osatua den bertsoz
azaltzera noakizu. Lehenik, gai fin-fina eta lehenki xehe-xehe
egina dela diot. Hau honelaxe dela jakin dezazun, erne ondoren
datorrenaz. Ez dago ezer, hain bizkor egitekoa dirudienik, gogoak
egitea erabakitzen eta bertan abiarazten duena bezalakorik. Gogoa
askoz bizkorrago mugitzen da, beraz, ikusgai eta begien bistan ageri
den edozer baino. Baina hain zer mugikorrek hazi borobil-borobilez
eta txiki-txikiz osaturik egon behar du, bulkorik txikienean mugitu
ahal izateko. Zeren ura hain bulko txikiz mugitzen eta erioten bada,
forma birakariz eta txikiz sortua delako baita. Eztiak, ordea, izate
sendoagoa eta likore nagia dauka eta astiroago erion ohi da;
materiaren kopuru guztia bata-bestearen artean lotuago dagoelako,
edo, argi dagoenez, hain gorputz leun, xume eta borobilez osaturik
ez dagoelako. Mitxoleta haziak aski du putz xuabe eta zalanzkor
bat, pilo handi bat goitik behera etor dakizun; harri edo galburu pilo
batekin, ostera, ez dago horrelakorik. Beraz, gorputz txiki-txiki eta
leun-leunekoak hainbat mugikorrago dira. Ostera, zenbat eta astu-
nago eta latzagoak izan, hainbat egonkorrago dira. Honela, bada,
gogoaren izaerak, hain izugarri mugikor ageri denez gero, gorputz
txikiz, leunez eta borobilez osaturik behar du. Gauza hauek jakitea
alde askotatik ongari eta egoki izango zaizu, ene lagun on.
Hurrengo honek ere agertzen du haren izaera, zer ehundura fine-
koa eta zer toki txikian kabitzekoa den, pilatu ahal balitz; alegia,

quod simul atque hominem leti secreta quies est
indepta atque animi natura animaeque recessit,
nil ibi libatum de toto corpore cernas
ad speciem, nil ad pondus: mors omnia praestat
uitalem praeter sensum calidumque uaporem.
Ergo animam totam perparuis esse necessessest
seminibus, nexam per uenas uiscera neruos;
quatenus, omnis ubi e toto iam corpore cessit,
extima membrorum circumcaesura tamen se
incolumem praestat nec deficit ponderis hilum.
Quod genus est Bacchi cum flos euauit aut cum
spiritus unguenti suauis diffugit in auras
aut aliquo cum iam sucus de corpore cessit;
nihil oculis tamen esse minor res ipsa uidetur
propterea neque detractum de pondere quicquam,
nimirum quia multa minutaque semina sucos
efficiunt et odorem in toto corpore rerum.
Quare etiam atque etiam mentis naturam animaeque
scire licet perquam paucis esse creatam
seminibus, quoniam fugiens nil ponderis aufert.
Nec tamen haec simplex nobis natura putanda est.
Tenuis enim quaedam moribundos deserit aura
mixta uapore, uapor porro trahit aera secum;
nec calor est quisquam, cui non sit mixtus et aer.
Rara quod eius enim constat natura, necessessest
aeris inter eum primordia multa moueri.
Iam triplex animi est igitur natura reperta;
nec tamen haec sat sunt ad sensum cuncta creandum,
nil horum quoniam recipit mens posse creare
sensiferos motus nedum quae mente uolutat.
Quarta quoque his igitur quaedam natura necessessest
adtribuatur. East omnino nominis expers;
qua neque mobilis quicquam neque tenuis extat,
nec magis e paruis et leuibus ex elementis;
sensiferos motus quae didit prima per artus.
Prima cietur enim, paruis perfecta figuris;
inde calor motus et uenti caeca potestas

215

220

225

230

235

240

245

heriotzaren atsedean segurak gizakia harrapatu duenean eta gogoaren eta arimaren izateak aldendu direnean, ez zenuke gorputz osoan eze-
ren faltarik hartuko, ez itxuran ez pisuan: heriotzak sentikortasun eta
berotasun bitalaz beste guztia lehenean uzten du. Beraz, arima osoak
hazi txiki-txikiz egina behar du, zain, errai eta kirioetan zehar bilba-
tua; zeren, bera gorputz osotik guztiz aldendurik ere, lohadarren
kanpo aldeak osorik dirau, pisurik batere galdu gabe. Gauza bera ger-
tatzen da Bakoren zukua ezabatu denean edo lurrin baten izpiritu sua-
bea airean ezereztu denean edo gorputzen batek zaporea galdu duene-
an; gauza bera ezertan ez zaie begiei txikiago iruditzen, eta pisurik ere
ez zaio batere falta, dudarik gabe usaina eta zaporea gorputz osoan
zeharreko hazi askoz eta txiki-txikiz eginak direlako. Hortik jakin
dezakezu, beraz, berriro esanda, gogo-arimen izaera erabat hazi nimi-
noz osatua dela, ez baitie, alde egitean, gorputzei batere pisurik ken-
tzen.

Ez da, hala ere, izaera hau bakuna denik pentsatu behar. Hilurranei, izan ere, halako hats arin batek alde egiten die, beroa-
rekin nahasturik, eta beroak halaber airea berarekin daroa; ez dago
berorik airea nahasten ez zaionik. Bere izaera apatza izanik, airez-
ko lehenki askok ibili behar du bere artean. Argi dago, bada, gogo-
aren izaera hirukoitza dela. Hala ere, hirurok batera ez dira nahi-
koa, sentikortasuna sortzeko, gogoak ez baitu ulertzen ezeinek ere
mugida sentikorrik sor dezakeenik eta are gutxiago berak darabilen
pentsamendurik. Hauei, beraz, laugarren elementuren bat gehitu
behar zaie. Hau oraindik erabat izen gabe dago; ez dago ezer berau
baino mugikor eta arinagorik, ez elementu txiki eta leunagorik;
berau da lohadarretan mugida sentiarazleak lehenen banatzen
dituena. Lehenen kitzikatua baita, hain forma txikiz egina izanik;

accipit, inde aer; inde omnia mobilitantur,
concutitur sanguis, tum uiscera persentiscunt
omnia, postremis datur ossibus atque medullis
siue uoluptas est siue est contrarius ardor. 250
Nec temere huc dolor usque potest penetrare neque acre
permanare malum, quin omnia perturbentur
usque adeo <ut> uitae desit locus atque animai
diffugiant partes per caulas corporis omnis. 255
Sed plerumque fit in summo quasi corpore finis
motibus: hanc ob rem uitam retinere ualemus.

Nunc ea quo pacto inter sese mixta quibusque
compta modis uigeant rationem reddere auentem
abstrahit inuitum patrii sermonis egestas;
sed tamen, ut potero summatim attingere, tangam. 260
Inter enim cursant primordia principiorum
motibus inter se, nil ut secernier unum
possit nec spatio fieri diuisa potestas,
sed quasi multae uis unius corporis extant. 265
Quod genus in quouis animantum uiscere uolgo
est odor et quidam calor et sapor, et tamen ex his
omnibus est unum perfectum corporis augmen.
Sic calor atque aer et uenti caeca potestas
mixta creant unam naturam et mobilis illa 270
uis, ininitum motus ab se quae diuidit ollis,
sensifer unde oritur primum per uiscera motus.
Nam penitus prorsum latet haec natura subestque
nec magis hac infra quicquam est in corpore nostro
atque anima est animae proporro totius ipsa. 275
Quod genus in nostris membris et corpore toto
mixta latens animi uis est animaeque potestas,
corporibus quia de paruis paucisque creatast:
sic tibi nominis haec expers uis facta minutis
corporibus latet atque animae quasi totius ipsa
proporrost anima et dominatur corpore toto. 280
Consimili ratione necessesit uentus et aer
et calor inter se uigeant commixta per artus
atque aliis aliud subsit magis emineatque

beragandik hartzen du bulkoa beroak eta haizearen indar ezkutuak,
beragandik aireak; beragandik mugikortzen da dena, borbortzen
odola, erraiek sentipen guztiak hartzen eta azkenik hezur eta muinetara
sartzen, dela atsegina zein kontrako garra. Baina minak ezin du
haraino lasai sartu, ez gaitz zorrotzak han iraun, dena lokatu gabe,
biziarentzat tokia falta izateraino eta arimaren zatiak gorputzaren
zirritu guztietatik eskapatzeraino. Areago, ostera, mugimendua nola-
bait gorputzaren kanpo aldean iraungitzen da gehienbat: horrexegatik
gara bizinari eusteko gai.

Orain osagaiok elkarren artean nola nahasten, nola ordenatzen
diren eta nola diharduten gogoz arrazoitzea desgogoz eragozten dit
aberri hizkuntzaren gabeziak; ukituko diot, hala ere, gaiari laburki,
neuk ahal bezala. Arimaren osagaiek elkarren artean halako mugidan
dihartute, ezen ez baitago elkarrengandik banatzerik ez euren egite-
koak espazioan bereizterik, aitzitik gorputz bakarraren ahalmen
mordoak bezalatsu jokutzen dute. Era berean, edozein animalaren
haragian ere bada halako usain, bero eta zapore bat, eta, hala ere,
denen artean gorputzaren bolumen bakarra eta osoa egiten dute.
Honela, beroak eta aireak eta haizearen indar ezkutuak ere, nahastu-
rik, izaera bakarra sortzen dute eta, gainera, indar mugikor hura, zein-
nak bere baitan hasitako mugimendua besteei igortzen dien eta zein-
nagan aurrenen sortzen den haragira doan mugida sentikorra.
Laugarren osagai hau barrurik barrurenean ezkututzen da, izatearen
oinarri, eta gure gorputzean ezer ez dago barrurago eta aldi berean
arima osoaren arima da bera. Era berdintsuan, haizeak eta aireak eta
beroak elkarrekin nahasturik jardun behar dute lohadarretan eta bata-
bestearen menpeko edo nagusi izan, denen artean batasun bat eginez,

ut quiddam fieri uideatur ab omnibus unum,
ni calor ac uentus seorsum seorsumque potestas
aeris interemant sensum diductaque soluant.

Est etiam calor ille animo, quem sumit, in ira
cum feruescit et ex oculis micat acrius ardor.
Est et frigida multa comes formidinis aura
quae ciet horrorem membris et concitat artus.
Est etiam quoque pacati status aeris ille,
pectore tranquillo qui fit uoluptate sereno.
Sed calidi plus est illis quibus acria corda
iracundaque mens facile efferuescit in ira
quo genere in primis uis est uiolenta leonum,
pectora qui fremitu rumpunt plerumque gementes
nec capere irarum fluctus in pectore possunt.
At uentosa magis ceruorum frigida mens est
et gelidas citius per uiscera concitat auras
quae tremulum faciunt membris existere motum.
At natura bouum placido magis aere uiuit,
nec nimis irai fax umquam subdita percit
fumida, suffundens caecae caliginis umbram,
nec gelidis torpet telis perfixa pavoris:
interutrasque sitast, ceruos saeuosque leones.
Sic hominum genus est. Quamuis doctrina politos
constituat pariter quosdam, tamen illa relinquit
naturae cuiusque animi uestigia prima;
nec radicitus euelli mala posse putandumst,
quin procliuius hic iras decurrat ad acris,
ille metu citius paulo temptetur, at ille
tertius accipiat quaedam clementius aequo.
Inque aliis rebus multis differre necesses
naturas hominum uarias moresque sequacis;
quorum ego nunc nequeo caecas exponere causas
nec reperire figurarum tot nomina quot sunt
principiis, unde haec oritur uariantia rerum.
Illud in his rebus uideo firmare potesse,
usque adeo naturarum uestigia linqui
paruola quae nequeat ratio depellere nobis,

285

290

295

300

305

310

315

320

bestela beroak eta haizeak batetik eta airearen indarrak bestetik,
banaturik, sentimena iraungiko eta disolbatuko baitute. Badago bero
hura gogoan ere, honek suminez irakitean eta begietatik su biziagoa
txinpartatzean erakusten duena. Badago ugari hats hotz eta beldurra-
ren lagunean ere, lohadarrak hotzikaritzen eta gorpuzkinak inarro-
sten dituen hartan. Badu baita aire barearen izate hura ere, bihotz
mantsoan eta aurpegikera lasaian agertzen dena. Baina beroa han-
diagoa da bihotz suharra eta izpiritu haserrekorra suminean aisa ira-
kiten direnengan, hauetakoa delarik batik bat lehoien izakera biolen-
toa, zeintzuek, auhen egitean, bularrak orroeka askatzen dituzten,
sumin uholari barruan eutsi ezinik. Oreinaren arima hotza, ostera,
haizetsuago da eta bizkorrago jaurtitzen ditu haragian zehar lohada-
rretan mugimendu dardaratia eragiten dioten hats izoztuak. Idien iza-
eran aire mantsoa bizi da, eta hura ez du inoiz asaldatzen suminaren
zuzi ketsuak, bere gandu ilunean itsutuz, eta ez da sorgortzen, izua-
ren gezi izoztuetan josia: erdibidean dago, oreinen eta lehoi beldur-
garrien artean. Giza enda honelakoxea da. Kulturak zenbait jende era
berdinean lantzen badu ere, arima bakoitzean lehen izaeraren lorra-
tzak uzten ditu. Eta ez da pentsatu behar bizioak errotik erauz dai-
tezkeenik, urlia beti izango baita haserre gogorretara emanago, san-
dia askoz beldurraren menpekoago, berendia, berriz, zenbait gauza
etorkorrago hartzen dituena. Beste zer askotan ere gizakien izaera
askotarikoek eta dagozkien ohiturek aldetsuak izan behar dute; orain
ez daukat horien kausa ezkutuak azaltzerik, ez ezberdintasunok sor-
tzen dituzten printzipioen formak adina izen aurkitzerik. Honetan
baiezteko moduan nagoela uste dut ezen arrazoiak guregandik
egotzi ezin dituen berezko izaeraren lorratzak hain direla txikiak,

ut nil impediatur dignam dis degere uitam.

Haec igitur natura tenetur corpore ab omni ipsaque corporis est custos et causa salutis; nam communibus inter se radicibus haerent nec sine pernicie diuelli posse uidentur.

Quod genus e thuris glaebis euellere odorem haut facile est quin intereat natura quoque eius, sic animi atque animae naturam corpore toto extrahere haut facile est quin omnia dissoluantur: implexis ita principiis ab origine prima inter se fiunt consorti praedita uita.

Nec sibi quaeque sine alterius ui posse uidetur corporis atque animi seorsum sentire potestas, sed communibus inter eas conflatur utrimque motibus accensus nobis per uiscera sensus.

Praeterea corpus per se nec gignitur umquam nec crescit neque post mortem durare uidetur.

Non enim, ut umor aquae demittit saepe uaporem qui datus est, neque ea causa conuellit ipse, sed manet incolumis, non, inquam, sic animai discidium possunt artus perferre relictis, sed penitus pereunt conuulsi conque putrescunt.

Ex ineunte aeuo sic corporis atque animai mutua uitalis discunt contagia motus maternis etiam membris alioque reposita, discidium <ut> nequeat fieri sine peste maloque; ut uideas, quoniam coniunctast causa salutis, coniunctam quoque naturam consistere eorum.

Quos superest, si quis corpus sentire refutat atque animam credit permixtam corpore toto suscipere hunc motum quem sensum nominamus, uel manifestas res contra uerasque repugnat.

Quid sit enim corpus sentire quis adferet umquam, si non ipsa palam quod res dedit ac docuit nos?

At dimissa anima corpus caret undique sensu; perdit enim quod non proprium fuit eius in aeuo, multaque praeterea perdit cum expellitur aeuo.

non ezerk ez baitigu eragozten jainkoen duin den bizimodua eroa-
za.

325

Arimaren izaera hau, beraz, gorputz osoak hartuta dago, eta era da, halaber, gorputzaren jagole eta iraunarazle; biak erro komu-
ez elkarri atxikita baitagoz, eta ez dirudi hiltzeke bereiz daitezke-
rik. Intzentsu garaunei, euren izaera ere hiltzeke, usaina kentzea
amurra ez den bezala, ez da samurra gogoa eta arima gorputz osotik
teratzea ere, osotasuna desegin gabe: hainbestearino elkarloturik
agoz hasiera-hasieratik lehenkiak, bizi komunez hornituak. Eta gor-
putz-arimak, bereiz eta elkarren indar gabe, ez direla sentitzeko gauza
akusgu, baizik sentimena organoetan zehar argitzen dela, bietarik
arako mugimenduek pizturik. Gainera gorputza ez da inoiz bere
abuz sortzen, ez hazten, eta ez dakusgu heriotzaren ondoren diraue-
rik. Ez baita ura bezalakoa, zeinak hartutako beroa utz dezakeen,
orregatik bera desegin gabe, osorik iraunez baizik; ezin dute horrela,
erriz diot, lohadar abandonatuek arimaren aldegitia jasan, aitzitik,
barreneraino astindurik, hil eta usteldu egiten dira. Adinaren hasiera-
rik, gorputz-arimek, amaren haragian eta sabelean kukuturik, elkarren
kutuan hala ikasten dituzte bizi mugidak, ezen ez baitaiteke banatze-
rik gerta heriotzaren okerrik gabe; ikus dezazun, biziraun printzipio
bateratua dutenez gero, euren izaeran ere batera doazela.

335

340

345

Gainerakoan, inork gorputzak sentitzen duela ukatzen badu eta
sentimena deritzogun mugimendu hau gorputz osoan zabalduriko ari-
mak hartzen duela uste badu, egiaren eta ebidentziaren aurka tematzen
dihardu. Zeren, nork azaldu behar digu gorputzak zer sentitzen duen,
egintza nabariak berak ematen eta irakasten digunak ez bada? Baina,
arima galdurik, gorputzak ez dauka sentimenik inon; inoiz berea izan
ez duena galtzen du, izan ere, eta hainbat gauza galtzen du, bizirik
jaurtitzen dutenean.

350

355

Dicere porro oculos nullam rem cernere posse,
ser per eos animum ut foribus spectare reclusis,
difficilest, contra cum sensus ducat eorum;
360 sensus enim trahit atque acies detrudit ad ipsas;
fulgida praesertim cum cernere saepe nequimus,
lumina luminibus quia nobis praepediuntur.
Quod foribus non fit; neque enim, qua cernimus ipsi,
365 ostia suscipiunt ullum reclusa laborem.
Praeterea si pro foribus sunt lumina nostra,
iam magis exemptis oculis debere uidetur
cernere res animus sublatis postibus ipsis.
Illud in his rebus nequaquam sumere possis,
370 Democriti quod sancta uiri sententia ponit,
corporis atque animi primordia singula priuis
adposita alternis uariare, ac nectere membra.
Nam cum multo sunt animae elementa minora
375 quam quibus e corpus nobis et uiscera constant,
tum numero quoque concedunt et rara per artus
dissita sunt; dumtaxat ut hoc promittere possis,
quantula prima queant nobis iniecta ciere
corpora sensiferos motus in corpore, tanta
380 interualla tenere exordia prima animai.
Nam neque pulueris interdum sentimus adhaesum
corpore nec membris incussam sidere cretam,
nec nebulam noctu neque aranei tenuia fila
obuia sentimus, quando obretimur euntes,
385 nec supera caput eiusdem cecidisse uietam
uestem nec plumas auium papposque uolantis
qui nimia leuitate cadunt plerumque grauatim,
nec repentis itum cuiusuisque animantis
sentimus nec priua pedum uestigia quaeque,
390 corpore quae in nostro culices et cetera ponut.
Usque adeo prius est in nobis multa ciendum,
quam primordia sentiscant concussa animai
semina corporibus nostros inmixta per artus,
et quam in his interuallis tuditantia possint
395 concursare coire et dissultare uicissim.

Bestalde, begiek ezin dutela ezer ikusi, baizik haien bitartez,
ate irekietatik bezala, arimak ikusten duela esatea zaila da, haien sen-
timenak kontrakora baitarama; sentimenak, izan ere, ikusmena begi-
nininian kokarazten du, batez ere zer distiratsuak ikusi ezin ditugunean,
argi larregiak gure ikusmenari traba egiten baitio. Hori ateekein ez da
gertatzen; zeren hartan zehar begiratzen dugun ateak ez baitu irekita
nekerik hartzen. Gainera, gure ikusmena atea bezalakoa bada, gogoak
begiak aterata, atezangoak ere kenduta, gauzak hobeto ikusi behar
dituela dirudi.

Honetan, ez dezazula zeugandu Demokrito gurenaren iritzi
gurgarriak dioena, hots, gorputz-arimen lehenkiak, banan-banan
kokatuak, binan txandatzen direla eta lohadarrak lotzen dituztela.
Zeren arimaren elementuak, gure gorputza eta organoak osatzen
dituztenak baino askoz txikiagoak izanik, kopuruan ere gutxiago bai-
tira eta lohadarretan zehar mehatz zabaldua baitaude. Hau behintzat
onartuko duzu, hots, lehenkiak, euren talkaz gure gorputzean mugida
sentigarriak abiarazteko, zein txikiak diren, halakoxea dela arimaren
lehenkien arteko bitartea. Batzuetan ez baitu sentitzen gorputzari itsa-
tsitako hautsik, ez azalari erantsitako klerarik, ez gaueko behe-laino-
rik, ez bidera irteten eta bere sarean tratatzen gaituen armiarma-sare
380 finik, ez berak buru gainera jausten uzten digun amaraun zaharrik, ez
hegazti lumarik, ez, hain arintasun ezerezekoa izanik, nekez jausten
den kardilaun hegalaririk; narrasti guztien ibilerarik ere ez dugu sen-
titzen, ez eltxoek eta enparauek gure gorputzean uzten dituzten oina-
tzik banan-banan bereizten. Asko eta askori eragin behar zaio gure-
gan, gure ataletan zehar gorputzean nahasturiko arimaren haziak
mugitu direla sentitu aurretik eta, tarte eta guzti ere elkar joz, elkarren
gaineratu, batu eta berriro punpatu ahal izan aurretik.

Et magis est animus uitai claustra coercens
et dominantior ad uitam quam uis animai.
Nam sine mente animoque nequit residere per artus
temporis exiguam partem pars ulla animai,
sed comes insequitur facile et discedit in auras
et gelidos artus in leti frigore linquit.
At manet in uita cui mens animusque remansit:
quamuis est circum caesis lacer undique membris
truncus, adempta anima circum membrisque remota
uiuuit et aetherias uitalis suscipit auras.
Si non omnimodis, at magna parte animai
priuatus, tamen in uita cunctatur et haeret;
ut, lacerato oculo circum si pupula mansit
incolumis, stat cernundi uiuata potestas,
dummodo ne totum corrumpas luminis orbem
et circum caedas aciem solamque relinquo;
id quoque enim sine pernicie non fiet eorum.
At si tantula pars oculi media illa peresa est,
occidit extemplo lumen tenebraeque secuntur,
incolumis quamuis alioqui splendidus orbis.
Hoc anima atque animus uincti sunt foedere semper.
Nunc age, natiuos animantibus et mrotalis
esse animos animasque leuis ut noscere possis,
conquisita diu dulcique reperta labore
digna tua pergam disponere carmina uita.
Tu fac utrumque uno sub iungas nomine eorum,
atque animam uerbi causa cum dicere pergam,
mortalem esse docens, animum quoque dicere credas,
quatenus est unum inter se coniunctaque res est.

Principio quoniam tenuem constare minutis
corporibus docui multoque minoribus esse
pricipiis factam quam liquidus umor aquai
aut nebula aut fumus —nam longe mobilitate
praestat et a tenui causa magis icta mouetur;
quippe ubi imaginibus fumi nebulaeque mouetur:
quod genus in somnis sopiti ubi cernimus alte
exhalare uaporem altaria ferreque fumum;

400

405

410

415

420

425

430

Eta arima baino gehiago, gogo da bizi-langen itxitzaile eta biziaren jaun. Zeren adimen eta gogo gabe, arimaren ezein zatik ezin baitu unetxo batez ere lohadarretan egon, aitzitik haiei darraie lagun menkor, airean ezabatzen da eta lohadar izoztuak heriotzaren hoztasunean uzten ditu. Adimen-gogoak geratzen zaizkionak, ostera, bizerik dirau; lohadarrak mozturik, enbor-motz badago ere, inguruko arima erauzi eta gorputzetik banandu bada ere, bizi da eta eterraren bizi-hatsak hartzen ditu. Dena ez bada ere, arima zati handi bat falta duela, hala ere, iraun eta biziari datxeko; begi inguru zauriturik, begininiak osorik badirau, ikusteko ahalmen biziak ere halaxe darrai, begiaren globo osoa apurtzen eta beginini inguru guztia ebaki eta berau bakarrik uzten ez baduzu; hau ere ez baita gertatuko euren heriotza gabe. Ostera, begiaren erdiko puntutxo hura karraskatzen bada, argia bertan iraungitzen da eta ilunpea dator, globo distiratsua osorik egon arren. Honelakoxe itunean bat eginda dagoz betiko arima eta gogo.

Adi orain, bizidunen gogoak eta arima finak jaio eta hil egiten direla jakin dezazun, luzaz eta lan gozoan ikertu dudana azaltzen saiatzera bainoa, zure duin diren bertsoetan. Har itzazu biak izen beraren pean eta, esaterako, arimaz mintzo banaiz, hilkorra dela irakatsiz, uler gogoaz ere ari naizela, elkarren arteko batasunean loturik baitagoz. Lehenik, gorputz niminoz osaturiko zer finfina, uraren umore likidoa edo lainoa edo kea osatzen dutenak baino askoz txikiagoz egina dela irakatsi dizudanez gero (mugikortasunean askoz gehiago baita eta sakada askoz xumeagoz mugitzen baita, kearen eta lainoaren irudiekin ere mugitzeraino; lo gagozela, ametsetan aldareek baporea exhalatzen eta kea gorantz doala ikusten dugunean bezala; ez baitago dudarik irudiok guganaino heltzen direla), edontziak apurtzean, ura nondinahi isurtzen eta likidoa alde egiten, eta lainoa eta kea ere airean ezabatzen ikusten baduzu,

nam procul haec dubio nobis simulacra geruntur—
nunc igitur quoniam quassatis undique uasis
diffluere umorem et laticem discedere cernis
et nebula ac fumus quoniam discedit in auras,
crede animam quoque diffundi multoque perire
ocius et citius dissolui <in> corpora prima,
cum semel ex hominis membris ablata recessit.
Quippe etenim corpus, quod uas quasi constitit eius,
cum cohibere nequit conquassatum ex aliqua re
ac rarefactum detracto sanguine uenis,
aere qui credas posse hanc cohiberier ullos,
corpore qui nostro rarus magis incohibens sit?

435

Praeterea gigni pariter cum corpore et una
crescere sentimus pariterque senescere mentem.
Nam uelut infirmo pueri teneroque uagantur
corpore, sic animi sequitur sententia tenuis.
Inde ubi robustis adoleuit uiribus aetas,
consilium quoque maius et auctior est animi uis.
Post ubi iam ualidis quassatum est uiribus aeu
corpus et obtusis ceciderunt uiribus artus,
claudicat ingenium, delirat lingua, <labat> mens,
omnia deficiunt atque uno tempore desunt.
Ergo dissolui quoque conuenit omnem animai
naturam, ceu fumus, in altis aeris auras;
quandoquidem gigni pariter pariterque uidemus
crescere et, <ut> docui, simul aeuo fessa fatisci.

445

450

455

Huc accedit uti uideamus, corpus ut ipsum
suscipere inmanis morbos durumque dolorem,
sic animum curas acris luctumque metumque;
quare participem leti quoque conuenti esse.
Quin etiam morbis in corporis auius errat
saepe animus; dementit enim deliraque fatur
interdumque graui lethargo fertur in altum
aeternumque soporem oculis nutuque cadenti,
unde neque exaudit uoces nec noscere uoltus
illorum potis est, ad uitam qui reuocantes

460

465

sinestu behar duzu arima ere askoz bizkorrago ezabatzen eta hiltzen
eta arinago disolbatzen dela lehenkietan, gizakiaren lohadarretatik
apartatzen eta aldentzen denean. Izan ere, bere ontzia bezalakoa den
gorputzak, zerbaitegatik urraturik edo xumeturik, eutsi ezin badio eta
odolak zainetatik alde egin badu, nola usteko duzu aireak euts die-
zaiokeela, gure gorputza baino xumeago eta ez-eusleago izanik?

Gainera, arima gorputzarekin batera sortzen eta parean hazten
eta batera zahartzen dela dakusgu. Zeren, haurrak gorputz ahulez eta
bigunez kilikolo dabilzan bezala, zentzuna ere halakoxe biguna dau-
kate. Gero, indarra sendotu ahala, adina heldutakokan, adimena ere
handitzen eta gogo indarra gehitzen da. Ondoren, adinaren zartako
bortitzek gorputza zigortu eta lohadarrak indar-kamuts jausitakoan,
burua herrentzen, mihia deliratzen, adimena lokatzen eta dena batera
higatzen da eta huts egiten du. Beraz, arimaren izate guztia ere disol-
batzea bidezko da, kea goiko aire lekuetan bezala; batera jaiotzen eta
batera hazten ikusten baititugu eta, esan bezala, batera lurjotzen, adi-
nak ahiturik.

Honez gainera, gorputzak berak gaitz ankerrak eta min gogo-
rrak jasaten dituenek, arima ere horrelaxe jotzen du ardura latzak,
lutuak eta beldurrak; bidezko da, beraz, heriotzan ere kide izan dadin.
Areago oraindik, gogo sarritan gorputzaren minetan noraezik ibil-
tzen da; erotzen eta deliratzen da eta inoiz letargia larriak lozorro
sakon eta luzean sartzen du, begiak eta burua jausirik, ez abotsik
entzun, ez bizira deituz inguratzen duen aurpegirik ezagutzeke,

circumstant lacrimis rorantes ora genasque.
Quare animum quoque dissolui fateare necessest,
quandoquidem penetrant in eum contagia morbi.
Nam dolor ac morbus leti fabricator uterquest,
multorum exitio perdocti quod sumus ante.

[Et quoniam mentem sanari corpus ut aegrum
et pariter mentem sanari corpus inani]
Denique cur, hominem cum uini uis penetrauit
acris et in uenas discessit diditus ardor,
consequitur grauitas membrorum, praepediuntur
crura uacillanti, tardescit lingua, madet mens,
nant oculi, clamor singultus iurgia glicunt,
et iam cetera de genere hoc quaecumque secuntur,
cur ea sunt, nisi quod uemens uiolentia uini
conturbare animam consueuit corpore in ipso?
At quaecumque queunt conturbari inque pediri,
significant, paulo si durior insinuarit
causa, fore ut pereant aeuo priuata futuro.

Quin etiam subito ui morbi saepe coactus
ante oculos aliquis nostros, ut fulminis ictu,
concidit et spumas agit, ingemit et tremat artus,
desipit, extantat neruos, torquetur, anhelat
inconstanter, et in iactando membra fatigat.
Nimirum quia uis morbi distracta per artus
turbat agens animam spumas, <ut> in aequore salso
uentorum ualidis feruescunt uiribus undae.
Exprimitur porro gemitus quia membra dolore
adficiuntur et omnino quod semina uocis
eiciuntur et ore foras glomerata feruntur
qua quasi consuerunt et sunt munita uiui.
Desipientia fit, quia uis animi atque animai
conturbantur et, ut docui, diuisa seorsum
disiectatur eodem illo distracta ueneno.
Inde ubi iam morbi reflexit causa reditque
in latebras hacer corrupti corporis umor,
tum quasi uacillans primum consurgit et omnis

matrailak eta begitarte malkoztatzen. Arima ere hiltzen dela aitortu beharra dago, beraz, gaitzaren kutsadura berari ere barruratzeko baitzaio. Mina eta gaitza biak heriogile baitira, hainbat jenderen amaiak sobera irakatsia digunez.

Azkenik, ardoaren indar latzak gizakumea beragandu duenean eta haren beroa zainetan sartu eta barreiatu denean, zergatik dira lohadarrak astuntzen, hankak lokatzen, mihia trabatzen, zentzuna lainotzen, begiak lausotzen, orroak eta liskar zotintsuak bizitzen eta mozkorrean ohi diren gainerako ondorioak, zergatik gertatzen da hori, ardoaren biolentzia sutsuak arima gorputzean bertan perturbatu ohi duelako ez bada? Baina perturbatua eta eragotzia izan daitekeen edozer, kausa zerbait gogorrak barrua hartzen badio, hil egingo dela esan nahi du, geroko bizia kendurik.

Areago oraindik, sarritan gizakume bat, gaitz batek tanpez menperaturik, geure begien aurrean, oinaztuak jota bezala, luze jausten da eta bitsa dario, auhenka, gorputza dardar, deliratzeko ari da, giharreak atezuan, bihurkatzen, arnasa etenka, konbultsioek ahituta utzi arte. Argi dago lohadarretan zabalduko gaitzaren indarrak arima astintzen eta aztoratzen dutela, zelai gazian haizeen indar bortitzez irakiten eta aparretan diharduten olatuak bezala. Aieneka urratzen da, lohadarrak minez kizkurtzen baitira, eta batez ere abotsaren haziak, ahora pilaturik, jaurtiak eta kanporatuak direlako ohi duten bide jakinetik. Zentzuna galtzen da, gogo-arimak endregatzen direlako, eta hauek, esan bezala, banatu egiten dira, pozoin harekek hautsiririk eta erautziririk. Gero, gaitzaren sorburuak amore eman eta gorputz ustelduaren humore mingotsa bere gordelekura itzultzen denean, alboalboka lehenengotan, tentetu bezala egiten da, apurka-apurka senera-

paulatim redit in sensus animamque receptat.
Haec igitur tantis ubi morbis corpore in ipso
iactentur miserisque modis distracta laborent,
cur eadem credis sine corpore in aere aperto
cum ualidis uentis aetatem degere posse?

Et quoniam mentem sanari, corpus ut aegrum,
cernimus et flecti medicina posse uidemus,
id quoque praesagit mortalem uiuere mentem.
Addere enim partis aut ordine traiecere aequum
aut aliquid prosum de summa detrahare hilum,
commutare animum quicumque adoritur et infit
aut aliam quamuis naturam flectere quaerit.
At neque transferri sibi partis nec tribui uult
inmortale quod est quicquam neque defluere hilum.
Nam quodcumque suis mutatum finibus exit,
continuo hoc mors est illius quod fuit ante.
Ergo animus siue aegrescit, mortalia signa
mittit, uti docui, seu flectitur a medicina.
Usque adeo falsae ratione uera uidetur
res occurrere et effugium praeccludere eunti
ancipitique refutatu conuincere falsum.

Denique saepe hominem paulatim cernimus ire
et membratim uitalem deperdete sensum;
in pedibus primum digitos liuscere et unguis,
inde pedes et crura mori, post inde per artus
ire alios tractim gelidi uestigia leti.
Scinditur atque animae haec quoniam natura nec uno
tempore sincera existit, mortalis habendast.
Quod si forte putas ipsam se posse per artus
introsum trahere et partis conducere in unum
atque ideo cunctis sensum diducere membris,
at locus ille tamen, quo copia tanta animai
cogitur, in sensu debet maiore uideri;
qui quoniam nusquamst, nimirum ut diximus <ante>,
dilaniata foras dispargitur, interit ergo.
Quin etiam si iam libeat concedere falsum

505

510

515

520

525

530

535

540

tuz eta arima beraganduz. Eta gogoa eta arima, gorputz barruan ber-
tan ere, hain gaitz handien eta hain urradura errukarrien mende bada-
goz, nola eroan dezaketela uste duzu bizimodua gorputz gabe, aire
agerian, haize bortitzen erdian? Eta adimena, gorputz gaixoa bezala,
osatzen eta erremediora makurtzen dela baitakusgu, horrexek ere adi-
menaren bizia hilkorra dela diragar. Bidezko baita zatiren batzuk gehi-
tzea edo alderantztea edo baturatik zerbait, fitsa bada ere, kentzea,
gogoa aldatu edo beste edozein substantziari eragin guran dabilenak.
Hilezkorra denak, ordea, ez du uzten zatirik alda ez erants diezaioten,
ez ezer eskapa dakion. Zeren zeozer, mutaturik, bere mugetatik kan-
poratzen bada, horrek lehenago izan zenaren heriotza dakar berbertan.
Arimak, beraz, gaixotzen dela nahiz erremediora makurtzen dela, hil-
korra dela erakusten du, irakatsia dudanez. Hain da ziurra egiazko
errealitateak uste faltsuari aurre egiten, irtenbide oro ixten eta aho
biko errefutazioz okerra aitorrarazten diola.

Azkenik, gizakumea apurka-apurka eta atalez atal joaten eta
bizi sentimena galtzen maiz ikusten dugu; lehenik oinetako behatz eta
atzazalak ubeltzen, gero oinak eta bernak hiltzen, ondoren, herio hoz-
minaren oinatzak beste lohadar guztietan arrastatzen. Eta arimaren
izaera hau, zatitzen bai, baina osoan batera irteten ez denez gero, hil-
kortzat eduki behar da. Zeren, uste baduzu berak bere zatiak lohada-
rretan barrurantzten eta batean biltzen ahal dituela eta horrela sentipe-
na lohadar guztietatik aparta dezakeela, orduan hain arima kopuru
handia pilatzen den toki hark sentipentsuago agertu behar du; eta hau
ez baita inon gertatzen, argi dago, arestian esan bezala, zatika kanpo-
ra jaurtia dela eta, beraz, hil egiten dela. Eta gezurra onartzera eta

et dare posse animam glomerari in corpore eorum,
lumina qui lincunt moribundi particulatim,
mortalem tamen esse animam fateare necesse,
nec refert utrum pereat dispersa per auras
an contracta suis e partibus obbrutescat,
quando hominem totum magis ac magis undique sensus
deficit et uitae minus et minus undique restat.

Et quoniam mens est hominis pars una, loco quae
fixa manet certo, uelut aures atque oculi sunt
atque alii sensus qui uitam cumque gubernant,
et ueluti manus atque oculus narsue seorsum
secreta ab nobis nequeunt sentire neque esse,
sed tamen in paruo licentur tempore tabe,
sic animus per se non quit sine corpore et ipso
esse homine, illius quasi quod uas esse uidetur
siue aliud quid uis potius coniunctius ei
fingere, quandoquidem conexu corpus adhaeret.
Denique corporis atque animi uiuata potestas
inter se coniuncta ualent uitaeque fruuntur;
nec sine corpore enim uitalis edere motus
sola potest animi per se natura nec autem
cassum anima corpus durare et sensibus uti.
Scilicet auolsus radicibus ut nequit ullam
dispicere ipse oculus rem seorsum corpore toto,
sic anima atque animus per se nil posse uidetur.
Nimirum quia <per> uenas et uiscera mixtim,
per neruos atque ossa, tenentur corpore ab omni
nec magnis interuallis primordia possunt
libera dissultare, ideo conclusa mouentur
sensiferos motus quos extra corpus in auras
aeris haut possunt post mortem eiecta moueri
propterea quia non simili ratione tenentur.
Corpus enim atque animans erit aer, si cohibere
sese anima atque in eos poterit concludere motus
quos ante in neruis et in ipso corpore agebat.
Quare etiam atque etiam resoluta corporis omni
tegmine et eiectis extra uitalibus auris,

arima, zatika hilez, argia uzten dutenen gorputzean pilatzen dela
sinestera apeturik ere, arima hilkorra dela aitortu beharko litzateke,
eta berdin dio airean ezabaturik hil zein zatiak kontraktaturik basatu,
sentipena gizakume osoari nondinahi joaten-joaten ari baitzaio eta
bizia nondinahi gutxitzen-gutxitzen.

Eta adimena gizakiaren zati bat bakarrik denez gero, toki jaki-
nean finkaturik dagoena, belarriak eta begiak eta bizia gobernatzen
duten beste sentipenak bezala, eta eskuek eta begiek edo sudurrek
guregandik berex sentitzerik ez izaterik ez daukaten bezala, denbora
laburrean ustelmenean desegiten baizik, halaxe ezin du gogoak bere
kabuz bizi gorputzetik eta gizakitik beragandik at, zeina harentzat
edontzi bat bezalakoa den, edo harekin batuago egoteko irudikatu nahi
duzun beste zeozer, gorputza konexioz atxikitzen baitzaio.

Gorputz-arimen bizi ahalmenak, beraz, euren arteko batasuna-
gatik dira sendo eta daukate bizia; zeren gorputz gabe arimaren izaer-
ak ezin baitu bere kabuz mugida bitalik igorri, ez gorputzak dezake,
arima kenduta, izan ez sentipenik erabil. Alegia, bere sustraietatik ate-
ratak begiak, gorputz osotik apartaturik, ezer ikusi ezin duen bezala,
halaxe, noski, ezin dute gogoak eta arimak ere eurenez ezer egin. Izan
ere, zain eta haragi eta nerbio eta hezurretan zehar nahasturik, gorputz
osoan atxikita baitagoz eta, bitarte handirik gabe, ezin dute libreki
jauzi egin eta, horrela zarraturik, sentipenaren mugidak eragiten
dituzte, gorputzetik kanpora eragiteko gauza ez direnak, hil ondoren
aire finera jaurtiak izan direnean, jadanik era hartan atxikirik ez dago-
zelako. Airean gorputz eta bizidun izango bailitzateke, beragan arima
atxikitzeke eta lehen honek nerbioetan eta gorputzean bertan eragiten
zitzen mugidak eginarazi ahal balizkio. Behin eta berriz, beraz, gor-

dissolui sensus animi fateare necessest
atque animam, quoniam coniunctast causa duobus.

Denique cum corpus nequeat perferre animai
discidium quin in taetro tabescat odore
quid dubitas quin ex imo penitusque coorta
emanarit uti fumus diffusa animae uis,
atque ideo tanta mutatum putre ruina
conciderit corpus, penitus quia mota loco sunt
fundamenta, foras manante anima usque per artus
perque uiarum omnis flexus, in corpore qui sunt,
atque foramina? Multimodis ut noscere possis
dispertitam animae naturam exisse per artus
et primus esse sibi distractam corpore in ipso,
quam prolapsa foras enaret in aeris auras.

Quin etiam finis dum uitae uertitur intra,
saepe aliqua tamen e causa labefacta uidetur
ire anima ac toto solui de corpore <uelle>
et quasi supremo languescere tempore uoltus
molliaque exsanguis cadere omnia <corpore> membra.
Quod genus est, animo male factum cum perhibetur
aut animam liquisse; ubi iam trepidatur et omnes
extremum cupiunt uitae reprehendere uinclum.
Conquassatur enim tum mens animaeque potestas
omnis et haec ipso cum corpore conlabefiunt;
ut grauior paulo possit dissoluere causa.

Quid dubitas tandem quin extra prodita corpus
imbecilla foras in aperto, tegmine dempto,
non modo no omnem possit durare per aeom
sed minimum quoduis nequeat consistere tempus?
Nec sibi enim quisquam moriens sentire uidetur
ire foras animam incolumem de corpore toto
nec prius ad iugulum et supera succedere fauces,
uerum deficere in certa regione locatam;
ut sensus alios in parti quemque sua scit
dissolui. Quod si immortalis nostra foret mens,

putzaren bilkina desegin eta bizi hatsa kanpora jaurtitakoan, gogoaren
sentipena disolbatu egiten dela aitortu behar da, baita arima ere, bien
izatea loturik baitago.

Azkenik, gorputzak ezin baitu arimaren joakera kirats higuin-
garran usteldu gabe jasan, zergatik zagoz dudan arimaren indarrak,
gure barren-barrenetik hara, keak bezala alde egiten duela eta, gorpu-
tza hondakin ustel bihurturik jausi bada, bere oinarriak hankazgoratu
direlako dela, arima lohadar eta gorputzean diren bide bihurri eta poro
guztietatik zehar eriotean? Horra nola hainbat modutan jakin dezake-
zun arimaren izaera gorputzean zabaldua lohadarretan zehar irten dela
eta gorputzean bertan ere dagoeneko urraturik zegoela, airearen hatsetan
flotatzera lerratu aurretik.

Areago oraindik, arima bizi mugen barruan ari deno, ezbeha-
rren batek jotakoan, joan guran eta gorputz osotik askatu guran
ematen du eta, azken unean bezala, aurpegia zurbiltzen eta lohada-
rrak lokatzen eta gorputza jota geratzen da. Horixe gertatzen da nor-
baiti gaitzak eman diola edo konortea galdu duela esaten denean;
denak ikaratzen eta biziaren azken haria birkorapilatzen saiatzen
dira. Orduan gogoa eta arimaren ahalmen oro dardaratzen dira, gor-
putzarekin berarekin desegin zorian; zartada zerbait gogorragoz
disolbatu egingo lirake. Zergatik zagoz dudan, beraz, gorputzetik
kanpora jaurtitako arima ahulak, aire zabalean eta babesgabetuak,
ezin duela, betiraun osoan ez ezik, denborarik laburrenean ere
iraun? Izan ere, ez dirudi ezein hilurrenek sentitzen duenik arima
onik irteten zaiola gorputz osotik, ezta aurretik zintzurrera eta ahora
igotzen zaionik ere, aitzitik, ordea, kokaturik dagoen tokian bertan
iraungitzen zaiola; beste sentimenak ere bakoitza bere tokian disol-
batzen direla sentitzen duenez. Zeren, gure gogoa hilezkorra balitz,

non tam se moriens dissolui conquereretur,
sed magis ire foras uestemque relinquere, ut anguis.

Denique cur animi numquam mens consiliumque
gignitur in capite aut pedibus manibusue, sed unis
sedibus, et certis regionibus omnibus haeret,
si non certa loca ad nascendum reddita cuique
sunt, et ubi quicquid possit durare creatum,
atque ita multimodis partitis artubus esse,
membrorum ut numquam existat praeposterus ordo?
Usque adeo sequitur res rem neque flamma creari
fluminibus solitast neque in igni gignier algor.

Praeterea is immortalis natura animaist
et sentire potest secreta a corpore nostro,
quinque, ut opinor, eam faciundum est sensibus auctam.
Nec ratione alia nosmet proponere nobis
possumus infernas animas Acherunte uagare.
Pictores itaque et scriptorum saecla priora
sic animas intro duxerunt sensibus auctas.
At neque sorsum oculi neque nares nec manus ipsa
esse potest animae neque sorsum lingua, neque aures;
haud igitur per se possunt sentire neque esse.

Et quoniam toto sentimus corpore inesse
uitalem sensum et totum esse animale uidemus,
si subit medium celeri praeciderit ictu
uis aliqua ut sorsum partem secernat utramque,
dispertita procul dubio quoque uis animai
et discissa simul cum corpore dissocietur.
At quod scinditur et partis discedit in ullas,
scilicet aeternam sibi naturam abnuis esse.
Falciferos memorant currus abscidere membra
saepe ita de subito permixta caede calentis,
ut tremere in terra uideatur ab artubus id quod
decidit abscisum, cum mens tamen atque hominis uis
mobilitate mali non quit sentire dolorem;
et simul in pugnae studio quod dedita mens est,

ez litzateke hiltzean disolbatzeaz hain kexu, kanporatzeaz eta soine-
koa uzteaz poztu baizik, sugea bezala.

615 Azkenik, adimena eta zentzuna zergatik ez dira inoiz buruan
edo hanketan edo eskuetan sortzen, beti egoitza bakarrean eta alde
jakinean egoten baizik, bakoitzari jaiotzeko toki jakina eman zaiolako
620 ez bada, han sorturik, bertan iraun ahal dezan, eta bere parte ezberdi-
nak lohadarren ordenarik inoiz ez hankazgoratzeko moduan dagoze-
lako? Honela zer bata besteari darraio eta ez surik sortu ohi da ibaian
ez izotzik jaioko suan.

625 Gainera, arimaren izaera hilezkorra bada eta gure gorputzetik
bereiz senti badezake, bost sentimenez hornituzat jo behar da, nik
uste. Ezin dugu arimarik beste inola irudikatu, lurpeko Akeronten
zehir galdurik. Antzinako pintoreek eta idazleek horrelaxe adierazi
zituzten arimak, sentimenez hornituak. Baina ariman ezin da begirik
bereiz egon, ez sudurrik, ez eskurik, ez mihirik, ez belarririk; beraz,
arimek ezin dute eurenez sentitu ez izan.

630 Eta bizi-sentimena gorputz osoan dagoela eta hau dena bizidu-
na dela sentitzen dugunez gero, indarren batek bat-batean zartada
azkarrez erdibitu eta zati biak bereiz utziko balitu, arimaren indarra
ere gorputzarekin batera ebakia eta erdibitua litzateke. Baina ebaki-
635 tzen eta zati bihurtzen denak argi dago izaera eternala edukitzeari uko
egiten diola. Igitai erako gurdiak sarritan, hilketaren beroan, hain bat-
batean mozten omen dituzte lohadarrek, ezen gorputzari kendutako
zatia lurrean dardar ikusten omen baita, nahiz eta adimenak eta gizo-
naren arimak, kolpearen azkarrez, minik sentitu ezin; eta aldi berean,
640 gogoia burrukaren lehiari emana dela, geratu zaion gorputzarekin

corpore reliquo pugnam caedesque petessit,
nec tenet amissam laeuam cum tegmine saepe
inter equos abstraxe rotas falcesque rapaces,
nec cecidisse alius dextram, cum scandit et instat.
Inde alius conatur adempto surgere crure,
cum digitos agitat propter moribundus humi pes.
Et caput abscisum calido uiuenteque trunco
seruat humi uoltum uitalem oculosque patentis,
donec reliquias animai reddidit omnis.
Quin etiam tibi si lingua uibrante minanti
serpentis cauda procero corpore utrumque
sit libitum in multas partis discidere ferro,
omnia iam sorsum cernes ancisa recenti
uolnere tortari et terram conspergere tabo,
ipsam seque retro partem petere ore priorem
uolneris ardenti ut morsu premat icta dolore.
Omnibus esse igitur totas dicemus in illis
particulis animas? At ea ratione sequetur
unam animantem animas habuisse in corpore multas.
Ergo diuisast ea quae fuit una simul cum
corpore; quapropter mortale utrumque putandumst,
in multas quoniam partis disciditur aequae.

Praeterea si immortalis natura animai
constat et in corpus nascentibus insinuat,
cur super anteactam aetatem meminisse nequimus
nec uestigia gestarum rerum ulla tenemus?
Nam si tanto operest animi mutata potestas,
omnis ut actarum exciderit retinentia rerum,
non, ut opinor, id ab leto iam longius errat;
quapropter fateare necessest quae fuit ante
interiisse et quae nunc est nunc esse creatam.

Praeterea si iam perfecto corpore nobis
inferri solitast animi uiuata potestas
tum cum gignimur et uitae cum limen inimus,
haud ita conueniebat uti cum corpore et una
cum membris uideatur in ipso sanguine cresse,

650

655

660

665

670

675

680

burruka eta hilketa gose da, eta sarritan, zaldi artean, ez da kontura-
tzen igitai zorrotzun gurplek esku ezkerre ezkutu eta guzti eraman
diotenik, ez eskuina galdu duenik, horman gora lehian doala. Han
beste bat hanka-motz zutitzen saiatzen da, oin hilurrenak lurrean
oraindik behatzei eragiten diela. Enbor bero eta oraindik bizirik moztu-
tako buruak aurpegia bizirik eta begiak zabalik kontserbatzen ditu
lurrean, arimaren hondar guztiak entregatu arte. Areago oraindik,
mihi bibrakor buztan mehatxati gorputz eskergako suge baten erdi
biak burdinaz zati-zati egiteari ematen badiozu, zati moztu berriak
bihurtzen eta lurra zorrez likintzen ikusiko duzu, eta aurre partea
atzeari heltzera itzultzen, haginkada sutu batez zauriaren mina ken-
tzeko. Zati guzti horietako bakoitzean arima osoa dagoela esan behar
al dugu? Orduan bizidun bakarrak gorputzean arima asko zeuzkala
atera beharko genuke. Lehen bakarra zen arima, beraz, gorputzarekin
batera zatitu da; beraz, biak hilkor direla pentsatu behar da, biak ber-
din zati askotan banatuak baitira.

Gainera, arimaren izaera hilezkorra bada eta jaiokeran gorpu-
tzetan barnatzen bada, zergatik ezin dugu iragan bizitarik gogoratu
ez egindako ezeren aztarrenik gorde? Zeren, arimaren ahalmenak ira-
ganaren gomuta erabat jausteraino aldatu badira, apenas hori, neuk
uste, heriotzatik urrun dabilen; aitortu beharra dago, beraz, lehen zen
arima hil zela eta orain dena oraintxe sortua izan dela.

Gainera, arimaren indar bitala gorputz jadanik perfektuan barn-
natzen bazaigu, jaiokeran eta bizitzako ataria zapalkeran hain zuzen,
ez da bidezko gorputzarekin eta lohadarrekin batera, odolean bertan,

sed uelut in caeua per se sibi uiuere solam
conuenit, ut sensu corpus tamen affluat omne.
Quare etiam atque etiam neque originis esse putandumst
expertis animas nec leti lege solutas.
Nam neque tanto opere adnecti potuisse putandumst
corporibus nostris extrinsecus insinuatās—
quod fieri totum contra manifesta docet res.
Namque ita conexa est per uenas uiscera neruos
ossaque, uti dentes quoque sensu participantur;
morbus ut indicat et gelidai stringor aquai
el lapis oppressus subitis e frugibus asper—
nec, tam contextae cum sint, exire uidentur
incolumes posse et saluas exsoluere sese
omnibus e neruis atque ossibus articulisque.
Quod si forte putas extrinsecus insinuatam
permanare animam nobis per membra solere,
tanto quique magis cum corpore fusa peribit.
Quod permanat enim dissoluitur, interit ergo.
Dispertitur enim per caulas corporis omnis.
Ut cibus, in membra atque artus cum diditur omnis,
disperit atque aliam naturam sufficit ex se,
sic anima atque animus quamuis [est] integra recens <in>
corpus eunt, tamen in manando dissoluuntur,
dum quasi per caulas omnis diduntur in artus
particulae quibus haec animi natura creatur,
quae nunc in nostro dominatur corpore nata
ex illa quae tunc periit partita per artus.
Quapropter neque natali priuata uidetur
esse die natura animae nec funeris experts.

Semina praeterea linquntur necne animai
corpore in exanimo? Quod si linquntur et insunt,
haut erit ut merito immortalis possit haberia,
partibus amissis quoniam libata recessit.
Sin ita sinceris membris ablata profugit
ut nullas partis in corpore liquerit ex se,
unde cadauera racenti iam uiscere uermes
expirant atque unde animantum copia tanta

685

690

695

700

706

710

715

720

hazten ikus dezagun, aitzitik bere baitan bakarrik, kaiolan bezala, bizi
behar luke, nahiz eta bere sentimena gorputz osoan zabaldu. Behin eta
berriz, beraz, ez dago pentsatzerik arimek sorrera gabeak eta herio
legetik libreak direnik. Ezin baita pentsatu, kanpotik sarturik, gure
gorputzekin hainbestean bat egin zezaketenik -errealitate nabariak
guztiz bestelakoa darakuskigu. Hain dago egon ere elkarloturik zain,
haragi, nerbio eta hezurretan, ezen hortzek ere sentimena baitaukate;
hagineko minak, ur leituaren zistadak eta janari mastekatuan bat-bate-
an aurkitzen den harriak adierazten duenez-; ezta, hain bat eginik
egonda, osorik irten eta onik jarein daitezkeenik ere hainbeste nerbio,
hezur eta giltzaduren artetik. Zeren beharbada uste baduzu arima kan-
potik sarturik bizi ohi dela gure lohadarretan, hainbat arrazoi gehiago,
gorputzarekin bat eginda hil dadin. Hedatzen dena disolbatu egiten
baita, hil, beraz. Gorputzaren zirritu guztietan zehar zabaltzen baita.
Janariak, gorputz eta lohadar guztietan zehar zabaldurik, desagertzen
eta beragandik beste izate bat ekoizten duenez, halaxe arimak eta
gogoak, gorputz jaioberrian osorik sartu arren, zabalkeran disolbatu
egiten dira, arimaren izaera egiten duten partikulak zirritu guztietan
zehar lohadarretara zabaltzen diren bitartean; arima horixe da orain
nagusi gure gorputzean, lehen lohadarretan zabaltzean hil zen hartatik
sorturik. Hortik argi dago arimaren izaera ez dagoela ez jaiotegun
gabe ez heriotzatik libre.

Bestetik, gorputz bizigabeen arimaren hazirik geratzen da ala
ez? Zeren, geratzen eta barruan bada, ezingo da arima hilezkortzat
zuzen jo, zatiak galdurik, murriztuta joan baita. Ostera, lohadrak
osorik dituela alde egin badu, gorputzean beretik zati bat ere utzi
gabe, hilotzek nondik sortzen dituzte harrak, ustelkeran, eta halako
bizidun pilo hezurgabe eta odolgabea nondik darie lohadar hanpatuei?

exos et exsanguis tumidos perfluctuat artus?
Quod si forte animas extrinsecus insinuari
uermibus et priuas in corpora posse uenire
credis nec reputas cur milia multa animarum
conueniant unde una recesserit, hoc tamen est ut
quaerendum uideatur et in discrimen agendum,
utrum tandem animae uenentur semina quaeque
uermiculorum ipsaeque sibi fabricentur ubi sint,
an quasi corporibus perfectis insinuentur.
At neque cur faciant ipsae quareue laborent
dicere suppeditat. Neque enim, sine corpore cum sunt,
sollicitae uolitant morbis alguque fameque.
Corpus enim magis his uitiis adfinae laborat
et mala multa animus contagio fungitur eius.
Sed tamen his esto quamuis facere utile corpus
cui subeant; at qua possint, uia nulla uidetur.
Haut igitur faciunt animae sibi corpora et artus.
Nec tamen est utqui perfectis insinuentur
corporibus; neque enim poterunt subtiliter esse
conexae neque consensu contagia fient.

Denique cur acris uiolentia triste leonum
seminium sequitur, uolpes dolus, et fuga ceruis
a patribus datur et [a] patrius pauor incitat artus,
et iam cetera de genere hoc cur omnia membris
ex ineunte aeuo generascunt ingenioque,
si non, certa suo quia semine seminioque,
uis animi pariter crescit cum corpore quoque?
Quod si immortalis foret et mutare soleret
corpora, permixtis animantes moribus essent,
effugeret canis Hyrcano de semine saepe
cornigeri incursum cerui tremeretque per auras
aeris accipiter fugiens ueniente columba,
desiperent homines, saperent fera saecla ferarum.
Illud enim falsa fertur ratione, quod aiunt
immortalem animam mutato corpore flecti.
Quod mutatur enim dissoluitur, interit ergo.
Traiciuntur enim partes atque ordine migrant;

725

730

735

740

745

750

755

Zeren beharbada uste baduzu arimak harrengan kanpotik sar eta bakoitza gorputz batean koka daitezkeela eta ez baduzu kalkulatzen milaka arima nola etor daitekeen bakarra joan zen lekura, badago, hala ere, galdegarri eta aztergarri zaizun zer bat, alegia, ea arima bakoitza bera datorren harraren hazietara, bere egonlekua berak egiteko, ala ea gorputz amaitura sartzen den. Baina ez dago inondik argitzerik zergatik eurek egiten duten gorputza edo zergatik arazo hori hartzen duten. Zeren, gorputz gabe bizkor hegatzean, ez baitaukate gaixorik, ez hotzik, ez goserik; aitzitik, okerrok gorputza jotzen dute eta gogoak beronen kutsutik hartzen du hainbat gaitz. Baina emazu bertan sartzeko gorputz bat egitea ongarri zaiola; nola dezaketen ez da ikusten. Arimek ez dute, bada, eurentzat gorputzik eta lohadarrrik egiten. Eta gorputz amaituetan sartzea ere ezinezkoa da; ezingo bailukete haiekin sutilki bat egin, ez sentikidetasunez elkar ukitu.

Azkenik, zergatik dirau biolentzia zorrotzak lehoien enda ilunean, maltzurkeriak azeriengan, eta zergatik ematen diote gurasoek oreinei iheserako sena eta lohadarrak kinatzen dizkie jatorrizko izuak, eta zergatik sortzen dira honelako guztiak lehen adinetik lohadarretan eta jitean, hazi eta enda jakin bakoitzean arimaren indarra gorputzaren pare haziz doalako ez bada? Zeren hilezkorra balitz eta gorputza aldatuko balu, bizidunen azturak nahastu egingo lirateke, hirkaniar endatik harako txakurrak sarritan ihes egingo lioke orein adardunari, belatza airearen hatsetan dardaratu eta hanka egingo luke, usoa etortzean, gizakiak zentzugabetu eta piztiak zentzudun lirateke. Uste okerra baita diotenena arima hilezkorra egokitu egiten dela gorputzez aldatzean. Aldatzen dena disolbatu egiten baita, hil, beraz. Bere zatiak desleketzen eta lerrotik kanporatzen baitira;

quare dissolui quoque debent posse per artus,
denique ut intereant una cum corpore cunctae.
Sin animas hominum dicent in corpora semper
760 ire humana, tamen quaeram cur e sapienti
stulta queat fieri, nec prudens sit puer ullus,
[si non, certa suo quia semine seminioque]
nec tam doctus equae pullus quam fortis equi uis.
Scilicet in tenero tenerascere corpore mentem
765 confugient. Quod si iam fit, fateare necessest
mortalem esse animam, quoniam mutata per artus
tanto opere amittit uitam sensumque priorem.
Quoue modo poterit pariter cum corpore quoque
confirmata cupitum aetatis tangere florem
770 uis animi, nisi erit consors in origine prima?
Quidue foras sibi uult membris exire senectis?
An metuit conclusa manere in corpore putri
et domus aetatis spatio ne fessa uetusto
775 obruat? At non sunt immortalis ulla pericla.
Denique conubia ad Veneris partusque ferarum
esse animas praesto deridiculum esse uidetur,
expectare immortalis mortalia membra
innumero numero certareque praeproperanter
780 inter se quae prima potissimaque insinuetur;
si non forte ita sunt animarum foedera pacta
ut quae prima uolans aduenerit insinuetur
prima neque inter se contendant uiribus hilum.

Denique in aethere non arbor, non aequore in alto
785 nubes esse queunt nec pisces uiuere in aruis
nec cruor in lignis neque saxis sucus inesse.
Certum ac dispositumst ubi quicquid crescat et insit.
Sic animi natura nequit sine corpore oriri
sola neque a neruis et sanguine longius esse.
790 Quod si posset enim, multo prius ipsa animi uis
in capite aut umeris aut imis calcibus esse
posset et innasci quauis in parte soleret,
tandem in eodem homine atque in eodem uase manere.
Quod quoniam nostro quoque constat corpore certum

zatiok ere, beraz, lohadarretan disolbatu ahal izan behar dute, azkenean denak gorputzarekin hiltzeko. Baina gizakien arimak beti giza gorputzetara doazela badiote, oraindik galdetuko dut zergatik daitekeen jakintsutik tentela sor, zergatik ezein umek ez daukan esperientziarik, [[bere hazi eta enda jakinetik harakoa ez bada]], edo zergatik ez den moxala zaldi egina bezain trebea eta indartsua. Segurrenik, aitzakia emango du gorputz bigunean arima bigundu egiten dela. Hori horrela bada, arima hilkorra dela aitortu behar da, gorputzez aldatzean, hain guztiz galtzen baititu bizia eta aurreko sentimenak. Arimak nola ahalko du gorputzarekin batera indartu eta adin-lore desiratua harrapatu, jatorrian bertan sorkide ez bada? Zergatik ihes egin nahi du lohadar zahartuetatik? Beldur ote da gorputz ustelkorrean preso gelditzeko eta urteek ahituriko etxea honda dakion? Hilezkorrentzat ez dago inongo arriskurik baina.

Honela, bada, barregarria dirudi arima Venusen ezteietan eta basa piztien erditzeetan arteko izatea eta hilezkorrak ezin kontatu ahala gorputz hilkorren bila aritzea eta elkarren artean lehiaz burrukatzea, nor lehenen eta behinen sartuko; baldin arimak euren artean itundu ez badira, hegan lehenen iritsia lehenen sar dadin, elkar jo eta hausten ekin gabe.

Zuhaitzik ezin da, bada, zeruan egon, ez hodeirik itsas leizeetan, ez arrainik lehorrean bizi, ez odolik zurean, ez zukurik haitzen barruan. Zer non hazi eta bizi finkaturik eta ordenaturik dago. Honela, arimaren izaerak ezin du gorputz gabe bakarrik sortu, ez nerbioetatik eta odoletik urrun ibili. Zeren, ahal izatera, arimaren indarra askoz aisago jar bailiteke buruan edo sorbaldetan edo orpo barrenetan eta edonon jaioko bailitzateke, nahiz eta gizakume edo ontzi berean gelditu.

dispositumque uidetur ubi esse et crescere possit
sorsum anima atque animus, tanto magis infitiandum
totum posse extra corpus durare genique.
Quare, corpus ubi interiit, periisse necessest
confiteare animam distractam in corpore toto.
Quippe etenim mortale aeterno iungere et una
consentire putare et fungi muta posse
desiperest. Quid enim diuersius esse putandumst
aut magis inter se disiunctum discrepitansque,
quam mortale quod est immortalis atque perenni
iunctum in concilio saeuas tolerare procellas?

Praeterea quaecumque manent aeterna necessest
aut quia sunt solido cum corpore respuere ictus
nec penetrare pati sibi quicquam quod queat artas
dissociare intus partis, ut materiai
corpora sunt quorum naturam ostendimus ante;
aut ideo durare aetatem posse per omnem,
plagarum quia sunt expertia, sicut inanest
quod manet intactum neque ab ictu fungitur hilum;
aut etiam quia nulla loci sit copia circum,
quo quasi res possint discedere dissoluique,
sicut summarum summast aeterna, neque extra
quis locus est quo diffugiant neque corpora sunt quae
possint incidere et ualida dissoluere plaga.
Quod si forte ideo magis immortalis habendast,
quod uitalibus ab rebus munita tenetur,
aut quia non ueniunt omnino aliena salutis
aut quia quae ueniunt aliqua ratione recedunt
pulsa prius quam quid noceant sentire queamus,

* * *

praeter enim quam quod morbis cum corporis aegret,
aduenit id quod eam de rebus saepe futuris
macerat inque metu male habet curisque fatigat
praeteritisque male admissis peccata remordent.
Adde furorem animi proprium atque obliuia rerum,
adde quod in nigras lethargi mergitur undas.

795

800

805

810

815

820

825

Baina, gure gorputzean ere gogoia eta arima, elkarrengandik bereiz,
non haz eta izan daitezkeen finkaturik eta ordenaturik ageri denez
gero, hainbat gehiago ukatu behar da gorputz osotik at jαιο eta iraun
dezaketetik. Horregatik, gorputza hiltzean, arima ere hiltzen dela
aitortu behar da, gorputz osoan zehar barreiatu. Hilkorra betikorra-
rekin batzea eta sentikide eta ekinkide direla pentsatzea zorakeria
baita benetan. Izan ere, zer pentsa daiteke ezberdinagorik, elkarren
kontrakoagorik eta desakortagorik, izaki hilkorra hilezkor eta betiko-
arekin bildurik, ekaitz ankerrak batasunean jasatea baino?

Gainera, betikor dirauten zer guztiek edo kolpeak aldaratu
behar dituzte, gorputz solidoa daukatelako, eta ez sartzen utzi barne
zatiak disozia ditzakeen ezeri, materiaren lehenkien kasuan bezala,
zeintzuen izaera lehen agertu dugun, edo bestela betieran irauteko
ahala behar dute, kolpeetatik libre baitagoz, hutsunea dagoen bezala,
zeinak osorik dirauen, kolpeak fisik eragiten ez diolako, edo baita
inguruan ez dagoelako nolabait nora erretiraturik eta non disolbaturik,
gauzadien batura eternalean bezala, zeinatik at ez baitago nora ihes
eginik eta hura kolpa eta zartada bortitzez hauts dezakeen gorputzik.
Zeren arima hilezkorra dela defendatu behar bada, bizi indarrez hor-
nituren omen dagoelako, edo kanpoko eragile suntsizailerik iristen ez
omen dutelako, euren eragin kaltegarria guk somatu ahal izan aurre-
tik ezetsita, [honelakorik ezer ez dagokio arimari]. Zeren, gorputzaren
gaitzekin sufritzen duenaz gainera, maiz gertatzen baitaio etorkizu-
naz ere nahigabetzea eta beldurrak gaixotzea eta ardurak higatzea eta
iraganeko erru gogoratuek hozka egitea. Gehi honi dagokion zorota-
suna eta gauzen ahanztura, gehi bere uhin beltzetan murgiltzen den
letargoa.

Nil igitur mors est ad nos neque pertinet hilum,
 quandoquidem natura animi mortalis habetur.
 Et uelut anteacto nil tempore sensimus aegri,
 ad confligendum uenientibus undique Poenis,
 omnia cum belli trepido concussa tumultu
 horrida contremuere sub altis aetheris oris,
 in dubioque fuere utrorum ad regna cadendum
 omnibus humanis esset terraque marique,
 sic, ubi non erimus, cum corporis atque animai
 discidium fuerit quibus e sumus uniter apti,
 scilicet haud nobis quicquam, qui non erimus tum,
 accidere omnino poterit sensumque mouere,
 non si terra mari miscebitur et mare caelo.
 Et si iam nostro sentit de corpore postquam
 distractast animi natura animaeque potestas,
 nil tamen est ad nos qui comptu coniugioque
 corporis atque animae consistimus uniter apti.
 Nec, si materiem nostram collegerit aetas
 post obitum rursusque redegerit ut sita nunc est
 atque iterum nobis fuerint data lumina uitae,
 pertineat quicquam tamen ad nos id quoque factum,
 interrupta semel cum sit repentia nostri.
 Et nunc nil ad nos de nobis attinet, ante
 qui fuimus, <nil> iam de illis nos adficit angor.
 Nam cum respicias immensi temporis omne
 praeteritum spatium, tum motus materiai
 multimodis quam sint, facile hoc adcredere possis,
 semina saepe in eodem, ut nunc sunt, ordine posta
 haec eadem, quibus e nunc nos sumus, ante fuisse.
 Nec memori tamen id quimus reprehendere mente;
 inter enim iectast uitai pausa uageque
 deerrarunt passim motus ab sensibus omnes.
 Debet enim, misere si forte aegreque futurumst,
 ipse quoque esse in eo tum tempore, cui male possit
 accidere. Id quoniam mors eximit, esseque probet
 illum cui possint incommoda conciliari,
 scire licet nobis nil esse in morte timendum
 nec miserum fieri qui non est posse neque hilum

830

835

840

845

850

855

865

858

860

864

866

Heriotza ez da, beraz, ezer eta ez dagokigu ezertan, arimaren
 izaera hilkorra dela uste baitugu. Eta iragan denboran inolako minik
 sentitzen ez dugun bezala, kartagotarrak nondinahi gudura etorri zire-
 nean eta gerrako burruna ikaragarriak dena, izuan dardar, eterraren
 sapai altuen azpian astindu zuenean eta noraezean gizakume guztiek
 galdetzen zutenean ea zein erreinuren menpean jaustea egokituko
 zitzaien itsas-lehorretan, horrelaxe, existitu ez gaitzenez, gure bata-
 suna osatzen duten gogo-arimen banakuntza burututakoan, ezertxo
 ere ez zaigu, ez baikara existituko, gertatzen ahalko, ez ezerk senti-
 menik mugiaraziko, lehorra itsasoarekin eta itsasoa ortziarekin nahas
 baledi ere. Eta, gure gorputzetik erauzitakoan, gogo-arimek zeozer
 senti badezate ere, guri ez digu ezer ardura, gorputz-arimen loturaz eta
 batasunez baikara garen banakoa. Eta denborak heriotza ondoren gure
 materia bildu eta berriro oraintxe dagoen bezala bateratuko balu ere,
 eta biziaren argia berriro ikusaraziko balitzaigu ere, gertaera horrexek
 ere ez liguke ardurarik, gure kontzientziaren jarraipena etenda baile-
 goke. Oraintxe ere ez digu ardura lehen zer izan ginen eta hartatik ez
 datorkigu inolako nahigaberik. Zeren denbora neurrigabearen iragan
 aldi guztiari begiratzen badiozu, materiaren mugidak zein askotariko-
 ak diren, aisa sinestu ahalko duzu orain osatzen gaituzten hazi hauek
 euren maiz egon zirela lehen oraingo ordena berean. Gure gogoak
 ezin du, ordea, hura berriro gomutaratu; gure bizitzan geraldaldi bat ger-
 tatu baitzen eta mugimendu guztiak sentimenetatik noranahi deslaidu
 baitziren. Zeren, etorkizunean miseriarik eta saminik izango bada,
 norberak ere hantxe izan beharko baitu orduan, gaitza gaineratu ahal
 dakion. Hori heriotzak galarazten eta halako zorigaitzak bil dakizkio-
 keenik existitzea eragozten duenez gero, lasai atera dezakegu herio-
 tza ez dagoela zeri beldur izanik eta existitzen ez denak ezin duela

differre an nullo fuerit iam tempore natus,
mortalem uitam mors cum immortalis ademit.

Proinde ubi se uideas hominem indignarier ipsum,
post mortem fore ut aut putescat corpore posto
aut flammis interfiat malisue ferarum,
scire licet non sincerum sonere atque subesse
caecum aliquem cordi stimulum, quamuis neget ipse
credere se quemquam sibi sensum in morte futurum.
Non, ut opinor, enim dat quod promittit et unde,
nec radicitus e uita se tollit et eicit,
sed facit esse sui quiddam super inscius ipse.
Viuos enim sibi cum proponit quisque futurum,
corpus uti uolucres lacerent in morte feraeque,
ipse sui miseret; neque enim se diuidit illum
nec remouet satis a proiecto corpore et illum
se fingit sensuque suo contaminat adstans.
Hinc indignatur se mortalem esse creatum
nec uidet in uera nullum fore more alium se
qui possit uiuus sibi se lugere peremptum
stansque iacentem <se> lacerari uriue dolere.
Nam si in morte malumst malis morsuque ferarum
tractari, non inuenio qui non sit acerbum
ignibus impositum calidis torrescere flammis
aut in melle situm suffocari atque rigere
frigore, cum summo gelidi cubat aequore saxi,
urgeriue superne obtritum pondere terrae.

Iam iam non domus accipiet te laeta, neque uxor
optima nec dulces occurrent oscula nati
praeripere et tacita pectus dulcedine tangent.
Non poteris facis florentibus esse, tuisque
praesidium. Misero misere aiunt omnia ademit
una dies infesta tibi tot praemia uitae.
Illud in his rebus non addunt nec tibi earum
iam desiderium rerum super insidet una.
Quod bene si uideant animo dictisque sequantur,
dissoluant animi magno se angore metuque.

dohakabe izan eta ez diola ardura norbait noizbait jaioa izanak, herio-
tza hilezkorrak bizitza hilkorra kendutakoan.

870

Honela, bada, gizaki bat bere buruaz deitoreka dakusunean, hil
ondoren gorputza edo hilobian ustelduko, edo garretan edo piztien
matrail artean ezabatuko zaiolako, pentsa dezakezu ez dela egiaz min-
tzo eta bihotz barruan baduela ezten ezkuturen bat, nahizta berak
ukatu hil ondoren sentimenik badela sinesten duenik. Ez baitu, nik
875 uste, agintzen duenik ematen eta horrela ez dio bere buruari bizia
errotik mozten eta apartatzen, baizik, oharkabean, bere zerbaiti bizi-
raunarazten. Izan ere, bizi delarik pentsatzen duenean gero bere hilo-
tza hegaztiak edo piztiak urratuko dutela, bere burua erruki du; ez
880 baitu bere burua hartatik bereizten eta gorputz eroritik behar beste
aldentzen, eta huraxe dela uste du eta, ondoan jarrita, bere sentimena
eransten dio. Horregatik amorratu egiten du hilkor sortu izanak eta ez
du ikusten egiazko heriotzan ez dela izango beste bere bururik, bere
buru hilari bizirik negar egingo dionik eta, bere hilotz etzanaren ondo-
885 an tente, bere urratzez eta erretzez penatuko denik. Zeren, heriotzan
piztien hagin-sari izatea okerra bada, ez dut ikusten gozago denik
sutan gar goriek xigor zaitzaten, edo ez titan ito zaitzaten, edo marmol-
harri leituaren gainean hotzak izoztu zaitzan, edo gaineko lurraren
pisuak zapal eta galka zaitzan.

890

«Gehiago ez hau etxe eztiak hartuko, ez emazte bikainik, ez
seme-alaba samurrik etorriko zaik musu lehian eta bularra gozota-
sun isilean hunkitzera. Gehiago ez duk langintza emankorrik goza-
tuko eta ez haiz eureen babes izango. Gaizo erukarri hori! -diote-;
egun dohakabe bakarrak hainbeste bizi-sari batera kentzen dik». Honelakoetan ez dute gaineratzen: «Gehiago ez hau zer guztiotako
ezeren ardurak jango». Gogoak hau ondo ikusi eta arabera min-
tzoatuko balitz, bere larrimin eta izu handia desegingo litzateke.

895

900

Tu quidem ut es leto sopitus, sic eris aevi
quod superest cunctis priuatu doloribus aegris;
at nos horrifico cinefactum te prope busto
insatiabiliter defleuimus, aeternumque
nulla dies nobis maerorem e pectore demet.
Illud ab hoc igitur quaerendum est, quid sit amari
tanto opere, ad somnum si res redit atque quietem,
cur quisquam aeterno possit tabescere luctu.
Hoc etiam faciunt ubi discubuere tenentque
pocula saepe homines et inumbrant ora coronis,
ex animo ut dicant breuis hic est fructus homullis;
iam fuerit neque post umquam reuocare licebit.
Tamquam in morte mali cum primis hoc sit eorum,
quod sitis exurat miseros atque arida torrat,
aut aliae cuius desiderium insideat rei.
Nec sibi enim quisquam tum se uitamque requirit,
cum pariter mens et corpus sopita quiescunt.
Nam licet aeternum per nos sic esse soporem,
nec desiderium nostri nos adficit ullum.
Et tamen haudquaquam nostros tunc illa per artus
longe ab sensiferis primordia motibus errant,
cum correptus homo ex somno se colligit ipse.
Multo igitur mortem minus ad nos esse putandumst,
si minus esse potest quam quod nil esse uidemus;
maior enim turbae disiectus materiai
consequitur leto nec quisquam expergitus extat,
frigida quem semel est uitai pausa secuta.

Dinique si uocem rerum natura repente
mittat et hoc alicui nostrum sic increpet ipsa
quid tibi tanto operest, mortalis, quod nimis aegris
luctibus indulges? Quid mortem congemis ac fles?
Nam si grata fuit tibi uita anteacta priorque
et non omnia pertusum congesta quasi in uas
commoda perfluxere atque ingrata interiire:
cur non ut plenus uitae conuiuia recedis
aequo animoque capis securam, stulte, quietem?

905

910

915

920

925

930

935

«Hi behintzat, heriotzan lo, horrelaxe izango haiz datozen mendeetan, samin garratz guztietatik libre; guk, oster, su beldurgarriaren ondolan, hi haustuaren gainera ase ezinka negar egingo diagu eta betiko samin hau kentzeko egunik ez zaiguk iritsiko». Honi ere galdetu beharko zaio, bada, zer den horren mingots, dena lotara eta atsedenera doalarik, inor betiko lutuan higatu ahal izateko.

Gertatu ohi da baita, mahaira okerturik, kopak eskuetan eta koroa gerizak bekokian, gizonak maiz esatea gogoz: «Gozamen hau laburra diagu gizakitxook; laster duk joana eta gero ezingo zioagu berriz deitu». Heriotzako okerrik handiena gizajoak egarri goriak kiskaltzea eta xigortzea balute, edo beste zerbaiten irritsak joko balitu bezala. Inor ez da, noski, bere buruaz edo biziaren galetzen, gorputz-ariemek elkarrekin lotan atsedean hartzen dutenean. Guregatik segi beza betiko horrelaxe loak, ez baitugu seneratzeko irritsik nabari. Eta lotan, hala ere, gure lohadarretan zehar zabalduko lehenkiak ez dira mugida sentikorretatik urrun deslaitzen, gizakume itzartua bere buruaz birjabetzen baita. Heriotza guretzat askoz gutxiago dela pentsatu behar da, izatez ezer ez dena baino gutxiago izaterik bada; heriotzari materiaren nahas-mahas eta sakabanatze handiagoa baitarraio eta inor ez baita itzarturik jaikitzen, behin biziaren eten hotza gertatuz gero.

Azkenik, gauzen izaerak abots goran gutariko norbaiti honela agiraka egingo baligu: «Zerk larritzen hau horrenbeste, hilkor hori, horren negar garratzari ekiteko? Zergatik hiltzeari horrenbeste auhen eta negar? Zeren lehengo bizitza joana horren pozgarri izan bazaik eta atsegin guztiak, gozatu aurretik, edontzi hautsira botata bezala, irris-tatu ez bazaizkik, zergatik ez haiz erretiratzen, biziliar ase hori, eta zergatik ez diok atsedean segurrari gogoz heltzen, tentel horrek? Eta, irristaturik, atsegin oro agortu eta bizitza gaitzi bazaik, zergatik gehi-

Sin ea quae fructus cumque es periere profusa
 uitaque in offensust, cur amplius addere quaeris,
 rursus quod pereat male et ingratum occidat omne,
 non potius uitae finem facis atque laboris?
 Nam tibi praeterea quod machiner inueniamque,
 quod placeat, nil est: eadem sunt omnia semper.
 Si tibi non annis corpus iam marcet et artus
 confecti languent, eadem tamen omnia restant,
 omnia si perges uiuendo uincere saecla.
 atque etiam potius, si numquam sis moritururus;
 quid respondemus, nisi iustam intendere litem
 naturam et ueram uerbis exponere causam?
 Grandior hic uero si iam seniorque queratur
 atque obitum lamentetur miser amplius aequo,
 non merito inclamet magis et uoce increpet acri?
 Aufer abhinc lacrimas, baratre, et compesce querellas.
 Omnia perfunctus uitai praemia marces.
 Sed quia semper aues quod abest, praesentia temnis,
 imperfecta tibi elapsast ingrataque uita
 et nec opinanti mors ad caput adstitit ante
 quam satur ac plenus possis discedere rerum.
 Nunc aliena tua tamen aetate omnia mitte
 aequo animoque aedum gnatis concede: necessest.
 Iure, ut opinor, agat, iure increpet inciletque
 Cedit enim rerum nouitate extrusa uetustas
 semper, et ex aliis aliud reparare necessest.
 Nec quisquam in baratrum nec Tartara deditur atra.
 Materies opus est ut crescant postera saecla,
 quae tamen omnia te uita perfuncta sequentur;
 nec minus ergo ante haec quam tu cecidere, cadentque.
 Sic alid ex alio numquam desistet oriri
 uitaque mancipio nulli datur, omnibus usu.
 Respice item quam nil ad nos anteacta uetustas
 temporis aeterni fuerit, quam nascimur ante.
 Hoc igitur speculum nobis natura futuri
 temporis exponit post mortem denique nostram.
 Numquid ibi horribile apparet, num triste uidetur
 quicquam, non omni somno securius extat?

940 tu nahi diok bera ere txarto hilko eta alferrik akabatuko den ezer,
 biziari eta nekeari azkena eman beharrean? Honezkero ez baitiat hiri
 laket izateko ezer makinatzerik ez asmatzerik: dena bera duk beti.
 Hire gorputza urteek zimeldurik eta lohadar nekatuak makaldurik
 945 egon ez arren, beti zer bera geratzen zaik, nahiz eta biziluzean belau-
 naldi guztiak gainditu, areago oraindik, nahiz eta inoiz hilko ez». Zer
 erantzun, naturaren kexua zuzena dela eta bere hitzetan egiazko arra-
 zoia azaltzen duela baizik?

950 Eta baldin helduagoa eta zaharragoa kexatzen bada eta gizajo-
 ak heriotza behar baino gehiago deitoratzen badu, ez ote dio are arra-
 zoi handiagoz aldarri eta abots garratzagoz agiraka egingo? «Ken
 955 malkook hemendik, tripontzi horrek, eta utz erostei! Bizi-sari guztiak
 952 dastaturik, zimeltzen ari haiz. Baina beti falta dena desiatzen eta dago-
 ena muzintzen duanez gero, bizitza erdizka eta pozik gabe irristatu
 954 zaik, eta ustekabeen ohaburuan heriotza agertu zaik, denaz aserik eta
 956 beterik abiatu aurretik. Utz orain hire adinari arrotz zaizkion gauza
 guztiok eta egiek arin eta gogoz gazteei leku: nahitaezkoa duk». Zuzen
 liharduke, nik uste; zuzen egingo luke akar eta gaitzespen.
 Zahartzaroak amore ematen baitu, gaztetasunak iraitzia, eta zer bata
 bestetik berritu behar baita. Ezer ez da leizearen eta Tartaro beltzaren
 esku geratzen. Materia behar da, belaunaldi berriak hazteko, eta eurok
 ere, bizitza burutuakoan, zuri darraizkizuke; eta lehengoak ez zuen
 zureak baino gutxiago egin eta egingo. Honela, zer bata bestetik sor-
 tzea ez da sekula geratuko, eta bizia inori ez zaio jabegoan ematen,
 965 denei erabilgoan baizik. Begira gu jaio aurreko denbora eternalako
 iragana ere zer hutsa den guretzat! Horixe dugu, hain zuzen, naturak
 gure heriotza ondoko etorkizunaren ispilutzat erakusten diguna. Ageri
 al da bertan ezer izugarririk, ikusten al da ezer tristerik, ez al da amets
 guztiak baino segurragoa?

Atque ea nimirum quaecumque Acherunte profundo
 prodita sunt esse, in uita sunt omnia nobis.
 Nec miser inpendens magnum timet aere saxum 980
 Tantalus, ut famast, cassa formidine torpens;
 sed magis in uita diuom metus urget inanis
 mortalis casumque timent quem cuique ferat fors.
 Nec Tityon uolucres ineunt Acherunte iacentem
 nec quod sub magno scrutentur pectore quicquam 985
 perpetuam aetatem possunt reperire profecto:
 quamlibet immani proiectu corporis extet,
 qui non sola nouem dispessis iugera membris
 optineat, sed qui terrai totius orbem,
 non tamen aeternum poterit perferre dolorem 990
 nec praebere cibum proprio de corpore semper.
 Sed Tityos nobis hic est, in amore iacentem
 quem uolucres lacerant atque exest anxius angor
 aut alia quauis scindunt cuppedine curae.
 Sisyphus in uita quoque nobis ante oculos est, 995
 qui petere a populo fascas saeuasque secures
 imbibit et semper uictus tristisque recedit.
 Nam petere imperium quod inanest nec datur umquam
 atque in eo semper durum sufferre laborem,
 hoc est aduerso nixantem trudere monte 1000
 saxum quod tamen <e> summo iam uertice rusum
 uoluitur et plani raptim petit aequora campi.
 Deinde animi ingratham naturam pascere semper
 atque explere bonis rebus satiareque numquam,
 quod faciunt nobis annorum tempora, circum 1005
 cum redeunt fetusque ferunt uariosque lepores,
 nec tamen explemur uitai fructibus umquam,
 hoc, ut opinor, id est, aeuo florente puellas
 quod memorant laticem pertusum congerere in uas,
 quod tamen expleri nulla ratione potestur. 1010
 Cerberus et FURIAE iam uero et lucis egestas,
 Tartarus horriferos eructans faucibus aestus,
 qui neque sunt usquam nec possunt esse profecto;
 sed metus in uita poenarum pro male factis
 est insignibus insignis, scelerisque luella, 1015

Eta, egia esan, Akeronte sakonean omen dagoen guztia bizitza
 honetantxe daukagu. Tantalos dohakabeak ez dauka, diotenez, airean
 zintzilik dagoen harritzarraren beldurrik, izularri hutsalean gogortu-
 rik; aitzitik, bizitzan bertan sakatzen die hilkorrei jainkoe beldurrik
 eta bakoitzari zoriak ezarriko dion kolpearen ikarak. Saiek ez diote
 erasotzen Akeronten datzan Tiziori eta ziur ezingo luketela haren
 bular zabalean ezer miatzekorik aurkitu sekulorun sekulotan. Haren
 gorputz etzana denik eskergarena balitz ere, haren lohadar hedatuek,
 bederatzi goldealdi ez ezik, lurbira osoa hartuko balute ere, ezingo
 luke min eternalik eraman, ez bere gorputz propiotik jana ematen beti
 jardun. Tizio hementxe geure baitan dugu, amodioan etzana, saiek
 zatitzen dutena eta larritasun antsiosak irensten edo beste edozein gri-
 naren kezka urratzen duena. Sisifo ere bizitzan bertan daukagu begi
 aurean, herriari azaoak eta aizkora ankerrak eskatzeko egarriz eta
 beti meperaturik eta tristeki atzera eginez. Zeren hutsala eta inoiz ez
 lortzekoa den agintea eskatzea eta horretantxe beti neke latzean eki-
 tea, horixe baita mendian gora lehiaz sakatzea tontorretik berriro
 beherantz iraulkatzen eta barreneko lautadara amiltzen den harriari.
 Bestalde, gure gogo eskergabearen gurariak bazkatzen beti aritzea,
 gauza onez bete eta inoiz ez asetzea, urtarok egin ohi duten moduan,
 beti itzuliz eta uztak eta deneriko atseginak ekarritz, eta, hala ere, bizi-
 tzako fruituekin inoiz nahikotzen ez garela, horixe da, nik uste, lore-
 adineko neskatoek gogoratzen dutena, inola ere bete ez daitekeen
 edontzi zulatura ura botaz. Zerbero eta Furiak eta argirik eza eta
 Tartaro, ahotik gar izugarriak ok eginez, ez dira inon eta izan ere ez
 daitezke benetan. Baina bizitza honetan gaizkintza larriei penen bel-
 dur larria dagokie, eta krimenaren zigorra, espetxea eta haitz erpine-
 tik behera jaurtize lazgarria, idizilkadak, borreroak, lakioa, bikea,

carcer et horribilis de saxo iactu deorsum,
uerbera carnifices robur pix lammina taedae;
quae tamen etsi absunt, at mens sibi conscia factis
praemetuens adhibet stimulos torretque flagellis,
nec uidet interea qui terminus esse malorum
possit, nec quae sit poenarum denique finis,
atque eadem metuit magis haec ne in morte grauescant.
Hic Acherusia fit stultorum denique uita.

1020

Hoc etiam tibi tute interdum dicere possis:
lumina sis oculis etiam bonus Ancu reliquit
qui melior multis quam tu fuit, improbe, rebus.
Inde alii multi reges rerumque potentes
occiderunt, magnis qui gentibus imperitarunt.
Ille quoque ipse, uiam qui quondam per mare magnum
strauit iterque dedit legionibus ire per altum
ac pedibus salsas docuit super ire lacunas
et contempsit equis insultans murmura ponti,
lumine adempto animam moribundo corpore fudit.
Scipiadas, belli fulmen, Carthaginis horror,
ossa dedit terrae proinde ac famul infimus esset.
Adde repertoires doctrinarum atque leporum,
adde Heliconiadum comites; quorum unus Homerus
sceptra potitus eadem aliis sopitu quietest.
Denique Democritum postquam matura uestustas
admonuit memores motus languescere mentis,
sponte sua leto caput obuius obtulit ipse.
Ipse Epicurus obit decurso lumine uitae,
qui genus humanum ingenio superauit et omnis
restinxit, stellas exortus ut aetherius sol.
Tu uero dubitabis et indignabere obire?
Mortua cui uita est prope iam uiuo atque uidenti,
qui somno partem maiorem conteris aeu
et uigilans stertis nec somnia cernere cessas
sollicitamque geris cassa formidine mentem
nec reperire potes tibi quid sit saepe mali, cum
ebrius urgeris multis miser undique curis
atque animo incerto fluitans errore uagaris.

1025

1030

1035

1040

1045

1050

xafla gorria, zuziak; eta honelakorik ez badago, gogoak, hala ere, gaiz-
kintzen jakitun, aurrez beldurturik, berak bere burua eztenkatzen eta
zigorkadaz erretzen du eta ez dakus bere gaitzen muga zein izan dai-
tekeen ez zein izango den bere penen azkena, eta beldur da penok ez
ote diren hiltzean handituko. Hortxe bilakatzen da infernu, hain zuzen,
tentelen bizitza.

Hau ere tarteka esan zeniezaioke zeure buruari: «Anko onak
ere begiak itxi zizkioan argiari, gauza askotan hi baino hobea izan
arren, gaizto hori. Geroztik beste hamaika errege eta ahaltsu hil izan
duk, laterri handiak menperatu ondoren. Behinola itsaso handia ireki
eta legioei ur handian zehar bidea eman eta olatu gazien gainean oinez
joaten irakatsi ziena eta, zaldi gainean bertara jauzi eginez, itsasoaren
arrabotsa arbuiatu zuena, huraxe ere argigabetua izan zuan eta arima
gorputz hilkorretik kanpora jaurti zian. Eszupiondar hark ere, gerrako
oinaztu, Kartagoren izu, hezurak lurrari eman zizkioan, azken otsei-
na bailitzan. Gehi zientziaren eta ederraren sortzaileak, gehi musen
lagunak; hauen gailur paregabe den Homero bera ere besteen lozorro
berean zatzak. Demokritok, azkenik, zahartzaro helduak karguarazi
zitonean oroimenaren mugidak gogoan ahultzen ari zitzaizkiola, berak
bere kabuz eskaini zioan heriotzari bere burua. Epikuro ere, adimene-
an giza enda gainditu eta, eguzkiaren irteerak izarrak eterrean bezala,
denak itzali zituen, biziaren argia iraungitzean, hil egin zuan. Hi,
berriz, zalantzan eta hiltzeko muzinez egongo al haiz? Nor eta hi, bizi-
dun eta ikustun izan arren, bizia ia hila duana, denborarik gehiena
lotan galtzen, itzarrik zurrungatzen eta amesgintzari uzten ez dioana,
arima izu funtsgebaz larriturik darabilkana eta sarritan zer gaitz dau-
kaan ere igarri ezin duana, amaibako gaitzek sarritan gizajo hori, hor-
diturik, nondinahi estutzen hautenean eta gogo zalantzatiz, jitoan flo-
tatuz, alderrai habilenean?».

Si possent homines, proinde ac sentire uidentur
pondus inesse animo quod se grauitate fatiget,
e quibus id fiat causis quoque noscere et unde
tanta mali tamquam moles in pectore constet,
haud ita uitam agerent, ut nunc plerumque uidemus
quid sibi quisque uelit nescire et quaerere semper
commutare locum quasi onus deponere possit.
Exit saepe foras magnis ex aedibus ille,
esse domi quem pertaesumst, subitoque <reuertit>,
quippe foris nilo melius qui sentiat esse.
Currit agens mannos ad uillam praecipitanter,
auxilium tectis quasi ferre ardentibus instans;
oscitat extemplo, tetigit cum limina uillae,
aut abit in somnum grauis atque obliuia quaerit,
aut etiam properans urbem petit atque reuisit.
Hoc se quisque modo fugit, at quem scilicet, ut fit,
effugere haut potis est; ingratiis haeret et odit
propterea, morbi quia causam non tenet aeger;
quam bene si uideat, iam rebus quisque relictis
naturam primum studeat cognoscere rerum,
temporis aeterni quoniam, non unius horae,
ambigitur status, in quo sit mortalibus omnis
aetas, post mortem quae restat cumque, manenda.

Denique tanto opere in dubiis trepidare periculis
quae mala nos subigit uitai tanta cupido?
Certe equidem finis uitae mortalibus adstat
nec deuitari letum pote quim obeamus.
Praeterea uersamur ibidem atque insumus usque
nec noua uiuendo procunditur ulla uoluptas.
Sed dum abest quod auemus, id exsuperare uidetur
cetera; post aliud, cum contigit illud, auemus
et sitis aequa tenet uitai semper hiantis.
Posteraque in dubiis fortunam quam uehat aetas,
quidue ferat nobis casus quiue exitus instet.
Nec prorsum uitam ducendo demimus hilum
tempore de mortis nec deliberare ualemus,
quo minus esse diu possimus forte perempti.

1055

1060

1065

1070

1075

1080

1085

Gizakiek, ariman astuntasun akigarria sentitzen duten bezala, zertatik datorren eta paparra zanpatzen dien gaitz puska hain handia nondikoa den jakin ahal balute, ez lirateke horrela biziko, gehienez ikusten ditugun moduan, zer nahi duten ez dakitela eta beti lekuz aldatu guran, zama uztekoa bailitzan. Horrelakoa maiz irtengo da jauregitik at, etxean gogait eginik, eta berehala itzuliko, kanpoan ez baitzen batere hobeto aurkitzen. Baserrira lasterka doa, zaldikoei hanka-jokoa eraginez, suak hartutako etxeari laguntzera ziztuan bezala; bat-batean, baserriko atalburua zapaldu dueneko, aharrasui egiten du, edo nekaturik lotara doa, ahanztura bila, edo baita hirira itzultzeko arin prestatu ere. Horrelaxe ihes egiten dio nork bere buruari, baina gehienez ezin du alde egin; bere buruari desgogoz inkaturik gelditzen da eta gorroto du, ez baitu ulertzen, eri dela, gaitzaren zergatirik; hau ondo ikusiko balu, dena utzi eta lehenik gauzen izaera ezagutzen saiatuko litzateke, ordu batena barik, betiraunaren izaera jokatzeko baita, non hilkorrek igaro beharko duten hil ondoren geratzen zaien denbora guztia.

Azkenik, zein bizinahi gaizto eta hain handik eragiten digu hainbesteko dardara hain arrisku dudazkoetan? Biziazen azkena hilko-erentzat erabakita dago, noski, eta inor ezingo gara heriotzari aurre egitetik libratu. Gainera, beti leku berean dihardugu eta diraugu eta luza-roago bizitzeak ez liguke atsegin berririk ekarriko. Baina, desio duguna falta duguno, huraxe iruditzen zaigu denak baino hobea; hura lortutakoan, beste bat nahi dugu, eta bizi-egarri leratsu berak gauzka beti.

Proinde licet quot uis uiuendo condere saecla;
mors aeterna tamen nilo minus illa manebit,
nec minus ille diu iam non erit, ex hodierno
lumine qui finem uitai fecit, et ille,
mensibus atque annis qui multis occidit ante.

1090

Dudazkoa da geroak nolako zoria ekarriko digun, azareak zer emango digun eta nolako azkena zain daukagun. Eta ezin dugu, bizitza luzatuz, heriotzaren denbora izpirik kendu ez laburtu, deusezpena behar bada laburragoa izan dakigun. Bizi zintezke, beraz, nahi beste mendetan; heriotza eternalak ez dizu horregatik gutxiago itxarongo, eta biziaren amaia gaurko argian etorri zaionak ez du ez-izate laburragoa izango hainbat hilabete eta urte lehenago hil zenak baino.

LIBER QUARTUS

CAPITULA

1. SIBI IUCUNDISSIMUM ESSE QUOD
CLARAM LUCEM MORTALIBUS OSTENDAT
29. DE SIMULACRIS
98. DE IMAGINIBUS
116. QUAM PARVA SINT ANIMALIA
127. ESSE ITEM MAIORA
131. DE NUBIBUS ET SIMULACRA GIGNI
176. DE CELERITATE
230. TACTU VIDERI
269. ULTRA SPECULUM CUR VIDEATUR
312. EX TENEBRIS IN LUCE QUAE SINT VIDERI
ET RUSUM EX LUCE QUAE SUNT IN
TENEBRIS VIDERI NON POSSE
326. PLURES IMAGINES CUR FIANT
353. DE TURRIBUS
364. DE UMBRA HOMINIS
387. DE VISU
476. DE VERO SENSU QUARE
COGNOSCATUR
513. DE FALSO SENSU
524. DE AUDITIS

LAUGARREN LIBURUA

KAPITULUAK

1. HILKORREI ARGI GARDENA ERAKUSTEN DIENA
OSO ATSEGINA DELA NORBERETZAT
29. SIMULAKROEZ
98. IRUDIEZ
116. ANIMALIAK ZEIN TXIKIAK DIREN
127. HANDIAK ERE BADIRELA
131. HODEIEN ETA SIMULAKROEN SORRERAZ
176. ABIADURAZ
230. UKIMENEZ IKUSTEA
269. ISPILUAZ BESTE ALDEAN ZERGATIK IKUSTEN DEN
312. ILUNPETIK ARGITAN DAGOENA IKUS
DAITEKEELA ETA ARGITATIK ILUNPEAN
DAGOENIK EZIN IKUSI
326. ZERGATIK SORTZEN DEN IRUDI MORDOA
353. DORREEZ
364. GIZA GERIZAZ
387. IKUSMENAZ
476. SENTIMEN EGIAZKOTIK ZERGATIK EZAGUT
DAITEKEEN
513. SENTIMEN FALTSUAZ
524. ENTZUMENAZ

526. CORPOREAM ESSE VOCEM
572. DE VOCIS IMAGINIBUS
595. QUA VISUS NON TRANET VOCEM
TRANARE
615. DE SAPORE
633. QUARE ALIA ALIIS CONTRARIA
SINT
673. DE ODORE
722. DE ANIMI MOTU
779. QUARE QUOD LIBUERIT STATIM
COGITEMUS
836. PRIUS OCULOS LINGUAM AURES ESSE
NATA QUAM EORUM USUM
877. DE MOTU MEMBRORUM HOC EST
DE AMBULANDO
907. DE SOMNO QUEM AD MODUM FLAT
962. DE SOMNIIS
1030. DE REBUS VENERIIS

525. AHOTSA GORPUZTUNA DELA
572. AHOTSAREN IRUDIEZ
595. AHOTSAK ZERGATIK ZEHARTZEN DUEN
IKUSMENAK EZIN DUENA
615. ZAPOREAZ
633. ZERGATIK ZER BATZUK BESTE BATZUEN
KONTRAKOAK DIREN
673. USAINAZ
722. GOGOAREN MUGIDAZ
779. ZERGATIK PENTSATZEN DUGUN LAKET
ZAIGUN HARTAN
836. BEGIAK, MIHIA, BELARRIAK, EURON
ERABILERA BAINO LEHENAGO SORTUAK DIRELA
877. LOHADARREN MUGIDAZ, HOTS,
IBILTZEAZ
907. LOAZ, NOLA GERTATZEN DEN
962. AMETSEZ
1030. MAITE KONTUEZ

LIBER QUARTUS

Auia Pieridum peragro loca nullius ante
trita solo. Iuuat integros accedere fontis
atque haurire, iuuatque nouos decerpere flores
insignemque meo capiti petere inde coronam
unde prius nulli uelarint tempora Musae;
5 primum quod magnis doceo de rebus et artis
religionum animum nodis exsoluere pergo,
deinde quod obscura de re tam lucida pango
carmina, musaeo contingens cuncta lepore.
Id quoque enim non ab nulla ratione uidetur;
10 nam ueluti pueris absinthia taetra medentes
cum dare conantur, prius oras pocula circum
contingunt mellis dulci flauoque liquore,
ut puerorum aetas inprouida ludificetur
labrorum tenuis, interea perpotet amarum
15 absinthii laticem deceptaque non capiatur,
sed potius tali pacto recreata ualescat,
sic ego nunc, quoniam haec ratio plerumque uidetur
tristior esse quibus non est tractata, retroque
uolgens abhorret ab hac, uolui tibi suauiloquenti
20 carmine Pierio rationem exponere nostram
et quasi musaeo dulci contingere melle,
si tibi forte animum tali ratione tenere
uersibus in nostris possem, dum percipis omnem
naturam rerum ac persentis utilitatem.

LAUGARREN LIBURUA

Pierideen bazter lekuak, aurretik inor ibili gabeak, oinkatzen
ditut. Maite dut iturri ukigabeak aurkitu eta bertatik zurrut egitea eta
maite dut lore berriak jaso eta haiekin Musek sekula inor estali ez
duten koroa bikainez neure burua janztea; lehenik, zer gurenak ira-
kasten ditudalako eta gogoia erlijioen korapilo estuetatik askatzen saia-
tzen naizelako; gero, hain gai ilunari buruz hain bertso argitsuak para-
tzen ditudalako, denak musen gozotasunez ziprztindurik. Ez dirudi,
gainera, arrazoigabea denik, zeren medikuek ere, haurrei asentsio
belar higuigarria eman nahi dietenean, edontzi ertzak ezti-likore
10 gozoz eta beilegiz gantzutzen dituzten bezala, haurren adin xaloa
ezpainetan bada ere engainatzeko, asentsio ur mingotsa edaten duten
bitartean, engainuz baina ez kalterako, erremedio horrekin berri eta
sendo daitezen baizik, halaxe nik ere orain, hartan aritu gabeei gehie-
nean gure doktrina garratzagoa iruditzen zaienez eta jendea beldurtu-
rik atzeratzen denez gero, gure doktrina Pierideen hizkuntza ahogozo-
an azaldu eta Musen ezti gozoz gantzutu bezala egin nahi izan dizut,
15 ea horrela zure gogoia nire bertsoei atxikita eduki ahal dudana, gauzen
izacra guztia ikus eta horren balioa atzeman dezazun arte.

Atque animi quoniam docui natura quid esset
et quibus e rebus cum corpore compta uigeret
quoue modo distracta rediret in ordia prima,
nunc agere incipiam tibi, quod uehementer ad has res
attinet, esse ea quae rerum simulacra uocamus;
quae, quasi membranae summo de cortice rerum
dereptae, uolitant ultroque citroque per auras,
atque eadem nobis uigilantibus obuia mentes
terrificant atque in somnis, cum saepe figuras
contuimur miras simulacraque luce carentum,
quae non horrifice languentis saepe sopore
excierunt; ne forte animas Acherunte reamur
effugere aut umbras inter uiuos uolitare,
neue aliquid nostri post mortem posse relinqui,
cum corpus simul atque animi natura perempta
in sua discessum dederint primordia quaeque.
Dico igitur rerum effigias tenuisque figuras
mittier ab rebus, summo de cortice eorum.
Id licet hinc quamuis hebeti cognoscere corde.

|| Sed quoniam docui cunctarum exordia rerum
qualia sint et quam uariis distantia formis
sponte sua uolitent aeterno percita motu
quoque modo possit res ex his quaeque creari,
nunc agere incipiam tibi, quod uehementer ad has res
attinet, esse ea quae rerum simulacra uocamus,
quae quasi membranae uel cortex nominitandast,
quod speciem ac formam similem gerit eius imago,
cuius cumque cluet de corpore fusa uagari. ||

Principio quoniam mittunt in rebus apertis
corpora res multae, partim diffusa solute,
robora ceu fumum mittunt ignesque uaporem,
et partim contexta magis condensaque, ut olim
cum teretis ponunt tunicas aestate cicadae,
et uituli cum membranas de corpore summo
nascentes mittunt, et item cum lubrica serpens
exiit in spinis uestem; nam saepe uidemus

Eta gogoaren izaera nolakoa den eta zer gaiz osaturik gorpu-
tzarekin batera hazten den eta nola, desegitean, lehenkietara itzultzen
den irakatsia dizudanez gero, orain, auzi hauekin estuki loturik, gau-
zen simulakroak deritzegunak badirela azaltzen saiatuko natzaizu;
hauek, gauzen gainazaletik jareindako mintzak bezala, airean hara-
hona hegan dihardute, eta eurok izutzen dituzte, bidera irtenik, gure
gogoak, itzarrik zein lotan gagozela, irudi txundigarriak eta argigabe-
tuen simulakroak ikusten ditugunean, zeintzuek lo ahuletik izularrian
ateratzen gaituzten; ez dezagun pentsa arimek Akerontetik ihes egiten
dutenik, edo haien gerizak bizien artean hegatzan direnik, edo herio-
tza ondoren zerbait gurea gera daitekeenik, gorputz-arimak, batera
deseginik, birrindu eta euren lehenkietara itzulitakoan. Gauzek, beraz,
euren gainazaletik euren buruen efigieak eta irudi xumeak igortzen
dituztela diot. Hau gogorik kamutsenak ere uler dezake honako hone-
tatik.

[[Baina, gauza guztien lehenkiak nolakoak diren eta zein forma
ezberdinetan bereizturik hegatzan diren euren kabuz, mugida eterna-
lak eraginginda, eta nola zer bakoitza lehenki haietatik sortua izan daite-
keen irakatsia dudanez gero, orain, auzi hauekin estuki loturik, gauzen
simulakroak deritzegunak badirela azaltzen saiatuko natzaizu, mintz
edo azal antzeko deitu behar zaienak, zeren irudi bakoitzak, gero des-
lai ibiltzeko, bera kanporatu den gorputzaren itxura eta forma berdina
baitaroa.]]

Lehenik, arlo sentikorrean gauza askok gorputzak jaulkitzen
dituelako, batzuk libreki zabaltzen direnak, egurrak kea edo suak
beroa jaulkitzen duenez, eta beste batzuk ehunduagoak eta trinkoago-
ak, halanola udan txitxarrek tunika xumeak uztean eta txahal jaiobe-
rria gorputza inguratzen dion mintzetik jareitean, baita suge labainak
sasitzan soinekoa uzten duenean ere; sasiak maiz ikusten baititugu

illorum spoliis uepres uolitantibus auctas.
Quae quoniam fiunt, tenuis quoque debet imago
ad rebus mitti, summo de corpore rerum.
Nam cur illa cadant magis ab rebusque recedant
quam quae tenuia sunt, hiscendist nulla potestas;
praesertim cum sint in summis corpora rebus
multa minuta, iaci quae possint ordine eodem
quo fuerint et formai seruare figuram,
et multo citius, quanto minus indupediri
pauca queunt et <quae> sunt prima fronte locata.
Nam certe iacere ac largiri multa uidemus,
non solum ex alto penitusque, ut diximus ante,
uerum de summis ipsum quoque saepe colorem.
Et uolgo faciunt id lutea russaque uela
et ferrugina, cum magnis intenta theatris
per malos uolgata trabesque trementia flutant;
namque ibi consessum caueai supter et omnem
scaenai speciem, patrum coetumque decorum
inficiunt coguntque suo fluitare colore:
et quanto circum mage sunt inclusa theatri
moenia, tam magis haec intus perfusa lepore
omnia conrident correpta luce diei.
Ergo lintea de summo cum corpore fucum
mittunt, effigias quoque debent mittere tenuis
res quaeque, ex summo quoniam iaculantur utraque.
Sunt igitur iam formarum uestigia certa
quae uolgo uolitant subtili praedita filo
nec singillatim possunt secreta uideri.
Praeterea omnis odor fumus uapor atque aliae res
consimiles ideo diffusae rebus abundant,
ex alto quia dum ueniunt intrinsecus ortae
scinduntur per iter flexum, nec recta uiarum
ostia sunt qua contendant exire coortae.
At contra tenuis summi membrana coloris
cum iacitur, nil est quod eam discernere possit,
in promptu quoniam est in prima fronte locata.
Postremo speculis in aqua splendoreque in omni
quaecumque apparent nobis simulacra, necessessest,

65

70

75

80

85

90

95

haien uzkin hegakorrez jantzita. Honelakoak gertatzen direnez gero, gauzek irudi xume bat ere igorri behar dute euren gainazaletik. Ez baitago esplikatzerik zergatik gorputz haiek beste xumeok baino aisago jareiten eta jausten diren; batez ere gauzen gainazaletan gorpuzño asko baitagoz, zegozen ordena berean igorriak izan daitezkeenak eta formaren irudia kontserba dezaketenak, eta hainbat bizkorrago, gutxi eta lehen lerroan kokaturik, askoz traba gutxiago aurkitzen baitute. Izan ere, gorputz asko ikusten dugu dariola eta jaurtitzen, ez barrubarrutik bakarrik, gorago esan dugunez, gainazaletik baizik, sarritan kolorea bera bezala. Horixe egin ohi dute kandela beilegi, gorri eta purpurek, antzoki handietan zabaldurik, mastetan eta habeetan dardaraz flotatzen dutenean; eta azpian mailetako ikusleria eta eszenaren apaindura guztia eta senatore talde gurena euren kolore mugikorrez tindatzen eta kulunkatzen dira; eta antzokiaren barrutia zenbat eta itxiagoa izan, barruko gauza guztiek hainbat xarmatsuago barre egiten dute, egunaren argia bildurik. Beraz, oihalek gainazaletik kolorea igortzen badute, beste gauzek ere irudi xumeak igorri behar dituzte, bitzuak gainazaletik jaurtiak baitira. Badira, beraz, noranahi hegatzten diren formen adibide ziurrak, hari fin-finez eginak eta bereiz banan ikusi ezinekoak.

Gainera, usain, ke, kolore eta horrela hedatzen diren antzeko beste zer guztiak gauzetan ugari badira, barruan sortu eta handik goranzko zador bihurrietan banatzen direlako da, ez baitaukate denek batera alde egiteko irteera zuzeneko biderik. Aitzitik, ordea, gaineko kolorearen mintz xumeak, igorria izatean, ez du bera apurtzeko moduko ezer aurkitzen, kanpoan eta lehen lerroan kokatua baita.

quandoquidem simili specie sunt praedita rerum,
exin imaginibus missis consistere eorum.
[nam cur illa cadant magis ab rebusque recedant
quam quae tenuia sunt, hiscendist nulla potestas.]
Sunt igitur tenues formarum illis similesque
effigiae, singillatim quas cernere nemo
cum possit, tamen adsiduo crebroque repulso
reiectae reddunt speculorum ex aequore uisum,
nec ratione alia seruari posse uidentur,
tanto opere ut similes reddantur cuique figurae.

Nunc age, quam tenui natura constet imago
percipe. Et in primis, quoniam primordia tantum
sunt infra nostros sensus tantoque minora
quam quae primum oculi coeptant non posse tueri,
nunc tamen id quoque uti confirmem, exordia rerum
cunctarum quam sint subtilia percipe paucis.
Primum animalia sunt iam partim tantula, quorum
tertia pars nulla possit ratione uideri.
Horum intestinum quoduis quale esse putandumst?
quid cordis globus aut oculi? quid membra? quid artus?
quantula sunt? quid praeterea primordia quaeque
unde anima atque animi constet natura necessumst,
nonne uides quam sint subtilia quamque minuta?
Praeterea quaecumque suo de corpore odorem
expirant acrem, panaces, absinthia taetra
habrotonique graues et tristia centaurea,
quorum unum quiduis leuiter si forte duobus

* * *

quin potius noscas rerum simulacra uagari
multa modis multis nulla ui cassaque sensu?

Sed ne forte putes ea demum sola uagari,
quaecumque ab rebus rerum simulacra recedunt,
sunt etiam quae sponte sua gignuntur et ipsa
constituuntur in hoc caelo qui dicitur aer,
quae multis formata modis sublime feruntur,

100

105

110

115

120

125

130

135

Hitz batez, ispiluetan, uretan eta distira orotan ageri diren simulakroek, gauzen itxura bera daukatenez gero, eurok igorritako irudiak izan behar dute. [[Ez baitago esplikatzetik zergatik gorputz haiek beste xumeok baino aisago jareiten eta jausten diren.]] Badira, beraz, formen efigie xumeak eta euren antzekoak, banan inork ikustekoak izan ez arren, ispiluaren lautik islada etengabeen birjaurtiak izanik, ikusmena eragiten dutenak, eta bestela ez legoke ulertzetik nola zer bakoi-tzari bere irudi berdina emateraino kontserba daitezkeen.

Ikus orain simulakroa zer izate xumekoa den. Eta, lehenik, ikus lehenkiak gure sentimenen zer azpitik dagozen eta zer txikiagoak diren gure begiak ikusi ezin izaten hasten diren gutxien hura baino, eta bihoaz berbatxo batzuk, hauxe berau nabarmentzeko, gauza guztien lehenkiak zer fin-finak diren alegia. Lehenik, badira hain animalia niminoak, ezen euren herenik ez baitago inola ere ikusterik. Hauen edozein heste nolakoa izango dela uste duzu? Nolakoa bihotza edo begiak? Nolakoak lohadarrak? Nolakoak giltzadurak? Norainoko txikiak? Nolakoak direla esan behar da haien arima eta gogoa osatzen duten lehenkiak? Ez al dakusu zein subtilak eta mendreak izan behar duten? Gainera, bere gorputzetik usain bizia botatzen duen edozer, panazea, asentsio higuingarria, errosta gogorra edo astuzker mingotsa, hauetariko edozein bi [hatzen artean estutzen baduzu, ikusiko duzu nolako usaina ateratzen duen]

* * *

Orduan ez al duzu onartuko gauzen simulakro asko dabilela era askotara deslai, sentimenei eragiteko batere indar gabe? Baina ez uste hor deslai dabiltzanak gauzetatik jareiten diren gauzen simulakroak bakarrik direnik; badira euren kabuz sortzen eta euren osatzen direnak ere airea deritzogun zeru honetan, era askotako formetan goraino jasoak direnak, tarteka goi-goian handitzen eta, airea hegan laztanduz, ortziaren aurpegi barea apurtzen ikusten ditugun lainoak bezala.

ut nubes facile interdum concreescere in alto
cernimus et mundi speciem uiolare serenam
aera mulcentes motu. Nam saepe Gigantum
ora uolare uidentur et umbram ducere late,
iterdum magni montes auolsaque saxa
montibus anteire et solem succedere praeter,
inde alios trahere atque inducere belua nimbos.
Nec speciem mutare suam liquentia cessant
et cuiusque modi formarum uertere in oras.

Nunc ea quam facili et celeri ratione genantur
perpetuoque fluant ab rebus lapsaque cedant

* * *

semper enim summum quicquid de rebus abundat
quod iaculentur. Et hoc alias cum peruenit in res,
transit, ut in primis uitrum. Sed ubi aspera saxa
aut in materiam ligni peruenit, ibi iam
scinditur ut nullum simulacrum reddere possit.
At cum splendida quae constant opposta fuerunt
densaque, ut in primis speculum est, nil accidit horum.
Nam neque, uti uitrum, possunt transire, neque autem
scindi; quam meminit leuor praestare salutem.
Quapropter fit ut hinc nobis simulacra redundant.
Et quamuis subito, quouis in tempore, quamque
rem contra speculum ponas, apparet imago;
perpetuo fluere ut noscas e corpore summo
texturas rerum tenuis tenuisque figuras.
Ergo multa breui spatio simulacra genuntur,
ut merito celer his rebus dicatur origo.
Et quasi multa breui spatio summittere debet
lumina sol ut perpetuo sint omnia plena,
sic ab rebus item simili ratione necessesit
temporis in puncto rerum simulacra ferantur
multa modis multis in cunctas undique partis;
quandoquidem speculum quocumque obuertimus oris,
res ibi respondent simili forma atque colore.
Praeterea modo cum fuerit liquidissima caeli

133
134
136

140

145

150

155

160

165

Horrela sarritan digante aurpegiak hegan eta lekutarainoko gerizaz
ikusten dira, edo baita mendi handiak edo mendietatik erauzitako hai-
tzak ere eguzkiari aurrea hartzen edo alboan joaten, atzean beste hodei
batzuk arrastatzen eta gidatzen dituen hiena daramatela. Eta, hala ere,
etengabe dihardute, urtuz, itxura aldatzen eta formarik eta soslairik
ezberdinenak hartzen.

Ikus orain irudiok zer aisa eta arin sortzen diren eta gauzetatik
betiro erioten eta jareiten diren (...).

* * *

Zeren gainazalean geratzen dena beti jaulkitzen eta jaurtia iza-
ten ari baita. Eta beste gauza batzuetara iristean, zeharkatu egiten ditu,
beira bezalakoak batez ere. Baina harri zakarra edo zura jotzen badu,
bertan puskatzen da, inolako simulakrorik eragin ezinik. Ostera, zer
distiratsuak eta trinkoak jarkitzen bazaizkio, ispilua bezalakoak batik
bat, ez da horrelakorik gertatzen. Ezin baitu beira bezala zeharkatu, ez
bere burua apurtu; horrek erakusten du leuntasunak salbatzen duela.
Horrela simulakroek handik gure begietara jauzi egiten dute. Eta zeo-
zer denik azkarren eta noiznahi ispiluratzen baduzu ere, irudia hantxe
dukezu beti; hortik dakizu gorputzaren gainazalari ehundura xumeak
eta figura xumeak etengabe jareiten zaizkiola. Denbora laburrean
simulakro asko sortzen dira, beraz, eta zuzen esan daiteke gauza haue-
tan bat-bateko jaiotza gertatzen dela.

Eta, dena argiztaturik egon dadin, eguzkiak denbora laburrean
errainu asko igorri behar duen bezala, halatsu behar dute gauzek une
batean simulakro asko igorri, era askotan eta alde guztietarantz; zeren,
ispilua noranahi itzultzen dugula, gauzak euren forma eta kolore ber-

tempestas, perquam subito fit turbida foede,
 undique uti tenebras omnis Acherunta rearis
 liquisse et magnas caeli complesse cauernas,
 usque adeo taetra nimborum nocte coorta
 inpendent atrae formidinis ora superne;
 quorum quantula pars sit imago dicere nemost
 qui possit neque eam rationem reddere dictis.
 Nunc age, quam celeri motu simulacra ferantur
 et quae mobilitas ollis tranantibus auras
 reddita sit, longo spatio ut brevis hora teratur,
 in quem quaeque locum diuerso numine tendunt,
 suauidicis potius quam multis uersibus edam;
 paruus ut est cyni melior canor, ille gruum quam
 clamor in aetheriis dispersus nubibus austru.
 Principio persaepe leuis res atque minutis
 corporibus factas celeris licet esse uidere.
 In quo iam genere est solis lux et uapor eius
 propterea quia sunt e primis facta minutis
 quae quasi cuduntur perque aeris interuallum
 non dubitant transire sequenti concita plaga.
 Suppeditatur enim confestim lumine lumen
 et quasi protelo stimulat fulgere fulgur.
 Quapropter simulacra pari ratione necesse est
 inmemorable per spatium transcurrere posse
 temporis in puncto, primum quod paruola causa
 est procul a tergo quae prouehat atque propellat,
 quod superest, ubi tam uolucris leuitate ferantur;
 deinde quod usque adeo textura praedita rara
 mittuntur, facile ut quasuis penetrare queant res
 et quasi permanere per aeris interuallum.
 Praeterea si, quae penitus corpuscula rerum
 ex altoque foras mittuntur, solis uti lux
 ac uapor, haec puncto cernuntur lapsa diei
 per totum caeli spatium diffundere sese,
 perque uolare mare ac terras caelumque rigare,
 quid quae sunt igitur iam prima fronte parata
 cum iaciuntur et emissum res nulla moratur?
 Quone uidet citius debere et longius ire

170 dinez islatzen baitira bertan. Gainera, lehen garbi-garbi zegoen ortzi-
 ko eguraldia tanpez itsusten eta nahasten denean, ilunpe guztiek
 Akerontetik alde eta ortziko harpe handiak bete dituztela esan zene-
 zake, hain ikaragarria baita gainera datorkigun izuaren aurpegia,
 hodeien gau lazgarritik hara agertzen dena; ez dago inor gauza hauen
 irudia zein niminoa den esan eta haren neurria hitzez adieraz dezake-
 enik.

175
 180 Adi orain, simulakroek zer mugida azkarrean diharduten eta
 nolako abiadura emana zaien, aurretan zehar igerian, zer denbora
 motzean egiten duten bide luzea, euren bulko ezberdinek noranahi
 jaurtitzen dituztela, hori dena azalduko baitizut bertso ugari baino
 gozoagoetan; zisnearen kantu laburra hobea den bezala kurriloek aus-
 troaren eter-hodeietan barreiatzen duten arrabotsa baino. Lehenik,
 noiznahi ikus daiteke gauza arinak eta gorputz xehe-xeheez eginak biz-
 korrak direla. Honelakoxeak dira eguzkiaren argia eta beroa, lehenki
 txiki-txikiz eginak direlako, zeintzuek, tiriki-taukian bezala, aire artea
 zeharkatzeko nagirik ez duten, atzekoen talkek eraginik. Argia argiari
 etengabe baitarraio eta izpiari ondorengo izpiak bultz egiten.
 Simulakroek ere horrelaxe behar dituzte espazio neurrigabeak une
 batean kurritu, lehenik, atzean urrun, aurrerantz sakatzen dien printzi-
 pio txiki bat badagoelako eta, gainera, hain arintasun hegakorrez era-
 manak direlako; baita igorriak direlako hain ehundura mehatzez egin-
 da, ezen edozein gorputzetan aisa sar eta, nolabait esateko, aire bitar-
 tetik lerra baitaitezke. Gainera, gauzen barren-barrenetik kanporatuak
 diren gorpuzñoak, halanola eguzkiaren argia eta beroa, une batean
 ortzialde guztian zabaltzen eta itsas-lehorrak hegatzten eta ortzia irri-
 gatzten ikusten baditugu, zer ez dute egingo lehen lerroan prest dago-
 zenek, jaurtiak direnean eta igorrera ezerk atzeratzen ez duenean? Ez
 al dakusu askoz bizkorrago eta urrunago joan behar dutela eta ber

multiplexque loci spatium transcurrere eodem
tempore quo solis peruolgant lumina caelum?
Hoc etiam in primis specimem uerum esse uidetur
quam celeri motu rerum simulacra ferantur,
quod simul ac primum sub diu splendor aquai
ponitur, extemplo caelo stellante serena
sidera respondent in aqua radiantia mundi.
Iamne uides igitur quam puncto tempore imago
aetheris ex oris in terrarum accidat oras?
Quare etiam atque etiam mitti fateare necessest
corpora quae feriant oculos uisumque lacessant.
Perpetuoque fluunt certis ab rebus odores;
frigus ut a fluuiis, calor ab sole, aestus ab undis
aequoris exesor moerorum litora circum;
nec uariae cessant uoces uolitare per auras.
Denique in os salsi uenit umor saepe saporis;
cum mare uersamur propter, dilutaque contra
cum tuimur misceri absinthia, tangit amaror.
Usque adeo omnibus ab rebus res quaeque fluenter
fertur et in cunctas dimittitur undique partis
nec mora nec requies interdatur ulla fluendi,
perpetuo quoniam sentimus, et omnia semper
cernere, odorari licet et sentire sonare.

Praeterea quoniam manibus tractata figura
in tenebris quaedam cognoscitur esse eadem quae
cernitur in luce et claro candore, necessest
consimili causa tactum uisumque moueri.
Nunc igitur si quadratum temptamus et id nos
commouet in tenebris, in luci quae poterit res
accidere ad speciem quadrata, nisi eius imago?
Esse in imaginibus qua propter causa uidetur
cernundi neque posse sine his res ulla uideri.

Nunc ea quae dico rerum simulacra feruntur
undique et in cunctas iaciuntur didita partis;
uerum nos oculis quia solis cernere quimus,
propterea fit uti, speciem quo uertimus, omnes

210

215

220

225

230

235

240

denboran askoz ibilbide luzeagoa egin behar dutela, eguzki izpiek
zeruan zehar egiten dutena baino? Gauzen simulakroak zer mugida
azkarrean doazen adibide argia dirudi beste honek ere, hots, oskarbian
ur gardena paratu deneko, munduko izar bare argitsuak berbertan isla-
tzen dira urean. Ikusten irudia zer denbora laburrean jausten den eter
goienetik lur barrenera?

Behin eta berriz onartu beharra dago, beraz, begiak zauritzen
eta ikusmenari erasotzen dioten gorputzak igorriak direla. Halako gor-
putzei etengabe darizkie usainak, nola ibaiei freskura, eguzkiari argia,
itsas uhinei kosta inguruan hormak jaten dituen baporea; eta airean
zehar ahots ezberdinak etengabe hegan. Azkenik, itsaso inguruan
gagozanean, hezetasan gazia datorkigu ahora, asentsio belarra nahas-
ten ikusita, berriz, mingostasuna nabari dugu. Gauza guztiei horrela-
koxe jarioak dagozkie, alde guztietarantz zabaltzen direnak, eta jario
horrek ez dauka inolako atzerapenik ez etenik, etengabe ari baikara
sentitzen eta etengabe baitezakegu zernahi ikus, usain eta hotsa senti.

Gainera, ilunetan eskuz haztatu dugun forma, argiaren garden-
tasun garbian ikusten dena bera dela ezagutzen baitugu, ukimena eta
ikusmena kausa berak mugiarazi behar ditu. Orain, ordea, karratu bat
haztatu eta hark ilunetan hunkitzen bagaitu, zer izango da gure begie-
tara argitan datorren karratua, haren irudia besterik? Hortik ageri da
ikusteko printzipioa irudietan dagoela eta eurok barik ez dagoela ezer
ikusterik.

Esaten ari naizen simulakro horiek, bada, nondinahi datoz eta
noranahi igorriak dira; baina guk begiekin bakarrik ikus dezakegunez,
horregatik gertatzen da, norantz begiratzen dugun, hango zer guztiek
formaz eta kolorez jotzen gaituztela. Eta zer bakoitza guregandik zen-

res ibi eam contra feriant forma atque colore.
Et quantum quaeque ab nobis res absit, imago
efficit ut uideamus et internoscere curat.
Nam cum mittiur, extemplo protrudit agitque
aera qui inter se cumque est oculosque locatus,
isque ita per nostras acies perlabitur omnis
et quasi perterget pupillas atque ita transit.
Propterea fit uti uideamus quam procul absit
res quaeque. Et quanto plus aeris ante agitur
et nostros oculos perterget longior aura,
tam procul esse magis res quaeque remota uidetur.
Scilicet haec summe celeri ratione geruntur,
quale sit ut uideamus et una quam procul absit.

Illud in his rebus minime mirabile habendumst,
cur, ea quae feriant oculos simulacra uideri
singula cum nequeant, res ipsae perspiciantur.
Ventus enim quoque paulatim cum uerberat et cum
acre fluit frigus, non priuam quamque solemus
particulam uenti sentire et frigoris eius,
sed magis unorsum, fierique perinde uidemus
corpore tum plagas in nostro tamquam aliquae res
uerberet atque sui det sensum corporis extra.
Praeterea lapidem digito cum tundimus ipsum
tangimus extremum saxi summumque colorem,
nec sentimus eum tactu, uerum magis ipsam
duritiem penitus saxi sentimus in alto.

Nunc age, cur ultra speculum uideatur imago
percipere; nam certe penitus semota uidetur.
Quod genus illa foris quae uere transpiciuntur
ianua cum per se transpectum praebet apertum,
multa facitque foris ex aedibus ut uideantur.
Is quoque enim duplici geminoque fit aere uisus.
Primus enim citra postes tum cernitur aer,
inde fores ipsae dextra laeuaque secuntur,
post extraria lux oculos perterget et aer
alter et illa foris quae uere transpiciuntur.

245

251

250

252

255

261

260

262

265

270

275

batera dagoen bere irudiak ikus eta bereizarazten digu. Zeren, igorria
izatean, berbertan indar eta bultz egiten dio bere eta gure begien arte-
an dagoen aireari, eta berau den-dena gure begietan zehar lerratzen da,
eta begininiak garbitu bezala egiten ditu eta handik pasatzen.
Horrelaxe ikusten dugu zer bakoitza guregandik zenbatera dagoen.
Eta zenbat eta aire gehiagori aurrerantz eragin eta zenbat eta aura han-
diagoak jo gure begiak, gauza urrunago dagoela iruditzen zaigu. Esan
nahi baita dena guztiz arin gertatzen dela, aldi berean gauza bakoitza
zer den eta zenbatera dagoen ikus dezagun.

Honetan, ez dugu inola ere harrigarritzat jo behar nola, begie-
tan jotzen gaituzten simulakroak banan ikusgaitzak izanik, gauza
berak ikusten ditugun. Zeren, haizeak ere gogorrago jotzean edo hotz
zorrotzagoa sartzean, ez dugu haizearen eta hotzaren partikula
bakoitza banan sentitzen, dena batera baizik, eta gure gorputzean
kolpeak nabari ditugu, gauzaren batek kanpotik joko bailuen eta sen-
timenarentzat gorpuztuna bailitzan. Gainera, hatz batez harria jotzen
dugunean, harriaren kanpoko eta azaleko kolorea bera ukitzen dugu,
baina ez dugu berau ukimenez sentitzen, harriaren barruko gogorta-
suna baizik.

Adi orain eta entzun zergatik ikusten dugun ispiluaz handik;
benetan oso barru urrunean ematen baitu. Egitan kanpoko gauzak
ikusten ditugunean bezala da, ate irekiak ikusmena pasatzen eta etxe
barrutik kanpoko hainbat gauza bereizten uzten digunean. Ikusmen
hau ere aire bikoitzez eta errepikatuz gertatzen baita. Lehenbizi
airea ateburutik honantz ikusten dugu, ondoren atea bera ezker-
eskuin, eta gero kanpoko argia eta beste aire kolpe bat eta atez
handik benetan ikusten ditugun gauzak begietaratzen zaizkigu.

Sic ubi se primum speculi proiecit imago,
dum uenit ad nostras acies, protrudit agiturque
aera qui inter se cumquest oculosque locatus,
et facit ut prius hunc omnem sentire queamus
quam speculum. Sed ubi [in] speculum quoque sensimus ipsum,
continuo a nobis in eum quae fertur imago
peruenit et nostros oculos reiecta reusit
atque alium prae se propellens aera uoluit
et facit ut prius hunc quam se uideamus: eoque
distare ab speculo tantum semota uidetur.
Quare etiam atque etiam minime mirarier est par,

* * *

illis, quae reddunt speculorum ex aequore uisum,
aeribus binis quoniam res confit utraque.

Nunc ea quae nobis membrorum dextera pars est,
in speculis fit ut in laeua uideatur eo quod
planitiem ad speculi ueniens cum offendit imago,
non conuertitur incolumis, sed recta retrorsum
sic eliditur, ut siquis, prius arida quam sit
cretea persona, allidat pilaeue trabiue,
atque ea continuo rectam si fronte figuram
seruet et elisam retro esse exprimat ipsa.
Fiet ut, ante oculus fuerit qui dexter, ut idem
nunc sit laeuus, et e laeuo sit mutua dexter.

Fit quoque de speculo in speculum ut tradatur imago,
quinque etiam <aut> sex ut fieri simulacra suerint.
Nam quaecumque retro parte interiore latebunt,
inde tamen, quamuis torte penitusque remota,
omnia per flexos aditus educta licebit
pluribus haec speculis uideantur in aedibus esse.
Usque adeo speculo in speculum translucet imago,
et cum laeua data est, fit rusum ut dextera fiat,
inde retro rursus redit et conuertit eodem.

Quin etiam quaecumque latuscula sunt speculorum
adsimili lateris flexura praedita nostri,

Honela, ispiluaren irudia proiektatzen denean, gure begietara datorren bitartean, bere eta begien arteko airea bultzatu eta astindu egiten du eta berau ispilua baino lehenago sentiarazten digu. Baina ispilua sentitzen duguneko, guregandik irtendako irudi bat ispiluratzen da, eta handik berriro, atzera jaurtirik, gure begietara itzultzen da, bera baino lehenago ikusarazten digun beste aire kolpe bat aurrean bultzaka dakarrela: horrexegatik ematen du ispilutik hain urrun dagoela. Horregatik berriz diot ez dagoela harritu beharrik

* * *

[[ate bitartetik bezala, gauza bera gertatzea]] ispiluen leuntasunetik irudia bidaltzen dutenekin, bi gauzak aire bikunari esker gertatzen baitira.

Hona, oster, gure gorputzaren eskuin aldeak ispiluan ezkerrean ematen duela, zeren, ispiluaren laurantz datorren irudiak bera jotzen duenean, ez baita bere hartan itzultzen, baizik atzerantz zuzen egotzia da, norbaitek habe edo zutabe baten kontra, gogortu aurretik, leherturiko klerazko mozorro batek aurrez irudi zuzen bera gordeko balu bezala, kolpearen ondorioz alerantztu eta gero ere. Gertatuko da ezen lehen eskuin zena orain ezker izango dela eta, alderantziz, ezkerre eskuin.

Gertatzen da baita irudi bat ispilutik ispilura bidaltzea eta bospasei simulakro bilakatzea ere. Hala, barruan gordetzen ziren gauzak, denik ezkutuen eta alboren egon arren, ispilu mordo baten bitartez bihurtune guztietan zehar aterata, etxe barruan dagozen modu-moduan ikus daitezke. Horrelaxe islatzen da irudia ispilutik ispilura, eta ezker ageri zena eskuin bilakatzen, berriro alderantzten eta lehenera itzultzen da. Areago oraindik, ispiluaren ertzak, gure gorputz hegialak bezalatsu, kurboak direnean, irudiak zuzenetara itzultzen dizkigute, dela ispilutik ispilura jaurtia eta guregana birritan islatua hegatzan delako, dela honantzean bere baitan biratzen delako eta ispiluaren eite kurboak gureganantz itzultzen irakasten diolako. Baita esan daiteke

dexterea ea propter nobis simulacra remittunt,
aut quia de speculo in speculum transfertur imago,
inde ad nos elisa bis aduolat, aut etiam quod
circum agitur, cum uenit, imago propterea quod
flexa figura docet speculi conuertier ad nos.

Indugredi porro pariter simulacra pedemque
ponere nobiscum credas gestumque imitari
propterea quia, de speculi qua parte recedas,
continuo nequeunt illinc simulacra reuerti;
omnia quandoquidem cogit natura referri
ac resilire ab rebus ad aequos reddita flexus.

Splendida porro oculi fugitant uitantque tueri.
Sol etiam caecat, contra si tendere pergas,
propterea quia uis magnast ipsius et alte
aera per purum grauiter simulacra feruntur
et feriunt oculos turbantia composituras.
Praeterea splendor quicumque est acer adurit
saepe oculos, ideo quod semina possidet ignis
multa, dolorem oculis quae gignunt insinuando.
Lurida praeterea fiunt quaecumque tuentur
arquati, quia luroris de corpore eorum
semina multa fluunt simulacris obuia rerum,
multaque sunt oculis in eorum denique mixta,
quae contage sua palloribus omnia pingunt.

E tenebris autem quae sunt in luce tuemur
propterea quia, cum propior caliginis aer
ate init oculos prior et possedit apertos,
insequitur candens confestim lucidus aer
qui quasi purgat eos ac nigras discutit umbras
aeris illius; nam multis partibus hic est
mobiliior multisque minutior et mage pollens.
Qui simul atque uias oculorum luce repleuit
atque patefecit qua ante obsederat aer
<ater>, continuo rerum simulacra secuntur
quae sita sunt in luce, lacesuntque ut uideamus.

340

345

347

299

300

305

310

315

320

322

simulakroak geugaz batera ibiltzen eta oina ipintzen dutela eta kei-
nuak imitatzen dituztela, zeren, izan ere, ispiluaren zati batetik alde
egiten baduzu, handik ez datorke orain irudirik; naturak gauza guztiak
euron bihurtura berdinen arabera itzul eta islarazten dituelako.

Bestalde, begiek zer distiratsuei ihes eta albo egiten diete.
Eguzkiak ere itsutu egiten du, zuzen begiratzten tematuz gero, bere
indarra oso handia delako eta haren irudiak altutik aire garbian zehar
bortxaz oldartzen eta begien ehundurak jo eta mintzen dituztelako.
Areago oraindik, distira bizi orok begiak erre ohi ditu, su hazi asko bai-
tauka, begietan sartzean, min egiten duena. Laruendunek ere dakusten
guztia laru bihurtzen dute, euren gorputzetik hazi laru asko erioten
baita gauzen irudien bila, eta euren begietan ere halako asko baitago
zabaldurik, ukitzean dena horiztatzen duena. Ilunetatik argitan dagoe-
na dakusgu, zeren, gugandik hurrago dagoen aire beltza begietan lehe-
nago sartzten eta bere iluntasunez hartzen baditu ere, bat-batean aire
garden eta distiratsua darraio, nolabait begiak garbitzen eta beste aire-
aren gerizak uxatzen dituena; aire garbia sarritan higikorrago eta askoz
zeheago eta indartsuago baita. Honek begi bideak argiz bete eta lehen
aire [ilunak] oztopatzen zuena ireki duenean, argitan zegozen iru-
diak jarraian datoz eta begiei erasotzen diete, hala ikus dezagun.

Quod contra facere in tenebris e luce nequimus
propterea quia posterior caliginis aer
crassior insequitur qui cuncta foramina complet
obsiditque uias oculorum, ne simulacra
possint ullarum rerum coniecta mouere.
Quadratasque procul turris cum cernimus urbis,
propterea fit uti uideantur saepe rutundae,
angulus obtusus quia longe cernitur omnis
siue etiam potius non cernitur ac perit eius
plaga nec ad nostras acies perlabitur ictus,
aera per multum quia dum simulacra feruntur,
cogit hebescere eum crebis offensibus aer.
Hoc ubi suffugit sensum simul angulus omnis,
fit quasi ut ad turnum saxorum structa tuantur,
non tamen ut coram quae sunt uereque rutunda,
sed quasi adumbratim paulum simulata uidentur.

Umbra uidetur item nobis in sole moueri
et uestigia nostra sequi gestumque imitari;
aera si credis priuatum lumine posse
indugredi, motus hominum gestumque sequentem;
nam nil esse potest aliud nisi lumine cassus
aer id quod nos umbram perhibere suemus.
Nimirum quia terra locis ex ordine certis
lumine priuatur solis quacumque meantes
officimus, repletur item quod liquimus eius,
propterea fit uti uideatur, quae fuit umbra
corporis, e regione eadem nos usque secuta.
Semper enim noua se radiorum lumina fundunt
primaque dispereunt, quasi in ignem lana trahatur.
Propterea facile et spoliatur lumine terra
et repletur item nigrasque sibi abluit umbras.

Nec tamen hic oculos falli concedimus hilum.
Nam quocumque loco sit lux atque umbra tueri
illorum est; eadem uero sint lumina necne,
umbraque quae fuit hic eadem nunc transeat illuc,
an potius fiat paulo quod diximus ante,

348

350

355

360

365

370

375

380

Hori ezin dugu egin argitik ilunera begiratzean, zeren aire iluna, eta gizenagoa, ondoren baitator, zulo guztiak betez eta begi bideak itxiz, oldartzen zaien ezeren simulakroek begirik mugi ez dezaten. Urrunean hiri bateko dorre karratuak hautematen ditugunean, maiz gertatzen da biribil ikusten ditugula, urrunetik angelua kamustu egiten baita; angelurik ikusi ere ez da egiten eta haren kolpea hil egiten da gure begietara heldu aurretik, irudiek aire handia igaro behar dutez gero, honek, kolpe eta kolpe, haiek makaldu egiten baititu. Horregatik, angelu guztiek sentimenari ihes egiten diotenean, harri eraikina torneaturik ikusten da, ez hurretik hala ikusten eta benetan biribil direnak bezala, baizik era lanbroan hauen antza dutela. Eguzkitan geriza mugitzen, oinatzak jarraitzen eta keinuak imitatzen dizkigula dirudi; baldin argi gabeko airea mugi daitekeela uste baduzu, gizakien mugida eta keinuen atzetik; geriza deitu ohi dugun hori ez baitaiteke argi gabeko airea besterik izan. Gertatzen dena da ezen, ibilian eguzki izpiak moztu ahala, lurreko toki jakinak erreskan argi gabe gelditzen direnez, libratzen duguna argiz betetzen dela, eta horregatik gorputzaren geriza izan dena atzetik datorkigula ematen du, beti berdín. Eguzkitik argi izpi berriak erioten baitira eta lehenengoak hil egiten dira, su aurrean irundutako artilea bezala. Horregatik da zorua hain aisa argi gabe gelditzen eta berriro betetzen eta geriza beltzetatik garbitzen.

Ez dugu, hala ere, begiek ezertan huts egiten dutenik aitortzen. Euroi baitagokie argi-gerizak ikustea, dagozen lekuan dagozela; argia lehengo bera denetz, edo hemen zegoen geriza orain hara pasatu den berdina denetz, edo areago arestian esan duguna gertatzen denetz, hori

hoc animi demum ratio discernere debet,
nec possunt oculi naturam noscere rerum;
proinde animi uitium hoc oculis adfingere noli.
Qua uehimur nauis, fertur, cum stare uidetur;
quae manet in statione, ea praeter creditur ire.
Et fugere ad puppim colles campique uidentur
quos agimus praeter nauem uelisque uolamus.
Sidera cessare aetheriis adfixa cauernis
cuncta uidentur, et adsiduo sunt omnia motu,
quandoquidem longos obitus exorta reuisunt,
cum permensa suo sunt caelum corpore claro.
Solque pari ratione manere et luna uidetur
in statione, ea quae ferri res indicat ipsa.
Exstantisque procul medio de gurgite montis
classibus inter quos liber patet exitus ingens,
insula coniunctis tamen ex his una uidetur.
Atria uersari et circumcursare columnae
usque adeo fit uti pueris uideantur, ubi ipsi
desierunt uerti, uix ut iam credere possint
non supra sese ruere omnia tecta minari.
Iamque rubrum tremulis iubar ignibus erigere alte
cum coeptat natura supraque extollere montes,
quos tibi tum supra sol montis esse uidetur
comminus ipse suo contingens feruidus igni,
uix absunt nobis missus bis mille sagittae,
uix etiam cursus quingentos saepe ueruti;
inter eos solemque iacent immania ponti
aequora substrata aetheriis ingentibus oris,
interiectaque sunt terrarum milia multa
quae uariae retinent gentes et saecula ferarum.
At conlectus aquae digitum non altior unum,
qui lapides inter sistit per strata uiarum,
despectum praebet sub terras inpete tanto,
a terris quantum caeli patet altus hiatus;
nubila despiciere et caeli ut uideare uidere
corpora mirande sub terras abdita caelo.
Denique ubi in medio nobis equus hacer obhaesit
flumine et in rapidas amnis despeximus undas,

385

390

395

400

405

410

415

420

adimenak bereiztu behar du, begiek ezin baitute gauzen izaera ezagu-
tu; ez, beraz, gogoaren okerrik begiei erants. Garamatzan ontzia joan
doa, geldi dirudiela; portuan dagoenak, berriz, badoala dirudi.
Mendiak eta zelaiak poparantz iheska ikusten dira, ontzia haien aurre-
an bogatzen eta belak airatzen ditugunean. Izarrek geldi-geldi, eter
sabaian josita dirudite eta etengabe mugitzen ari dira, sorreratik sarre-
ra urrunetara ortzia gorputz argiz kurritzen baitute. Eguzkiak eta ilar-
giak ere geldi dagozela ematen dute, errealitateak badoazela esan
arren. Urrundik ikusita, bitartetik ontziak pasatzeko tarte handia utziz,
itsasoaren erditik goratzen diren mendiak batu eta irla bakarra egiten
dutela dirudi. Umeek, bira-biraka ibiltzeari uzten diotenean, atariak
biraka eta zutabeek inguruka dihardutela pentsatzen dute, nekez sines-
teraino etxe osoa ez zaiela gainera jausiko. Natura eguzkiaren distira
gorria, sutan dirdir, goian altxatzen eta mendien gainetik goratzen
hasten denean, eguzkiak gar goriz goitik berbertan ukitzen dituela
diruditen mendiok, beharbada apenas dagozen guregandik bi mila
gezikadara, apenas bostehun txabalinakadako bidean; eta horra haien
eta eguzkiaren artean itsas lautada eskergak dautzala, eterraren bazter
neurrigabeetan hedaturik, eta giza eta pizti mota ezberdineko milaka
lur dagoela bitartean. Ostera, hatz bat baino sakonago ez den ur
potxingo batek, bide galtzadetako harri artean gelditzen denak, zeru-
lurren arteko bitartea altua den bezain ikusmira sakonak eskaintzen
ditu lurperantz; hala bertan, lurpean miragarririo ezkutaturiko ortzian,
hodeiak eta ortziko gorputzak ikusi uste dituzu. Azkenik, zaldi suha-
rrak ibai erdian toton egiten badigu eta uhin bizkorrei begiratzen

stantis equi corpus transuersum ferre uidetur
uis et in aduersum flumen contrudere raptim,
et quocumque oculos traiecimus, omnia ferri
et fluere adsimili nobis ratione uidentur.
Porticus aequali quamuis est denique ductu
stansque in perpetuum paribus suffulta columnis,
longa tamen parte ab summa cum tota uidetur,
paulatim trahit angusti fastigia coni,
tectata solo iungens atque omnia dextera laeuis
donec in obscurum coni conduxit acumen.
In pelago nautis ex undis ortus in undis
sol fit uti uideatur obire et condere lumen;
quippe ubi nil aliud nisi aquam caelumque tuentur;
ne leuiter credas labefactari undique sensus.
At maris ignaris in portu clauda uidentur
nauigia aplustris fractis obnitiis undis.
Nam quaecumque supra rorem salis edita pars est
remorum, recta est, et recta superne gubernata;
quae demersa liquore obeunt, refracta uidentur
omnia conuerti sursumque supina reuerti
et reflexa prope in summo fluitare liquore.
Raraque per caelum cum uenti nubila portant
tempore nocturno, tum splendida signa uidentur
labier aduersum nimbos atque ire superne
longe aliam in partem ac ue<ra> ratione feruntur.
At si forte oculo manus uni subdita subter
pressit eum, quodam sensu fit uti uideantur
omnia quae tuimur fieri tum bina tuendo:
bina lucernarum florentia lumina flammis
binaque per totas aedis geminare supellex
et duplicis hominum facies et corpora bina.

Denique cum suauiter deuinxit membra sopore
somnia et in summa corpus iacet omne quiete,
tum uigilare tamen nobis et membra mouere
nostra uidemur, et in noctis caligine caeca
cernere censemur solem lumenque diurnum,
conclusoque loco caelum mare flumina montis

425

430

435

440

445

450

455

badiegu, abere geldiaaren gorputzari indar batek daragoiola eta ibaiaz
kontra arrastatzen duela dirudi; eta begiak nonahi jarri, dena antzera
doala eta dariola begitantzen zaigu. Arkupea ere, dena maila berdine-
an egina eta alderik alde zutabe berdinez euskarrtua izan arren, mutur
batetik bere luzera osoan ikusita, apurka-apurka konoaren punta
zorrotzeraino estutzen da, sapaia zoruarekin eta eskuina ezkerarekin
elkarturik, konoaren mutur ilunean denak bat egin arte. Itsasoan ola-
tuetatik sortutako eguzkia olatuetan hiltzen dela eta argia ezkututzen
duela iruditzen zaie marinelei; ez baitute, izan ere, ura eta zerua bes-
terik ikusten; ez dezazun arinki pentsa sentimenez denean huts egiten
dutela. Eta itsasoan ezjakina denak portuko untxiak herren ikusten
ditu, popak uretan hautsita. Zeren bits gazitik gora irteten diren arraun
zati guztiak artezak baitira eta lemaren goi aldean ere arteza baita;
urpean murgilduek, osterak, hautsirik eta okerturik dirudite, berriro
gorantz bailetzen, ur azalean ia flotatzeraino. Gauez zeruan zehar
haizeek hodei banakak arrastatzen dituztenean, izar argitsuak euron-
ganantz lerratzen direla eta benetan doazen aldean oso besterantz doa-
zela dirudi. Inoiz eskua azpian jarri eta begiari sakatzen badiogu,
dakusgun guztia bikoiztu egiten dela iruditzen zaigu: bikoitza da kri-
seiluaren garrean loratzen den argia eta bikoitzak etxe guztian diren
haltzariak eta bikoitzak gizakumeen aurpegiak eta bikoitzak gorpu-
tzak. Azkenik, loak gorputzadarrak bere logura gozoz lotu dizkigune-
an eta gorputz osoa atsedean sakonean datzanean, itzarrik gagozela eta
geure gorputzadarrak mugitzen ditugula iruditzen zaigu eta gauaren

mutare et campos pedibus transire uidemur,
et sonitus audire, seuera silentia noctis
undique cum constant, et reddere dicta tacentes.

460

Cetera de genere hoc mirande multa uidemus,
quae uiolare fidem quasi sensibus omnia quaerunt
nequiquam, quoniam pars horum maxima fallit
propter opinatus animi quos addimus ipsi,
pro uisis ut sint quae non sunt sensibus uisa
nam nil aegrius est quam res discernere apertas
ab dubiis, animus quas ab se protinus addit.

465

Denique nil sciri si quis putat, id quoque nescit
an sciri possit, quoniam nil scire fatetur.
Hunc igitur contra mittam contendere causam,
qui capite ipse sua in statuit uestigia sese.
Et tamen, hoc quoque uti concedam scire, at id ipsum
quaeram, cum in rebus ueri nil uiderit ante,
unde sciat quid sit scire et nescire uicissim,
notitiam ueri quae res falsique crearit
et dubium certo quae res differre probarit.
Inuenies primis ab sensibus esse creatam
notitiam ueri neque sensus posse refelli.
Nam maiore fide debet reperiri illud,
sponte sua ueris quod possit uincere falsa.
Quid maiore fide porro quam sensus haberi
debet? An ab sensu falso ratio orta ualebit
dicere eos contra, quae tota ab sensibus orta est?
Qui nisi sunt ueri, ratio quoque falsa fit omnis.
An poterunt oculos aures reprehendere, an auris
tactus? An hunc porro tactum sapor arguet oris,
an confutabunt nares oculiue reuinent?
Non, ut opinor, ita est. Nam sorsum cuique potestas
diuisast, sua uis cuiquest, ideoque necesse est
et quod molle sit et gelidum feruensue seorsum
et seorsum uarios rerum sentire colores
et quaecumque coloribus sint coniuncta uidere:
seorsus item sapor oris habet uim, seorsus odores

470

475

480

485

490

ilunpe itsuan eguzkia eta egun argia ikusi uste ditugu eta, leku itxian
ere, zeruz, itsasoz, ibaiz, mendiz aldatzen garela eta zelaia oinezka-
tzen eta hotsak entzuten ditugula ematen digu, nahizta gauaren isilta-
sun guztizkoa denean izan, eta, isilik egonik, berbetan dihardugula.

Honelako hainbat gauza harrigarri ikusten dugu, sentimenen
fedea haustera bezala doana dena, alperrik noski, hauetako gehien
okerra geure gogoak erantzen dien ustetik baitator, sentimenez ikusi
gabea ikusiztat emanik; ez baitago gauza errazagorik gertakari naba-
riak eta gure gogoak bere kabuz arinegi erantzen dizkien aieruak
bereiztea baino.

Azkenik, inork uste badu ezer ez dakigula, ez daki hauxe ere
jakin daitekeenetz, ezer ez dakiela aitortzen baitu. Ez naiz, beraz,
teman hasiko burua hanken lekuan ipintzen saiatzen denarekin.
Baina, hori jakitea aitorturik ere, galdetuko diot ezen, gauzen inolako
egiarik aurrez ikusi ez badu, nola dakien zer den jakitea eta ez jaki-
tea, nondik atera duen egiazko- gezurrezkoen ezagutza eta zerk ira-
katsi dion ziur-dudazkoak bereizten. Egiaren ezagutza lehenik senti-
menetatik sortzen dela aurkituko duzu eta sentimenak ezin direla
gezurtatu. Sinesgarritasun handiagoko zeozer asmatu beharko baili-
tzateke, beste gabe egiak gezurra gainditzea eragingo lukeena. Zer
daiteke, ordea, sentimenak baino sinesgarriago? Gezurrezko sentime-
netik harako arrazoia, dena sentimenetatik sortua izanik, eurok baino
gehiago izan ote daiteke? Hauek gezurrezkoak badira, arrazoi oro ere
gezurrezkoa da. Ala belarriek begiak edo ukimenak belarriak zuzen
ditzakete? Ala dastamenak ukimena salatuko, ala sudurrak gezurtatu-
ko, ala begiak nagusituko? Ez da horrela, nik uste. Bakoitzak bere
barrutia, bakoitzak bere egitekoa daukanez gero, batak zer den bigu-
na eta hotza eta beroa, eta besteak gauzen kolore ezberdinak sentitu
behar ditu eta koloreekin bat datorren guztia ikusi: ahoak bereiz
dihardu bere egitekoan, usainak bereiz sortzen dira, hotsak bereiz.

nascuntur, seorsum sonitus. Ideoque necesse est
non possint alios alii conuincere sensus.
Nec porro poterunt ipsi reprehendere sese,
aequa fides quoniam debebit semper haberi.
Proinde quod in quoquest his uisum tempore, uerumst.
Et si non poterit ratio dissoluere causam,
cur ea quae fuerint iuxtim quadrata, procul sint
uisa rutunda, tamen praestat rationis egentem
reddere mendose causas utriusque figurae,
quam manibus manifesta suis emittere quoquam
et uiolare fidem primam et conuellere tota
fundamenta quibus nixatur uita salusque.
Non modo enim ratio ruat omnis, uita quoque ipsa
concidat extemplo, nisi credere sensibus ausis
praecipitisque locos uitare et cetera quae sint
in genere hoc fugienda, sequi contraria quae sint.
Illa tibi est igitur uerborum copia cassa
omnis quae contra sensus instructa paratast.
Denique ut in fabrica, si prauast regula prima,
normaque si fallax rectis regionibus exit,
et libella aliqua si ex parti claudicat hilum,
omnia mendose fieri atque obstipa necessu est
praua cubantia prona supina atque absona tecta,
iam ruere ut quaedam uideantur uelle, ruantque
prodita iudiciis fallacibus omnia primis,
sic igitur ratio tibi rerum praua necessesit
falsaque sit, falsis quaecumque ab sensibus ortast.

Nunc alii sensus quo pacto quisque suam rem
sentiat, haudquaquam ratio scruposa relicta est.

Principio auditur sonus et uox omnis, in auris
insinuata suo pepulere ubi corpore sensum.
Corporem quoque enim <uocem> constare fatendumst
et sonitum, quoniam possunt inpellere sensus.
Praeterea radit uox fauces saepe facitque
asperiora foras gradiens arteria clamor,
quippe per angustum turba maiore coorta

495

500

505

510

515

520

525

530

Honela sentimenek ezin dute elkar errefutatu. Eta euren burua ere ezin dute gezurtatu, beti berdin sinesgarriztat jo behar baitira. Beraz, sentimenek noiznahi atzemana egia da. Eta arrazoiak ezin badu kausarik argitu, ea hurretik karratu dena urrundik ikusita zergatik biribila den, hobe da arrazoi erratuak itxura bien kausak oker eman ditzan, ezen ez ebidentziari eskutik alde egiten uztea eta lehen sinespidea haustea eta gure bizia eta salbamena bermatzen dituzten oinarriak desegitea. Zeren, arrazoiak erabat lur jo ez ezik, bizitza bera ere bat-batean hondatuko bailitzateke, sentimenei sinesten eta, honetan sortzen diren amildegi eta arriskuetaik ihesi, alderantzizko bide segurrari jarraitzen ausartuko ez bazina. Alfer-alferreko berriketa duzu, beraz, sentimenen aurka prestatzen eta bideratzen den guztia. Azkenik, nola etxegintzan, hasierako erregela okerra bada, eta eskuaira gezurtiak elkarzuta zaintzen ez badu eta berunak apur bat albora egiten badu, nahitaez denak gaizki eta oker gelditu behar duen, itsusi, aurrerantz edo atzerantz okertua eta sapai trabeska, zati batzuek jausi guran dirudite-la, baita jausi ere, hasierako kalkulu okerrekin traditurik, halaxe behar du gauzen arrazoiak ere okerra eta gezurrezkoa izan, sentimen gezurtietatik sortua bada.

Orain azal dezagun nola beste sentimenek bakoitzari dagokiona sentitzen duten; geratzen den bidea ez da batere malkarra.

Lehenik, deneriko hotsak eta abotsak entzuten ditugu, belarrian barrura gure sentimena euren gorputzez jotzen dutenean. Hotsak eta ahotsak ere gorputzun izan behar dutela onartu behar baita, sentimenei eragiten dietenez gero. Bestalde, abotsak sarritan eztarria mintzen eta, oihuak kanporatzean, zintzurrestea garratzen du, bistan denez,

ire foras ubi coeperunt primordia uocum,
 scilicet expletis quoque ianua raditur oris.
 Haud igitur dubiumst quin uoces uerbaque constent
 corporeis e principiis, ut laedere possint.
 Nec te fallit item quid corporis auferat et quid
 detrahat ex hominum neruis ac uiribus ipsis
 perpetuus sermo nigra noctis ad umbram
 aurorae perductus ab exoriente nitore,
 praesertim si cum summost clamore profusus.
 Ergo corpoream uocem constare necessest,
 multa loquens quoniam amittit de corpore partem.
 Asperitas autem uocis fit ab asperitate
 principiorum et item leuor leuore creatur,
 nec simili penetrant auris primordia forma,
 cum tuba depresso grauiter sub murmure mugit
 et reboat raucum regio cita barbara bombum,
 et uolucres gelidis nocte hortis ex Heliconis
 cum liquidam tollunt lugubri uoce querellam.

 Hasce igitur penitus uoces cum corpore nostro
 exprimimus rectoque foras emittimus ore,
 mobilis articulatur uerborum daedala lingua
 formaturaque labrorum pro parte figurat.
 Hoc ubi non longum spatiumst unde illa profecta
 perueniat uox quaeque, necessest uerba quoque ipsa
 plane exaudiri discernique articulatum:
 seruat enim formaturam seruatque figuram.
 At si interpositum spatium sit longius aequo,
 aera per multum confundi uerba necessest
 et conturbari uocem, dum transoulat auras.
 Ergo fit, sonitum ut possis sentire, neque illam
 internoscere, uerborum sententia quae sit:
 usque adeo confusa uenit uox inque pedita.

 Praeterea uerbum saepe unum perciet auris.
 omnibus in populo, missum praeconis ab ore.
 In multas igitur uoces uox uan repente
 diffugit, in priuas quoniam se diuidit auris

hotsen lehenkiak pilo handiagoan estugunetik kanporatzen hasi dire-
 lako eta, beraz beteeegi eginik, ahoaren atea urratzen dutelako. Ez dago
 dudarik, beraz, ahotsak eta berbak printzipio gorpuztunekoak direla,
 min egiten baitute. Baita ondotoxo dakizu egunsentiko distira jaiobe-
 rritik gau beltzaren gerizaraino diharduen etengabeko hizketak zenbat
 gorputz jaten eta nolako nerbioen eta indarren ere makaltzea dakar-
 kien gizakiei, batez ere harrabots handiz jardun izan bada. Ahotsak
 gorpuztuna izan behar du, beraz, hiztun handiak gorputzaren zati bat
 galtzen duenez gero. Ahotsaren garraztasuna printzipioen garraztasu-
 netik dator eta leuntasuna ere haien leuntasunetik. Ez baitira forma
 berdineko lehenkiak belarriratzen, tronpak murmurio lodiz urruma
 astuna egiten duenean eta inguru barbaroak, aztoraturik, hura burrun-
 da erlats bihurtzen duenean, eta hegaztiekin gauez, Helikonen baratze
 izoztuetatik, ahots goibelez auhen gardena jasotzen dutenean.

Honela, gure gorputz barrenetik ahotsak esprimitzen eta aho-
 tik zuzen kanporatzen ditugunean, mihi higikor hitzen artisauak arti-
 kulatzen ditu eta ezpainen egokierak halaber forma damaie.
 Honegatik, ahots hura sortu den lekura distantzia luzea ez badago,
 hitz bakoitza argi entzun eta banan bereiztu behar dugu: bere ego-
 kiera eta eitea kontserbatzen baititu. Bitarteko distantzia handiegia
 bada, ostera, aireak nahitaez hitzak nahastuko eta ahotsa aldrebestu-
 ko du, aurretan zehar hegan datorrela. Hotsa, beraz, senti dezakezula
 gertatzen da, baina ezin duzu hitzei dagokien esanahia bereiztu: hain
 nahasirik eta trabaturik baitator ahotsa. Sarritan, gainera, hitz baka-
 rrak herri guztiaren belarriak jotzen ditu, pregoi-jolearen ahotik
 hara. Ahotsa bat-batean ahots askotan banatzen delako da, denen
 belarrietara zabaltzen baita, hitzei forma eta hots garbia emanaz.

obsignans formam uerbis clarumque sonorem.
At quae pars uocum non auris incidit ipsas,
praeterlata perit frustra diffusa per auras:
pars solidis adlisa locis reiecta sonorem
reddit et interdum frustratur imagine uerbi.
Quae bene cum uideas, rationem reddere possis
tute tibi atque aliis, quo pacto per loca sola
saxa paris formas uerborum ex ordine reddant,
palantis comites cum montis inter opacos
quaerimus et magna dispersos uoce ciemus.
Sex etiam aut septem loca uidi reddere uoces,
unam cum iaceres: ita colles collibus ipsi
uerba repulsantes iterabant dicta referri.
Haec loca capripedes satyros nymphasque tenere
finitimi fingunt et faunos esse locuntur
quorum noctiuago strepitu ludoque iocanti
adfirmant uolgo taciturna silentia rumpi
chordarumque sonos fieri dulcisque querellas,
tibia quas fundit digitis pulsata canentum,
et genus agricolae late sentiscere, quom Pan
pineae semiferi capitis uelamina quassans
unco saepe labro calamos percurrat hiantis,
fistula siluestrem ne cesset fundere Musam.
Cetera de genere hoc monstra ac portenta loquuntur,
ne loca deserta ab diuis quoque forte putentur
sola tenere. Ideo iactant miracula dictis
aut aliqua ratione alia ducuntur, ut omne
humanum genus est auidum nimis auricularum.

Quod superest, non est mirandum qua ratione,
per loca quae nequeunt oculi res cernere apertas,
haec loca per uoces ueniant aurisque lacessant.
Conloquium clausis foribus quoque saepe uidemus,
nimirum quia uox per flexa foramina rerum
incolumis transire potest, simulacra renutant;
perscinduntur enim, nisi recta foramina tranant,
qualia sunt uitrei, species qua trauolat omnis.
Praeterea partis in cunctas diuiditur uox,

570

575

580

585

590

595

600

Baina belarrietara iristen ez den ahotsen zatia, aurrera alferrik jorik, auretan ezabaturik hiltzen da; beste zatiak, gauza gogorren kontra jo eta ezetsia izanik, hotsa itzultzen eta batzuetan engainatu egiten du, hitz tankeran. Hau ulertzen baduzu, zeuretzat eta besteentzat azal dezakezu zergatik haitzek mortuetan hitzak forma berdinean eta ordenan errepikatzen dituzten, mendi ilunetan deslai dabiltzan lagun galduen bila oihuka dihardugunean. Ikusiak ditut ahotsak sei eta zazpi bider errepikatzen dituzten lekuak, bakarra igorri duzula: mendiek, hitzak elkarri jaurtiz, esanak berritzen jarraitzen dute. Herritarrek uste dute inguru horietan ninfak eta satiro ahuntz-hankadunak bizi direla eta ba ei dagoz faunoak, gaueko zarata bihurri eta jostarian isiltasun mantsoa hausten dutenak, eta kantarien hatzek jotako xirulen korda hotsa eta aiene gozoak entzuten ei dira, eta nekazariak urrundik nabaritzen ei dute nola Panek bere buru erdi basatia jazten duen, pinu adarrak astinduz, nola kainabera zulatuak bere ezpain okerrez korritzen dituen, xirulak bere basa Musa etengabe isur dezan. Honelakoxe mirariak eta ikusgarriak mintzo dira, ez dezaten pentsa basamortuetan bizi direnik, jainkoek ere bertan behera utzita. Horrexegatik kontatzen dituzte mirakuluak, edo beste arrazoiren batek bultzaturik, gizateria oro entzungai gozoen egarri baita.

Bestela, ez da harritzekoa, begiak gauzak argi ikusterik ez daukan tokietan, ahotsak tokiotan zehar belarriraino jotzea. Sarritan mintzo gara ate itxian barna, eta ez da mirari, hotsa minik gabe pasa baitaiteke gauzen poro bihurretan zehar, simulakroei ukatzen zaiena, hauek urratu egiten baitira, irudi oro bertatik zehar-hegatzen den beira bezalakoaren poro zuzenetatik pasatu ezik. Gainera hotsa alde guztie-

ex aliis aliae quoniam gignuntur, ubi una
dissiluit semel in multas exorta, quasi ignos
saepe solet scintilla suos se spargere in ignis.
Ergo replentur loca uocibus abdita retro
omnia quae circum feruunt sonituque cientur.
At simulacra uis derectis omnia tendunt
ut sunt missa semel; quapropter cernere nemo
saepe supra potis est, at uoces accipere extra.
Et tamen ipsa quoque haec, dum transit clausa <domorum>
uox optunditur atque auris confusa penetrat
et sonitum potius quam uerba audire uidemur.

Hoc, qui sentimus sucum, lingua atque palatum
plusculum habent in se rationis, plus operai.
Principio sucum sentimus in ore, cibum cum
mandendo exprimimus, ceu plenam spongiam aquai
siquis forte manu premere ac siccare coepit.
Inde quod exprimimus per caulas omne palati
diditur et rarae per flexa foramina linguae.
Hoc ubi leuia sunt manantis corpora suci,
suauiter attingunt et suauiter omnia tractant
umida linguae circum sudantia templa;
at contra pungunt sensum lacerantque coorta,
quanto quaeque magis sunt asperitate repleta.
Deinde uoluptas est e suco fine palati;
cum uero deorsum per fauces praecipitauit,
nulla uoluptas est, dum diditur omnis in artus.
Nec refert quicquam quo uictu corpus alatur,
dummodo quod capias concoctum didere possis
artubus et stomachi umidulum seruare tenorem.

Nunc aliis alius qui sit cibus ut uideamus
expediam, quareue, aliis quod triste et amarumst,
hoc tamen esse aliis possit perdulce uideri;
tantaque <in> his rebus distantia differitasque est,
ut quod ali cibus est aliis fuat acre uenenum;
est itaque ut serpens, hominis quae tacta saliu
disperit ac sese mandendo conficit ipsa.

605

610

615

620

625

630

635

tarantz banatzen da, hots batek beste bat baitaragi, behin bat sorturik,
askotan bidertuz, su txinparta hainbat izpitan zabaldu ohi denez. Toki
ezkutuak, beraz, hotsez betetzen dira, inguruak astinduz eta hotsare-
kin dardaratuz. Simulakroek, ostera, behin igorriak izanik, lerro zuze-
nari darraiote denek; horregatik inork ezin du hesian zehar ikusi,
baina bai handiko hotsak entzun. Hots hauxe ere, ostera, etxe baten
hormak zeharkatzean, kamustu egiten da eta nahasian belarirratzen,
hitzak baino areago zarata dantzugula.

Dastamena deritzogunak, mihiak eta aho-sabaiak, arrazoitze
handitxoagoa behar dute, ahalegin handiagoa. Lehenik, ahoan zaporea
sentitzen dugu, mastekatzean jana esprimitzen dugunean, norbaitek
belaki urtsua eskuan estutu eta lehortuko balu bezala. Gero esprimitu
duguna aho-sabaiko zirrituetan eta mihi apatzeko poro bihurtetan
zehar hedatzen da. Honela, zuku jariakor honen gorputzak leunak
direnean, xuabeki ukitzen eta xuabeki estimulaten dituzte mihi ingu-
ruko sapai heze jariotsuak; ostera, zenbat eta gorputzok lastasun han-
diagokoak izan, hainbat gehiago dute sentimena ziztatzen eta talkekin
kolpatzen. Gero dastamenaren atsegina aho-sabairainokoa da; behin
ahutzetan behera amildu denean, ez dago inolako atsegirik, lohada-
rretan zabaltzen den bitartean. Ez dio ardura gorputza zer gaiz elika-
tzen den, jaten duzuna, digeriturik, gorputzean zabaltzen eta urdaila-
ren hezetasun jarraitua gordetzen ahal duzuno.

Dakusgun orain zergatik izaki bakoitzak janari ezberdina behar
duen eta zergatik batzuentzat kiratsu eta mingots dena beste batzuei
ezin gozoago irudi dakiekeen; honetan hain distantzia eta diferentzia
handia dago, ezen batzuentzat janari dena beste batzuentzat pozoin
gogorra baita; halakoa da, esaterako, sugea, gizakiaren listuak ukituz
gero, bere burua janez hiltzen eta akabatzen dena. Otsababa guretzat
pozoin gogorra da, ahuntzak eta eperrak, ostera, loditu egiten ditu.

Praeterea nobis ueratrum est acre uenenum,
at capris adipēs et cocturnicibus auget.
Id quibus ut fiat rebus cognoscere possis,
principio meminisse decet quae diximus ante,
semina multimodis in rebus mixta teneri.
Porro omnes quaecumque cibum capiunt animantes,
ut sunt dissimiles extrinsecus et generatim
extima membrorum circumcaesura coercent,
proinde et seminibus constant uariante figura.
Semina cum porro distent, differre necessest
interualla uiasque, foramina quae perhibemus,
omnibus in membris et in ore ipsoque palato:
esse minora igitur quaedam maioraque debent,
esse triquetra aliis, aliis quadrata necessest,
multa rutunda, modis multis multangula quaedam.
Namque figurarum ratio ut motusque repositi,
proinde foraminibus debent differre figurae,
et uariare uiae proinde ac textura coercent.
Hoc ubi quod suaue est aliis aliis fit amarum,
illi, cui suaue est, leuissima corpora debent
contractabiliter caulas intrare palati:
at contra quibus est eadem res intus acerba,
aspera nimirum penetrant hamataque fauces.
Nunc facile est ex his rebus cognoscere quaeque.
Quippe ubi cui febris bili superante coorta est
aut alia ratione aliquast uis excita morbi,
perturbatur ibi iam totum corpus et omnes
commutantur ibi positurae principiorum;
fit prius ad sensum ut quae corpora conueniebant
nunc non conueniant, et cetera sint magis apta,
quae penetrata queunt sensum progignere acerbum.
Utraque enim sunt in mellis commixta sapore;
id quod iam supera tibi saepe ostendimus ante.

Nunc age quo pacto naris adiectus odoris
tangat agam. Primum res multas esse necessest
unde fluens uoluat uarius se fluctus odorum,
et fluere et mitti uolgo spargique putandumst;

640

645

650

655

660

665

670

675

Hori nola den jakin ahal dezazun, lehenik arestian esana gogoratu behar duzu, haziak era askotara nahasiak dagozela gauzetan. Gero, jana hartzen duten bizidunak, kanpotik diferenteak direnez eta espezieen arabera gorpuzkera ezberdinetan sartuak dagoenez gero, horrelaxe dagoz figura ezberdineko haziz eginak. Eta, haziak ezberdinak izanez gero, poroak deritzegun tarteek eta hodiekin ere ezberdinak izan behar, lohadar guztietan, baita mihian eta aho-sabaian ere: txikiagoak eta handiagoak izan behar, batzuek triangeluarrak, beste batzuek karratuak, askok borobilak eta asko era askotako angeluanitzak. Zeren figuren kokaera eta mugidak nolakoak izan, halaxe behar dute prooen formek diferitu, eta hodiak ere ehunduren arabera ezberdindu. Horregatik, batari gozo zaiona besteari mingots bazaio, gozo zaionarengan oso gorputz leunak sartzen dira aho-sabaiko poroetan, suabe-suabe: gauza bera besteari garratz bazaio, oster, hodieta gorputz latzak eta amukarak sartzen direlako da, noski. Oinarri hauetatik, aisa ulertzen da kasu bakoitza. Horrela, behazun larrak sukarra ematen dionarengan, edo beste edozergatik gaixotasun gogorra nagusitzen denarengan, gorputz osoa perturbatzen da eta lehenkien parakera guztiak hankazgoratzen dira; horrela gertatzen da sentimenari lehen ondo zetozkion gorputzak orain ez datozkiola eta, sartzean, zapore mingotsa daukaten beste batzuk egokiago direla. Bi zaporeok batera baitagoz ez tian nahasturik, arestian maiz erakutsi dizugun bezala.

Adi orain, usainak sudurrari nola daragion azalduko baitut. Lehenik gauza askok egon behar dute, eurotatik usain korronte aldakor bat uhinka erioteko modukoak, eta erioite hau denerantz igortzen eta zabaltzen dela pentsatu behar da; baina usain batzuk bizidun

uerum aliis alius magis est animantibus aptus
dissimilis propter formas. Ideoque per auras
mellis apes quamuis longe ducuntur odore,
uolturiique cadaueribus; tum fissa ferarum
ungula, quo tulerit gressum promissa canum uis
ducit, et humanum longe praesentit odorem
Romulidarum arcis seruator candidus anser.
Sic aliis alius nidor datus ad sua quemque
pabula ducit et a taetro resilire ueneno
cogit, eoque modo seruantur saecula ferarum.

680

685

Hic odor ipse igitur, naris quicumque lacessit,
est alio ut possit permitti longius alter;
sed tamen haud quisquam tam longe fertur eorum
quam sonitus, quam uox, mitto iam dicere quam res
quae feriunt oculorum acies uisumque lacessunt.
Errabundus enim tarde uenit ac perit ante
paulatim facilis distractus in aeris auras,
ex alto primum quia uix emittitur ex re:
nam penitus fluere atque recedere rebus odores
significat quod fracta magis redolere uidentur
omnia, quod contrita, quod igni conlabefacta.
Deinde uidere licet maioribus esse creatum
principiis quam uox, quoniam per saxea saepta
non penetrat, qua uox uolgo sonitusque feruntur.
Quare etiam quod olet non tam facile esse uidebis
inuestigare in qua sit regione locatum.
Refrigescit enim cunctando plaga per auras
nec calida ad sensum decurrunt nuntia rerum.
Errant saepe canes itaque et uestigia quaerunt.

690

695

700

705

Nec tamen hoc solis in odoribus atque saporum
in generest, sed item species rerum atque colores
non ita conueniunt ad sensus omnibus omnes,
ut non sint aliis quaedam magis acria uisu.
Quin etiam gallum, noctem explaudentibus alis
auroram clara consuetum uoce uocare,
noenu queunt rapidi contra constare leones

710

batzuei hobeto egokitzen zaizkie, forma ezberdinak bide. Horrela,
auretan zehar, erleek ezti usaina denik urrunenetik hartzen dute, eta
saiiek, hilotzena. Piztia baten apatx erdibituak utzitako oinatzaren
atzetik bidalitako txakur aldrak beraganaino garamatza, eta ahate
zuriak, Erromulotarren gotorlekuaren zaintzaileak, giza usaina urrun-
dik somatzen du. Honela animalia bakoitza berari dagokion usainak
larreratzen du eta pozoin kiratsuak atzerarazten, eta horrelaxe diraute
piztien espezieek.

Usaimena jotzen duten usainotan eurotan, beraz, batzuk beste
batzuk baino urrunago igorriak izan daitezke; bat ere ez daiteke,
ordea, hotsa, ahotsa baino urrunago igor, eta ez naiz niniak mintzen
edo ikusmena zauritzen duten irudiez mintzo. Zeren usaina noragabe
eta geldo baitabil eta aisa hiltzen da, apurka-apurka zatikaturik, airea-
ren auretan, lehenik, gauzen barrenetik nekez igorria delako: usaina
gauzen barrenetik sortzen eta irteten dela argi erakusten du ikusteak
zernahi usainsuago dela, hautsia, zehatua edo suak suntsitua denean.
Bestalde, soinuarenak baino lehenki handiagoz eginda dagoz, ahotsa
eta soinuak pasatu ohi diren harrizko hormarik ez baitu zeharkatzen.
Horregatik halaber dakuskezu ez dela hain erraza usaina botatzen
duena non dagoen aurkitzea. Auretan zehar astiroz, kolpea hozten
baitzaio eta haren mezua ez baita sentimenera bero heltzen. Honela
txakurrak maiz erratzen dira eta oinatz bila dihardute.

Hau ez da, hala ere, usain eta zaporetan bakarrik agitzen, bai
baitagoz gauza motak eta usainak ere denen sentimenei ondo ez
datozkien eta zenbaiten ikusmenari errekorrago zaizkienak. Lehoi
bortitzek ezin dute jasan ez ikusi oilarra, hegoak astinduz, gaua uxa-

inque tueri: ita continuo meminere fugai,
nimirum quia sunt gallorum in corpore quaedam
715 semina, quae cum sunt oculis inmissa leonum,
pupillas interfodiunt acremque dolorem
praebent, ut nequeant contra durare feroces;
cum tamen haec nostras acies nil laedere possint,
aut quia non penetrant aut quod penetrantibus illis
720 exitus ex oculis liber datur, in remorando
laedere ne possint ex ulla lumina parte.
Nunc age quae moueant animum res accipe, et unde
quae ueniunt ueniant in mentem percipe paucis.
Principio hoc dico, rerum simulacra uagari
725 multa modis multis in cunctas undique partis
tenuia, quae facile inter se iunguntur in auris,
obuia cum ueniunt, ut aranea bratteaque auri.
Quippe etenim multo magis haec sunt tenuia textu
quam quae percipiunt oculos uisumque lacessunt,
corporis haec quoniam penetrant per rara cientque
730 tenuem animi naturam intus sensumque lacessunt,
Centaurus itaque et Scyllarum membra uidemus
Cerberaeque canum faciles simulacraque eorum
quorum morte obita tellus amplectitur ossa;
omne genus quoniam passim simulacra feruntur,
735 partim sponte sua quae fiunt aere in ipso,
partim quae uariis ab rebus cumque recedunt
et quae confiunt ex horum facta figuris.
Nam certe ex uiuo Centauri non fit imago,
740 nulla fuit quoniam talis natura animantis,
uerum ubi equi atque hominis casu conuenit imago,
haerescit facile extemplo, quod diximus ante,
propter subtilem naturam et tenuia texta.
Cetera de genere hoc eadem ratione creantur.
745 Quae cum mobiliter summa leuitate feruntur,
ut prius ostendi, facile uno commouet ictu
quaelibet una animum nobis subtilis imago:
tenuis enim mens est et mire mobilis ipsa.
Haec fieri ut memoro, facile hinc cognoscere possis.
750 Quatenus hoc simile est illi, quod mente uidemus

tzen eta bere abots gardenez egunari deitzen: bat-batean ihesari
damaiote, segurrenik oilarren gorputzean badagozelako haziren
batzuk, lehoien begietan sartzean, niniak zulatzen eta, euron basata-
sunean ere, jasan ezineko min zorrotza egiten dietenak; horiek, oste-
ra, gure begirik ez dute ezertan mintzen, edo ez direlako barruratzen,
edo barruratzean ibilbide librea daukatelako, astiro joanda ere, ninirik
inola ez mintzeko moduan.

Entzun orain zertzuek mugitzen duten gogoia eta ikas hitz
gutxitan gogora datorrena nondik heldu den. Lehenik, zera diot, alde
guztietarantz deslari dabilzala deneriko simulakro xumeak, airean
725 topo egitean, aisa elkartzen direnak, amaraunek eta urre xaflek dagi-
tenez. Hauek, izatez, gure begiek atzematen eta ikusmena daragitenak
baino ehundura askoz finagokoak dira, gorputzaren poroetatik sartzen
eta barruan gogoaren izaera xumeari eragiten eta sentimena kinatzen
baitute. Honela zentauroak, Eszilen lohadarrak, zakur zerberoek aur-
pegiak eta euren hezurak heriotza ondoren lurak besarkatzen ditue-
nen simulakroak ikusten ditugu; era guztietako simulakroak hara-
hona eroanak baitira, batzuk airean bertan berez sortuak, beste batzuk
zenbait objektutatik jareinak eta beste batzuk figura horiexen elkar-
tzez eginak. Zentauroaren irudia ez da, noski, zentauro bizitik egiten,
735 halako animaliarik sekula ez baita izan, baina zaldi eta giza irudi batek
halabeharrez topo egiten badute, berbertan itsasten dira, gorago esan
bezala, euren izaera subtila eta ehundura xumea bide. Horrelaxe sor-
tzen dira gainerako besteak. Irudi subtilotariko edozeinek, arintasun
izugarritz azkar mugitzen denez gero, aurrerago erakutsi bezala, kolpe
bakarrez aisa hunkitzen du gure gogoia: adimena bera ere xumea eta
miragarririo mugikaria baita.

Hau diodan bezala dela aisa dakuskezu honetatik. Gogoarekin
eta begiekin dakusguna antzekoa denez gero, biek antzera gertatu

atque oculis, simili fieri ratione necessesit.
Nunc igitur docui quoniam me forte leonem
cernere per simulacra, oculos quaecumque lacessunt,
scire licet mentem simili ratione moueri
per simulacra leonum <et> cetera quae uidet aequae
nec minus atque oculi, nisi quod magis tenuia cernit.
Nec ratione alia, cum somnus membra profudit,
mens animi uigilat, nisi quod simulacra lacessunt
haec eadem nostros animos quae cum uigilamus,
usque adeo, certe ut uideamur cernere eum quem
relictis uita iam mors et terra potitast.
Hoc ideo fieri cogit natura, quod omnes
corporis effecti sensus per membra quiescunt
nec possunt falsum ueris conuincere rebus.
Praeterea meminisse iacet languetque sopore
nec dissentit eum mortis letique potitum
iam pridem, quem mens uiuom se cernere credit.
Quod superest, non est mirum simulacra moueri
bracchiaque in numerum iactare et cetera membra.
Nam fit ut in somnis facere hoc uideatur imago;
quippe ubi prima perit alioque est altera nata
inde statu, prior hic gestum mutasse uidetur,
scilicet id fieri celeri ratione putandumst:
tanta est mobilitas et rerum copia tanta
tantaque sensibili quouis est tempore in uno
copia particularum, ut possit suppeditare.

Multaque in his rebus quaeruntur multaque nobis
claradumst, plane si res exponere auemus.
Quaeritur in primis quare, quod cuique libido
uenerit, extemplo mens cogitet eius id ipsum.
Anne uoluntatem nostram simulacra tuentur
et simul ac uolumus nobis occurrit imago,
si mare, si terram cordist, si denique caelum?
Conuentus hominum pompam conuiuia pugnast,
omnia sub uerbone creat natura paratque?
Cum praesertim aliis eadem in regione locoque
longe dissimilis animus res cogitet omnis.

755

760

765

770

775

780

785

behar dute. Orain, lehoia, adibidez, begiak jotzen dituzten simulakroei esker dakusgula erakutsia dudalarik, gogo ere antzeko kausak joa dela atara behar da eta lehoien eta enparauen simulakroak ez dituela begietatik ezertan ezberdin ikusten, zer xumeagoak bereiztean izan ezik. Eta ez dago beste arrazoirik, loak gorputza bertan behera daukanean, gogo-adimenek itzarrik segi dezaten, gure gogo itzarrik gogozeneko simulakro berek jotzen dutela baizik, hala nola egitan ikusi uste dugun, bizia utzirik, heriotzaren eta lurraren mende dagoena. Naturak hau guztiau eragiten du, gorputzaren sentimen guztiak, geraturik, lohadarretan zehar atsedenean daudelako, eta okerra egiarekin aldaratu ezin dutelako. Gainera, oroimena lozorro nagian datza eta ez du tematzen gogoak bizirik ikusi uste duen hura aspaldi bereganatu zuela heriotzak. Bestalde, ez da miragarri simulakroak mugitzen aritzea eta besoei eta gainerako lohadarrei suabeki eragitea. Irudiak amestetan horixe egiten duela baitirudi; izan ere, lehenengoa ezabatu deneko, beste bat sortua da egoera ezberdinean eta lehenengoa aldatu egin dela ematen du, eta hau, noski, oso bizkor gertatzen da: hainbestekoa da mugikortasuna, hainbestekoa irudi kopurua eta hainbestekoa une sentigarri bateko partikula multzoa, ezen ez baitago agortzerik.

Arlo honetan gauza asko dago eta gauza asko argitu behar dugu, osoki azaldu nahi badugu. Galdetzekoa da, lehenik, zergatik gogoak, zeozeren apeta datorkigunean, hura berehalaxe pentsatzen duen. Simulakroek gure nahimena jagoten eta irudia geuk nahi izanez batera bila ote datorkigu, dela itsasoa, dela lurra, edo dela zerua desio dugula? Giza batzarrak, segizioak, oturuntzak, guduak, dena hitz baten arabera sortzen eta prestatzen ote du naturak? Batez ere eskualde eta inguru berean gogo bakoitzak guztiz gauza ezberdinak pentsatzen dituela.

Quid porro, in numerum procedere cum simulacra
 cernimus in somnis et mollia membra mouere,
 mollia mobiliter cum alternis brachia mittunt
 et repetunt ollis gestum pede conuenienti?
 Scilicet arte madent simulacra et docta uagantur,
 nocturno facere ut possint in tempore ludos.
 An magis illud erit uerum? quia tempore in uno,
 cum sentimus, id est cum uox emittitur una,
 tempora multa latent, ratio quae comperit esse,
 propterea fit uti quouis in tempore quaeque
 praesto sint simulacra locis in quisque parata:
 tanta est mobilitas et rerum copia tanta.
 Hoc, ubi prima perit alioque est altera nata
 inde statu, prior hic gestum mutasse uidetur.
 Et quia tenuia sunt, nisi quae contendit, acute
 cernere non potis est animus; proinde omnia quae sunt
 praeterea pereunt, nisi quae ex sese ipse parauit.
 Ipse parat sese porro speratque futurum
 ut uideat quod consequitur rem quamque; fit ergo.
 nonne uides oculos etiam, cum tenuia quae sunt
 [praeterea pereunt, nisi quae ex se ipse parauit]
 cernere coeperunt, contendere se atque parare,
 nec sine eo fieri posse ut cernamus acute?
 Et tamen in rebus quoque apertis noscere possis,
 si non aduertas animum, proinde esse quasi omni
 tempore semotum fuerit longeque remotum.
 Cur igitur mirumst, animus si cetera perdit
 praeterquam quibus est in rebus deditus ipse?
 Deinde adopinamur de signis maxima paruus
 ac nos in fraudem induimus frustraminis ipsi.

 Fit quoque ut interdum non suppeditetur imago
 eiusdem generis, sed femina quae fuit ante,
 in manibus uir uti factus uideatur adesse,
 aut alia ex alia facies aetasque sequatur.
 Quod ne miremur sopor atque obliuia curant.

 Illud in his rebus uitium uementer <auemus>
 te fugere, errorem uitareque praemetuenter,

Gero nola azaldu ametsetan simulakroak patxadan aurreratzen eta
 lohadar bigunak mugitzen ikustea, beso malguak txandaka bizkor
 zabaltzea eta keinuari oinen mugida egokiak laguntzea? Bistan da
 simulakroak artean jantzirik eta trebaturik dabiltzala, gauez halako
 dibertsioak burutzeko. Ala beste zerau ote da egia? Alegia, sentitzen
 dugun denbora ale batean, hots, soinu bat igortzen dugun unean, arra-
 zoiak badirela aurkitzen duen denbora asko estaltzen direla, eta horre-
 xegatik da edonoiz eta edonon dagozela atzemanak izateko prest diren
 simulakroak: hainbestekoa da mugikortasuna eta hainbestekoa irudi
 kopurua. Honela, lehenengoa ezabatu deneko, beste bat sortua da ego-
 era ezberdinean eta lehenengoa aldatu egin dela ematen du. Eta,
 xumeak direnez gero, gogoak ezin ditu, saiatu ezik, argi ikusi; beste
 guztiak galdu egiten dira, beraz, gogoak bere baitatik atondu dituenak
 izan ezik. Berak bere baitatik prestatzen ditu eta zer bakoitzari zer
 darraion ikusi ahalko duela itxaroten du; halaxe gertatzen da. Ez al
 dakusu begiak ere, gauza xumeei begira jarritakoan, [[galdu egiten
 dira, gogoak bere baitatik atondu dituenak izan ezik]], nola saiatzen
 diren eta prestatzen duten eta nola, hori barik, ezingo genukeen argi
 ikusi? Eta gauza agerietan ere hauteman dezakezu nola, gogoak ernai
 egon ezik, aldi oro apartaturik eta urrunean aldendurik bezala dago-
 zen. Zer dauka, bada, harritzekorik gogoak berak arreta jarri dienaz
 beste irudi guztiak galdu izanak? Gainera, aztarren txikietatik sarritan
 zerik handienak irudikatzen ditugu eta geure burua geuk lerratzen
 dugu okerrera.

Sarritan gertatzen da baita hurrengoa ez izatea mota bereko
 irudia, lehen emakume zena esku artean gizon bilakatzen zaigula bai-
 tirudi, edo aurpegi edo adin ezberdinak elkarri jarraitzea. Loa eta
 ahanztura arduratzen dira txundi ez gaitezen.

Honetan, gartsuki opa dizut oker batetik aldendu eta artaz eki-
 din dezazun, zeren ez pentsa begien argi gardenak ikusi ahal genezan

lumina ne facias oculorum clara creata,
 prospicere ut possimus, et ut proferre queamus
 825
 proceros passus, ideo fastigia posse
 827
 surarum ac feminum pedibus fundata plicari,
 brachia tum porro ualidis ex apta lacertis
 esse manusque datas utraque <ex> parte ministras,
 830
 ut facere ad uitam possemus quae foret usus.
 Cetera de genere hoc inter quaecumque pretantur
 omnia peruersa praepostera sunt ratione,
 nil ideo quoniam natumst in corpore ut uti
 possemus, sed quod natumst id procreat usum.
 835
 Nec fuit ante uidere oculorum lumina nata
 nec dictis orare prius quam lingua creatast,
 sed potius longe linguae praecessit origo
 sermonem multoque creatae sunt prius aures
 840
 quam sonus et auditus, et omnia denique membra
 ante fuere, ut opinor, eorum quam foret usus;
 haud igitur potuere utendi crescere causa.
 At contra conferre manu certamina pugnae
 et lacerare artus foedareque membra cruore
 ante fuit multo quam lucida tela uolarent,
 845
 et uolnus uitare prius natura coegit
 quam daret obiectum parmai laeua per artem.
 Scilicet et fessum corpus mandare quieti
 multo antiquius est quam lecti mollia strata,
 et sedare sitim prius est quam pocula natum.
 850
 Haec igitur possunt utendi cognita causa
 crediter, ex usu quae sunt uitaque reperta.
 Illa quidem sorsum sunt omnia quae prius ipsa
 nata dedere suae post notitiam utilitatis.
 855
 Quo genere in primis sensus et membra uidemus;
 quare etiam atque etiam procul est ut credere possis
 utilitatis ob officium potuisse creari.

 Illud item non est mirandum, corporis ipsa
 quod natura cibum quaerit cuiusque animantis.
 860
 Quippe etenim fluere atque recedere corpora rebus
 multa modis multis docui, sed plurima debent

sortuak izan zirenik, ez bernak eta izterrak, oinetan bermatuak, urrats
 handika gailurrak harrapatu ahal genitzan tolestuak izan zirenik, ez
 beso indartsuekin bat eginiko besaurreak eta alde bietatik balio digu-
 ten eskuak dauzkagunik, bizitzako premietarako erabili ahal ditzagun.
 Honelako interpretazio guztiek dena hankaz goratzen dute arrazoi
 makurrez, gure gorputzean ezer ez baita erabili ahal dezagun jaio,
 aitzitik jaio izan denak berak sortzen baitu erabilera. Ez zen ikusme-
 nik izan begiak jaio aurretik, ez hitz egiterik, mihia sortu aurretik,
 aitzitik mihiaren sorrera hitza baino askoz lehenagokoa izan zen eta
 belarriak hotsik entzun baino askoz lehenago sortu ziren, eta, hitz
 batez, lohadar guztiak lehenagokoak dira, nik uste, eurokin egingo zen
 erabilera baino; ezin izan zuten, beraz, erabiltzeko xedez sortuak izan.
 Aitzitik, eskuz-eskuak, burrukak, guduak eta lohadar urratzeak eta
 gorputz odoleztatzeak azkon distiratsuen hegatzea baino askoz lehe-
 nago izan ziren, eta naturak zauriak ekiditen lehenago irakatsi zuen
 beso ezkerak artoski ezkutuari aurre egin baino. Argi dago baita gor-
 putz nekatuari atsedean ematea koltxoi bigunak baino askoz zaharra-
 goa dela eta egarria kentzea edontzia baino lehenagokoa. Erabilerak
 eta bizibeharrak erakutsitako zer guztiok, bada, erabiltzeko helburu
 jakinetik harakoak direla sinets daiteke. Baina badagoz baita lehen-
 go sortu ziren eta euren erabileraren ezagutza gero eman zuten guz-
 tiak ere. Mota honetakoak lehen-lehenik sentimenak eta lohadarrak
 ikusten ditugu; berririo esanda, beraz, lekutan gagoz baliagarri izateko
 xedez sortu zirela sinestu ahal izatetik.

Ez da miragarri animalia bakoitzaren janaria gorputzaren izaer-
 rak berak bilatzea ere. Irakatsia baitut gauza guztiei hamaika lehenki
 hamaika eratan erioten eta eskapatzen zaiela, baina animaliei askoz

ex animalibu; <quae> quia sunt exercita motu,
multaque per sudorem ex alto pressa feruntur,
multa per os exhalantur, cum languida anhelant,
his igitur rebus rarescit corpus et omnis
subruitur natura; dolor quam consequitur rem.
Propterea capitur cibus ut suffulciat artus
et recreet uires interdatus atque patentem
per membra ac uenas ut amorem opturet edendi.
Umor item discedit in omnia quae loca cumque
poscunt umorem; glomerataque multa uaporis
corpora, quae stomacho praebent incendia nostro,
dissupat adueniens liquor ac restinguit ut ignem,
urere ne possit calor amplius aridus artus.
Sic igitur tibi anhela sitis de corpore nostro
abluitur, sic expletur ieiuna cupido.

Nunc qui fiat uti passus proferre queamus,
cum uolumus, quareque datum sit membra mouere,
et quae res tantum hoc oneris protrudere nostri
corporis insuerit, dicam: tu percipe dicta.
Dico animo nostro primum simulacra meandi
accidere atque animum pulsare, ut diximus ante.
Inde uoluntas fit; neque enim facere incipit ullam
rem quisquam, <quam> mens prouidit quid uelit ante.
Id quod prouidet, illius rei constat imago.
Ergo animus cum sese ita commouet ut uelit ire
inque gredi, ferit extemplo quae in corpore toto
per membra atque artus animai dissita uis est;
et facilest factu, quoniam coniuncta tenetur.
Inde ea proporro corpus ferit, atque ita tota
paulatim moles protruditur atque mouetur.
Praeterea tum rarescit quoque corpus et aer,
scilicet ut debet qui semper mobilis exstat,
per patefacta uenit penetratque foramina largus
et dispargitur ad partis ita quasque minutas
corporis. Hic igitur rebus fit utrimque duabus,
corpus ut ac nauis remis uentoque feratur.
Nec tamen illud in his rebus mirabile constat,

865
870
875
880
885
890
895
gehiago; hauek, beti mugitzen ari baitira, lehenki asko galtzen dute, barrutik hertsaturik, izerdi bidez, asko jariatzen dute ahotik, ahuldurik arnasestu egitean, eta honela gorputza xumetu eta izaera osoa gainbehera dator; horri mina darraio. Horregatik janaria hartzen da, lohadarrrak sendotzeko eta han-hemengo indarra berritzeko eta, lohadar eta zainetan zehar, jangura bizia ematzeko. Ura ere ur eske dagozen toki guztietan zabaltzen da; eta gure urdailean pilatzen eta hura sutzen duten bero-gorputz ugariak ere, ura etorkeran, ezabatu eta sua bezala itzungitzen dira, bero larrak lohadar idorrek igar ez ditzan. Honelaxe itzungitzen da egarri bizia gure gorputzean, honelaxe asetzen gose irritsa.

Orain esango dut zerk egiten duen, nahi dugunean aurrerantz urrats egin dezagun, zergatik eman zaigun lohadarrak mugitzea eta zer den gure gorputzaren pisu hain handi honi bultz egiten ohitu dena: jaso esanak. Lehenik gure gogora mugimenduaren simulakroak datozela eta gogoak kinatzen dutela diot, lehen azaldu bezala. Hortik dator nahimena; inor ez baita ezer egiten hasten, gogoak zer nahi duen aurretik ikusi gabe. Aurreikusten duena, harexen irudia dago gogoan. Gogoak, beraz, joan eta ibili nahiak eraginda, gorputz guztiko lohadar eta organo guztietan zehar zabal dagoen arimaren izatea ziztatzen du; eta egin erraza da, hain baturik baitagoz. Aldi berean, arimak gorputza ziztatzen du eta honela puska guztia da apur-apurka bultzatua eta mugiarazia. Gainera, orduan, gorputza xumetu egiten da eta airea, beti mugitzen ari denak egitea bidezko denez, bitarteetatik sartzen eta poro ugarietan barneratzen da eta gorputzaren zatirik txikienetaraino hedatzen. Bateko eta besteko kausa biok egiten dute gorputza mugi dadin, ontzia arraunez eta haizez bezala. Eta honetan ez gara harritu behar hain gorpuzño txikiek hain gorputz handiari eragiteaz eta gure pisu

tantula quod tantum corpus corpuscula possunt
contorquere et onus totum conuertere nostrum;
quippe etenim uentus subtili corpore tenuis
trudit agens magnam magno molimine nauem
et manus una regit quantouis inpete euntem
atque gubernaculum contorquet quolibet unum,
multaque per trocleas et tympana pondere magno
commouet atque leui sustollit machina nisu.

Nunc quibus ille modis somnus per membra quietem
inriget atque animi curas e pectore soluat,
suauidicis potius quam multis uiersibus edam;
paruus ut est cycni melior canor, ille gruum quam
clamor in aetheriis dispersus nubibus austri.
Tu mihi da tenuis auris animumque sagacem,
ne fieri negites quae dicam posse retroque
uera repulsanti discedas pectore dicta,
tutemet in culpa cum sis neque cernere possis.
Principio somnus fit ubi est distracta per artus
uis animae partimque foras eiecta recessit
et partim contrusa magis concessit in altum;
dissoluuntur enim tum demum membra fluuntque.
Nam dubium non est, animai quin opera sit
sensus hic in nobis, quem cum sopor inpedit esse,
tum nobis animam perturbatam esse putandumst
eiectamque foras; non omnem, namque iaceret
aeterno corpus perfusum frigore leti.
Quippe ubi nulla latens animai pars remaneret
in membris, cinere ut multa latet obrutus ignis,
unde reconfhari sensus per membra repente
posset, ut ex igni caeco consurgere flamma?
Sed quibus haec rebus nouitas confiat et unde
perturbari anima et corpus languescere possit,
expediam: tu fac ne uentis uerba profundam.
Principio externa corpus de parte necessum est,
aeriis quoniam uicinum tangitur auris,
tundier atque eius crebo pulsarier ictu,
proptereaue fere res omnes aut corio sunt

900

905

910

915

920

925

930

935

guztia biratzeaz. Gorputz fineko haize xumeak ontzi handiaren masa itzelari bultz egiten dio eta esku bakarrak daroa, indartsuen badoa ere, eta lema bakarrak biratzen du, nahi duenean, eta makinak, palanken eta txirriken bitartez, pisu handiko gauzak mugitzen eta bultzada koxkor batekin jasotzen ditu.

Orain loak nola isurtzen duen atsedena lohadarretan eta askatzen dituen gogoaren kezak bularretik, ugari baino areago esakera gozoko bertsoz azalduko dut; zisnearen kantu laburra austroaren hodei eterrezkoetatik zabaltzen den kurriloen marmarra baino hobe den bezala. Jardazu belarri fina eta arreta zolia, ez dezazun nik esana setaz uka eta nigandik alde egin, bihotzean egiazko doktrinari muzin eginez, bereiztu ezin izatearen errua zeurea izanik. Lehenik, loa dator, arimaren indarra lohadarretan barreiatu dagoenean eta zati bata kanpora jaurtia izan denean eta bestea hondoratu denean, saka-turik nolabait; orduan lohadarrek askatu eta laxotu egiten dira. Ez baitago dudarik arimaren lana dela gure gorputzaren sentimena, zeina loak eragoztean, gure arima nahastua eta kanporatua dela pentsatu behar baita; ez osorik, noski, orduan gorputza heriotzaren betiko hotzean murgildurik bailetzake. Izan ere, lohadarretan arima zatirik bat ere geratuko ez balitz, ilindia hauspean ehortzirik ezkututzen denez, zertatik liteke sentimena bat-batean lohadarretan isio, garra hausberotik bezala?

Baina azalduko dut nobedade hau zerk daragien eta zertatik arima nahasten eta gorputza ahultzen den: egizu hitzok haizeari jaurti ez diezazkiodan. Lehenik, airea jotzen eta ukitzen dagoen gorputz azalak haren etengabeko kolpez astindua eta inarrosia izan behar du, eta horregatik ia izaki guztiak dagoz edo larruz edo maskorrez edo oskolez jantzita. Arnasa hartzailei haizeak berak barrua

aut etiam conchis aut callo aut cortice tectae.
Interiorem etiam partem spirantibus aer
uerberat hic idem, cum ducitur atque reflatur.
Quare utrimque secus cum corpus uapulet et cum
perueniant plagae per parua foramina nobis 940
corporis ad primas partis elementaque prima,
fit quasi paulatim nobis per membra ruina.
Conturbantur enim positurae principiorum
corporis atque animi. Fit uti pars inde animai 945
eiciatur et introrsum pars abdita cedat,
pars etiam distracta per artus non queat esse
coniuncta inter se neque motu mutua fungi;
inter enim saepit coetus natura uiasque;
ergo sensus abit mutatis motibus alte.
Et quoniam non est quasi quod suffulciat artus, 950
debile fit corpus languescuntque omnia membra,
brachia palpebraeque cadunt poplitesque cubanti
saepe tamen submituntur uirisque resoluunt.
Deinde cibum sequitur somnus, quia, quae facit aer, 955
haec eadem cibus, in uenas dum diditur omnis,
efficit. Et multo sopor ille grauissimus exstat
quem satur aut lassus capias, quia plurima tum se
corpora conturbant magno contusa labore.
Fit ratione eadem coniectus parte animai 960
altior atque foras eiectus largior eius,
et diuisior inter se ac distractior intus.

Et quo quisque fere studio deuinctus adhaeret
aut quibus in rebus multum sumus ante morati
atque in ea ratione fuit contenta magis mens,
in somnis eadem plerumque uidemur obire: 965
causidici causa agere et componere leges,
induperatores pugnare ac proelia obire,
nautae contractum cum uentis degere duellum,
nos agere hoc autem et naturam quaerere rerum
semper et inuentam patriis exponere chartis. 970
Cetera sic studia atque artis plerumque uidentur
in somnis animos hominum frustrata tenere.

astintzen die, hartzean eta botatzean. Gorputza honela barru eta kanpo
zehaturik, eta kolpeak poro txikietatik gure gorputzaren lehen zati eta
elementuetara datozenean, gure lohadarretan apurka-apurka honda-
mena bezalakoa gertatzen da. Gorputzeko eta gogoko lehenkien koka-
era aldrebesten baita. Gertatzen da arima zati bat handik jaurtia dela
eta beste bat barrurantz ezkututzen dela, beste zati batek, berriz, loha-
darretan zabaldurik, ezin duela besteekin baturik jarraitu ez elkarmu-
gidarik burutu; naturak elkarren arteko biltze eta bideak eten egiten
baititu; sentimena, beraz, mugidak aldatuak, hondorantz gordetzen
da. Eta, organoak nolabait euskarrituko dituen ezer ez dagoenez gero,
gorputza ahultzen eta lohadar guztiak moteltzen dira, besoak eta beta-
zalak jausten eta, etzanda ere, belaunak tolesten eta giharreak bertan-
beheratzen. Janak ere logura dakar, honek ere, zain guztietan zehar
zabaltzean, airearena bera eragiten baitu. Eta askoz ere lo sakonagoa
da aserik edo jota zagozenean, orduan lehenki gehienak aldrebesten
baitira, lan handian mailaturik. Arrazoi beragatik, arimaren atzera-
kuntza gogorragoa eta bere kanporakuntza ere handiagoa da, eta elka-
rren artean banatuago eta aldenduago dagoz.

Eta bakoitza zein zaletasuni gogotsuago atxikita egon den eta
iraganean zeintzuk gauzatan gehien geratu garen eta gogoak zein-
tzuei gehien begiratu dien, haiexek dira gehien amets egiten bide
ditugunak: abokatuek auzigintza eta legegintza, jeneralek burruka
eta gudugintza, itsaslariak haizeekin hasi gudua burutzea, geuk ere
geure lanari ekitea eta natura etengabe aztertzea eta aurkitu duguna
aberri hizkuntzan azaltzea. Honela, gainerako zaletasun eta arteak
gizakien gogoetara engainakor etorri bide dira gehienez ametsetan.

Et quicumque dies multos ex ordine ludis
 adsiduas dederunt operas, plerumque uidemus,
 cum iam destiterunt ea sensibus usurpare,
 975 relicuas tamen esse uias in mente patentis,
 qua possint eadem rerum simulacra uenire;
 per multos itaque illa dies eadem obuersantur
 ante oculos, etiam uigilantes ut uideantur
 980 cernere saltantis et mollia membra mouentis
 et citharae liquidum carmen chordasque loquentis
 auribus accipere et consessum cernere eundem
 scaenaique simul uarios splendere decores.
 Usque adeo magni refert studium atque uoluntas,
 et quibus in rebus consuerint esse operati
 985 non homines solum se uero animalia cuncta.
 Quippe uidebis equos fortis, cum membra iacebunt,
 in somnis sudare tamen spirareque semper
 et quasi de palma summas contendere uiris
 990 aut quasi carceribus patefactis † saepe quiete†
 Uenantumque canes in molli saepe quiete
 995 iactant crura tamen subito uocesque repente
 mittunt et crebro redducunt naribus auras,
 ut uestigia si teneant inuenta ferarum,
 expergefactique sequuntur inania saepe
 ceruorum simulacra, fugae quasi dedita cernant,
 998 donec discussis redeant erroribus ad se.
 At consueta domi catulorum blanda propago
 1000 discutere et corpus de terra corripere instant
 [iactant crura tamen subito uocesque repente
 mittunt et crebro redducunt naribus auras
 ut uestigia si teneant inuenta ferarum
 expergefactique sequuntur inania saepe]
 proinde quasi ignotas facies atque ora tuantur.
 Et quo quaeque magis sunt aspera seminiorem,
 1005 tam magis in somnis eadem saeuire necessumst.
 At uariae fugiunt uolucres pinnisque repente
 sollicitant diuom nocturno tempore lucos,
 accipitres somno in leni si proelia pugnans
 1010 edere sunt persectantes uisaeque uolantes.

Hainbat egunetan jarraian zirku jokoak arretaz ikusten ari zirenek,
 euren sentimenak hartan ipintzeari utzi diotenean, hala ere, ikusi ohi
 dugu gogoaren bideak zabalik uzten dituztela, gauzen simulakro ber-
 dinak etor daitezen; honela, egun askotan zehar, irudi haiexek begie-
 taratzen dira eta, itzarrik ere, iruditzen zaie dantzarien lohadar bigu-
 nak mugitzen ikusten dituztela eta zitararen kantu gardena eta korde-
 len hotsa entzuten eta ekitaldi bera eta eszenako apaindura ezberdinak
 980 distiratzten direla. Halakoxe eragina daukate zaletasunak eta gozame-
 nak eta bakoitza zertan aritu ohi izanak, gizakietan ez ezik, animalia
 guztietan. Zaldi bizkorak, euren gorputza lo datzala ere, izerditzen
 eta arnastu etengabean ikusiko dituzu, giharre guztiak atezatuz, pal-
 madarraren bila edo ukuilu irekietatik [lasterka oldartzean] bezala.
 Sarritan ehiza-txakurrek, lo gozoan, bat-batean hankei eragiten eta
 ahausi egiten dute eta sudurretatik arnastots bizian hasten dira, ehizia-
 ren arrastoa aurkitu eta segika bailihoazen, eta batzuetan, itzarturik,
 oreinen simulakro funts gabeei segitzen diete, iheska ikusiko bailituz-
 ten, okerra ezabaturik seneratu arte. Etxe txakurren enda baketsua ere
 aztoratu eta lurretik gorputza altxatu guran hasten da [[bat-batean
 hankei eragiten eta ahausi egiten dute eta sudurretatik arnastots bizian
 hasten dira, ehiziaren arrastoa aurkitu eta segika bailihoazen eta
 batzuetan, itzarturik, oreinen simulakro funts gabeei segitzen diete]],
 aurpegi eta itxura ezezagunak ikusiz bezala. Eta zenbat eta enda gaiz-
 toagokoak izan, hainbat basatiago agertu behar dute ametsetan.
 Hegazti koloretsuek, ostera, ihes egiten dute eta gauez haien hegoek
 jainkoen oihanak bat-batean zalapartatzen dituzte, euren lo bigunean
 gabiraiak burrukara eta hegan atzetik segika datozkiela uste badute.
 Gainera, ibilera handietan gauza handiak egiten dituzten gizakiek
 halakoak maiz berritzen eta burutzen dituzte ametsetan: erregeek kon-

Porro hominum mentes, magnis quae montibus edunt
 magna, itidem saepe in somnis faciuntque geruntque:
 reges expugnant, capiuntur, proelia miscent,
 tollunt clamorem, quasi si iugulentur ibidem.
 Multi depugnant gemitusque doloribus edunt
 et quasi pantherae morsu saeuive leonis
 mandantur, magnis clamoribus omnia complent.
 Multi de magnis per somnum rebu loquuntur,
 indicioque sui facti persaepe fuere.
 Multi mortem obeunt. Multi, de montibus altis
 ut qui praecipitent ad terram corpore toto,
 exterruntur et ex somno quasi mentibu capti
 uix ad se redeunt permoti corporis aestu.
 Flumen item sitiens aut fontem propter amoenum
 adsidet et totum prope faucibus occupat amnem.
 Puri saepe lacum propter si ac dolia curta
 somno deuincti credunt se extollere uestem,
 totius umorem saccatum corpori fundunt,
 cum Babylonica magnifico splendore rigantur.
 Tum quibus aetatis freta primitus insinuat
 semen, ubi ipsa dies membris matura creauit,
 conueniunt simulacra foris e corpore quoque
 nuntia praeclari uoltus pulchrique coloris,
 qui ciet inritans loca turgida semine multo,
 ut quasi transactis saepe omnibu rebu profundant
 fluminis ingentis fluctus uestemque cruentent.

Sollicitatur id <in> nobis, quod diximus ante,
 semen, adulta aetas cum primum roborat artus.
 Namque alias aliud res commouet atque lacessit;
 ex homine humanum semen ciet una hominis uis.
 Quod simul atque suis eiectum sedibus exit,
 per membra atque artus decedit corpore toto
 in loca conueniens neruorum certa, cietque
 continuo partis genitalis corporis ipsas.
 Inritata tument loca semine fitque uoluntas
 eicere id quo se contendit dira lubido,

kizatzen dute, atxilotuak dira, guduak gidatzen dituzte, oihu egiten dute, berbertan lepoa moztuko baliote bezala. Askok burrukan eta minez aieneka dihardute eta, panterak edo lehoi ohilak haginka jango balitu bezala, dena ulu beldurgarriz betetzen dute. Askok ametsetan gauza garrantzitsuak kontatzen dituzte eta sarritan euren egiteen aitortpena dagite. Askok heriotzari aurre egiten diote. Asko, mendi altutik gorputz osoan lurreratzen direlakoan, izaturik eta zoraturik bezala irteten dira lotatik eta nekez oneratzen dira, gorputza halako dardaran. Batzuk, egarriz, ibai edo iturri alai baten ondoan esertzen dira, datorren ur guztia irentsi beharrean. Batzuetan haurrek, ametsetan, upel edo treska baten aurrean soinekoa jasotzen dutelakoan, gorputzeko txiz guztia barreiatzen dute, tapiz babiloniar distiratsuk blaituz. Gero, denborak lohadarretan heldurik, semena hodi gazteetan lehenengoz sartzen denean, halako gorputz baten irudiak datoz kanpotik, aurpegi bikain eta azal eder baten iragarle, semen ugariz hanpaturiko organoak mugitzen eta kinatzen dituztenak, eta sarritan, egiteko guztia eginda balego bezala, jarioa parrastan zabaltzen dute eta soinekoak lixibatzen.

Arestian aipatu semena guregan bizitu egiten da, helduaroak lohadarrak sendotzen ditueneko. Gauza bakoitza gauza ezberdinak hunkitzen eta jotzen baitu; eta giza haziari gizakiaren indarrak baka- rrik eragiten dio. Egoitza daukan tokitik jaurtia izanaz batera, seme- na, lohadar eta organoetan zehar, gorputz osotik erretiratu eta nerbio- en toki jakinean biltzen da eta gorputzaren alde genitalak berehala kinatzen ditu. Hauek pizturik, semenez hanpatzen dira eta desio bor- titzak tiratzen dionaren kontra jaurtitzeko gogoia sortzen da

[[semen ugariz hanpaturiko organoak mugitzen eta kinatzen dituztenak]] eta gorputzak maitasunaren arimak zauritua duen beste hura bilatzen du.

[incitat inritans loca turgida semine multo]
idque petit corpus, mens unde est saucia amore.
Namque omnes plerumque cadunt in uulnus et illam
emicat in partem sanguis unde icimur ictu,
et si comminus est, hostem ruber occupat umor;
sic igitur Veneris qui telis accipit ictus,
siue puer membris muliebribus hunc iaculatur
seu mulier toto iactans e corpore amorem,
unde feritur, eo tendit gestitque coire
et iacere umorem in corpus de corpore ductum;
namque uoluptatem praesagit muta cupido.

1050

Haec Venus est nobis; hinc autemst nomen amoris,
hinc illaec primum Veneris dulcedinis in cor
stillauit gutta et successit frigida cura.
Nam si abest quod ames, praesto simulacra tamen sunt
illius et nomen dulce obuersatur ad auris.
Sed fugitare decet simulacra et pabula amoris
absterrere sibi atque alio conuertere mentem
et iacere umorem conlectum in corpora quaeque
nec retinere, semel conuersum unius amore,
et seruare sibi curam certumque dolorem;
ulcus enim uiuescit et inueterascit alendo
inque dies gliscit furor atque aerumna grauescit.
si non prima nouis conturbes uolnera plagis
uolgiuagaque uagus Venere ante recentia cures
aut alio possis animi traducere motus.

1060

Nec Veneris fructu caret is qui uitat amorem
sed potius quae sunt sine poena commoda sumit;
nam certe purast sanis magis inde uoluptas
quam miseris. Etenim potiundi tempore in ipso
fluctuat incertis erroribus ardor amantum
nec constat quid primum oculis manibusque fruuntur.
Quod petiere, premunt arte faciuntque dolorem
corporis et dentis inlidunt saepe labellis
osculaue adfigunt, quia non est pura uoluptas
et stimuli subsunt qui instigant laedere id ipsum

1065

1070

1075

1080

Zeren gehienez zauriaren alderantz jausten baitira denak eta odola kolpeak jo gaituen alderantz borbortzen da eta turrusta gorriak etsaia ere harrapatzen du, hurbil badago; honela, Venusen gezien kolpea hartzen duenak, dela geziok andre gorpuzkerako mutiko batek dela gorputz osotik amodioa darion emakumeak jaurti, zauritzen duen haren ganantz tiratzen du eta harekin bat egiteko eta gorputzeko humorea haren gorputzean husteko irrikaz dago; desio mutuak atsegina iragaritzen baitio.

Hau guztia Venus da guretzat; hortik dator maitasunaren izena, hortik hasten da Venus gure bihotzean samurtasun tanta distilatzen, gero ardura bizia darraiona. Zeren, maite duzuna ez badago, haren irudiak eskuar dituzu eta haren izen gozoa belarrian hoska. Baina kome ni da irudioi ihes egitea eta maitasunari bide damaiona saihestea eta gogo beste zer batzuetara itzultzea eta gorputzean pilaturiko humorea edozein gorputzen kontra jaurtitzea, eduki eta maitasun bakarrarentzat gorde beharrean, kezka eta nahitaezko mina norberaganatuz; zauria, elikaturik, bizitu eta zoldu egiten baita, eta berotasuna egunegun gehitzen eta nahigabea handitzen, lehen zauriak ez badituzu beste kolpe batzuekin ezabatzen eta aurretik, berri direno, han-hemen Venus edonorkoiarekin sendatzen, edo gogoaren mugidak beste zer baitera bihurtu ezin badituzu.

Maitasuna saihesten duena ez da, ordea, Venusen fruitu gabe gelditzen, aitzitik nahigabe gabeko atseginak hautatzen ditu; atsegina sanoentzat puruago baita, noski, gaixoentzat baino. Zeren posesio unean bertan ere, maitaleen sugarra zalantzan eta noraezki fluktuatzen baita, lehenik eskuz ala begiz gozatu ez dakiela. Desio zutena estutzen eta gorputzari min egiten diote eta sarritan hortzak ezpainetan itsasten eta musuka zauritzen dituzte, ez baita atsegina purua, eta badira azpi-

quodcumque est, rabies unde illaec germina surgunt.
 Sed leuiter poenas fragit Venus inter amorem
 blandaque refrenat morsus admixta uoluptas
 Namque in eo spes est, unde est ardoris origo,
 restingui quoque posse ab eodem corpore flammam.
 Quod fieri contra totum natura repugnat;
 unaque res haec esta, cuius quam pluhima habemus,
 tam magis ardescit dira cuppedine pectus.
 Nam cibus atque umor membris adsumitur intus;
 quae quoniam certas possunt obsidere partis,
 hoc facile expletur laticum frugumque cupido;
 ex hominis uero facie pulchroque colore
 nil datur in corpus praeter simulacra fruendum
 tenuia; quae uento spes raptat saepe misella.
 Ut bibere in somnis sitiens quom quaerit et umor
 non datur, ardorem qui membris stinguere possit,
 sed laticum simulacra petit frustra laborat
 in medioque sitit torrenti flumine potans,
 sic in amore Venus simulacris ludit amantis,
 nec satiare queunt spectando corpora coram
 nec manibus quicquam teneris abradere membris
 possunt errantes incerti corpore toto.
 Denique cum membris conlatis flore fruuntur
 aetatis, iam cum praesagit gaudia corpus
 atque in eost Venus ut muliebria conserat arua,
 adfigunt auide corpus iunguntque saliuas
 oris et inspirant pressantes dentibus ora:
 nequiquam, quoniam nil inde abradere possunt
 nec penetrare et abire in corpus corpore toto;
 nam facere interdum uelle et certare uidentur:
 usque adeo cupide in Veneris compagibus haerent,
 membra uoluptatis dum ui labefacta liquescunt.
 Tandem ubi se erupit neruis conlecta cupido,
 parua fit ardoris uiolenti pausa parumper;
 inde redit rabies eadem et furor ille reuisit,
 cum sibi quod cupiant ipsi contingere quaerunt,
 nec reperire malum id possunt quae machina uincat:
 usque adeo incerti tabescunt uolnere caeco.

1085

1090

1095

1100

1105

1110

1115

1120

-eztenak, sugar hozien sorburu den zernahiri min egitera kinatzen
 dutenak. Baina Venusek mina apur bat eten egiten du maitaketan, eta
 bertan nahasturiko gozamen bigunak haginkadei eutsi egiten die.
 Itxaropena baitago sugarraren sorburu izan den hark berak ere bere
 gorputzeko garra itzungi ahal izango duela. Naturak, oster, guztiz
 kontrakoa gertatzen dela protestatzen du; hauxe da gauza bakarra,
 edukiago eta bihotza sutzenago dena desioz. Zeren jana eta edana gor-
 putz barruan absorbatuak dira, eta, han toki jakinak betetzen dituzte-
 nez gero, aisa asetzen da ur edo ogi galea. Gizakumearen aurpegitik
 edo kolore ederretik, berriz, ez zaigu ezer gozatzekorik gorputzean
 sartzen, irudi xumeak besterik; itxaropen errukarriak sarritan aireari
 osten dizkionak. Ametsetan edan nahi duen eta gorputzaren sugarra
 itzungi diezaiokeen urik aurkitzen ez duen, baizik iturrien simulakro-
 etara oldartzen eta edan nahi duen ibai nahasiaren erdian alferrik
 tematzen eta egarritzen den egartia bezala, halaxe engainatzen ditu
 simulakroekin Venusek maitaleak, eta ez begiak ase daitezke gorpu-
 tzak aurrez ikusten, ez eskuek, gorputz guztian zehar deslai eta zalan-
 tzan dabiltzanek, erauz dezakete lohadar samurren ezer. Gero, lohadar
 trabatueta adin loreaz gozatzen dihardutela, gorputzek atsegina bide-
 an somatzen eta Venus emakumearen soroa ereiten ari dela, gorputzak
 irrikaz estutzen eta ahoko listuak batzen dituzte eta elkar arnasten
 dute, hortzak ezpainetan hertsatuz; alferrik, ezin baitute handik ezer
 erauzi ez bestearen gorputzean sartu eta harenarekin bat egin; horixe
 nahi dutela eta horretantxe dihardutela baitirudi: halakoxe irritsez
 katigatuak dagoz Venusen lakioetan, lohadarrak gozamenaren indarra
 ahiturik zimeltzen diren bitartean. Azkenik, nerbioetan baturiko irri-
 tsa kanporatu denean, sugar bortitzaren pausa laburra egiten da; ondo-
 ren grina eta berotasun bera itzultzen da, desio dutena eurenganatu
 guran, gaitza menperatuko duen trepetxurik ezin aurkituz: halakoxe
 noraezean ahitzen dira zauri ezkutuan.

Adde quod absumunt uiris pereuntque labore,
adde quod alterius sub nutu degitur aetas;
labitur interea res et Babylonia fiunt,
languent officia atque aegrotat fama uacillans;
unguenta et pulchra in pedibus Sicyonia rident,
scilicet et grandes uiridi cum luce zmaragdi
auro includuntur teriturque thalassina uestis
adsidue et Veneris sudorem exercita potat;
et bene parta patrum fiunt anademata, mitrae,
interdum in pallam atque Alidensia Ciaque uertunt;
eximia ueste et uictu conuiuia, ludi,
pocula crebra, unguenta coronae sarta parantur:
nequiquam, quoniam medio de fonte leporum
surgit amari aliquid quod in ipsis floribus angat,
aut cum conscius ipse animus se forte remordet
desidiose agere aetatem lustrisque perire,
aut quod in ambiguo uerbum iaculata reliquit
quod cupido adfixum cordi uiuescit ut ignis,
aut nimium iactare oculos aliumue tueri
quod putat in uoltuque uidet uestigia risus.

1125

1130

1135

1140

Atque in amore mala haec proprio summeque secundo
inueniuntur; in aduerso uero atque inopi sunt,
predere quae possis oculorum lumine operto,
innumerabilia; ut melius uigilare sit ante,
qua docui ratione, cauereque ne inliciaris.
Nam uitare, plagas in amoris ne iaciamur,
non ita difficile est quam captum retibus ipsis
exire et ualidos Veneris perrumpere nodos.
Et tamen implicitus quoque possis inque peditus
effugere infestum, nisi tute tibi obuius obstes
et praetermittas animi uitia omnia primum
aut quae corpori sunt eius, quam praepetis ac uis.
Nam faciunt homines plerumque cupidine caeci
et tribuunt ea quae non sunt his commoda uere.
Multimodis igitur prauas turpisque uidemus
esse in deliciis summoque in honore uigere.
Atque alios alii inrident Veneremque suadent

1145

1150

1155

Erants indarra xahutzen dutela eta nekean ahitzen direla, erants
bizitza bestearen apetaren mende daramatela; bitartean dirua babilo-
niar tapizetan doakie, eginkizunak bertan behera eta ospea kaxkartzen
eta zalantzan; ukenduek eta sizioniar oinetako ederrek dizdiz dagite
eta argi berdeko esmeralda handiak urrean kokatzen dira eta purpu-
razko jantziak etengabe estutzen eta Venusen izerdia edaten dute;
gurasoen ekarpen zintzoak diadema, mitra, edo mantu eta alindar eta
kiar oihal bihurtzen dira; zamau eta janari bikaineko oturuntzak, joko-
ak, edontziak gainez, lurrinak, koroak, girlandak prestatzen dira: alfe-
rrik, zeren atsegin iturritik bertatik sortzen baita halako zer garratz
bat, loretzan ere nahigabea daragiena, dela kontzientzia alatzten dela-
ko, bizitza alferkerian eta handikerian xahutzearren, dela maiteak hitz
dudazkoren batzuk jaulki dituelako, irritsak, bihotzean josirik, sua
bezala pizten dituenak, dela begiak gehiegi zehartu dituela eta beste
bati begiratu diola uste duelako eta aurpegian harenganako irribarre
zantzuak ikusten dituelako.

Eta gaitz hauek maitasun zintzo eta dohatsuan aurkitzen dira;
maitasun dohakabe eta agorrean, berriz, amaigabeak dira, begiak itxi-
ta ere ikusteko modukoak; hobe da, beraz, aurretik kargu hartzea, esan
dudan moduan, eta lakioan ez jausten saiatzea. Zeren maitasun sarean
jausteari albo egitea ez baita jausitakoan sare beretik libratzea eta
Venusen korapilo sendoak haustea bezain zaila. Eta, hala ere, trabatu-
rik eta estekaturik egon arren, okerrari ihes egin ahalko zenioke, zeuk
zeure buruari eragotziko ez bazenio eta nahi eta maite duzunaren gor-
putzeko eta gogoko akats guztiei ez-ikusi egingo ez bazenie. Horixe
egin ohi dute irritsean itsuturiko gizonak, eta berez inondik ez dauz-
katen dohainak ikusten dizkiete. Horrela, emakume erabat gaizto eta
itsusiak ederretsiak eta ohore osoz tratatzen dituztela dakusgu. Eta
batzuek besteei barre egiten diete eta Venus ematzeko aholkatzen,

ut placent, quoniam foedo adfligentur amore,
 nec sua respiciunt miseri mala maxima saepe:
 nigra melichrus est, immunda et fetida acosmos,
 caesia Palladium, neruosa et lignea dorcas,
 paruula, pumilio, chariton mia, tota merum sal,
 magna atque inmanis cataplexis plenaque honoris.
 Balba loqui non quit, traulizi, muta pudens est;
 at flagrans odiosa loquacula Lampadium fit.
 Ischnon eromenion tum fit, cum uiuere non quit
 prae macie; rhadine uerost iam mortua tussi.
 At tumida et mammosa Ceres est ipsa ab Iaccho,
 simula Silena ac saturast, labeosa philema.
 Cetera de genere hoc longum est si dicere coner.
 Sed tamen esto iam quantouis oris honore,
 cui Veneris membris uis omnibus exoriatur:
 nempe aliae quoque sunt; nempe hac sine uiximus ante;
 nempe eadem facit, et scimus facere, omnia turpi,
 et miseram taetris se suffit odoribus ipsa
 quam fabulae longe fugitant furtimque cachinnant.
 At lacrimans exclusus amator limina saepe
 floribus et sertis operit postisque superbos
 unguis amaracino et foribus miser oscula figit;
 quem si, iam ammissum, uenientem offenderit aura
 una modo, causas abeundi quaerat honestas,
 et meditata diu cadat alte sumpta querella,
 stultitiaque ibi se damnet, tribuisse quod illi
 plus uideat quam mortali concedere par est.
 Nec Veneres nostras hoc fallit; quo magis ipsae
 omnia summo opere hos uitae postcaenia celant
 quos retinere uolunt adstrictosque esse in amore;
 nequiquam, quoniam tu animo tamen omnia possis
 protrahere in lucem atque omnis inquirere risus
 et, si bello animost et non odiosa, uicissim
 praetermittere <et> humanis concedere rebus.

Nec mulier semper ficto suspirat amore
 quae complexa uiri corpus cum corpore iungit
 et tenet adsuctis umectans oscula labris:

1160

1165

1170

1175

1180

1185

1190

amodio zatarrean sufritzen dutelako, eta gaizoek ez dute euren gaitz
 sarritan askoz handiagorik ikusten. Beltza eztilorea da, hitsa eta kira-
 tsua jareina, beturdina Palasen irudi, haritsua eta zurezkoa gazela, txar-
 txarra eta nanoa ene grazia, gatz-harri purua, handia eta kankailua
 miragarria eta maiestatez betea. Totela eta berbabakoa bada, zizipaza-
 duna, mutua lotsorra; eta berritsu gaizto gogaikarria tximistargia.
 Anemikoa ene koskortxo da, argalez bizi ezin badu ere; eztulka ia
 hilean dagoena makaltxo. Gizena eta titi-haundia Ceres bera da
 Bakorekin, sudurzapala Silena, Satira emea, ezpaintsua musu-lorea.
 Honelako guztiak esaten hastekotan, ez genuke sekula amaituko.
 Baina demagun zeuk nahi bezain aurpegi ederra daukala eta Venusen
 xarma lohadar guztietatik dariola: izango dira, noski, bera bezalako-
 ak; artean bera gabe bizi izan gara, noski; berak ere itsusiaren zer ber-
 dinak egiten ditu eta badakigu egiten dituela, eta gajoa kirats nazka-
 garriz usaintzen da, otseinek ihes eta ezkutuan barre egiten diotela.
 Eta bitartean kanpoan utzi duen maitale negartiak atalburua lorez eta
 girlandaz jazten du eta atezango harroak lurrintzen, eta gizarajoak ate-
 orrietan musuak inkaturik uzten ditu; onartua izanik, ostera, sudurre-
 ra letorkiokeen lehen bafadan, hanka egiteko arrazoi jatorrak bilatuko
 lituzke eta luzaz entseiaturiko elegia panpoxa behera letorke eta bere
 burua ergeltzat joko luke, maiteari hilkor bati dagokion baino gehiago
 esleitu diola ikusirik. Eta gure Venusek badakite hori; horrexegatik
 saiatzen dira euren bizitzaren eszena ostea ezkututzen maitasunaren
 zerrendan katigatu nahi dituztenei; alferrik, ostera, zeure gogoan dena
 atera baitezakezu argitara eta barre haiek guztiak azter eta, bihotz
 onekoa bada eta ez gorrotobera, zeuk ere ez-ikusi egin eta giza aka-
 tsak barka.

Baina emakumea ez da beti maitasun fingituz hasperentzen,
 gizonarekin besarkaturik, gorputza gorputzarekin bat egiten eta
 ezpain hezeak musuka xurgatzen dizkionean: sarritan benetan dihardu

nam facit ex animo saepe et communia quaerens
gaudia sollicitat spatium decurrere amoris.
Nec ratione alia uolucres armenta feraeque
et pecudes et equae maribus subsidere possent,
si non, ipsa quod illarum subat, ardet abundans
natura et Venerem salientum laeta retractat.
Nonne uides etiam quos mutua saepe uoluptas
uinxit, ut in uinclis communibus excrucientur?
In triuiis cum saepe canes, discedere auentes
diuersi cupide summis ex uiribu tendunt,
quom interea ualidis Veneris compagibus haerent;
quod facerent numquam nisi mutua gaudia nossent
quae iacere in fraudem possent uinctosque tenere.
Quare etiam atque etiam, ut dico, est communi uoluptas.

Et commiscendo quom semine forte uirilem
femina uim uicit subita ui corripuitque,
tum similes matrum materno semine fiunt,
ut patribus patrio. Sed quos utriusque figurae
esse uides, iuxtim miscentis uulta parentum,
corpore de patrio et materno sanguine crescunt,
semine cum Veneris stimulis excita per artus
obuia confligit conspirans mutuus ardor,
et neque utrum superauit eorum nec superatumst.
Fit quoque ut interdum similes exsistere auorum
possint et referant proauorum saepe figuras
propterea quia multa modis primordia multis
mixta suo celant in corpore saepe parentes,
quae patribus patres tradunt a stirpe profecta;
inde Venus uaria producit sorte figuras
maiorumque refert uoltus uocesque comasque;
quandoquidem nilo minus haec <de> semine certo
fiunt quam facies et corpora membraque nobis.
Et muliebre oritur patrio de semine saeculum
maternoque mares existunt corpore creti.
Semper enim partus duplici de semine constat,
atque utri similest magis id quodcumque creatur,

1195

1200

1203

1210

1204

1205

1209

1211

1215

1220

1225

1230

eta gozamen komunaren bila tiratzen du maitasunaren lasterketa kurrizera. Bestela animalien emeek ere, hegaztiek eta abereek, basokoek zein etxekoek, eta behorrek ere ezingo lukete arregana makurtu, euren izaera ere argose jorian sutuko ez balitz eta gainekoaren desioari pozik jarraituko ez balio. Ez al dakusu nola sarritan elkar-atseginak lotzen dituenak kate komunetan oinazetzen diren? Hamaika bidegurutzetan txakurrek apartatu guran eta indar osoz kontrako alde-rantz tiraka jardun ohi dute, Venusen lokarri indartsuek atxikitzen dituztela; horrelakorik ez lukete inoiz egingo, lakioan jausarazteko eta loturik edukitzeko moduko elkar-atseginik ezagutuko ez balute. Behin eta berriz, beraz, diodanez, atsegina komuna da.

Eta, haziak nahastean, emakumeak kolpeko indarrez gizonaren indarra menperatu eta beragantzen badu, orduan umeek amaren hazitik amatara ematen dute, aitarenetik aitataraz bezala. Baina bien antza hartzen diezunak, aurpegiaren guraso bien nahasketa dakartenak, aitaren gorputzetik eta amaren odoletik datoz, elkarrekiko berotasunak Venusen estimuluek kinaturiko haziak bata-bestearen aurka oldarrarazi dituenan, eta ez bata bestea gainditu duenean, ez gainditua denean. Baliteke umeek aitaren antza edukitzea, baita birraititaren itxura ekartzea ere, gurasoek euren gorputzean askotariko lehenki ugari nahasturik gordetzen baitute sarritan, lehen jatorritik hara aitatik aitaraz datorrena; hortik Venusek itxura ezberdineko figurak moldatzen ditu eta asabek hazpegiak eta ahotsa eta ileak berritzen; zeren hau guztia ere hazi jakinetik baitator, aurpegia eta gorputza eta lohadarrak bezalaxe. Andrezkoak aitaren hazitik datoz eta gizonezkoak amaren gorputzetik sortuak dira. Erditze oro bietariko haziz osatzen baita, eta sortzen dena zeinen antzekoago den, harengandik zati handiagoa

eius habet plus parte aequa; quod cernere possis,
siue uirum suboles siuest muliebris origo.

Nec diuina satum genitalem numina cuiquam
absterrent, pater a gnatis ne dulcibus umquam
appelletur et ut sterili Venere exigat aeuom;
quod plerumque putant et multo sanguine maesti
conspargunt aras adolentque altaria donis,
ut grauidas reddant uxores semine largo;
nequiquam diuom numen sortisque fatigant.
Nam steriles nimium crasso sunt semine partim
et liquido praeter iustum tenuique uicissim:
tenuis locis quia non potis est adfigere adhaesum,
liquitur extemplo et reuocatum cedit abortu;
crassius hinc porro quoniam concretius aequo
mittitur, aut non tam prolixo prouolat ictu
aut penetrare locos aequae nequit aut penetratum
aegre admiscetur muliebri semine semen.
Nam multum harmoniae Veneris differre uidentur:
atque alias alii complent magis ex aliisque
succipiunt aliae pondus magis inque grauescunt.
Et multae steriles Hymenaeis ante fuerunt
pluribus et nactae post sunt tamen unde puellios
suscipere et partu possent ditescere dulci.
Et quibus ante domi fecundae saepe nequissent
uxores parere, inuentast illis quoque compar
natura, ut possent gnatis munire senectam.
Usque adeo magni refert, ut semina possint
seminibus commisceri genitaliter apta,
crassaque conueniant liquidis et liquida crassis.
Atque in eo refert quo uictu uita colatur:
namque aliis rebus concresecunt semina membris
atque aliis extenuantur tabentque uicissim.
Et quibus ipsa modis tractetur blanda uoluptas
id quoque permagni refert: nam more ferarum
quadrupedumque magis ritu plerumque putantur
concupere uxores, quia sic loca sumere possunt,
pectoribus positus, sublati semina lumbis.

dauka halaber; hau aisa ikus dezakezu, ondorengoak gizonezkoak zein
andrezkoak izan.

Eta ez dira jainkoak gizonei ahalmen ernaltzailea kentzen die-
tenak, seme-alaba gozoek inoiz aita dei ez diezaioten eta bizimodua
Venus antzuan igaro dezaten; gehienek horixe uste dute eta, tristerik,
sakrifizio-harriak odoleztatzen dituzte eta aldareak oparizatzen,
emazteak semen ugariz haurdun uzteko; alferrik ekiten diete jainko-
en ahalari eta orakulei. Antzutasuna, izan ere, semen lodiegiak era-
giten du eta, bestela, behar baino likido meheagoak: meheak ezin du
dagokion tokian inkatu eta berehala lerratzen da eta fruturik utzi
gabe itzultzen; lodiagoa, berriz, trinkokiegi igortzen da, edo ez du
behar besteko indarrez aurrera egiten edo ezin du behar den tokian
sartu, edo, sarturik, hazia nekez nahasten da emakumearen haziare-
kin. Venusen harmoniak oso ezberdinak direla ikusten baita: gizon
batzuek emakume batzuk gehiago betetzen baitituzte eta hauek beste
gizon batzuegandik hobeto hartzen dute ernal kolpea. Eta askok,
hainbat himeneotan lehen antzu izanek, gero lortu dute norekin
umeak izan eta norekin haurtxo gozoz aberastu. Eta lehenengo
emazteek, ernalkorrak izan arren, umerik sortu ezin izan zutenen
gizon askok gero aurkitu dute natura egokia, zahartzarora seme-ala-
ben babesean igaro zezaten. Hain axola handikoa da haziak haziakin
egoki nahastea era ernalgarrian, lodiak arinekin eta arinak lodiekin
bat eginez. Zerikusi handia dauka, halaber, nolako jakera daroagun
bizitzan: janari batzuek semena ugaldtu egiten baitute gorputzean eta
beste batzuek ahitu eta eskastu. Oso garrantzitsua da maitagintza
gozoa nola burutzen den ere: emakumea piztien eta lauhanka-
koen moduan hobeto ernaltzen dela uste da gehienbat, horrela
hazia hobeto iristen baita, bularrak beherantz eta ipurdia goian.

Nec molles opus sunt motus uxoribus hilum.
Nam mulier prohibet se concipere atque repugnat,
clunibus ipsa uiri Venerem si laeta retractat
atque exossato ciet omni pectore fluctus:
eicit enim sulcum recta regione uiaque
uomeris atque locis auertit seminis ictum.
Idque sua causa consuerunt scorta moueri,
ne complerentur crebro grauidaeque iacerent
et simul ipsa uiris Venus ut concinnior esset;
coniugibus quod nil nostris opus esse uidetur.

1270

1275

Nec diuinitus interdum Venerisque sagittis
deteriore fit ut forma muliercula ametur.
Nam facit ipsa suis interdum femina factis
morigerisque modis et munde corpore culto,
ut facile insuescat <te> secum degere uitam.
Quod superest, consuetudo concinnat amorem;
nam leuiter quamuis quod crebro tunditur ictu,
uincitur in longo spatio tamen atque labascit.
Nonne uides etiam guttas in saxa cadentis
umoris longo in spatio pertundere saxa?

1280

1285

Eta emakumeak ez du mugida lizunik ezertarako behar. Berak eragozten eta zapuzten baitu ernaltzea, ipurdiari eraginka gizonaren irritsa jostakor suspertzen eta, gorputza zauliturik, jarioa erakartzen badu: ildoa goldearen bide zuzenetik ateratzen eta semenaren kolpea lekutik apartatzen baitu. Julisak euren onerako mugitu ohi dira horrela, hain maiz beteak eta ernalduak ez izatearren, baita gizonari Venusen ekintza laketago egitearren ere; gure emazteek ez bide dute honelako ezer behar.

Eta ez da jainkoen edo Venusen gezien ondorio inoiz itxura exkaxeko andretxoa ere maitatua izatea. Sarritan emakumeak berak zertzen baitu bere portaeraz eta aldarte bigunez eta gorputz zainduz eta garbiz, eta aisa tiratzen du berarekin bizi izatera. Gainerakoan, ohiturak amodioa sortzen du; zeren, arinki bada ere, kank eta kank kolpatzen denak luzera amore ematen du eta gainbehera dator. Ez al dakusu haitzean jausten diren tantek ere luzera zulatu egiten dutela haitza?

LIBER QUINTUS

CAPITULA

1. PLUS HOMINIBUS PROFUISSE QUI SAPIENTIAM
INVENERIT QUAM CEREREM LIBERUM
HERCULEM
59. ANIMAM NATIVAM ESSE
64. DE MUNDO
76. DE SOLIS ET LUNAE CURSU
91. MARE CAELUM TERRAM
INTERITURA
132. ANIMAM ET ANIMUM NON POSSE ESSE
SINE CORPORE
146. MUNDUM NON ESSE AB DIS CONSTITUTUM
200. DIVISIO TERRAE VEL VITIUM
240. CUI PARS NATIVA SIT TOTUM
NATIVUM ESSE
251. DE TERRA
261. DE AQUA
273. DE AERE SIVE ANIMA
281. DE IGNI ET SOLE
294. DE LAMPADE ET LUCERNA
306. DE AEDIFICIIS QUEM AD MODUM INTEREANT
324. QUARE NATA OMNIA DICAT

BOSGARREN LIBURUA

KAPITULUAK

1. JAKINDURIA AURKITU ZUENAK ZERES,
LIBER ETA HERKULESEK BAINO ON GEHIAGO
EGIN DIELA GIZAKIEI
59. ARIMAK HASIERA DAUKALA
64. MUNDUAZ
76. EGUZKIAREN ETA ILARGIAREN IBILBIDEAZ
91. ITSASOA, ZERUA ETA LURRAK HILKORRAK
DIRELA
132. ARIMAK ETA GOGOAK EZIN DUTELA
GORPUTZ GABE IZAN
146. MUNDUA EZ DELA JAINKOEK EGINA IZAN
200. LURRAREN ZATIKUNTZA EDO AKATSA
240. HASIERADUN ZATIAK DITUEN OSOA
HASIERADUNA DELA
251. LURRAZ
261. URAZ
273. AIREAZ EDO HATSAZ
281. SUAZ ETA EGUZKIAZ
294. LANPARAZ ETA ZUZIAZ
306. ERAIKINAK ZER HILKORRAK DIREN
324. ZERGATIK DENAK HASIERA DAUKAN

351. QUARE AETERNITAS ESSE POSSIT
 376. ET NATIVA ESSE
 396. DE PHAETONTE SOLIS FILIO
 419. ORIGO MUNDI ET OMINIUM
 471. DE SOLIS ET LUNAE MAGNITUDE
 564. DE SOLIS MAGNITUDE
 575. DE LUNA
 590. DE CALORE SOLIS
 621. DEMOCRITI DE SOLE
 629. DE LUNAE CURSU
 663. EX DIA VISIO SOLIS
 680. DE DIE LONGO ET BREVI NOCTE
 705. DE LUNAE LUMINI
 737. DE ANNI TEMPORIBUS
 751. DE ECLIPSI
 774. DE SOLIS ET LUNAE OFFECTIONE
 780. DE NOVITATE MUNDI ET DISPOSITIONE
 RERUM QUAE IN EO SUNT
 878. DE CENTAURIS
 892. DE SCYLLA
 901. DE CHIMAERA
 916. NON POTUISSE CHIMAERA ET SCYLLAM ET
 SIMILIA EARUM GIGNI
 1161. QUO MODO HOMINIBUS INNATA SIT DEORUM
 OPINIO
 1241. QUEM AD MODUM AURUM ARGENTUM
 PLUMBUM REPERTUM SIT
 1281. QUEM AD MODUM FERRUM INVENTUM SIT

351. ZERGATIK BETIERA BADAITEKEEN
 376. ETA HASIERADUNA IZAN
 396. EGUZKIAREN SEME PHAËTONEZ
 419. MUNDUAREN ETA DENAREN HASIERA
 471. EGUZKIAREN ETA ILARGIAREN TAMAINAZ
 564. EGUZKIAREN TAMAINAZ
 575. ILARGIAZ
 590. EGUZKIAREN BEROAZ
 621. DEMOKRITOREN EGUZKIAZ
 629. ILARGIAREN IBILBIDEAZ
 663. IDATIK EGUZKIA NOLA IKUSTEN DEN
 680. EGUN LUZEAZ ETA GAU LABURRAZ
 705. ILARGIAREN ARGIAZ
 737. URTAROEZ
 751. EKLIPSEAZ
 774. EGUZKIA ETA ILARGIA NOLA ILUNTZEN DIREN
 780. MUNDUAREN GAZTETASUNAZ ETA BERTAN
 DIREN GAUZEN KOKAERAZ
 878. ZENTAUROEZ
 892. ESZILAZ
 901. KIMERAZ
 916. NOLA EZ ZITEKEEN EZ KIMERARIK,
 EZ ESZILARIK, EZ ANTZEKORIK SOR
 1161. NOLA GIZAKIEK BEREZKO DUTEN
 JAINKOENGAN SINESTE
 1241. URREA, ZILARRA ETA BERUNA NOLA
 AURKITU ZITUZTEN
 1281. BURDINA NOLA ASMATU ZUTEN

LIBER QUINTUS

Quis potis est dignum pollenti pectore carmen
condere pro rerum maiestate hisque repertis?
Quisue ualet uerbis tantum qui fingere laudes
pro meritis eius possit qui talia nobis
pectore parta suo quaesitaque praemia liquit? 5
Nemo, ut opinor, erit mortali corpore cretus.
Nam si, ut ipsa petit maiestas cognita rerum,
dicendum est, deus ille fuit, deus, inclute Memmi,
qui princeps uitae rationem inuenit eam quae
nunc apellatur sapientia, quique per artem 10
fluctibus e tantis uitam tantisque tenebris
in tam tranquillo et tam clara luce locauit.
Confer enim diuina aliorum antiqua reperta.
Namque Ceres fertur fruges Liberque liquoris
uitigeni laticem mortalibus instituisse; 15
cum tamen his posset sine rebus uita manere,
ut fama est aliquas etiam nunc uiuere gentis:
at bene non poterat sine puro pectore uiui;
quo magis hic merito nobis deus esse uidetur,
ex quo nunc etiam per magnas didita gentis 20
dulcia permulcent animos solacia uitae.
Herculis antistare autem si facta putabis,
longius a uera multo ratione ferere.
Quid Nemeaeus enim nobis nunc magnus hiatus
ille leonis obsesset et horrens Arcadius sus? 25

BOSGARREN LIBURUA

Nork lezake, bere gogo ahaltsuz, naturaren maiestateari eta aurkikunde hauei dagokien poema bat eraiki? Nork dauka etorria, bere talentuan erditu eta argituriko hainbeste ondasun utzi zigunak merezi dituen gorantzak kantatzeko? Gorputz hilkordun inork ere ez, nik uste. Zeren, gauzen maiestateak eskatu bezala hitz egin behar bada, jainko huraxe izan zen, -jainkoa, ene Memmio-, guk orain jakin-duria deritzogun bizi-arrazoia lehenen aurkitu zuena eta bere trebetasunez bizitza hain ekaitz eta ilunpe handietatik halako lasaitasun eta argitasun garbian paratu zuena. Aldera itzazu, horrela, beste batzuek antzina egindako aurkikunde jainkozkoak. Zeresek garia eta Liberrek mahats uretik harako likorea lantzen irakatsi ei zien hilkorrei; hala ere, biziak hauek gabe iraun zezakeen, gaur ere zenbait jende bizi ei den legez: baina bihotz garbirik gabe ez zegoen ondo bizitzerik; bidezkoago da, beraz, gogoia lasaitzen duten pozkari gozoen, gaur ere laterri handietan zabal direnen, emailea jainkotzat jo dezagun. Zeren Herkulesen egintzak handiagotzat badauzkazu, egiatik oso urrun zabilta. Orain zer kalte egingo liguke, izan ere, Nemeako lehoi haren ahotzarrak edo Arkadiako basurde ile-zorrotzak?

Tanto opere officerent nobis Stymphala colentes?
 Denique quid Cretae taurus Lernaeanae pestis
 hydra uenenatis posset uallata colubris?
 Quidue tripectora tergemini uis Geryonai
 et Diomedis equi, spirantes naribus ignem,
 Thracam Bistoniasque plagas atque Ismara propter,
 aureaque Hesperidum seruans fulgentia mala,
 asper, acerba tuens, inmani corpore serpens
 arboris amplexus stirpes quid denique obsesset
 propter Atlanteum litus pelagique seuera,
 quo neque noster adit quisquam nec barbarus audet?
 Cetera de genere hoc quae sunt portenta perempta,
 si non uicta forent, quid tandem uiua nocerent?
 Nil, ut opinor: ita ad satiatem terra ferarum
 nunc etiam scatit et trepido terrore repleta est
 per nemora ac montes magnos siluasque profundas;
 quae loca uitandi plerumque est nostra potestas.
 At nisi purgatumst pectus, quae proelia nobis
 atque pericula tumst ingratis insinuandum!
 Quantae tum scindunt hominem cuppedinis acres
 sollicitum curae quantique perinde timores!
 Quidue superbia spurcicia ac petulantia? quantas
 efficiunt clades! quid luxus desidiaequae?
 Haec igitur qui cuncta subegerit ex animoque
 expulerit dictis, non armis, nonne decebit
 hunc hominem numero diuom dignarier esse?
 Cum bene praesertim multa ac diuinitus ipsis
 immortalibu de diuis dare dicta suerit
 atque omnem rerum naturam pandere dictis.
 Cuius ego ingressus uestigia dum rationes
 persequor ac doceo dictis, quo quaeque creata
 foedere sint, in eo quam sit durare necessum
 nec ualidas ualeant aeu rescindere leges,
 quo genere in primis animi natura reperta est
 natiuo primum consistere corpore creta
 nec posse incolumem magnum durare per aeuom,
 sed simulacra solere in somnis fallere mentem,
 cernere cum uideamur eum queum uita reliquit,

30
 26
 29
 31
 35
 40
 45
 50
 55
 60

Hainbeste traba egingo ote ligukete Estinpalako bizilagun hegaztiek?
 Zer lezake, halaber, Kretako zezenak edo hidra zital suge pozointsuz
 inguratuak? Zer, Gerion hirukoitzaren eta Diomedesen zaldiek, Trazia
 eta Bistoniar hondartzen eta Ismaro inguruan sudurretatik sua darie-
 nek, edo Hesperideen urrezko sagar distiratsuen jagoleak, begirada
 oker eta gorputz izugarriko dragoi ohil zuhaitz-gerriari besarkatuak
 zer kalte egin liezaguke Atlasko itsasertzean eta gutar inor hurreratzen
 ez barbarorik ausartzen ez den itsaso gaiztoan zehar? Honelako beste
 munstro jadanik hilek, menperatuak izan ez balira ere, zer txar egingo
 ligukete bizioi? Bat ere ez, nik uste: oraintxe ere lurra piztiz ezin
 josiago eta izu dardaratiz betea dago baso eta mendi garai eta oihan
 sakonetan zehar; lekuok ekiditea gehienik geure esku dago. Bihotza
 garbi ez badago, ostera, zenbat burruka eta arriskuri ez ote diogu gogo
 txarrez aurre egin behar! Zer kezka ziztariek eta nolako beldurrek ez
 ote dute urratzen irriatsaren mende dagoen gizakumea! Eta harroke-
 riak, lizunkeriak eta lotsagabekeriak? Zenbat hondamen ez ote dakar-
 te! Eta luxuak eta alferkeriak? Hauek guztiok menperatu eta gogotik
 hitzez, ez armaz, irazi dituena ez al da egoki izango, nahiz gizakia
 izan, jainkoen mailara jaso dezagun? Batez ere jainko hilezkorrez
 eurez hain hitz eder eta jainkozkoak jaulki eta bere esanetan gauzen
 izaera osoa agertu zuelarik.

Nik, oinatzei jarrai, haren arrazoiak azaltzen ditut eta
 bertsoz irakasten gauzak zer legez sortuak izan diren, nola har-
 tara makurtu beharra daukaten eta ezin duten denboraren agindu
 bortitzik hautsi; honela, batez ere aurkitu dugu gogoia lehe-
 nik jaiotzadun gorputzetik sortua izan zela eta ezin duela den-
 bora luzean bere hartan iraun, eta gogoia simulakroek engaina-
 tzen dutela ametsetan, biziak alde egin ziona ikusi uste dugularik.

quod superest, nunc huc rationis detulit ordo,
ut mihi mortali consistere corpore mundum
natiuomque simul ratio reddunda sit esse;
et quibus ille modis congressus materiai
fundarit terram caelum mare sidera solem
lunaique globum; tum quae tellure animantes
extiterint, et quae nullo sint tempore natae;
quoque modo genus humanum variante loquella
coeperit inter se uesci per nomina rerum;
et quibus ille modis diuom metus insinuarit
perctora, terrarum qui in orbi sancta tuetur
fana locus lucos aras simulacraque diuom.

Praeterea solis cursus lunaeque meatus
expediam qua ui flectat natura gubernans;
ne forte haec inter caelum terramque reamur
libera sponte sua cursus lustrare perennis
morigera ad fruges augendas atque animantis,
neue aliqua diuom uolui ratione putemus.
Nam bene qui didicere deos securum agere aeuom,
si tamen interea mirantur qua ratione
quaeque geri possint, praesertim rebus in illis
quae supera caput aetheriis cernuntur in oris,
rursus in antiquas referuntur religiones
et dominos acris adsciscunt, omnia posse
quos miseri credunt, ignari quis queat esse,
quid nequeat, finita potestas denique cuique
quanam sit ratione atque alte terminus haerens.
Quod superest, ne te in promissis plura moremur,
principio maria ca terras caelumque tuere;
quorum naturam triplicem, tria corpora, Memmi,
tris species tam dissimilis, tria talia texta,
una dies dabit exitio, multosque per annos
sustentata ruet moles et machina mundi.
Nec me animi fallit quam res noua miraque menti
accidat exitium caeli terraeque futurum,
et quam difficile id mihi sit peruincere dictis;
ut fit ubi insolitam rem adportes auribus ante,

65

70

75

80

85

90

95

100

Gainerakoan, orain arrazoiaren ordenak irakastera naroa mundua gorputz hilkorrez egina eta, halaber, jaiotzaduna dela; eta nola materiaren pilatze hark funtsatu zuen lurra, zerua, itsasoa, izarrak, eguzkia eta ilargiaren globoa; gero zeintzuk bizidun irten ziren lurretik eta zeintzuk ez ziren sekula jaio; nola hasi zen gizateria hizkuntza aldakorra elkar trukatzan gauzen izenen bitartez; eta nola sartu zen bihotzetan jainkoen beldur hura, lurbiran zehar tenplu santuak, lakuak, basoak, aldareak eta jainkoen irudiak jagoten dituen. Gainera, naturak nolako indarrez gidatzen eta gobernatzen dituen eguzkiaren joana eta ilargiaren ibilera azalduko dut; ez uste hauek, aske eta euren kabuz, ortzi-lurren artean betirako martxan dihardutenik, landareak eta animaliak atseginez haz daitezen, edo jainkoen gurariren bategatik mugitzen direla pentsa ez dezagun. Zeren jainkoek bizimodu segurra daramatela ondo ikasi zutenei harrigarri zaie gero gauza bakoitza nola gerta daitekeen, batez ere eter aldeetan norbere buru gainean ikusten diren gauzetan, eta gizarajoek antzinako erlijioetara eta dena dezaketela uste duten jaun ankerretara jotzen dute, zer daitekeen eta zer ez daitekeen, hitz batez, zer legek eta zer xedarrari sakon sartuk bakoitzaren ahala mugatzen duen ez dakitela.

Aurrera eginik, aginduetan luza ez nakizun, begira lehenik itsasoak, lurak eta ortzia; hauen izaera hirukoitza, hiru gorputzok, Memmio, hiru itxura guztiz ezberdinok, delako hiru ehundurok, egun bakar batek akabatuko ditu, eta hainbeste urtetan zutik egondako mundu puska eta makina honek gainbehera egingo du. Eta kargutzen naiz zer gauza berria eta gogoarentzat harrigarria den zeru-lurren akabatu behar hori eta zer zaila den niretzat hitzez frogatzea; belarriek inoiz entzun gabeak jaulkitzean gertatzen den bezala, begien bistara

nec tamen hanc possis oculorum subdere uisu
nec iacere indu manus, uia qua munita fidei
proxima fert humanum in pectus templaque mentis.
Sed tamen effabor. Dictis dabit ipsa fidem res
forsitam et grautier terrarum motibus ortis
omnia conquassari in paruo tempore cernes;
quod procul a nobis flectat fortuna gubernans,
et ratio potius quam res persuadeat ipsa
succidere horrisono posse omnia uicta fragore.

Qua prius adgrediar quam de re fundere fata
sanctius et multo certa ratione magis quam
Pythia quae tripode a Phoebi lauroque profatur,
multa tibi expediam doctis solacia dictis;
religione refrenatus ne forte rearis
terras et solem et caelum, mare sidera lunam,
corpore diuino debere aeterna manere,
proptereaque putes ritu par esse Gigantum
pendere eos poenas inmani pro scelere omnis,
qui ratione sua disturbent moenia mundi
praeclarumque uelint caeli restinguere solem
immortalia mortali sermone notantes;
quae procul usque adeo diuino a numine distent,
inque deum numero quae sint indigna uideri,
notitiam potius praebere ut posse putentur
quid sit uitali motu sensuque remotum.
Quippe etenim non est, cum quouis corpore ut esse
posse animi natura putetur consiliumque;
sicut in aethere non arbor, non aequore salso
nubes esse queunt neque pisces uiuere in aruis
nec cruor in lignis neque saxis sucus inesse.
Certum ac dispositumst ubi quicquid crescat et insit.

Sic animi natura nequit sine corpore oriri
sola neque a neruis et sanguine longius esse.
Quod si posset enim, multo prius in sa animi uis
in capite aut umeris aut imis calcibus esse
posset et innasci quauis in parte soleret,

105

110

115

120

125

130

135

ekarri edo eskuar ipini ezin duzunean, bide hauxe baita gizakien biho-
tzera eta gogoaren barrutietara sinespidea eroan ohi duen hurbilena.
Mintzatuko naiz, hala ere. Beharbada errealitateak berak emango die
hitzei sinespidea, eta zeuk dakusu nola lurrikara izugarriek denbora
laburrean dena hondatzen duten; horrek aparta beza gugandik urrun
patu gidaria eta errealitateak barik arrazoiak berak konbentzi zaitzala
dena bentzuturik honda daitekeela, abarrots lazgarrian.

Pitiak tripodetik eta Feboren ereinotzetik jaulkitzen dituenak
baino santuago eta segurrago diren patuaren orakuluei ekin aurretik,
oso kontsolagarri izango zaizkizun arrazoi jakintsu batzuk azalduko
dizkizut; erlijioak beldurturik, ez dezazun pentsa lurrak, eguzkiak eta
zeruak, itsasoak, izarrek eta ilargiak gorputz jainkozkoa daukatela eta
beti irautekoak direla, eta, beraz, euren arrazoiarekin munduaren
harresiak hautsi eta zeruko eguzki distiratsua itzungi gura dutenek,
Erraldoien antzera, gaizkile gisan zigortuak izatea merezi dutela, zer
hilezkorrei hitz hilkorrek ezarriz; baina horiek jainko izaeratik hain
dagoz urrun, jainkoen artekotzat jotzeko hain dira ezduin, ezen pen-
tsatzekoa baita bizi mugidarik eta sentimenik gabea zer den antzema-
teko gehiago balio dutela. Ez dago, egon ere, pentsatzerik gogoa eta
adimena edozein gorputzetan egon daitezkeenik; zuhaitzik eterrean
egoterik ez dagoen bezalaxe, ez hodeirik itsas lautada gazian, ez arrai-
nik soroan bizitzerik, ez odolik zurean, ez zukurik haitzean. Zer
bakoitza non hazi eta bizi finkaturik eta erabakirik dago. Honela,
gogoaren izaerak ezin du gorputz gabe bakarrik sortu, ez nerbioetatik
eta odoletik aparte izan. Hau ahal izatera, arrazoi gehiagoz ahalko
luke gogoaren indarrak buruan edo sorbaldetan edo beheko orpoetan
izan eta hauetako edozein aldetan jainko, azkenean gizaki berarengan eta

tandem in eodem homine atque in eodem uase manere.
Quod quoniam nostro quoque constat corpore certum
dispositumque uidetur ubi esse et crescere possit
sorsum anima atque animus, tanto magis infitiandum
totum posse extra corpus formamque animalem
putribus in glebis terrarum aut solis <in> igni
aut in aqua durare aut altis aetheris oris.
Haud igitur constant diuino praedita sensu,
quandoquidem nequeunt uitaliter esse animata.

Illud item non est ut possis credere, sedes
esse deum sanctas in mundi partibus ullis.
Tenuis enim natura deum longeque remota
sensibus ab nostris animi uix mente, uidetur;
quae quoniam manuum tactum suffugit et ictum,
tactile nil nobis quod sit contingere debet:
tangere enim non quit quod tangi non licet ipsum.
Quare etiam sedes quoque nostris sedibus esse
dissimiles debent, tenues de corpore eorum;
quae tibi posterius largo sermone probabo.

Dicere porro hominum causa uoluisse parare
praeclaram mundi naturam proptereaque
adlaudabile opus diuom laudare decere
aeternumque putare atque inmortale futurum,
nec fas esse, deum quod sit ratione uetusta
gentibus humanis fundatum perpetuo aeuo,
sollicitare suis ulla ui ex sedibus umquam
nec uerbis uexare et ab imo euertere summa,
cetera de genere hoc adfingere et addere, Memmi,
desiperest. Quid enim immortalibus atque beatis
gratia nostra queat largirier emolumenti,
ut nostra quicquam causa gerere adgrediantur?
Quidue noui potuit tanto post ante quietos
inlicere ut cuperent uitam mutare priorem?
Nam gaudere nouis rebus debere uidetur
cui ueteres obsunt; sed cui nil accidit aegri
tempore in anteacto, cum pulchre degeret aeuom,

ontzi berean iraungo luke eta. Baina, geure gorputz barruan ere, arima
eta gogoa non izan eta haz daitezkeen finkaturik eta erabakirik dago-
ela ikusten denez gero, are gehiago ukatu behar da gorputzetik eta
bizidun formatik at iraun dezaketela, soroetako zokil xehatuetan edo
eguzkiaren suan edo urean edo eterleku garaietan. Hauek ez dagoz,
noski, jainko adimenez hornituak, ezin baitute biziz animatuak izan.

Jainkoen egoitza santuak munduan inon dagozenik ere ezin
duzu sinestu. Jainkoen izaera xumea eta gure sentimenetatik oso apar-
tea baita, gogoak nekez ezagutzekoa; eskuen ukitu eta kolpeari itzur-
tzen baitzaio, ezin du guretzat ukigarri den ezer ukitu: berez ukigarri
ez denik ezin baitu ukitu. Horregatik jainkoen egoitzek gure egoitzen
ezberdinak izan behar dute, euren gorputzak bezain xumeak; hau
geroago arrazoi ugariz frogatuko dizut. Bestalde, jainkoek munduaren
izaera argitsu hau gizakien onerako moldatu zutela eta horregatik jain-
koen lan goragarritzat laudatzea eta hilezkor eta betikotzat jotzea
bidezko dela esatea eta ez dela zilegi jainkoen antzinako asmoak giza-
teriarentzat betidanik fundaturiko mundu honen oinarriak ezein inda-
rrez lokatzea ez hitzez erasotzea ez izadia barrenetik azpikoz gora-
tzea, honelako gauzak bururatzea eta pilatzea zorakeria da, Memmio.
Zeren gure esker onak izaki hilezkor eta dohatsuei zer eskura diezaie-
ke, gure onerako ezer egitera bultzatzeko? Edo zer berrik tenta zitza-
keen, hainbeste denboran lasai egonik, aurreko bizitza aldatu nahi iza-
teko? Gauza berriekin poztea aurrekoen desatseginari dagokiola bai-
tirudi; baina iraganean ezer okerrik gertatu ez zaionari eta bizitza ede-
rra eraman duenari, zerk piz ziezaiokeen halako berri nahia? Eta gure-
tzat zer zeukan txarrik ez sortuak izateak? Gure bizitza ilunpean eta

quid potuit nouitatis amorem accendere tali?
 Quidue mali fuerat nobis non esse creatis?
 An, credo, in tenebris uita ac maerore iacebat,
 donec diluxit rerum genitalis origo? 175
 Natus enim debet quicumque est uelle manere
 in uita, donec retinebit blanda uoluptas:
 qui numquam uero uitae gustauit amorem
 nec fuit in numero, quid obest non esse creatum? 180
 Exemplum porro gignundis rebus et ipsa
 notities hominum diuis unde insita primum est,
 quid uellent facere ut scirent animoque uiderent,
 quoue modost umquam uis cognita principiorum
 quidque inter sese permutato ordine possent,
 si non ipsa dedit speciem natura creandi? 185
 Namque ita multa modis multis primordia rerum
 ex infinito iam tempore percita plagis
 ponderibusque suis consuerunt concita ferri
 omnimodisque coire atque omnia pertemptare, 190
 quaecumque inter se possent congressa creare,
 ut non sit mirum si in tallis disposituras
 deciderunt quoque et in talis uenere meatus,
 qualibus haec rerum geritur nunc summa nouando.

 Quod <si> iam rerum ignorem primordia quae sint,
 hoc tamen ex ipsis caeli rationibus ausim
 confirmare aliisque ex rebus reddere multis,
 nequaquam nobis diuinitus esse paratam
 naturam rerum: tanta stat praedita culpa. 195
 Principio quantum caeli tegit impetus ingens,
 inde auidam partem montes siluaeque ferarum
 possedere, tenent rupes uastaeque paludes
 et mare quod late terrarum distinet oras. 200
 Inde duas porro prope partis feruidus ardor
 adsiduusque geli casus mortalibus aufert. 205
 Quod superest arui, tamen id natura sua ui
 sentibus obducat, ni uis humana resistat
 uitai causa ualido consueta bidenti
 ingemere et terram pressis proscindere aratris.

nahigabeen ote zegoen, ba, gauzen sorteguna argitu arte? Jaiotako
 denek bizitzan iraun nahia behar baitute, atsegin bigunak eusten
 dieno: bizi gogorik inoiz gozatu ez bizidunen artean inoiz izan ez
 denari, ostera, zer kalte dakarkio sortu ez izanak? Gainera, jainkoek
 mundua sortzeko adibidea eta gizakien notizia bera ere nondik itsatsia
 zeukaten, zer egin nahi zuten jakiteko eta hura gogoan ikusteko, edo
 nola zekiten lehenkien indarraren berri eta hauek, elkarren arteko
 ordena aldatzez, zer egin zezaketen, naturak berak sortzeko eredurik
 eman ez bazien? Zeren betieratik hamaika eratarata talkaz astinduriko
 eta pisuz arrastaturiko hamaika lehenki elkartu izan da era guztietara
 eta probatu izan du elkartzetik sor zezaketen dena, hala nola ez baita
 harritzekoa oraingo izadiak diharduen eta haiekin berritzen den anto-
 lakerak eta mugida egokiak ere asmatu izana.

Gauzen lehenkien berri ez baneki ere, zeruko fenomenoek eta
 beste hainbat gauzen aztertze soiletik baiesten ausartuko nintzateke
 gauzen izaera ez dutela jainkoek gure onerako sortu: hainbeste aka-
 tsez jantzia bera. Lehenik, ortziaren indar eskergak estaltzen duenetik,
 parterik estimagarriena piztien mendi eta oihanek betetzen dute, har-
 kaitzek eta zingira hedatsuek, eta lur bazterrak hain apartaturik dauz-
 kan itsasoak. Hirutik bi, gainera, bero itogarriak eta izozgintza eten-
 gabeak kentzen diete gizakiei. Langarri geratzen dena bera ere natu-
 rak berez arantzez jantziko luke, giza ekinak aurre egingo ez balio,
 bizi beharrez goldera auzen egiten eta, nabarra sakon, lurra ildotzen
 ohiturik. Zokor emankorrak goldez irauli eta, ernamuinak azaleratze-

Si non fecundas uertentes uomere glebas
 terraique solum subigentes cimus ad ortus,
 sponte sua nequeant liquidas existere in auras;
 et tamen interdum magno quaesita labore
 cum iam per terras frondent atque omnia florent,
 aut nimiis torret feruoribus aetherius sol
 aut subiti perimunt imbres gelidaeque pruinae,
 flabraque uentorum uiolento turbine uexant.
 Praeterea genus horrifera natura ferarum
 humanae genti infestum terraque marique
 cur alit atque auget? cur anni tempora morbos
 adportant? quare mors inmatura uagatur?
 Tum porro puer, ut saeuus proiectus ab undis
 nauita, nudus humi iacet, infans, indigus omni
 uitali auxilio, cum primum in luminis oras
 nixibus ex aluo matris natura profudit,
 uagituque locum lugubri complet, ut aecumst
 cui tantum in uita restet transire malorum.
 At uariae crescunt pecudes armenta feraeque
 nec crepitacillis opus est nec cuiquam adhibendast
 almae nutricis blanda atque infracta loquella
 nec uarias quaerunt uesti pro tempore caeli,
 denique non armis opus est, non moenibus altis,
 qui sua tutentur, quando omnibus omnia large
 tellus ipsa parit naturaque daedala rerum.

Principio quoniam terrai corpus et umor
 aurarumque leues animae calidique uapores,
 e quibus haec rerum consistere summa uidetur,
 omnia natiuo ac mortali corpore constant,
 debet eodem omnis mundi natura putari.
 Quippe etenim quorum partis et membra uidemus
 corpore natiuo ac mortalibus esse figuris,
 haec eadem ferme mortalia cernimus esse
 et natiua simul. Quapropter maxima mundi
 cum uideam membra ac partis consumpta regigni,
 scire licet caeli quoque item terraeque fuisse
 principiale aliquod tempus clademque futuram.

210 ko, lurzorua zehetu ezik, eurenez ezingo lukete aura garbietara irten;
 hala ere, sarritan, hainbeste lan kosta eta gero, soroetan hostotu eta
 denak loratu direnean, edo eguzki etertarrak bero gehiegiz kiskaltzen
 ditu, edo bat-bateko erauntsiek eta izotz zuriek hondatzen dituzte, edo
 215 haizeteek oldar bortitzean erauzten. Gainera, piztien enda beldurga-
 rria, gizateriaren arerioa, zergatik elikatzen eta hazten du naturak
 itsas-lehorretan? Urtaroez zergatik dakartzate gaixotasunak? Zergatik
 dabil inguruan heriotza goiztarra? Haurra ere, uhin ankerrek jaurtita-
 ko marinela bezala, lurean biluzik datza, hitzik gabe, bizi laguntza
 oroz gabetua, naturak hainbeste kostata amaren sabeletik argi zelaira
 220 irtenarazi duenean, eta ingurua intziri goibelez betetzen du, bizitzan
 hainbeste gaitz igaro beharra geratzen baitzaio. Deneriko animaliek,
 ostera, basek zein etxekoek, ez dute sonailurik behar, ez inude samu-
 rraren xuxurla bigunik, ez dute eguraldiaren arabera jantzirik aldatu
 beharrik, ez daukate, ondasunak zaintzeko, armen eta harresi garaien
 225 premiarik, lurak berak eta natura artatsuak denei denetik oparo ema-
 ten baitie.

Lehenik, lurraren gorputza eta ura eta auren hats xumeak eta
 suaren baporeak, zeintzuekin egina dirudien gauzadi honek, denak
 jaiotz-heriotzadun gorputzez osatuak direnez gero, munduaren izaera
 osoa ere halakoxea izan dela pentsatu behar da. Izan ere, bere parteak
 eta atalak gorputz jaiotzadun eta figura hilkordunak direla dakusgun
 mundua bera ere hilkorra eta jaiotzaduna dela argi dago. Beraz, mun-
 duaren atal eta parte handienak nola desegiten eta birjaiotzen diren
 ikusita, zero-lurrek ere hasiera izan eta azkena izango dutela ateratzen
 230 dut.

Illud in his rebus ne corripuisse rearis
 me mihi, quod terram atque ignem mortalia sumpsit
 esse, neque umorem dubitavi aurasque perire
 atque eadem gigni rursusque augescere dixi, 250
 principio pars terrae nonnulla, perusta
 solibus adsiduis, multa pulsata pedum ui,
 pulueris exhalat nebulam nubesque uolantis
 quas ualidi toto dispergunt aere uenti.
 Pars etiam glebarum ad diluuiem reuocatur 255
 imbribus et ripas radentia flumina rodunt.
 Praeterea pro parte sua, quodcumque alit auget,
 redditur; et quoniam dubio procul esse uidetur
 omniparens eadem rerum commune sepulcrum,
 ergo terra tibi libatur et aucta recrescit. 260

 Quod superest, umore nouo mare flumina fontes
 semper abundare et latices manare perennis
 nil opus est uerbis: magnus decursus aquarum
 undique declarat. Sed primum, quicquid aquae
 tollitur in summaque fit ut nil umor abundet, 265
 partim quod ualidi uerrentes aequora uenti
 deminuunt radiisque retexens aetherius sol,
 partim quod supter per terras diditur omnis:
 percolatur enim uirus, retroque remanat
 materies umoris et ad caput amnibus omnis 270
 conuenit, inde super terras fluit agmine dulci
 qua uia secta semel liquido pede detulit undas.

 Aera nunc igitur dicam qui corpore toto
 innumerabiliter prius mutatur in horas.
 Semper enim, quodcumque fluit de rebus, id omne 275
 aeris in magnum fertur mare; qui nisi contra
 corpora retribuatur rebus recreetque fluentes,
 omnia iam resoluta forent et in aera uersa:
 haud igitur cessat gigni de rebus et in res
 reccidere, adsidue quoniam fluere omnia constat. 280

 Largus item liquidus fons luminis, aetherius sol,
 inrigat adsidue caelum candore recenti

Honetan, lurra eta sua hilkorak direla eta ura eta airea ere duda
 barik hilko direla eta berriro jaioko eta haziko direla esan dudalako,
 arinkiegi jokatu dudala pentsa ez dezazun, lehenik lur zati dezente
 samarrak, etengabeko eguzkiak kiskaliak, hamaika oinek zapalduak,
 hauts lainoa eta hodei hegalariai exhalatzen ditu, haize indartsuek
 egurats osoan zabaltzen dituztenak. Era berean, zokilen zati bat eurien
 eraginez desegitera dator eta ibai igurzleek bazterrak jaten dituzte.
 Gainera, elikatzeko eta hazteko balio duen guztia itzuli egiten da, zer
 bakoitzaren arabera; eta denen ama lurra bera gauzen hilobi dela
 dudarik ez dagoenez gero, lurra agortzen eta berriro hazten eta handi-
 tzen ari zaizu, beraz.

Bestalde, itsasoak, ibaiak, iturriak beti ur berriz gainezka dago-
 zela eta etengabeko jarioan dihardutela esan beharrik ez dago: uraren
 ugaritasun handiak nonahi erakusten du. Baina urak apurka-apurka
 galduz doaz eta izadian ez da batere humorerik gainezkatzen, batetik
 itsasoa garbitzen duten haize indartsuek gutxitzen eta eguzki eterta-
 rrak bere izpiekin desegiten duelako, bestetik lur guztien azpitik
 zabaltzen delako: ur masak mingostasuna iragazten du, itzultzen da,
 erreken bururantz jotzen du denak eta handik lurrean zehar olde gozo-
 an isurtzen da eta uhinak lehenago ere euren oin gardenez ireki zuten
 bidetik jaisten dira.

Orain aireaz mintzatuko naiz, gorputz osoa orduz ordu kontae-
 zinki aldatzen duen horretaz. Gorputzei darien guztia airearen itsaso
 zabalera baitoa beti; honek gauzei euren gorputza bihurtuko eta jario-
 takoak berrituko ez balitu, dagoeneko denak deseginik eta aire bihur-
 turik leudeke: airea etengabe ari da gauzetatik sortzen eta berriz gau-
 zetaratzen, argi baitago zer guztiek jario etengabea dihardutela.

Argi gardenaren iturri oparoak ere, eguzki etertarrak, ortzia
 etengabe distira berriz irrigatzen eta argia bet-betan argi-berritzen du.

suppeditatque nouo confestim lumine lumen.
Nam primum quicquid fulgoris disperit ei,
quocumque accidit. Id licet hinc cognoscere possis,
quod simul ac primum nubes succedere soli
coepere et radios inter quasi rumpere lucis,
extemplo inferior pars horum disperit omnis
terraque inumbratur qua nimbi cumque feruntur;
ut noscas splendore nouo res semper egere
et primum iactum fulgoris quemque perire
nec ratione alia res posse in sole uideri,
perpetuo ni suppeditet lucis caput ipsum.
Quin etiam nocturna tibi, terrestria quae sunt,
lumina, pendentes lychni claraeque coruscis
fulguribus pingues multa caligne taedae
consimili properant ratione, ardore ministro,
suppeditare nouom lumen, tremere ignibus instant,
instant, nec loca lux inter quasi rupta relinquit:
usque adeo properanter ab omnibus ignibus ei
exitium celeri celatur origine flammae.
Sic igitur solem lunam stellasque putandum
ex alio atque alio lucem iactare subortu
et primum quicquid flammarum perdere semper:
inuiolabilia haec ne credas forte uigere.

Denique non lapides quoque uinci cernis ab aeuo,
non altas turris ruere et putrescere saxa,
non delubra deum simulacraque fessa fatisci,
nec sanctum numen fati protollere finis
posse neque aduersus naturae foedera niti?
Denique non monumenta uirum dilapsa uidemus
quaerere proporro sibi sene senescere credas,
non ruere auolsos silices a montibus altis
nec ualidas aeui uiris perferre patique
finiti? Neque enim caderent auolsa repente,
ex infinito quae tempore pertolerassent
omnia tormenta aetatis priuata fragore.

Denique iam tuere hoc, circum supraque quod omnem
continet amplexu terram: si procreat ex se

285

290

295

300

305

310

315

Bere izpiak banan-banan hiltzen ari baitira, jausten diren lekuan. Honetantxe hauteman dezakezu hori, hots, hodeiak eguzkira hurreratzten eta argi izpiak erdibitzen bezala hasi baikoz, hodeien azpikaldea berehala hiltzen da eta lurra iluntzen, hodeipeak hartzen duen guztian; ikus dezazun gorputzek beti argi berria behar dutela, izpiak jaurti ahala hiltzen direla eta bestela ez legokeela gauzak eguzkitan ikustetik, argi iturria bera etengabe hornitu ezik. Geure lurreko eta gaueko argiak ere, kriseilu eskegiak eta ke ugariko argi zalanzkorrez dizdiz egiten duten zuzi erretxinatsiak, berdin saiatzen dira, sua lagun, argi berria hornitzen, garrak etengabe dardar, eta argiak, etenka bezala, ez dio gelak argitzeari uzten: su guztiek horrexen agudo ezkututzen dute argiaren akabera, argiaren jaiotza bizkorrez. Honela pentsatu behar da, beraz, eguzkiak, ilargiak eta izarrek bata-bestearen atzeko igorretan jaurtitzten dutela argia eta garrak sortu ahala galtzen direla beti; ez uste hauen indarra suntsigaitza denik.

Azkenik, ez al dakusu denbora harriei ere nagusitzen, dorre garaiak jausten eta harkaitzak hausten, jainkoen tenpluak eta irudiak zaharraren zaharrez pitzatzen, jainkoen ahal santuak patuaren mugak haragotzerik, ez naturaren legeei kontra egiterik ez duela? Ez al dakusgu, azkenik, gizaundien monumentuak higatzen direla, eurok ere zahartzen direnik sinesten ez ote dugun galdetzen digutela, eta mendi garaietatik erauzitako haitzak gainbeheratzen direla, denboraren eta patu mugatuaren erasoei eutsi ezinik? Ez lirateke, noski, tanpez erauzirik jausiko, denbora infinitutik hona adinaren zartada guztiei haustura gabe eutsi izan baliете.

Begira, azkenik, goi eta behe besarkaturik, lur osoa hartzen duen zero horri: dena bere baitatik ugaltzen eta desegindakoan berriz

omnia, quod quidam memorant, recipitque perempta,
totum natiuo ac mortali corpore constat.
Nam quodcumque alias ex se res auget alitque,
deminui debet, recreari, cum recipit res.

Praeterea si nulla fuit genitalis origo
terrarum et caeli semperque aeterna fuere,
cur supera bellum Thebanum et funera Troiae
non alias alii quoque res cecinere poetae?
Quo tot facta uirum totiens cecidere neque usquam
aeternis fama monumentis insita florent?
Verum, ut opinor, habet nouitatem summa recensque
naturast mundi neque pridem exordia cepit.
Quare etiam quaedam nunc artes expoliuntur,
nunc etiam augescunt; nunc addita nauigiis sunt
multa, modo organici melicos peperere sonores,
denique natura haec rerum ratioque repertast
nuper, et hanc primus cum primis ipse repertus
nunc ego sum in patrias qui possim uertere uoces.
Quod si forte fuisse antehac eadem omnia credis,
sed periisse hominum torrenti saecula uapore,
aut cecidisse urbis magno uexamine mundi,
aut ex imbribus adsiduis exisse rapaces
per terras amnes atque oppida coperuisse,
tanto quique magis uictus fateare necesseset
exitium quoque terrarum caelique futurum.
Nam cum res tantis morbis tantisque periculis
temptarentur, ibi si tristior incubuisset
causa, darent late cladem magnasque ruinas.
Nec ratione alia mortales esse uidemur,
inter nos nisi quod morbis aegrescimus isdem
atque illi quos a uita natura remouit.

Praeterea quaecumque manent aeterna necessust
aut, quia sunt solido cum corpore, respuere ictus
nec penetrare pati sibi quicquam quod queat artas
dissociare intus partis, ut materiai
corpora sunt quorum naturam ostendimus ante,

320

325

330

335

340

345

350

355

hartzen badu, batzuek diotenez, bera ere gorputz jaiokor eta hilkorrez eginda dago dena. Zeren bere baitatik beste izaki batzuk elikatzen eta handitzen dituenak txikitu eta, gaia berreskuratzean, bersortu egin behar baitu.

Gainera, zeru-lurrek hastapen sortzailerik inoiz ezagutu ez badute eta beti eternalak izan badira, zergatik ez zituzten poetek, Tebasko gerratearen eta Troiako galmenaren aurretik, beste egintza batzuk ere kantatu? Non jausi zen gizaundien hainbeste balentria eta nola ez da inon loratu, ospearen monumentu eternaletan irarrita? Egia esan, nik uste, izadia gaztea eta munduaren izaera oraintsukoa da eta ez zuen hastapena antzina izan. Horregatik arte batzuk gaur ere hobetuz, gaur ere haziz doaz; gaur itsasgintzan aurreratze handiak ari dira, organo joleek oraintsu asmatu dituzte doinu eztiak, azkenik gauza hauen izaera eta arrazoa ere oraintsu aurkitua da, eta gaur neu naiz denen artean gauzok aberri hizkuntzan azaltzeko gauza den lehenengo. Eta beharbada uste baduzu gauza guztiok lehen ere izan zirela, baina gizaldiak sutan kiskaldurik hil zirela, edo hiriak munduaren astindu izugarrian erori zirela, edo eurite etengabetik lurretan zehar herriak estali zituzten ibai harrapariak irten zirela, hainbat arrazoi gehiagoz aitortu beharko duzu zeru-lurrek azkena ere gainean dutela. Zeren munduari, hainbesteko gaitzek eta hainbesteko arriskuek jota, istripu larriagorik gertatu balitzaio, suntsipen osoan eta hondamen izugarrian jausiko baitzen. Eta beste ezergatik ez gara hilkorrak garenik ohartzen, naturak bizitzatik apartatu zituenen gaitz berberekin gaitzotzen garelako ez bada.

Gainera, eternal dirauten gauzek nahitaez behar dute edo kolpeak ezetsi, gorputz trinkodunak direlako, eta ez utzi barne-atal batuak, euren izaera lehen azaldu dugun materiaren lehenkiak direlakoak, banatzeko ezer sar dakien, edo bestela sekularioan irauteko

aut ideo durare aetatem posse per omnem,
plagarum quia sunt expertia, sicut inane est
quod manet intactum neque ab ictu fungitur hilum,
aut etiam quia nulla loci sit copia circum,
quo quasi res possint discedere dissoluique,
sicut summarum summa est aeterna, neque extra
qui locus est quo dissiliant neque corpora sunt quae
possint incidere et ualida dissoluere plaga.

360

At neque, uti docui, solido cum corpore mundi
naturast, quoniam admixtumst in rebus inane,
nec tamen est ut inane, neque autem corpora desunt,
ex infinito quae possint forte coorta
corruere hanc rerum uiolento turbine summam
aut aliam quamuis cladem importare pericli,
nec porro natura loci spatiumque profundi
deficit, exspargi quo possint moenia mundi,
aut alia quauis possunt ui pulsa perire.
Haud igitur leti praeclusa est ianua caelo
nec soli terraeque neque altis aequoris undis,
sed patet inmani ac uasto respectat hiatu.
Quare etiam natiua necessumst confiteare
haec eadem; neque enim, mortali corpore quae sunt,
ex infinito iam tempore adhuc potuissent
inmensi ualidas aevi contemnere uires.

365

370

375

380

385

390

Denique tantopere inter se cum maxima mundi
pugnent membra, pio nequaquam concita bello,
nonne uides aliquam longi certaminis ollis
posse dari finem, uel cum sol et uapor omnis
omnibus epotis umoribus exsuperarint?
Quod facere intendunt, neque adhuc conata patrantur;
tantum suppeditant amnes ultraque minantur
omnia diluuiare ex alto gurgite ponti:
nequiquam, quoniam uerrentes aequora uenti
deminuunt radiisque retexens aetherius sol,
et siccare prius confidunt omnia posse
quam liquor incepti possit contingere finem.
Tantum spirantes aequo certamine bellum

gauza izan, kolpeetatik libre dagozelako, halanola hutsunea, ukigaitz dirauena eta kolpeak fisik eragiten ez diona, edo baita inguruan ez dagoelako inolako lekurik, non gauzak nolabait bazter edo disolba daitezkeen, izadien izadia eternala den bezala, zeinatik at ez dagoen parteak nora aldendurik, ez gainera jausiko zaien eta kolpe bortitzez desegingo dituen gorputzik. Esana dudanez, ostera, munduaren izaera ez da gorputz trinkoduna, gauzetan hutsunea nahasturik baitago, ezta hutsunea bezalakoa ere, eta ez da falta infinitutik honako gorputzik, gauzadi hau zirimola bortitzean eraisteko edo talkan beste hondamenen bat ekartzeko gauza denik, ezta leizerik eta espaziorik ere, bertan munduaren murrak hedatzekorik edo beste indarren batek jota hiltzekorik. Heriotzaren atea, beraz, ez dago itxita zeruarentzat, ez eguzkiarentzat, ez lurrarentzat, ez itsaso sakoneko uhinentzat, aitzitik aho itzel eta izugarriarekin aurrez aurre itxaroten die. Hauek ere, beraz, jaiotzadunak direla aitortu behar; zeren gorputz hilkorra daukatenez ezingo baitzioten denbora infinitutik orain arte denbora amaigabearen indar bortitzei albo egin.

Azkenik, munduko handienak elkarren artean hain suharki burrukatzen direnez gero, erruki gabeko gerran sarturik, ez al dakusu euron dema luzea noizbait buka daitekeela, beharbada eguzkia eta berotasun osoa, ur guztiak edandakoan, nagusituko delako? Horretantxe dihardute, artean ez dute ahaleginik burutu baina; hain handia da ibaien ugaritasuna, ezen dena urperatzeko mehatxuan baitagoz, itsasoaren barrenetik gainezkaturik: alferrik, ostera, haize garbitzaileek eta etertar eguzkiaren izpi desegileek itsas lautadak txikitzen baitituzte, eta biak harrotzen dira urak bere ahalegina burutu aurretik lehortu ahal izateaz. Halako lehian beroturik, hik bai nik bai,

magnis <inter se> de rebus cernere certant,
cum semel interea fuerit superantior ignis
et semel, ut fama est, umor regnarit in aruis.

395

Ignis enim superat et lambens multa perussit,
auiā cum Phaethonta rapax uis solis equorum
aethere raptauit toto terrasque per omnis:
at pater omnipotens ira tum percitus acri
magnanimum Phaethonta repenti fulminis ictu
deturbauit equis in terram, Solque cadenti
obuius aeternam suscepit lampada mundi
disiectosque redegit equos iunxitque trementes,
inde suum per iter recreauit cuncta gubernans,
scilicet ut ueteres Graium cecinere poetae.
Quod procul a uera nimis est ratione repulsum.
Ignis enim superare potest ubi material
ex infinito sunt corpora plura coorta;
inde cadunt uires aliqua ratione reuictae,
aut pereunt res exustae torrentibus auris.

400

405

410

Umor item quondam coepit superare coortus,
ut fama est, hominum multas quando obruit urbis,
inde ubi uis aliqua ratione auersa recessit,
ex infinito fuerat quaecumque coorta,
constituerunt imbres et flumina uim minuerunt.

415

Sed quibus ille modis coniectus material
fundarit terram et caelum pontique profunda,
solis lunai cursus, ex ordine ponam.
Nam certe neque consilio primordia rerum
ordine se suo quaeque sagaci mente locarunt
nec quos quaeque darent motus pepigere profecto,
sed quia multa modis multis primordia rerum
ex infinito iam tempore percita plagis
ponderibusque suis consuerunt concita ferri
omnimodisque coire atque omnia pertemptare,
quaecumque inter se possent congressa creare,
propterea fit uti magnum uolgata per aeuum

420

425

kausa handi bategatik elkarren artean dihardute, behin sua garaile izan zela, behin ura, diotenez, soroetan nagusi zela. Suak irabazi egin baitzuen eta bazterrak mihizka erre baitzituen, eguzkiaren zaldien indar sutsuak Faetonta desbidatu eta eter osoan eta lur guztietan zehar arrastatu zuenean: aita oroahaltsuak, osterā, sumin biziak jota, Faetonta bihoztuna bat-bateko oinaztu kolpe batez zaldietatik eraitsi zuen eta Eguzkiak, jaustunari bidera irtenik, munduko lanpara eternala hartu zuen eta zaldi itsutuak bildu eta dardar uztartu zituen eta euren bide-tik bergidatu, dena gobernatuz, greziar poeta zaharrek kantatu zutenez. Hori egiazko arrazoitik urrunegi dago, osterā. Sua garaile izan baitaiteke, bere materiaren gorputz gehiago infinitutik sartzen den lekuan; gero indarra moteltzen zaio, beste arrazoiren batek menperaturik, edo gauzak akabatzen dira, haren aura kiskalgarriek irentsita. Ura ere behinola biltzen eta nagusitzen hasi ei zen, gizakien hainbat hiri estali zuenean, eta gero, beste arrazoiren batek infinitutik harako masa haren indarrari atzera eragin zionean, euriak atertu ziren eta ibaien indarra txikitu zen.

Baina materiaren biltze hark zeru-lurrak eta itsas hondoak, eta eguzki-ilargien orbitak nola sortu zituen ordenan azalduko dut. Zeren gauzen lehenkiak ez baitziren, noski, beren-beregi eta adimen argiz paratu bakoitza bere lekuan eta ez zuten elkar hartu nolako mugidak egin, baina lehenkiak kontaezinak direnez eta, denbora infinitutik kolpeka astindurik eta euren pisuek arrastaturik, mugitzen eta mugitzen eta era guztietara konbinatzen eta euren elkartzeetatik sor zitekeen

omne genus coetus et motus experiundo
tandem conueniant ea quae conuecta repente
magnarum rerum fiunt exordia saepe, 430
terrai maris et caeli generisque animantum.
Hic neque tum solis rota cerni lumine largo
altiuolans poterat nec magni sidera mundi
nec mare nec caelum nec denique terra neque aer
nec similis nostris rebus res ulla uideri, 435
sed noua tempestas quaedam molesque coorta
omnigenis e principiis, discordia quorum 440
interualla uias conexus pondera plagas
concursum motus turbabat proelia miscens,
propter dissimilis formas uariasque figuras
quod non omnia sic poterant coniuncta manere
nec motus inter sese dare conuenientis 445
Diffugere inde loci partes coepere paresque
cum paribus iungi res et discludere mundum
membraque diuidere et magnas disponere partes,
hoc est, a terris altum discernere caelum, 446
et seorsum mare, uti secreto umore pateret,
seorsus item puri secretique aetheris ignes.

Quippe etenim primum terrai corpora quaeque,
propterea quod erant grauia et perplexa, coibant 450
in medio atque imas capiebant omnia sedes;
quae quanto magis inter se perplexa coibant,
tam magis expressere ea quae mare sidera solem
lunamque efficerent at magni moenia mundi;
omnia enim magis haec e leuibus atque rutundis 455
seminibus multoque minoribus sunt elementis
quam tellus. Ideo, per rara foramina terrae
partibus erumpens primus se sustulit aether
ignifer et multos secum leuis abstulit ignis,
non alia longe ratione ac saepe uidemus, 460
aurea cum primum gemmantis rore per herbas
matutina rubent radiati lumina solis
exhalantque lacus nebulam fluuiique perennes,
ipsaque ut interdum tellus fumare uidetur;

guztia entseiatzen aritu direnez gero, hortik etorri da ezen, denbora
luzean sakabanaturik egonik, elkartze eta mugida mota guztiak pro-
batu ondoren, azkenean batu egin direla, euren elkartzetik gauza han-
diak, lurra, itsasoa, ortzia eta espezie bizidunak, abiarazteko moduan.

Orduan ez zen oraindik ikusten eguzkiaren gurpil argitsurik
hegan, ez itsasorik, ez ortzirik, ezta, noski, lurrik ez airerik ere, eta ez
zen gureen antzeko gauzarik bat ere ageri, baina ekaitz eta multzo
berriak osatzen ziren deneriko lehenkietatik, zeintzuon diskordiak dis-
tantziak, norabideak, konexioak, pisuak, talkak, elkartzeak eta mugi-
dak nahasten zituen etengabeko gatazkan, forma desantzekoak eta
itxura ezberdinak zirela bide, honela ezin baitzuten lehenkiek elkartu-
rik iraun, ez elkarri mugida egokirik eman. Gero parteak banatzen
hasi ziren eta berdinak berdinekin batzen eta mundua irekitzen eta
loharrak bereizten eta parte handiak ordenatzen, hots, ortzi garaia
lurretik banatzen eta itsasoa apartatzen, ura bere gisara zabaltzeko, eta
eterreko su garbiak eta bakunak ere apartatu egin ziren.

Izan ere, lehenik lurraren lehenkiak, astunak eta batuak zirela-
ko, erdian pilatzen eta denak hondoan kokatzen ziren; eta elkarren
artean zenbat eta batuago eta pilatuago egon, hainbatago oldartzen
ziren itsasoa, izarrak, eguzkia, ilargia eta munduaren murrerandiak
egitera; hauek guztiak hazi leunagoz eta borobilagoz eta lurrarenak
baino askoz txikiagoz osatzen baitira. Hala, lurraren zirritu bakanetan
zehir masatik aldenduz, lehenik eter suduna goratu zen eta bere ari-
nean su asko jaso zituen berarekin, ez oso bestela nola, ihintzak per-
laturiko belarretan, goizeko lehen eguzki izpi urrezkoak argi gorritan
islatzen diren eta lakuek eta ibai taigabeek lainoa exhalatzen duten eta
lurrak berak ere inoiz ketan dirudien; hauek denek, han goian batzean

omnia quae sursum cum conciliantur, in alto
corpore concreto subtexunt nubilam caelum.
Sic igitur tum se leuis ac diffusilis aether
corpore concreto circumdatus undique saepsit
et late diffusus in omnis undique partis
omnia sic auido complexu cetera saepsit.

465

Hunc exordia sunt solis lunaeque secuta,
interutrasque globi quorum uertuntur in auris;
quae neque terra sibi adsciuit nec maximus aether,
quod neque tam fuerunt grauia ut depressa sederent,
nec leuia ut possent per summas labier oras,
et tamen interutrasque ita sunt ut corpora uiua
uersent et partes ut mundi totius extent;
quod genus in nobis quaedam licet in statione
membra manere, tamen cum sint ea quae moueantur.

470

475

His igitur rebus retractis terra repente,
maxuma qua nunc se ponti plaga caetula tendit,
succidit et salso suffudit gurgite fossas.
Inque dies quanto circum magis aetheris aestus
et radii solis cogebant undique terram
uerberibus crebris extrema ad limina in artum,
in medio ut propulsa suo condesa coiret,
tam magis expressus salsus de corpore sudor
augebat mare manando camposque natantis,
et tanto magis illa foras elapsa uolabant
corpora multa uaporis et aeris altaque caeli
densabant procul a terris fulgentia templa.
Sidebant campi, crescebant montibus altis
ascensus; neque enim poterant subsidere saxa
nec pariter tantundem omnes subcumbere partis.

480

485

490

Sic igitur terrae concreto corpore pondus
constitit atque omnis mundi quasi limus in imum
confluxit grauis et subsedit funditus ut faex;
inde mare inde aer inde aether ignifer ipse
corporibus liquidis sunt omnia pura relictas,

495

eta gorputzak kondentsatzean, zerua lainoz ehotzen dute. Honela orduan eter arin eta hegazkorrak, gorputza kondentsatzean, mundu guztia inguratu eta hesitu zuen eta, alde guztietarantz urrun hedaturik, besarkada leratsuan gainerako guztia hesitu zuen. Honi eguzki-ilar-gien sorrerak jarraitu zion, zeintzuen globoak bitarteko aurretan biratzen diren; horiek ez zaizkio ez lurrari ez eter amaigabeari eransten, ez baitira hondoratzeko bezain astunak, ez goi ertzetarantz lerratzeko bezain arinak, eta, hala ere, hortxe dagoz bitartean eta gorputz bizi gisan biratzen dira eta mundu osoaren parteak dira; geuregan ere lohadar batzuk geldi egon daitezkeen bezala, beste batzuk mugitzen ari direla. Elementu hauek erretiraturik, lurra, orain amaigabeko itsasgain urdinkara hedatzen den lekuan, bat-batean hondoratu zen eta leizeak uhin gaziz urperatu zituen. Eta egunez egun, eter zirimolek eta eguzki izpiek, muturreko ertzen gaineko zigortze etengabez, lurra alde guztietatik erdian kondentsatzera eta bere masa estutzera zenbatago behartzen zuten, haren gorputzetik harako izerdi gaziak hainbat indartsuago ugaltzen zituen itsas zelai flotakorrak eta hainbatago eskapatzen eta hegatzen ziren su eta aire gorputz asko, lurretik urrun ortzi goreneko tenplu distiratsuak trinkotzen zituztenak. Zelaiak apaltzen eta mendi garaiak luzatzen ziren; haitzek ezin baitzuten hondoratu, ez alde guztiek era berdintsuan lautu.

Honela, beraz, lurraren pisua, gorputza kondentsaturik, geratu egin zen eta, munduaren lokatza bailitzan, hondora joan zen astunki eta hondarrak bezala jalki; gero itsasoa, gero airea, gero eter sutsua bera, euron gorputz bigunei esker, guztiz garbi geratu ziren, bata

et leuiores aliis alia, et liquidissimus aether
atque leuissimus aeris super influit auras,
nec liquidum corpus turbantibus aeris auris
commiscet; sinit haec uiolentis omnia uerti
turbibus, sinit incertis turbare procellis
ipse suos ignis certo fert impete labens.
Nam modice fluere atque uno posse aethera nisu
significat Pontos, mare certo quod fluit aestu
unum labendi conseruans usque tenorem.

Motibus astrorum nunc quae sit causa canamus.
Principio magnus caeli si uortitur orbis,
ex utraque polum parti premere aera nobis
dicendum est extraque tenere et claudere utrimque;
inde alium supra fluere atque intendere eodem
quo uoluenta micant aeterni sidera mundi;
aut aliud subter, contra qui subuehat orbem,
ut fluuios uersare rotas atque haustra uidemus.
Est etiam quoque uti possit caelum omne menere
in statione, tamen cum lucida signa ferantur;
siue quod inclusi rapidi sunt aetheris aestus
quaerentesque uiam circum uersantur et ignes
passim per caeli uoluunt summania templa;
siue aliunde fluens alicunde extrinsecus aer
uersat agens ignis; siue ipsi serpere possunt
quo cuiusque cibus uocat atque inuitat euntis,
flammea per caelum pascentes corpora passim.
Nam quid in hoc mundo sit eorum ponere certum
difficile est; sed quid possit fiatque pear omne
in uariis mundis uaria ratione creatis,
id doceo plurisque sequor disponere causas,
motibus astrorum quae possint esse per omne;
e quibus una tamen sit et hic quoque causa necessest
quae uegeat motum signis; sed quae sit earum
praecipere hautquaquamst pedetemtim progredientis.

Terraque ut in media mundi regione quiescat,
euanescere paulatim et decrescere pondus

500

505

510

515

520

525

530

535

aurrekoa baino arinago, eta bigunena eta garbiena den eterra airezko
auretan flotatzen da eta bere gorputz biguna ez du aire korronte gera-
kaltzetan nahasten; zirimola bortitz hauek dena inarros dezaten, ekaitz
aldakorrek asalda dezaten uzten du, berak lerrarazten ditu bere suak
abio segurrean. Zeren eterra era neurtuan eta ahalegin uniformean
erion daitekeela Pontok erakusten baitu, korronte finkoz erioten den
itsasoa berau, bere joanean beti erritmo berdina daroana.

Kanta dezagun orain zein den izarren mugimenduen arrazoia.
Lehenik, zeruaren esfera handia biratzen bada, esan behar dugu aire-
ak polo bietatik sakatzen eta kanpotik eusten diola eta bietatik ixten
duela; gero beste aire bat goitik erioten da, mundu eternaleko izar
birakariak dirdir egiten duten alde bererantz bultzatzen duena; edo
beste bat azpitik, esferari kontrarantz eragiten diona, ibaiak gurpilarak
eta pegarrak birarazten dituen bezala. Baliteke ortzi osoa geldi egotea
ere, izar argiak aurrera doazen bitartean; dela eurekin batera eter
korronte bizkorrak barruan doazelako eta, bidea egin ahala, zirkuluan
biratzen eta ortzi sapaia osatzen duten suak arrastatzen dituztelako;
dela kanpo aireak, beste nondibait jomez, suak joanarazten dituelako;
dela eurak direlako bakoitzaren larreak deitzen dien eta joatera gonbi-
datzen dituen lekura arrastatzeko gauza, euren gorputz gartsuak
ortzian zehar bazkatuz. Zaila baita mundu honetan hauetako zeinek
daragoion ziur ezartzea; baina izadiko mundu ezberdin eta asmo
ezberdinez sortuetan zer daitekeen eta zer gertatzen den, horixe ira-
ksten dut eta izadian zehar astroen mugidak eragin ditzaketan kausa
anizkunak erakusten; hauen artean nahitaez egon behar du hemen ere
izarren mugimendua bultzatzen duen bat; baina kausa hori zein den
zehazterik ez dagokio kontuz-kontuz aurrera doanari.

Eta, lurra munduaren erdigunean geldi egon dadin, pisua txiki-
tzea eta apurka-apurka ezabatzea komeni da, eta azpian beste subs-

conuenit, atque aliam naturam supter habere
 ex ineunte aeuo coniunctam atque uniter aptam
 partibus aeriis mundi quibus insita uiuit.
 Propterea non est oneri neque deprimit auras;
 ut sua cuique homini nullo sunt pondere membra
 nec caput est oneri collo nec denique totum
 corporis in pedibus pondus sentimus inesse;
 at quaecumque foris ueniunt inpostaque nobis
 pondera sunt laedunt, permulto saepe minora.
 Usque adeo magni refert quid quaeque queat res.
 Sic igitur tellus non est aliena repente
 allata atque auris aliunde obiecta alienis,
 sed pariter prima concepta ab origine mundi
 certaue pars eius, quasi nobis membra uidentur.
 Praeterea grandi tonitru concussa repente
 terra supra quae se sunt concutit omnia motu;
 quod facere haut ulla posset ratione, nisi esset
 partibus aeriis mundi caeloque reuincta:
 nam communibus inter se radicibus haerent
 ex ineunte aeuo coniuncta atque uniter apta.
 Nonne uides etiam quam magno pondere nobis
 sustineat corpus tenuissima uis animai
 propterea quia tam coniuncta atque uniter apta est?
 Denique iam saltu pernici tollere corpus
 quid potis est nisi uis animae, quae membra gubernat?
 Iamne uides quantum tenuis natura ualere
 possit, ubi est coniuncta graui cum corpore, ut aer
 coniunctus terris et nobis est animi uis?

 Nec nimio solis maior rota nec minor ardor
 esse potest, nostris quam sensibus esse uidetur.
 Nam quibus e spatiis cumque ignes lumina possunt
 adiacere et calidum membris adflare uaporem,
 nil illi his interuallis de corpore libant
 flammaram, nil ad speciem est contractior ignis.
 Proinde, calor quoniam solis lumemque profussum
 perueniunt nostros ad sensus et loca fulgent,
 forma quoque hinc solis debet filumque uideri,

tantziaren bat egotea, sorreratik berarekin lotua eta munduaren airez-
 ko parteekin, non bera kokatzen den, bat egina. Horregatik lurak ez
 du pisurik egiten ez aurarik zapaltzen; gizakiari lohadarrek pisatzen ez
 dioten eta burua ere lepoari astun ez zaion eta, hitz batez, gorputzaren
 pisu guztia oinetan datzanik sentitzen ez dugun bezalaxe; kanpotik
 datozen eta ezartzen zaizkigun pisuek, ostera, sarritan askoz txikiago-
 ek, sakatu egiten digute. Horrexenbeste axola du zer bakoitzak nolako
 ahala duen. Honela, bada, lurra ez zen zer arrotz gisan tanpez sartua
 eta beste nondibait aire arrotzera jaurtia izan, aitzitik airearekin bate-
 ra sortua izan zen munduaren hasieratik eta beronen atal jakina da,
 gorputzatalak gureak diren bezala. Bestalde, trumoi handi batek bat-
 batean astintzen duen lurak bere gainean dagoen guztia astintzen du
 berak ere; hori ezingo luke inola ere egin, munduko aireguneekin eta
 zeruarekin bat eginik ez balego: denboren hasieratik elkarren artean
 sustrai komunez atxikirik eta batasunean loturik baitagoz. Ez al daku-
 su zer pisu handiko gorputzari eusten dion gure arimaren indar xume-
 xumeak ere, hain elkaturik eta batasunean loturik egoteagatik?
 Azkenik, zerk jaso dezake gorputza jauzi azkarrean, lohadarrak
 gobernatzan dituen arimaren indarrak ez bada? Ba al dakusu, beraz,
 izaera xume batek zenbat dezakeen, gorputz pisuarekin baturik dago-
 nean, airea lurrarekin eta arima gurekin baturik dagoen bezala?

Eguzkiaren gorpila eta beroa ez daiteke askoz handiagoa ez txi-
 kiagoa izan, gure sentimenei iruditzen zaiena baino. Zeren, suak argia
 bidaltzen eta bere lohadarren beroa ematen diguna denik urrunen bada
 ere, bitarteko distantziak ez die garrei ezer kentzen, ez suaren irudirik
 txikitzen. Beraz, eguzkiaren beroa eta zabaltzen duen argia gure senti-
 menetara heltzen eta bazterrak argitzen dituzenez gero, eguzkiaren
 forma eta ingerada ikusi behar ditugu, egitan ezer kentzerik ez gehitze-
 rik ez daukagula [[gure sentimenetara heltzen eta bazterrak argitzen]].

nil adeo ut possis plus aut minus addere uere
[perueniunt nostros ad sensus et loca fulgent]. 574

Lunaque siue notho fertur loca lumine lustrans,
siue suam propio iactat de corpore lucem,
quidquid id est, nilo fertur maiore figura
quam, nostris oculis qua cernimus, esse uidetur.
Nam prius omnia, quae longe semota tuemur
aera per multum, specie confusa uidentur 580
quam minui filum. Quapropter luna necesse est,
quandoquidem claram speciem certamque figuram
praebet, ut est oris extremis cumque notata
quantaque quantast hinc nobis uideatur in alto.

Postremo quoscumque uides hinc aetheris ignes,
quandoquidem quoscumque in terris cernimus <ignes>,
dum tremor <et> clarus dum cernitur ardor eorum,
perparuom quiddam interdum mutare uidentur
alteram utram in partem filum, quo longius absunt;
scire licet perquam pauxillo posse minores 594
esse uel exigua maioris parte breuique.

Illud item non est mirandum, qua ratione
tantulus ille queat tantum sol mittere lumen,
quod maria ac terras omnis caelumque rigando
compleat et calido perfundat cuncta uapore 590
[quanta quoquest tanta hinc nobis uidetur in alto]. 596

Nam licet hinc mundi patefactum totius unum
largifluum fontem scaterere atque erumpere lumen,
ex omni mundo quia sic elementa uaporis
undique conueniunt et sic coniectus eorum
confluit, ex uno capite hic ut profluat ardor.
Nonne uides etiam quam late paruus aquai
prata riget fons interdum campisque redundet?
Est etiam quoque uti non magno solis ab igni
aera percipiat calidis feruoribus ardor, 600
opportunos ita est si forte et idoneus aer,
ut queant accendi paruus ardoribus ictus; 605

Ilargia ere, bai bere ibilbidea inoren argiz egiten duela, bai argia bere
gorputzetik igortzen duela, delakoa dela, gure begiek dakustena baino
batere handiagoa ez den tamainarekin dabil. Zeren oso urrunera, bitar-
tean aire asko dela, ikusten ditugun zer guztietan, itxura ingerada txi-
kitu baino lehenago nahasturik ikusten da. Horregatik ilargiak, itxura
argia eta figura zehatza ematen duenez gero, kanpo ertzek, direnak
direla, dioten modukoa izan behar du eta hemendik han goian daukan
tamaina berarekin ikusi behar dugu. Azkenik, lurrean ikusten ditugun
su guztiak, euron dizdiza eta bero distiratsua ikusten deno, oharkabe-
an, gehiago-gutxiago, urrunaren arabera, ingerada aldatzen dutela
dirudienez gero, hemendik ikusten dituzun eterreko su guztiek oso
apur bat txikiagoak edo oso apur-apur bat handiagoak izan daitezkee-
la atera behar da.

Ez da harritzekoa hain eguzki niminoak lurrera hainbeste argi
bidaltzea, ezen itsasoak eta lur guztiak eta ortzia gainezkatzen baititu
eta dena jario beroz bainatzen [[hemendik han goian daukan tamaina
berarekin ikusi behar dugu]]. Zeren baliteke mundu guztiaren argi itu-
rri bakarra hantxe irekitzea eta argitasun ugari zabaltzea, beroaren ele-
mentuak mundu guztitik hantxe batzen eta haraxe jotzen dutelako,
beroa sorburu bakar hartatik erion dadin. Ez al dakusu batzuetan zer
ur turrusta mehea behar den, landa zabalak ureztatzeko eta zelaiak
blaitzeko? Baliteke baita eguzkiaren su ez hain handitik harako bero-
ak airea bere lamaz isiotzea, baldin airea berotasun txikien kolpera
suhartzeko moduko prestasun egokian badago; honela inoiz uztak eta

quod genus interdum segetes stipulamque uidemus
accidere ex una scintilla incendia passim.
Forsitan et rosea sol alte lampade lucens
possideat multum caecis feruoribus ignem
circum se, nullo qui sit fulgore notatus,
aestifer ut tantum radiorum exaugeat ictum.

Nec ratio solis simplex <et> recta patescit,
quo pacto aestiuus e partibus aegocerotis
brumalis adeat flexus atque inde reuertens
canceris ut uertat metas ad solstitialis,
lunaque mensibus id spatium uideatur obire,
annua sol in quo consumit tempora cursu.
Non, inquam, simplex his rebus reddita causast.
Nam fieri uel cum primis id posse uidetur,
Democriti quod sancta uiri sententia ponit,
quanto quaeque magis sint terram sidera propter,
tanto posse minus cum caeli turbine ferri;
euanescere enim rapidas illius et acris
imminui supter uiris, ideoque relinqui
paulatim solem cum posterioribus signis,
inferior multo quod sit quam feruida signa.
Et magis hoc lunam: quanto demissior eius
cursus abest procul a caelo terrisque propinquat,
tanto posse minus cum signis tendere cursum.
Flaccidiore etiam quanto iam turbine fertur
inferior quam sol, tanto magis omnia signa
hanc adipiscuntur circum praeterque feruntur.
Propterea fit ut haec ad signum quoque reuerti
mobilius uideatur, ad hanc quia signa reuisunt.
Fit quoque ut e mundi transuersis partibus aer
alternis certo fluere alter tempore possit
qui queat aestiuus solem detrudere signis
brumalis usque ad flexus gelidumque rigorem,
et qui reiciat gelidis a frigoris umbris
aestiferas usque in partis et feruida signa.
Et ratione pari lunam stellasque putandumst,
quae uolunt magnos in magnis orbibus annos,

610

615

620

625

630

635

640

galburuak txinpart bakarretik sutean isiotzen ikusi ohi ditugu. Beharbada arrosa-lanparaz goian dizdiz egiten duen eguzkiak ere ikusten ez den su piloa edukiko du bere inguruan, inolako distiran agertu ez arren, beroa emanez, izpien kolpea hainbeste gehitzen duena.

Eguzkiaren arrazoi bakar eta zuzenik ere ez dago argi, zergatik doan, udako aldeak utzirik, kaprikornioaren neguko tropikora eta nola, han eurt eginik, kantzerraren solstizioa duen berriz helburu; eta nola ilargiak hilabetearen egiten duen eguzkiak urtebeteko denbora behar duen espazioa.

Ez dago, esan bezala, gertakari hauentzako arrazoi bakarrik. Lehenik, bai bailiteke Demokrito gizasemearen doktrina santuak dioen bezala gertatzea, hots, zenbat eta izarrak lurretik hurrago egon, hainbat gutxiago eroan ditzakeela ortziko zirimolak; honen indar bizkorra eta bortitza ezabatzen eta gutxitzen delako eta horregatik eguzkia ondorengo zeinuen artean apurka-apurka atzeratzen delako, izar goriak baino askoz beherago egotearren. Eta areago ilargia: bere ibilbidea zenbat eta beheragokoa den, zerutik urrunduz eta lurrera hurbilduz, hainbat gutxiago egin dezake ibilibide hori izarrekin batera. Eta arrastatzen duen zirimola, eguzkiarena baino txikiagoa, zenbat eta ahulagoa izan, aisago harrapatzen eta aurea hartzen diote izar guttiak. Horregatik dirudi berau itzultzen dela azkarrago izarretara, izarrek bera berriro harrapatzen dutelarik. Baliteke baita bi aire ezberdinek denbora jakinean txandaka jotzea munduaren muturreko aldeetatik, batetik eguzkia udako zeinuetatik jaurti eta neguko tropikora eta gogortasun izoztura bultz egingo diona eta bestetik hotzaren geriza izoztuetatik udako eremuetara eta zeinu gorietara itzularaziko duena. Euren orbita luzeak korritzeko urte handiak darabiltzaten ilargi eta

aeribus posse alternis e partibus ire.
Nonne uides etiam diuersis nubila uentis
diuersas ire in partibus inferna supernis?
Qui minus illa queant per magnos aetheris orbis
aestibus inter se diuersis sidera ferri?

645

At nox obruit ingenti caligine terras,
aut ubi de longo cursu sol ultima caeli
impulit atque suos effluit languidus ignis
concussos itere et labefactos aere multo,
aut quia sub terras cursum conuertere cogit
uis eadem, supra quae terras pertulit orbem.

650

Tempore item certo roseam Matuta per oras
aetheris auroram differt et lumina pandit,
aut quia sol idem, sub terras ille reuertens,
anticipat caelum radiis accendere temptans,
aut quia conueniunt ignes et semina multa
confluere ardoris consuerunt tempore certo,
quae faciunt solis noua semper lumina gigni;
quod genus Idaeis fama est e montibus altis
dispersos ignis orienti lumine cerni,
inde coire globum quasi in unum et conficere orbem.
Nec tamen illud in his rebus mirabile debet
esse, quod haec ignis tam certo tempore possunt
semina confluere et solis reparare nitorem.
Multa uidemus enim, certo quae tempore fiunt
omnibus in rebus. Florescunt tempore certo
arbusta et certo dimittunt tempore florem:
nec minus in certo dentis cadere imperat aetas
tempore et in pubem molli pubescere ueste
et pariter mollem malis demittere barbam:
fulmina postremo nix imbres nubila uenti
non nimis incertis fiunt in partibus anni.
Namque ubi sic fuerunt causarum exordia prima
atque ita res mundi cecidere ab origine prima,
consequere quoque iam redeunt ex ordine certo.

655

660

665

670

675

izarrei ere era berdinean bultz egiten dietela pentsa daiteke txandako aireek txandako norabideetan. Ez al dakusu nola hodeiak ere, kontrako haizeen eraginez, goikoak behekoen kontrako norabidean joan ohi diren? Zergatik ezin dituzte izarrok, eterreko orbita itzeletan zehar, korronte ezberdinek eroan?

Gauak, ostera, lurra laino trinkoan ehorzten du, bai eguzkiak, ibilera luzearen ondoren, ortziko azken muturrak jo eta, ahiturik, bere suak, bidaian kolpatuak eta aire ugarian makalduak, puzka jaurti dituelako, bai lurren gainetiko orbitan bultz egin zion indar berak lurren azpitiko ibilbidera makurrarazten duelako.

Era berean, Goizek denbora jakinean egunsenti arrosatua eterean zehar zabaltzen du eta argia irekitzen, bai eguzkiak berak, lurren azpiko ibileratik bueltan, ortzian aurea hartzen duelako, izpiz isiotzen saiatur, bai denbora jakinean suak eta bero hazi asko batzen direlako, egunero eguzki berria jaiotzen dutenak; horrela Idako mendi garaetatik argisentian su dispertsoak ikusten ei dira eta gero globo bakarrean bezala batzen eta diskoa osatzen ei dute. Eta honetan ez dago harrigarritzat jo beharrik suzko hazi horiek hain denbora jakinean bat egin eta eguzkiaren distira berritu ahal izatea. Arlo guztietan gauza asko ikusten baitugu, denbora jakinean gertatzen dena. Zuhaitzak denbora jakinean loratzen eta denbora jakinean loregabertzen dira: eta ez ditu adinak denbora ez-jakinagoan hortzak jausarazten eta nerabea bilo bigunez janzten eta halaber haren masailtan bizar biguna ernearazten. Azkenik, oinaztuak, elurra, euriak, hodeiak, haizeak nahikoa erregular gertatzen dira urtaroetan zehar. Eta, kausen lehen hastapenak horrela izan eta gauzak munduaren hasieratik horrela gertatu zirenez gero, orain ere horrelaxe errepikatzen dira ordena jakinean.

Crescere itemque dies licet et tabescere noctes,
et minui luces, cum sumant augmina noctis,
aut quia sol idem sub terras atque superne
imparibus currens anfractibus aetheris oras
partit et in partis non aequas diuidit orbem,
et quod ab alterutra detraxit parte, reponit
eius in aduersa tanto plus parte relatus,
donec ad id signum caeli peruenit, ubi anni
nodus nocturnas exaequat lucibus umbras;
nam medio cursu flatus aquilonis et austri
distinguet aequato caelum discrimine metas
propter signiferi posituram totius orbis,
annua sol in quo consumit tempora serpens,
obliquo terras et caelum lumine lustrans,
ut ratio declarat eorum qui loca caeli
omnia dispositis signis ornata notarunt.
Aut quia crassior est certis in partibus aer,
sub terris ideo tremulum iubar haesitat ignis
nec penetrare potest facile atque emergere ad ortus;
propterea noctes hiberno tempore longae
cessant, dum ueniat radiatum insigne diei.
Aut etiam, quia sic alternis partibus anni
tardius et citius consuerunt confluere ignes
qui faciunt solem certa de surgere parte,
propterea fit uti uideantur dicere uerum.

* * *

Luna potest solis radiis percussa nitere
inque dies magis <id> lumen conuertere nobis
ad speciem, quantum solis secedit ab orbi,
donique eum contra pleno bene lumine fulsit
atque oriens obitus eius super edita uidit;
inde minutatim retro quasi condere lumen
debet item, quanto propius iam solis ad ignem
labitur ex alia signorum parte per orbem;
ut faciunt, lunam qui fingunt esse pilai
consimilem cursusque uiam sub sole tenere.
Est etiam quare proprio cum lumine possit
uoluer et uarias splendoris reddere formas;

680

685

690

695

700

705

710

715

Egunak luzatuz eta gauak laburtuz doaz eta gaua handitu ahala
argia gutxituz, bai eguzkiak berak, bere ibilbidean lurraren gainetik
eta azpitik arku ezberdinak eginez, eter eremua erdibitzen eta orbita
zati ezberdinetan banatzen duelako eta alde batari kendu diona buel-
tan besteari gehituz hornitzen duelako, urtearen giltzak gaueko geri-
zak eta eguneko argiak berdintzen dituen zeruko zeinu hartaraino iri-
tsi arte; zeren, akiloitik austrorako bide erdian, zeruak distantzia ber-
dineran mantentzen baititu tropikoak, zodiako osoaren posturagatik,
zeina kurritzen eguzkiak urtebete egiten duen, zeru-lurrak argi zeiha-
rrez garbitzen dituela, zeruko toki guztiak, bakoitza bere ikurrez orde-
nan jarririk, markatu dituztenen kalkuluek dioten bezala. Bai airea
alde batzuetan trinkoagoa delako eta lurraren azpian eguzkiaren disti-
ra tremulua atzeratzen eta ekialderantz jotzea eta igotzea eragozten
duelako; horregatik neguko gauak luzatzen eta atzeratzen dira, eguna-
ren ezaugarri argitsua etorri arte. Edo baita, urtaroen arabera txanda-
ka, leku jakinean eguzkia sortzen duten suak arinago edo astiroago
elkartzen direlako, eta horregatik egia diotela dirudi [gertaera honen
kausa bakarrik ematerik ez dagoela diotenek].

* * *

Ilargia baliteke eguzkiaren izpiek jota argitzea eta egunez egun
bere argia, eguzkiaren diskotik urrundu ahala, gureganantz gehiago
bihurtzea, harik eta, beronen aurrez aurre, osorik argiztatu eta, oster-
tzaren gainera irtenik, beronen sarrera ikusi arte; gero, apurka-apurka,
bere argia ezkututzen bezala joan behar du, ortziaren beste aldetik
zodiakoan zehar berriro eguzkiaren surantz hurreratu ahala; ilargia
eguzkiaren azpitik beronen norabidean doan pilota bezalakoa dela
pentsatzen dutenek diotenez. Baita pentsa daiteke argi propioz bira-
tzen dela eta bere distiraren forma ezberdinak ematen dituela; beste

corpus enim licet esse aliud quod fertur et una
labitur omnimodis occursans officiensque
nec potis est cerni, quia cassum lumine fertur.
Versarique potest, globus ut, si forte, pilai
dimidia ex parti candenti lumine tinctus,
uersandoque globum uariantis edere formas,
donique eam partem, quaecumque est ignibus aucta,
ad speciem uertit nobis oculosque patentis;
inde minutatim retro contorquet et aufert
luciferam partem glomeraminis atque pilai;
ut Babylonica Chaldaeum doctrina refutans
astrologorum artem contra conuincere tendit,
proinde quasi id fieri nequeat quod pugnat uterque
aut minus hoc illo sit cur amplectier ausis.
Denique cur nequeat semper noua luna creari
ordine formarum certo certisque figuris
inque dies priuos aborisci quaeque creata
atque alia illius reparari in parte locoque,
difficilest ratione docere et uincere uerbis,
ordine cum <possint> tam certo multa creari.

It Ver et Venus et Veneris praenuntius ante
pennatus graditur, Zephyri uestigia propter
Flora quibus mater praespargens ante uiui
cuncta coloribus egregiis et odoribus opplet.
Inde loci sequitur calor aridus et comes una
puluerulenta Ceres <et> etesia flabra aquilonum.
Inde Autumnus adit, graditur simul Euhus Euan.
Inde aliae tempestates uentique secuntur,
altitonans Volturnus et auster fulmine pollens.
Tandem bruma niues adfert pigrumque rigorem
reddit; Hiemps sequitur crepitans hanc dentibus algu.
Quo minus est mirum si certo tempore luna
gignitur et certo deletur tempore rursus,
cum fieri possint tam certo tempore multa.

Solis item quoque defectus luaneque latebras
pluribus e causis fieri tibi posse putandumst.

720

725

730

735

740

745

750

gorputz bat egon baitaiteke, hark arrastaturik doana eta hamaika era-
tara oztopatuz geriza egiten diona, berau ikusgaitza izanik, argi gabe
mugitzen delako. Biratu ere egin daiteke, erdia zuri biziz tindaturiko
pilotak, biratzean, forma aldakorrak ematen dituen bezala, harik eta
argizaturik dagoen alde hura osoan gure begietarantz itzuli arte; gero
apurka-apurka atzerantz okertzen eta alde argiduna pilotaren masatik
apartatzen du; Babiloniako Kaldearren doktrinak astrologoen zientzia
errefutatu nahi duen moduan, bakoitzak defendatzen duena ezinezkoa
balitz edo azalpen bata zein bestea onartzeko arrazoi gutxiago balego
bezala. Azkenik, zergatik ez daitekeen egunero ilargi berria sortua
izan, formen segida jakinez eta figura jakinekin, eta sortua egunero hil
eta leku berean beste batek ordeztua izan, zaila da arrazoi sendoz fro-
gatzea, hainbeste gauza sortua izan baitaiteke ordena jakinaren arabe-
ra. Badatoz Udaberri eta Venus eta Venusen aurretik lumadun iragar-
lea, eta ama Florak, Zefioren urratsei jarrai, bide guztia kolore eta
usain zoragarritz jazten du. Ondoren Uda bero dator, ondoan Zeres
haustuna eta akiloiaren ufa etesioak lagun dituela. Gero Udazken
heldu da eta berarekin Bako, aupaka. Jarraian beste aro eta haize
batzuk, Volturno goi-trumoia eta Austro tximist-jauna. Azkenik,
neguko solstizioak elurrak dakartza eta lei kixkorak berritzen ditu;
badator Negu, haginak hotzez dardar. Ez da, beraz, hain harritzekoa
ilargia denbora jakinean sortzea eta berriro denbora jakinean desegi-
tea, hainbeste gauza izan baitaiteke denbora jakinean egina.

Eguzkiaren eklipseak eta ilargiaren ezkutatzak, halaber, kausa
ezberdinek eraginak direla pentsatu behar duzu. Zeren, zergatik deza-

Nam cur luna queat terram secludere solis
lumine et a terris altum caput obstruere ei,
obiciens caecum radiis ardentibus orbem: 755
tempore eodem aliud facere id non posse putetur
corpus quod cassum labatur lumine semper?
Solque suos etiam dimittere languidus ignis
tempore cur certo nequeat recreareque lumen,
cum loca praeteriit flammis infesta per auras, 760
quae faciunt ignis interstingui atque perire?
Et cur terra queat lunam spoliare uicissim
lumine et oppresum solem super ipsa tenere,
menstrua dum rigidas coni perlabitur umbras:
tempore eodem aliud nequeat succurrere lunae 765
corpus uel supra solis perlabier orbem,
quod radios interrumpat lumenque profusum?
Et tamen ipsa suo si fulget luna nitore,
cur nequeat certa mundi languescere parte. 770
dum loca luminibus propriis inimica per exit?
[menstrua dum rigidas coni perlabitur umbras.]

Quod superest, quoniam magni per caerula mundi
qua fieri quicquid posset ratione resolui,
solis uti uarios cursus lunaeque meatus
noscere possemus quae uis et caussa cieret, 775
quoue modo <possent> offecto lumine obire
et neque opinantis tenebris obducere terras,
cum quasi coniuent et aperto lumine rursum
omnia conuisunt clara loca candida luce,
nunc redeo ad mundi nouitatem et mollia terrae 780
arua, nouo fetu quid primum in luminis oras
tollere et incertis crerint committere uentis.

Principio genus herbarum uiridemque nitorem
terra dedit circum collis camposque per omnis,
florida fulserunt uiridanti prata colore, 785
arboribusque datumst uariis exinde per auras
crescendi magnum inmissis certamen habenis.
Ut pluma atque pili primum saetaeque creantur

ke ilargiak eguzkiaren argia mozt eta bere buru gailena haren eta lurraren bitartean ezar, bere disko iluna izpi goriei jarkiz, aldi berean zeruan lerratzen den beste gorputz beti argigabe batek hori bera egin dezakeela ez pentsatzeko moduan? Eta eguzkiak berak ez al dezake, indarge, denbora jakinean sua gal eta argia bersor, aurretan zehar suak itzungi eta hilarazi zituzten garren eremu gupidagabeak jotzen ditue-nean? Eta, zergatik dezake lurrak, halaber, ilargia argigabetu eta, bera gainean dela, eguzkia geldi atxiki, hilero konoaren itzal barruan zorrotz dabilen bitartean; eta zergatik aldi berean ezin zaio beste gorputz bat ilargiari jarki edo eguzkiaren diskoaren paretik lerratu, haren izpiak eta argiaren zabaltzea moztuz? Eta bestetik, ilargiak distira propioz argi egiten badu, zergatik ez daiteke ortziko hain unetan iraungi, bere argi propioaren arerio diren lekuetatik pasatzean?

Eta, mundu handiaren oskarbietan zer bakoitza zergatik gertatzen den erabakia dudanez gero, orain, eguzkiaren ibilbide eta ilargiaren mugida aldakorrek zer indarrek eta kausak eragiten dituen eta nola, argia itzungitzean, desager daitezkeen eta lurra ezustean ilunpez estal dezaketen, begiak nolabait itxi-irekirik, euren argi gardenari esker distiratzen den guztia berriro hautematen dutenean, hori dena uler dezagun, munduaren gaztaro eta lurraren soro bigunetara itzuliko naiz eta azalduko dut zer fruitu berri zuten lehenen argi zelaira eman eta haize badaezpadakoen esku jartzen ausartu.

Hasieran, lurrak distira berdeko pentzez inguratu zituen munoak eta jantzi zelai guztiak, landa loretsuak kolore mardulez distiratu ziren eta deneriko zuhaitzei bide eman zitzaizen, aske eta airea zulatuz,

quadripedum membris et corpore pennipotentum,
 sic noua tum tellus herbas uirgultaque primum
 sustulit, inde loci mortalia saecla creauit
 multa modis multis uaria ratione coorta. 790
 Nam neque de caelo cecidisse animalia possunt
 nec terrestria de salcis exisse lacunis.
 Linquitur ut merito maternum nomen adepta 795
 terra sit, e terra quoniam sunt cuncta creata.
 Multaque nunc etiam existunt animalia terris
 imbribus et calido solis concreta uapore;
 quo minus est mirum si tum sunt plura coorta
 et maiora, noua tellure atque aethere adulta. 800
 Principio genus alituum uariaeque uolucres
 oua relinquebant exclusae tempore uerno,
 folliculos ut nunc teretis aestate cicadae
 lincunt sponte sua uictum uitamque petentes.
 Tum tibi terra dedit primum mortalia saecla. 805
 Multus enim calor atque umor superabat in aruis:
 hoc ubi quaeque loci regio opportuna dabatur,
 crescebant uteri terram radicibus apti;
 quos ubi tempore maturo patefecerat aetas
 infantum fugiens umorem aurasque petessens, 810
 conuertebat ibi natura foramina terrae
 et sucum uenis cogeabat fundere apertis
 consimilem lactis, sicut nunc femina quaeque
 cum peperit, dulci repletur lacte, quod omnis
 impetus in mammas conuertitur ille alimenti. 815
 Terra cibum pueris, uestem uapor, herba cubile
 praebebat multa et molli lanugine abundans.
 At nouitas mundi nec frigora dura ciebat
 nec nimios aestus nec magnis uiribus auras.
 Omnia enim pariter crescunt et robora sumunt. 820
 Quare etiam atque etiam maternum nomen adepta
 terra tenet merito, quoniam genus ipsa creauit
 humanum atque animal prope certo tempore fudit
 omne quod in magnis bacchatur montibus passim,
 aeriasque simul uolucres uariantibus formis. 825
 Sed quia finem aliquam pariendi debet habere,

zein luzeagoka haz zitezen. Eta lauhankakoen lohadarretan eta hegaz-
 tien gorputzean, lehenen lumak eta biloak eta zurdak sortzen direnez,
 lur gazteak ere berdin eman zituen lehenen belarrak eta zuhaiskak, eta
 gero espezie hilkorrak sortu zituen, askotarikoak, era askotara eta
 arrazoi askotarikoz jaio zirenak. Animaliek ezin baitute zerutik jau-
 siak izan, ez lehorrekoek ur gazietatik irtenek. Lurrak benetako ama
 izena merezi izatea baino ez da geratzen, lurretik sortua izan baita
 dena. Oraintxe ere animalia asko sortzen da lurretik, euriek eta eguz-
 kiaren berotasunak eraginda; gutxiago harritzekoa da, beraz, gehiago
 eta handiagoak sortu izatea, lurra gazte eta eterra heldua zenean.
 Hasieran, enda hegodunak eta txori koloretsuak arraultzatik zetozen,
 udaberrian kanporatuz, orain txitxarrek soineko biribilak udan euren
 kabuz uzten dituzten bezala, janari eta bizi bila. Orduantxe eman
 zizun lurrak lehenik hilkorren enda. Soroak hezez eta beroz gainezka
 baitzegozen, non toki egokia gertatu, han hazten ziren lurreen sustrai-
 turiko umetokiak; zeintzuok, denborak betetakoan, umeen sakadak
 irekitzen zituenean, hezetik ihesi eta aire gose eurok, naturak harantz
 bihurtzen zituen lurraren poroak eta zain irekietan zehar esne antzeko
 zukua isurrarazten zien, orain emakume erditua esne gozoz betetzen
 den bezala, elikuaren bulkada hura guztia bularretan batzen delako.
 Lurrak hurrei jana zemaiei, beroak jantzia, belarrak bilo ugari eta
 samurreko ohea. Bestetik, munduaren gaztaroak ez zuen hotz minik
 sortzen, ez bero handiegirik, ez haize bortitzegirik. Gauza guztiak ber-
 dintsu hazten eta indartzen baitira.

Beraz, berriz diot, lurrak merezita dauka eman zaion ama
 izena, berak sortu baitzuen giza enda eta mendi zabaletan jauzika
 barreiatzen diren ia animalia mota guztiak eta forma askotariko aire
 hegaztiak ere berak eman zituen denbora jakinean. Baina, emankorta-

destitit, ut mulier spatio defessa uetusto.
Mutat enim mundi naturam totius aetas
ex alioque alius status excipere omnia debet,
nec manet ulla sui similis res: omnia migrant, 830
omnia commutat natura et uertere cogit.
Namque aliud putrescit et aeuo debile languet,
porro aliud succrescit et <e> contemptibus exit.
Sic igitur mundi naturam totius aetas
mutat et ex alio terram status excipit alter, 835
quod potuit nequeat, possit quod non tulit ante.

Multaque tum tellus etiam portenta creare
conatast mira facie membrisque coorta,
androgynem, interutrasque nec utrum, utrimque remotum, 840
orba pedum partim, manuum uiduata uicissim,
muta sine ore etiam, sine uoltu caeca reperta,
uinctaque membrorum per totum corpus adhaesu,
nec facere ut possent quicquam nec cedere quoquam
nec uitare malum nec sumere quod uolet usus. 845
Cetera de genere hoc monstra ac portenta creabat,
nequiquam, quoniam natura absterruit auctum
nec potuere cupitum aetatis tangere florem
nec reperire cibum nec iungi per Veneris res.
Multa uidemus enim rebus concurrere debere, 850
ut propagando possint procudere saecla;
pabula primum ut sint, genitalia deinde per artus
semina qua possint membris manare remissis;
feminaque ut maribus coniungi possit, habere
mutua qui mutant inter se gaudia uterque.

Multaque tum interiise animantium saecla necessest 855
nec potuisse propagando procudere prolem.
Nam quaecumque uides uesci uitalibus auris,
aut dolus aut uirtus aut denique mobilitas est
aut inuente aeuo genus id tutata reseruans.
Multaque sunt, nobis ex utilitate sua quae 860
commendata manent, tutelae tradita nostrae.

sunak ere amairen bat behar zuenez gero, utzi egin zion, urteen kargak agorturiko emakumeak bezala. Denborak mundu osoaren izaera aldatzen baitu, egoera bati nahitaez beste bat darraiolako beti eta ezerk ez dirauelako bere buruaren berdin: dena da igarokor, naturak dena aldatzen eta bilakarazten du. Zeozer usteltzen, makaltzen eta adinez ahitzen denean, beste bat da ordeaz hazten eta gutxiespenetik irteten. Honela, bada, denborak mundu osoaren izaera aldatzen du eta lurra egoera batetik bestera igarotzen da; ahal zuenik ezin du eta lehen ezin zuenak ahal du.

Lurra ahalegindu zen hainbat munstro sortzen ere, aurpegi eta gorputzadar bitxiz eginak, hala nola androginoa, erdi gizon erdi andre, bien ezberdin, edo animalia behin hankagabeak, behin eskugabeak, baita aho gabeko mutuak ere, edo itsu aurpegigabeak, edo lohadar guztiak gorputzean itsatsita edukitzeagatik ezinduak, ezin zutelarik ezer egin, ez mugitu, ez gaitzetik alde egin, ez behar zutenik hartu. Honelako beste munstro eta izugarri batzuk ere sortzen zituen, alferrik, naturak ez baitzien hazten utzi, eta ezin izan zuten adin-lore desiaturik erdietsi, ez janik aurkitu, ez Venusen egintzan elkartu. Izan ere, gauza askok bat egin behar duela ikusten dugu, espezieak ugal eta zabal daitezen; lehenik larreak behar dira, gero lohadar lasatuetatik gorputzean zehar hazi genitala nondik erion eduki behar da; baita, emea arrei lot dakien, elkarren artean atsegina nola trukatu ere.

Nahitaezkoa da animalia espezie asko orduantxe iraungi zedin eta ez zezan, ugalduz, ondorengorik izan ahal. Bizi aurretatik elikatzen ikusten dituzun guztiek badute, izan ere, edo maltzurkeria edo indarra edo, nolana ere, mugikortasuna, hasieratik espeziearen babesle eta gordetzaille. Badira asko, euren onuragatik, gure esku utziak, gure ardurapean jarriak. Lehenik, lehoien enda bortitza eta espezie

Principio genus acre leonum saeuaque saecla
 tutatast uirtus, uolpes dolus et fuga ceruos.
 At leuisomma canum fido cum pectore corda
 et genus omne quod est ueterino semine partum 865
 lanigeraeque simul pecudes et bucera saecla
 omnia sunt hominum tutelae tradita, Memmi;
 nam cupide fugere feras pacemque secuta
 sunt et larga suo sine pabula parta labore,
 quae damus utilitatis eorum praemia causa. 870
 At quis nil horum tribuit natura, nec ipsa
 sponte sua possent ut uiuere nec dare nobis
 utilitatem aliquam quare pateremur eorum
 praesidio nostro pasci genus esseque tutum,
 scilicet haec aliis praedae lucroque iacebant
 indupedita suis fatalibus omnia uinclis,
 donec ad interitum genus id natura redegit. 875

Sed neque Centauri fuerunt, nec tempore in ullo
 esse queunt duplici natura et corpore bino
 ex alienigenis membris compacta, potestas 880
 hinc illinc partis ut sat par esse potis sit.
 Id licet hinc quamuis hebeti cognoscere corde.
 Principio circum tribus actis impiger annis
 floret ecus, puer haudquaquam; nam saepe etiam nunc
 ubera mammaram in somnis lactantia quaeret:
 post ubi ecum ualidae uires aetate senecta
 membraque deficiunt fugienti languida uita,
 tum demum puerili aeuo florente iuuentas
 occipit et molli uestit lanugine malas.
 Ne forte ex homine et ueterino semine equorum 890
 confieri credas Centauros posse neque esse,
 aut rapidis canibus succinctas semimarinis
 corporibus Scyllas et cetera de genere horum,
 inter se quorum discordia membra uidemus;
 quae neque florescunt pariter nec robora sumunt, 895
 corporibus neque proiciunt aetate senecta,
 nec simili Venere ardescunt nec moribus unis
 conueniunt, neque sunt eadem iucunda per artus:

ankerra bipiltasunak gorde du, azeria maltzurtasunak eta oreina ihe-
 sak. Lo arineko eta bihotz leialeko txakurrak eta zamarien hazitik sor-
 turiko espezie guztiak eta artiledun aziendak eta idi adar-haundiak,
 ostera, gizakion ardurapean jarriak izan dira denak, Memmio; piz-
 tiengandik pozik ihes egin baitzuten, bakearen eta neke gabe lorturiko
 bazka mardulen, euren onuraren saritzat ematen dizkiegunen bila,
 hain zuzen. Baina naturak honelako dohainik eman ez zienak, euren
 kabuz bizi ezin zutenak eta guri onurarik ere, zeinaren ordainez haien
 espezieari jana eta segurantza eskainiko genien, eman ezin zigutenak,
 haiek denak, bistan da, besteen harrapakin eta mozkin gelditu ziren,
 euren moztasun fatalek eragotziak, naturak espezie hura akabura
 eroan arte.

Baina ez Zentaurorik izan zen, ez natura bikoitzeko eta gor-
 putz bikoitzekorik izan daiteke inoiz, lohadar heterogeneoz osaturik,
 enda bietatik jaio eta ahalmenak orekan egoteko moduan. Hau buru-
 rik kamutsenak ere uler dezake honakotik. Lehenik, zaldi suharra
 hirugarren urte inguruan heltzen da, ez, ostera, haurra, adin horretan
 ametsetan oraindik maiz bilatu ohi baitu edoski zuen bularra. Gero,
 zaldiarengan zahartzaroak indarra eta kemena makaltzen dituenan
 eta lohadar indargetuek, biziak ihes egitean, huts egiten diotenean,
 haurrentzat orduantxe hasten da, hain zuzen, gaztetasunaren lore
 aroa eta matrailak bizar xumez jazten zaizkie. Ez pentsa, beraz,
 Zentaurorik gizakia eta zaldien hazia nahastetik etor daitezkeenik,
 ez txakur oldartiz inguraturiko gorputz erdi itsastarreko Eszi-
 larik izan daitekeenik, ez atal elkargaitzez ikusten dugun beste antze-
 korik; atalok ez batera loratzen dira, ez batera sendotasuna hartzen,
 ez zahartzean batera uzten, ez Venus berarekin gartzen dira, ez
 ohituretan bat datoz, ez lohadarretan atsegin berdinak dituzte.

quippe uidere licet pinguescere saepe cicuta
 barbigeras pecudes, homini quae est acre uenenum. 900
 Flamma quidem <uero> cum corpora fulua leonum
 tam soleat torrere atque urere quam genus omne
 uisceris in terris quodcumque et sanguinis exstet,
 qui fieri potuit, triplici cum corpore ut una,
 prima leo, postrema draco, media ipsa Chimaera 905
 ore foras acrem flaret de corpore flammam?
 Quare etiam tellure noua caeloque recenti
 talia qui fingit potuisse animalia gigni,
 nixus in hoc uno nouitatis nomine inani,
 multa licet simili ratione effutiat ore, 910
 aurea tum dicat per terras flumina uulgo
 fluxisse et gemmis florere arbusta suesse
 aut hominem tanto membrorum esse impete natum,
 trans maria alta pedum nisus ut ponere posset
 et manibus totum circum se uertere caelum. 915
 Nam quod multa fuere in terris semina rerum
 tempore quo primum tellus animalia fudit,
 nil tamen est signi mixtas potuisse creari
 inter se pecudes compactaque membra animantum,
 propterea quia quae de terris nunc quoque abundant 920
 herbarum genera ac fruges arbustaque laeta
 non tamen inter se possunt complexa creari,
 sed res quaeque suo ritu procedit et omnes
 foedere naturae certo discrimina seruant.
 Et genus humanum multo fuit illud in aruis 925
 durius, ut decuit, tellus quod dura creasset,
 et maioribus et solidis magis ossibus intus
 fundatum, ualidis aptum per uiscera neruis,
 nec facile ex aestu nec frigore quod caperetur
 nec nouitate cibi nec labi corporis ulla. 930
 Multaque per caelum solis uoluentia lustra
 uolgiuago uitam tractabant more ferarum.
 Nec robustus erat curui moderator aratri
 quisquam, nec scibat ferro molirier arua
 nec noua defodere in terram uirgulta neque altis 935

Sarritan ikusten baita, izan ere, gizakientzat pozoin gogorra den asta-
 perrexilez bizardun aziendak gizendu egiten direla. Bestetik, berriz,
 garrak lehoin gorputz gorriska, lurlean den beste edozein haragi eta
 odol bezala, erre eta kiskaltzen duenez gero, nola zitekeen gorputz
 hirukoitzean bakarra zenak, burua lehoi, isatsa dragoi eta enborra
 Kimera edo Ahuntz zuenak berak, gorputzeko gar biziak ahotik jaur-
 titzea? Honela, lurra berria eta zerua oraintsukoa zela eta halako ani-
 maliak sortu ahal izan zirela uste duenak, munduaren gaztetasunaren
 arrazoi zuntzun horretan funtsaturik, nahi beste ergelkeria jaulki deza-
 ke, hala nola, lurlean zehar urrezko ibaiak zihoazela eta zuhaitzak dia-
 mantez loratu ohi zirela, edo halako luzerako gizakia jaio zela, ezen
 oinak itsasoaren hondoan jar eta eskuekin zeru osoa bere buruaren
 inguruan biraraz baitzezakeen. Lurrak lehenengoz animaliak sortu
 zituen garaian, zelaietan hazi ugari egoteak ez baitu esan nahi izaki
 mistoak sor, ez animalia ezberdinen atalak bil zitezkeenik, zeren
 oraintxe ere lurretik ugari datozenak, belar motak eta laboreak eta
 zuhaitz mardulak, ez baitago elkarren nahastean sortzerik, aitzitik zer
 bakoitzak bere erara dihardu eta denek eusten diote natur lege jakina-
 ren arabera diferentziari.

Eta lursailetan bizi zen giza enda hura gogorragoa zen, bidez-
 ko denez, lur gogorrak sortzen baitzuen, eta hezur handiago eta sen-
 doagoek sostengatzen zuten, erraiak nerbio indartsuz loturik, ez zitzen
 ez beroak, ez hotzak, ez janaren berritasunak, ez inolako gorputz ajek
 aisa harrapa. Ortzian zeharreko eguzkiaren itzul-ibil ugarietan, piztien
 era nahaskorrean arrastatu zuten bizia. Ez zegoen golde kurboaren
 eroale indartsurik, ez inork sororik burdinaz harrotzen zekien, ez sas-
 trakarik lurperatzen, ez zuhaitz garaien adarrak aihotzez inausten.

arboribus ueteres decidere falcibu ramos.
 Quod sol atque imbres dederant, quod terra creatat
 sponte sua, satis id placabat pectora donum.
 Glandiferas inter curabant corpora quercus
 plerumque; et quae nunc hiberno tempore cernis
 arbiter puniceo fieri matura colore, 940
 plurima tum tellus etiam maiora ferebat.
 Multaque praeterea nouitas tum florida mundi
 pabula dura tulit, miseris mortalibus ampla.
 At sedare sitim fluuii fontesque uocabant, 945
 ut nunc montibus e magnis decursus aquae
 claricitat late sitientia saecla ferarum.
 Denique nota uagis siluestria templa tenebant
 numpharum, quibus e scibant umore fluenta
 lubrica proluuie larga lauere umida saxa,
 umida saxa, super uiridi stillantia musco, 950
 et partim plano scatere atque erumpere campo.
 Necdum res igni scibant tractare neque uti
 pellibus et spoliis corpus uestire ferarum,
 sed nemora atque cauos montis siluasque colebant 955
 et frutices inter condebant squalida membra
 uerbera uentorum uitare imbrisque coacti.
 Nec commune bonum poterant spectare neque ullis
 moribus inter se scibant nec legibus uti.
 Quod cuique obtulerat praedae fortuna, ferebat 960
 sponte sua sibi quisque ualere et uiuere doctus.
 Et Venus in siluis iungebat corpora amantum;
 conciliabat enim uel muta quamque cupido
 uel uiolenta uiri uis atque impensa libido
 uel pretium, glandes atque arbiter uel pira lecta. 965
 Et manuum mira freti uirtute pedumque
 consecrabantur siluestria saecla ferarum
 missilibus saxis et magno pondere clauae. 975
 Multaque uincebant, uitabant, pauca latebris;
 saetigerisque pares subus siluestria membra 968
 nuda dabant terrae nocturno tempore capti.
 circum se foliis ac frondibus inuoluentes. 970
 Nec plagore diem magno solemque per agros

Eguzkiak eta euriak ematen zuena, lurrak bere kabuz sortzen zuena
 bazen nahikoa dohain, haien bihotzak asetzeko. Gehienik, ezkurrez
 beteriko arteetatik elikatzen ziren; eta neguan heltzen eta purpura
 kolorez tindatzen ikusten dituzun gurbitzak orduan askoz gehiago eta
 handiagoak ematen zituen lurrak. Munduaren gaztetasun loretsuak
 bazka sendo asko sortu zuen orduan, hilkor errukarientzat nahikoa.
 Errekek eta iturriek egarria asetzerat deitzen zuten, orain mendi garaie-
 tatik behera datorren urak pizti aldra egartsuei urrundik garbiro hots
 egiten dienez. Azkenik, euren hara-honetan aurkituriko harpe basatie-
 tara jotzen zuten, haitz hezeak urlaster ugariz garbitzen zituzten latsak
 haietatik lerratzen zirela jakinik, haitz hezeak, goroldio berdez tanta-
 ka, eta zelai lauan sortzen eta erioten ziren iturrietara. Oraindik ez
 zekiten sua tratatzen, ez larruaz baliatzen, ez piztien hondakinez gor-
 putza jazten, aitzitik basoetan eta mendiko haitzuloetan eta oihanetan
 bizi ziren eta euren gorputz mengelak adar artean babesten zituzten,
 haize eta euri erauntsiek ezkutatzera behartzen zituztenean. Ez ziren
 on komunari begiratzeko gauza eta ez zekiten elkarren artean ezein
 ohituraz edo legez gobernatzen. Bakoitzak fortunak jarritako ehizakia
 jango zuen, norbere kabuz eta gogora moldatzen eta bizitzen ikasita.
 Eta Venusek maitaleen gorputzak oihanetan biltzen zituen; elkarren-
 ganako irritsa nagusitzen baitzen, edo gizonezkoaren indarra eta grina
 bortitza, edo saria, ezkurak eta gurbitzak edo madari hautatuak.
 Eskuen eta zangoen indar harrigarriaz fidaturik, basapizti aldren atze-
 tik jotzen zuten, harrika eta mazo astunez joka. Asko harrapatzen
 zituzten, nahiz eta batzuegandik gordelekuetan ezkutatzen ziren.
 Basurde zurdatsuen antzeko, euren basa gorputz biluziak lurtean etza-
 ten zituzten, gaua gaineratzean, adarrez eta orbelez baturik. Baina
 gaez ez ziren hara-hona deihadar handian ibiltzen, ikaraturik, eguna-

quaerebant pauidi palantes noctis in umbris,
 sed taciti respectabant somnoque sepulti,
 dum rosea face sol inferret lumina caelo;
 a paruis quod enim consuerant cernere semper
 alterno tenebras et lucem tempore gigni,
 non erat ut fieri posset mirarie umquam
 nec diffidere ne terras aeterna teneret
 nox in perpetuum detracto lumine solis.
 Sed magis illud erat curae, quod saecula ferarum
 infestam miseris faciebant saepe quietem;
 eiectique domo fugiebant saxea tecta
 spumigeri suis aduentu ualidique leonis,
 atque intempesta cedebant nocte pauentes
 hospitibus saeuis instrata cubilia fronde.

Nec nimio tum plus quam nunc mortalia saecula
 dulcia linquebant lamentis lumina uitae.
 Vnus enim tum quisque magis deprensus eorum
 pabula uiua feris praebebat, dentibus haustus,
 et nemora ac montis gemitu siluasque replebat
 uiua uidens uiuo sepeliri uiscera busto.
 At quos effugium seruarat corpore adeso,
 posterius tremulas super ulcera taetra tenentes
 palmas horrifera accibant uocibus Orcum,
 donique eos uita priuarant uermina saeua
 expertis opis, ignaros quid uolnera uellent.
 At non multa uirum sub signis milia ducta
 una dies dabat exitio nec turbida ponti
 aequora lidebant nauis ad saxa uirosque.
 Sed temere incassum frustra mare saepe coortum
 saeuibat leuiterque minas ponebat inanis,
 nec poterat quemquam placidi pellacia ponti
 subdola pellicere in fraudem ridentibus undis:
 improba nauigii ratio tum caeca iacebat.
 Tum penuria deinde cibi languentia leto
 membra dabat, contra nunc rerum copia mersat.
 Illi imprudentes ipsi sibi saepe uenenum
 uergebant, nunc dant <aliis> sollertius ipsi.

ri eta eguzkiari deika, aitzitik, isilik eta lotan ehortzirik, eguzkiak bere
 arrosa aurpegiz ortzia argizta zezan itxaroten zuten; umetatik argi-ilu-
 nak beti txandaka ikusten ohituak zirenez, ez zegoen hartaz harritu
 beharrik, ez beldurtu beharrik, gau eternoak lurra estali eta eguzkia-
 ren argia betiko kenduko ote zien. Ardura areago zen piztien erasoek
 sarritan gizarajoen atsedena arriskutsu egiten zutela; eta etxetik jaur-
 tirik, haitzezko harpeetara ihes egiten zuten, basurde lerdetsuaren edo
 lehoi indartsuaren etorreran, eta gauerdian, izuturik, ostalari ankerroi
 uzten zizkieten orbelezko etzalekuak.

Eta hilkorrek, ez orain baino gehiago orduan ere, auhenka
 uzten zuten biziaren argi gozoa. Baten bat, noski, piztien harrapakin,
 maizago izango zen haien bazka bizi, hagin artean zehatua, eta baso-
 ak eta mendiak eta oihanak auhenez beteko zituen, bere errai biziak
 hilobi bizian ehortzen ikusiz. Eta ihesean, gorputza erdi janda, salba-
 tzen zirenek gero, esku dardartiekin zauri izugarriak igurtziz, ikaraga-
 rrizko oihuekin Orkori deitzen zioten, harik eta, laguntzarik gabe,
 oinaze zorrotzek bizia kendu arte, zauri haiiek zer behar zuten ez zeki-
 tela. Ostera, egun bakarrak ez zituen milaka gizon, banderapean era-
 manak, heriotzaratzen, ez itsasoko ur nahasiek ere untiak eta gizonak
 haitzen kontra apurtzen. Aitzitik, ordea, itsasoa alferrik haserretzen
 zen, alferrik astindurik, eta astiro-astiro mehatxu hutsalei lagatzen
 zien, eta itsaso jabalaren lausengu traidoreak ezin zuen inor erakarri
 bere uhin irrigileen engainura: orduan itsasgintza negargarria ezeza-
 gun zetzan. Orduan janaren urritasunak hilarazten zituen gorputzatal
 makalduak, orain, ostera, ugaritasunak akabatzen. Sarritan, ezjakine-
 an, pozoina isurtzen zioten elkarri, orain berriz, ikasiago, beste
 batzuei damaiete.

Inde casas postquam ac pellis ignemque pararunt,
et mulier coniuncta uiro concessit in unum

* * *

cognita sunt, prolemque ex se uidere creatam
tum genus humanum primum mollescere coepit.
Ignis enim curauit ut alsia corpora frigus
non ita iam possent caeli sub tegmine ferre,
et Venus imminuit uiris puerique parentum
blanditiis facile ingenium fregere superbum.

1015

Tunc et amicitiam coeperunt iungere auentes
finitimi inter se nec laedere nec uiolari,
et pueros commendarunt muliebrique saeculum,
uocibus et gestu cum balbe significarent
imbecillorum esse aequum misererier omnis.
Nec tamen omnimodis poterat concordia gigni,
sed bonaa magnaue pars seruabat foedera caste;
aut genus humanum iam tum foret omne peremptum
nec potuisset adhuc perducere saecula propago.

1020

1025

At uarios linguae sonitus natura subegit
mittere et utilitas expressit nomina rerum,
non alia longe ratione atque ipsa uidetur
protrahere ad gestum pueros infantia linguae,
cum facit ut digito quae sint praesentia monstrent.
Sentit enim uim quisque suam quod possit abuti:
cornua nata prius uitulo quam frontibus extent,
illis iratus petit atque infestus inurget.
At catuli pantherarum scymnique leonum
unguibus ac pedibus iam tum morsuque repugnant,
uix etiam cum sunt dentes unguisque creati.
Alituum porro genus alis omne uidemus
fidere et a pennis tremulum petere auxiliatum.

1030

1035

1040

Proinde putare aliquem tum nomina distribuisset
rebus et inde homines didicisset uocabula prima,
desiperest. Nam cur hic posset cuncta notare

Gero, bordak eta larruak eta sua atondu zutenean, eta emaku-
mea, gizonaren lagun, bakarrari eman zitzaionean

* * *

[[ezkon-legeak]] ezagutu zituztenean, eta seme-alabak euren-
gandik sortuta ikusi zituztenean, giza enda orduantxe hasi zen lehe-
nengoz gizakortzen. Suak egin baitzuen haien gorputz hotzakilek ez
zezaten ortzipean hotzik jasan, Venusek ere indarra ematu zuen eta
umeen losintzek aisa makurtu zuten gurasoen jenio burgoia. Orduan,
elkarren auzo, adiskidantza egiten eta minik ez hartzen ez ezartzen
hasi ziren, eta umeak eta emakumeak elkarren esku jarri zituzten,
euren zakarrean hitz eta keinuz erakutsiz bidezko zela denak ahulez
errukitzea. Hala ere, gogobatasunak ez zeukan era guztietakoa izate-
rik, baina zati on eta handi batek itunak zintzo betetzen zituen; beste-
la, gizateria orduan bertan desegingo zen eta ondorengoek ezin izan-
go zuten ugaltu.

Baina naturak hizkuntzaren hots ezberdinak sortarazi zituen eta
premiak gauzen izenak adierazi zituen, ez beste arrazoi bategatik nola
berbetan ez dakien haurra keinuz baliatzen den eta aurreko gauzak
hatzez seinalatzen dituen. Bakoitza ohartzen baita bere indarra nola
erabili behar duen: txahalaren bekokian adarrak agertu aurretik, eure-
kin jotzen eta erasotzen saiatzen da, haserretzean. Eta panterakumeak
eta lehoikumeak erpeka eta haginka defendatzen dira, kasik haginik
eta erperik irten aurretik. Hegazti mota guztiak ere hor ikusten ditugu
hegoekin fidatzen eta lumei laguntza oraindik dudazkoa eskatzen.
Horrela, norbaitek orduan gauzei izenak ipini zizkiela eta lehen hitzak
gizakiek hortik ikasi zituztela pentsatzea zorakeria da. Zeren, norbait
hura gauza guztiak euron hotsekin izendatzeko eta hizkuntzako soinu

uocibus et uarios sonitus emittere linguae,
 tempore eodem alii facere id non quisse putentur? 1045
 Praeterea si non alii quoque uocibus usi
 inter se fuerant, unde insita notities est
 utilitatis et unde data est huic prima potestas,
 quid uellet facere ut sciret animoque uideret?
 Cogere item pluris unus uictosque domare 1050
 non poterat, rerum ut perdiscere nomina uellent.
 Nec ratione docere ulla suadereque surdis,
 quid sit opus facto, facilest: neque enim paterentur
 nec ratione ulla sibi ferrent amplius auris
 uocis inauditos sonitus obtundere frustra. 1055
 Postremo quid in hac mirabile tantoperest re,
 si genus humanum, cui uox et lingua uigeret,
 pro uario sensu uaria res uoce notaret?
 Cum pecudes mutae, cum denique saecula ferarum
 dissimilis soleant uoces uariasque ciere, 1060
 cum metus aut dolor est et cum iam gaudia gliscunt.
 Quippe etenim licet id rebus cognoscere apertis.
 Inritata canum cum primum magna Molossum
 mollia ricta fremunt duros nudantia dentes,
 longe alio sonitu rabies <re> stricta minatur, 1065
 et cum iam latrant et uocibus omnia complent;
 at catulos blande cum lingua lambere temptant,
 aut ubi eos iactant pedibus morsuque petentes
 suspensis teneros imitantur dentibus haustus,
 longe alio pacto gannitu uocis adulant, 1070
 et cum deserti baubantur in aedibus aut cum
 plorantis fugiunt summisso corpore plagas.
 Denique non hinnitus item differre uidetur,
 inter equas ubi equus florenti aetate iuuenus
 pinnigeri saeuit calcaribus ictus amoris 1075
 et fremitum patulis sub naribus edit ad arma,
 et cum sic alias concussis artibus hinnit?
 Postremo genus alituum uariaeque uolucres,
 accipitres atque ossifragae mergique marinis
 fluctibus in salso uictum uitamque petentes, 1080
 longe alias alio iaciunt in tempore uoces,

ezberdinak emititzeko gauza izan bazen, zergatik pentsatu behar da
 besteek ezin izan zutela aldi berean hori bera egin? Bestalde, besteek
 euren artean hots horiek erabili ez balituzte, nondik etorri zitzaien
 euren balioaren ezaguera, eta, lehenengoari nondik eman zitzaion zer
 egin nahi zuen jakiteko eta bere gogoan aurreikusteko ahalmena?
 Bakarrak ezin zuen hainbeste lagun gauzen izenak ikasi gura izatera
 behartu eta, menperaturik, makurrarazi. Eta erraza ere ez da gorrei
 behar dena irakastea eta pertsuaditzea: ezingo bailukete jasan, ez inola
 ere eraman ahalko, belarriak luzaroago kolpatzerik inoiz entzun gabe-
 ko hitzen soinu alferrekoz. Azkenik, hainbesteko miraria al da gizate-
 riak, hotsaren eta hizkuntzaren jabe, sentipen ezberdinen arabera, gau-
 zak hots ezberdinez izendatzea? Azienda mutuek ere, baita basapiz-
 tiek ere, hots ezberdinak eta askotarikoak jaulki ohi dituzte, beldurrak
 ala minak ala pozak jotzen dituenean. Hau guztiau gertakari nabarie-
 tan ikustekoa da. Txakur Molosoen ezpain handi eta malguak, hase-
 rretzean, hagin sendoak urrumaka erakusten dituztenean, haien amo-
 rruak oso soinu ezberdinez mehatxu egiten du, inguruak zaunka
 hotsez betetzen dituztenaren aldean; eta mihi bigunez umeak mihiz-
 katu nahi dituztenean, eta hankekin hara-hona jaurtiz eta haginka egi-
 teko mehatxuz, irents plantak, haginik estutu barik, samurki egiten
 dizkietenean, haien marmar ferekatiak oso ezberdinak dira etxean
 bakarrik uzten dituzteneko zaunken aldean, edo, gorputza tatarrez,
 makiladetatik ihesean daramatzaten auhenen aldean. Ez al zaizkizu,
 halaber, irrintzi ezberdinak iruditzen, lore adinera hel berri den zaldia,
 maitasun hegodunaren ezproiak sastaturik, behor artean berotzen
 denean eta, sudurrak zabal-zabalik, armetara orro egiten duenean, edo
 beste zerbaitegatik, lohadarrak dardaran, irrintzia jaurtitzen duenean?
 Azkenik, hegazti eta txori koloretsuen endak, gabiraiek, ugatzek eta

et quom de uictu certant praedaque repugnant;
et partim mutant cum tempestatibus una
raucisonos cantus, cornicum ut saecla uetusta
coruorumque gregis ubi aquam dicuntur et imbris
poscere et interdum uentos aurasque uocare. 1085
Ergo si uarii sensus animalia cogunt,
muta tamen cum sint, uarias emittere uoces,
quanto mortalis magis aecumst tum potuisse
dissimilis alia atque alia res uoce notare! 1090

Illud in his rebus tacitus ne forte requiras,
fulmen detulit in terram mortalibus ignem
primitus, inde omnis flammaram diditur ardor;
multa uidemus enim caelestibus incita flammis
fulgere, cum caeli donauit plaga uapore. 1095
Et ramosa tamen cum uentis pulsa uacillans
aestuat in ramos incumbens arboris arbor,
exprimitur ualidis extritus uiribus ignis,
emicat interdum flammai feruidus ardor,
mutua dum inter se rami stirpesque teruntur. 1100
Quorum utrumque dedisse potest mortalibus ignem.
Inde cibum quoquere ac flammae mollire uapore
sol docuit, quoniam mitescere multa uidebant
uerberibus radiorum atque aestu uicta per agros.

Inque dies magis hi uictum uitamque priorem
commutare nouis monstrabant rebus et igni,
ingenio qui praestabant et corde uigebant. 1105
Condere coeperunt urbis arcemque locare
praesidium reges ipsi sibi per fugiumque,
et pecus atque agros diuisere atque dedere 1110
pro facie cuiusque et uiribus ingenioque;
nam facies multum ualuit uiresque uigebant.
Posterius res inuestast aurumque repertum,
quod facile et ualidis et pulchris dempsit honorem;
diuitoris enim sectam plerumque secuntur 1115
quam lubet et fortes et pulchro corpore creti.
Quod si quis uera uitam ratione gubernet,

itsas uhin gazietañ jan eta bizi bila diharduten uherroiek, beste noiz-
nahai oso hots bestelakoak jaulkitzen dituzte, janagatik burrukan eta
harrapakiagatik teman dabiltzanaren aldean; beste batzuek, sasoiaren
arabera, euren ahots erlatsaren kantuak aldatu egiten dituzte, halanola
bele txikien enda zaharrak edo bele aldreñ ura eta euriak eskatzen
omen edo haizeak eta ekaitza iragartzen omen dutenean. Sentipen
diferenteek, beraz, animaliei, mutuak izan arren, hots ezberdinak igo-
rrazten badizkiete, zer bidezkoagorik, orduko hilkorrek gauza
ezberdinak hitz ezberdinez izendatu ahal izana baino!

Honetan, isilean galdezka ari ez zaitezten, hilkorrentzako lehen
sua oinaztuak lurreratu zuen eta handik zabaldu zen suaren goritasun
guztia; gauza asko dakusgu, izan ere, gar zerutarrek eraginda suhar-
tzen, oinaztuak bere beroa eman ondoren. Zuhaitz hostotsu bat, oste-
ra, haizearen sakadaz balantzaka, astitzen eta beste zuhaitz baten ada-
rren gainera etzaten denean, kolpearen indarrak barruko sua ateratzen
du, eta batzuetan garraren distira bizia lehertzen da, adarrek eta enbo-
rrek elkar igurzten duten bitartean. Bi hauetariko edozeinek eman zie-
zaiekeen sua hilkorrei. Gero eguzkiaren beroak irakatsi zien jana
egosten eta garraren beroan biguntzen, bazterretan hainbat frutu hel-
tzen ikusten baitzuten, izpien ukaldien eta beroaren mende.

Hala, sua eta asmakuntza berriak bide, buruz eta bihotzez gai-
lentzen zirenek arteko bizimodua egunez egun nola hobetu erakusten
zuten. Erregeak hiriak fundatzen eta babes eta abaro izango zitzaiz-
kien gotorlekuak ezartzen hasi ziren eta abereak eta lurak banatu
zituzten, bakoitzaren edertasun, indar eta talentuaren arabera; ederrak
balio handia eta indarrak ospea baitzeukan. Gero jabegoa asmatu eta
urrea aurkitu zuten, zeinak ederrari eta indarrari aisa kendu baitzien
ohorea; indartsuak eta gorputz ederrekoak gehienean aberatsa-
goen segizioan sartzen baitira. Nahiz eta, egiazko doktrinaren arabera

diuitiae grandes homini sunt uiuere parce
 aequo animo; neque enim est umquam penuria parui.
 At claros homines uoluerunt se atque potentes, 1120
 ut fundamento stabili fortuna maneret
 et placidam possent opulenti degere uitam,
 nequiquam, quoniam ad summum succedere honorem
 certantes iter infestum fecere uiui,
 et tamen e summo, quasi fulmen, deicit ictos 1125
 inuidia interdum contemptim in Tartara taetra,
 inuidia quoniam, ceu fulmine, summa uaporant 1131
 plerumque et quae sunt aliis magis edita cumque; 1132
 ut satius multo iam sit parere quietum 1127
 quam regere imperio res uelle et regna tenere.
 Proinde sine incassum defessi sanguine sudent,
 angustum per iter luctantes ambitionis; 1130
 quandoquidem sapiunt alieno ex ore petuntque 1133
 res ex auditis potius quam sensibus ipsis,
 nec magis id nunc est neque erit mox quam fuit ante. 1135

Ergo regibus occisis subuersa iacebat
 pristina maiestas soliorum et scepra suberba,
 et capitis summi praeclarum insigne cruentum
 sub pedibus uulgi magnum lugebat honorem;
 nam cupide conculcatur nimis ante metutum. 1140
 Res itaque ad summam faecem turbasque redibat,
 imperium sibi cum ac summatum quisque petebat.
 Inde magistratum partim docuere creare
 iuraque constituere, ut uellent legibus uti.
 Nam genus humanum, defessum ui colere aeuom,
 ex inimicitiis languebat; quo magis ipsum 1145
 sponte sua cecidit sub leges artaque iura.
 Acrius ex ira quod enim se quisque parabat
 ulcisci quam nunc concessumst legibus aequis,
 hanc ob rem est homines pertaesum ui colere aeuom. 1150
 Inde metus maculat poenarum praemia uitae.
 Circumretit enim uis atque iniuria quemque
 atque, unde exortast, ad eum plerumque reuertit,
 nec facilest placidam ac pacatam degere uitam

jokatzera, gizakien aberastasun nagusia neurrian eta aldarte berdinsuan bizitzea litzatekeen; eza inoiz ez baita lotsagarri. Baina gizakiek ospetsu eta ahaltu egin nahi izan zuten, fortunak oinarri tinkoan iraun zezan eta eurak ugaritasunean ederki bizi ahal zitezen, alferrik ordea, ohorearen gailurra harrapatzeko borrokan, bidea arriskuz bete baitzuten; eta, gailurra jota ere, bekaitzak, oinaztuak bezala, zart eraisten eta Tartaro beldurgarrira lotsagarriro jaurtitzen zituen, zeren bekaitzak, oinaztuak bezala, gailurrak eta besteen gainetik goratzen den zernahi gogozago kiskaltzen baitu; lasai obeditzea askoz hobea da, beraz, inperioa gobernatu eta aginteaz jabetu guran ibiltzea baino. Utz, bada, alferrik nekaturik, odolez izerdizta daitezen, anbizioaren bide estuko deman; inoren ahotik areago dastatzen eta entzuketik areago gidatzen baitira euren sentieratik baino, eta hau honelaxe da gaur eta izango, lehen izan zen bezala.

Honela, erregeak erahilik, tronuen lehen maiestatea eta zetro harroak lurjota zeutzan eta goren buruaren intsignia distiratsuak negar zegion populuairean oinpean odoldurik zekusan ohore handiari; lehen beldur izan zaiona gogoz zapaltzen baita. Horrela gizartea beheerago hondarrera eta jendailara itzuli zen eta bakoitzak beretzat nahi zuen aginpidea eta goren postua. Orduan batzuek magistratuak sortzea eta zuzenbidea eraikitzea bultzatu zuten, legepean ibiltzea hauta zezaten. Gizateria, indarkerian bizitzen nekaturik, etsaigoetan higitzen ari baitzen; horregatik hainbat gehiago makurtu zen bere kabuz legeetara eta araubide estuetara. Izan ere, bakoitza bere haserrean oraingo lege zuzenek uzten duten baino zorrozkiago mendekatzeko prestatzen zen eta gizakiak horrexegatik higuindu ziren bizimodua indarkerian eroatzen. Harrezkero zigorren beldurrak bizitzaren alde onak hondatzen

qui uiolat factis communia foedera pacis.
Etsi fallit enim diuom genus humanumque,
perpetuo tamen id fore clam diffidere debet;
quippe ubi se multi per somnia saepe loquentes
aut morbo delirantes protraxe ferantur
et celata <acta> in medium et peccata dedisse.

Nunc quae causa deum per magnas numina gentis
peruolgarit et ararum compleuerit urbis
susciendaque curarit sollemnia sacra,
quae nunc in magnis florent sacra rebus locisque,
unde etiam nunc est mortalibus insitus horror
qui delubra deum noua toto suscitatur orbi
terrarum et festis cogit celebrare diebus,
non ita difficilest rationem reddere uerbis.
Quippe etenim iam tum diuom mortalia saecula
egregias animo facies uigilante uidebant
et magis in somnis mirando corporis auctu.
His igitur sensum tribuebant propterea quod
membra mouere uidebantur uocesque superbas
mittere pro facie praeclara et uiribus amplis.
Aeternamque dabant uitam, quia semper eorum
supeditabatur facies et forma manebat,
et tamen omnino quod tantis uiribus auctos
non temere ulla ui conuinci posse putabant.
Fortunisque ideo longe praestare putabant.
quod mortis timor haud quemquam uexaret eorum,
et simul in somnis quia multa et mira uidebant
efficere et nullum capere ipsos inde laborem.
Praeterea caeli rationes ordine certo
et uaria annorum cernebant tempora uerti
nec poterant quibus id fieret cognoscere causas:
ergo perfugium sibi habebant omnia diuis
tradere et illorum nutu facere omnia flecti.
In caeloque deum sedes et templa locarunt,
per caelum uolui quia sol et luna uidetur,
luna dies et nox et noctis signa seuera
noctiuagaeque faces caeli flammaeque uolantes,

1155

1160

1165

1170

1175

1180

1185

1190

ditu. Zeren indarrak eta zernahikeriak bere sarepean harrapatzen baitu norbera ere, eta norengandik sortua den, huraxe jotzen du gehiengan, eta bere egiteekin bakearen arau komunak bortxatzen dituenak ez dauka erraz bizitza gozoa eta lasaia eroaten. Zeren, jainkoak eta gizakiak engaina balitza ere, bere baitan beti horrela izango denik ezin du ziur egon; eta asko izan ei dira, ametsetan hitz eginez edo gaixoaldian deliratuz, gordean zeuzkaten hobenak kanporatu eta jakinarazi dituztenak.

Eta orain, jainkoen ideia nazio handietan zergatik hedatu zen eta hiriak zergatik alderez bete ziren eta gaur egun okasio handietan eta leku ospetsuetan elizkizun solemneak zergatik ezarriak diren, oraindik ere zertatik erroturik dagoen hilkorrengan beldurra, zeinak lurbira osoan zehar jainkoentzako santutegi berriak eraikiarazten eta jaiegunetan bisitarazten dizkieten, horren guztiaren arrazoia ematea ez da zaila. Izan ere, gizaki hilkorrek, nahiz itzarririk egon, dagoeneko orduan ere ikusten zituzten euren gogoan jainkoen irudi bikainak, batez ere ametsetan gorputz itzela zeukatenak. Hauei, berriz, sentimena erantsi zieten, lohadarrak mugitzen bide zituzten eta hitz gurenak jaulkitzen, euren aurpegi ederraren eta indar izugarriaren araberrakoak. Eta bizitza eternala eransten zieten, haien irudiek beti jarraitzen baitzuten eta formak berdin irauten baitzuen, eta batez ere, hainbesteko indarrez hornituak zirela, beste ezein indarrek menperatu ezinenez jotzen baitzituzten. Zorionean ere askoz goragokotzat zeuzkaten, heriotzaren beldurrak ez zuelako haietako inor kezkatzen, baita ametsetan mirari asko egiten eta inolako nekerik ez jasaten ikusten zituztelako ere. Bestalde, zeruaren egitura ordena zehatzean eta urtaroz ezberdinen segida ikusten zuten eta ezin zuten asmatu zer kausek egiten zuten hura guztia. Beraz, irtenbide bakarra zen dena jainkoen esku uztea eta dena haien keinuz bira zedin egitea. Jainkoen egoitzak eta elizak zeruan jarri zituzten, eguzkia eta ilargia zeruan biraka ikusten direlako, ilargia, eguna eta gaua eta gaueko zeinu galantak, zeruko gau-zuzi deslariak eta gar hegalariak, hodeiak, eguzkia, euriak, elu-

nubila sol imbres nix uenti fulmina grando
et rapidi fremitus et murmura magna minarum.

O genus infelix humanum, talia diuis
cum tribuit facta atque iras adiunxit acerbas! 1195
Quanto tum gemitus ipsi sibi, quantaque nobis
uolnera, quas lacrimas peperere minoribu nostris!
Nec pietas ullast uelatum saepe uideri
uertier ad lapidem atque omnis accedere ad aras
nec procumbere humi prostratum et pandere palmas 1200
ante deum delubra nec aras sanguine multo
spargere quadrupedum nec uotis nectere uota,
sed mage pacata posse omnia mente tueri.
Nam cum suspicimus magni caelestia mundi 1205
templa super stellisque micantibus aethera fixum,
et uenit in mentem solis lunaeque uiarum,
tunc aliis oppressa malis in pectora cura
illa quoque expergefactum caput erigere inquit,
nequae forte deum nobis immensa potestas 1210
sit, uario motu quae candida sidera uerset:
temptat enim dubiam mentem rationis egestas,
ecquaenam fuerit mundi genitalis origo,
et simul ecquae sit finis, quoad moenia mundi
et taciti motus hunc possint ferre laborem, 1215
an diuinitus aeterna donata salute
perpetuo possint aeui labentia tractu
inmensi ualidas aeui contemnere uiris.
Praeterea cui non animus formidine diuum
contrahitur, cui non correpunt membra pauore,
fulminis horribili cum plaga torrida tellus 1220
contremit et magnum percurrunt murmura caelum?
Non populi gentesque tremunt, regesque superbi
corripiunt diuum percussi membra timore,
nequod ob admissum foede dictumue superbe
poenarum graue sit soluendi tempus adactum? 1225
Summa etiam cum uis uiolenti per mare uenti
induperatorem classis super aequora uerit
cum ualidis pariter legionibus atque elephantis,

rra, haizeak, tximistak, txingorra eta orroe bortitzak eta mehatxuzko marmar itzelak.

Oi, giza enda dohakabea, jainkoei halako egintzak erantsi eta haserre gubidagabeak esleitu zizkiena! Zenbat auhen eurentzat, zenbat gaitz guretzat, zenbat malko gure ondorengoentzat sortu zuten orduan! Pietatea ez da inola ere noiznahi, buru estalian, harri baterantz makur ikusia izatea, ez aldare guztietara hurreratzea, ez, lurrean ahozpez etzanik, eskuak santutegien aurrean zabaltzea, ez aldarea abereen odol ugariz bustitzea, areago gauza guztiak gogo barez hautematea baizik. Zeren, mundu galanteko tenplu zerutarrei eta izar distiratsuz jositako eterrari begira, eguzkiaren eta ilargiaren joan-etorriak zeukaten larritasun hura itzartzen eta burua jasotzen saiatzen da, ea ez ote dugun beharbada jainkoen ahalmen neurrigabea onartu behar, izar argiak mugimendu ezberdinez ibilarazten dituen. Arrazoi jakinik ezak gure gogo zalanzkorra tentatzen baitu eta galdearazten ea munduak sorrerarik izan zuen eta berdin amairik izango duen eta munduaren harresiek noiz arte eutsi ahalko dioten mugimendu isil honen nekeari, ala, jainkoek izate betikoa emanik, denboraren joate betikoan lerratzen eta aldi neurrigabearen indar bortitzei aurre egiten jarraitu ahalko ote duen. Gainera, nori ez dio jainkoen beldurak gogoa kikiltzen, nori ez zaizkio lohadarrak izuz gogortzen, oinaztuaren zartada ikaragarriak lur kiskalia dardaratzen duenean eta zeru zabala orroeka hasten denean? Ez al dira herriak eta jendea dardaratzen, errege gailenei ez al zaie gorputza jainkoen beldurrez zirraratzen, pentsatzean ez ote den euren egintza zantarrak eta berba harroak kitatzeko ordu larria iritsi? Eta haize bortitzaren goren indarrak itsas lautadan untzi-

non diuom pacem uotis adit ac prece quaesit
uentorum pauidus paces animasque secundas? 1230
Nequiquam, quoniam uiolento turbine saepe
correptus nilo fertur minus ad uada leti.
Usque adeo res humanas uis abdita quaedam
opterit et pulchros fascis saeuasque securis
proculcare ac ludibrio sibi habere uidetur. 1235
Denique sub pedibus tellus cum tota uacillat
concussaeque cadunt urbes dubiaeque minantur,
quid mirum si se temnut mortalia saecla
atque potestatis magnas mirasque relinquunt
in rebus uiris diuum, quae cuncta gubernent? 1240

Quod superest, <aes> atque aurum ferrumque repertumst
et simul argenti pondus plumbique potestas,
ignis ubi ingentis siluas ardore cremarat
montibus in magnis, seu caelo fulmine misso, 1245
siue quod inter se bellum siluestre gerentes
hostibus intulerant ignem formidinis ergo,
siue quod inducti terrae bonitate uolebant
pandere agros pinguis et pascua reddere rura,
siue feras interficere et ditescere praeda.
Nam fouea atque igni prius est uenarier ortum 1250
quam saepier plagis saltum canibusque ciere.
Quidquid id est, quacumque e causa flammeus ardor
horribili sonitu siluas exederat altis
a radicibus et terram percoxerat igni,
manabat uenis feruentibus in loca terrae 1255
concaua conueniens argenti riuus et auri,
aeris item et plumbi. Quae cum concreta uidebant
posterius claro in terra splendere colore,
tollebant nitido capti leuique lepore,
et simili formata uidebant esse figura 1260
atque lacunarum fuerant uestigia cuique.
Tum penetrabat eos posse haec liquefacta calore
quamlibet in formam et faciem decurrere rerum
et prorsum quamuis in acuta ac tenuia posse
mucronum duci fastigia procudendo, 1265

teria bateko almirantea, bere legio suhar eta elefanteekin batera, ekortzen duenean, ez al du jainkoen ongura bila jotzen eta, izaturik, haizeen bakea eta haizekirri aldekoa eskatzen? Alferrik, zeren sarritan, zirimola indartsuak arrastaturik, ezerk ez baitu salbatzen heriotzaren haitzak jotzetik. Indar ezkuturen batek era horretantxe txikitzen ditu giza asmoak eta badirudi gozatu egiten duela makila sorta ederrak eta aizkora ankerrak destainaz zanpatzen. Azkenik, norbere oinpean lur osoa dardaratzen eta hiriak jausten edo jaustear direnean, harritzekoa al da giza endak bere burua txikiestea eta dena gobernatzen duten jainkoen ahal handia eta indar txundigarria aitortzea?

Bestalde, brontzea, urrea eta burdina, baita zilar astuna eta berunaren ahalmena ere, suak mendi handietan oihan izugarriak erretzean aurkituak izan ziren, bai oinaztua zerutik jausita, bai gizonen, oihanean guduka, etsaiei beldurra sartzeko, sua jaurti zutelako, bai, lurraren ontasunak tiraturik, arlo emankorrak luberritu eta zelaiak belardi bihurtu, edo piztiak hil eta ehizakiz aberastu nahi zutelako. Lakioz eta suz ehizatzea oihana inguratzeko sareak eta txakur aldrak baino lehenagokoa baita. Nolanahi ere, zena zelako kausagatik, su gartsuak bere zarata beldurgarrian oihanak sustraien hondoraino irensten zituenean eta suak lurra egosi-egosi egiten zuenean, urre eta zilar, brontze eta berunezko uhola erioten zen zain gorietatik lurraren sakonguneetara. Gero, gogortzean, lurrean kolore argiz dizdiz egiten zutela ikusirik, jaso egiten zuten, haien xarma garden eta leunak lilluraturik, eta ikusten zuten bakoitza nolako zuloan egona, halakoxe forman moldatua zela. Orduan pentsatu zuten metal haiek, sutan urturik, gauzen edozein forma eta itxura har zezaketela eta, forjaturik, punta

ut sibi tela parent, siluasque ut caedere possint
 materiemque dolare at leuia radere tigna
 et terebrare etiam ac pertundere perque forare.
 Nec minus argento facere haec auroque parabant
 quam ualidi primum uiolentis uiribus aeris, 1270
 nequiquam, quoniam cedebat uicta potestas,
 nec poterant pariter durum sufferre laborem.
 Nam fuit in pretio magis <aes> aurumque iacebat
 propter inutilitatem hebeti mucrone retusum;
 nunc iacet aes, aurum in summum successit honorem. 1275
 Sic uolenda aetas commutat tempora rerum.
 Quod fuit in pretio, fit nullo denique honore;
 porro aliud succedit et <e> contemptibus exit
 inque dies magis adpetitur floretque repertum
 laudibus et miro est mortalis inter honore. 1280

Nunc tibi quo pacto ferri natura reperta
 sit facilest ipsi per te cognoscere, Memmi.
 Arma antiqua manus unguis dentesque fuerunt
 et lapides et item siluarum fragmina rami,
 et flamma atque ignes, postquam sunt cognita primum. 1285
 Posterius ferri uis est aerisque reperta.
 Et prior aeris erat quam ferri cognitus usus,
 quo facilis magis est natura et copia maior.
 Aere solum terrae tractabant, aereque belli
 miscebant fluctus et uolnera uasta serebant 1290
 et pecus atque agros adimebant: nam facile ollis
 omnia cedebant armatis nuda et inerma.
 Inde minutatim processit ferreus ensis
 uersaque in obprobrium species est falcis ahenae,
 et ferro coepere solum proscindere terrae 1295
 exequataque sunt creperi certamina belli.

Et primus est armatum in equi conscendere costas
 et moderarier hunc frenis dextraque uigere
 quam biiugo curru belli temptare pericla.
 Et biiugos prius est quam bis coniungere binos 1300
 et quam falciferos armatum escendere currus.

edo aho bihurtzeraino zorroz eta mehe zitezkeela, armaz hornitzeko
 eta basoak mozteko, zura arbastatzeko eta oholak karraskatzeko, leun-
 tzeko, zulatzeko, husteko eta perforatzeko. Lehenengotan lan haueta-
 rako, brontze indartsua eta gogorra bezala, urre-zilarrekin ere saiatu
 ziren, baina alferrik, ahalmen bentzutuak amore ematen baitzuen, eta
 ezin zioten, brontzeak bezala, hain lan gogorrari eutsi. Hala, brontzea
 askoz estimatuago zen eta urrea alferrekotzat arbuiaturik zetzan, bere
 punta zapal kamutsez; orain brontzea dago apal eta urreak goren esti-
 mua atzeman du. Honela denbora gurpilkorrak gauzen zoria aldatzen
 du; preziatua zenak orain ez dauka bat ere estimurik; beste gauza
 batek ordeztu du eta hau, arbuiotik irtenda, egunean baino egunean
 estimatuago da eta, behin aurkiturik, gorespenean loratzen da eta hil-
 korren artean aipu txundigarria dauka.

Orain burdinaren izaera nola aurkitu zuten zuk zeurez ere aisa
 jakin dezakezu, Memmio. Armarik antzinakoenak eskuak, atzazalak
 eta hortzak izan ziren, harriak eta baita zuhaitzen adar zatiak ere, eta
 garrak eta sua, ezagun egin zirenetik. Geroago burdinaren eta bron-
 tzearen indarra aurkitu zuten. Eta brontzearen erabilera burdinarena
 baino lehenago ezagutu zuten, berez moldagarriago eta ugariago zela-
 ko. Lurzorua brontzez lantzen zuten, brontzez irabiatzen zituzten
 gerra olatuak eta zauri itzelak ereiten, eta lursailak eta abereak euren-
 ganatzen, biluziek eta armagabeek aisa uzten baitzuten dena armadun
 haien esku. Gero astiro-astiro burdinazko ezpata agertu zen eta bron-
 tzezko aihotza izen txarrera jausi zen eta lurzorua burdinaz apurtzen
 hasi ziren eta gerra insegurreko burrukak berdindu egin ziren.

Eta zaldira armaturik igo eta berau bridaz gidatzea eta eskuinez
 burrukatzea lehenagokoa izan zen, zaldi biko gurdian gerraren arris-
 kuak tentatzea baino. Eta zaldi bikoa bi-bikoak eta igitaidun gurdieta-
 ko gerlariak baino lehenagokoa izan zen. Gero kartagotarrek elefante

Inde boues lucas turrato corpore, taetras,
 anguimanus, belli docuerunt uolnera Poeni
 sufferre et magnas Martis turbare cateruas
 Sic alid ex alio peperit discordia tristis, 1305
 horrible humanis quod gentibus esset in armis,
 inque dies belli terroribus addidit augmen.
 Temptarunt etiam tauros in moenere belli
 expertique sues saeuos sunt mittere in hostis.
 Et ualidos partim prae se misere leones 1310
 cum doctoribus armatis saeuisque magistris
 qui moderarier his possent uinclisque tenere,
 nequiquam, quoniam permixta caede calentes
 turbabant saeui nullo discrimine turmas,
 terrificas capitum quatientes undique cristas, 1315
 nec poterant equites fremitu perterrita equorum
 pectora mulcere et frenis conuertere in hostis.
 Inritata leae iaciebant corpora saltu
 undique et aduersum uenientibus ora petebant
 et nec opinantis a tergo deripiebant 1320
 deplexaeque dabant in terram uolnere uictos,
 morsibus adfixae ualidis atque unguibus uncis.
 lactabantque suos tauri pedibusque terebant
 et latera ac uentres hauribant supter equorum
 cornibus et terram minitanti mente ruebant. 1325
 Et ualidis socios caedebant dentibus apri
 tela infracta suo tingentes sanguine saeui,
 || in se fracta suo tingentes sanguine tela ||
 permixtasque dabant equitum peditumque ruinas.
 Nam transuersa feros exhibant dentis adactus 1330
 iumenta aut pedibus uentos erecta petebant,
 nequiquam, quoniam ab neruis succisa uideres
 concidere atque graui terram consternere casu.
 Siquos ante domi domitos satis esse putabant,
 efferuescere cernebant in rebus agundis 1335
 uolneribus clamore fuga terrore tumultu,
 nec poterant ullam partem reducere eorum;
 diffugiebat enim uarium genus omne ferarum;
 ut nunc saepe boues lucae ferro male mactae

bizkar dorredun, izugarri, suge-eskudunei, gerrako zauriak pairatzen eta Martitzen andana handiak asaldatzen irakatsi zieten. Hala, etsaigo tamalgarriak asmakari berriak sailean sortu zituen, gerran gizakientzat zein baino zein beldurgarriago izateko, eta egunero gehitzen zion zeezer gerraren lazturari.

Zezenak ere probatu zituzten gerrako zerbitzuan eta basurde ankerrak etsaien aurka bidaltzen ere saiatu ziren. Batzuek lehoi odol-zaleak ere bota zituzten aurretik hezle armatu eta irakasle zorrotzekin, haiek moderatu eta katepean edukiko zituztenekin, baina alferrik, zeren, sarraski nahasi hartan beroturik, tropak batere bereizpen gabe basaki asaldatzen zituzten, euren galpar beldurgarriak noranahi astinduz, eta zaldunek ezin zuten orroek iztuturiko zaldirik lasaitu ez bridaz etsaien aurka itzularazi. Lehoieme amorratuek gorputza betean noranahi saltatzen zuten, aurre egiten zietenen aurpegira oldartzen ziren edo ezustean atzetik harrapatzen zituzten eta heldu eta bertan lurreratzen zaurien mende, hagin indartsuak eta erpe makoak ezarritak. Zezenek euren aldekoak aireratzen eta hankaperatzen zituzten eta adarrak zaldien saihets eta sabeletan sartzen eta lurra mehatxuzko bekokiz azterkatzen. Basurdeen letagin bortitzek ere euren aldekoak txikitzen zituzten eta gorputzean sartzen zitzaizkien azkonak, euren odolez tindatuak, amorruez apurtu eta zaldizkoak zein oinezkoak berdin akabatzen zituzten. Zaldiek alboka ihes egiten baitzien piztien hagin amorratuei edo, hanka-goran, haizea ostikatzen zuten, alferrik, han ikusiko baitzenituen, belaunburuak apurtuta, lurjotzen eta jauskera astunean zorua estaltzen. Batzuen batzuek aurretik etxean nahikoa hezita zeuzkatela uste bazuten, burrukan bertan sumindu egiten zitzaizkien, zaurien, oihuen, hanka-jokoaren, izuaren, kalapitaren ondorioz, eta ez zegoen haietako bakarrik ere dominatzerik; pizti mota ezberdinak alde guztietarantz sakabanatzen ziren,

diffugiunt, fera facta suis cum multa dedere. 1340
 Si fuit ut facerent: sed uix adducor ut ante
 non quierint animo praesentire atque uidere
 quam commune malum fieret foedumque, futurum.
 Et magis id possis factum contendere in omni
 in uariis mundis uaria ratione creatis 1345
 quam certo atque uno terrarum quolibet orbi.
 Sed facere id non tam uincendi spe uoluerunt,
 quam dare quod gemerent hostes, ipsique perire,
 qui numero diffidebant armisque uacabant.

Nexilis ante fuit uestis quam textile tegmen. 1350
 Textile post ferrumst, quia ferro tela paratur,
 nec ratione alia possunt tam leuia gigni
 insilia ac fusi radii scapique sonantes.
 Et facere ante uiros lanam natura coegit
 quam muliebre genus (nam longe praestat in arte 1355
 et sollertius est multo genus omne uirile),
 agricolae donec uitio uertere seueri,
 ut muliebribus id manibus concedere uellent
 atque ipsi pariter durum sufferre laborem
 atque opere in duro durarent membra manusque. 1360

At specimen sationis et insitionis origo
 ipsa fuit rerum primum natura creatix,
 arboribus quoniam bacae glandesque caducae
 tempestiua dabant pullorum examina supter;
 unde etiam libitumst stirpis committere ramis 1365
 et noua defodere in terram uirgulta per agros.
 Inde aliam atque aliam culturam dulcis agelli
 temptabant fructusque feros mansuescere terra
 cernebant indulgendo blandeque colendo.
 Inque dies magis in montem succedere siluas 1370
 cogebant infraque locum concedere cultis,
 prata lacus riuos segetes uinetaque laeta
 collibus et campis ut haberent, atque olearum
 caerula distinguens inter plaga currere posset
 per tumulos et conuallis camposque profusa; 1375

gaur ere sarritan burdinak sastaturiko elefanteak noranahi zabaltzen direnez, euretarren artean triskantza galantak egin ondoren. Baldin benetan hori egin bazuten. Nekez sines dezaket aurrez ezin zutela kalkulatu nolako hondamen lazgarria gaineratuko zitzaizen denei. Hori unibertsoan, era anitzez sorturiko mundu anitzetako batean, gertatu dela pentsatzea bidezkoago duzu, dena delako lurbira jakin eta bakarreen baino. Baina hori egin nahi izan zuten, ez hainbeste irabazteko itxaropenez, etsaiei garraisibidea emateko baizik, nahizta eurak bertan hil, kopuruaz fidatzen ez zirelako edo armarik ez zeukatelako. Soineko txirikordatuak estalki ehoak baino aurreragokoak izan ziren. Ehunak burdinaren ondorengo dira, ehundegiak burdinaz egiten baitira, eta ez dago irazki-hariak, anezkak eta ardatz kantariak bezalako tresna hain xumeak beste inola egiterik. Eta naturak gizonezkoak andrezkoak baino lehenago pilatu zituen artilegintzan (gizon enda, oro har, askoz artosoago eta trebeago baita), nekazari lantsuek lotsaritzat hartu eta lan hura emakumei pozik utzi arte, ehuleek ere neke gogor bera jasan zezaten eta langintza zakarrean gorputza eta eskuak zail zitzaizen.

Baina, gauzen sortzaile den natura bera izan zen ereintzaren eta txertakuntzaren lehen adibide, haziek eta ezkur zaharrek ernamuin pilo berria ematen baitzuten zuhaitzaren orpoan; hortik bururatu zitzaizen adarretan menduak txertatzea eta zelaietan zehar hesi landareak sartzea. Gero euren lursail maitean laborantza berriak probatzen joan ziren eta ikusten nola basa fruituak gozotzen ziren, bigun eta laz-tanki tratatuz. Egunetik egunera basoei mendirantz eragiten zieten eta zelaiak laborantzarako utzarazten, belardi, urtegi, urmael, labore eta mahasti alaiak munoak eta zelaiak bete zitzaizen eta olibondo iladak, euren gris-urdin berezian, aldatz, ibar eta zelaietan zabal zitezen,

ut nunc esse uides uario distincta lepore
omnia, quae pomis intersita dulcibus ornant
arbustisque tenent felicibus opsita circum.

At liquidas auium uoces imitarier ore
ante fuit multo quam leuia carmina cantu
concelebrare homines possent aurisque iuuare. 1380
Et zephyri, caua per calamorum, sibila primum
agrestis docuere cauas inflare cicutas.
Inde minutatim dulcis didicere querellas,
tibia quas fundit digitis pulsata canentum, 1385
auiam per nemora ac siluas saltusque reperta,
per loca pastorum deserta atque otia dia.
[sic unumquicquid paulatim protrahit aetas
in medium, ratioque in luminis erigit oras.]
Haec animos ollis mulcebant atque iuuabant 1390
cum satiate cibi; nam tum sunt omnia cordi.
Saepe itaque inter se prostrati in gramine molli
propter aquae riuom sub ramis arboris altae
non magnis opibus iucunde corpora habebant,
praesertim cum tempestas ridebat et anni 1395
tempora pingebant uiridantis floribus herbas.
Tum ioca, tum sermo, tum dulces esse cachinni
consuerant; agrestis enim tum Musa uigebat.
Tum caput atque umeros plexis redimire coronis
floribus et foliis lasciuiam laeta monebat, 1400
atque extra numerum procedere membra mouentes
duriter et duro terram pede pellere matrem;
unde oriebantur risus dulcesque cachinni,
omnia quod noua tum magis haec et mira uigebant.
Et uigilantibus hinc aderant solacia somno, 1405
ducere multimodis uoces et flectere cantus
et supera calamos unco percurrere labro;
unde etiam uigiles nunc haec accepta tuentur
et numerum seruare genus didicere, neque hilo
maiores interea capiunt dulcedini fructum 1410
quam siluestre genus capiebat terrigenarum.
Nam quod adest praesto, nisi quid cognouimus ante

orain dakusun aniztasun xarmagarria bezalakoa dena, hain eder jantzia, fruta-arbolen lerroetan banaturik eta zuhaitz emankorrez hesiturik.

Gizakiek txorien txorrotzio gardena askoz lehenago imitatu zuten, bertso samurren kantuz belarriak gozaten ikasi baino. Eta, kainabera hutsetan zehar, zefiroaren txistuak irakatsi zuen lehenen xaramel hustuetatik putz egiten. Gero, astiro-astiro, kantarien hatzek jota-ko xirulak, baso eta oiha ezkutuetan, artzainen inguru bakartietan eta aisia jainkozkoetan aurkituak hedatzen zituen auhen xarmagarriak ikasi zituzten. Hauek denek haien gogoa liluratzen eta alaitzen zuten, nahikoa jandakoan; orduan dena baita hunkigarri. Eta sarritan, belar bigunean elkarrekin eserita, erreka ondoan, zuhaitz garai baten gerizpean, ugaritasun handirik gabe gozaten zituzten gorputzak, batez ere zeruak irribarre egiten zuenean eta urtaroez belar berdea lorez pintatzen zutenean. Orduan ziren txantxak, orduan solasak, orduan barre gozoak; orduan loratzen baitzen basa musa. Orduan dibertsio alaiak burua eta sorbaldak lorez eta hostoz ehotako girlandaz jatzeko eskatzen zien, gorputzadarrak konpasik gabe mugituz aurreratzeko eta oin astunez ama lurra astunki kolpatzeko; hortik barreak eta algara gozoak sortzen ziren, hau guztia hain berri eta miragarri baitzitzaien orduan. Eta, itzarrik, hona zer zuten loguraren alaigarri: era askotako ahotsak atera eta doinuak kantatzea eta ezpain estutuak xaramelean kurritzea; gauzainek oraintxe ere eusten diete ohitura hauei eta konpas motak eramaten ikasi dute, baina ez pentsa basa enda lurkume hark baino gozamen handiagoa hartzen dutenik. Zeren eskuar daukaguna, aurretik zeozer eztiagorik ezagutu ez badugu, lehenengotan laket bai-

suauius, in primis placet et pollere uidetur,
 posteriorque fere melior res illa reperta
 perdit et inmutat sensus ad pristina quaeque. 1415
 Sic odium coepit glandis, sic illa relicta
 strata cubilia sunt herbis et frondibus aucta.
 Pellis item cecidit uestis contempta ferinae;
 quam reor inuidia tali tunc esse repertam,
 ut letum insidiis qui gessit primus obiret, 1420
 et tamen inter eos distractam sanguine multo
 disperiisse neque in fructum conuertere quisse.
 Tunc igitur pelles, nunc aurum et purpura curis
 exercent hominum uitam belloque fatigant;
 quo magis in nobis, ut opinor, culpa resedit. 1425
 Frigus enim nudos sine pellibus excruciat
 terrigenas; at nos nil laedit uest carere
 purpurea atque auro signisque ingentibus apta,
 dum plebeia tamen sit quae defendere possit.
 Ergo hominum genus incassum frustra laborat 1430
 semper et <in> curis consumit inanibus aeuom,
 nimirum quia non cognouit quae sit habendi
 finit et omnino quoad crescat uera uoluptas;
 idque minutatim uitam prouexit in altum
 et belli magnos commouit funditus aestus. 1435

At uigiles mundi magnum uersatile templum
 sol et luna suo lustrantes lumine circum
 perdocuere homines annorum tempora uerti
 et certa ratione geri rem atque ordine certo.

Iam ualidis saepti degebant turribus aeuom 1440
 et diuisa colebatur discretaque tellus,
 tum mare ueliuolis florebat <nauibus altum>;
 auxilia ac socios iam pacto foedere habebant,
 carminibus cum res gestas coepere poetae
 tradere; nec multo priu sunt elementa reperta. 1445
 Propterea quid sit prius actum respicere aetas
 nostra nequit, nisi qua ratio uestigia monstrat.
 Nauigia atque agri culturas moenia leges

tzaigu eta nagusitzen bide baita, baina gero gauza hobeia aurkitzeak
 hura baztertu eta lehengoarekiko sentimena aldatu egiten du.
 Honelaxe hasi ziren ezkurri muzin egiten, honelaxe gelditu ziren ber-
 tan behera belarrez eta hostoz eginiko oheak. Pizti larruz eginiko soi-
 nekoa ere arbuaturik jausi zen, zeinak, asmatu berritan, hain bekaitz
 handia zabalduko zuen, ezen hura lehenen jantzi zuena ziur bainaz
 enboskadan hil zutela eta ez ziotela etekinik atera, harrapakin odol-
 tsua euren artean banatzeko urratuko baitzuten. Beraz, orduan larruak
 eta orain urreak eta purpurak giza bizitza antsiaz betetzen eta gerraz
 ahitzen dute; eta horretan gu errudunago garela uste dut. Zeren, larru-
 rik gabe, hotzak lurkume biluziak oinazetzen baitzuten; guri, oster, a,
 ez digu ezertan kalterik egiten urrez eta bordatu galantez lodituriko
 purpura-jantzirik ezak, babesgarri arrunt bat daukaguno. Giza enda,
 bada, alferrik eta hutsalki saiatzen da beti eta huskerietan xahutzen du
 bizitza, segurrenik ez dakielako non dagoen edukitzearen muga eta
 noraino haz daitekeen benetako gozamina; hauxe da bizitza astiro-
 astiro itsasora eroan eta gerraren zirimola bortitzak barrenetik atera
 dituen.

Baina munduko begiraleek, gaineko sapai handia argi eginez
 kurritzen duten eguzkiak eta ilargiak, gizakiei irakatsi zieten urtaroe-
 elkarr darraiotea eta gauza guztiak arrazoi jakinez eta ordena ziurrez
 gertatzen direla.

Dagoeneko dorre sendoen babesean bizi ziren eta lurra labo-
 rantzarako zatiturik eta banaturik zegoen, dagoeneko itsaso sakona
 belaontzi hegalariz loratua zen; dagoeneko bazituzten laguntzak eta
 lagunak itun eta hitzarmenei esker, poetak egindako balentriak kantuz
 ematen hasi zirenean; eta idaztea ez zuten asko lehenago asmatu.
 Horregatik gure aldiak ezin du aurretik zer gertatu den jakin, zentzu-
 nak erakusten dituen aztarrenez harago.

arma uias uestes <et> cetera de genere horum,
praemia, delicias quoque uitae funditus omnis,
carmina picturas, et daedala signa polita,
usus et impigrae simul experientia mentis
paulatim docuit pedetemptim progredientis.
Sic unumquicquid paulatim protrahit aetas
in medium ratioque in luminis erigit oras:
namque alid ex alio clarescere corde uidebant,
artibus ad summum donec uenere cacumen.

1450

1455

Itsasgintza eta lurlantza, gotorlekuak, legeak, armak, bideak, jantziak eta honelako beste enparauak, baita bizitzako atseginak eta luxu guzti-guztiak ere, poemak, pinturak eta artez landuriko irudiak, hauek denak apurka-apurka, urratsez urrats, erabilerak eta gogo ekilearen esperientziak irakatsi zituen. Honela denborak, astiro-astiro, gauza guztiak bistara ateratzen ditu eta arrazoiak argitan ipintzen; gauzak nola gogoan bata-bestearen atzean argitzen zitzaizkien ikusten baitzuten, trebetasunari esker goren tontorreraino iritsi arte.

LIBER SEXTUS

CAPITULA

50. QUI PROCURATIONEM DIS ATTRIBUIT MUNDI
SIBI IPSUM DE DIS IMMORTALIBUS
SOLLICITUDINES CONSTITUERE
96. DE TONITRU
160. DE FULGERE
204. IN NUBIBUS SEMINA IGNIS INESSE
219. DE FULMINE
225. IGNIS EX FULMINIS NATURA.
246. FULMINA IN CRASSIORIBUS NUBIBUS
ET ALTE GIGNI
285. DE TONITRIBUS ET TERRAE MOTU
357. AUTUMNO MAGIS FULMINA
ET TONITRUA FIERI
451. DE NUBIBUS
493. SPIRACULA MUNDI
495. DE IMBRIBUS
526. DE ARQUO
535. DE TERRAE MOTU
608. QUARE MARE MAIUS NON FIAT
639. DE AETNA
712. DE NILO FLUVIO

SEIGARREN LIBURUA

KAPITULUAK

50. JAINKOEI MUNDUAREN GOBERNUA ESLEITU
ZIONAK JAINKO HILEZKORREN ARDURA
BERE GAIN HARTU
96. TRUMOIAZ
160. OINAZTARGIAZ
204. HODEIETAN SU HAZIAK DAGOZELA
219. OINAZTUAZ
225. SUAREN ETA OINAZTUAREN IZAERA
246. OINAZTUAK HODEIRIK TRINKOENETAN ETA
GOIAN SORTZEN DIRELA
285. TRUMOIEZ ETA LURRIKARAZ
357. UDAZKENEAN OINAZTU ETA TRUMOI GEHIAGO
DAGOELA
451. HODEIEZ
493. MUNDUAREN ARNASBIDEAK
494. EURIEZ
526. OSTADARRAZ
535. LURRIKARAZ
608. ITSASOA ZERGATIK EZ DEN HANDIAGOTZEN
639. ETNAZ
712. NILO IBAIAZ

738. DE LACU AVERNI
749. CORNICIS ATHENIS AD AEDEM MINERVAE
NON ESSE
756. IN SYRIA QUADRIPEDES
840. CUR AQUA IN PUTEIS FRIGIDIOR SIT
AESTATE
848. DE FONTE AD HAMMONIS
879. IN AQUA TAEDAM ARDERE
890. DE FONTE ARADI IN MARE
906. DE LAPIDE MAGNETE
921. FLUERE AB OMNIBUS REBUS
936. RARAS RES OMNES ESSE
1090. PESTILENTIA UNDE CREATUR
1138. DE PESTILENTIA ATHENIENSIVM

738. ABERNOKO LAKUAZ
749. ATENASEN MINERBAREN TENPLU INGURUAN
BELERIK EZ DAGOELA
756. LAUHANKAKOAK SIRIAN
840. PUTZUETAKO URA UDAZKENEAN ZERGATIK
HOTZAGOA DEN
848. HAMMONEN ITURRIAZ
879. ZUZIA URETAN SUTAN
890. ITSASOKO ARADOSKO ITURRIAZ
906. HARRI MAGNETIKOAZ
921. GAUZA GUZTIETATIKO JARIOAZ
936. GAUZA GUZTIAK POROTSUAK DIRELA
1090. IZURRIA NONDIK DATORREN
1138. ATENASTARREN IZURRIAZ

LIBER SEXTUS

Primae frugiparos fetus mortalibus aegris
dididerunt quondam praeclaro nomine Athenae
et recreauerunt uitam legesque rogarunt,
et primae dederunt solacia dulcia uitae,
cum genuere uirum tali cum corde repertum, 5
omnia ueridico qui quondam ex ore profudit;
cuius et extincti propter diuina reperta
diuolgata uetus iam ad caelum gloria fertur.
Nam cum uidit hic ad uictum quae flagitat usus
omnia iam ferme mortalibus esse parata 10
et, proquam possent, uitam consistere tutam,
diuitiis homines et honore et laude potentis
adfluere atque bona gnatorum excellere fama,
nec minus esse domi cuiquam tamen anxia cordi,
atque animi ingratis uitam uexare <sine ulla> 15
pausa atque infestis cogi saeuire querellis,
intelligit ibi uitium uas efficere ipsum
omniaque illius uitio corrumpier intus
quae conlata foris et commoda cumque uenirent;
partim quod fluxum pertusumque esse uidebat, 20
ut nulla posset ratione explerier umquam;
partim quod taetro quasi conspurcare sapore
omnia cernebat, quaecumque receperat, intus.
Veridicis igitur purgauit pectora dictis
et finem statuit cupedinis atque timoris 25
exposuitque bonum summum quo tendimus omnes

SEIGARREN LIBURUA

Izen gureneko Atenasek eman zien lehenen hazi gari emaillea
hilkor gizajoei eta bizitza berritu eta legeak ezarri zituen eta berak
eman zizkien lehenen bizitzako kontsolapen gozoak, hain gizon
burutsu hura sortu zuenean, behinola bere aho egiazkotik jakinduria
dena hedatu zuena; hil eta gero ere, bere aurkikuntza jainkozkoak
bide, haren aintza, antzinatik zabaldua, zeruraino jasoan izan da.
Zeren, ikusi zuenean bizitzeko behar den ia guztia hilkorrei bertan
eskuratu zaiela eta bizitza, daitekeen neurrian, oinarri segurrean
datzala, gizakiak, aintzan eta ohoreetan ahaltsu, aberastasunez gai-
nezka zebiltzala eta seme-alaben izen onean gailentzen zirela eta,
hala ere, bakoitzak bere baitan bazeramala larritasun bat, bere gogo-
az bestera, bizitza etengabe alatzten eta auhen mingotsetan krudela-
razten ziona, orduan ulertu zuen gaitzaren ekarlea ontzia bera zela eta
beronen erruz usteltzen zela barruan kanpotik zetorkion dena, baita
ondasunak ere; batetik, pitzaturik eta apurturik ikusten zuelako, inola
ere ez betetzeko moduan; bestetik, barruan hartzen zuen guztia bere
zapora hinguinarriz kutsatzen zuela ikusten zuelako. Bere egiazko
hitzekin, beraz, bihotzak garbitu zituen eta handinahiari eta beldurra-
ri muga ezarri zien eta denok harantz jotzen dugun on gorena zer-
zen azaldu zuen eta bidea erakutsi, nondik hel gintezkeen bertara

quid foret, atque uiam monstrauit, tramite paruo
qua possemus ad id recto contendere cursu,
quidue mali foret in rebus mortalibu passim,
quod fieret naturali uiarieque uolaret 30
seu casu seu ui, quod sic natura parasset,
et quibus e portis occurri cuique deceret,
et genus humanum frustra plerumque probauit
uoluere curarum tristis in pectore fluctus.
Nam ueluti pueri trepidant atque omnia caecis 35
in tenebris metuunt sic nos in luce timemus
interdum, nilo quae sunt metuenda magis quam
quae pueri in tenebris pauitant finguntque futura.
Hunc igitur terrorem animi tenebrasque necessest
non radii solis nec lucida tela diei 40
discutiant, sed naturae species ratioque.
Quo magis inceptum pergam pertexere dictis.

Et quoniam docui mundi mortalia templa
esse <et> natio consistere corpore caelum,
et quaecumque in eo fiunt fierique necessest,
pleraque dissolui, quae restant percipe porro,
quandoquidem semel insignem conscendere currum 45

* * *

uentorum existant placentur <ut> omnia rursum

* * *

quae fuerint sint placato conuersa furore.
Cetera quae fieri in terris caeloque tuentur 50
mortales, pauidis cum pendent mentibu saepe,
et faciunt animos humilis formidine diuom
depressosque premunt ad terram propterea quod
ignorantia causarum conferre deorum
cogit ad imperium res et concedere regnum. 55
Quorum operum causas nulla ratione uidere
possunt ac fieri diuino numine rentur.

Nam bene qui didicere deos securum agere aeuom,
si tamen interea mirantur qua ratione

laburren eta zuzenen, eta gauza hilkorrak nolako gaitzez beterik dago-
zen edo gainera datozkien berez-berez, bai halabeharrez, bai nahitaez,
naturak halaxe erabaki duelako, eta zeintzuk atetatik irten behar den
bakoitzaren bila, eta gizakien golkoetan iraulka diharduten kezka-
olatu tristeak gehienetan alferrekoak direla frogatu zuen. Zeren, hau-
rrak ilunpe itsuan dardaritzen eta denaz izutzen direnez, gu argitan
horrelaxe beldurtzen baikaituzte sarri haurrek ilunetan beldur dieten
eta gertatzear direla uste duten gauzek.

Gogoaren beldur eta ilunpe hori uxatu egin behar dute, beraz,
ez eguzkiaren izpiek, ez egunaren gezi argiek, naturaren begiradak eta
arrazoiak baizik. Solasa areago behar dut, beraz, azkeneraino bilbatu.

Eta, munduko tenpluak hilkorrak direla eta zerua sorreradun
gorputzez egin dela irakatsi dudanez, eta bertan gertatzen eta gerta
beharra duen gehiena xehatu dudanez, entzun orain falta dena, behin
behintzat gurdi argitsura igo naizenez gero

* * *

haizeak zergatik abiatzen eta geratzen diren [[azalduko dut eta
nola]]

* * *

oldarrean zena baretzen den, sumina ematutakoan. Eta hilko-
rrek zeru-lurretan gertatzen dakusten gainerako guztia, sarritan euren
gogoak beldurretik zintzilik dauzkana eta golkoak jainkoen beldurrez
apaltzen eta lurraren kontra zapaltzen dizkiena; kausen ezjakintzak
natura jainkoen inperioan jartzera eta erreinua ematera eraman baitu.
Eta ondorioen kausarik inola ikusten ez dutenez gero, ahalmen dibi-
noak eginak direla uste dute.

Batzuetan, izan ere, jainkoek bizitza lasaia daramatela ikasi
dutenek, baldin, hala ere, harritzen badira gauzek nolako ordenan

quaeque geri possint, praesertim rebus in illis
quae supera caput aetheriis cernuntur in oris,
rursus in antiquas referuntur religiones
et dominos acris adsciscunt, omnia posse
quos miseri credunt, ignari quid queat esse,
quid nequeat, finita potestas denique cuique
quanam sit ratione atque alte terminus haerens;
quo magis errantes caeca ratione feruntur.
Quae nisi respuis ex animo longeque remittis
dis indigna putare alienaque pacis eorum,
delibata deum per te tibi numina sancta
saepe oberunt; non quo uiolari summa deum uis
possit, ut ex ira poenas petere inibat acris,
sed quia tute tibi placida cum pace quietos
constitues magnos irarum uoluerit fluctus,
nec delubra deum placido cum pectore adibis,
nec de corpore quae sancto simulacra feruntur
in mentes hominum diuinae nuntia formae,
suscipere haec animi tranquilla pace ualebis.
Inde uidere licet qualis iam uita sequatur.

Quam quidem ut a nobis ratio uerissima longe
reiciat, quamquam sunt a me multa profecta,
multa tamen restant et sunt ornanda politis
uersibus; est ratio caeli <species> que tenenda,
sunt tempestates et fulmina clara canenda,
quid faciant et qua de causa cumque ferantur;
ne trepides caeli diuisis partibus amens
unde uolans ignis peruenerit aut in utram se
uerterit hinc partim, quo pacto per loca saepta
insinuarit, et hinc dominatus ut extulerit se.
Quorum operum causas nulla ratione uidere
possunt ac fieri diuino numien rentur.
Tu mihi supremae praescripta ad candida calcis
currenti spatium praemonstra, callida musa
Calliope, requies hominum diuomque uoluptas,
te duce ut insigni capiam cum laude coronam.

60

65

70

75

80

85

90

95

diharduten, batez ere euren buru gainean, eter eremuan, ikusten dituzten gorputzetan, orduan berriro erlijio zaharretara jotzen eta ugazaba ankerrak onartzen dituzte, ahalguztidunak direlakoan gizarajoak, zer daitekeen eta zer ez daitekeen eta, azken batez, zergatik gauza bakoi-tzak ahal mugatua eta xedarrri sakon sartuak dauzkan ez dakitela; hala, are galduago, arrazoi itsuetan jausten dira. Gauza hauek gogotik uxatzen ez badituzu eta jainkoen ezduin eta haien bakearen kontrako direnak haien esleitzetik erabat urruntzen ez bazara, jainkoen ahal sakratuak, zeuk desitxuratuak, maiz moztuko dizu bidea; ez jainkoen indar gorena bortxa daitekeelako, ez euren haserrea zigor latzetan ase nahi dutelako, baizik, bake lasaiko atsedenean dagozela, haien golkoan suminezko olatu itzaleak dihardutela pentsatuko duzulako, eta ezingo zarelako haien tenpluetara gogo lasaiz hurreratu eta haien gorputz santutik gizakien gogoetara sartzen diren simulakrook, edertasun jainkozkoaren iragarleok, ezingo dituzulako aurrerantzean gogoaren bake lasaian hartu. Hortik ikus dezakezu zer nolako bizimodua dator-kizun. Eta bizimodu hori gugandik arrazoi txit egiazkoak alden dezan, nahiz eta lehen ere nigandik arrazoi mordoa atera den, oraindik ere mordoa geratzen da, bertso landuz edertu beharrekoa; zeru-lurren arrazoa eta egitura azaldu behar da, ekaitzak eta oinaztu distiratsuak kantatu, zer egiten duten eta zer kausak eragiten dituen; ez dezazun, dardar eta senetik kanpora, ortzia zatika, ea oinaztua nondik abiatzen den hegan eta norantz doan, nola irekitzen duen bidea leku itxietan zehar eta nola irteten den, bazterrak hautsita. Gizakiek ezin dute inola ere egite horien kausarik ulertu, eta jainko ahalmenak egiten dituela pentsatzen dute.

Azkena diragarren marra zurirantz lasterka noan honi erakuts bidea zuk, Kaliope, musa trebe, gizakien atsedean eta jainkoen atsegin horrek, zu gidari zarena, aintza gorenaren koroa atzeman dezadan.

Principio tonitru quatiuntur caerulea caeli
 propterea quia concurrunt sublimis uolantes
 aetherae nubes contra pugnantibus uentis;
 nec fit enim sonitus caeli de parte serena,
 uerum ubicumque magis denso sunt agmine nubes, 100
 tam magis hinc magno fremitus fit murmure saepe.
 Praeterea neque tam condense corpore nubes
 esse queunt quam sunt lapides ac tigna, neque autem
 tam tenues quam sunt nebulae fumique uolantes;
 nam cadere aut bruto deberent pondere pressae 105
 ut lapides, aut ut fumus constare nequirent
 nec cohibere niues gelidas et grandinis imbris.
 Dant etiam sonitum patuli super aequora mundi,
 carbasus ut quondam magnis intenta theatris
 dat crepitem malos inter iactata trabesque 110
 interdum percissa furit petulantibus auris
 et fragilis <sonitus> chartarum commeditatur;
 id quoque enim genus in tonitru cognoscere possis,
 aut ubi suspensam uestem chartasque uolantis
 uerberibus uenti uersant planguntque per auras. 115
 Fit quoque enim interdum <ut> non tam concurrere nubes
 frontibus aduersis possint quam de latere ire
 diuerso motu radentes corpora tractim,
 aridus unde auris terget sonus ille diuque 120
 ducitur, exierunt donec regionibus artis.
 Hoc etiam pacto tonitru concussa uidentur
 omnia saepe graui tremere et diuolsa repente
 maxima dissiluisse capacis moenia mundi,
 cum subito ualidi uenti conlecta procella 125
 nubibus intorsit sese conclusaque ibidem
 turbine uersanti magis ac magis undique nubem
 cogit uti fiat spisso caua corpore circum,
 post ubi conminuit uis eius et impetus acer,
 tum perterritore sonitu dat scissa fragorem.
 Nec mirum, cum plena animae uesicula parua 130
 saepe ita dat magnum sonitum displosa repente.
 Est etiam ratio, cum uenti nubila perflant,
 ut sonitus faciant, etenim ramosa uidemus

Lehenik, ortzi urdina trumoipean dardaratzen da, goi-hegan
 doazen eter hodeiek, kontrako haizeen eraginez, elkar jotzen dutelako;
 eta hotsa ez da ortziaren bare-aldean sortzen, aitzitik hodei tropela
 non den estuago, han sortzen dira orro eta harrabots handiagoak.
 Bestalde, hodeien gorputza ez daiteke harri eta zurena bezain trinkoa
 izan, ez lainoak eta ke hegakorrak bezain xumea; edo, pisuaren astu-
 nez, harriak bezala erori beharko bailukete, edo, keak bezala, ezingo
 bailukete tinko iraun, ez elur izoztuei eta txingor ekaitzei eutsi.
 Munduko zelai zabala ere burrunbatzen dute, inoiz antzoki handietan
 zabalduriko errezela masta eta zutabe artean kirrizkatzen den bezala,
 eta inoiz, aura lotsagabeek urraturik, sumintzen dira eta paper kizkur-
 tuaren hotsa ateratzen dute; zarata modu hori, edo oihal eskegiek eta
 haizeen putzez eta auren bultzadaz astintzen diren paper hegaleriek
 egiten duten bezalakoa, trumoiaren ere hauteman dezakezu. Batzuetan
 gertatzen da, izan ere, hodeiek aurrez talkatu beharrean, gorputzak
 elkarri alboz estutzen dizkiotela kontrako mugimenduz eta hortik
 dator zarata lehor hori, belarriak mailatzen eta luze jotzen duena, estu-
 gune hartatik irten arte.

Era horretara baita, trumoi indartsuak astindurik, badirudi dena
 dardaratzen dela eta mundu zabalaren murru eskergak, bat-batean
 leherturik, bat-batean zabaltzen direla, kolpera baturiko haize borti-
 tzak hodeia zulatzen duenean eta, beronen barruan sarturik, zirimola-
 ka biratzen eta hodeiaren erdigunea hutsarazten eta ingurua are eta
 areago trinko arazten duenean, arik eta, bere indarra eta oldar zorrotza
 makaldurik, zarata izugarriko burrunban lehertu arte. Eta ez da harri-
 tzekoa, sarritan haizez beteriko puxika zoztor batek ere, tanpez leher-
 turik, nolako hotsa ateratzen duen ikusita.

Haizeak hodei artean putz egitean, bada zaratarako beste arra-
 zoi bat ere, sarritan adar itxurako hodeiak martxan ikusten baititugu,

nubila saepe modis multis atque aspera ferri;
 scilicet ut, crebram siluam cum flamina cauri
 135
 perflant, dant sonitum frondes rami que fragorem.
 Fit quoque ut interdum ualidis uis incita uenti
 perscindat nubem perfringens impete recto;
 nam quid possit ibi flatus manifesta docet res,
 hic, ubi lenior est, in terra cum tamen alta
 140
 arbusta euoluens radicibus haurit ab imis.
 Sunt etiam fluctus per nubila, qui quasi murmur
 dant in fragendo grauiter; quod item fit in altis
 fluminibus magnoque mari, cum frangitur aestus.

Fit quoque, ubi e nubi in nubem uis incidit ardens
 fulminis; haec multo si forte umore recepit
 ignem, continuo magno clamore trucidat;
 ul calidis candens ferrum e fornacibus olim
 stridit, ubi in gelidum propere demersimus imbrem.
 Aridior porro si nubes accipit ignem,
 150
 uritur ingenti sonitu succensa repente;
 lauricomos ut si per montis flamma uagetur
 turbine uentorum comburens impete magno;
 nec res ulla magis quam Phoebi Delphica laurus
 terribili sonitu flamma crepitante crematur.
 155
 Denique saepe geli multus fragor atque ruina
 grandinis in magnis sonitum dat nubibus alte:
 uentus enim cum confercit, franguntur in artum
 concreti montes nimborum et grandine mixti.
 Fulgit item, nubes ignis cum semina multa
 160
 excussere suo concursu; ceu lapidem si
 percutiat lapis aut ferrum; nam tum quoque lumen
 exiliat et claras scintillas dissipat ignis.
 Sed tonitrum fit uti post auribus accipiamus,
 fulgere quam cernant oculi, quia semper ad auris
 tardius adueniunt quam uisum quae moueant res.
 Id licet hinc etiam cognoscere, caedere si quem
 ancipiti uideas ferro procul arboris auctum,
 ante fit ut cernas ictum quam plaga per auris
 165
 det sonitum; sic fulgorem quoque cernimus ante
 170

era askotara haginduak; haizearen putzak oihan orritsua astintzean, orriak hoska eta adarrak karraska egiten duten antzera gertatzen da. Baita gertatzen da inoiz haize bortitzaren indar harrotuak hodeia aurrez jo eta urratzea ere; han putzak zer dezakeen garbi erakusten digu hemen, arinagoa izanik, zer dagien ikusteak, hala ere tantairik garaiena sustraitik erauzten eta eraisten baitu. Hodeietan badira olatuak ere, lehertzean baurre izugarria ateratzen dutenak; horixe gertatzen da ibai sakonetan eta itsaso zabalean, tiraina apurtzen denean.

Gauza bera gertatzen da, oinaztu sutsuak hodeitik hodeira jauzi egiten duenean ere; hau, sua urez beterik hartzen badu, berehala itzungitzen da zarata handiz; labetik harako burdina gorria karrankatzen den bezala, ur hotzetan zuzen sartzen dugunean. Sua hartzen duen hodeia lehorrago badago, ostera, burrunba itzelean higitzen da, bat-batean isioturik; ereinotz mendietan zehar haize zirimolek sakaturiko garra zabaltzen eta bere oldar handian dena irensten duenean bezala; ez baitago ezer garretan hain soinu izugarritz txinpartaka erreko denik, Feboren ereinotz delfotarra bezalakorik. Bestalde, izotzaren haustura luzeak eta txingorraren xehapenak goiko hodei handietan zarata ateratzen dute; hodei mendiak, gogortuak eta txingorrez nahastuak, hai-zeak gogor jotzean, meharguneetan apurtzen baitira.

Baita ere oinaztua sortzen da, hodeiek, elkar jotzean, suzko hazi ugari jaurtitzen dutenean, suharriak burdinarekin edo beste suharri batekin jotzean bezala; orduan ere distira irteten da eta sua txinpart argietan zabaltzen. Baina, trumoia begiek oinaztua ikusi eta gero belarrietan atzematen badugu, belarrira datozen elementuak beti begiei eragiten dietenak baino astiroago dabilzalako da. Beste honetan ere ikus dezakezu: norbaiti urrunera aizkorarekin zuhaitz handi bat mozteten ari dela begira bazagoz, kolpea hotsa belarrira heldu aurretik ikusiko duzu; honela oinaztua ere trumoia baino lehenago atzematen

quam tonitrum accipimus, pariter qui mittitur igni
 e simili causa, concursu natus eodem.
 Hoc etiam pacto uolucris loca lumine tingunt
 nubes et tremulo tempestas impete fulgit. 175
 Ventus ubi inuasit nubem et uersatus ibidem
 fecit ut ante cauam docui spissescere nubem,
 mobilitate sua feruescit, ut omnia motu
 percalefacta uides ardescere, plumbea uero
 glans etiam longo cursu uoluenda liquescit. 180
 Ergo feruidus hic nubem cum perscidit atram,
 dissipat ardoris quasi per uim expressa repente
 semina quae faciunt nictantia fulgura flammae;
 inde sonus sequitur qui tardius adficit auris
 quam quae perueniunt oculorum ad lumina nostra. 185
 Scilicet hoc densis fit nubibus et simul alte
 extractis aliis alias super impete miro;
 ne tibi sit frudi quod nos inferne uidemus
 quam sint lata magis quam sursum extracta quid extent.
 Contemplator enim, cum montibus adsimulata 190
 nubila portabunt uenti transuersa per auras,
 aut ubi per magnos montis cumulata uidebis
 insuper esse aliis alia atque urgere superne
 in statione locata sepultis undique uentis,
 tum poteris magnas moles cognoscere eorum
 speluncasque uelut saxis pendentibus structas 195
 cernere, quas uenti cum tempestate coorta
 complerunt, magno indignantur murmure clausi
 nubibus in caueisque ferarum more minantur;
 nunc hinc nunc illinc fremitus per nubila mittunt
 quaerentesque uiam circum uersantur et ignis 200
 semina conuoluunt <e> nubibus atque ita cogunt
 multa rotantque cauis flammam fornacibus intus,
 donec diuolsa fulserunt nube corusci.
 Hac etiam fit uti de causa mobilis ille 205
 deuolet in terram liquidi color aureus ignis,
 semina quod nubes ipsas permulta necessust
 ignis habere, etenim cum sunt umore sine ullo.
 flammeus <est> plerumque colos et splendidus ollis.

dugu, nahiz eta sua batera abiatu, kausa berdinez eta talka beretik sor-
 tua. Baita hodeiek horrelaxe tindatzen dituzte bazterrak argi hegalariz
 eta ekaitza sigi-sagako oldarrean distiratzen. Haizeak hodei barruan
 sartu eta bertan iraulka, arestian esan dudanez, hustu eta hodei ingu-
 rua trinkotzen duenean, bere mugimenduaz berotzen da, gauza guz-
 tiak, mugimenduan bero-bero, isiotzen ikusten dituzun moduan, eta
 berunezko bala urtu egiten da, bere ibilbide luzean bira eta bira.
 Zirimola goriak hodei beltza zulatzen duenean, beraz, bat-batean hala-
 ko suzko haziak bezala bortizki jaurtitzen ditu, oinazuaren gar zehar-
 koia eginez; gero hotsa dator, belarriak beranduago jotzen dituena,
 irudiak gure begiak baino. Hau, noski, hodei trinkoekin eta oso goian
 eta indar harrigarri elkarren gainera pilatzen direnean gertatzen da;
 ez bekizu okerbide izan hemendik behetik zer zabalera daukaten
 goranzko tamaina baino aisago ikustea. Begira ezazu, hain zuzen, nola
 haizeek mendi antzeko hodeiak aurretan hara-hona daramatzaten, edo
 nola mendigain handietan zehar elkarren gainera pilatzen diren, goitik
 behera sakan eta geldi-geldi, inguruko haizeak hilda, eta orduantxe
 antzeman ahalko diezu euren tamaina eskergei eta euren barruan haitz
 eskegietan egindako haitzuloak bezalakoak ikusiko dituzu, zeintzuok
 ekaitzean, haizez betetzen direnean, hodei barruan egotearekin urru-
 ma izugarri haserretzen eta piztia kaiolatuek bezala mehatxu egiten
 duten; hodeietan zehar orroak batera eta bestera bildaltzen dituzte eta
 irteera bila iraulkatzen dira, hodeiei su haziak atera eta erruz pilatzen
 dituzte eta garra sutegiaren barrunbean itzulkatzen dute, hodei urratua
 txinpartaka distiratu arte.

Beste arrazoi bat ere badago, su likidoaren urre-kolore bizkor
 hura lurrera hega dadin, hots, hodeiek eurek ere su hazi asko eduki
 behar dutela barruan; zeren, bat ere hezetasun gabe daudenean ere,
 gehienik gar kolore eta distira huraxe ageri baitute. Eta, jakina, eguz-
 kiaren argitik elementu ugari hartzen baitute, beharko gorritu eta sua

Quippe etenim solis de lumine multa necesseset
concupere ut merito rubeant ignisque profundant 210
Hasce igitur cum uentus agens contrusit in unum
compressitque locum cogens, expressa profundunt
semina quae faciunt flammae fulgere colores.
Fulgit item, cum rarescunt quoque nubila caeli;
nam cum uentus eas leuiter diducit euntis 215
dissoluitque, cadant ingratis illa necesseset
semina quae faciunt fulgorem; tum sine taetro
terrore et sonitu fulgit nulloque tumultu.

Quod superest, <quali> natura praedita constent
fulmina, declarant ictus et inusta uaporis 220
signa notaeque grauis halantis sulphuris auras;
ignis enim sunt haec non uenti signa neque imbris.
Praeterea sae<pe> accendunt quoque tecta domorum
et celeri flamma dominantur in aedibus ipsis.
Hunc tibi subtilem cum primis ignibus ignem 225
constituit natura minutis mobilibusque
corporibus, cui nil omnino obsistere possit.
Transit enim ualidum fulmen per saepta domorum,
clamor ut ac uoces, transit per saxa, per aera,
et liquidum puncto facit aes in tempore et aurum, 230
curat item uasis integris uina repente
diffugiant, quia nimirum facile omnia circum
conlaxat rareque facit lateramina uasis
adueniens calor eius et insinuatus in ipsum 235
mobiliter soluens differt primordia uini.
Quod solis uapor aetatem non posse uidetur
efficere usque adeo pollens feruore corusco:
tanto mobilior uis et dominantior haec est.

Nunc ea quo pacto gignantur et impete tanto
fiant ut possint ictu discludere turris, 240
disturbare domos, auellere tigna trabesque,
et monumenta uirum commoliri atque ciere,
exanimare homines, pecudes prosternere passim,
cetera de genere hoc qua ui facere omnia possint,

jaurti. Horrela, haize sakatzaileak toki berean pilatzen eta galkatzen dituenan, gar koloreei distira ematen dieten hazi estutuak jaurtitzen dituzte. Ortziko hodeiak xumetzen direnean ere sortzen dira oinaztuak; zeren, haizeak leunki sakabanatzen eta joanean disolbatzen dituela, nahitaez jausi behar baitute hazi oinaztugileek; orduan oinaztu isila ari du, izu beltzik eta iskanbilarik gabe.

Gainerakokan, oinaztuak nolako izaera daukan ondorioek erakusten dute, erre marka sakonak eta airean zabaltzen duten sufre usain nabarmenak; hauek, noski, suaren markak dira, ez haizearenak edo euriarenak. Gainera, sarritan oinaztuak etxe sabaia sutzen ditu eta gar bizkorrek etxe osoa menperatzen dute. Su hau surik finena duzu eta naturak hain gorputz xehez eta bizkorrez hornitu du, ezen ezerk ezin baitio biderik itxi. Izan ere, oinaztu indartsuak hotsak eta ahotsak bezala zeharkatzen ditu etxe hormak, haitzak eta brontzea pasatzen ditu eta brontzea eta urrea kolpera urtzen, bat-batean ezabatzen edontziko ardoa, berau osorik utzita, dudarik gabe haren beroak, edontzian alboetatik sarturik, hauek laxotu eta porotsuago egiten dituelako eta, gero, edontzian bertan, ardoaren lehenkiak berehala askatzen eta barreiatzen dituelako. Badirudi eguzkiaren beroak hau ezin duela bizi guztian egin, bere su distiratsua indar eta guzti ere. Oinaztuaren indarra hain da azkarragoa eta gailenagoa.

Orain oinaztua nola sortzen da eta halako bultaz, ezen zartako batean dorreak arraila baititzake, etxeak eraits, habeak eta zutabeak erauz, heroien monumentuak loka eta uzkailek, gizakiak hil, aziendak aldran akaba? Honelako gauza guztiak zer indarrez egin ditzakeen azaltzera noa eta ez natzaizu aginduetan luzatuko.

expediam, neque <te> in promissis plura morabor.
Fulmina gignier e crassis alteque putandumst
nubibus extractis; nam caelo nulla sereno
nec leuiter densis mittuntur nubibus umquam.
Nam dubio procul hoc fieri manifesta docet res;
quod tum per totum conrescunt aera nubes,
undique uti tenebras omnis Acherunta reamur
liquisse et magnas caeli complesse cauernas:
usque adeo taetra nimborum nocte coorta
inpendent atrae formidinis ora superne,
cum commoliri tempestas fulmina coeprat.
Praeterea persaepe niger quoque per mare nimbus,
ut picis e caelo demissum flumen, in undas
sic cadit effertus tenebris procul et trahit atram
fulminibus grauidam tempestatem atque procellis,
ignibus ac uentis cum primis ipse repletus,
in terra quoque ut horrescant ac tecta requirant.
Sic igitur supera nostrum caput esse putandumst
tempestatem altam. Neque enim caligine tanta
obruerent terras, nisi inaedificata superne
multa forent multis exempto nubila sole;
nec tanto possent uenientes opprimere imbri,
flumina abundare ut facerent camposque natate,
si non extractis foret alte nubibus aether.
Hic igitur uentis atque ignibus omnia plena
sunt; ideo passim fremitus et fulgura fiunt.
Quippe etenim supra docui permulta uaporis
semina habere cauas nubis et multa necessest
concupere ex solis radiis ardoreque eorum.
Hoc ubi uentus eas idem qui cogit in unum
forte locum quemuis, expressit multa uaporis
semina seque simul cum eo commiscuit igni,
insinuatus ibi uortex uersatur in arto
et calidis acuit fulmen fornacibus intus.
Nam duplici ratione accenditur, ipse sua cum
mobilitate calescit et e contagibus ignis.
Inde ubi percaluit uenti uis <et> grauis ignis
impetus incessit, maturum tum quasi fulmen

245

250

255

260

265

270

275

280

Oinaztua hodei trinko eta oso pilatuetan sortzen dela pentsatu behar da, behin ere ez baita oskarbitik edo trinkotasun arineko hodeietatik irazia izaten. Esperientzia ageriak garbi erakusten du hori; zeren orduan hodeiak hainbeste trinkotzen baitira ortzi guztian zehar, ezen ilunpe guztiek Akerontetik alde egin eta ortzialde amaigabea bete dutela baitirudi. Hain da ikaragarria gainean zintzilik daukagun izuauren aurpegia, hodeien gau beltzetik sortua, ekaitza oinaztu urtika hasten denean. Itsasoan ere sarritan gertatzen da hodei beltza, ortzitik eroritako bike ibaiaren antzekoa, olatuen gainera jausten dela, ilunpez hanpatua, eta ekaitz zarratua, oinaztuz eta haizetez ernaldua, arrastatzen du, eta bera ere suz eta haizez gainezka dago, lehorrean ere denak izuturik, aterpe bila dihardutela. Honela, bada, gure buruen gainean ekaitza dabilela goian pentsatu behar da. Eta hodeiek ez lukete lurra halako ilunpean estaliko, halako multzo bat elkar gainka pilatuko ez balitz, eguzkia kenduta; eta ez lirateke hainbeste euriz zapaltzera etorriko, ibaiak gainezka eta zelaiak igeri ipintzeko moduan, eterra hodeiz goraino eraikia ez balitz. Han goian, beraz, haizez eta suz beterik dago dena; horregatik trumoiak eta oinaztuak nondinahi sortzen dira. Izan ere, gorago irakatsia dut hodei ahurrek bero hazi asko daukatela eta eguzkiaren izpietatik eta hauen berotik ugari hartu behar dutela. Honela, hodeiok edozein lekutan pilatzen dituen haizeak berak bero hazi asko atera eta bera ere suarekin nahasi ondoren, zirimola, hodeian barnaturik, estuan itzulkatzen da eta sutegi gori horren barruan oinaztua zorrozten du. Haizea era bitara isiotzen baita, bere mugimenduan berotuz eta suari ukituz. Gero, haizearen indarra behar beste berotu denean eta suaren oldar larria gehitu zaionean, orduan

perscindit subito nubem, ferturque coruscis
 omnia luminibus lustrans loca percitus ardor. 285
 Quem grauis insequitur sonitus, displosa repente
 opprimere ut caeli uideantur templa superne.
 Inde tremor terras grauiter pertemptat et altum
 murmura percurrunt caelum; nam tota fere tum
 tempestas concussa tremit fremitusque mouentur.
 Quo de concussu sequitur grauis imber et uber, 290
 omnis uti uideatur in imbrem uertier aether,
 atque ita praecipitans ad diluuiem reuocare:
 tantus discidio nubis uentique procella
 mittitur, ardenti sonitus cum prouolat ictu. 295
 Est etiam cum uis extrinsecus incita uenti
 incidit in calidam maturo culmine nubem;
 quam cum perscudit, extemplo cadit igneus ille
 uertex quam patrio uocitamus nomine fulmen.
 Hoc fit idem in partis alias, quocumque tulit uis. 300
 Fit quoque ut interdum uenti uis missa sine igni
 igniscat tamen in spatio longoque meatu,
 dum uenit, amittens in cursu corpora quaedam
 grandia quae nequeunt pariter penetrare per auras;
 atque alia ex ipso conradens aere portat 305
 paruola quae faciunt ignem commixta uolando;
 non alia longe ratione ac plumbea saepe
 feruida fit glans in cursu, cum multa rigoris
 corpora dimittens ignem concepit in auris.
 Fit quoque ut ipsius plagae uis excitet ignem,
 frigida cum uenti pepulit uis missa sine igni, 310
 nimirum quia, cum uementi perculit ictu,
 confluere ex ipso possunt elementa uaporis
 et simul ex illa quae tum res excipit ictum;
 ut, lapidem ferro cum caedimus, euolat ignis,
 nec, quod frigida uis ferrist, hoc setius illi 315
 semina concurrunt calidi fulgoris ad ictum.
 Sic igitur quoque res accendi fulmine debet,
 opportuna fuit si forte et idonea flammis.
 Nec temere omnino plane uis frigida uenti 320
 esse potest, ea quae tanta ui missa supernest,

oinaztuak, heldua bailitzan, hodeia bet-betan apurtzen du eta gar biz-
 korra sortzen da, bere argi distikorra bazter guztietara helaraziz.
 Jarraian zarata bortitza dator, bat-batean leherturik, ortzi sabaia gai-
 nera jausiko balitzaigu bezala. Gero dardara batek lurra gogor astin-
 tzen eta zeru sakona kurritzen du; hodeiteria osoa talkan dardaritzen
 eta marruka inarrostean baita. Talka horri euri-jasa indartsua eta ugaria
 darraio, eter osoa euri bihurtzera eta, dena gainbehera, uholdea berri-
 tzeraz bailihoan: hainbesteko uhola sortzen baitu hodeiaren urraturak
 eta haizearen oldarrak trumoiaren zartada gorria hegatzenean.
 Baita gertatzen da kanpotik etorritako haize kolpe bortitza muturra
 lehertzear daukan hodei beroaren gainera erortzen dela, zeina urratuz
 batera, suzko zirimola hura erortzen den, gurasoen hizkuntzan oinaz-
 tua deitzen dioguna. Inoiz gertatzen da berez su gabe datorren haize-
 kolpea ibilbide luzean isiotu egiten dela, honanzkoan, bere ibilian,
 aurretan zehar pasatzeko baino gorputz handiagoak galduz; eta beste-
 tik aireari berari jandako gozpuzñoak daramatza, bereekin nahasturik,
 sua hegan egiten dutenak; sarritan berunezko bala bidean goritzen den
 bezala, hotzaren gorputz ugari galduz, aurretan sua beraganatzen due-
 nean. Talkaren beraren indarrak ere eragiten du sua, nahiz eta haize-
 kolpe sakatzailea hotza eta hasieran su gabea izan, dudarik gabe, zar-
 tada gogorrez jotzean, beroaren elementuak atera daitezkeelako, bai
 bere baitatik, bai orduan zartada hartzen duen gorputzetik; harria bur-
 dinaz jotzen dugunean, sua ateratzen den eta, burdinarik hotzena izan-
 da ere, kolpearekin txinpart goriaren hazi gutxiago sortzen ez den
 bezala. Beraz, oinaztuarekin edozerk ere horrelaxe sutu behar du,
 garra behar den lekuan badago eta egokia bada. Eta gainera ez dago
 haize-kolpea, goitik hain indartsu jaurtia izanik, ibiliak aurretik sutu

quin, prius in cursu si non accenditur igni,
at tepefacta tamen ueniat commixta calore.

Mobilitas autem fit fulminis et grauis ictus,
et celeri ferme percurrunt fulmina lapsu,
nubibus ipsa quod omnino prius incita se uis
colligit et magnum conamen sumit eundi, 325
inde ubi non potuit nubes capere inpetis auctum,
exprimitur uis atque ideo uolat impete miro,
ut ualidis quae de tormentis missa feruntur.
Adde quod e paruus et leuibus est elementis, 330
nec facilest tali naturae opsistere quicquam.
Inter enim fugit ac penetrat per rara uiarum,
non igitur multis offensibus in remorando
haesitat, hanc ob rem celeri uolat impete labens.
Deinde, quod omnino natura pondera deorsum 335
omnia nituntur, cum plagast addita uero,
mobilitas duplicatur et impetus ille grauescit,
ut uementius et citius quaecumque morantur
obuia discutiat plagis itinerque sequatur.
Denique quod longo uenit impete, sumere debet 340
mobilitatem etiam atque etiam, quae crescit eundo
et ualidas auget uiris et roborat ictum;
nam facit ut quae sint illius semina cumque
e regione locum quasi in unum cuncta ferantur,
omnia coniciens in eum uoluentia cursum. 345
Forsitan ex ipso ueniens trahat aere quaedam
corpora quae plagis incendunt mobilitatem.
Incolumisque uenit per res atque integra transit
multa, foraminibus liquidus quia transuiat ignis,
multaque perfigit, cum corpora fulminis ipsa 350
corporibus rerum inciderunt, qua texta tenentur.
Dissoluit porro facile aes aurumque repente
conferuefacit, e paruus quia facta minute
corporibus uis est et leuibus ex elementis,
quae facile insinuantur et insinuata repente 355
dissoluont nodos omnis et uincla relaxant.

ez badu, gutxienez epel eta beroarekin nahasturik ez etortzeko bezain
erabat hotza izaterik.

Oinaztuaren abiadura eta zartada bortitza, halaber, eta eguratsa
kurritzen duen jauskera guztiz azkarra gertatzen da, oinaztuak, leher-
tu aurretik, bere indar guztia hodeitik bildu eta abiatzeko bultzada
handia hartu duelako, eta hodeiak haren oldar gehitzeari eutsi ezin
zionez gero, indarra lehertzen eta oldar izugarritz hegatzten da, kata-
pulta indartsuetatik irteten diren jaurtigaiak bezala. Erants horri ele-
mentu txiki eta leunez egina dela eta ez dela erraza horrelako izaera
bat ezerk gelditzea. Zirritu estuetatik ihes egiten eta sartzen denez
gero, apenas oztopo askok geldituko edo atzeratuko duen eta horrega-
tik abiada azkarrean lerratzuz hegatzten da. Gainera, pisu guztiek berez
beherantz tiratzen baitute, grabitateari talkarik gehitzen zaionean,
abiadura bibidertzen eta oldar hura indartzen da, ateratzen zaizkion
oztopo guztiak bortizkiago eta lasterkiago alboratzen eta bere bideari
jarraitzen diola. Azkenik, urrundiko oldarrean datorrenez gero, are eta
areago azkartu behar du abiadura, zeina joanean handitzen, indartzen
eta kolpean sendotzen baita; zeren bere hazi guztiak bil daitezen eta
toki bererantz zuzen jo dezaten egiten baitu, denak harantz iraulka
arrastatuz. Beharbada etorrian aireari berari ere gorputzen batzuk ken-
tzen dizkio, euron kolpeekin oinaztuaren abiadura gehiago isiotzen
dutenak. Eta gauza asko osorik eta ezer kendu gabe zeharkatzen ditu,
su likidoa poroetatik airean pasatzen delako, eta beste asko zulatu egi-
ten ditu, oinaztuaren gorputzak eurak gauzen gorputzen gainera,
euron ehogunera, jausten direnean. Gainera, brontzea aisa disolbatzen
eta urrea berehala urtzen du, bere indarra gorputz txiki-txikiz eta ele-
mentu leunez egina delako, zeintzuk aisa barnatzen diren eta, barna-
turik, korapiloak bet-betan askatzen eta loturak lasatzen dituzten.

Autumnoque magis stellis fulgentibus apta
 concutitur caeli domus undique totaque tellus,
 et cum tempora se ueris florentia pandunt. 360
 Frigore enim desunt ignes uentique calore
 deficiunt neque sunt tam denso corpore nubes.
 Interutrasque igitur cum caeli tempora constant,
 tum uariae causae concurrunt fulminis omnes.
 Nam fretus ipse anni permiscet frigus <et> aestum,
 quorum utrumque opus est fabricanda ad fulmina nubi, 365
 ut discordia <sit> rerum magnoque tumultu
 ignibus et uentis furibundus fluctuet aer.
 Prima caloris enim pars est postrema rigoris:
 tempus id est uernum; quare pugnare necessest
 dissimilis inter se <res> turbareque mixtas. 370
 Et calor extremus primo cum frigore mixtus
 uoluitur, autumnus quod fertur nomine tempus,
 hic quoque conflagunt hiemes aestatibus acres.
 Propterea <freta> sunt haec anni nominanda,
 nec mirumst, in eo si tempore plurima fiunt 375
 fulmina tempestasque cietur turbida caelo,
 ancipiti quoniam bello turbatur utrimque,
 hinc flammis illinc uentis umoreque mixto.

 Hoc est igniferi naturam fulminis ipsam
 perspicere et qua ui faciat rem quamque uidere, 380
 non Tyrrhena retro uoluentem carmina frustra
 indicia occultae diuum perquirere mentis,
 unde uolans ignis peruenerit aut in utram se
 uerterit hinc partem, quo pacto per loca saepta
 insinuarit, et hinc dominatus ut extulerit se, 385
 quidue nocere queat de caelo fulminis ictus.
 Quod si Iuppiter atque alii fulgentia diui
 terrifico quatiunt sonitu caelestia templa
 et iaciunt ignem quo cuiquest cumque uoluntas,
 cur quibus incautum scelus auersabile cumquest 390
 non faciunt icti flammis ut fulguris halent
 pectore perfixo, documen mortalibus acre,
 et potius nulla sibi turpi conscius in re

Izar distiratsuz jantzitako ortzi-etxea udazkenean eta udaberri-
 ko urtaro loretsua irekitzean burrunbatzen da gehien eta lurra nonahi
 dardaratzen. Hotzarekin suak urritzen eta beroarekin haizeak bakan-
 tzen baitira eta hodeiak ez baitira hain gorputz trinkokoak. Bitarteko
 urtaroak noiz diren, beraz, orduantxe bat egiten dute oinaztuaren
 kausa ezberdin guztiek. Urtearen hausguneak berak nahasten baititu
 hotz-beroak, biok beharrezkoak, hodeiak oinaztua egin dezan, ele-
 mentuen diskordia izan dadin eta iskanbila handian airea suz eta hai-
 zez sumindurik altxa dadin. Izan ere, beroaren hasierak hotzaren azke-
 narekin bat egiten du: horixe da udaberria; horregatik, hain elementu
 ezberdinek elkarren aurka burrukatu eta nahasketan dena hankaz
 goratu behar dute. Eta udazkena deritzon urtaroan, azken beroa lehen
 hotzarekin nahasten da eta hemen ere negu zorrotzak eta udak elkar
 jotzen dute. Horregatik urtaro hauei urtearen hausguneak deitu behar
 zaie, eta ez da harriztekoa eurentan oinaztu ugari sortzea eta ortzian
 ekaitz nahasia abiatzea, dena anabasten baita buruz buruko gudian,
 batetik garrak, bestetik urez nahasitako haizeak.

Hauxe da oinaztu sudunaren egiazko izaera ulertzea eta egite-
 koa zer indarrez dagien ikustea eta ez Tirreniar orakuluei alperrik era-
 gitea, jainkoen gogo ezkutuaren zantzu bila, edo ea nondik iritsi ote
 den sua edo norantz bihurtu ote den, nola sartu ote den toki itxietan
 eta, dena menperaturik, nola aldegin ote duen, edo zer oker egin ote
 diezagukeen zerutiko oinaztu-kolpeak. Zeren, ortziko tenplu distira-
 tsuak Jupiterrek eta beste jainkoek zartatzen badituzte burrunba izu-
 garriz, eta sua bakoitzak nahi duen lekura jaurtitzen badute, zergatik
 ez dituzte jotzen krimen higuingarriak egiteko kezkarik ez daukate-
 nak, zergatik ez dituzte oinaztuaren garrak hauen paparrean leherra-
 razten, hilkorrenzat eskarmentu gogor, eta zergatik, areago, inolako
 itsuskeriaren kontzientziarik ez daukan errugabea iraulkatzen da

uoluitur in flammis innoxius inque peditur
 turbine caelesti subito correptus et igni? 395
 Cur etiam loca sola petunt frustra que laborant?
 An tum brachia consuescunt firmantque lacertos?
 In terraque patris cur telum perpetiuntur
 optundi? Cur ipse sinit neque parcit in hostis?
 Denique cur numquam caelo iacit unidque puro 400
 Iuppiter in terras fulmen sonitusque profundit?
 An simul ac nubes successere, ipse in eas tum
 descendit, prope ut hinc teli determinet ictus?
 In mare qua porro mittit ratione? Quid undas
 arguit et liquidam molem camposque natantis? 405
 Praeterea si uult caueamus fulminis ictum,
 cur dubitat facere ut possimus cernere missum?
 Si nec opinantis autem uolt opprimere igni,
 cur tonat ex illa parte, ut uitare queamus,
 cur tenebras ante et fremitus et murmura concit? 410
 Et simul in multas partis qui credere possis
 mittere? An hoc ausis numquam contendere factum,
 ut fierent ictus uno sub tempore plures?
 At saepe numero factum fierique necessest,
 ut pluere in multis regionibus et cadere imbris, 415
 fulmina sic uno fieri sub tempore multa.
 Postremo cur sancta deum delubra suasque
 discutit infesto praeclaras fulmine sedes
 et bene facta deum frangit simulacra suisque
 demit imaginibus uiolento uolnere honorem? 420
 Altaque cur plerumque petit loca plurimaque eius
 montibus in summis uestigia cernimus ignis?

 Quod superest, facilest ex his cognoscere rebus,
 presteras Graii quos ab re nominatarunt, 425
 in mare qua missi ueniant ratione superne.
 Nam fit ut interdum tamquam demissa columna
 in mare de caelo descendat, quam freta circum
 feruescunt grauiter spirantibus incita flabris,
 et quaecumque in eo tum sint deprensa tumultu
 nauigia in summum ueniant uexata periculum. 430

garretan eta arrastatzen du bat-batean suzko zerutar zirimolak?
 Gainera, zergatik jaukitzen dituzte leku mortuak eta nekutzen dira
 alferrik? Ala, orduan, besoak trebatzen eta giharreak zailtzen ari ote
 dira? Zergatik jasaten dute aitaren azkona lurraren kontra kamus
 dadin? Zergatik onartzen du hori Jupiterrek eta ez du etsaizentzat gor-
 detzen? Azkenik, Jupiterrek zergatik ez du inoiz oinaztua lurrera ortzi
 garbi-garbitik jaurtitzen eta trumoia zabaltzen? Hodeiak pilotzean,
 berbera jaisten ote da haietara, hurbiletik azkonaren itua segurtatzeko?
 Zer arrazoiz jaurtitzen du itsasora? Zer gaitzesten die uhinei eta euron
 masa likidoari eta zelai igerilariei? Bestalde, oinaztuaren zartadatik
 gorde gaitzezen nahi badu, zergatik ez du nahi abiatzen ikus dezagun?
 Eta suak ezustean harrapa gaitzan nahi badu, zergatik jotzen du tru-
 moiak handik, ekidin ahal dezagun, eta zergatik eragiten ditu aurretik
 ilunpeak eta burrundak eta urrumak? Eta nola jaurti ditzakeela uste
 duzu alde askotara batera? Ausartzen al zara tematzen inoiz ez dela
 gertatu une bakarrean oinaztu batzuk jausi izanik? Sarritan gertatu da,
 bada, eta gertatu beharra dauka, euria eta erauntsia leku askotan egi-
 ten duen bezala, oinaztuak ere asko eta batera jaustea. Azkenik, zer-
 gatik eraisten ditu oinaztu etsaiz jainkoen tenplu santuak eta euron
 egoitza bikainak eta apurtzen jainkoen irudi ondo landuak eta kentzen
 euren imajinon gurtza hain zartada bortitzez? Zergatik erasotzen die
 gehienetan leku garaiei eta zergatik ikusten dugu mendi tontorretan
 suaren aztarna gehien?

Gainerakoan, gauza hauetatik aisa ezagutzen da grekoek bere
 ondorioengatik «prester» deitu zutena zer den eta zergatik goitik behe-
 ra itsasora oldartzen den. Inoiz gertatzen baita zerutik itsasora zutabea
 bezalakoa jaistea, zeinaren inguruan haizearen putzek astinduriko
 urek suminki dirakiten, eta kalapita hartan harrapaturiko ontziak, kol-
 paturik, arrisku larrian aurkitzen dira. Hauxe gertatzen da inoiz, hai-

Hoc fit ubi interdum non quit uis incita uenti
 rumpere quam coepit nubem, sed deprimit, ut sit
 in mare de caelo tamquam demissa columna,
 paulatim, quasi quid pugno brachique superne
 coniectu trudatur et extendatur in undas; 435
 quam cum discidit, hinc prorumpitur in mare uenti
 uis et feruorem mirum concinnat in undis.
 Versabundus enim turbo descendit et illam
 deducit pariter lento cum corpore nubem;
 quam simul ac grauidam detrusit ad aequora ponti, 440
 ille in aquam subito totum se inmittit et omne
 excitat ingenti sonitu mare feruere cogens.
 Fit quoque ut inuolat uenti se nubibus ipse
 uertex conradens ex aere semina nubis
 et quasi demissum caelo pretera imitetur. 445
 Hic ubi se in terras demisit dissoluitque,
 turbinis inmanem uim prouomit atque procellae.
 Sed quia fit raro omnino montisque necessest
 officere in terris, apparet crebrius idem
 prospectu maris in magno caeloque patenti. 450

Nubila concrescunt ubi corpora multa uolando
 hoc super in caeli spatio coiere repente
 asperiora, modis quae possint indupedita
 exiguis tamen inter se compressa teneri.
 Haec faciunt primum paruas consistere nubes;
 inde ea comprehendunt inter se conque gregantur 455
 et coniungendo crescunt uentisque feruntur
 usque adeo donec tempestas saeua coortast.
 Fit quoque uti montis uicina cacumina caelo
 quam sit quoque magis, tanto magis edita fument 460
 adsidue fuluae nubis caligine crassa
 propterea quia, cum consistunt nubila primum,
 ante uidere oculi quam possint, tenuia, uenti
 portantes cogunt ad summa cacumina montis;
 hic demum fit uti turba maiore coorta 465
 et condesa queant apparere et simul ipso
 uertice de montis uideantur surgere in aethram.

zearen indar bortitzak hodeia, guztiz apurtu ezinik, hondoratzen due-
 nean, zerutik itsasora zutabea bezalakoa jaitsi bailitzan, astiro-astiro,
 ukabilak eta besoaren indarrak zerbaitek goitik sakatu eta olatuetan
 zabaldurik bezala; hodeia apurtutakoan, hemendik haizearen indarra
 itsasoaren kontra oldartzen da eta olatuetan irakite harrigarria jasotzen
 du. Zirimola espiralkoia jaisten eta hodeiaren gorputz malgua berare-
 kin arrastatzen baitu; eta hodei kargatua itsasoaren azalera jaurtiz
 batera, bat-batean bera ere osorik uretara oldartzen eta itsasoa ina-
 rrosten du, orroe itzeletan irakinaraziz. Baita gertatzen da haize ziri-
 mola bera hodeiz inguratzea ere, aireari hodeien haziak kentzean eta
 ortzitik beherako erauntsi itxuran. Hau lurraren kontra amiltzen eta
 lehertzen denean, zirimolaren eta ekaitzaren indar haserre okatzen
 du. Baina hau oso bakan gertatzen denez eta lehorrean mendiek nahi-
 taez ezkutatu behar dutenez, maizago ikusten da itsas bista zabalean
 eta ortzi agerian.

Hodeiak pilatzen dira, euren gorputz asko ortziaren goialde
 honetan tanpez biltzen direnean; gorputz latzagoak eurok, laxoki lotu-
 rik bada ere, elkarri atxikita jarrai dezaketenak. Hauek hodei txiki
 berriak sortzen dituzte; gero hauek elkarri batzen eta gehitzen zaizkio
 eta elkartzez handitzen dira eta haizeek arrastatzen dituzte, denborale
 ohila abiatu arte. Baita gertatzen da ezen mendi gailurrek zerutik
 hurrago eta euren gainak ketsuago diruditela, hodei beltzeko laino
 ilunetan etengabe bildurik, zeren, hodeiak lehenik sortzean, euren
 xumean begiek ikusi ahal izan aurretik, haizeek eroaten eta mendi gai-
 lurretan pilarazten baitituzte; hemen, azkenik, gertatzen da ezen,
 kopuru handiagoan baturik eta trinkoago eginik, ikus daitezkeela eta
 aldi berean mendi tontorretik bertatik irteten diruditela eterrerantz.

Nam loca declarat sursum uentosa patere
 res ipsa et sensus, montis cum ascendimus altos. 470
 Praeterea permulta mari quoque tollere toto
 corpora naturam declarant litore uestes
 suspensae, cum concipiunt umoris adhaesum.
 Quo magis ad nubes augendas multa uidentur
 posse quoque e salso consurgere momine ponti:
 nam ratio consanguineast umoribus omnis. 475
 Praeterea fluuiis ex omnibus et simul ipsa
 surgere de terra nebulas aestumque uidemus,
 quae uelut halitus hinc ita sursum expressa feruntur
 suffunduntque sua caelum caligine et altas
 sufficiunt nubis paulatim conueniundo: 480
 urget enim quoque signiferi super aetheris aestus
 et quasi densendo subtexit caerula nimbis.
 Fit quoque ut hunc ueniant in caelum extrinsecus illa
 corpora quae faciunt nubis nimbosque uolantis;
 innumerabilem enim numerum summamque profundi 485
 esse infinitam docui, quantaque uolarent
 corpora mobilitate ostendi quamque repente
 inmemorabile <per> spatium transire solerent.
 Haud igitur mirumst si paruo tempore saepe
 tam magnis nimbis tempestas atque tenebrae 490
 coperiant maria ac terras impensa superne,
 undique quandoquidem per caulas aetheris omnis
 et quasi per magni circum spiracula mundi
 exitus introitusque elementis redditus extat.

Nunc age, quo pacto pluuius concreseat in altis 495
 nubibus umor et in terras demissus ut imber
 decidat, expediam. Primum iam semina aquai
 multa simul uincam consurgere nubibus ipsis
 omnibus ex rebus pariterque ita crescere utrumque,
 et nubis et aquam quaecumque in nubibus extat, 500
 ut pariter nobis corpus cum sanguine crescit,
 sudor item atque umor quicumque est denique membris.
 Concipiunt etiam multum quoque saepe marinum
 umorem, ueluti pendentia uellera lanae

Errealitateak berak eta esperientziak erakusten baitigute goialdeak zer haizetsuak diren, goi mendietara igoten garenean. Gainera, itsaso gainetik, berezko legez, gorputz asko goratzen dela garbi azaltzen dute itsasertzean eskegitako arropen, halako hezetasuna itsasten baitzaie. Horrek areago pentsarazten du itsasoaren mugida gazitik gorputz asko eta asko goratzen dela hodeiak gizontzera, hezetasun guztien izaera antzekoa baita. Bestalde, ibai guztietatik eta lurretik bertatik ere lainoak eta lurrinak sortzen ikusten dugu, zeintzuk arnasa bezala hone-la gorantz igorriak diren eta ortzia ilunpetzen eta, astiro-astiro pilatuz, hodeiak sortzen dituzten: eter izarratuaren beroak ere goitik sakatzen baitie eta, kondentsatuz bezala, ortzi sabaia azpi-estaltzen baitu. Ortzi honetara hodei eta ninbo hegalarien egile diren halako gorputzak ere kanpotik etortzea gertatzen da; irakatsia baitut lehenkien kopurua amaigabea eta espazioaren sakonera infinitua dela eta azaldua dut gorputzak zenbateko abiaduran hegatzten ziren eta nolako distantzia pentsagaitzak amen batean kurritzen zituzten. Ez da harritzekoa, beraz, sarritan une labur batean ekaitzak eta ilunpeak itsas-lehorrak goitik eskegitako hodei galantez estaltzea, zeren eter guztiko zirrituetan zehar eta mundu eskergaren arnasbide antzekoetan zehar, elementuztat inguruan nonahi baitago sarrera zein irteera. Adi orain, humore eurikorra goi hodeietan nola kondentsatzen eta, jarenik, nola lurrera euri erortzen den azaltzera bainoa. Lehenik frogatuko dut ur hazi asko hodeiekin eurekin igotzen direla gauza guztietatik eta hodei eta ur, biak batera hazten direla, guregan gorputza odolarekin batera hazten denez, eta lohadarretan izerdia eta hezetasun guztiak batera dabiltzanez. Sarritan itsasotik ere hezetasun handia hartzen dute, artilezko galpar eskegiek bezala, haizeek hodeiak itsaso zabalaren gaine-

cum supera magnum mare uenti nubila portant. 505
 Consimili ratione ex omnibus amnibus umor
 tollitur in nubes. Quo cum bene semina aquarum
 multa modis multis conuenere undique adaucta,
 confertae nubes <umorem> mittere certant
 dupliciter: nam uis uenti contrudit et ipsa 510
 copia nimborum turba maiore coacta
 urget et e supero premit ac facit effluere imbris.
 Praeterea cum rarescunt quoque nubila uentis
 aut dissoluuntur, solis super icta calore,
 mittunt umorem pluuium stillantque, quasi igni 515
 cera super calido tabescens multa liquescat.
 Sed uemens imber fit, ubi uementer utraque
 nubila ui cumulata premuntur et impete uenti.
 At retinere diu pluuias longumque morari
 consuerunt, ubi multa cientur semina aquarum 520
 atque aliis aliae nubes nimbique rigantes
 insuper atque omni uulgo de parte feruntur,
 terraque cum fumans umorem tota redhalat.

Hic ubi sol radii tempestatem inter opacam 525
 aduersa fulsit nimborum asparagine contra,
 tum color in nigris existit nubibus arci.

Cetera quae sursum crescunt sursumque creantur,
 et quae concrescunt in nubibus, omnia, prorsum
 omnia, nix uenti grandis gelidaeque pruinae 530
 et uis magna geli, magnum duramen aquarum,
 et mora quae fluuios passim refrenat auentis,
 perfacilest tamen haec reperire animoque uidere
 omnia quo pacto fiant quareue creentur,
 cum bene cognoris elementis reddita quae sint.

Nunc age quae ratio terrai motibus extet 535
 percipe. Et in primis terram fac ut esse rearis
 subter item ut supera uentosis undique plenam
 speluncis multosque lacus multasque lacunas
 in gremio gerere et rupes deruptaque saxa;

tik daramatzatenean. Era berean, ibai guztietatik ere hezetasuna igotzen da hodeietara. Eta ur hazi asko eta era askotara batu eta alde guztietatik gehitu direnean, hodei aseak urari jareiten saiatzen dira arrazoi bigatik: batetik haizeak bultz egiten dielako, eta bestetik hodei multzoak berak, kopuru handiagoan batuak, estutu eta goitik sakatzen eta euria erionarazten duelako. Gainera hodeiak haizeekin mehazten edo eguzkiaren beroaren kolpeagatik ezabatzen direnean, euria tantaka bidaltzen dute, argizari koskoa su biziaren gainean likidotzen eta urtzen den bezala. Baina zaparrada indartsua gertatzen da, hodeiak indar biek batera, euron pilakuntzak eta haizearen oldarrak, estutzen dituztenean. Eta euriek etengabe jarraitu eta luzaro iraun ohi dute, ur hazi asko sortu eta hodei eta ninbo jariotsuak alde guztietatik etortzen eta elkargaintzen direnean eta lur osoak, kea dariola, baporea hats egiten duenean. Honetan, eguzkiaren izpiak, ekaitz opakoan zehar, hodeietatik harako ihintzaren kontra dizdizten direnean, orduan hodei beltzetatik ostadarraren koloreak agertzen dira.

Goian hazten, goian sortzen eta hodeietan bilakatzen diren gainerako fenomenoak, denak, den-denak, elurra, haizeak, txingorra, antzigar izoztua eta izotz gotorra, uren gogortzaile handi eta ibai irrikatsuen nonahiko oztopo, oso erraza da hauek denak nola egiten diren eta zerk eragiten dituen aurkitzea eta gogoarekin ikustea, elementuei dagozkien propietateak ondo ezagutuz gero.

Adi orain eta ikas lurrikarak zerk eragiten dituen. Eta lehenik har ezazu ondo gogoan lurra, kanpotik bezala barrutik, dena haitzulo haizetsuz beterik dagoela eta bere golkoan laku eta aintzira asko eta haitzak eta harri malkarrak gordetzen dituela; eta pentsatu behar da lurraren bizkar azpian ibai ezkutu asko dabilela, olatu indartsuetan

multaue sub tergo terrai flumina tecta
 uoluere ui fluctus summersaque saxa putandumst.
 Undique enim similem esse sui res postulat ipsa.
 His igitur rebus subiunctis subpositisque
 terra superne tremit magnis concussa ruinis,
 subter ubi ingentis speluncas subruit aetas;
 quippe cadunt toti montes magnoque repente
 concussu late disserpunt inde tremores.
 Et merito, quoniam plaustis concussa tremescunt
 tecta uiam propter non magno pondere tota,
 nec minus exultant scruposum ubi cumque uiui
 ferratos utrimque rotarum succutit orbis.
 Fit quoque, ubi in magnas aquae uastasque lacunas
 gleba uetustate e terra prouoluitur ingens,
 ut iactetur aquae fluctu quoque terra uacillans;
 ut uas inter<dum> non quit constare, nisi umor
 destitit in dubio fluctu iactarier intus.
 Praeterea uentus cum per loca subcaua terrae
 collectus parte ex una procumbit et urget
 obnixus magnis speluncas uiribus altas,
 incumbit tellus quo uenti prona premit uis:
 tum supera terram quae sunt extracta domorum
 ad caelumque magis quanto sunt edita quaeque,
 inclinata minent in eandem prodita partem
 protractaeque trabes independent ire paratae.
 Et metuunt magni naturam credere mundi
 exitiale aliquod tempus clademque manere,
 cum uideant tantam terrarum incumbere molem!
 Quod nisi respirent uenti, <uis> nulla refrenet
 res neque ab exitio possit reprehendere euntis;
 nunc quia respirant alternis inque graescunt
 et quasi collecti redeunt ceduntque repulsi,
 saepius hanc ob rem miniatur terra ruinas
 quam facit; inclinatur enim retroque recellit
 et recipit prolapsa suas inpondera sedes.
 Hac igitur ratione uacillant omnia tecta,
 summa magis mediis, media imis, ima perhilum.
 Est haec eiusdem quoque magni causa tremoris,

harri murgilduak iraulkatzen dituen. Izateak berak eskatzen baitu
 lurak alde guztietan bere buruaren berdina izan behar duela.
 Argitasun hauek aintzat eta ontzat emanik, beraz, hondamen handiek
 astinduriko lurak azalean dardar egiten du, denborak azpiko haitzulo
 izugarriak hondoratzen dituen; izan ere, mendi osoak amiltzen dira
 eta, bat-bateko zartada itzelaren ondorioz, ikarak urrunera zabaltzen
 dira. Eta beharko, bide ondoko etxeak ere osorik dardaratzen baitira
 hain pisu handikoak ez diren gurdien pasaeran; eta ez dira gutxiago
 dardaratzen, bideko harkozkoek gurpilen uztai burdinazkoak jotzen
 dituztenean. Baita gertatzen da ezen, denborarekin lur puska itzel bat
 lurpeko aintzira handi eta zabaletara trumilkatzen denean, zorua ina-
 rrosten dela uraren tirainez; batzuetan edontziak ere geldi egon ezin
 duen bezala, barruko likidoak uhin ez baitiz mugitzeari uzten ez badio.
 Gainera, lurpeko haitzuloetan baturiko haizeak une bakarrera oldar-
 tzen eta horma garaietan indar osoz kokaturik jotzen duenean, lurra
 haizearen indarrak sakatzen dion lekurantz makurtzen da: orduan zoru
 hartan eraikita dagozen etxeek eta batez ere zerurantz gehien luzatzen
 direnek okertu eta bertarantz jausteko mehatxu egiten dute eta zuta-
 beak aurrerantz kulunkatzen, aldegitoko prest. Eta oraindik zalantzan
 dagoz mundu handiaren izaerari suntsialdia eta hondamena datorkio-
 la sinesteko, hain lur masa itzela bilin-balan ikusita! Zeren, haizeak
 baretuko ez balira, ezein indarrek ezingo lituzke gauzak galgatu ez
 suntsibidetik libratu; baina haizeak aldizka baretzen eta sumintzen
 direnez eta biltzean berriz jotzen eta, jarkitzen zaienean, atzera egiten
 dutenez, lurak maizago egiten du hondatzea mehatxu, hondatzen den
 baino; lehenik alboratzen eta gero zutitzen da eta, okertutakoan, bere
 orekara eta egoitzara itzultzen da. Honelaxe balantzatzen dira, bada,
 etxe guztiak, goia erdialdea baino gehiago, erdialdea behea baino, eta
 behea oso gutxi.

Oraindik badago dardara handion beste kausa bat: haize eta
 aire masa handi bat, kanpotik edo lur barrutik sortua, lurpeko hutsu-

uentus ubi atque animae subito uis maxima quaedam
 aut extrinsecus aut ipsa tellure coorta
 in loca se caua terrai coniecit ibique
 speluncas inter magnas fremit ante tumultu
 uersabunda<que> portatur, post incita cum uis
 exagitata foras erumpitur et simul altam
 diffidens terram magnum concinnat hiatum. 580
 In Syria Sidone quod accidit et fuit Aegi
 in Peloponneso, quas exitus hic animai
 disturbat urbes et terrae motus obortus.
 Multaque praeterea ceciderunt moenia magnis
 motibus in terris et multae per mare pessum
 subsedere suis pariter cum ciuibus urbes. 590
 Quod nisi prorumpit, tamen impetus ipse animai
 et fera uis uenti per crebra foramina terrae
 dispertitur ut horror et incutit inde tremorem;
 frigus uti nostros penitus cum uenit in artus,
 concutit inuitos cogens tremere atque mouere. 595
 Ancipiti trepidant igitur terrore per urbis,
 tecta superne timent, metuunt inferne cauernas
 terrai ne dissoluat natura repente,
 neu distracta suum late dispandat hiatum
 idque suis confusa uelit complere ruinis. 600
 Proninde licet quamuis caelum terramque reantur
 incorrupta fore aeternae mandata saluti;
 et tamen interdum praesens uis ipsa pericli
 subdit et hunc stimulum quadam de parte timoris,
 ne pedibus raptim tellus subtracta feratur 605
 in barthrum rerumque sequatur prodita summa
 funditus et fiat mundi confusa ruina.

 Principio mare mirantur non reddere maius
 naturam, quo sit tantus decursus aquarum,
 omnia quo ueniant ex omni flumina parte. 610
 Adde uagos imbris tempestatesque uolantes,
 omnia quae maria ac terras sparguntque rigantque;
 adde suos fontis; tamen ad maris omnia summam
 guttai uix instar erunt unius adaugmen;

neetan zehar oldartzen eta han, haitzulo handien artean, lehenik urru-
 maka eta amorruez alde guztietarantz biratzen denekoa eta gero, bor-
 txaz inarrosia, kanporantz lehertzen eta, lurra barrutik kraskaturik,
 leize handi bat irekitzen duenekoa. Hauxe gertatu zen Siriako Sidonen
 eta Peloponesoko Egion, honelakoxe haize erauntsiak eta ondorengo
 lurrikarak suntsitutako hiriak eurok. Beste hamaika harresi ere jausi
 izan da lurrikara handietan, eta hamaika hiri hondoratu itsasoan, bizi-
 lagun eta guzti. Eta nahiz eta kanporantz lehertu ez, haizearen oldarra
 bera eta bere eraso ohila lurraren zulo ugarietan zehar hedatzen da,
 dardararen ondorengo izua bezala; hotza lohadarretan sartzen eta
 astintzen gaituenean bezala, gogoz kontra dardar eta jauzi eraginez.
 Horrelakoxe izu bikoitzak jotzen ditu hiriak ere; beldurretan dagoz
 sabaiak noiz eroriko, naturak lurpeko haitzuloan noiz bat-batean hon-
 datuko, edo, zatiturik, bere leize zabala ez ote dien irekiko eta euren
 buruen hondakinekin ez ote dituen nahastu nahi izango. Horregatik,
 nahizta zero-lurrak ustelgaitzak eta betiko osasunez hornituak direla
 sinestu, hala ere, batzuetan arriskuaren oraingo bortxak berak atze-
 maten ditu eta han edo hemen beldurraren eztena sartzen die, lurra ez
 ote zaien, oinpetik aldendurik, leizean hondoratuko eta gauzadi eus-
 karri gabetuak ez ote dion jarraituko eta mundua hondakin pilo bihur-
 tuko.

Lehenik, harritzen dira naturak itsasoari handitzen uzten ez
 diolako, hain ur etorri handia izanik eta ibai guztiek alde guztietatik
 bertara jorik. Erants horri euri deslaidak eta ekaitz hegalariak, itsas-
 lehor guztiak ureztatzen eta blaitzen dituztenak; erants bere iturri pro-

quo minus est mirum mare non augescere magnum. 615
 Praeterea magnam sol partem detrahit aestu.
 Quippe uidemus enim uestis umore madentis
 exsiccare suis radiis ardentibu solem:
 at pelage multa et late substrata uidemus.
 Proinde licet quamuis ex uno quoque loco sol 620
 umoris paruam delibet ab aequore partem;
 largiter in tanto spatio tamen auferet undis.
 Tum porro uenti quoque magnam tollere partem;
 umoris possunt uerrentes aequora, uentis
 una nocte uias quoniam persaepe uidemus 625
 siccari mollisque luti concreescere crustas.
 Praeterea docui multum quoque tollere nubes
 umorem magno conceptum ex aequore ponti
 et passim toto terrarum spargere in orbi,
 cum pluit in terris et uenti nubila portant. 630
 Postremo quoniam raro cum corpore tellus
 est, et coniunctast, oras maris undique cingens,
 debet, ut in mare de terris uenit umor aquai,
 in terras itidem manare ex aequore salso:
 percolatur enim uirus, retroque remanat 635
 materies umoris et ad caput amnibus omnibus
 confluit, inde super terras redit agmine dulci
 qua uia secta semel liquido pede detulit undas.

 Nunc ratio quae ist, per fauces montis ut Aetnae 640
 expirent ignes interdum turbine tanto,
 expediam: neque enim mediocri clade coorta
 flammea tempestas Siculum dominata per agros
 finitimis ad se conuertit gentibus ora,
 fumida cum caeli scintillare omnia templa 645
 cernentes pauida complebant pectora cura,
 quid moliretur rerum natura nouarum.
 Hisce tibi in rebus lateste alteque uidendum
 et longe cunctas in partis dispiciendum,
 ut reminiscaris summam rerum esse profundam
 et uideas caelum summam totius unum 650
 quam sit paruula pars et quam multesima constet

pioak; hala ere, itsasoaren kopuru osoaren aldean, ekarri horien denen batura apenas den tantatxo bat; ez da harritzekoa, beraz, hain itsaso handia ez handiagotzea. Gainera, eguzkiaren beroak zati handia kentzen dio. Bere izpi sutsuak ez ditugu alferrik ikusten ura darien arropak lehortzen; bere azpian itsaso asko eta zabalak ikusten ditugu. Beraz, eguzkiak itsasoaren une bakoitzean ur xorta bat besterik xurgatzen ez badu ere, hainbesteko hedaduran asko kendu behar die uhinnei. Gero itsasoa ekortzen duten haizeek ere likido mordoa eraman dezakete, maiz ikusten baitugu haizeek gau bakarrean bideak hehortzen eta lokatz biguna azal-gogortzen dutela. Baita azaldua dut hodeiek ere ur pilo handia eroaten dutela, itsas lautada zabaletik hartu eta gero lurbira guztian isurtzen dutena, lehorrean euria egiten eta haizeek hodeiei sakatzen dietenean. Azkenik, lurraren gorputza poroduna denez eta itsasoa ukitzen eta nonahitik inguratzen dagoenez, lehorreko urak itsasora doazen bezala, lautada gazitik lehorrean ere berdin joan behar dute, mingostasuna iragazita, eta gero likido kopurua atzerantz erioten eta dena ibaiburuetan biltzen da, handik lur gainetara itzultzen da jario gozoan, eta uhinak berriz itsasorantz jaisten dira, behinola euren ibilera likidoan irekitako bidetik.

Orain Etna mendiaren ahotik batzuetan suzko zirimolak zergatik hasgoratzen diren azalduko dut: ez baitzen nolana hiko hondamena izan, Siziliako lurraldeetan sortu eta nagusiturik, auzo herrietako begiak erakarri zituen su ekaitza, ortzi sabai ketsu guztiak txinpartatzen ikusirik, bularretan kezka izutua sartu zitzaizenean, gauzen izaerak zer matxinada ote zekarren.

Gai honi zabal eta sakon begiratu behar zaio eta alde guztiak ondo aztertu; gogoratu behar duzu gauzadia amaigabea dela eta konturatu ortzia izadi osoaren zatitxo bat, guztiaren milakagarrena besterik ez dela, gizaki bakarra lur osoarentzat baino gutxiago. Hau begi aurrean argi jarri eta argi ikusiz gero, gauza asko ez zaizkizu harriga-

nec tota pars, homo terrai quota totius unus.
 Quod bene propositum si plane contueare
 ac uideas plane, mirari multa relinquo. 655
 Numquis enim nostrum miratur siquis in artus
 accepit calido febrim feruore coortam
 aut alium quemuis morbi per membra dolorem?
 Opturgescit enim subito pes, arripit acer
 saepe dolor dentes, oculos inuadit in ipsos, 660
 existit sacer ignis et urit corpore serpens
 quamcumque arripuit partim, repitque per artus,
 nimirum quia sunt multarum semina rerum,
 et satis haec tellus morbi caelumque mali fert,
 unde queat uis immensi procreare morbi. 665
 Sic igitur toti caelo terraeque putandumst
 ex infinito satis omnia suppeditare,
 unde repente queat tellus concussa moueri
 perque mare ac terras rapidus percurrere turbo,
 ignis abundare Aetnaeus, flammescere caelum;
 id quoque enim fit et ardescunt caelestia templa 670
 et tempestates pluuias grauiore coortu
 sunt, ubi forte ita se tetulerunt semina aquarum.
 «At nimis est ingens incendi turbidus ardor.»
 Scilicet et fluuius qui uisus maximus ei
 qui non ante aliquem maiorem uidit, et ingens 675
 arbor homoque uidetur, et omnia de genere omni
 maxima quae uidit quisque, haec ingentia fingit,
 cum tamen omnia cum caelo terraque marique
 nil sint ad summam summae totius omnem.
 Nunc tamen illa modis quibus inritata repente 680
 flamma foras uastis Aetnae fornacibus efflet,
 expedit. Primum totius sub caua montis
 est natura, fere silicem suffulta cauernis.
 Omnibus est porro in speluncis uentus et aer
 Ventus enim fit, ubi est agitando percitus aer. 685
 Hic ubi percaluit calefecitque omnia circum
 saxa furens, qua contingit, terramque, et ab ollis
 excussit calidum flammis uelocibus ignem,
 tollit se ac rectis ita faucibus eicit alte.

rri egingo. Gutariko nor harritzen da, izan ere, norbaitek gorputzean
 sukarraren irakina hartzen badu edo lohadarretan beste edozein gai-
 tzen mina zabaltzen bazaio? Oina tanpez handitzen zaizu, haginak
 min zorrotzak hartzen eta begiak ere inbaditzen dizkizu, harregosia
 gorputz osoan zabaltzen eta lohadarrik lohadar berritzen zaizu, eta ez
 da mirari, deneriko haziak baitaude eta lur honek eta ortziak nahikoa
 gaixotasun eta gaitz ematen baitute, hauetatik nahi beste gaixotasun
 gara dadin. Zeru-lurrek, beraz, infinitutik behar den guztia hartzen
 dutela pentsatu behar da, lurra bat-batean ikaran astintzeko eta itsas-
 lehorretan haizete indartsua kurriarazteko, Etnan sua gainezkatzeko
 eta zerua garreztatzeko; hau ere gertatzen baita, eta orduan zeru
 sabaia suhartzen du eta euri ekaitzak indartsuago abiatzen dira, ur
 haziak honela pilatu direnean. «Sute honen berotasun gartsua itzele-
 gia da, oster!» Egia. Ibaia ere eskergea iruditzen zaio inoiz handiago-
 rik ikusi ez duenari, eta zuhaitzak eta gizakiak ere izugarriak dirudite
 eta arlo guztietan bakoitzak handien ikusi dituenak eskergetzat ohi
 dauzka, nahiz eta gauza guztiak, zeru-lurrak eta itsasoa barne, izadi
 osoaren batura totalaren aldean ezer ez izan.

Hala ere, bat-batean suminduriko garra Etnako labe handieta-
 tik nola kanporatzen den azalduko dizut. Lehenik, mendi osoa barru-
 tik huts dago, silizezko haitzuloetan kokatua, hain zuzen. Harpe guz-
 tiok haizez eta airez beterik dagoz gainera, aire astindua mugitzean,
 haizea sortzen baita. Hau, gori eta sumin, ukitzen dituen inguruko
 haitz guztiak eta lurra ere berotu duenean, eta haietatik suaren gar biz-
 korrak atera dituenan, altxatzen da eta mendiaren ahutz zuzenetatik

Fert itaque ardorem longe longeque fauillam
differt et crassa uoluit caligine fumum
extruditque simul mirando pondere saxa;
ne dubites quin haec animai turbida sit uis.
Praeterea magna ex parti mare montis ad eius
radices frangit fluctus aestumque resorbet.
Ex hoc usque mari speluncae montis ad altas
perueniunt subter fauces. Hac ire fatendumst

* * *

et penetrare mari penitus res cogit aperto
atque efflare foras ideoque extollere flammam
saxaque subiectare et harenae tollere nimbos.
In summo sunt uertice enim crateres, ut ipsi
nominant; nos quod fauces perhibemus et ora.

Sunt aliquot quoque res quarum unam dicere causam
non satis est, uerum pluris, unde una tamen sit;
corpus ut exanimum siquod procul ipse iacere
conspicias hominis, fit ut omnis dicere causas
conueniat leti, dicatur ut illius una;
nam neque eum ferro nec frigore uincere possis
interiisse neque a morbo neque forte ueneno,
uerum aliquid genere esse ex hoc quod contigit ei
scimus. Item in multis hoc rebus dicere habemus.

Nilus in aestatem crescit campisque redundat
unicus in terris, Aegypti totius amnis.
Is rigat Aegyptum medium per saepe calorem,
aut quia sunt aestate aquilones ostia contra,
anni tempore eo qui etesiae esse feruntur,
et contra fluuium flantes remorantur et undas
cogentes sursus replent coguntque manere.
Nam dubio procul haec aduerso flabra feruntur
flumine, quae gelidis ab stellis axis aguntur;
ille ex aestifera parti uenit amnis ab austro,
inter nigra uirum percocto saecla colore
exoriens penitus media ab regione diei.

gorantz erasotzen du. Horrela sua urrun botatzen du eta hautsa leku-
tara zabaltzen eta belztasun zarratuko kea iraulkatzen du eta aldi bere-
an pisu izugarriko haitzak jaurtitzen; ez izan dudarik hainbestekoxe
bafada trumiltsua dela. Gainera, itsasoak luze-zabal olatuak mendi
barrenaren kontra apurtzen eta birxurgatzen ditu. Itsasertz honetatik
mendiaren haitzuloak krater garaiaren azpiraino luzatzen dira. Haizea
hemendik pasatzen dela pentsatu behar da

* * *

eta berezko indarrak itsaso zabaletik barru-barrura sarrarazten
eta gero kanpora exhalatzen du eta horrela garra jasotzen, haitzak
gorantz jaurtitzen eta hondar lainoak altxatzen ditu. Goren erpinean
kraterrek baitaude, eurek deitzen dietenez; guk, berriz, zintzurak eta
ahoak esaten dugu.

Badira baita fenomeno batzuk, zeintzuentzat ez den nahikoa
kausa bakarra aipatzea, batzuk baizik, nahiz eta bakarra izan egiaz-
koa; gizakume baten gorputz bizigabea urrundik ikusten baduzu,
heriotzaren kausa guztiak jo behar dituzu, eurotako bakarra asmatze-
ko; ezingo zenuke burdinaz, hotzez, gaixotasunez edo pozoinez hil
zenik frogatu, baina badakigu horrelakoxe istripuren bat gertatu zaio-
la. Beste kasu askotan ere horixe esan ohi dugu.

Egipto guztiaren ibai Nilo da munduan bakarra udan hazten eta
lurrak bainatzen dituen. Hark Egipto berorik handienera ureztatzen
du, beharbada akiloiek, haize etesioak deritzen urtaroan, ibai-ahoen
kontra putz egiten dutelako eta, urez kontra eginez, galgatzen eta, uhi-
nei atzerantz eraginez, ibaia betetzen eta gelditzen dutelako. Argi bai-
tago poloko konstelazio izoztuetatik datozen haizeok ibaiaz kontra
dihardutela; ibai hura iparretik, beroaldetik dator, erre koloreko giza
enda beltzen artean oso urrun, eguerdi aldean sortua. Hondar multzo

Est quoque uti possit magnus congestus harenae
 fluctibus aduersis oppilare ostia contra, 725
 cum mare permotum uentis ruit intus harenam;
 quo fit uti pacto liber minus exitus amnis
 et procliuis item fiat minus impetus undis.
 Fit quoque uti pluuiæ forsā magis ad caput ei
 tempore eo fiant, quo etesia flabra aquilonum 730
 nubila coniciunt in eas tunc omnia partis.
 Scilicet ad mediam regionem eiecta diei
 cum conuenerunt, ibi ad altos denique montis
 contrusæ nubes conguntur uique premuntur.
 Forsitan Aethiopum penitus de montibus altis 735
 crescat, ubi in campos albas descendere ningues
 tabificis subigit radiis sol omnia lustrans.

Nunc age, Auerna tibi quæ sint loca cumque lacusque
 expediam, quali natura prædita constent.
 Principio, quod Auerna uocantur nomine, id ab re 740
 inpositumst, quia sunt auibus contraria cunctis,
 e regione ea quod loca cum uenere uolantes,
 remigii oblitæ pennarum uela remittunt
 præcipitesque cadunt molli ceruice profusæ
 in terram, si forte ita fert natura locorum, 745
 aut in aquam, si forte lacus substratus Auerni.
 Is locus est Cumas apud, acri sulphure montes
 oppleti calidis ubi fumant fontibus aucti.
 Est et Athenæis in moenibus, arcis in ipso
 uertice, Palladis ad templum Tritonidis almae, 750
 quo numquam pennis appellunt corpora raucae
 cornices, non cum fumant altaria donis;
 usque adeo fugitant non iras Palladis acris
 peruigili causa, Graium ut cecinere poetæ,
 sed natura loci opus efficit ipsa suapte. 755
 In Syria quoque fertur item locus esse uideri,
 quadripedes quoque quo simul ac uestigia primum
 intulerint, grauiter uis cogat concidere ipsa,
 manibus ut si sint diuis mactata repente.
 Omnia quæ naturali ratione geruntur, 760

handi batek ibai-ahoak ixtea eta uholari kontra egitea ere baliteke, hai-
 zeek irabiatu-iriko itsasoak ibai barrurantz hondarra jaurtitzean; horrek
 ibaiaren irteera hain librea ez izatea dakar eta aldasbehera txikiagoan
 uhinen indarra makaltzen du. Baliteke urtaro honetan euriak ibaibu-
 ruan mamiagoak izatea ere, akiloien putz etesioek hodei guztiak alde
 haietarantz batzen dituztelako. Eta, jakina, eguerdi alderantz sakatu-
 rik, denek han bat egiten dutenean, mendi garaiak jo eta haien kontra
 lehertzen dira. Beharbada urak etiopiar mendi garaien barruan handi-
 tuko dira, eguzki oro-argitzaileak bere errainuen berotzen dituen
 elur zuriak zelaietara jaisten direnean.

Orain leku eta laku abernoak zer diren eta nolako izaera dau-
 katen azalduko dizut. Lehenik, «aberno» deitura txori mota guztien-
 tzat galgarri izatetik jarri zaio, zeren, inguru horretara hegan helduta-
 koan, hegoei eragitea ahazturik, belak jaisten dituzte eta, lepabigun,
 buruz behera lurrera jausten dira, lekua halakoa bada, edo uretara,
 azpian Abernoko lakua badago. Honelakoxea da Kumas ingurua, non
 mendiak ketan dagozen, sufre biziz beterik eta iturri berotzen horniturik.
 Atenasko harresi barruan ere badago, gotorlekuaren gailurrean bertan,
 Tritoniar Palas elikatzailearen tenplu ondoan, norantz belabeltz erla-
 tsek inoiz ez duten hegorik gidatzen, ezta aldareetan opariak ketan
 dagozenez ere; hain betean ihes egiten dute handik; ez euren zaintze
 lanak Palasi eman omen zion haserre biziagatik, greziar poetek abes-
 tu zuten, lekuaren izaerak berak ondorio hori berez dakarrelako bai-
 zik. Antzeko lekua dagoela dirudi Sirian ere, non lauhankakoak, oinak
 lurrean ipiniz batera, lurraren indarrak berak blaust erorrazten
 dituen, jainko maneei bat-batean sakrifikuak bailiran. Hauek guz-

et quibus e fiant causis apparet origo;
 ianua ne pote eis Orci regionibus esse
 credatur, post hinc animas Acheruntis in oras
 ducere forte deos manis inferne reamur,
 naribus alipedes ut cerui saepe putantur
 ducere de latebris serpentina saecla ferarum.
 Quod procul a uera quam sit ratione repulsum
 percipe; nam de re nunc ipsa dicere conor.
 Principio hoc dico, quod dixi saepe quoque ante,
 in terra cuiusque modi rerum esse figuras;
 multa, cibo quae sunt, uitalia, multaue, morbos
 incutere et mortem quae possint adcelerare.
 Et magis esse aliis alias animantibus aptas
 res ad uitai rationem ostendimus ante
 propter dissimilem naturam dissimilisque
 texturas inter sese primasque figuras.
 Multa meant inimica per auris, multa per ipsas
 insinuant naris infesta atque aspera tactu,
 nec sunt multa parum tactu uitanda neque autem
 aspectu fugienda saporeque tristia quae sint.
 Deinde uidere licet quam multae sint homini res
 acriter infesto sensu spurcaequae grauesque;
 arboribus primum certis grauis umbra tributa
 usque adeo, capitis faciant ut saepe dolores,
 siquis eas subter iacuit prostratus in herbis.
 Est etiam magnis Heliconis montibus arbor
 floris odore hominem taetro consueta necare.
 Scilicet haec ideo terris ex omnia surgunt,
 multa modis multis multarum semina rerum
 quod permixta gerit tellus discretaque tradit.
 Nocturnumque recens extinctum lumen ubi acri
 nidore offendit nares, consopit ibidem,
 concidere et spumas qui morbo mittere sueuit.
 Castoreoque graui mulier sopita recumbit
 et manibus nitidum teneris opus effluit ei,
 tempore eo si odoratast quo menstrura soluit.
 Multaque praeterea languentia membra per artus
 soluunt atque animam labefactant sedibus intus.

765

770

775

780

785

790

795

tiok berezko arrazoiz gertatzen dira, eta arrazoion sorrera bistan dago; ez pentsa leku hauetan infernuko aterik egon daitekeenik eta gero handik jainko maneek arimei Akeronteko bazterretara tiratzen dietenik, orein hego-oindunek, sudurren bitartez, narraztiak gordelekuetatik irtenarazten dituztela sinestu ohi denez. Ohar zaitez hau egiazko arrazoitik zein urrun dagoen; orain errealitateaz hitz egin nahi baitut.

Lehenik, aurrerago sarritan esana diot, hots, lurrean gauza mota guztien figurak dagozela; asko janariak, bizi emaileak, eta asko gaixotasunak ekartzeko eta heriotza azkartzeko gauza direnak. Batzuk lehen azaldu dugu animalia batzuei, bizirauteko, hobeto datozkiela, euren izaera, egitura eta lehen figura ezberdinengatik. Kaltegarri diren asko belarrietatik sartzen dira, beste asko, arriskutsuak eta ukitzeko latzak, sudurretatik bertatik barnatzen dira eta ez dira gutxi, ukitzea ekidin eta ikustetik ihes egin beharrekoak edo zapore higuigarrikoak.

Gainera, ikustekoa da zenbat gauza dagoen, gizakumeari guztiz garratz, nazkagarri eta makur zaiona; lehenik, zenbait zuhaitzek hain geriza gaiztoa daukate, ezen sarritan buruko mina ekartzen baitute, inor haren azpiko belarrean etzaten bada. Helikongo mendi handietan ere ba ei da zuhaitz bat bere loreen hats higuigarritz gizakumea hil dezakeena. Argi dago hauek guztiak lurretik sortzen direla, lurra era askotara nahasturiko gauza askoren haziak dauzkalako eta banan-banan ateratzen dituelako. Eta gauez kriseilu itzungi berriak, sudurra atzematen duenean, jausi eta bitsa botatzeko gaixoa daukana loarazten du. Emakumea kastore-gantz astunaren pean loguraturik etzaten da eta esku samurretatik lan bikaina lerratzen zaio, hilekoaren barruan usandu baldin badu. Gauza asko dira lohadarrak moteltzen eta zora-biatzen dituztenak eta gogoa bere barrunbean indargatzen dutenak.

Denique si calidis etiam cunctere lauabris
 plenior et fueris, solio feruentis aquai 800
 quam facile in medio fit uti des saepe ruinas!
 Carbonumque grauis uis atque odor insinuatur
 quam facile in cerebrum, nisi aquam praecepimus ante!
 At cum membra domans percepit feruida febris,
 tum fit odor uini plagae mactabilis instar. 805
 Nonne uides etiam terra quoque sulphur in ipsa
 gignier et taetro concresecere odore bitumen;
 denique ubi argenti uenas auri que sequuntur,
 terrai penitus scrutantes abdita ferro,
 qualis expiret Scaptensula subter odores? 810
 Quidue mali fit ut exhalent aurata metalla!
 Quas hominum reddunt facies qualisque colores!
 Nonne uides audisue perire in tempore paruo
 quam soleant et quam uitai copia desit,
 quos opere in tali cohibet uis magna necessis? 815
 Hos igitur tellus omnis exaestuatur aestus
 expiratque foras in apertum promptaque caeli.
 Sic et Auerna loca alitibus summittere debent
 mortiferam uim, de terra quae surgit in auras,
 ut spatium caeli quadam de parte uenenet;
 quo simul ac primum pennis delata sit ales,
 impediatur ibi caeco correpta ueneno,
 ut cadat e regione loci, qua derigit aestus.
 Quo cum conruit, hic eadem uis illius aestus 825
 reliquas uitae membris ex omnibus aufert.
 Quippe etenim primo quasi quendam conciet aestum;
 posterius fit uti, cum iam cecidere ueneni
 in fontis ipsos, ibi sit quoque uita uomenda
 propterea quod magna mali fit copia circum.
 Fit quoque ut interdum uis haec atque aestus Auerni 830
 aera, qui inter auis cumquest terramque locatus,
 discutiat, prope uti locus hic linquatur inanis.
 Cuius ubi e regione loci uenere uolantes,
 claudicat extemplo pinnarum nesus inanis
 et conamen utrimque alarum proditur omne. 835
 Hic ubi nixari nequeunt insistereque alis,

Azkenik, jan-jan eginda, bainu beroan luzaroegi bazagoz, laster galduko duzu konortea bainuontziko ur irakinetan! Sukar goriak gorpuzta menperatu duenean, ostera, ardoaren usain hutsa ere kolpe hilgarria bezalatsu da. Ez al dakusu sufrea lur berean sortzen eta usain zantarreko betuna ere bertan gogortzen dela? Azkenik, zilar eta urre zainak diren lekuan, lurraren azpialdeak burdinaz arakutzen direnean, nolako usainak zabaltzen dira Eskaptensularen barrenetik? Bai hats gaiztoak darizkiela urre meatzeei! Nola aldatzen diren gizakien aurpegiak eta koloreak! Ez al duzu ikusi edo entzun nola premia gorriak lan hauetara behartu dituenak denbora laburrean hiltzen diren eta zer motza den haien bizia? Bapore guztiok, beraz, lurra hasbeheratzen eta kanporatzen ditu, aire librera eta ortzi zabalera.

Honela, Aberno lekuek lurretik aireratzen den eta zerua halako hehadura batean pozointzen duen lurrun hilgarria bota behar dute hegaztientzat; hegoek hegaztia hara eramanez batera, pozoin ikusgaitzak geldiarazten eta atxikitzen du eta lurruna sortzen den lekurantz zuzen jausten da. Lurra jotakoan, lurrunaren pozoin berak haren gorpuztetik azken bizi hondarrak erauzten ditu. Lehenengotan zorabio antzeko bat eragiten baitu; gero, pozoin iturrian bertan murgildutakotan, bizia ere ok egin behar dute, inguruan halako txarkeria piloa dagoelako.

Baita inoiz gertatzen da Abernoko lurrun eta bafada hauek lurraren eta hegaztien arteko airea ezabatzea ere, inguru ia hutsik uzteraino. Alde horretara hegan datozeneko, bat-batean hego-astintzea moteltzen zaie, berme gabe, eta hego bien ahaleginak alde bietatik huts egiten du. Orduan, sostengatzerik eta hegoekin indar egiterik

scilicet in terram delabi pondere cogit
natura, et uacuum prope iam per inane iacentes
dispergunt animas per caulas corporis omnis.

Frigidor porro in puteis aestate fit umor, 840
rarescit quia terra calore et semina si qua
forte uaporis habet proprie, dimittit in auras
Quo magis est igitur tellus effecta calore,
fit quoque frigidor qui in terrast abditus umor.
Frigore cum premitur porro omnis terra coitque 845
et quasi concrescit, fit scilicet ut coeundo
exprimat in puteos si quem gerit ipsa calorem.

Esse apud Hammonis fanum fons luce diurna
frigidus et calidus nocturno tempore fertur.
Hunc homines fontem nimis admirantur et acri
sole putant subter terras feruescere partim, 850
nox ubi terribili terras caligine textit.
Quod nimis a uerast longe ratione remotum.
Quippe ubi sol nudum contractans corpus aquai
non quierit calidum supera de reddere parte, 855
cum superum lumen tanto feruore fruatur,
qui queat hic supter tam crasso corpore terram
precoquere umorem et calido satiare uaporem?
Praesertim cum uix possit per saepta domorum
insinuare suum radiis ardentibus aestum. 860
Quae ratio est igitur? Nimirum terra magis quod
rara tenet circum fontem quam cetera tellus
multaque sunt ignis prope semina corpus aquai.
Hoc ubi roriferis terram nox obruit undis
extemplo penitus frigescit terra coitque. 865
Hac ratione fit ut, tamquam compressa manu sit,
exprimat in fontem quae semina cumque habet ignis,
quae calidum faciunt laticis tactum atque uaporem.
Inde ubi sol radiis terram dimouit obortus
et rarefecit calido miscente uaporem, 870
rursus in antiquas redeunt primordia sedes
ignis et in terram cedit calor omnis aquai.

ez baitute, naturak, pisua bide, lurra joarazten die eta, hutsune ia tota-
lean dautzala, arima gorputzaren poro guztietatik galtzen dute.

Putzuetako ura ere udan hotzago egiten da, lurra beroaz dilata-
tzen baita, eta halabeharrez bero hazi propiorik baldin badauka, aure-
tara igortzen du. Beraz, lurrak beroa galduko du eta lur barruko ura
hotzago bihurtzen da. Hotzarekin, berriz, lurra estutzean, uzkurtzean
eta nolabait kondentsatzean, bistan da, hori egitean, putzuetan berak
daukan beroa ere esprimitzen duela.

Hammonen tenplu ondoan ba ei dago egunez hozten eta gauez
berotzen den iturri bat. Gizakiak iturri honetaz gehiegi harritzen dira,
eta uste dute eguzki goriak lurraren azpitik irakinazten duela,
gauak lurbira iluntasun beldurgarriz estalitakoan. Hau egiazko arra-
zoitik oso urrun dago. Zeren eguzkiak, uraren gorputz biluzia zuzen-
ki jotzen duenean, gaineko aldetik berotu ezin badu, gaineko argia
hain beroa izanik, nola lezake hain gorputz trinkoko lurraren azpitik
ur bera egos eta halako berotasunik ezar? Batez ere gure etxe hormen
bitartetik bere izpi sutsuen berorik barruratu ezin duenean. Zein da,
beraz, arrazoa? Argi dago lurra iturri inguruan beste lekuetan baino
xumeago dela eta uretik hur su hazi asko dagoela. Honela, gauak bere
ihintzezko uhinez lurra estaltzen duenean, hau bat-batean hozten eta
uzkurtzen da. Horregatik, eskuz estutua bailitzan, dauzkan su hazi
guztiak iturrira esprimitzen ditu, uraren ukitua eta ura bera berotuz.
Gero, eguzki sorberriak bere izpiekin lurra irekitzen eta beroa beron-
nekin nahasiz dilatatzten duenean, suaren lehenkiek antzinako egoi-
tzetara alde egiten dute eta uraren bero guztia lurrera itzultzen da.

Frigidus hanc ob rem fit fons in luce diurna.
Praeterea solis radiis iactatur aquai
umor et in lucem tremulo rarescit ab aestu;
propterea fit uti quae semina cumque habet ignis
dimittat; quasi saepe gelum, quod continet in se,
mittit et exoluit glaciem nodosque relaxat.

875

Frigidus est etiam fons, supra quem sita saepe
stuppa iacit flammam concepto protinus igni,
taedaque consimili ratione accensa per undas
conlucet, quocumque natans inPELLITUR auris.
Nimirum quia sunt in aqua permulta uaporis
semina, de terraque necessest funditus ipsa
ignis corpora per totum consurgere fontem
et simul expirare foras exireque in auras,
non ita multa tamen, calidus queat ut fieri fons;
praeterea dispersa foras erumpere cogit
uis per aquam subito sursumque ea conciliari.
Quod genus endo marist Aradi fons, dulcis aquai
qui scatit et salsas circum se dimouet undas;
et multis aliis praebet regionibus aequor
utilitatem opportunam sitientibu nautis,
quod dulcis inter salsas interuomit undas.
Sic igitur per eum possunt erumpere fontem
et scatere illa foras, in stuppam semina quae cum
conueniunt aut in taedai corpore adhaerent,
ardescunt facile extemplo, quia multa quoque in se
semina habent ignis stuppae taedaeque tenentes.
Nonne uides etiam, nocturna ad lumina linum
nuper ubi extinctum admoueas, accendier ante
quam tetigit flammam, taedamque pari ratione?
Multaque praeterea prius ipso tacta uapore
eminus ardescunt quam comminus imbuat ignis.
Hoc igitur fieri quoque in illo fonte putandumst.

880

885

890

895

900

905

Quod superest, agere incipiam quo foedere fiat
naturae, lapis hic ut ferrum ducere possit,
quem Magneta uocant patrio de nomine Grai,

Honegatik iturria hoztu egiten da egunez. Gainera, ura, eguzki izpiek
joa, egunez bero tremuloan dilatatzten da; horregatik dauzkan su hazi
guztiei jareiten die; sarritan barruan daroan jela uzten, izotza hausten
eta korapiloak laxotzen dituen bezala.

Baita badago iturri hotz bat, bere gainean amukoa ipiniz gero,
isiotzen eta garra egiten duena; zuzia ere bere uhinetan horrelaxe
sutzen eta argitzen da, haizeek aurretan flotarazten dutenean. Argi
dago ur honek bero hazi asko daukala eta lurraren golkotik iturri
osoan zehar kanporatzen eta aireratzen den suzko gorputz askok eto-
rri behar duela, nahiz eta ez iturria berotzeko beste; gainera indar
batek, uretan zehar sakabanaturik, kanporantz ihes egitera eta berriro
han elkartzera behartzen ditu.

Itsaso barruan honelakoxea da Aradosko iturria ere, ur geza
erioten eta inguruko uhin gaziak alboratzen dituen; eta itsasoak beste
hainbat lekutan eskaintzen die marinel egarrituei behar duten onura,
gazien artean uhin gezak ok eginez. Honela, bada, hazi haiek iturri
honetatik isur eta kanpora daitezke, eta haziak, amukoan batzen edo
zuziaren gerriari itsasten zaizkionean, bat-batean aisa isiotzen dira,
amukoak eta zuziak berez ere su hazi asko daukatelako. Ez al dakusu,
halaber, liho itzungi berria kriseilura hurreratzean, nola garrari ukitu
aurretik isiotzen den, eta berdin zuzia ere? Beste gauza asko ere isio-
tzen dira urrundik, garra hurretik barruratu aurretik. Iturri hartan ere
hauxe gertatzen dela pentsatu behar da.

Aurrera jorik, azaltzera noa zer natur legek egiten duen burdi-
na harriak erakar dezan, grekoek bere jatorri izenez magnetikoa dei-
tzen dioten harria, Magnesiar laterrikoa omen baita. Gizakumeei harri

Magnetum quia sit patriis in finibus ortus.
Hunc homines lapidem mirantur; quippe catenam
saepe ex anellis reddit pendentibus ex se. 910
Quinque etenim licet interdum plurisque uidere
ordine demisso leuibus iactarier auris,
unus ubi ex uno dependet supter adhaerens
ex alioque alius lapidis uim uinclaue noscit: 915
usque adeo permanenter uis perualet eius.
Hoc genus in rebus firmandumst multa prius quam
ipsius rei rationem reddere possis,
et nimium longis ambagibus est adeundum; 920
quo magis attentas auris animumque reposco.

Principio omnibus ab rebus, quascumque uidemus,
perpetuo fluere ac mitti spargique necessest
corpora quae feriant oculos uisumque lacessant:
perpetuoque fluunt certis ab rebus odores;
frigus ut a fluuis, calor ab sole, aestus ab undis 925
aequoris exesor moerorum litora propter;
nec uarii cessant sonitus manare per auras;
denique in os salsi uenit umor saepe saporis,
cum mare uersamur propter, dilutaque contra 992
cum tuimur misceri absinthia, tangit amaror. 934
Usque adeo omnibus ab rebus res quaeque fluenter 935
fertur et in cunctas dimittitur undique partis 930
nec mora nec requies interdatur ulla fluendi,
perpetuo quoniam sentimus, et omnia semper
cernere odorari licet et sentire sonare. 933

Nunc omnes repetam quam raro corpore sint res 936
commemorare; quod in primo quoque carmine claret:
quippe etenim, quamquam multas hoc pertinet ad res
noscere, cum primis hanc ad rem protinus ipsam,
qua de disserere adgredior, firmare necessest 940
nil esse in promptu nisi mixtum corpus inani.
Principio fit ut in speluncis saxa superna
sudent umore et guttis manantibu stillent.
Manat item nobis e toto corpore sudor,

hau harrigarri zaie; sarritan katea osatzen baitu bertatik eskegitako eraztunekin. Batzuetan bost eta gehiago ere ikusten dira, aura leunetan balantzaka, bata bestetik dingiliz eta azpitik itsatsita, harriaren indarra elkarri pasatuz: hain sarkor nagusitzen da bere indarra.

Honelako fenomenoetan gauza asko finkatu behar da, bere arrazoia eman ahal izateko, eta itzulinguru luzez oratu behar zaio; horregatik belarri eta gogo erneak eskatzen ditut.

Lehenik, ikusten ditugun gauza guztietatik, begiak jotzen eta ikusmena pizten duten gorputzek etengabe erion behar dute eta igorriak eta hedatuak izan. Gauza batzuk usaina zabaltzen eta zabaltzen ari dira; ibaiei freskotasuna, eguzkiari beroa eta itsas uhinei kosta inguruan hormak jaten dituen kresala darien bezala; eta airean hots ezberdinak sortzen eta sortzen ari dira. Azkenik, itsasotik hur gagozanean, sarritan zapore gaziko hezetasuna ahoratzen zaigu eta, absenta edaria nahasten ikusten badugu, mingostasuna nabari dugu. Hainbestearino isurtzen eta zabaltzen dira jarioak gauza guztietatik noranahi eta isurtze honetan ez dago atsedetik ez etenik, etengabe senti baitezakegu eta dena beti ikus, usain har eta entzun.

Orain, berriz gogoratzen saiatuko naiz gorputz guztiak zer porotsuak diren, lehen liburuan argi geratu zen baina. Izan ere, hau jakiteak arlo askotarako balio duen arren, orain jorrazera noan gaian behar-beharrezko da ezartzea ezer ez dagoela atzematerik, gorputzen eta hutsuneen nahastea ez bada. Lehenik, haitzuloan goiko harriek hezetasuna izerditzen eta tantak destilatzen dituzte. Geure gorputz osoa ere izerditzen da, bizarra eta biloa lohadar eta organo guztietan

crescit barba pilique per omnia membra, per artus. 945
Diditur in uenas cibus omnis, auget alitque
corporis extremas quoque partis unguiculosque.
Frigus item transire per aes calidumque uaporem
sentimus, sentimus item transire per aurum 950
atque per argentum, cum pocula plena tenemus.
Denique per dissaepa domorum saxea uoces
peruolitant, permanat odor frigusque uaposque
ignis, qui ferri quoque uim penetrare sueuit.
Denique qua circum caeli lorica coercet

* * *

morbida uisque simul, cum extrinsecus insinuat, 955
et tempestates terra caeloque coortae,
in caelum terrasque remotae iure facessunt;
quandoquidem nil est nisi raro corpore nexum.

Huc accedit uti non omnia, quae iaciuntur 960
corpora cumque ab rebus, eodem praedita sensu
atque eodem pacto rebus sint omnibus apta.
Principio terram sol excoquit et facit are,
at glaciem dissoluit et altis montibus altas
extracturas<que> niues radiis tabescere cogit;
denique cera liquefit in eius posta uapore. 965
Ignis item liquidum facit aes aurumque resoluit,
at coria et carnem trahit et conducit in unum.
Umor aquae porro ferrum condurat ab igni,
at coria et carmen mollit durata calori.
Barbigeras oleaster eo iuuat usque capellas, 970
effluat ambrosias quasi uero et nectare tinctus;
quom nil est homini quod amari fronde hac extet.
Denique amaracinum fugitat sus et timet omne
unguentum; nam saetigeris subsus acre ueneumst,
quod nos interdum tamquam recreare uidetur. 975
At contra nobis caenum taeterrima cum sit
spurcicies, eadem subus haec iucunda uidetur,
insatiabiliter toti ut uoluantur ibidem.

zehar hazten dira. Janaria zain guztietan zehar banatzen da eta gorpu-
tzaren alderik bazterrenak elikatzen eta handitzen ditu, baita atzazalak
ere. Hotz-beroak brontzean zehar pasatzen sentitzen ditugu, urrean eta
zilarrean zehar ere pasatzen sentitzen ditugu, edontzi betea eskuan
dakagula. Hitz batez, hotsak etxeen harrizko hormetan zehar hega-
tzen dira, usaina eta hotza eta suaren beroa ere sartzen dira, honek
burdinaren indarra ere barnatu ohi duela. Ortzaren oskolak harrapa-
tzen duen [[espazio guztian...

* * *

lehenkien korrante bat]] eta beronekin indar gaixobera bat
kanpotik sartzen da eta lurretik eta zerutik sortutako ekaitzak, urrun-
tzean, berez-berez desagertzen dira zeruan eta lurrean, ezer ez baita-
go gorputz porotsuz ehoa ez denik.

Erants honi gauzei jareiten zaizkien gorputzak ez direla denak
tasun berekoak eta ez direla edozertarako berdin egokiak. Lehenik,
eguzkiak lurra erretzen eta lehortzen du, izotza, ostera, desegiten, eta
bere errainuekin mendi goretan pilaturiko elurtzak urtzera behartzen
ditu; argizaria ere berotan urtu egiten da. Suak, berriz, brontzea liki-
dotzen eta urrea urtzen du eta larrua eta okela, ostera, txikitzen eta
uzkurtzen. Urak ere sutatik harako burdina gogortzen eta suak gogor-
turiko larrua eta okela beratzen ditu. Ahuntz bizardunei basa-oliba
atsegin zaie, hartatik anbrosia baletor eta nektarrez gantzaturik bale-
go bezala; gizakiontzat, berriz, ez dago haren hostoa baino mingotsa-
gorik. Azkenik, txerriak mendaroari muzin dagio eta lurrin oro gorro-
tu du; zurdatsuentzat pozoin gogorra baita gu batzuetan berpizten bide
gaituena. Guretzat zikinkeriarik higuigarriena den lokatza, ostera,
txerriei zoragarri iruditzen zaie, bertan iraulka ezin nahikotzeraino.

Hoc etiam superest, ipsa quam dicere de re
 adgredior quod dicendum prius esse uidetur. 980
 Multa foramina cum uariis sint reddita rebus,
 dissimili inter se natura praedita debent
 esse et habere suam naturam quaeque uiasque.
 Quippe etenim uarii sensus animantibus insunt,
 quorum quisque suam proprie rem percipit in se; 985
 nam penetrare alio sonitus alioque saporem
 cernimus e sucis, alio nidoris odores.
 [scilicet, id fieri cogit natura uiarum
 multimodis uarians, ut paulo ostendimus ante].
 Praeterea manare aliud per saxa uidetur, 991
 atque aliud lignis, aliud transire per aurum,
 argentoque foras aliud uitroque meare;
 nam fluere hac species, illac calor ire uidetur,
 atque aliis aliud citius transmittere eadem. 995
 Scilicet id fieri cogit natura uiarum
 multimodis uarians, ut paulo ostendimus ante, 997
 propter dissimilem naturam textaque rerum. 990
 Quapropter, bene ubi haec confirmata atque locata 998
 omnia constiterint nobis praeposta parata,
 quod superest, facile hinc ratio reddetur et omnis
 causa patefiet quae ferri pelliciat uim. 1000
 Principio fluere e lapide hoc permulta necessest
 semina siue aestum qui discutit aera plagis,
 inter qui lapidem ferrumque est cumque locatus.
 Hoc ubi inanitur spatium multusque uacefit 1005
 in medio locus, extemplo primorida ferri
 in uacuum prolapsa cadunt coniuncta, fit utque
 anulus ipse sequatur eatque ita corpore toto.
 Nec res ulla magis primoribus <ex> elementis
 indupedita suis arte conexa cohaeret 1010
 quam ualidi ferri natura et frigidus horror.
 Quo minus est mirum, quod ducitur ex elementis,
 corpora si nequeunt e ferro plura coorta
 in uacuum ferri, quin anulus ipse sequatur;
 quod facit, et sequitur, donec peruenit ad ipsum 1015
 iam lapidem caecisque in eo compagibus haesit.

Badago beste kontu bat geure gaiari ekin aurretik argitu beha-
 rrekoa. Gauza ezberdinei poro ugari eman zaienez gero, izaera ezber-
 dinekoak izan behar dute eta bakoitzak bere jitea eta bideak eduki.
 Bizidunek sentimen ezberdinak baitauzkate, zeintzuotako bakoitzak
 bere gai bereziak atzematen dituen bere baitan; hotsa batetik, zukuen
 zaporea bestetik, usaina haragotik sartzen direla ikusten baitugu.
 [[Hau guztia, jakina, hamaika eratako diferentziadun poroen izaerak
 eragiten du, lehentxoago azaldu dugunez]]. Gainera, zenbait gorputz
 harrian, beste batzuk zurean zehar pasatzen direla dirudi; batzuek
 urrea, beste batzuek zilarra zeharkatzen dute, eta beste batzuk beira
 barruan dabilta; honek irudiari, horrek beroari bidea uzten diola eta
 zer bata bestea baino bizkorrago pasatzen dela baitirudi zer beretik.
 Hau guztia, jakina, hamaika eratako diferentziadun poroen izaerak
 eragiten du, lehentxoago azaldu dugunez, gauzen izaera eta ehundura
 ezberdinen arabera.

Horregatik, printzipio guztiok ondo berretsi eta finkaturik, gu
 ere haietarako prest eta prestaturik gagozenez gero, geratzen dena aisa
 esplikatu du eta guztiz argituko da zer den burdina erakartzen
 duen indarra. Lehenik, harri honi hazi asko erion behar zaio, edo hazi
 korronte bat, harri-burdinen artean dagoen airea jo eta aldenduko
 duena. Espazio hau hustu eta bitartean leku handi bat hutsik gelditu
 denean, burdinaren lehenkiak, hutsunerantz tiratuak, bat-batean berta-
 ra oldartzen dira eta gertatzen da eraztuna bera abiatzen eta gorputz
 osoarekin jarraitzen diela. Ez baitago ezer bere lehen elementuak
 estuago eta kohesio handiagoz trabaturik dauzkanik burdinaren izaera
 gogorra eta zurruntasun hotza baino. Horregatik, bere elementuek era-
 mana izanik, gutxiago harritzekoa da zenbait gorputzek burdinatik
 hutsunera ezin ihes egitea, eraztunak berak ere jarraitzen ez badie;
 horixe egiten du eta jarraitzen die, harriraino iritsi eta katea ezkutuz

Hoc fit idem cunctas in partis, unde uacedit
 cumque locus, siue e transuerso siue superne
 corpora continuo in uacuum uicina feruntur;
 quippe agitantur enim plagis aliunde nec ipsa
 sponte sua sursum possunt consurgere in auras. 1020
 Huc accedit item, quare queat id magis esse,
 haec quoque res adiumento, motusque iuuatur,
 quod, simul a fronte est anelli rarior aer
 factus inanitusque locus magis ac uacuatus, 1025
 continuo fit uti qui post est cumque locatus
 aer a tergo quasi prouehat atque propellat. 1033
 Semper enim circumpositus res uerberat aer;
 sed tali fit uti propellat tempore ferrum, 1026
 parte quod ex una spatium uacat et capit in se.
 Hic, tibi quem memoro, per crebra foramina ferri
 paruas ad partis subtiliter insinuatus 1030
 trudit et inpellit, quasi nauem uelaque uentus.
 Denique res omnes debent in corpore habere 1034
 aera, quandoquidem raro sunt corpore et aer 1035
 omnibus est rebus circumdatus adpositusque.
 Hic igitur, penitus qui in ferrost abditus aer,
 sollicito motu semper iactatur eoque
 uerberat anellum dubio procul et ciet intus;
 scilicet, illo eodem fertur quo praecipitauit 1040
 iam semel et partem in uacuum conamina sumpsit.

Fit quoque ut a lapide hoc ferri natura recedat
 interdum, fugere atque sequi consueta uicissim.
 Exultare etiam Samoethracia ferrea uidi
 et ramenta simul ferri furere intus ahenis 1045
 in scaphiis, lapis hic Magnes cum subditus esset;
 usque adeo fugere a saxo gestire uidetur.
 Aere interposito discordia tanta creatur
 propterea quia nimirum prius aestus ubi aeris
 praecepit ferrique uias possedit apertas, 1050
 posterior lapidis uenit aestus et omnia plena
 inuenit in ferro neque habet qua tranet ut ante;
 cogitur offensare igitur pulsareque fluctu

hari atxiki arte. Hau berau alde guztietarantz gertatzen da, lekua hutsik dagoen noranahi; dela alborantz, dela goitik behera, gorputz auzoak hutsunerantz erakarriak dira. Beste aldeko talkek erasotzen baitiete eta euren kabuz ez baitira airean goratzeko gauza. Erants horri, dena errazago izan dadin, lagungarri eta mugiarazle den beste hau ere, hots, eraztunaren aurrean airea xumetu eta lekua hutsik gelditu ahala, atzean lekaturik dagoen aire guztiak sakatu egiten diola eta nolabait aurrera eragiten eta bultzatzen. Inguruko aireak gauzei etengabe erasotzen baitie; baina oraingoan burdinari sakatzen dio, alde batean espazioa hutsik eta hartzeko prest dagoelako. Diotsudan aire honek, burdinaren zirritu ugarietatik zati txiki-txikiataraino sarturik, sakatu eta bultz egiten du, haizeak ontziari eta belei bezala. Azkenik, zer guztiek airea eduki behar dute gorputz barruan, gorputz apatza baitaukate eta aireak zer guztiak inguratzen eta biltzen baititu. Burdinaren barrenean ezkutaturik dagoen aire hau, beraz, mugimendu etengabe astindurik dago, eta dudarik gabe eraztuna barrutik jotzen eta mugiarazten du; alegia, eraztuna lehendik oldartua zen alderantz arrastatua da eta hutsunea betetzen ahalegintzen da.

Batzuetan burdinak harriari alde egitea eta behin erakarria eta behin egotzia izatea ere gertatzen da. Baita ikusia naiz Samotraziako eraztun burdinazkoak jauzika eta burdinaren txirbilak brontzezko edontzietan ezin kabituz, azpian harri magnetikoa ipintzean; harriari ihes egiteko hain larri dirudite. Brontzea tarteratzeak hainbesteko ezin negona sortzen du, dudarik gabe brontzearen jarioak aurea hartzen eta burdinaren zirritu irekiak beragantzen dituelako; gero brontzearen jarioa badator eta burdinan dena beterik aurkitzen du eta ez dauka lehen bezala sartzerik; horrela euren uhinekin burdinazko ehunak

ferrea texta suo; quo pacto respuit ab se
 atque per aes agitat, sine eo quod saepe resorbet. 1055
 Illud in his rebus mirari mitte, quod aestus
 non ualet e lapide hoc alias impellere item res.
 Pondere enim fretae partim stant: quod genus aurum;
 et partim raro quia sunt cum corpore, ut aestus
 peruolet intactus, nequeunt impellier usquam; 1060
 lignea materies in quo genere esse uidetur.
 Interutrasque igitur ferri natura locata
 aeris ubi accepit quaedam corpuscula, tum fit,
 inpellant ut eo Magnesia flumine saxa.
 Nec tamen haec ita sunt aliarum rerum aliena, 1065
 ut mihi multa parum genere ex hoc suppeditentur
 quae memorare queam inter se singlariter apta.
 Saxa uides primum sola colescere calce.
 Glutine materies taurino iungitur una,
 ut uitio uenae tabularum saepius hiscant 1070
 quam laxare queant compages taurea uincla.
 Vitigeni latices aquai fontibus audent
 misceri, cum pix nequeat grauis et leue oliuom.
 Purpureusque color conchyli iungitur una
 corpore cum lanae, dirimi qui non queat usquam, 1075
 non si Neptuni fluctu renouare operam des,
 non, mare si totum uelit eluere omnibus undis.
 Denique non auro res aurum copulat una
 aerieque <aes> plumbo fit uti iungatur ab albo?
 Cetera iam quam multa licet reperire. Quid ergo? 1080
 Nec tibi tam longis opus est ambagibus usquam,
 nec me tam multam hic operam consumere par est,
 sed breuiter paucis praestat comprehendere multa:
 quorum ita texturae ceciderunt mutua contra,
 ut caua conueniant plenis haec illius illa 1085
 huiusque inter se, iunctura haec optima constat.
 Est etiam, quasi ut anellis hamisque plicata
 inter se quaedam possint coplata teneri;
 quod magis in lapide hoc fieri ferroque uidetur.

jotzera eta talkatzera beharturik dagoz; imanak, bada, egotzi eta bronzearen bitartez arbuiaatu egiten du normalki erakarri ohi duena.

Honetan, ez zaitezela harritu, imanaren erakarmena beste gauza batzuei eragiteko gauza ez izateaz. Batzuk, pisuak eutsita, geldi geratzen dira, hala nola urrea; beste batzuek hain gorputz porotsua edukirik, jarioa ukitzeke pasatzen da eta ezin du inoiz eragotzia izan; zurak hauetarikoa dirudi. Bien bitartean dagoen burdinak bronzearen zenbait partikula hartzen duenean, berriz, orduan harri magnesiarrak bere korrontean sakatzen dio. Baina gertaera hauek ez dira besteetatik hain bakanak eta antzeko piloa gogora nezake, non gai batzuk beste batzuei bakarrik egokitzen zaizkien. Lehenik, karearekin harria bakarrik batzen dela dakusu. Zurak zezen lekedarekin bakarrik bat egiten du eta oholen hariak maizago apurtuko dira, lekedaren itsaspena askatuko den baino. Mahats urak iturriko urarekin nahastea onartzen du, baina bike astunak eta olio arinak ezin dute. Purpura-arrainaren kolore gorria artilearekin bakarrik biltzen da eta ez da sekula bereziko, artilea Neptunoren olatuekin berritu nahi baduzu ere, itsaso osoak bere uhin guztiekin garbitu nahi balu ere. Azkenik, ez al du urrea urrearekin gai bakarrak bat egiten eta brontzea ez al zaio brontzeari eztaiz bakarrik atxikitzen? Hamaika honelako adibide eman daiteke. Zertarako, osterako? Ez zuk behar duzu honenbeste itzulinguru, ez bidezko da nik zeregin honetan hainbeste ahalegin egitea, aitzitik hobe da labur eta hitz gutxitan gauza asko sartzea: bataren hutsunea bestearen beteari eta alderantziz egokitzeko moduan, kontrako baina elkarrekiko ehundurak dituzten gorputzek euren artean juntura ezin hobea egiten dute. Badago baita, eraztunez eta gako bezala, zenbait gauza bata-bestearekin krokaturik edukitzea; imanean eta burdinan ere horixe gertatzen da, nonbait.

Nunc ratio quae sit morbis aut unde repente 1090
 mortiferam possit cladem conflare coorta
 morbida uis hominum generi pecudumque cateruis,
 expediam. Primum multarum semina rerum
 esse supra docui quae sint uitalia nobis,
 et contra quae sint morbo mortique necessest 1095
 multa uolare; ea cum casu sunt forte coorta
 et perturbarunt caelum, fit morbidus aer.
 Atque ea uis omnis morborum pestilitasque
 aut extrinsecus ut nubes nebulaeque superne
 per caelum uienunt, aut ipsa saepe coorta 1100
 de terra surgunt, ubi putorem umida nactast
 intempestiuus pluuiisque et solibus icta.
 Nonne uides etiam caeli nouitate et aquarum
 temptari procul a patria quicumque domoque
 adueniunt ideo quia longe discrepant res? 1105
 Nam quid Britannis caelum differre putamus,
 et quod in Aegypto est qua mundi claudicat axis,
 quidue quod in Ponto est differre, et Gadibus atque
 usque ad nigra uirum percocto saecla colore?
 Quae cum quattuor inter se diuersa uidemus 1110
 quattuor a uentis et caeli partibus esse,
 tum color et facies hominum distare uidentur
 largiter et morbi generatim saecla tenere.
 Est elephas morbus qui propter flumina Nili
 gignitur Aegypto in media neque praeterea usquam. 1115
 Atthide temptatur gressus oculique in Achaeis
 finibus. Inde aliis alius locus est inimicus
 partibus ac membris: uarius concinnat id aer.
 Proinde ubi se caelum quod nobis forte alienum
 commouet atque aer inimicus serpere coepti, 1120
 ut nebula ac nubes paulatim repit et omne
 qua graditur conturbat et immutare coactat,
 fit quoque ut, in nostrum cum uenit denique caelum,
 corrumpat reddatque sui simile atque alienum.
 Haec igitur subito clades noua pestilitasque 1125
 aut in aquas cadit aut fruges persidit in ipsas,
 aut alios hominum pastus pecudumque cibatus,

Orain gaixotasunen arrazoia azalduko dizut, nondik datorren
 gizakien eta animalien artean bat-batean heriotza zabaltzen duen indar
 gaizto hori. Lehenik, gorago azaldua dut badela bizia damaigun hain-
 bat hazi eta, alderantziz, gaixotasunaren eta heriotzaren hainbat hazik
 ere egon behar du; hauek ezbeharrez edo halabeharrez sortzen eta
 ortzia zitaltzen dutenean, airea gaixogarri bihurtzen da. Eta gaixoen
 indar eta izurritasun hau guztia edo ortzian zehar kanpotik dator,
 hodeiak eta lainoak bezala, edo sarritan lurtean bertan biltzen eta sor-
 tzen da, zoru hezea, euri eta bero ezgaraikoen eraginez, usteltzen has-
 ten denean. Ez al dakusu klimaren eta uren aldakuntzak nola erasotzen
 dien etxetik eta herritik urrun doazenei, gauzak hain ezberdinak dire-
 lako, hain zuzen? Zeren, zer alde dagoela uste dugu Britainiako kli-
 matik munduaren ardatza okertzen den Egiptokora, edo zer alde dago
 Pontotik Cádizera eta kolore erreko herri beltzetara? Eta lau aldeok
 lau haizeen eta lau ortzialdeen arabera direla ezberdinak dakusgun
 bezala, gizakiak ere halaxe ezberdintzen dira azalkeraren eta aurpegi-
 keraren arabera eta enda bakoitzari bere gaixotasunak dagozkio. Bada
 elefantiasia, Egipto erdian, Nilo ibai inguruan sortzen dena eta inoiz
 ere ez beste inon. Atikan hankak eta Akaiako bazterretan begiak eri-
 tzen dira. Honela, leku bakoitza lohadar edo organo ezberdinen etsai
 da, airea ere ezberdina delako. Horrela, bada, ortzian guri arrotz zai-
 gun korronea abiatzen eta aire etsaia zabaltzen hasten denean, apur-
 ka-apurka, hodei-lainoak bezala, lerratzen eta iragaiten den alderdi
 guztiak okertzen eta aldarazten dituztenean, orduan gertatzen da ezen,
 halako batean gure zerura iristean, andeatu, bere antzekotu eta gure
 etsai bihurtzen duela. Berehala gaitz berri edo izurri hau edo uretara
 jausten da, edo uztetan sartzen da, edo beste giza janari eta abere

aut etiam suspensa manet uis aere in ipso
 et, cum spirantes mixtas hinc ducimus auras,
 illa quoque in corpus pariter sorbere necessest. 1130
 Consimili ratione uenit bubus quoque saepe
 pestilitas et iam pigris balantibus aegror.
 Nec refert utrum nos in loca deueniamus
 nobis aduersa et caeli mutemus amictum,
 an caelum nobis ultro natura corruptum 1135
 deferat aut aliquid quo non consueuimus uti,
 quod nos aduentu possit temptare recenti.

Haec ratio quondam morborum et mortifer aestus
 finibus it Cecropis funestos reddidit agros
 uastatique uias, exhaustit ciuibus urbem. 1140
 Nam penitus ueniens Aegypti finibus ortus,
 aera permensus multum camposque natantis,
 incubuit tandem populo Pandionis omni
 Inde cateruatim morbo mortique dabantur.
 Principio caput incensum feruore gerebant 1145
 et duplicis oculos suffusa luce rubentes.
 Sudabant etiam fauces intrinsecus atrae
 sanguine et ulceribus uocis uia saepta coibat
 atque animi interpres manabat lingua cruore
 debilitata malis, motu grauis, aspera tactu. 1150
 Inde ubi per fauces pectus complerat et ipsum
 morbida uis in cor maestum confluxerat aegris,
 omnia tum uero uitai claustra lababant.
 Spiritus ore foras taetrum uoluebat odorem,
 rancida quo perolent proiecta cadauera ritu. 1155
 Atque animi prorsum <tum> uires totius, omne
 languebat corpus leti iam limine in ipso.
 Intolerabilibusque malis erat anxius angor
 absidue comes et gemitu commixta querella.
 Singultusque frequens noctem per saepe diemque 1160
 corripere adsidue neruos et membra coactans
 dissoluebat eos, defessos ante, fatigans.
 Nec nimio cuiquam posses ardore tueri
 corporis in summo summam feruescere partem,

bazka batzuetan, edo eguratsean bertan dingiliz geratzen da; eta, aire nahasi hauxe arnasten dugunez, gaitza bera ere batera gorputzeratu behar. Sarritan idiak eta beekari nagiak ere horrelaxe jotzen ditu gaitzak eta eritasunak. Eta berdin dio kaltegarri zaizkigun atzerrietara geu joan gaitzen eta eguratsa alda dezagun, ala naturak berak ekar diezagun egurats ustela edo gure ohiturei ez dagokien zerbait, batbateko etorreraz gaixoaraz gaitzakeena.

Zenbait izurriren modu eta hats hilgarri honek behinola Kekroperen lursailak beltzez jantzi zituen eta bideak hondatu zituen, hiriak gorritu zituen. Bere barrenean jaio zen Egiptotik etorrita, airealde izugarria eta itsas zelai guztia zeharkatu ondoren, azkenean Pandionen herri osoaren gainean kokatu zen. Harrezkero, aldraka makurtzen ziren izurrira eta heriotzara. Lehenengotan, burua sukarrez galdan zeukaten eta begi biak argi lausoan gorri-gorri; zintzur beztuei odola zerien, ultzeraz trabaturiko ahots-bidea ixten zitzairen eta mihia, gogoaren mezularia, odoletan zen, gaitzak ahuldua, mugitzeko sor, ukitzeko latz. Gero, gaitzak zintzurretik bularra jotzen eta gaixoen bihotza bera harrapatzen zuenean, bizi-zulo guztiak dardaratzen ziren. Arnasak ahotik kirats higuigarria botatzen zuen, hilotz abandonatuek usteltzean zabaltzen duten antzekoa. Eta gero, gogoa eta gorputza erabat indargatzen ziren, jadanik heriotzaren atarian bertan. Eta gaitz jasangaitzen lagun, estura larri etengabea eta aienez nahasiriko auhenak zetozen. Eta zotin zarratuak gau eta egun astintzen zituen kirioak, eta espasmoek lohadarrak inarosten zituzten, lehendik nekatuak akitzuz. Ez zegoen gorputzaren gainazalean edo kanpo aldeetan lama gehiegizkorik somatzerik, baizik areago ukidura epela eskaintzen

sed potius tepidum manibus proponere tactum
et simul ulceribus quasi inustis omne rubere
corpus, ut est per membra sacer dum diditur ignis.
Intima pars hominum uero flagrabat ad ossa,
flagrabat stomacho flamma ut fornacibus intus.
Nil adeo posses cuiquam leue tenueque membris
uertere in utilitatem, at uentum et frigora semper.
In fluuios partim gelidos ardentia morbo
membra dabant nudum iacentes corpus in undas.
Multi praecipites nymphis putealibus alte
inciderunt ipso uenientes ore patente:
insedabiliter sitis arida, corpora mersans,
aequabat multum paruis umoribus imbrem.
Nec requies erat ulla mali: defessa iacebant
corpora; mussabat tacito medicina timore,
quippe patentia cum totiens ardentia morbis
lumina uersarent oculorum expertia somno.
Multaque praeterea mortis tum signa dabantur,
perturbata animi mens in maerore metuque,
triste supercilium, furiosus uoltus et acer,
sollicitae porro pleneaque sonoribus aures,
creber spiritus aut ingens raroque coortus,
sudorisque madens per collum splendidus umor,
tenuia sputa minuta, croci contacta colore
salsaque, per fauces rauca uix edita tussi.
In manibus uero nerui trahere et tremere artus
a pedibusque minutatim succedere frigus
non dubitabat; item ad supremum denique tempus
compressae nares, nasi primoris acumen
tenue, cauati oculi, caua tempora, frigida pellis
duraque, in ore iacens rictum, frons tenta manebat.
Nec nimio rigida post artus morte iacebant.
Octauoque fere candenti lumine solis
aut etiam nona reddebant lampade uitam.
Quorum siquis, ut est, uitarat funera leti,
ulceribus taetris et nigra proluuie alui
posterius tamen hunc tabes letumque manebat,
aut etiam multus capitis cum saepe dolore

1165

1170

1178

1174

1175

1179

1180

1185

1190

1195

1200

eskuei eta aldi berean gorputz osoa halako ultzera errez gorritua zen, su sakratuak lohadarrak inguratzean bezala. Barne goritasunak hezurretaraino sutzen zituen gizakiak, garra labexkan bezala sutzen zitzaien urdailean. Hala, ez zegoen lohadarrentzat balio zezakeen oihal arin eta leunik, beti haize freskoa baizik. Batzuek euren lohadar gaixoz sukartuak erreka izoztuetan sartzen zituzten, gorputz biluzia uhinei jaurtiz. Asko buruz behera amiltzen ziren osin sakonetan eta ahoa jadanik zabalik jausten ziren bertan. Gorputza murgilarazten zien egarri lehor asegaizari, oster, berdin zitzaizkion tantatxo batzuk zein euri mardula. Ez zegoen gaitzetik atsedenek: gorputzak jota zeutzan; medikuntza, beldur isilez, noraezean zebilen, izurridunen begi sutuak, noiznahi irekiak, okertzen ziren bitartean, loa ere galdurik. Baziren heriotzaren beste seinale batzuk ere: gogoa izuz eta esturaz perturbatua, bekosko errukarria, aurpegi latz eta sumindua, belarri gerakak eta burrundaz beteak, arnasa bizkorra edo geldi eta sakona, lepoa izerdi loditan blai, karkaisa txiki indargak, gaziak eta azafrai kolorekoak, ez tul zakarrak zintzurrari nekez kenduak. Eskuetako giharreak kizkurtzen eta lohadarrak dardaratzen ziren eta oinetatik gora, astiro-astiro, hotza erruki gabe zetorren; azkenean, berriz, sudurak uzkurtzen ziren, punta zorrotz, begiak zulo, lokiak huts, azala hotz eta gogor, aho zabal jausia, bekokia tiran geldi. Eta lohadarrak laster zeutzan heriotza zurrunean. Eguzkiaren zortzigarren argi gorian edo bederatzigarren zuzi aldian, hor nonbait, haienak egina zuen. Inork, halabeharrez, herio hiletarik ekiditen bazuen, berari ere gero, ultzera nazkagarritz eta sabel jario beltzez, galmenak eta heriotzak itxaroten zion, edo sarritan burukomin handiz, sudur beteetatik odol

corruptus sanguis expletis naribus ibat:
 huc hominis totae uires corpusque fluebat.
 Profluuium porro qui taetri sanguinis acre
 exierat, tamen in neruos huic morbus et artus
 ibat et in partis genitalis corporis ipsas. 1205
 Et grauiter partim metuentes limina leti
 uiuebant ferro priuati parte uirili,
 et manibus sine nonnulli pedibusque manebant 1210
 in uita tamen, et perdebant lumina partim:
 usque adeo mortis metus his incesserat acer
 Atque etiam quosdam cepere obliuia rerum
 cunctarum, neque se possent cognoscere ut ipsi.
 Multaque humi cum inhumata iacerent corpora supra 1215
 corporibus, tamen alituum genus atque ferarum
 aut procul absiliebat, ut acrem exiret odorem,
 aut, ubi gustarat, languebat morte propinqua.
 Nec tamen omnino temere illis solibus ulla 1220
 comparebat auis, nec <tris>tia saecla ferarum
 exhibant siluuis: languebant pleraque morbo
 et moriebantur. Cum primis fida canum uis
 strata uiis animam ponebat in omnibus aegre;
 extorquebat enim uitam uis morbida membris.
 Incomitata rapi certabant funera uasta, 1225
 nec ratio remedi communis certa debatur;
 nam quod ali dederat uitalis aeris auras
 uoluere in ore licere et caeli templa tueri,
 hoc aliis erat exitio letumque parabat.
 Illud in his rebus miserandum magnopere unum 1230
 aerumnabile erat, quod ubi se quisque uidebat
 implicitum morbo, morti damnatus ut esset,
 deficiens animo maesto cum corde iacebat,
 funera respectans animam amittebat ibidem.
 Quippe etenim nullo cessabant tempore apisci 1235
 ex aliis alios auidi contagia morbi,
 lanigeras tamquam pecudes et bucera saecla. 1245
 Idque uel in primis cumulabat funere funus. 1237
 Nam quicumque suos fugitabant uisere ad aegros,
 uitai nimium cupidos mortisque timentis

ustela bar-bar zerion: hortixek alde egiten zuen gizakiaren indar eta
 izate guztiak. Eta odol ustelduaren jario beldurgarritik libratzen zena-
 ri izurriak kirioak, giltzadurak eta parte genitalak eurak jotzen zikion.
 Batzuk, heriotzaren munarri bistaratuek ikaraturik, euren gizon seina-
 leak burdinaz moztuta bizi ziren, eta beste batzuek, ez esku ez hanka,
 hala ere, bizi nahi zuten; beste batzuek begiak galtzen zituzten: herio-
 tzaren bieldur latza hain barrura sartu zitzairen. Batzuk gauzen memo-
 ria ere erabat galtzen hasi ziren, elkar ez ezagutzeraino. Lurrean gorpu
 ehortzi gabeak gorpuen gainean erruz zeutzan arren, hala ere, hegaz-
 tiak eta piztiak galdu-gordean aldentzen ziren, kirats bortitzari ihesi,
 edo, dastatzen bazuten, heriotza hurbilak irensten zituen. Gainera-
 koan, egun haietan ez zen hegaztien lorratzik ere ageri eta basapiztia
 gizajoak ez ziren oihanetik inoratzen: gehienak, izurrira etsiak, bertan
 akabatzen ziren. Batez ere txakurren enda leialak, kale guztietan luze,
 oinazetan entregatzen zuen arima; gaitzak lohadarretatik bizia erauz-
 ten baitzien. Hileta bakarti lagun gabeek zein lasterrago ziharduten,
 eta ez zegoen erremedio orokor segurrik, batari airearen bizi-aurak
 arnastea zekarkiona besteari pozoin eta hilgarri zitzaion eta. Baina
 hango tristeena eta penagarriena zen ezen, inork bere burua kutsaturik
 somatzen bazuen, heriotzara kondenaturik bailegoan, gogo gabe eta
 bihotz nahigabetuz etzaten zela eta heriotzari begira biziari bertan
 jareiten ziola. Izan ere, gaitz asegaiztaren kutsapenak ez zion bate-
 tik bestera saltatzeari uzten, azienda artiledun eta idi saldoetan
 bezala. Hauxe zen batez ere hilak hilen gainean pilatzen zituena.
 Zeren, bizigura handiegiz edo heriotzaren beldurrez, ahaide gai-
 xoak bisitatzeari albo egiten ziotenek bueltan heriotza zakar eta
 errukarriaren zigorra jasotzen zuten, bakarrik, laguntza gabe, bertan

poenibat paulo post turpi morte malaque, 1240
desertos, opis expertis, incuria mactans.
Qui fuerant autem praesto, contagibus ibant
atque labore, pudor quem tum cogebat obire 1244
blandaue lassorum uox mixta uoce querellae.
Optimus hoc leti genus ergo quisque subibat. 1246

* * *

inque aliis alium, populum sepelire suorum
certantes: lacrimis lassi luctuque redibant;
inde bonam partem in lectum maerore dabantur. 1250
Nec poterat quisquam reperiri, quem neque morbus
nec mors nec luctus temptaret tempore tali.
Praeterea iam pastor et armentarius omnis
et robustus item curui moderator aratri
languabat, penitusque casa contrusa iacebant 1255
corpora paupertate et morbo dedita morti.
Exanimis pueris super exanimata parentum
corpora nonnumquam posses retroque uidere
matribus et patribus natos super edere uitam.
Nec minimam partem ex agris is maeror in urbem
confluxit, languens quem contulit agricolarum 1260
copia conueniens ex omni morbida parte.
Omnia complebant loca tectaque; quo magis aestu
confertos ita aceruatim mors accumulabat.
Multa siti prostrata uiam per proque uoluta
corpora silanos ad aquarum strata iacebant 1265
interclusa anima nimia ab dulcedine aquarum,
multaque per populi passim loca prompta uiasque
languida semanimo cum corpore membra uideres
horrida paedore et pannis cooperta perire
corporis inluuie; pelli super ossibus una, 1270
ulceribus taetris prope iam sordeque sepulta.
Omnia denique sancta deum delubra repletat
corporibus mors exanimis onerataque passim
cuncta cadaueribus caelestum templa manebant,
hospitibus loca quae complerant aedituentes. 1275
Nec iam religio diuom nec numina magni

behera hiltzen zirela. Laguntzen saiatzen zirenak, berriz, neke eta kutsupean jausten ziren, ohoreak eta hil-hurrenen erregu-abots kexuz nahasiak hartaturik. Prestuenek honelakoxe heriotza modua irabazten zuten.

* * *

[[Hilotzak non jausi, bertan lurperatzen zituzten]] elkarren gainean, bakoitza bere senideak lurperatzen saiatuz; malkoz eta negarrez husturik itzultzen ziren; gero asko eta asko desesperazioz bertan oheratzen ziren. Ez zegoen inor aurkitzerik, aldi hartan izurriak edo heriotzak edo lutuak jota ez zebilenik.

Artzainak, abeltzainak eta golde okerraren eramaleak ere jota zeuden, eta haien gorputzak borda barrenetan pilatuko ziren, lazeriak eta izurriak akaba zitzan. Inoiz guraso hilen gorpuak haur bizigabeen gainean ikusiko zenituen eta seme-alabak aita-amen gainean azken arnasa uzten. Hondamena gehienbat baserrietatik hiriratu zen, alde kutsatu guztietatik zetorren baserritar olde gaixotuak ekarria. Etxe eta etxepe guztiak betetzen zituzten; horrela pilatuak heriotzak hainbat errazago metatuko zituen. Gorputz asko, egarriak eraitsiak eta kalean iraulka, iturri tutuen azpian luze zeutzan, edari gozoaren gehiegiak itota, eta asko eta asko euren gorputz erdi-hilak herriko kale eta leku publikoetan arrastatzen eta negargarri hiltzen ikusiko zenituen, zikinenez eta zarpailez josiak, hezurren gainean azal huts, ultzera zantarrek eta ustelmenak ia lurperatuak. Heriotzak jainkoen etxe santu guztiak ere gorputz bizigabez beteak zituen, eta zerutarren tenpluak ere hilotzez gainezka zeuden nonahi, jagoleek tokiok bisitariz bete baitzituzten. Ez erlijioari ez jainkoen ahal handiari begiratzen zioten: oinaze

pendebantur enim: praesens dolor exsuperabat.
Nec mos ille sepulturae remanebat in urbe,
quo prius hic populus semper consuerat humari;
perturbatus enim totus trepidabat, et unus
quisque suum pro re <defunctum> maestus humabat.
Multaque <res> subita et paupertas horrida suasit.
Namque suos consanguineos aliena rogorum
insuper extracta ingenti clamore locabant
subdebantque faces, multo cum sanguine saepe
rixantes potius quam corpora desererentur.

1280

1285

presentea gainetik zegoen. Ez zen hirian jagoten lurperakera hura ere, zeinaren arabera lur-ematen ohitua zen beti herri hau; dena hankaz gora zebilen, eta bakoitzak, noraezean, ahal bezala ehorzten zituen bere senideak. Bat-bateko premiak eta ezerez gorriak izugarrikeria asko eragin zuen. Batzuek beste batzuentzat kalapita handiz jasotako txondorretan ezartzen zituzten ahaideak eta su ematen zieten, sarritan liskar odoltsuak eginez, gorpuak abandonatu baino lehenago.

Aurkibidea

HITZAURREA.....	7
OHARRAK.....	23
BIBLIOGRAFIA.....	25
LIBER PRIMUS.....	28
<i>Lehen liburua</i>	29
LIBER SECUNDUS.....	94
<i>Bigarren liburua</i>	95
LIBER TERTIUS.....	162
<i>Hirugarren liburua</i>	163
LIBER QUARTUS.....	228
<i>Laugarren liburua</i>	229
LIBER QUINTUS.....	304
<i>Bosgarren liburua</i>	305
LIBER SEXTUS.....	390
<i>Seigarren liburua</i>	391